

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa

**Aitor Iglesias Chaves**

([aitor.iglesias@ehu.eus](mailto:aitor.iglesias@ehu.eus))

**Zuzendaria: Gotzon Aurrekoetxea**

**Doktoretza-tesia**

Gasteiz, 2014



## Edukien aurkibidea

1. Sarrera.....	12
1.1. Igorreko hizkera aztertzeko arrazoiak.....	12
1.2. Igorreko herria eta bertako hizkeraren inguruko aurrekariak.....	13
1.2.1. Kokapen fisikoa.....	13
1.2.2. Biztanleria eta jarduera ekonomikoa.....	13
1.2.3. Datu soziolinguistikoak.....	13
1.2.4. Historia.....	14
1.2.5. Igorreko idazleak.....	14
1.2.6. Kokapen linguistikoa.....	16
1.2.7. Ahozko ondarea.....	21
1.3. Helburu orokor eta zehatzak.....	27
1.4. Oinarri teorikoa.....	29
1.4.1. Aurrekariak euskal dialektologian.....	29
1.4.2. Tesian erabilitako marko teorikoak.....	35
1.4.2.1. Hierarkia prosodikoa.....	35
1.4.2.2. Dialektologia kontrastiboa eta dialektometria.....	47
1.5. Metodologia.....	52
1.5.1. Aztertutako hizkera.....	52
1.5.2. Azterketa sinkronikoa.....	54
1.5.3. Datuak jasotzea.....	54
1.5.4. Lanaren atalak.....	57
1.6. Aurreikuspena, hipotesia.....	60
2. Fonologia.....	62
2.1. Fonemak.....	62
2.1.1. Bokalak.....	62
2.1.1.1. Bokalen inbentarioa.....	62
2.1.2. Kontsonanteak.....	63
2.1.2.1. Kontsonanteen inbentarioa.....	63
2.1.2.1.1. Taula fonetikoa.....	64
2.1.2.1.2. Taula fonologikoa.....	65
2.1.2.1.3. Transliterazio taula.....	66
2.1.2.1.4. Herskariak.....	66
2.1.2.1.5. Sudurkariak.....	72
2.1.2.1.6. Dardarkariak.....	78
2.1.2.1.7. Frikariak.....	80
2.1.2.1.8. Afrikariak.....	86
2.1.2.1.9. Albokariak.....	88
2.2. Silaba: diptongoak.....	92
2.2.1. Diptongoen inbentarioa.....	92
2.2.2. Diptongoen distribuzioa.....	93
2.2.2.1. Beheranzko diptongoak.....	93
2.2.2.2. Goranzko diptongoak.....	93
2.3. Hitz fonologikoa.....	95
2.3.1. Bokal eremuko arauak.....	95
2.3.1.1. Arau fonologikoak.....	95

2.3.1.1.1. Asimilazioak.....	95
2.3.1.1.2. Bokal protetikoa.....	95
2.3.1.1.3. Diptongoak.....	96
2.3.1.1.4. Aldaketa ez sistematikoak.....	99
2.3.1.2. Arau morfofonologikoak.....	100
2.3.1.2.1. a + a > ea.....	100
2.3.1.2.2. e + a > ea.....	100
2.3.1.2.3. i + a > ie.....	101
2.3.1.2.4. o + a > oa.....	101
2.3.1.2.5. u + a > ue.....	101
2.3.1.3. Morfema mugen gaineko arauak.....	101
2.3.1.3.1. i + a > ie.....	101
2.3.1.3.2. u + a > ue.....	102
2.3.1.3.3. Bokalen arteko shandiak.....	103
2.3.2. Kontsonante eremuko arauak.....	104
2.3.2.1. Arau fonologikoak.....	104
2.3.2.1.1. Palatalizazioa.....	104
2.3.2.2. Arau morfofonologikoak.....	107
2.3.2.2.1. Kontsonanteen arteko shandiak.....	107
2.3.2.2.2. Sinkopak.....	111
2.4. Azentua.....	112
2.4.1. Aurrekariak.....	112
2.4.1.1. Azentuaren ezaugarriak: aurrekariak.....	112
2.4.2. Talde prosodikoaren azken silabaren estrametrikalitatea.....	113
2.4.3. Azentuaren deskribapena izen eta adjektiboetan.....	114
2.4.3.1. Oinarri markatugabeen azentuera.....	114
2.4.3.2. Azentu arauak.....	116
2.4.3.2.1. Oinarri markatugabeen singularra eta plurala.....	116
2.4.3.2.2. Oinarri markatugabeen plurala.....	116
2.4.3.2.3. ‘-a’-z amaitutako berbak.....	117
2.4.3.2.4. Beste deklinabide-kasuak.....	119
2.4.3.2.5. Atzizki eta oinarri markatuak.....	121
2.4.3.2.6. Oinarri silaba biko berbak oinarri silaba biko baino luzeagoko berben azentu moldearekin.....	124
2.4.3.3. Hitz azentudunak eta azentugabeak.....	124
2.4.4. Azentuaren deskribapena aditzean.....	125
2.4.4.1. Aditz-partizipioak.....	125
2.4.4.2. Oinarri eta atzizki markatuak.....	126
2.4.5. Azentu bereizgarria syntaxian.....	127
2.4.5.1. ba- aurrizkia baiezko eta baldintza-perpausetan.....	127
2.4.5.2. Agintezkoak vs osagarritzkoak.....	128
2.4.5.3. Mendekoak vs ez-mendekoak.....	128
2.4.5.4. Iraganeko mendekoak vs ez-mendekoak.....	128
2.4.7. Ondorioak.....	128
2.5. Sumarioa eta ondorioak.....	129
3. Izen-sintagma.....	134
3.1. Izena.....	134
3.1.1. Izena, izen-sintagmaren ardatza.....	134

3.1.2. Izenen sailkapena.....	135
3.1.3. Generoa.....	135
3.2. Adjektiboa.....	136
3.2.1. Izenondoak.....	136
3.2.1.1. Izenondoaren kokagunea.....	136
3.2.1.2. Izenondoaren mailakatzea.....	136
3.2.1.2.1. Marka fonetikoak.....	136
3.2.1.2.2. Marka morfologikoak.....	136
3.2.1.2.3. Maila adberbioak eta zenbatzaile batzuk.....	137
3.2.1.2.4. Konparaketak.....	139
3.2.1.3. Izenondoa predikatu osagarri denean.....	141
3.2.1.3.1. Izan aditzarekin.....	141
3.2.1.3.2. Egon aditzarekin.....	142
3.2.1.3.3. Izena atributua denean.....	142
3.2.2. Izenlagunak.....	142
3.2.3. Aposizioa.....	142
3.3. Deklinabidea.....	142
3.3.1. Izen arrunten deklinabidea.....	143
3.3.1.1. Bokalez amaitutako izen arruntak.....	143
3.3.1.1.1. “a”z amaitutakoak.....	143
3.3.1.1.2. “e”z amaitutakoak.....	144
3.3.1.1.3. “i”z amaitutakoak.....	145
3.3.1.1.4. “o”z amaitutakoak.....	146
3.3.1.1.5. “u”z amaitutakoak.....	147
3.3.1.2. Kontsonantez amaitutako izen arruntak.....	148
3.3.1.3. Plural hurbila.....	149
3.3.2. Izen bereziak.....	150
3.3.2.1. Bokalez amaitutako izen bereziak.....	150
3.3.2.2. Kontsonantez amaitutako izen bereziak.....	151
3.3.3. Deklinabide-kasuak.....	152
3.3.3.1. Absolutiboa.....	154
3.3.3.2. Ergatiboa.....	154
3.3.3.3. Datiboa.....	155
3.3.3.4. Partitiboa.....	155
3.3.3.5. Genitiboa.....	155
3.3.3.6. Soziatiboa.....	156
3.3.3.7. Motibatiboa.....	157
3.3.3.8. Destinatiboa.....	158
3.3.3.9. Instrumentala.....	158
3.3.3.10. Prolatiboa.....	159
3.3.3.11. Inesiboa.....	160
3.3.3.12. Leku-genitiboa.....	161
3.3.3.13. Ablatiboa.....	161
3.3.3.14. Adlatiboa.....	162
3.3.3.15. Hurbiltze adlatiboa.....	163
3.3.3.16. Muga adlatiboa.....	163
3.3.3.17. Destinatibo adlatiboa.....	164
3.3.3.18. Inesiboa bizidunekin.....	164

3.3.3.19. Ablatiboa bizidunekin.....	164
3.3.3.20. Adlatiboa bizidunekin.....	165
3.3.3.21. Hurbiltze adlatiboa bizidunekin.....	165
3.3.3.22. Muga adlatiboa bizidunekin.....	166
3.3.4. Ondorioak.....	166
3.4. Arau morfologikoak.....	167
3.4.1. Lotura-hizkia.....	167
3.4.2. Mugagabea vs mugatua.....	168
3.4.3. Bizigabeen deklinabideari buruz.....	169
3.4.4. Singularra vs plurala.....	170
3.4.5. Deklinabide-kasuak.....	171
3.4.6. Azentu ezarketa.....	172
3.4.7. Arau fonologikoak.....	173
3.4.8. Azentu ezarketaren eta arau fonologikoaren hurrenkeraz.....	174
3.5. Izenordainak.....	175
3.5.1. Pertsona izenordainak.....	175
3.5.1.1. Ni.....	176
3.5.1.2. I.....	176
3.5.1.3. Su.....	176
3.5.1.4. Berori.....	177
3.5.1.5. Bera.....	177
3.5.1.6. Gu.....	177
3.5.1.7. Suek.....	178
3.5.1.8. Suok (Plural hurbila).....	178
3.5.1.9. Eurek.....	178
3.5.1.10. Eurok (Plural hurbila).....	179
3.5.1.11. Izenordain indartuen erabilera.....	179
3.5.2. Izenordain zehaztugabeak.....	180
3.5.2.1. Galdetzaileak.....	180
3.5.2.1.1. Nor / Nortzuk.....	180
3.5.2.1.2. Ser / Sertzuk.....	181
3.5.2.1.3. Sein / Seintzuk.....	181
3.5.2.2. Galdetzaileetatik erakarritako izenordain zehaztugabeak.....	182
3.5.2.2.1. Serbait.....	182
3.5.2.2.2. Seoser / Nonor / Batonbat.....	182
3.5.2.2.3. Edoser / Edosein / Edonor.....	182
3.5.2.2.4. Sergure / Seingure.....	183
3.5.2.2.5. Eser / Iñor.....	183
3.5.2.2.6. Nobera.....	184
3.5.2.2.7. Erabilera.....	185
3.5.2.3. Bestelako izenordain zehaztugabeak.....	185
3.5.2.3.1. Arian.....	185
3.5.2.3.2. Beste.....	186
3.5.3. Bihurkariak eta elkarkariak.....	186
3.5.3.1. X-en burua.....	187
3.5.3.2. Arkal.....	187
3.5.3.3. Bata beste.....	187
3.6. Determinatzaileak.....	188

3.6.1. Mugatzaileak.....	188
3.6.1.1. Artikulua.....	188
3.6.1.2. Erakusleak.....	188
3.6.1.2.1. Erakusleen erro eta formak.....	188
3.6.1.2.2. Erakusle indartuak: -xe / ber-.....	190
3.6.1.2.3. Erakusleen funtzioa.....	192
3.6.1.2.4. Erakusleen lekua.....	193
3.6.2. Zenbatzaileak.....	194
3.6.2.1. Zenbatzaile zehaztuak.....	194
3.6.2.1.1. Zenbatzaile zehaztuen zerrenda.....	194
3.6.2.1.2. Zenbatzaile zehaztuen lekua.....	194
3.6.2.1.3. Bat.....	195
3.6.2.1.4. Balio enfatikoa.....	197
3.6.2.1.5. Orduak.....	197
3.6.2.1.6. Urteak eta data.....	198
3.6.2.1.7. Frakzioak.....	199
3.6.2.1.8. Deklinabidea.....	199
3.6.2.1.9. Nola izendatu zenbatzaileak.....	199
3.6.2.1.10. Komuntadura aditzarekin.....	200
3.6.2.1.11. Ordinalak.....	201
3.6.2.1.12. Multzotik aukera egitean: -etatik / -rik.....	201
3.6.2.1.13. Adjektibo biderkatzaileak: bakotxa, bikotxa.....	201
3.6.2.1.14. Banatzaileak: -na / -ko.....	202
3.6.2.1.15. Aldien adieraztasuna: bider / -tan.....	202
3.6.2.1.16. Esapideak: eta biok/irurok..., gaur sortzi.....	203
3.6.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak.....	203
3.6.2.2.1. Batzuk.....	204
3.6.2.2.2. Asko.....	205
3.6.2.2.3. Gitxi.....	205
3.6.2.2.4. Ugeri.....	206
3.6.2.2.5. Urri.....	206
3.6.2.2.6. Onenbeste, orrenbeste, ainbeste.....	206
3.6.2.2.7. Naiko.....	207
3.6.2.2.8. Ainbet.....	208
3.6.2.2.9. Makina (bat).....	208
3.6.2.2.10. Apur bet.....	208
3.6.2.2.11. Areak.....	209
3.6.2.2.12. Eskandalu.....	209
3.6.2.2.13. Bastante.....	209
3.6.2.2.14. Senbekure, semekure.....	209
3.6.2.2.15. Gurañe.....	210
3.6.2.2.16. Gure dana.....	210
3.6.2.2.17. Edo.....	211
3.6.2.1. Zenbatzaile orokorrak.....	211
3.6.2.1.1. Dana.....	211
3.6.2.1.2. Gusti.....	212
3.6.3. Determinatzaile zehaztugabeak.....	213
3.6.3.1. Ser / Sein.....	213

3.6.3.2. Edoser / Edosein.....	213
3.6.3.3. Sergure / Seingure.....	213
3.6.3.4. Beste.....	213
3.7. Sumarioa eta ondorioak.....	214
4. Aditz-sintagma.....	216
4.1. Aditza.....	216
4.1.1. Jokatu gabeko aditzak.....	216
4.1.1.1. Aditz-partizipioak.....	217
4.1.1.2. Aditz-izenak.....	218
4.1.2. Aditz jokatuak.....	220
4.1.2.1. Tratamenduak.....	220
4.1.2.2. Erabilera.....	225
4.1.2.2.1. Aditz-paradigmaren erabilera.....	225
4.1.2.2.2. Aditzen erroak eta morfemak.....	230
4.1.2.2.3. Aditz trinkoen erabilera.....	231
4.1.2.2.4. Aditz faktitiboak.....	232
4.1.3. Aditz-inbentarioa.....	232
4.1.3.1. Aditz laguntzailea.....	233
4.1.3.1.1. Nor.....	234
4.1.3.1.2. Nor-Nori.....	236
4.1.3.1.3. Nor-Nork.....	238
4.1.3.1.4. Nor-Nori-Nork.....	241
4.1.3.2. Aditz trinkoak.....	244
4.1.3.2.1. Egon.....	244
4.1.3.2.2. Etorri.....	244
4.1.3.2.3. Ibili.....	245
4.1.3.2.4. Joan.....	245
4.1.3.2.5. Eduki.....	246
4.1.3.2.6. Jakin.....	247
4.1.3.2.7. Eroan.....	248
4.1.3.2.8. Ekarri.....	249
4.1.3.2.9. Ibili.....	250
4.1.3.2.10. -iño-.....	250
4.1.3.2.11. Iruditu.....	251
4.1.3.2.12. Eragon.....	251
4.2. Adberbia.....	252
4.2.1. Adizlagunak.....	252
4.2.1.1. Kasu-marken bidez sortutakoak.....	252
4.2.1.2. Postposizioen bidez sortutakoak.....	252
4.2.1.2.1. ‘Nor’ eskatzen dutenak.....	252
4.2.1.2.2. Partitiboa eskatzen dutenak.....	254
4.2.1.2.3. ‘Noren’ eskatzen dutenak.....	254
4.2.1.2.4. ‘Nori’ eskatzen dutenak.....	256
4.2.1.2.5. ‘Non’ eskatzen dutenak.....	257
4.2.1.2.6. ‘Nondik’ eskatzen dutenak.....	257
4.2.2. Aditzondoak.....	257
4.2.2.1. Aditzondoaren sailkapen formala.....	257
4.2.2.1.1. Aditzondo bakuna.....	258



4.2.2.1.2. Aditzondo eratorriak.....	258
4.2.2.1.3. Aditzondo konposatuak.....	258
4.2.2.1.4. Kategoria aldaketak.....	258
4.2.2.1.5. Esaera adberbialak.....	259
4.2.2.2. Aditzondoen sailkapen semantikoa.....	259
4.2.2.2.1. Denbora-aditzondoak.....	259
4.2.2.2.2. Leku-aditzondoak.....	262
4.2.2.2.3. Modu-aditzondoak.....	266
4.2.2.2.4. Maila-aditzondoak eta zenbatekoak.....	269
4.2.2.2.5. Iritzi-aditzondoak.....	269
4.2.2.3. Aditzaren ondoko bestelako hitzak.....	270
4.3. Sumarioa eta ondorioak.....	271
5. Sintaxia.....	276
5.1. Perpausa.....	276
5.1.1. Perpaus motak.....	276
5.1.2. Perpaus bakunak.....	276
5.1.2.1. Jokatuak.....	277
5.1.2.2. Jokatugabeak.....	277
5.1.2.3. Adierazpen-perpausak.....	277
5.1.2.4. Galde-perpausak.....	277
5.1.2.4.1. Bai / Ez erako galderak.....	277
5.1.2.4.2. Aukera-galderak.....	278
5.1.2.4.3. Zati-galderak.....	278
5.1.2.5. Aginte-perpausak.....	278
5.1.2.6. Harridura-perpausak.....	278
5.1.2.6.1. Erakusleak eta eratorriak.....	278
5.1.2.6.2. Galdetzailak.....	278
5.1.2.6.3. Baiezkoak.....	278
5.1.2.6.4. Ezezkoak.....	279
5.1.2.6.5. Baietz / Ezetz.....	279
5.1.2.6.6. Be.....	279
5.1.2.6.7. Gero.....	279
5.1.2.6.8. Baya.....	279
5.1.2.6.9. Aditzaren ezabaketa.....	279
5.1.2.6.10. Interjekzioak.....	279
5.1.2.7. Baiezko eta ezezko perpausak.....	280
5.1.3. Perpaus elkartuak.....	280
5.1.3.1. Juntadura.....	280
5.1.3.1.1. Emendiozko juntagailuak.....	281
5.1.3.1.2. Juntagailu hautakariak.....	283
5.1.3.1.3. Aurkaritzako juntagailuak.....	285
5.1.3.2. Menderakuntza.....	287
5.1.3.2.1. Perpaus osagarriak.....	287
5.1.3.2.2. Perpaus erlatiboak.....	292
5.1.3.2.3. Konparazio-perpausak.....	293
5.1.3.2.4. Ondorio-perpausak.....	298
5.1.3.2.5. Helburuzko perpausak.....	299
5.1.3.2.6. Kausazko perpausak.....	300

5.1.3.2.7. Baldintza-perpauzak.....	304
5.1.3.2.8. Denborazko perpauzak.....	306
5.1.3.2.9. Kontzesio-perpauzak.....	313
5.1.3.2.10. Moduzko perpauzak.....	314
5.2. Lokailuak.....	318
5.2.1. Lokailuak: definizioa.....	318
5.2.2. Lokailu motak.....	319
5.2.2.1. Emendiozkoak.....	319
5.2.2.1.1. Be.....	319
5.2.2.1.2. Ganera.....	319
5.2.2.1.3. Beintzet.....	320
5.2.2.1.4. Sikeran.....	320
5.2.2.2. Hautakariak.....	320
5.2.2.2.1. Bestala.....	321
5.2.2.2.2. Ostantzean.....	321
5.2.2.2.3. Espabe.....	321
5.2.2.2.4. Ostein.....	322
5.2.2.3. Aurkaritzakoak.....	322
5.2.2.3.1. Otera.....	322
5.2.2.3.2. Ala ta gustis be.....	323
5.2.2.3.3. Barres.....	323
5.2.2.3.4. En kanbio.....	323
5.2.2.4. Ondoriozkoak.....	323
5.2.2.4.1. Orduen.....	323
5.3. Sumarioa eta ondorioak.....	324
6. Elkarketa eta eratorpena.....	326
6.1. Elkarketa.....	326
6.1.1. Izen elkartuak.....	326
6.1.1.1. Izen elkartu arruntak.....	326
6.1.1.2. Izen elkartu bereziak.....	327
6.1.2. Izenondo elkartuak.....	327
6.1.3. Aditz elkartuak.....	327
6.2. Eratorpena.....	327
6.2.1. Aurrizkiak.....	328
6.2.2. Artizkiak.....	329
6.2.3. Atzizkiak.....	329
6.2.3.1. Izen-sortzaileak.....	329
6.2.3.2. Izenondo-sortzaileak.....	330
6.2.3.3. Aditz-sortzaileak.....	331
6.2.3.4. Aditzondo-sortzaileak.....	331
6.2.3.5. Txikigarriak eta handigarriak.....	332
6.3. Sumarioa eta ondorioak.....	332
7. Emaitzak eta ondorioak.....	336
7.1. Emaitzak.....	336
7.1.1. Gramatika honen arauak.....	336
7.1.1.1. Fonologia.....	337
7.1.1.2. Izen-sintagma.....	338
7.1.1.3. Aditz-sintagma.....	339

7.1.1.4. Sintaxia.....	341
7.1.1.5. Elkarketa eta eratorpena.....	343
7.1.1.6. Lexikoa.....	344
7.1.1.7. Arauak gauzatzeko eremua hierarkia prosodikoan.....	344
7.1.2. Dialektologia tradizionalen emandako ezaugarriak.....	347
7.1.2.1. Zuazo (2008) eta (2014).....	347
7.1.2.2. Gaminde (2007b).....	355
7.1.2.3. Azentuari buruzko sailkapenak: Hualde (1997) eta Gaminde (1998).....	362
7.1.2.4. Hitanoari buruzko sailkapena: Aurrekoetxea (1994).....	362
7.1.3. Azterketa dialektologikoa: Arratiako mendebaldeko mugak zehazten.....	364
7.1.3.1. Azterketa kontrastiboa.....	368
7.1.3.2. Azterketa dialektometrikoa.....	386
7.1.3.3. Análisi bien kritika.....	397
7.2. Ondorioak.....	398
7.2.1. Kokapen linguistikoaz.....	399
7.2.2. Metodologiaz: hierarkia prosodikoaz.....	400
7.2.3. Aurreikuspenaz.....	400
7.2.4. Aurrerantzean.....	402
8. Aipatutako bibliografia eta web-guneak.....	406
1. Eranskina: corpusaren lexikoa.....	418
2. Eranskina: testuak.....	448



# **SARRERA**

## 1. Sarrera

### 1.1. Igorreko hizkera aztertzeo arrazoiak

Lan honetan Igorreko hizkera izango dugu aztergai. Hizkera bat aztertzeo arrazoiak ugariak izan daitezke eta gure kasuan ere badira batzuk. Garrantzitsuena da euskal dialektologian dagoen hutsunetariko bat betetzea da. Dakigunez, eta gerora sakonduko dugunez, Louis Lucien Bonaparteren (1863-1869) sailkapenetatik Arratiako barietatea bizkaieraren barruan kokatuta dugu. Bonaparterengandik hona lan ugari egin diren arren (sailkapen berriak, hizkeren lan-monografikoak, hizkeren konparaketak, aditzari buruzkoak, azentu eta intonazioaren gainekoak...), ez da inoiz Arratiako hizkera baten azterketa sakonik egin. Beraz, barietate honi buruzko datuak lan orokorretan barreiatuta aurkitu behar ditugu.

Esan bezala, Bonapartek egindako lau sailkapenetan Arratiako barietatea mendebaldekoen artean kokatu zuen, baina zoritxarrez, ez zuen aipatu barietate horren ezaugarriak zeintzuk ziren. Gerora, nahiz eta beste sailkapen berri batzuk egin, jarraitu izan dugu auzi hau argitu barik. Zuazok (2008), Bonaparteren antzera, euskalkien sailkapen berria egin zuen. Horretan, berak deituriko “mendebaleko euskara” azpieuskalki bitan banatu zuen: sartaldekoa eta sortaldekoa. Berriki, Zuazok (2014) bere sailkapena berretsi du eta zertxobait zehaztuko du. Horrela, sartaldeko azpieuskalkian multzo nagusi bi bereizten ditu: ipar-sartaldekoa eta hego-sartaldekoa. Hego-sartaldean Arratia ibarra, Zeberio, Orozko, Arrankudiaga, Arakaldo eta Galdakao kokatzen ditu. Nerbioi ibarreko hizkerak ipar-sartalde eta hego-sartaldekoen artean jartzen ditu. Hortaz, Zuazoren arabera, Igorreko hizkera Arratia sartaldeko azpieuskalkian kokatzen da, hego-sartaldeko hizkeren artean, eta honetarako ematen dituen hizkuntza-ezaugarriak bete behar ditu. Gehiago zehaztu nahi badugu, Gaminderen (2007b) lanera jo behar dugu. Lan hau Bizkaian fokalizatzen da. Honetan, gramatika arauak baliatuz azterketa kuantitatibo bat egiten du. Azterketa honen emaitzan Gamindek Arratia mendebaldeko multzoaren barruan kokatzen du. Beraz, laburbilduz, Arratiako edozein hizkerak, Zuazok (2008: 70-88) mendebaldeko sartalderako ematen dituen ezaugarriak, eta Gamindek (2007b) bere lan osoan zehar ematen dituen gramatika arauak bete beharko lituzke.

Arestian aipatutako hutsunea betetzeko asmoz, Arratiako herrien artean Igorre aztertzea erabaki dugu, batez ere, arrazoi sozio-geografikoengatik. Igorre Arratiako erdigune geografikoa izateaz gain, Arratiako erdigune sozio-ekonomikoa ere bada. Esan daiteke Igorre Arratiako hiriburua dela, bertan, industriaz gain, zerbitzu gehienak daudelako: Arratiako mankomunitatearen egoitza, institutu publikoa, era guztietako dendak, tabernak... hau da, beste herri gehienetan aurkitu ezin diren zerbitzuak. Arratiako bilgunea da, gazte zein helduentzat. Helduek lana eta zerbitzuak dituzte, eta gazteek institutua eta jai-giroa. Honekin guztiarekin lotuta, esan behar da Arratiako herririk populatuena dela. Datu hauek guztiak arrazoi onak dira pentsatzeko Arratiako barietatearen ezaugarriak dituen hizkerarik egokienetarikoa dela Igorrekoa.

Lan honek ekarpen nagusi bi dakartza. Alde batetik, lan honekin lehenengo aldiz aztertuko da Arratiako hizkera bat sakonki. Corpus oso bat edukitzeaz gain, behingoz, jakin ahal izango dugu Arratiako hizkera baten gauzatzen diren arauak zeintzuk diren. Horrek, Igorreko hizkeraren azterketa burutu ahal izateak beste auzi bat argitzera garamatza, Arratiako barietatearen mendebaldeko mugak zehaztera, hau da, Zeberioko hizkera Arratiako

barietatekoa den ala ez. Bonapartek bere azken sailkapenean, 1869an burutua, Zeberioko hizkera Arrigorriagako barietatean kokatu zuen. Etxebarriak (1991) bere tesian Zeberioko hizkera aztertu zuen eta horretan aipatu zuen, bere ustez, Arratiakoarekin baterago dagoela beste inguruetakoko edozeinekin baino. Baina Etxebarriak (1991) ez eze, Gamindek (2007b) ere Arratiako multzoan sartzen du Zeberiokoa. Zorionez, gure azterketa burutu ostean, lau lan-monografiko, eta beste hainbat lan orokor, izango ditugu alderaketa sakon bat egiteko Arratia eta Arrigorriagako barietateen artean: Igorrekoa, Zeberiokoa (Etxebarria, 1991), Bilbokoa (Gaminde, 1990e) eta Basaurikoa (Arretxe, 1992). Gure bigarren ekarpenak, jakina, auzi hau argitzea izango du helburu, hau da, Arratiako mendebaldeko muga Zeberio den ala ez.

## 1.2. Igorreko herria eta bertako hizkeraren inguruko aurrekariak

### 1.2.1. Kokapen fisikoa

Igorre Arratia Haraneko eskualdean dago kokatuta, Durangoko epaitegi-barrutian eta 17,52 km<sup>2</sup>ko azalera du. Herriaren koordenadak: 43° 00' 50" N eta 0° 54' 36" E. Hona herriaren mugak: iparraldetik Lemoa; hegoaldetik Arantzazu eta Zeberio; mendebaldetik Bedia eta ekialdetik Dima.

Geografiari dagokionez, udalerrria itsas gainetik 91 metrora dago. Arratia ibaiak hegoaldetik iparralderantz zeharkatzen du Igorre Subitxi, Urkizu eta Indusi errekek hartzen dituela. Mendikate bi daude Igorreko lurretan: Legarmendi eta Mandoia. Legarmendiko hurrengo gailurrak daude udalerrian: Agiñagane (236m), Arlanpe (308m) eta Mintegieta (347m). Mandoiakoak: Apario (406m), Ixedu edo Itxerdi (293m) eta La Bocamina (287m).

### 1.2.2. Biztanleria eta jarduera ekonomikoa

Biztanleriaz esan behar da urtetik urtera gero eta biztanle gehiago izan dela udalerrri honetan.

Biztanleak	1365	1722	1732	1843	2016	2677	3426	3884	3938	3964	4070	4239
Urteak	1900	1920	1940	1950	1960	1970	1981	1991	1998	2002	2007	2010

Ekonomia arloko egituran biztanleen %7 langabezian dago; %1,6k oinarrizko sailean lan egiten du; %49,30ek industria eta eraikuntza sailean eta %49,4k zerbitzuetan.

### 1.2.3. Datu soziolinguistikoak

Egoera soziolinguistikoa: 2006ko inkesta soziolinguistikoaren datuen arabera, Igorren %68,1 euskalduna da, %17,5 ia euskalduna eta %14,4 erdalduna. Esan behar da euskararen ezagutzak beherantz egin duela azken urte hauetan:

Euskararen ezagutza	%67	%73,6	%77,2	%73,4	%68,1
Urtea	1986	1991	1996	2001	2006

Euskaldunen artean %78,8 alfabetatua da, %19,01 erdizka alfabetatua eta %2,17 ez alfabetatua. 2006ko kale erabileraren neurketaren arabera, kaleko erabilera %36,4koa zen (2001ean %32,9koa izan zen) eta daturik esanguratsuen haurren presentziaren eragina izan zen. Erabilera haurren presentziarekin %44,7 bazen ere, haur barik %25,5 baino ez. Berriki, 2011. urtean egindako kale-neurketan euskararen erabilera %46,8 izan da. Beraz, azken urteotan Igorren euskararen ezagutzak behera egin duen arren, erabilerak gora egin du %32,9tik %46,8ra.

#### 1.2.4. Historia

<sup>1</sup>Igorre herriaren historia Goi Erdi Aroan hasten bada ere, aurreko mendeetakoak dira Aramotz mendikatearen inguruan aurkitu diren orduko biztanleen aztarnak, Atxarte eta Geretaleuta haitzuloetan.

Santa Lutzia eta San Kristobal ermitaren auzunea izan zen Igorreko Erdi Aroko biztanle-gune bat, handik pasatzen baitzen Galdakaotik Arabako lautadara zihoan bidea. Merkatari eta erromesentzako bidea zen. Zumeltzuko San Andres ermitaren auzunea izan zen Igorreko Erdi Aroko beste biztanle-gune bat, Arratia ibaiaren ondoan dago, eta han biztanleriaren finkatze prozesua indartu zen, abendañotarrak Urkizuko dorretxearen jabe egin zirenean Behe Erdi Aroan. Igorreko hirugarren biztanle-gunea herriko Andra Mari elizaren inguruan sortu zen, Elexalden.

Aro Modernoan (XVI-XVIII. mendeak), Igorrek, Bizkaia osoak bezala, baserrien eraikuntza ezagutu zuen. Orduko denborakoak dira Antekena, Orue, Ibarondo, Basarte edota Lasarte bezalako ereduak.

XVIII. gizaldian, urbanismoaren aldetik plazak agertu ziren. Igorreko herri gunean gaur egun Beheko Plaza izenaz ezagutzen dena, esaterako.

XIX. mendean, Aro Garaikidean beraz, Barazar mendateko bide berria zabaldu zen eta harrezkero Bilbotik Gasteizera joateko Igorre zeharkatuz izango da.

Bidegurutze bat izanik, Igorre XX. mendean kokagune ona ere bazen industriak instalatzeko, dituen lur lauak aprobetxatuz. Horrela, hirurogeigarren hamarkadan industrializazioaren aldia hasi zen. Era berean, Igorrek hirurogeita hamargarren hamarkadan eskualdeko biztanle kopururik altuena eduki zuen eta etorkinak inguruko herrietako nekazari jatorria zeukatenak izan ziren gehienbat.

Politikan, trantsizio demokratikotik hona, alderdi abertzaleek izan dute gehiengo politikoa Igorren.

#### 1.2.5. Igorreko idazleak

Igorreko hizkeraren gainean oso datu urriak izan ditugu XX. mendearen amaierara arte. Beste hizkera batzuetan ez bezala, lehenengo datuak dialektologiaren aldetik -eta ez literaturaren aldetik- etorri zaizkigu, Louis-Lucien Bonaparteren eskutik hain zuzen. Arratian

<sup>1</sup>Datu hauek guztiak Larrea (1993)tik atera ditut.



XX. mendea baino lehenagoko idazleak<sup>2</sup> izan arren (Pedro de Madariaga, Pedro Antonio de Añibarro eta Cristobal de Linaza), Igorreko idazleak XX. mendearen hasierakoak dira. Guztira, bost:

- Totorika Etxebarri, Antselmo (Igorre, 1882 - Capbreton [Frantzia], 1960)

Antselmo Plazako Zubi-punte etxean jaio zen. Ezizen bi erabili zituen: ‘Iurre’ko endorea’ eta ‘Iurre’ko endore zarra’. Zapataria izan zen eta janari-denda bat eduki zuen San Juan auzoan. Basilio bere anaiarekin batera Igorreko EAJren sortzaileak izan ziren. Igorreko alkatea izan zen 1931-1933 eta 1936-1937 aldietan. Bertsolari eta idazle honek *Euzkadi*, *Bizkaitarra* eta *Euzko-Deya* aldizkarietan idatzi zituen bere bertsoak.

- Barrenetxea Uribasterra, Nikolas (Igorre, 1898 - Altsasu, 1988)

Lasarte auzoan jaio zen fraide kaputxino honek hainbat ezizen izan zituen: ‘Yurre’tar Yulen Aba’, ‘Itarka’, ‘Motxogane’, ‘Amesti’... Zalantza barik, idazlerik oparoena dugu Nikolas Barrenetxea. Hainbat genero jorratu zituen: poesia, saiakera, artikulugintza... Eta hainbat aldizkaritan idatzi zuen: *Olerki*, *Euzkadi*, *Karmel*, *Egan*, *Herria*, *Euskal Eснаlea*, *Gure Mixiolaria*, *Jaungoiko-Zale*, *Zeruko Argia*... Euskaltzaindiko bazkide izan zen eta *Zeruko Argian* zuzendari izan zen bi urtez. Beste idazleek ez bezala, artikulua ez ezik liburuak ere idatzi zituen, guztira sei:

*Bedoña-tar Joakin "Loramendi"ren Olerki eta Idatzi Guztiak*, 1960

*Loramendi eta haren garaia*, 1962

*Batikano Batzarra, lenengo aldia*, 1965

*Batikano Batzarra, 2., 3. eta 4. aldiak*, 1967

*Mao tse-tung*, 1978

*Mao tse-tung, 1936-1954, kronika eta bigarren zatia*, 1987

- Aizpuru Egia, Leontzi (Igorre, 1900 - Iurreta, 1986)

‘Urzale’ ezizenarekin ezaguna zen Leontzi Aizpurua Ubetxagako errotan jaio zen. Gurasoak errotariak zituen eta bera ere errotaria eta arotza izan zen. *Zeruko Argia*, *Karmel*, *Jesusen Biotzaren Deya*, *Agur*, *Zer* eta *Cementos Lemona* aldizkarietan idatzi zituen bere lanak.

- Abasolo Atxitia, Jose (Igorre, 1907 - Lima [Peru], 1965)

Garamendi auzoan jaio zen fraide karmeldar hau eta erlijio munduan Joseba Deunaren Aita Balendin izena hartu zuen. Euskarazko testuak *Karmen’go Argia* eta *Karmel* aldizkarietan idatzi zituen.

- Landajuela Barrenetxea, Andoni (Igorre, 1914 - Bilbo, 1982)

Inoiz Andoni ezizenarekin ezaguna izan zen Bilboko portuan zamaketari lanetan aritu zen igorreztar hau artikulugile izan zen *Agur* eta *Zer* aldizkarietan. *Agur* aldizkarian *Arratia* deituriko zutabea idazten zuen eta *Zer-en Euskerazaleak* atalean.

Dena den, idazle hauen lanek ezer gutxi argitzen digute Igorreko hizkerari buruz, lan hauek guztiak garai horretako hizkuntza estandarretan, bizkaieraz zein batuaz, idatzita baitaude.

<sup>2</sup>Arratiako idazleen gaineko informazio zabalagorako ikus Esparza, I. & Larrea, A. (2004) eta Aurrekoetxea, G., Esparza, I., Larrea, A. (2005).

### 1.2.6. Kokapen linguistikoa

Ahozko ondareari dagokionez, Louis-Lucien Bonaparte izan zen lehena Igorreko hizkera aipatzen, nahiz eta bertoko datu bat bera ere ez eman. Bonaparteren aginduz Arrigorriagako José Antonio Uriarte frantziskotarrak itzuli zuen *La doctrina cristiana, traducida al vascuence, dialecto vizcaíno, variedades de Marquina, Bermeo, Arratia, Centro y Ochandiano*, non, izenburuan esaten den bezala, Arratiako hizkerara itzuli zen dotrina. Bonaparteren laguntzailea ere izan zen Zeanuriko abadea, Francisco Antonio Sagarminaga; honek *Prodomus*-en argitaratu ziren testamentu zaharreko eta berriko hiru zati itzuli zituen: “Oratio Dominica Vasconice”, “Parabola del Semiatore” eta “Canticum trium Puerorum”.

L.L. Bonapartek lau sailkapen egin zituen. Lehenengo hiru sailkapenetan Arratia hitza baino ez du aipatzen, eta laugarrenean zehazten du Arratia zein herrik osatzen duten, tartean Igorre.

Bizkaierari dagokionez, hauek izan ziren sailkapenak:

#### 1. sailkapena (1861-1863)

Ekialdekoa: Markina eta Bergara.

Mendebaldekoa: Bermeo, Gatzaga eta Arratia.

Erdialdekoa: Gernika, Arrigorriaga, Plentzia-Laukiz eta Otxandio.

#### 2. sailkapena (1866-1868)

Ekialdekoa: Markina, Elorrio eta Bergara.

Mendebaldekoa: Bermeo, Arratia, Orozko, Plentzia, Arrigorriaga, Gernika eta Otxandio.

Gipuzkoakoa: Gatzaga.

#### 3. sailkapena (1868-1869)

Ekialdekoa: Markina.

Mendebaldekoa: Gernika, Bermeo, Arratia, Orozko, Plentzia eta Arrigorriaga.

Gipuzkoakoa: Bergara eta Gatzaga.

#### 4. sailkapena (1869)

Ekialdekoa: Markina

Mendebaldekoa: Gernika: Zornotza, Lumo, Urbina, Mungia eta Durango; Bermeo: Mundaka, Busturia eta Murueta; Arratia: Zeanuri, Areatza, Igorre, Dima, Arantzazu, Lemoa eta Bedia; Orozko: Baranbio; Plentzia: Bakio, Plentzia, Gorniz, Urduliz, Gatika eta Berango; Arrigorriaga: Galdakao, Basauri, Ugao eta Barakaldo; Otxandio: Oleta, Aramaio eta Ubide.

Gipuzkoakoa: Bergara: Eibar, Elgoibar, Oñati eta Antzuola; Gatzaga.



Bonaparte-ren sailkapena (1869, IV)

0.4. Mapa: Yrizar-en "Contribución a la dialectología..." liburuko 120. orrialdeko mapa egokitu.

1. mapa. Txillardegi & Aurrekoetxea, G., 1983: XLVI

L.L. Bonapartek lehenengo sailkapenetik laugarrenera Igorreko hizkera Arratiakoaren barruan kokatu zuen eta halaber, Bizkaiko Mendebaldekoan, eta sailkapen hau, Igorreko hizkerari dagokionez, gaur egun ere dialektologo guztiek, sailkapen zabalagoak zein estuagoak eginez, onartu egiten dute. Izenak izen eta sailkapenak sailkapen, inork ez du zalantzan jarri Igorreko hizkera Arratiakoaren barruan eta mendebaldeko bizkaieran kokatu behar denik. Yrizarrek (1992-I: 1) Bonaparteren sailkapena onartzen du aldaketa txiki batzuekin:

“Hemos tomado como base la clasificación de Bonaparte, de la que sólo nos hemos apartado en contados casos, que vamos a exponer seguidamente, tanto en cuanto a los límites del dialecto vizcaíno, como en cuanto a los de sus variedades.

Respecto a los límites establecidos por el Príncipe para el dialecto, hemos modificado el oriental, con la exclusión de la población de Elgóibar, que del dialecto vizcaíno (variedad de Vergara) pasa a formar parte del guipuzcoano (variedad de Azpeitia). Los límites occidental y meridional del vizcaíno son los de la lengua y no han sufrido más modificación que el retroceso ocasionado por la desaparición de ella en pueblos de la zona alavesa.”




2. mapa. Yrizar, 1992-I: 2

Eta Arratiako barietateari buruz honela esaten du Yrizarrek (1992-II: 5):

“El núcleo de la variedad bonapartiana de Arratia lo constituyen lógicamente, en lo esencial, los pueblos del valle de aquel nombre, pero sus límites no coinciden plenamente con los de dicho valle. Bonaparte no incluyó en la variedad arratiana a los pueblos de Ceberio y Ubidea, que consideró pertenecientes a las variedades de Arrigorriaga y de Ochandiano, respectivamente. Por el contrario, incluyó en esta variedad, no sólo a Vedia y Lemona -pueblos que se incorporaron posteriormente a la merindad de Arratia-, sino que extendió los límites de la variedad lingüística hacia el norte, hasta incluir en ella a Larrabezúa. Comprende, por tanto, la variedad de Arratia, tal como la estableció Bonaparte, los siguientes pueblos: Yurre, Aránzazu, Arteaga (Castillo y Elejabeitia), Dima, Ceánuri, Villaro, Vedia, Lemona y Larrabezúa.

Iñaki Gaminde, en su investigación lingüística de la región de Galdácano, ha comprobado que la zona oriental de este municipio se aparta lingüísticamente del resto del municipio y en ella -Gaminde ha explorado especialmente el barrio de Usánsolo- entra el arratiano. Confirma con ello el límite establecido por Bonaparte, quien, en su mapa, incluyó en la variedad de Arratia, la zona del municipio de Galdácano que se extiende desde su límite oriental hasta Urgoiti inclusive.”



3. mapa. Yrizar, 1992-II: 9

Zuazok bere 1998ko artikuluan argitaratu zuen euskalkien sailkapen berri bat, gerora sakondu eta zehaztu zuena 2008ko liburuan. Azken honetan (2008: 61), honela banatu zuen mendebaldeko euskararen eremua:

“Gaur egun euskara bizirik dagoen alderdian nortasun handiko azpieuskalki bi ageri dira: sartaldekoa eta sortaldekoa izendatu ditugu. Azpieuskalkien mugei dagokienez, zuzena eta zehatza da Agustin Kardaberatzek XVIII. mendearen erdialdera ezarri zuena.”




4. mapa. Zuazo, 2008: 63

Baina sailkapen orokor hauetaz gain, badaude beste sailkapen zehatzago batzuk hizkuntzaren arlo jakin batzuei datxekienak. Horrela, azenturako Hualderena (1997) eta Gaminderena (1998) dauzkagu. Bi autore hauek lau azentu sistema ezberdin berezi zituzten euren lanetan: ekialdekoa, erdialdekoa, mendebaldeko zenbait sistema berezi eta Bizkaiko kostaldeko doinu sistemak. Gerora, Gamindek (2007b: 63) Bizkairako honako azentu moldeok berezi zituen: (1) Getxo-Gernika, (2) Lea-Artibai, (3) Txorierri, (4) Arratia, (5) Durangaldea eta (6) Hego-Bizkaiera. (ikus 5. mapa)



5. mapa. Azentuaren hedadurak. Gaminde, 2007b: 66


Gaminderen lanekin jarraituz, asko dira autore honek bereizitako eremu geografikoak gramatika arauen arabera. Aditza lantzen hasi zen (Gaminde 1984) eremuak bereiziz eta hainbat artikulu eta liburu idatzi ostean, berak esaten duen moduan, ibilbide baten laburpena egin zuen 2007an *Bizkaian zehar euskararen ikuspegi orokorra* liburuan, non mapa ugari aurkezten dituen Bizkaiko hainbat eremu geografiko bereiziz gramatika arauen arabera. Lan honek zazpi atal dauzka: soinuak, izen morfologia, aditz morfologia, esaldi ereduak, lexikoa, testu ereduak eta datuen azterketa kuantitatiboa; eta, esan bezala, atal bakoitzean hainbat eremu bereizten ditu mapen laguntzaz. Azkenean ere Bizkaiko herrien sailkapen bat aurkezten digu. (ikus 6. mapa)



6. mapa: Barietateen multzo nagusiak. Gaminde, 2007b: 254

“Azken urteotan euskalkien sailkapenean gehien nabarmendu den ikertzailea Koldo Zuazo izan da (ikus bibliografia). Berak erkaketak egiteko sistema propioa garatu du eta hizkuntzaren eremu osora hedatu da. Erabili duen ezaugarri multzoa aukeratzeko irizpideak eta sailkapenen oinarriak bere 1998ko lanean agertzen dira zehaztuta. Azkenaldion, Zuazok (2005: 250), artetik dakarren metodologiari atxikita, mendebaleko barietateen sailkapena eta mapa eman du. Gure hemengo emaitzak orain berarekin erka ditzakegu.

Ikusten denez, bien artean ez dago desberdintasun handirik. Desberdintasun bi aipa daitezke, beharbada metodologiak berak eraginda, hemen distantziak neurtzen dira eta multzoetan herriak kokatzea hierarkizatuta dago. Bestetik, trantsizio eremuak ezabatzen dira, izan ere, herri guztiak multzoren bati lotuta agertzen dira. Trantsizio eremuak osatuko lituzkete multzoetan eskalaren beheengo mailetan elkartzen direnek, edo eskalaren tarte handiarekin batzen direnek.” Gaminde (2007b: 256)



7. mapa: Multzo nagusiak. Gaminde, 2007b: 256

### 1.2.7. Ahozko ondarea

Ahozko ondareari dagokionez, Igorreko hizkeraren lehenengo ahozko datuak XX. mendearen hasierakoak dira eta hauetan hiru iturri aipatu behar dira: Azkue, Moret eta Barandiaran.

Ahozko euskarari buruzko Azkueren lan bi aipatu behar dira: lehenik, 1905ean argitaratutako *Diccionario vasco-español-francés*. Hiztegi honetan Arratiako makina bat berba ematen badu ere bi bakarrik dira Igorreko laburdura dakartenak:

39. orrialdean:

2° **Amillena** (B-Otš-yur), el viento sur-este, le vent du sud-est. AMILLENA, SOIÑEKO ZAARREN BILLA DABILLENA (B-otš): viento sur-este, que anda buscando ropas viejas (para levantarlas): vent du sud-est, qui cherche les vieux vêtements (pour les soulever).

eta 506. orrialdean:

**Kukubolantša** (B - a : yur), kukubolintša (B-gald). (V. Kukubala.)

Eta bigarrenik, Ana Mari Echaidek 1984an argitaratutako Azkueren *Erizkizundi Irukoitza*. Datu hauek 1922an hasi ziren batzen: *Los trabajos de encuesta debieron de empezar ya en el año 1922* (30 or.). Inkesta hau Nikolas Ormaetxeak egin zion Ramona Etxebarriari, herrian 49 urtean bizi izandakoari. (44 or.)

<b>Galdera</b>	<b>1925eko erantzuna</b>				
I,01a	arrabea	I,38	loitu	II,17a	amena
I,01b	arrebak	I,39	goxeko	II,17b	senarrena
I,01z	ama	I,40a	laurek	II,18a	amentzat
I,02a	edo	I,40b	gaubez	II,18b	-entzat
I,02b	edan	I,41d	laurun	II,19a	Irungoa
I,02z	euki	I,42	garaurik	II,19b	Irundik
I,03a	bear	I,43a	geuon	II,19c	emekoa
I,03b	lusea	I,44	neuen	II,19d	emetik
I,04a	foruek	I,45	zeuek	II,20a	Madrilgoa
I,04b	garrafoia	I,46a	argine	II,20b	Madrildik
I,04c	Pelipe	I,46b	burruñe	II,21a a)	Eibargoa
I,04d	kaferik	I,47a	deuskue	II,21b a)	Eibardik
I,05a	egun	I,47b	eskuetan	II,22a a)	Miravalleskoa
I,05b	dao	I,48b	errayek	II,22a b)	Miravallesdik
I,06a	yan	I,49	ganera	II,22z a)	Lurdeskoa
I,07	egie	I,50a	beie	II,22z b)	Lurdesdik
I,08a	igurdi	I,50b	io	II,23a	mendi beten
I,08z	igon	I,52a	oñ, oiñ	II,23b	egun beten
I,09a	il	II,01a	nigaiti	II,24	mendirantza
I,09a b)	neskatile	II,01b	onegaiti	II,25	neugas
I,09d	zile	II,01e	-gaiti	II,26	gixomari
I,09z a)	mutile	II,01z	orregaiti	II,27	arriskuen
I,10a	saspine	II,02	gaztetxu	II,28	illerako
I,10b	arin	II,04a b)	andizar	II,29a	eztulke
I,11	ixildu	II,04b a)	onkote	II,31b	txalki
I,12	zuritu	II,05c	sartu	II,33a	non
I,13	itzu	II,05d	zabaldu	II,33b	nondi
I,14a	balitz	II,05e	zoldu	II,34	nos
I,14b	liteke	II,06a	goitik	II,35	selan
I,15a	isin	II,06b	gaurganik	II,36	selangoa
I,15b	gixona bixiik	II,06c	lenganik	II,37	zeinbet
I,15z	zorriz	II,06d	nostik	II,38a	nor
I,16a	bildur	II,06e	orainganik	II,38b	nortzuk
I,16b	il de	II,06f	orduti	II,38z	nok
I,17a	inder	II,06h	txikitetik	II,40a	zein
I,17b	ezin deu	II,06i	atxinetik	II,40b	zeintzuk
I,18a	besoa	II,06k	bartik	II,41a	neu
I,18b	noa	II,09a a)	gaurarte	II,41b	eu
I,19a	gaur be bai	II,09a b)	oñarte	II,41c	bera
I,19b	etxera	II,09a c)	lenarte	II,41d	geu
I,22z a)	diñotsut	II,09b	ondiño	II,41f	zeuek
I,22z b)	dakatsut	II,12f	Madrittar	II,41g	eurek
I,22z c)	deutsut	II,12h	iruntarrak	II,42a	daure
I,22z d)	neuntzun	II,14a	egunean	II,42b	deu
I,23a	eskue	II,14b	egunekoa	II,42d	dauela
I,23b	eskuen	II,14c	egunetik	II,42z	deuna
I,26a	aiñ	II,15a a)	maitik	II,44	naixu
I,27b	maixu	II,15a b)	maien	II,45	dauket
I,28	aite	II,15a c),	maikoa	II,46a	badaki
I,29	gatxa	II,15a d)	maira	II,46b	banenkien
I,30	axe	II,15b a)	yaien	II,46d	banaraue
I,32b	beñolan	II,15b b)	yaitik	II,46z	baleki
I,33	exe	II,15z	aizko tostadak	II,47a	eztaki
I,34a	deitela	II,16a a)	gaubetik	II,47b	ezpaleki
I,34z	eraiten	II,16a b)	gaubean	II,47d	eleuke yango
I,35	lexar	II,16a c)	gaubera	II,47e	enau
I,37	soñeko	II,16a e)	gauberako	II,47f	ez zan
		II,16a f)	gauberarte	II,47g	etxakik



II,47h	ezkaitezan	II,69b	bebillen	III,36b	Naparroara
II,47z	ezkara	III,01	euskera	III,37	napar
II,48	neuen	III,14	eskerik asko	III,38	aite santua
II,50a	direala	III,16	geao	III,39a	astelen
II,50b	zireanean	III,17	yagon	III,39b	martitzen
II,50z	gareala	III,18	agindu	III,39c	egusten
II,51	bautzo	III,19	lexa	III,39d	eguen
II,52	gara	III,21a	bizitza	III,39e	bariku
II,53a	dot	III,21b	eriotza	III,39f	zapatu
II,53b	doala	III,21c	gauza	III,39g	domeke
II,54	edan baneuen	III,21d	erregina	III,45	gogoratu
II,55a	emon	III,22	Erreterie	III,46	kurutze
II,55b	emoten	III,23	Bilbo	III,48a	Kelemente
II,57a	illten	III,24a	urteille	III,49	geure alde
II,57b a)	opatu	III,24b	seseille	III,50a	jauna
II,58a	daun	III,24c	martie	III,51	edaten
II,58b	daoala	III,24d	aprile	III,52	sate
II,59	edaten dot	III,24e	mayetza	III,53	Afrika
II,60a	yausi	III,24f	bagile	III,54	ezarri
II,60b	mezara	III,24g	garagarrile	III,55	ezebe
II,61	naiñora	III,24h	aostue	III,56	lege
II,62a	beot	III,24i	urri lenengo	III,57	aitue
II,62b	gurot	III,24l	urri bigarrego	III,58	yegi
II,62f b)	etortzeko asmo	III,24m	semendie	III,59	gizonik asko
II,63	oneik	III,24n	abendue	III,62	erregutu
II,64	orreik	III,27	Jesus	III,63a	mitxilitoia
II,65	aik	III,28	Maria	III,63d	txubelaxu
II,66a	gonok	III,29	Grabiel	III,63z	sagu sarra
II,66b	onen gonon magala	III,32a	biguntasun	III,64	Frantzie
II,68	bauket	III,34a	bide zabala	III,65	frantsesa
II,69a	beuken	III,36a	Naparroatik		

### Moreten bertsoak:

Ahozko iturrien artean, Moreten bertsoak ere aipatu beharrekoak dira. Bertso hauek eskaintzen dizkiguten datuak seguru asko ez dira Azkuerenak bezain zehatzak izango, Azkuek hizkerari buruzko galdetegi zehatza prestatu zuelako eta bertso hauek Moretek bota eta 37 urte geroago jaso zituztelako idatziz.

Oso gutxi dakigu Moreti buruz. Badakigu Berasaluze zeukala abizena, Zubiondo inguruan bizi zela, bertso-kantari ibili zela gerra aurrean, eta ezagutzen ditugu *Anaitasuna: Arratirako* aldizkarian argitaratu zituzten datu apurrak:

¿Bazenkien nor zan Moret? Badakizu erri guztietan egoten dala gizon selebreen bat. Bere histori, esakera ta egite urtez urte valio aundiagoa artzean dabe, antxiñako gauzak gure gurasoan gomuta berbiztuten dauzkulako. Moret, bere denporan esaguna bazan gaur izen aundiagoa dauka gure artean. Berak atarako bertso eta kanta amaika bidar entzun deutzuegu erriko zaar edo orduan gazte ziranari, ta bere agotik entzun zituenari. ara emen ba bilduaal izan goguzanak<sup>3</sup>[sic], 1920' garren urtean lenengoz kantatuak.

<sup>3</sup> Euskaltzaindian dagoen alean gainetik boligrafoz zuzendutako *d* bat dago: *doguzanak*.

Esan dugun moduan, Moreten bertsoak lehenengoz, geroago antzeko bertsoak batu izan dira-eta, *Anaitasuna: Arratirako* aldizkarian argitaratu ziren 1957an, baina, sarreran aipatzen den legez, 1920koak ziren.

### Aramotzetik - Garamendira

Aramotzetik Garamendira tximizta baten antzean  
Miru txuriek igeratzeire, ollandatxuek artzean

Atso urdiñek entzuten baitue aren txistuek etxean  
urra ta urra solora doa bere olloen atzean.  
Egasti txarrak erpea sorrotz pikue serbait makurre  
erroteales urunduten deus ollandatxuen asurrek.

Egasti txarrak yandeienean ollandatxue atxean  
pio ta pio gorantza doa iper axea artzean.

### Satsiturri

Bein baten edan neuen satsiturrien ure  
probatu neubanian, nik eneuen gure.  
Primoak euki ditus asmu ugariak  
bota deien ure franku bai satsiturriek.  
Tuboa ekarrite botautzien nibela, posutik urten esteien  
sats urek bidera.  
Análisis egineta<sup>4</sup> diño Jose Marik, erri gustien etxagok  
onango sats urik.

### Lapurretzeko serrea

Serrak monte datus sudito alemanak, ensegida ebateko  
Arratieko egur danak; sigüñalak apurtute serrak dagos geldi  
galdara sar orregas esinleis ibili.  
Ensegida abizeotzie Pedro Kortasari, eletrisidadean inderra  
eindeiela ekarri konformidadea egin de ein deurie papela,  
sudito alemanentzat ixin de arpela.  
Lapurretzek euki euen andie famea, egurreri kenduteko  
ardien lanea,  
Igorren lanea eta Lemoan pañue, Ricardoren soloan egin deure  
andie dañue

### Eperranak...

Eperrak oñek gorriek datus, papar asurre lumetzu,  
mendi alture igon eskero egax eiten deu gosatzu.  
Eskopetea ona desu te, txakurre askos obea,  
tiro bategas kostako yatzu bai ilten eper para.  
Olla gorra txori ona da eta, eperra askos obea,  
ipe maipera estok botako aren okela sobrea.  
Ene gixona beti sabiltz su basa pitsien<sup>5</sup> atzean,  
iru-lau pare ortxe deukasus San Juan Gasteluatxean.

<sup>4</sup> Hasieran z idatzi zuen eta gero gainean g: *ezineta* > *egineta*

<sup>5</sup> Ez da ondo irakurtzen: *p[...]stien*. Multikopiagailuak gotik beherako marra bat utzi du eta hainbat letra nekez ikusten dira.

Kantei dagokienez, Azkuek *Cancionero popular vasco*-n Igorreko Josefa Iturberi kanta bat jaso zion 1922an: 528 zenbakidun Mari Trapuzar.

## 576 528.-MARI TRAPUZAR


60. 

Ma - ri Tra - pu - zar, i - ñar - ar - te - ko - sa - si  
Ai - ta ta se - me ta - ber - nan da - goz a - ma


66

Cancionero popular vasco (ed. manual)

712



ar - te - an yai - o - a: e - gun - do be - re ez - ton  
taa - la - ba yo - ku - an: os - te - ra be - re e - gon -



i - kus - i eu - re gar - i - an go - ru - a.  
go di - tun a - bar - ka zar - ak ka ku - an.



De Josefa Iturbe, de Yure (Aratia, B). El trozo final es para albugue.

TRADUCCIÓN: I.—Mari la de los trapos viejos, nacida en el zarzal de etitre brezos: jamás has visto la rueca en tu cintura.

II.—Padre e hijo en la taberna, madre e hija en el juego: no faltarán abarcas viejas colgadas del gancho.

Azkuek eta Barandiaranek jasotako ipuinak:

XX. mendeko hogeigarren hamarkadan lau ipuin jaso ziren Igorren. Azkuek hiru eta Barandiaranek bat.

Azkuek hiru batu zituen *Euskaleñaren Yakintza* liburuan eta beste bat *Euskera* aldizkarian, baina azken hau eta *Euskaleñaren Yakintzan* argitaratutako bat berdina da:

*Euskaleñaren Yakintza:*

- Bigarren liburukian (217 or.)<sup>77</sup>. “Laminen azkena”
- Bigarren liburukian (439 or.) 206. “Mezäa ta ura”
- Laugarren liburukian (243 or.) 23. (Izenbururik gabe) “Gariak kentzeko...”

*Euskera:*

- 1927, “Lamiak euskalerrian”, (91-115 orr.)

*Euskera* 1-2n (1927) jaso zuena “Laminen azkena” da, baina ezberdintasun batekin: *Euskaleñaren Yakintzan* idazkera ortografikoa erabili bazuen ere, *Euskera* aldizkarian ipuinak idazkera filologikoa argitaratu zituen hizkera bakoitzeko ezaugarri fonetiko eta fonologikoekin; hortaz, testu hau ahozkotik askoz hurbilago dago *Euskaleñaren Yakintzakoak* baino. Azken hauek ahozkoaren lexikoa eta, beharbada, joskera baino ez dute erakusten.

Barandiaranek jasotako testuaz gauza bera esan daiteke, hau ere idazkera ortografikoa jaso baitzen.

Bigarren eritzia Afatiar batena da. Tamalez (lastimaz) bere izena nere paper zafetan ezta ageri. Igofe edo Yufe deritzaion basaurikoa zala bai te onetarako Ipu(n) polit auxe (azken ipuina) eman zidana ere bai, badakit. Onelaxe edatsi zidan:

«Afatiaiko Igofen, Garamendi deritxon etse baten, gizon aaaandi bat, itzäla, Txilibristo eritxona bizi zän. ¡Indafetan beukan, indafetan! ilesus, Mariä ta Jose! Urkusun gora Garamendirä burdiä lepoan eroaten euän ta kontuäk atara. Efekondo baten ofazi bat, lamin-ofaziä äurkitu euän bein eta kolkoan sartutä. äuferä yoan gure Txilibristo. Laminä batek esan eutsän:

*Txilibristo, ekazu ofaziä;  
ezpabere nik egingo dot zure biziä.*

Txilibristok Laminea saputzeti oratutä etsera, Garamendirä, eroan euän. Laminä au beste guztiäk légez ezne-zale utsä zan. Egunäk eta egunäk igaro dakiezan etsekoai, baitutä euken pisti areri ezer eraso (esan-arazi) ezinik. Mutuä zirudiän. Bein, bera sutondoan egoala, eznea mazkeluän (pertzatxoan) iräkiten asi zän. Lamiäk, eznea alpefik galdu ezeitean, berba egileari emon eutsän, auxe zinoala: *txuriä gora, txuriä gora*. Etsekoak orduen berba geiago eragitafen, gogor artu eudien. Batek lamiäk zelan galdu eitekezan preguntäu eutsän. Auxe erantzun euän: *Doniane-goizean yaioriko zekor nabar bi iteileaz (goldeaz) erekan ibilitä, galduko litekez lamiäk*.

Auzorik auzo beingo baten zabaldu zirean lamiaren berba onek; eta Afatiäko gorta (okulu) guztiäk arakatu (registrar) eudiezan Donian-goizerako zekor nabar bilä. Ganeko egunetan soloko zokiläk äusten baizen gogoz eragoioen (ari ziran) zekofook iteilea efeketan nafaz erabilela, lamiäk uxätu nairik.

Ordura-ezketino ezta inguru äretan laminärik battxu bére arean azaldu».

Azkue, R.M., 1927, “Lamiak euskalerrian” *Euskera* 1-2, 91-113. (113-114 orr.)

Egungo ikerketei dagokienez, esan behar da Igorreko hizkerari buruzko datuak urriak direla eta oso sakabanatuta daudela. Artikulu bakar bat argitaratu da hizkera honen gainean, Iglesias (2008), eta hiruzpalau autorek baino ez dituzte hizkera honi buruzko datuak eman.

Hauxe da orain arte argitaratu den Igorreko hizkerari buruzko bibliografia, ahozko datudun<sup>6</sup> bibliografia:

- Datu orokorrekin:  
Gaminde, Goikoetxea & Sarriugarte (2002) eta Gaminde (2007b)
- Fonologiaz:  
Gaminde (2002a)
- Azentuaz eta intonazioaz:  
Gaminde (1993a, 1995a, 1995b eta 1998b), Gaminde & Hualde (1995) eta Iglesias (2008)
- Izen Morfologiaz:  
Gaminde (1990c eta 1990d)
- Aditzaz:  
Gaminde (1984, 1988b eta 1990a) eta Yrizar (1992)
- Sintaxiaz:  
Gaminde (1992a, 1992b eta 1992c)
- Lexikoaz  
Gaminde (1988a, 1990b, 1998a eta 2007a)
- Etnotestuak:  
Etxebarria<sup>7</sup> (1991)

### 1.3. Helburu orokor eta zehatzak

Lehenik eta behin, azaldu behar dugu zergatik aukeratu den Bizkaiko eremu geografiko hau, Igorre, azterketarako. Ezaguna denez, asko dira bizkaierari buruz egin diren lan monografikoak ia barietate guztietan. Adibidez, Aramaiokoa (2006), Elgoibarkoa (Makazaga 2009), Ugaokoa (Salazar, 2001), Zeberriokoa (Etxebarria, 1991), Mallabikoa (Mugarza 2006), Leioakoa (Gaminde, 2001), Ondarroakoa (Rotaetxe, 1978), Basaurikoa (Arretxe, 1994), Ermukoa (Aranberri, 1996), Arrasatekoa (Askoren artean, 1998), Bilbokoa (Gaminde, 1990d), Berangokoa (Gaminde, 2003b)... Baina barietate batean, hau da, Arratiakoan, ez da inongo lan monografikorik egin. Hortaz, lan honek beteko luke bizkaieraren azterketan geratzen den hutsunerik nagusia, gaur egun, zalantza barik, Arratiako barietatea bere sakontasunean ezezaguna delako.

Lan honen helburu nagusia da aztertzea Igorreko hizkeraren gramatikan gauzatzen diren arauak, baina, helburu hau lortzeko, lehenik eta behin, hizkera honen gramatika zein den azaldu beharko dugu, eta horretarako, datu-bilketa zehatz eta handi bat egin beharko dugu gure corpusa osatzeko. Hizkera honetako inbentarioa eta arau gramatikalak zehaztu beharko ditugu. Horretaz gain, behin Arratiako hizkera hau aztertuta, zehaztu ahal izango dugu barietate honek mendebaldean duen muga non dagoen, hau da, Zeberrioko hizkera Arratiako den ala ez. Beraz, lau urrats eman behar ditugu:

<sup>6</sup> Beste lan askotan Igorreko hizkerari buruzko aipamenak ere egiten dira baina zerrenda honetan datuak erakusten dituzten lanak baino ez ditugu aurkezten.

<sup>7</sup> Etnotestu txiki bat dakar 390. orrialdean.

- 1) Corpora jasotzea
- 2) Gramatika arauak ikastea
- 3) Gramatika deskribatzea
- 4) Arratiako barietatearen mendebaldeko muga zehaztea

Gure lanak, sarreraz gain, sei atal izango ditu eta eranskin bi. Lehenengo laurak gramatikari dagozkionak dira: fonologia, izen-sintagma, aditz-sintagma, sintaxia eta elkarketa eta eratorpena. Zazpigarrenean emaitzen eta ondorioen berri emango dugu. Zortzigarren atala bibliografiari dagokio eta eranskin biak corpusari berari: lexikoa eta testuak; eta amaitzeko, ondorioak eta aipatutako bibliografia.

Fonologiaren atalean, arau fonologikoen azterketa izan dugu helburu, unitate segmentalen inbentario eta arau fonologikoen azterketa. Horretarako, lehenik, fonemen inbentarioa eman dugu, eta, ondoren, gauzatzen diren arauak; ostean, silabaren inbentarioa eta maila horretan gauzatzen diren arauak; gero, hitz fonologikoa aztertu dugu, eta puntu honetan bokal eremuko arauak eta kontsonante eremuko arauak bereizi ditugu. Hauetan, arau fonologikoak, morfofonologikoak eta morfema mugen gaineko arauak aztertu ditugu. Amaitzeko, suprasegmentaletan, azentuaren deskribapena eta hau gobernatzen dituen arauak zehaztu ditugu.

Izen-sintagmaren atalean izena, adjektiboa, deklinabidea, izenordainak, determinatzaileak, hitz eratorriak eta eratorpen-morfemak, eta azkenik, hitz elkartuak aztertu ditugu, baina bereziki deklinabidearen kasu-markak ezartzeko gauzatzen diren arau morfologikoei erreparatu diegu.

Aditz-sintagmaren atalean aditza eta adberbioa aztertu dira. Aditzaren atalean, aditz jokatu gabeen eta aditz jokatu en erabilera zehaztea izan da helburua. Adberbioaren atalean, berriz, adizlagunena eta aditzondoena.

Sintaxiaren atalean helburua izan da esaldien egitura finkatzen dituzten arauak ematea. Egitura hori, multzo nagusi bitan banatu dugu: perpausak, bakunak eta elkartuak, eta lokailuak.

Elkarketa eta eratorpenaren atalean morfologia lexikoa aztertuko dugu, hau da, hizkera honek lexiko berria sortzeko dauzkan bideak, elkarketa eta eratorpena. Zelan sortzen diren hitz, aditz eta izenondo elkartuak aztertuko dugu eta zeintzuk diren eratorpenean erabiltzen diren aukerak: aurrizkiak, artizkiak eta atzizkiak.

Emaitzak eta ondorioen atalean alde batetik, emaitzetan, Igorreko hizkeran gauzatzen diren arauen laburpena eman dugu; eta beste alde batetik, ondorioetan, egiaztatuko dugu gure hipotesia (ikus 1.5. puntua) bete den ala ez.

Ondorengo atalean, lan honetan zehar aipatu den bibliografia eta web-guneen berri emango dugu.

Amaitzeko, eranskin bi izango ditugu corpusaren lexikoiarekin eta jasotako testuen lagin batzuekin. Corpus hau izan da gure azterketaren oinarria eta hauetan agertzen diren ezaugarriak dira tesian zehar agertzen direnak.

## 1.4. Oinarri teorikoa

### 1.4.1. Aurrekariak euskal dialektologian

Gure marko teorikoa zein den azaltzeari ekin aurretik komeni da birpasatzea azken hamarkada honetan Euskal dialektologiari buruz egin diren tesien marko teorikoak. 2000. urtetik hona hauek dira burututako tesiak euskal dialektologiaren arloan: Erdozia (2001), Montoya (2002), Epelde (2004), Ormaetxea (2006), Zelaieta (2008), Makazaga (2009), Apalauza (2010) eta Legarra (2011). Hauetatik lau, Epelde (2004), Ormaetxea (2006), Makazaga (2009) eta Legarra (2011), monografiak dira, herri bateko hizkerak baino ez dira aztertzen; eta lau eremu zabalagokoak, Erdozia (2001), Montoya (2002), Zelaieta (2008) eta Apalauza (2010).

Hauek dira azken tesietan erabilitako marko teorikoak egilez egile:

- **Erdozia (2001)**

Erdoziak lana zazpi kapitulutan banatzen du. Lehenengo kapituluan lanaren esparrua eta oinarri teorikoak azaltzen ditu. Erdozia “Oinarri dialektologikoa” atalean (29. or.) zenbait autoreren teoriez eta iritziez ari da. Atal hau bost puntutan banatzen du. Lehenengo puntuan, hainbat autoreren iritziaz ematen ditu dialektologia eta hizkuntza geografia bereizteko (29-32 orr.). Bigarren puntuan, hizkuntz geografiaren metodologia azaltzen du (32-45 orr.). Hirugarrenean, continuum geolektalez aritzen da (45-49 orr.). Laugarrenean, mugak aztertzen ditu: isoglosak eta trantsizioak (49-53 orr.). Eta amaitzeko, oharmenezko dialektologiari buruz aritzen da (53-60 orr.).

Bigarren kapituluan ezaugarri fonetiko-fonologikoak aztertzen ditu: bokalismoa eta kontsonantismoa. Hirugarren kapituluan ezaugarri morfologikoez aritzen da. Honetan izenordainak, determinatzaileak, deklinabidea, postposizioak, izenondoak graduatu edo mailakatzeko partikula eta atzizkiak, aditzondoak, eratorpena eta aditzaren morfologia aztertzen ditu. Laugarren kapituluan ezaugarri sintaktikoak ematen ditu: galderazko esaldiak eta harridurazkoak, esaldi eliptikoak, koordinazioa eta menpeko esaldiak. Bosgarren kapituluan lexikoari buruz jarduten du eta seigarrenean ondorioak eskaintzen ditu. Amaitzeko, zazpigarrenean ahozko testu batzuen transkribapenak ditugu.

- **Montoya (2002)**

Montoyak bigarren kapituluan (31-49 orr.) ekiten die oinarri teorikoei. “Lanaren metodologia. Oinarri teorikoak” deitutako kapitulua hiru zatitan banatzen du. Lehenengoan, datuen bilketa azaltzen du. Bigarreanean, hiztunez, aldagarri soziolinguistikoez eta euskararen egoeraz aritzen da; eta amaitzeko, hirugarrenean, oinarri teorikoak eta ikerketaren helburuak azaltzen ditu.

Oinarri teorikoei buruz isoglosak erabiliko dituela aipatzen du:

“Azterketa honetan, beraz, isoglosa multzoek definitzen dituzten desberdintasunen eta konbergentzien arabera antolatuko ditugu ondorioak. Dialektologiak ez du banaketa hau egiteko eredu zehatzik eskaintzen, eta horrela, isoglosen kopuruak eta nolakotasunak hizkerak bereizteko duten garrantzia erabakitzea ikerlariaren esku geratzen da.

Hizkuntzalari batzuek aipatzen dute isoglosa guztiak ez direla berdinak, ez dutela denek balio bera, eta horrela, ezaugarrien agerpen maiztasuna edo hizkuntza sistimaren osotasuna (Ivić, 1962: 48; Veny, 1992: 205) kontuan hartu beharreko parametroak direla. Azterketa honetan, garrantzi handiagoa eman diet maiztasunez eta emankortasunez agertzen diren ezaugarriari, baina Ivićek (1962: 48) aitortzen duenez, “neurketa” egitea ez da beti erraza” (46 or.)

Isoglosak aipatzeaz gain, Montoyak dialektometria ez du aintzat hartzen esanez oraindik ez dela hizkeren arteko distantzia neurtzeko metodo egokirik asmatu:

“Dialektometriaren metodologiak hala ere, ez du dialektologilarien artean erabateko onespenez lortu, eta oraindik ere, dialektologiak ez du, hizkuntza eremuak ilundu gabe, elkarreaginak ahaztu gabe, hizkeren arteko distantzia neurtzeko egokia den metodoa asmatu.” (46 or.)

Halaber, Montoyak aipatzen du azterketa sinkronikoaz gain diakronikoa ere egingo duela:

“Azterketa sinkronikoaz gain, diakronia ere egin nahi izan dut, ikusteko ea hizkera apurka-apurka norabidea aldatzen ari den, ea orain lapurterantz ala nafarrerantz gehiago egiten ari den.” (46 or.)

- **Epelde (2004)**

Epeldek lana zortzi kapitulutan banatzen du. Lehenik eta behin, alor lanaren nondik norakoak, datu bilketa eta berriemaileen ezaugarrien berri, ematen ditu (19-22 orr.). Laugarren kapituluan (37-48 orr.) Larresoroko hizkeraren sailkapenaz idatzi denari buruz aritzen da, Bonaparte, Azkue, Vinson, Lacombe, Guter, Moutard, Allières, Yrizar eta Zuazo aipatuz. Hauetan guztietan ikusten du bi proposamen egin direla Lapurdiko barrualdeko hizkeren sailkapenaz.

Bigarren kapituluan Larresoroko historiaz, geografiaz eta ondoko eremuekiko gizarte harremanez aritzen da. Hirugarren kapituluan euskararen egoera alderatzen du: lehen eta orain. Bosgarren kapitulua da zabalena. Honetan Larresoroko hizkeraren deskribapena egiten du. Deskribapen hau bost puntutan banatzen ditu: fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, joskera eta lexikoa. Seigarren kapituluan Larresoroko eta Hazparneko hizkerak alderatzen ditu. Amaitzeko, zortzigarren kapituluan ahozko testu batzuen transkripzioak eskaintzen ditu.

- **Ormaetxea (2006)**

Ormaetxeak “Oinarri teorikoak” izenburua duen puntua eskaintzen digu bere tesiaren sarreran, lehenengo kapituluan (40-43 orr.). Horretan esaten du fonologiaren azterketari lehentasuna ematen diola, nahiz eta beste arloak ere aztertu, eta batez ere Mohanan-en (1986) eta Hualderen (1991) lanetan oinarritzen dela, hau da, fonologia lexikoan. Aipatzen du fonologia lexikoaren kontzepturik garrantzitsuena estratuarena dela, eta bere tesian aplikatuko duela. Amaitzeko, Ormaetxeak bere azterketan arau fonologikoak eta bilakaera fonetikoak bereiziko ditu.

“Fonologia lexikoaren kontzepturik garrantzitsuena estratuarena (stratum, ingelesez) iruditu zaigu, eta geure lanean aplikatu nahi izan dugu.” (41 or.)

Ormaetxeak honela egituratzen du bere tesia: sarrera, fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, morfosintaxia, lexikoa, ondorioak eta testuak.



Fonologian fonemen inbentarioa ematen du. Bokalen bilakabide fonologikoak eta bokalen eta diptongoen bilakabide fonetikoak aztertzen ditu. Era berean, kontsonanteen bilakabideak, arau fonologikoak, eta kontsonanteen bilakabide fonetikoak ere aztertzen ditu. Kapituluia amaitzeko azentua aztertzen du.

Izenaren morfologian ezaugarri orokorrak eman ostean, hitz arrunten deklinabidea, pertsona-izenordainak, erakusleak, zenbatzaileak, deklinabide berezia duten izenak, postposizioak eta atzizkiak aztertzen ditu.

Aditzaren morfologian, lehenik eta behin, tratamenduak azaltzen ditu. Ostean, jokatu gabeko aditzak, aditz-izena inesiboan eskatzen duten aditzak, jokamolde bereziko aditzak, komunztadura, aditz-erroak eta morfemak eta aditzen osagaien azterketa ematen du. Amaitzeko, aditz-taulak eskaintzen ditu.

Morfosintaxian perpaus mota guztien azterketa (osagarriak, zehar-galderak, erlatiboak...) ematen ditu Ormaetxeak.

Lexikoa aukeratzeko irizpide batzuk jarraitu ditu 445. orrialdean.

Ondorioak puntu nagusi bitan banatzen ditu: Aramaioko hizkeraren kokagunea eta Aramaioko euskararen eta Oletakoaren arteko desberdintasunak.

- **Zelaieta (2008)**

Zelaietak “Irizpide teoriko metodologikoak” izenburua duen kapituluia dauka bere tesian (61-85 orr.). Kapitulu hau, sarreraz gain, sei ataletan banatuta dago. Lehenengoan, geolinguistikaz aritzen da eta Zelaietak (69 or.) esaten du geolinguistika tresna ezin hobe delarik Baztan-Bidasoako mintzoak ikertzeko, bertako hizkerak konparatzeko, kokatzeko eta sailkatzeko. Bigarren puntuan diakroniaz aritzen da eta honela adierazten du:

“hizkuntzaren errealitate sinkronikoa aztertzeko alderdi diakronikoari ezin zaiola muzin egin adierazi beharrean gara” (70 or.)

Hirugarren puntuan oharmenezko dialektologiaz baliatuko delarik onartzen du:

“lekukoen ezagutza (meta)linguistikoko hauek laguntza baliagarriak suertatzen ahal direla azaldu gogo dugu; zeren eta hiztun arruntak ere badaki zerbait ikertzaileak aurkitu eta finkatu nahi dituen muga dialektalen gainean.” (72 or.)

Laugarren puntuan isoglosen garrantziaz eta historiaz aritzen da eta hurrengo puntuan esparru lektalak eratzeko metodo bat proposatzen du.

“Euskal Herriko erdigunean den Baztan-Bidasoa dialektologikoki aztertzeko, gure proposamen metodologikoa irizpide kualitatiboetan sakontzea da irizpide kuantitatiboetan baino gehiago”. (62 or.)

Amaitzeko, azken puntuan erabiliko duen terminologia argitzen digu.

- **Makazaga (2009)**

Makazagak sarreran eskaintzen dio puntu bat metodologia eta oinarri teorikoei (18-23 orr.). Horretan, esaten du lan sinkronikoa delarik eta lagunarteko erregistroa ahalegindu duela

batzen elkarrizketa librean bidez nahiz eta inkestak ere erabili dituen elkarrizketa libreetan jaso ez diren datuak batzeko. Gero, banan-banan aipatzen ditu aztertutako ataletan zer egin duen eta oinarritzat zer hartu duen.

#### Fonologian oinarritzat hartu duena:

“Izan ditudan oinarriak Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*, Pello Salabururen *Arau fonologikoak* eta *Hizkuntzaren soinu egitura*, eta Lourdes Oñederraren Euskal Fonologia: palatalizazioa, eta berrikiago, azken urteetan egin diren tesiak eta azterlanak (Hualde-Elordieta-Elordieta 1995, Ibarra 1995, Camino 1997, 21 Ormaetxea 2006, eta Hualde 1997 eta Gaminde 1999-ren azentu-azterketak). Terminologiari dagokionez, lan berrienetan erabiltzen ari diren terminologia erabili dut, eta bereziki Lourdes Oñederraren Fonetika Fonologia hitzez hitz hiztegi terminologikoa.” (20-21 orr.)

#### Izenaren morfologian:

“Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I (hemendik aurrera, EGLU), inguruetako herrietako azterketa monografikoak (aipagarria da Nerea Aretaren doktoretza-tesia Eibarko kasu-marka eta postposizioen erabilerari buruz), eta berri-emaileen adibideak eta haietako batzuei egindako inkesta berariazkoak.” (20 or.)

#### Aditzaren morfologian:

“Makazaga (2006b), EGLU II, Yrizar (1991) eta bereziki inguruko hizkerak (Eibar, Bergara, Aramaio, Antzuola...) ezaugarritzeko erabili den aditz-sistema.” (21 or.)

#### Sintaxia:

“EGLU III, EGLU IV, EGLU V eta EGLU VI (eta VII) eta arlokako tesiak (Beñat Oyharçabal, Patxi Goenaga, Iñaki Amundarain...)” (21 or.)

#### Esaerak, esapideak eta interjekzioak:

“Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Kike Amonarrizen ahozketasunari buruzko argitalpenak, Iñaki Amundarainen tesia elipsiaren gainean, hizkera kolokialari buruzko erdarazko bibliografia, Gotzon Garateren esaerak (Elgoibarrri dagokion EL marka zutenak bildu ditut), Auspoa liburutegiko hainbat liburu (Lasarte, Zavala, Zubimendi...), eta berri-emaileen datuak, testu libreetakoak nahiz berariaz bilatutako esaerak eta esapideak.” (22 or.)

#### Hiztegia:

“Berri-emaileen datuez gain, goian aipatu hiztegiak erabili ditut, eta bai Sarasolaren *Zehazki* eta *Euskal Hiztegia*, eta Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* eta, hitzen forma standarra emateko, *Hiztegi Batua* ere.” (22 or.)

#### Testuak:

“Gotzon Aurrekoetxeak (1997) Uztaro aldizkarian proposatzen dituen transkripzio-arauak erabili ditut testuak idazteko, ikerlanean zehar argi eta garbi markatzen ditudan salbuespenak salbuespen.” (22 or.)

#### Ondorioak:

“Zuazo-Badihardugu elkarteak (2002) Deba ibarrari buruz eta bereziki Zuazok (1999, 2000b) Debabarrenari buruz argitaratutako lanak, Eibarko euskararen azterketa ugariak (Sarasua-Agirrebena-Zenarruzabeitia, Basauri-Sarasua...), eta Soralezko, Mendaroko, Mutrikuko eta Debako berri-emaileak, Debako euskarari buruzko Txurruka-Urbietak (2003), Mutrikukoari buruzko Arrieta (1974) eta [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) webgunea.” (23 or.)

- **Apalauza (2010)**

Apalauzak bere tesiaren seigarren atala eskaintzen die irizpide metodologikoei (161-169 orr.). Atal honetan hiru puntu nagusi bereizten ditu: hizkuntza-ezaugarriak aukeratu beharra, diakronia eta dialektologia historikoa, eta amaitzeko, oharmen-dialektologia. Hizkuntza-ezaugarriak aukeratu beharrez honela esaten du Apalauzak:

“Euskal Herrian, hizkuntza-ezaugarriak aukeratzeko bi eredu nagusi aipa daitezke (Aurrekoetxearen ekarria alde batera utzita): Zuazorena eta Caminorena. 1998an Euskal Herri osoko euskalkiak sailkatzeko egindako lanean, Zuazok adierazi zuen berrikuntzak direla dialektologiaren oinarri” (165 or.)

Eta aztertuko duen eremua metodologia egokiena aukeratzeko honako hau aipatzen du:

“Gure eremuko hizkeren azterketara etorrira, berrikuntzak hobetsiko ditugu lanerako, Zuazok eta Caminok iradokitzen dutenaren ildotik (azken batean, biek azpimarratu dute berrikuntzak direla dialektologia-lanen oinarri). Baina soilik berrikuntzak baliatzen dituen sistema hertsiegi gertatzen da gure eremua aztertzeko; erdiguneko eremua izanik, alderdi askotako eraginak bildu dira bertan, eta ezaugarri eskusibo urriko eremua da, gainera. Berrikuntza ez diren ezaugarriak baztertuko bagenitu, hankamotz geldituko litzateke gure ikerketa, lanean zehar ikusiko dugunez. Horregatik, berrikuntza partekatuak ez diren zenbait ezaugarri ere aintzatetsiko dugu gure azterketan, gure hizkeren gaineko ikuspegia osatzeko baliagarri diren heinean betiere.” (172 or.)

Hurrengo puntuan Apalauza diakroniaz eta dialektologia historikoaz aritzen da, eta bertan hainbat testuren azterketa egiten du. Azterketa horretan testuan agertzen diren ezaugarri fonologiko eta morfologiko nagusiak aztertuko ditu multzo bitan banatuta: gaur egun hizkera horretan agertzen diren ezaugarriak eta gaur egungo hizkeran agertzen ez diren ezaugarriak baina testuan agertzen direnak.

Esan bezala, azken puntuan oharmen-dialektologiaren aritzen da.

“Gaur egungo dialektologian, hiztunek hizkeren gainean dituzten iritziak ere aintzat hartzen dira hizkerak aztertzeko orduan.” (199 or.)

“Hainbat ikerketak frogatu dute hiztunek oro har “asmatu” egin ohi dutela hizkeren buruzko oharrak ematean.” (200 or.)

Egileak bere azterketan burutu duen inkesta ere aurkezten digu (203-204 orr.).

- **Legarra (2011)**

Marko teorikoari dagokionez, Legarrak lehenik eta behin hainbat teoriaren laburpena egiten du (fonologia sortzailea, fonologia, metrikoa, fonologia metriko-segmentala, fonologia lexikoa, fonologia prosodikoa eta optimitatearen teoriarena), eta ondoren fonologia prosodikoa hartzen du marko teoriko gisa.

“Lana egituratzeko fonologia prosodikoaren ekarria izan dugu euskarri” (39 or.)

Hala eta guztiz ere, Legarrak (40 or.) aipatzen du fonologia sortzaileaz, fonologia lexikoaz, optimitatearen teoriaren eta fonologia-metrikosegmentalaz ere baliatuko dela bere azterketa egiteko.

Legarrak lana hamar kapitulutan banatzen ditu. Sarreran ikerketaren zergatiak, helburua, antolaketa, eremu geografikoa eta egoera soziolinguistikoa zeintzuk diren azaltzen

ditu. Bigarren kapituluan aipatutako oinarri teorikoaz aritzen da eta hurrengoan erabilitako metodologiaz: informatzaileak, datu bilketa, datuen transkripzioa eta arauen irudikapena. Hurrengo kapituluetan ikerketa bera egiten du, fonemak, silabak, hitz fonologikoa, talde klitikoa, sintagma fonologikoa eta intonazio esaldia aztertuz. Amaitzeko, ondorio nagusiak aurkezten ditu.

Laburpen honetan ikusi dugunez, azken hamarkadan dialektologiaren inguruan era askotako azterketak egin dira. Baina sailkapen bat egitekotan lan-eremuaren arabera egin liteke. Hortaz, mota bi bereiziko genituzke: herri hizkera baten monografiak eta lan-eremu zabalagoko azterketak, lan kontrastiboak.

Esan bezala, gure kasuan, hautatutako lan-eremua, Igorreko herria, monografia bati dagokio, eta beraz, gure azterketa gehiago hurbiltzen da Epeldek (2004)<sup>8</sup>, Ormaetxeak (2004), Makazagak (2009) eta Legarrak (2011) egindako lan monografikoetara. Hauen artean, oso interesgarriak iruditzen zaizkigu Ormaetxeak (2004) eta Makazagak (2009) egindako lanak hizkeraren deskripzioa egituratzeko, eta hauek hartuko ditugu eredutzat guk jasotako datuak ikertzeko eta egituratzeko.

Azterketa dialektologiko bat egiteko teoria asko erabil daitezke. Teoriak ezagutu behar dira eta bat, edo batzuk, aplikatzerako orduan zer eskaintzen duten jakin behar dugu azterketan behar edo nahi ditugun emaitzak lortzeko. Halaber, ez dugu uste teoria baten alde egitea beste guztien aurka egitea denik; teoria bakoitzak datuak ulertzeko bide ematen du eta guk jakin behar dugu hautatzen gure azterketarako egokiena deritzoguna. Puntu honetan bat gatzoz Gaminde, Romero eta Legarraren (2012: 19-20) iritziarekin:

“Datuak eta datuek islatzen dituzten gertakari linguistikoak azaldu behar dira. Horretarako teoria linguistikoetara jo behar da ezinbestez. Makina bat dira hizkuntzalaritzan indarrean dauden teoriak. Teoriek datuak azaltzeko tresnak ematen dizkigute. Gramatikaz berba egiten dugunean (l.l. azpiatala), honezaz sakonkiago jardungo badugu ere, hausnarketarako gai bat plazaratu nahi genuke. Gurea moduko hizkuntza egoeretan eta honen moduko lanetan ez dugu uste teoria bakarra erabili behar dugunik; haatik, teoriak ezagutu eta bakoitzak zer eskaintzen digun ikusita, gure hizkuntzan aplikatzeko hartu behar dugu ondoen egokitzen zaiguna, unean-unean gure arazoak egokien azaltzeko. Bide batez teoria orokor horiei ekarpenik egin bageniezaie ondo; baina hala ez bada, hori ez da obsesio bihurtu behar, izan ere, nekez lehia gaitzeko hizkuntza indartsuetan egiten denarekin, sarritan gure urak errota horietara eraman nahi direla ematen badu ere. Ikuspuntu ekolinguistiko batetik behatuta, lehia horietan hizkuntza gutxituek beti irteten dute galtzaile.”

Egindako azken tesietan ere, asko dira erabilitako marko teorikoak. Epelde (2004), Ormaetxea (2006) eta Makazaga (2009) ahalegintzen dira Zuazoren (2008) sailkapen dialektologikoa zehazten berak emandako irizpideak jarraituz. Ormaetxea (2006), honetaz gain, fonologia atalerako fonologia lexikoaren marko teorikoan oinarritzen da eta bereziki Mohanan (1986) eta Hualde (1991) erabiltzen ditu. Legarrak (2011) aldiz, lana egituratzeko fonologia prosodikoaren ekarria du euskarri eta bere azterketan, fonologia sortzaileaz, fonologia lexikoaz, optimitatearen teoriak eta fonologia-metrikosegmentalaz ere baliatzen da.

<sup>8</sup> Epeldek atal batean ere Larresoroko hizkera alderatzen du Hazparnekoarekin.

## 1.4.2. Tesian erabilitako marko teorikoak

Alde batetik, lan honetan Igorreko hizkera ahalik eta zehatzen aztertzen ahalegindu naiz; arloz arlo jardun dugu hizkera hau deskribatzen eta bere arauak azaltzen, gure lanaren helburua, Igorreko gramatikaren arauak aurkeztea baita (ikus 1.3. puntua). Hortaz, azertu ditugun arlo guztiak gobernatzen dituzten arau gramatikalak eman ditugu. Beraz, lan honek zati nagusi bi ditu: alde batetik, Igorreko hizkeraren arau fonologikoak ikertu dira, eta beste batetik, hizkera honen arau gramatikalen deskribapena egin da. Beste aldetik, lan honen beste helburua da Arratiako barietatearen mendebaldeko muga zehaztea. Horretarako, azterketa bat egin beharko dugu Zeberriko hizkera Arratia eta Arrigorriagako barietatekoekin alderatuz.

Igorreko hizkera aztertzeko geuk ere Legarraren (2011) ildotik jo dugu, hau da, fonologia prosodikotik. Hortaz, hizkera hau aztertzeko fonologia prosodikoak aurkezten digun hierarkia prosodikoan oinarrituko gara, eta horretarako Selkirk-en (1984) eta Nespor & Vogel-en (1986) postulatuak jarraituko ditugu.


Azterketa konparatiboa egiteko ostera, bi marko ezberdin erabiliko ditugu: dialektologia kontrastiboa eta dialektometria. Caminok (2004) aipatzen duenez, irizpide metodologiko nagusi bi, arestian aipatu ditugunak, erabiltzen dira egungo euskal dialektologian. Egia da, metodo hauetaz gain, estrukturalismoa inoiz erabili izan dela euskal dialektologian; horren erakusle nagusienak Rotaetxe (1991) eta Pagolaren (1990) lanak dira, baina Caminok (2004: 90) aipatzen duenez, ez dute jarraipenik izan.

### 1.4.2.1. Hierarkia prosodikoa

Fonologia prosodikoaren teorian hizketa unitate fonologiko multzo mugatu batean egituratzen da. Fonologia eta gramatikaren beste osagaien artean gauzatzen den elkarreragina aztertzen da.

Chomsky & Halle-n (1968) oinarritzen den fonologia sortzaile tradizionalan (SPE) irudikapena lineala bazen ere, teoria honetan osagai fonologikoa ezin da homogenea izan, elkarreraginean dauden azpisistemen azpimultzo bat bezala ikusi behar da, non bakoitza berezko printzipioek gobernatua dagoen: fonologia metrikoa, fonologia lexikoa, fonologia autosegmentala eta fonologia prosodikoa. Gure kasuan, azpisistema prosodikoa da aztertuko duguna.

1. eskeman ikusten den moduan fonologia elkarreraginean dago gramatikaren beste osagaiekin: morfologia, joskera eta semantikarekin.




1. eskema. Fonologia prosodikoaren eta gramatikaren beste azpisistemen arteko elkarreraginaren ereduak (Nespor & Vogel, 1986: 344)

Fonologiaren antolaketak unitate prosodikoetan hierarkikoki egituraturako zazpi maila edo osagai ditu: silaba, oina, hitz fonologikoa, talde klitikoa, sintagma fonologikoa, intonazio esaldia eta testu fonologikoa. Hierarkia prosodikoa unibertsaltzat hartzen da eta prosodiaren edozein kategoriatarako, esaldia osagai horien segida batean aztertzen da. Osagai fonologikoak hierarkia batean antolatzen dira (2. eskema), eta irudikapen fonologikoan, mailetan antolatuta daude hierarkiaren arabera (cf. The Strict Layer Hypothesis — Selkirk (1984) eta Nespor & Vogel (1986: 7) — ), hau da, era bereko osagai prosodikoak ez dira onartzen.

Nespor & Vogel-en (1986) sailkapenean<sup>9</sup> osagai bi hitzaren mailatik behera daude eta lau mailatik gora.

<sup>9</sup> Legarraren (2011) eta Gaminde, Legarra & Romeroren (2012) euskarazko itzulpena hartu dut.



2. eskema. Fonologia prosodikoaren antolaketan zazpi maila bereizten dira (Nespor & Vogel 1986:15)

## Silaba

Esan bezala, hierarkia prosodikoan silaba da osagairik txikiena eta ahalbidetzen du esaldi baten informazio segmentalaren irudikapen egituratua.

Fonologikoki segmentuak, kontsonanteak eta bokalak, silabetan batzen dira. Silaba nukleo (bokal) baten inguruan batutako segmentuen multzoa da.


Silaba fonetika eta fonologian kontzepturik eztabaidatuenetariko bat izan da. Hizkuntzalari batzuentzat silaba unitate fonologikoa da, eta ez ezinbestean fonetikoa (Núñez Cedeño & Morales-Front 1999: 170), beste batzuentzat aldiz, (Navarro Tomás 1961: 26) egitura akustiko zehatza duen unitate fonetikoa da.

Edozelan ere, silaba sistema linguistikoa unitate-egitura izatea garrantzitsua da modu uniformean jokatzeko duen unitate linguistikoa delako —errazagoa da esaldi bat silabetan banatzea segmentuetan edo morfemetan baino—, unitate fonotaktikoa osatzen duelako —sekuentzia segmentalean hizkuntza bakoitzaren murrizketak silaben barruan baino ez dira

egiaztatzen—, prozesu fonologikoak menperatzen dituelako eta unitate bezala balio duelako azentuaren moduko ezaugarri suprasegmentalak irudikatzeko. Gainera, esan dezakegu silaba pertzepzioaren aldetik ere, unitate garrantzitsua dela, hizkuntz ezaguera gabeko hiztunek inongo arazo barik banatu ditzaketelako esaldiak silabetan.

Handford & Stemberger (1998: 115) eta Núñez Cedeño eta Morales-Front-en iritziz (1999: 170), silabaren barruan segmentuak sonoritate eskala unibertsal baten arabera antolatzen dira. Horrela, sonoritate handienetako segmentua silabaren erdian egongo da, nukleoan, eta beste segmentuen sonoritatea, bai eskumakoena, bai ezkerrekoena, progresiboki txikiagoa da (ikus 3. eskema).


“The order of consonants within an onset or within a coda generally is governed by the sonority hierarchy, a scale based on the “sonority” of a segment. Sonority is not well defined, but seems to correspond to how similar a segment is to the most prototypical segment with high sonority: a vowel. The scale is, roughly:”



3. eskema. Sonoritate eskala (Handford & Stemberger, 1998: 115)

“The head of the syllable is usually the “peak” of sonority, and sonority tends to decrease towards the edges of the syllable. Thus, the first consonant in the onset is low in sonority, the second consonant is higher in sonority than the first, the head of the syllable is highest, the first consonant in the coda is lower in sonority than the head of the syllable, and the second consonant in the coda is lower yet.”

Hona hemen Núñez Cedeño eta Morales-Front-en (1999: 170) sonoritate eskala:



(2) **mues - tran pers - pek - ti - ba**  
**NDVO OLVN OVLO OVO OV OV**


(3) a. **V = 5, D = 4, L = 3, N = 2, O = 1**

b. **mues - tran pers - pek - ti - ba**  
**NDVO OLVN OVLO OVO OV OV**  
**2 4 5 1 1 3 5 2 1 5 3 1 1 5 1 1 5 1 5**

4. eskema. Sonoritate eskala. (Núñez Cedeño eta Morales-Front, 1999: 170)



Silabaren barruan dauden segmentuak edo posizioak aipatzeko “hasiera”<sup>10</sup>, “errima”, “nukleoa” eta “koda” terminoak erabiltzen dira. Aipatu bezala, nukleoa erdigunea da eta baita sonoritate handiena daukana ere. Silaben barruan nukleoaren aurrean dauden kontsonantei, edo dagoen kontsonanteari hasiera deitzen zaio. Silabaren barruan, koda da nukleoaren ostean dagoena. Hauek, nukleoa eta koda, unitate nagusiago baten batzen dira: errima (ikus 5. eskema).



5. eskema. Silabaren eskema.(Handford & Stemberger, 1998: 112)

Silabaren egiturari dagokionez, Shukla-k (2006: 115) generalizazio inter-linguistiko bat egiten du lau puntutan:

1. Hasiera hautazkoa izan daiteke, baina ezin da guztiz indargabetu.
2. Nukleoa ezinbestekoa da eta sonoritate handiena daukana da.
3. Hizkuntza batzuetan koda ezaba daiteke eta beste batzuetan hautazkoa da.
4. Hizkuntza batzuek silaba konplexuak onartzen dituzte, silabaren osagai bakoitzak segmentu bat baino gehiago izanez.

Lehenengo hiru puntuak kontuan hartuz, argi geratzen da egitura silabikorik txikiena bokal bakar batek osatutakoa dela. Era berean, 1. puntuak esaten digu ez dagoela hasierarik gabeko egitura silabikorik daukan hizkuntzarik. Ondorioz, CV egitura silaba moduan aurki daiteke hizkuntza guztietan. MacNeilage & Davis-ek (2001) iradoki dute CV egiturak irudikatzen duela hizketaren soinuaren egiturarik markatuena, beharbada, hizkera modernoaren aitzindaria dena.

<sup>10</sup>Ingelesez 'onset' eta gaztelaniaz 'ataque' o 'arranque'. Euskararako Oñederrak (2004) 'ekin' darabil.

## Oina

Fonologia prosodikoan silabak ez dira zuzenean hitzetan batzen; lehenago, osagai txikiagoetan batzen dira, oinetan (Nespor & Vogel 1986: 83). Oina unitate suprasilabikoa da, eta normalean hitza baino tamaina txikiagokoa (Selkirk 1984: 31).

Oinean silaba azentudun bakar bat baino ez dago, eta silaba hori oinaren burua da. Oinean dauden beste silaba guztiak, nahi den kopurua izanik, azentugabekoak dira. Hayes-ek (1987, 1995), besteak beste, deskribatu zuen, silaba biko oinen tipologia. Gogoratu behar da (Handford & Stemberger, 1998: 119):

“Most feet in most languages have only two syllables: feet are usually binary.”

Horrela, lehenengo silaban azentua duen oina, ingeles terminologia erabiliz, *left-prominent* (edo *trochaic*, edo *left-headed*) da. Azentua bigarren silaban duen oina *right-prominent* (edo *iambic*, edo *right-headed*) da.

Oinarritzko oinak gehienez silaba bi ditu. Baina, batzuetan hitu silaba edo gehiago izan ditzake; kasu hauetan, errazagoa da azentua erdiko silaban egotea ertzeetakoetan baino (Handford & Stemberger, 1998: 110).

Fonologia sortzailean, batez ere teoria metrikoan, oinaren aldeko argudioak azentuaren ezarpenean dautza. Hau da, oina funtsezkoa da silaba azentudunen eta azentugabeen kokapenerako, bai hitz barruan, bai sekuentzia luzeagoetan.

Autore batzuek, (Prince, 1983; Selkirk, 1984) esan dute azentuaren ezarpena azaltzeko ez dela zuzena oina terminoa hartzea, sare metrikoa baino.

“In the present theory such rules would be recast as rules sensitive to the metrical grid alignment of syllables. We hypothesize, therefore, that there is no prosodic constituent foot.” (Selkirk, 1984: 31)

Dena den, Nespor & Vogel-ek (1986: 83) esaten dute teori fonologikoan ez dela oina ezabatu behar, nahiz eta arau guztiak sarearen bidez azaldu ahal diren.

“While metrical grid theory offers interesting advantages over an arboreal theory with feet as far as stress is concerned, it is not clear that it can obviate the role of the foot as a domain of other types of phonological rules. Even if it were the case that all foot-sensitive rules can, in fact, be formulated in relation to grid configurations, this does not necessarily mean that the foot should be eliminated from phonological theory.” (Nespor & Vogel, 1986: 83)

## Hitz fonologikoa

Nespor & Vogel-en (1986: 109) arabera hitz fonologikoa da proiektzio arauen bidez eratuta dauden eta nozio ez fonologikoak erabiltzen dituen hierarkia prosodikoaren osagairik txikiena. Hitz fonologikoak gramatikaren osagai fonologikoen eta morfologikoen elkarreragina irudikatzen du.

Hierarkia prosodikoan oinaren gainetik dagoen hurrengoa hitz fonologikoa da. *Strict Layer Hypothesis* (Nespor & Vogel (1986: 7) deritzonaren arabera sekuentzia bateko oin guztiak hitz fonologikoetan batu behar dira eta beste kategoriek ezin dira modu honetan batu. Beraz, oin guztiak hitz fonologikoaren barruan daude, eta ez da posible oin bakar bateko silabak hitz fonologiko ezberdinetan egotea.

Handford & Stemberger-en (1998: 121) arabera, hitz fonologikoaren burua azentu handiena, hau da, azentu nagusia dagoen silaba duen oina da. Beste oinek azentu bigarrenkaria daukate. Normalean hitz batek hitz fonologiko bat osatzen du, ez du ardura bere luzerak, eta azentu nagusi bat baino ez dauka. Hitz fonologikoaren burua den oina hizkuntza bakoitzean ezarri behar den parametro batek zehazten du.

Hizkuntza gehienetan hitz fonologikorik txikienak oin bat dauka. Oin batek gutxienez mora bi edo silaba bi dauzkanean, hizkuntza gehienetan hitz fonologikorik txikienak gutxienez mora bi dauzka, eta hizkuntza batzuetan gutxienez silaba bi izan behar ditu. Hizkuntza batzuetan, hitz fonologikorik txikiena hitzaren ebakeraren zatiaren arabera da.

Hizkuntza batzuek ere hitz fonologikorik handiena daukate: hitzaren luzerari lotutako maximo absolutu bat. Hizkuntza batek luzera finko bat badu, hitzek nahiko laburrak izateko joera daukate: silaba bikoak (oin bakarrekoak) edo lau silabakoak (oin bikoak). Askotan, umeez oin bakarreko hitz fonologikorik handienak daukate.

Hitz fonologikoa sekuentzia segmentalean murrizketa fonotaktikoak dituen eremu bat da. Segmentuek hitz fonologikoaren eremuko testuinguruetan posizio silabiko batzuk zilegitzen dituzte (Vigario 2003: 22). Euskaraz, adibidez, hitz fonologikoak ezin dira [r]-z hasi, baina erdiko silabek zilegitzen dute silaba hasiera hau (adb. [r]adar vs ga[r]a).

Hitz fonologikoaren eremua honela zehaztu zuten Nespor & Vogel-ek (1986: 141):

- A. Hitz fonologikoaren eremua Q da (zuhaitz sintaktikoaren azken elementua).
- B. I. Hitz fonologikoak osagai hauek dauzka:
  - a. Erro bat
  - b. Irizpide fonologiko edota morfologikoen bidez identifikatutako edozein elementu.
  - c. [+W] diakritikoz markatutako edozein elementu.
- II. Q-ren barruan atxikitutako edozein elementu errotik hurbilen dagoen hitz fonologikoaren parte dira.

## Talde klitikoa

Teoria prosodikoan, hitzak ez dira testuetan batzen, talde klitikoetan batzen dira. Talde klitikoak sintagma fonologikoetan, sintagma fonologikoak intonazio esaldietan, eta testu fonologikoetan intonazio bat edo bat baino gehiago batzen dira.

Klitikoak izatez hibridoak dira, hizkien eta hitzen arteko posizioa dutelako, eta horrela islatzen da gramatikaren osagai fonologikoan, non talde klitikoa hitz fonologikoaren (hizkiak eta beren erroak batzen dituen) eta sintagma fonologikoaren (hitzak batzen dituen) artean kokatzen baita.

Hitza gehi klitikoaren arteko konbinazio batzuek hitz aske bi balira legez jokatzeko dute, baina beste batzuek, ordea, hitz bakar bat izango balira bezala; hau da, batzuetan, arau espezifikoaren arabera, klitikoek hitz askeek bezala jokatzeko dute eta beste batzuetan hizkiek bezala. Askotan talde klitikoak zalantzan jarri da osagai prosodikoa legez. Nespor & Vogel-ek (1986: 174) beharrezkoa ikusten dute hitzaren eta klitikoaren konbinazio zehatz batzuek zenbait arau fonologikoren, hizkuntza jakin batean beste inongo testuinguruan aplikatzeko ez direnak, eremua osatzen dutelako, eta honek justifikatzen du hierarkia prosodikoan elementu hauek batzeko osagai bat egotea. Nespor & Vogel (1986: 174) Hayes-en (1989) lanaz baliatzen dira hau azaltzeko. Hayes-ek (1989) ingeleserako erakusten du talde klitikoak shandiak eta palatalizaio arauak aplikatzeko eremua dela.


Euskaran ere, arau batzuk aplikatzeko eremua da talde klitikoak. Adibide moduan, Arratia aldeko hizkeretan gauzatzen den  $a > e / i, u$  aruari erreparatuko diogu. IZANeko aditz laguntzailea klitikoak denean gauzatzen da, bestela ez: *etorri de* vs *etorri dala* (eta ez \**etorri dela*). Hizkera honetan *etorri* aditz nagusiak eta *da* aditz laguntzaileak talde klitikoak osatzen dute, *etorri da*, baina *-la* menderagailua gehituz gero, ez dago talde klitikorik, *etorri dala*. Ondorioz,  $a > e / i, u$  araua ez da gauzatuko *-la* menderagailuarekin, arau hau talde klitikoekin gauzatzen baita. Beraz, talde klitikoekin gauzatuko da: *etorri + da > etorri de*; baina talde klitikorik osatzen ez dutenekin ez da gauzatuko: *etorri + dala > etorri dala*.

Klitikoen jokaera fonologiko mistoa, hizkietatik eta hitzetatik bereizten dituen ezaugarria, arauen bidez azaltzen da, eta arau hauek ezartzeko eremua talde klitikoak da. Fonologia prosodikoan, kategoria bakoitzak gramatikaren osagai ezberdinen informazio zehatza du. Hierarkia prosodikoan talde klitikoak da irudikatzen duen lehenengo maila, osagai sintaktiko eta fonologikoen proiektzioa.

Beste autore batzuek (Selkirk, 1984; Vigario, 2003 eta Peperkamp, 1997) ordea, ez dute uste talde klitikoak osagai prosodikoa denik, eta horrela frogatzen dute Vigariok eta Peperkampek gaztelania eta portugesez hizkuntza erromanikoetarako.

Peperkamp-en (1997: 168) arabera, Nespor & Vogel-ek (1986) emandako adibideak azaltzeko ez da beharrezkoa talde klitikoak. Egilearentzat bereziki argumentu bi daude: lehenengo argudioan autoreak hainbat arrazoi ematen ditu azaltzeko talde klitikoak ezin duela hitz fonologiko bat osatu defendatzeko. Bigarren argudioan zalantzan jartzen du talde klitikoaren kokagunea, unibertsala izan behar dena, hierarkia prosodikoan. Horretarako, Hausa eta Bantu hizkuntzen adibideak ematen ditu.

Selkirk-en (1984) proposamenaren ere, ez dago talde klitikorik, ezta testu fonologikorik ere. Bost osagai prosodiko bakoitzeko ezin ditu proposatzen: silaba, oina, hitz fonologikoa, sintagma fonologikoa eta intonazio esaldia.



6. eskema. Selkirk (1984: 26)

## Sintagma fonologikoa

Hierarkia prosodikoan talde klitikoaren gainean dagoen osagaia sintagma fonologikoa da. Sintagma fonologikoa klitiko bat, edo bat baino gehiago batzen ditu. Esan bezala, osagai fonologikoa bat arau fonologikoen formulazioa beharrezkoa denean justifikatzen da. Sintagma fonologikoa kasuan, justifikatzeko, Nespor & Vogel (1986: 165) *Raddopamiento Sintattico* delako arau fonologikoz baliatzen dira, italiararen barietate batzuetan gauzatzen den arauaz, alegia. Italiaraz gain, Nespor & Vogel-ek (1986: 175) erakusten dute beste hizkuntza batzuen arauak ere, sintagma fonologikoa eremuan gauzatzen direla.

Sintagma fonologikoa eta sintaxiak lotura handia dute eta honek baldintzatzen du sintagma fonologikoa. Sintagma fonologikoa zuhaitz sintaktikoaren oinarrian eratzen da. Bere eremuak klitiko bat (C) du, nukleo lexiko bat (X) eta bere alde ez-errekurtsiboaren beste C guztiak, X maximoaren proiektioetik kanpo dagoen beste nukleo bat daukan C-ra heltzeko (Nespor & Vogel 1986: 168).

Sintagma fonologikoa aldean, autore batzuek beste osagai bat proposatzen dute hitz fonologikoa eta intonazio fonologikoa artean. Bereziki, aipatu behar da Pierrehumbert & Hirschberg-ena (1990: 227), *intermediate phrase* deritzona.

## Intonazio esaldia

Hierarkia prosodikoan sintagma fonologikoa gainean intonazio esaldia daukagu. Informazio sintaktikoan oinarrituz intonazio esaldiak sintagma fonologikoa bat, edo bat baino gehiago batzen ditu. Informazio sintaktiko hau sintagma fonologikoa eremua definitzeko erabiltzen dena baino orokorragoa da. Osagai bat hierarkia prosodikoan zenbat eta altuago egon gero eta orokorragoa izango da bere eremuaren definizioa.


Intonazio esaldiaren eremuak intonazioak definitzen ditu, eta intonazio inguru koherenteen eremuak dira (Shattuck-Hufnagel & Turk, 1996). Intonazio esaldiak sortzeko eragile sintaktikoez gain, prominentzia eta jokaera ezaugarriekin erlacionatutako eragile semantikoak ere badaude, hala nola hizketaren abiadura, sekuentzi baten luzera edo estiloa. Horrela, hizketaren abiadura kontuan hartzen badugu, adibidez, sekuentzia bat arin ahoskatzen badugu aukera gutxiago egongo da intonazio esaldietan apurtzeko, eta aldrebes,

astiro ahoskatzen badugu, ziur asko intonazio esaldi gehiago sortuko dira. Beraz, intonazio esaldiaren eremua definitzeko kontuan hartu beharko da aldagarritasun hau.

Intonazio esaldietan sekuentzia baten organizazioan dagoen aldagarritasun maila handi honek beste osagai prosodikoetatik bereizten duen arren, badaude intonazio esaldi bat osatzeko murrizketa sintaktiko eta sematikoak. Gainera, hainbat arau fonologiko-segmental aplikatzeko eremua izango da Nespór & Vogel-ek (1986: 217). Pausek, esaldien amaierako segmentuen luzapenek eta tonu mugimendu patroiek mugatzen dituzte intonazioa esaldiak.

Intonazioa hizkuntza guztiek daukaten ezaugarria da. Hizkuntzalari askok (adibidez Hocket, 1963) intonazioa lengoia unibertsala dela esan dute, tonu aldaketek zentzu linguistiko edo paralinguistiko bat transmititzen dutelako hizkuntza guztietan, eta baita hizkuntza oso ezberdinek intonazio sistema komunak dituztelako ere.

Intonazio ereduak mota bikoak izan daitezke: fonetikoak eta fonologikoak. Fonetikoak, parametrikokoak (Fujisaki, Tilt eta INTSIT ereduak bezala) eta ez-parametrikokoak (Black & Hunt eta Ross & Ostendorf) izan daitezke. Eredu fonologikoa ere talde bitan banatzen dira: tonu mailak (ToBI eredu) eta tonu mugimenduak (IPO eredu).



7. eskema. Tonu eredu sailkapena (Evin, 2011: 129) moldatua.

- Fujisaki tonu eredu fonetiko superposizionala da, eta interpretazio fisiologikoak ematen ditu erlazionatuz F0 mugimenduak laringearen muskuluekin (Fujisaki & Hirose, 1982).
- Tilt eredu fonetiko sekuentziala da (Taylor, 2000).
- INTSIT (INternational Transcription System for INTonation) azaleko tonu eredu fonologikoa da. Maila fonetiko eta fonologikoaren artean kokatzen da (Hirst, Di Cristo & Espesser, 2000).

- ToBI (Tones and Break Indices) eredu Teoria Metriko Autosegmentalaren gainean eraikita dago. Eredu honek tonu kategori bi erabiltzen ditu: altuak (H) eta baxuak (L) Beckman, Hirschberg & Shattuck-Hufnagel, 2005).
- IPO: (Instituut voor Perceptie Onderzoek) arauetan oinarritutako pertzepzio eredu da, ('t Hart, René & Antonie, 1990).
- Black & Hunt-ek ToBI eta erregresio linealaren arteko teknikak erabiltzen dituzte (Black & Hunt, 1996).
- Ross & Ostendorf-ek Dynamical System Model for Generating F0 for Synthesis delako eredu garatu dute (Ross, Ken & Ostendorf, Mari, 1994).

### Testu fonologikoa

Hierarkia prosodikoan osagairik nagusiena testu fonologikoa da. Testu fonologikoa intonazio esaldi batek, edo batek baino gehiagok osatzen dute. Beste osagai prosodikoek bezala, nahiz eta testu fonologikoak bere definizioan informazio sintaktikoa erabili, ez du inongo osagai sintaktikoarekiko isomorfismorik erakusten. Hala ere, oso interesgarria da testu fonologikoen mailan lan egitea, faktore fonologiko eta sintaktikoen beharra izateaz gain, faktore logiko-semanticoen beharra ere baduelako. Beraz, analisi fonologikoaren maila gorenean gramatikaren osagai batzuen elkarreagina daukagu. Eta elkarreagin honek organizazio fonologikoan ez eze, gramatikaren organizazioan ere badu eraginik (Nespor & Vogel, 1986: 221).

Selkirk-ek (1984) ordea, hierarkia prosodikotik kanpo uzten du testu fonologikoa:

“We have excluded the *utterance* from this list, because we believe there is little motivation for it, and because it engenders little debate. The *prosodic word* may be viewed as equivalent to Liberman and Prince’s *mot*” (Selkirk, 1984: 420)

### Euskararen inguruko ikerketak

Ez dira asko euskararen inguruan fonologia prosodikoa erabili duten lanak. Bereziki, hiru aipatu behar dira: Gaminde (2007b), Legarra (2011) eta Gaminde, Romero & Legarra (2012). Gamindek (2007b) Bizkaiko ia herri guztien datuen azterketa egiten du. Lehenengo atalean soinuen azterketa egiten du segmentalak eta suprasegmentalak bereiziz; bokalak, diptongoak, kontsonanteak, azentua eta intonazioa aztertzen ditu. Eta hurrengo ataletan izen morfologia, aditz morfologia, esaldi eredu nagusiak eta lexikoa ere lantzen ditu. Gamindek, hainbat datuen azterketa kuantitatiboa ere ematen du.

Legarrak (2011: 39) lana egituratzeko fonologia prosodikoa erabiltzen du, eta hierarkia prosodikoaren sei osagai aztertzen ditu.

“Lana egituratzeko fonologia prosodikoaren ekarria izan dugu euskarri, osagai fonologiko garrantzizkoenak modu ordenatuan azaltzeko aukera ematen duelako. Horrela, ikerlanaren nondik norakoa zehazteko erabili ditugun sarrera, oinarri teorikoa eta metodologia ataletatik aurrera, Nespor eta Vogel-en (1986) bidetik fonologia prosodikoak bereizten dituen osagaien arabera banaketa egin dugu, aldaketa txikiren bat sartuta. 2.13. taulan ikus daitekeen moduan, alde batetik,

hizkera bakoitzak bere dituen fonemak aztertzea ere egokia iruditu zaigu; beste alde batetik, atal oso moduan baztertu egin ditugu oina, nahiz eta beste osagai batzuk azaltzean aipamen egin, eta testu fonologikoa, intonazio esaldiaren barruan adibideren bat edo beste aipatu arren.”

Fonema  
Silaba  
Hitz fonologikoa  
Talde klitikoa  
Sintagma fonologikoa  
Intonazio esaldia

(Legarra, 2011: 39)

Gaminde, Romero eta Legarrak (2012) fonologia prosodikoaz gain, beste teoria batzuk ere erabiltzen dituzte: fonologia lexikoa, fonologia metriko-autosegmentala eta optimitatearen teoria. Euren lanaren azterketak nagusiki zazpi puntu ditu: fonemak eta alofonoak, silabak, izen-morfologia, aditz-morfologia, azentua, intonazioa eta testuen prosodia.

Ikusten dugunez, teoria hau aplikatzea ahozko hizkerak aztertzeko azken urte hauetan zabaltzen ari den berrikuntza bat da. Geuk ere ikerketa ildo honetatik jarraitu nahi dugu. Badakigu hierarkia prosodikoaren teoria gehienbat fonologian erabili izan dela, baina guk izen-sintagma eta aditz-sintagma arloetan erabiltzen diren arauak aztertzeko baliagarria den azaldu nahi dugu.

### **Teoriaren inguruan hartutako erabakiak**

Hurrengo lerroetan azalduko dugu zelan uztartu dugun marko teoriko hau Igorreko hizkeran aztertutako gramatikaren arloekin.

Hierarkia prosodikoaren piramidearen lehenengo osagai biak, silaba eta oina, gainera ukituko ditugu. Hauen egitura ez dugu sakon aztertuko, baina fonologiaren atalean ezinbesteko kontzeptuak izango dira, arau batzuk eremu hauetan gauzatzen direlako (diptongoetan eta azentuan gauzatzen direnak, adibidez).


Hitz fonologikoa da gehien landuko dugun osagaia. Eremu honetan gauzatzen diren arauak, bai fonologia atalean, bai izen-sintagma atalean eta baita aditz-sintagmarenean ere aztertuko ditugu.

Arestian esan bezala, nahiz eta autore batzuek zalantzan jarri duten, euskaraz talde klitikoa ere kontuan hartu behar da arau batzuen gauzatze eremua delako. Hizkera honetan talde klitikoa ezinbestekoa da, adibidez, shandietan gauzatzen diren arauak azaltzeko, edota azentuarenak (ikus Iglesias, 2008). Demostratuko dugu gure azterketako hiru arlotan, (fonologian, izen-sintagman eta aditz-sintagman) arauak gauzatzeko eremua dela.

Behetik gora piramidearen bosgarren osagaia, sintagma fonologikoa, izen-sintagmaren atalean izango dugu aztergai, atal horretan daudelako sintagma fonologikoaren eremuan gauzatzen diren arauak.



Gure azterketa honaino ailegatzen da hierarkia prosodikoaren teorian. Piramidearen goiko osagai biak, intonazio esaldia eta testu fonologikoa, ez ditugu aztertuko. Ikerketa honetan ez dugu jardungo ez intonazioaz, ezta prosodiaz ere. Beraz, esan bezala, hierarkia prosodikoaren goiko bi osagaiak, intonazio esaldia eta testu fonologikoa, aztertzeke geratuko dira ikerlan honetan, eta bost osagaiko honako piramide hau da aztergai izango duguna:



#### 1.4.2.2. Dialektologia kontrastiboa eta dialektometria

Gure laugarren helburua betetzeko, hau da, Arratiako mendebaldeko muga zehazteko, marko teoriko bi erabiliko ditugu, dialektologia kontrastiboa eta dialektometria. Ikusiko dugunez, metodologia biek bere alde indartsuak eta ahulak dituzte, aldeko hizkuntzalariak, aurkakoak eta biak baliatu dituztenak (Viereck, 1988; Sousa, 2006; Houtzagers et al., 2010...) ere bai. Gu azken talde honetakoak izango gara, metodologia biak erabiliko ditugu gure azterketarako eta analisiaren amaieran metodologia biak erkatuko ditugu bere alde onak eta txarrak azalduz.

#### Dialektologia kontrastiboa

Gure azterketaren bigarren helburua lortzeko Chambers & Trudgill-en (1980) lana hartuko dugu oinarritzat. Hauek bariazio mota bi ezberdintzen dituzte dialektologian: bariazio soziala eta bariazio espaziala. Guk, printzipioz, bariazio espazialari baino ez diogu erreparatuko; izan ere, gure informatzaileak klase sozial berekoak dira eta ondoko herrietan egin diren lanetan (Gaminde, 1990e; Etxebarria, 1991; Arretxe, 1992...) ere, ez da bariazio sozialik jaso.

Ohiko dialektologiak eremu ezberdinetako hizkeren ezberdintasunei erreparatzen die, eta hauen arteko mugak ezartzeko marra imaginario batzuek baliatzen da, isoglosez. Isoglosek hizkuntza-ezaugarri bat gauzatzen eta gauzatzen ez den eremu geografikoa markatzen dute.

- Isoglosak

Chambers & Trudgillen (1980: 89) ustez, August Johann Gottfried Bielenstein letoniako hizkuntzalari izan zen lehena isoglosa terminoa erabiltzen 1892an. Termino hau

metereologian erabiltzen den *isoterman* oinarritu zen. Joan Veny (1992: 198) hizkuntzalariak ordea, Joaquín Costa (1878) politikoa eta filologo aragoiarra izan zela esaten du. Costak isoglosa terminoa modu honetan azaltzen du:

“líneas que unen los lugares donde se habla un mismo idioma o un mismo dialecto en transición”

Esan bezala, ohiko dialektologiak hizkuntza batek bere inguruekiko hizkuntzekin dituen loturak/berdintasunak eta etenak/ezberdintasunak aztertzen ditu, bai sinkronikoki, bai diakronikoki. Eten edo ezberdintasun hauek markatzeko isoglosak erabiltzen dira Bi aldaera ezberdin elkarren aurrean agertzen direnean isoglosa sortzen da. Isoglosa asko sistematikoki agertzen den eremu geografikoan dialekto-muga izango dugu. Isoglosa batzuek hizkerak bereiziko dituzte, beste batzuek azpi-dialektoak eta azkenik, beste batzuek dialektoak. Isoglosek markatzen dituzten hizkuntza-ezaugarriak eskusiboak badira dialekto bat izatetik hurbilago izango dira. Hizkera batek zenbat eta berezko hizkuntza-ezaugarri gehiago izan, gero eta hurbilago egongo da dialekto izatetik. Beraz, dialekto-muga definitzeko eremu geografiko batean hainbat isoglosa batzeaz gain, hauen eskusibotasuna (Camino, 2004 eta Aurrekoetxea, 2009) ere kontuan hartu beharko dugu.

“hizkuntza-ezaugarrien eskusibotasuna garrantzi handiko gaia da dialektologian, hala eremu urriko lanetan, nola eremu hedatuagoz dihardutenetan” (Camino, 2004: 75)

“Ez dut zalantzarik ikuspuntu diakronikotik begiratuta ezaugarri batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa dutela hizkuntzaren bilakaeran. Eta ulertzen dut ere, hizkeren azterketa marko teoriko horretatik oratuz gero, ezaugarri horiek besteek baino pisu handiagoa izatea.” (Aurrekoetxea, 2009: 121)

Dialektoen mugak ezartzea ez da erraza, eta hauen ezarpena askotan zalantzan jarri izan da esanez dialektoek “continuum” bat osatzen dutela.

“un territorio lingüístico es un continuo en el que no se pueden dibujar subdivisiones dialectales bien recortadas, sino tan sólo líneas de isoglosas, cada una de las cuales posee su contorno propio que no tiene por qué coincidir en todo o en parte con las otras” (Mitzelena, 1964: 67)

“Pero cuando se han querido dar los límites geográficos de un dialecto, se ha tropezado con el hecho de que son frecuentemente borrosos y graduales: unos fenómenos penetran en zonas aledañas, otros no alcanzan la extensión total de la «región dialectal». De ahí que se haya manifestado la idea de que los dialectos forman un «continuum» sin límites precisos, que varían insensiblemente, y se haya hablado de «dialectos de transición».” (Alarcos Llorach, 1974: 139)

Chambers & Trudgillen ustez, ordea, ez dira zertan inkompatibleak izan.

“To give such discussions their due, it should be mentioned that there is a sense in which isoglosses and continua are not incompatible. Isogloss bundles, as we saw in the last chapter, are made up of lines that occur in the same vicinity but are hardly ever contiguous. In moving from the region on one side of a bundle to the other, then, one would have the impression of a continuum, since first one feature and then another and eventually another would vary from site to site. Thus the notion of a bundle, which is based on the notion of the isogloss, can be reconciled with geographic gradualness.” (Chambers & Trudgill, 1998: 105)

- **Isoglosa motak**

Paule Ivić (1964) izan zen lehena isoglosa mota ezberdinen sailkapena eta azterketa egiten. Isoglosen banaketaren arabera, batzuk batzen, elkartzen edo hurbiltzen dira isoglosa multzoak sortuz, ingelesez “bundle” eta gaztelaniaz “*haz de isoglosas*” izena dituztenak.

“The coincidence of a set of isoglosses is called a bundle.” (Chambers & Trudgill, 1998: 94)

Hauek dauzkagunean dialekto batetik bestera dagoen pausua bat-batekoa da, latza. Isoglosa solteak badauzkagu aldiz, elkarren artean urrunduta badaude, trantsizio leun bat izango dugu dialekto batetik bestera.

Isoglosa multzoek ere, norabide jakin bat izan ohi dute, euskararen kasuan iparralde-hegoalde norabidean.

Isoglosak banatu daitezke markatzen dituzten hizkuntza-ezaugarrien arabera. Horrela, adibidez, *isofonoek*, ezaugarri fonetikoak banatzen dituzte. Trubetzkoyk (1931) egindako sailkapenean, esate baterako, isoglosa fonologikoak, fonetikoak eta etimologikoak bereiztu zituen. Isoglosa *morfologikoek* edo *isomorfitikoen* ezaugarri morfologikoak banatzen dituzte. L.L. Bonapartek gehienbat hauek erabili zituen euskararen sailkapenerako. Ezaugarri sintaktikoak banatzen dituztenak *isoglosa sintaktikoak* edo *isosintagmikoak* dira. Hitzen eremuan *isoglosa lexikoak* edo *isolexikoak* ditugu. Era berean, adierazletik esanahira doazen *isoglosa semantikoak* edo *semasiologikoak* ditugu. Eta kulturaren kasuan *isoergak* izango ditugu.

- Isoglosen hierarkia

Ohiko dialektologian isoglosa guztiek ez dute balore bera, balorazio kualitatiboa daukate.

“It is undeniable that some isoglosses are of greater significance than others, in the sense that some mark distinctions ‘felt’ to be culturally important while others do not, some persist while others are transitory, and the like. It is equally obvious that some bundles are more significant than others, in the same sense.” (Chambers & Trudgill, 1998: 96-97)

Bloomfield-en (1964: 414) ustez, isoglosen balioa zehazteko lau puntu hartu behar dira kontuan.

- 1) Hizkuntz-ezaugarrien maiztasuna
- 2) Estrukturen ezberdintasuna
- 3) Ezberdintasun fisikoa
- 4) Isoglosak hartzen duen eremu geografikoa

- **Mugak**

Isoglosak mugen oinarria dira, dialekto edo azpidialekto muga bat ezartzeko isoglosa multzo bat egon behar da. Hizkera-mugak ondoen zehazteko Caminok (2004: 75-80) zazpi irizpide nagusi ematen dizkigu hizkuntza-ezaugarriak sailkatzeko:

- 1) Ezaugarriaren eksklusibotasuna
- 2) Geografiaren iragazkia
- 3) Hizkuntza-ezaugarrien hedaduraren zabaltasuna
- 4) Ezaugarriak berrikuntzak diren, arkaismoak diren ala hautuak diren
- 5) Kronologiaren baldintza
- 6) Ezaugarriaren sistematikotasuna
- 7) Ezaugarrien fidagarritasuna

Beraz, hizkera batek irizpide hauek guztiak betetzen dituen hizkuntza-ezaugarri multzo handi bat duenean dialekto izatetik hurbilago egongo da.

### Isoglosen arazoa

Hizkuntzalariek (Goossens, 1977; Kessler, 1995; Inoue, 1996...) isoglosei hainbat arazo topatzen dizkiete:

- Praktikan, sarritan isoglosek banaketa ezberdina daukate.

“But isoglosses are frustrating. The first problem, as Gaston Paris noted (apud Durand, 1889:49), is that isoglosses rarely coincide. At best, isoglosses for different features approach each other, forming vague bundles; at worst, isoglosses may cut across each other, describing completely contradictory binary divisions of the dialect area.” (Kessler, 1995: 60)

- Isoglosa batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak dira.

“Ez dut zalantzarik ikuspuntu diakronikotik begiratuta ezaugarri batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa dutela hizkuntzaren bilakaeran. Eta ulertzen dut ere, hizkeren azterketa marko teoriko horretatik oratuz gero, ezaugarri horiek besteek baino pisu handiagoa izatea.” (Aurrekoetxea, 2009: 121)

- Oso item gutxirekin egiten da lan eta askotan isoglosen hautaketa eta marrazketa arbitrarioa da.

“There are several problems with isogloss method. The number of items (words) counted in these studies were usually not (nearly) enough, reflecting delimitations of the human effort. Moreover selection of phenomena for drawing isogloss was sometimes ad hoc and arbitrary.” (Inoue, 1996: 74)

“Batetik, datu gutxi batzuekin erabil daiteke. Ez da behar corpus handirik biltzerik. Ezaugarri gutxi batzuekin abian ezarri liteke prozedura. Eta maiz oso ezaugarri gutxirekin egiten da lan.” (Aurrekoetxea, 2009: 120)

- Isoglosek ezin dute dialektoen “continuum”-a erakutsi.

“The third problem is that most languages have dialect continua, such that the speech of one community differs little from the speech of its neighbours.” (Kessler, 1995: 60)

Arazo hauek ekiditeko dialektometria diziplina sortu zen. Ohiko dialektologia ez bezala, dialektometria dialektoak identifikatzen saiatzen da matematika eta estatistika erabiliz. Ez du informazio extralinguistikorik behar eta isoglosak zein dialektoen “continuum”a antzeman ditzake.

## Dialektometria

Dialektometria diziplina nahiko berria da. Esan dezakegu Jean Séguy dialektologo okzitaniarra dela dialektometriaren aita. Jean Séguyk 1973an *Atlas Linguistique de la Gascogne. Complément du volume VI: Notice explicative et matrice dialectométriques* liburua eta “La dialectométrie dans l'Atlas linguistique de la Gascogne” artikulua argitaratu zituen, horietan diziplina berri honen terminoa, *dialectométrie*, ezarri zuen.

“C'est sans le moindre scrupule que nous écrivons le néologisme dialectométrie. Aux choses nouvelles, des mots nouveaux” (Séguy, 1973b: 1)

Dialektometria zer den jakiteko oso definizio laburra eta zehatza ematen du Hans Goebel-ek (1981: 349):

“Dialektometria = Hizkuntz geografia + taxonomia numerikoa” (Goebel, 1981: 349)

Pilar García Moutonek (1999: 335) honela definitzen du dialektometria:

“La dialectométrie es una disciplina clasificatoria, de carácter instrumental que se apoya en la geografía lingüística y recurre a procedimientos objetivos -estadísticos y taxonómicos-, para establecer relaciones de semejanza o diferenciación dialectales en un intento de sintetizar los contenidos de un atlas lingüístico” (García Mouton, 1999: 335)

Beraz, diziplina honetan datu linguistikoak formulazio matematikoen bidez neurtzen dira, hizkuntz datuekin azterketa kuantitatiboak egiten dira distantzia dialektologikoa zertan gauzatzen den zehazteko.

Esan bezala, Jean Séguy izan da diziplina honen sortzailea, nahiz eta honek aitzindariak ere izan (Lalanne 1949, Terracher...). Séguyren metodoari dialektometria bideimensional edo lineala esan zaio. Henri Guiterrek (1973) antzeko metodoa proposatu zuen, metodo globala esan zaiona. Guiterrek, hizkuntz parametro guztiak aldi berean neurtzen ditu, Séguyk aldiz ez, lehenik parametro ezberdinetan neurtzen du, eta ostean, hauek gehituz bi herriren arteko distantziak neurtzen ditu. Metodo bi hauetaz gain, hirugarren bat ere badaukagu, Hans Goebel-ena, “Indice Relativo de Identidad” deitutakoa. Goebel-ek puntu bat hautatzen du eta beste guztiak honekin konparatzen ditu. Philips-ek (1985) beste urrats bat emango du eta dialektometria multidimentsionalera helduko da. Euskal ikertzaileen artean Gotzon Aurrekoetxea (1992) da diziplina hau gehien garatu duena. Batez ere, aipatzekoa da bere EHUko ikerketa taldearekin batera dialektometria egiteko garatu duen programa: “Diatech<sup>11</sup>”.

<sup>11</sup> <http://eudia.ehu.es/diatech>

## Dialektometriaren arazoa

Hainbat hizkuntzalarientzat (Viereck, 1988; Francis, 1983; Veny, 1992; Camino, 1997...) ere, dialektometriak alde ahulak dauzka. Euren ustez, dialektometriari dialektologoek irizpideak ezinbestekoak dira, ezin du erabat ordezkatu ohiko dialektologia azken honek, dialektometriak ez bezala, eremu bat definitzen duten ezaugarriak adierazten dizkigulako eta itemetan oinarritutakoa denez, ezin duela berdintasun edo distantzia estrukturalaren berri eman.

“Hay que reconocer que se han hecho maravillas en la ilustración gráfica de los resultados. Sin embargo, no faltan aspectos vulnerables en el método: 1) el binarismo del tratamiento (coincidencia o no en la variante; la sinonimia, el polimorfismo pueden distorsionar los resultados); 2) falta de información sobre las formas diferenciales; 3) desatención a aspectos cualitativos.” (Veny, 1992: 207)

## 1.5. Metodologia

### 1.5.1. Aztertutako hizkera

*Igorreko hizkera: azterketa dialektologikoa da lan honen izenburua.*

Igorreko hizkera: lan honetan Igorreko hizkera deituko diogu igorretar adinekoek egiten duten euskarari, ez Igorren egiten den hizkerari. Beraz, faktore sozial batean egiten den hizkera aztertuko dugu.

Hauek dira lekukoek ezaugarriak:

- 70 urte ingurutik gorakoak izatea
- Andrazkoak zein gizonezkoak
- Igorren jaioak eta gurasoak ere igorretarrak izatea<sup>12</sup>
- Igorren bizi izandakoak
- Euskaraz alfabetatu bakoak<sup>13</sup>

Hurrengo zerrenda honetan gehien erabilitako lekukoek daturik garrantzitsuenak (sexua, zein auzotan bizi den, non egin duen lan, gurasoak nongoak diren...) emango ditugu:

1) F.B.

Gizonezkoa, Ibarrondo auzokoa. Guraso biak igorretarrak. Igorre aldean egin du lan.

2) C.I.

Gizonezkoa, Olabarri auzokoa. Guraso biak igorretarrak, Basaurin egin du lan.

3) M.O.

Andrazkoa, Gezala auzokoa. Ama Zeberiokoa du. Etxekoandrea izan da beti.

4) B.U.

Andrazkoa. Elizalde auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Etxekoandrea.

5) F.A.

<sup>12</sup> Hasierako baldintza guraso biak igorretarrak izatea izan bazen ere, lana hasi eta atoa konturatu nintzen baldintza hori betetzen zutenak oso gutxi zirela; arrazoi hori dela medio ebatzi nuen gurasoetarikoa bat bakarrik igorretarra izatea baldintza nahikoa zela.

<sup>13</sup> Baldintza hau oso gaitza izan da betetzea ia lekuko guztiak nolabaiteko alfabetizazioa daukatelako. Igorreko eskolara joan ziren lekukoek euskaraz ikasten zutelara adierazi dute eta elizan ere, euskaraz egin izan dute beti.

Gizonezkoa, Garamendi auzoan jaioa eta gerora Garakoirra bizitzera joan zen. Igorre aldean egin du lan.

6) J.A.

Gizonezkoa. Elizalde auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Gerran ibilitakoa.

7) J.L.R.

Gizonezkoa. Urkizu auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Iurretan egin du lan.

8) J.I.I.

Gizonezkoa. San Kristobal auzokoa, justu mugakoa, etxea, berez, Dimako terrenoetan dago. Lanbidez artzaina, inguruetan ibilitakoa ardiekin.

9) J.I.P.

Andrazkoa. Basauntz auzoan jaioa eta Garakoin bizi izandakoa. Etxekoandrea.

10) T.G.U.

Andrazkoa. San Juan auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Etxekoandrea.

11) F.G.

Andrazkoa. Olabarri auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Etxekoandrea.

12) I.B.

Gizonezkoa. Agarren jaio zen, Basartera ezkondu, eta gero Elizalde auzora joan zen. Aita Dimakoa. Gerran ibilitakoa da eta Igorren egin du lan.

13) A.Z.

Gizonezkoa. San Juan auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Igorren egin du lan.

14) J.Z.

Gizonezkoa. Solaguren auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Igorre aldean egin du lan.

15) J.M.A.

Gizonezkoa. San Juan auzokoa. Ama Fruiztik ezkondu zen Igorrera. Igorre aldean egin du lan.

16) L.A..

Gizonezkoa. San Juan auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Igorre aldean egin du lan.

17) M.G..

Andrazkoa. Elizalde auzokoa. Ama Lemoakoa. Igorren egin du lan.

18) P.O.

Gizonezkoa. San Juan auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Basaurin egin du lan.

19) T.A.

Andrazkoa. Basauntzen jaio zen eta San Juanera ezkondu. Etxekoandrea izan da.

20) P.R.

Gizonezkoa. Urkizu auzokoa. gurasoak igorretarrak. Gerran ibilitakoa. Igorre aldean egin du lan.

21) P.U.

Gizonezkoa. San Juan auzokoa. Gurasoak igorretarrak. Igorre aldean egin du lan.

### 1.5.2. Azterketa sinkronikoa

Azterketa dialektologikoa: azterketa dialektologiko hau sinkronikoa da, eta gaur egun Igorreko bertako adinekoek egiten duten ahozko euskara jaso eta aztertzea du helburu, hau da, Igorreko hizkeraren gramatika aztertzea eta gramatika honen arauak ematea, beti ere ahozko hizkeran oinarrituta.

Monografia honetan hizkera baten deskripzio sakona egin da, azterketa sinkronikoan oinarrituta. Deskripzio mota hau oso ugaria izan da dialektologiaren ibilbidean zehar. Martinet-ena (1939) da ikerketa sinkronikoetan egin den lehendabiziko lanik garrantzitsuena, ostera, Manuel Alvar (1954) moduko ikerlariek ere jardun dute analisi mota hau egiten. Espainolari dagokionez, bai penintsulan (Hue Fanost, 1986; Hoyos, 2001...), bai Ameriketara (Ruiz Hernández, 1978; Aleza & Enguita, 2002...) topa ditzakegu sinkronia oinarri duten lanak. Ameriketako hainbat hizkuntza gutxituri buruzkoak ere badauzkagu (Chamorean, 1994; Croese 1980...), eta baita hizkuntza nagusiei buruzkoak ere, hala nola, ingelesari buruzkoak (Ridjanovic, 1969; Meyer, 2005... ) edota txinerari buruzkoak (Cheng, 1973...). Euskal Herrira etorrira aipatzekoak dira Ormaetxea (2006) eta Makazagaren (2009) lanak. Lan honetan ikusmolde diakronikoa alde batera utzi da oso, berariaz. Honek beste metodologia bat eta beste azterketa bat eskatzen ditu, zalantzarik gabe.

Beraz, laburbilduz, tesi honen helburua da gaur egun baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten Igorreko adinekoen hizkeraren gramatika aztertzea.

### 1.5.3. Datuak jasotzea

Gure ahozko materialen iturria zuzena izan da; guk batu dugu ahozko material guztia, ez dugu kanpoko materialik erabili. Horretarako, Gamindek (2001b) aipatzen dituen lau puntuak hartu ditugu kontuan:

“Grabazio zuzenak egiteko erabakia hartzen bada, lau dira, hasi baino lehen, argitu beharreko atal nagusiak:

- Helburuak
- Galdekizuna
- Lekukoak
- Materiala

Argi eduki behar dugu zein den grabazioaren helburua, beronek emaitza osoa baldintzatuko du eta. Grabaziorako metodologia zehaztutik ere, kontuan eduki behar dugu hizkuntza formen deskripzioa egin gura dugun edo hizkuntzaren esangura eta erabilerak landu ditugun. Formaren deskripzioa hutsa egin gura izatekotan, zein eremu linguistiko aukeratuko dugun aurretiaz definitu behar dugu, hots, fonologia, morfologia, sintaxia, lexikoa, etab. Landu gura duguna esanguraren deskripzioa bada, hizkuntzari eragiten dioten kanpo eta barne faktoreak ere kontutan eduki behar ditugu. Era berean, funtzio eta erabileren deskripziorako kanpo faktoreak eta testuinguruak deskribatu behar dira.” (Gaminde, 2001b: 417)

Mota biko elkarrizketak egin dira:

- a) Elkarrizketa libreak
- b) Galdetegi bidezkoak



Elkarrizketa libreak corpusaren oinarria dira, hauetatik atera dira ia datu guztiak eta hauetan topatu ez ditugun datuak berariaz prestatutako galdetegien bidez lortu izan dira; beraz, galdetegiak elkarrizketa libreen osagarriak izan dira corpora osatzeko. Elkarrizketa libreak bat-batekoak izan dira, erregistro informala dutenak eta interaktiboak. Dena den, lagunarteko giroan gauzatzen ahalegindu garen arren, onartu behar da grabatu izanak, grabagailua eta mikrofonoa tartean egon izanak, neurri handi batean eragotzi edo behintzat murriztu egin duela elkarrizketari eman nahi izan diogun informaltasuna. Elkarrizketan, batez ere gizakiaren bizimoduaren gaineko informazioa ematen duten testuak jorratu ditugu. Horretarako, eta baita galdetegietarako ere, oso baliagarria izan zaigu Gamindek (2001b) egindako gaiiei buruzko sailkapena:

GIZAKIA	INGURUNEA	JARDUERAK	BERBETA
Giza-gorputza	Denbora	Beharra	Orokorra
Osasuna	Metereologia	Abelazkuntza	Adjektiboak
Familiartekoak	Zerua-astroak	Nekazaritza	Aditzondoak
Elikadura	Ingurunea	Gizartea	Aditzak
Jantziak	Landareria		Posposizioak
Bizilekua	Animaliak		Hots berbak
Sineskerak			Esklamazioak
Heriotza			Esakunak, esaldiak
Umezaroa			Hitz eratorriak

Grabazioak, normalean, elkarrizketatu bakar batekin egin dira, kalitatea ziurtatzeko, ahots soinu garbia jasotzeko, ahotsa bata bestearen gainean ez uztartzeko. Hala ere, noizean behin bikoteei, batez ere senar-emazteei, eta inoiz lagun-talde handiagoei ere egin izan zaie. Grabazio hauek, nahiz eta kalitatearen aldetik hain onak ez izan, datuen fidagarritasuna bermatzen dute, askotan lekuko bakar batek eman dezakeen informazioa okerra balitz taldean egonez gero, besteek zuzen bailezakete.

Tesia egiten jardun dudan urte hauetan grabazioak egiteko tresneria ezberdina erabili dut, teknologiak aurrera egin ahala: mikrofono ezberdinak, zinta magnetikoen grabagailuak —casettea zein mikrocasettea—, minidisca, grabagailu digitala eta ordenagailua. Lehenengo grabazioak izan ezik, gehienak grabagailu digitalarekin eta ordenagailuarekin egin ditut; biak oso kalitate onekoak, baina bakoitza bere abantaila eta desabantailekin. Ordenagailuak galdetegi multimedia egiteko aukera ematen digu. Grabazioa egiten den bitartean irudiak eta bideoak erakusteko parada daukagu eta hau oso ondo dago batez ere gai espezializatu bati buruz hitz egin nahi dugunean (adb: goldearen parteak erakusteko, tresna ezberdinen izenak lortzeko); gainera, irudien bitartez itzulpenak sor ditzakeen eragozpenak saihestu daitezke.

Grabagailu digitalaren tamainak (nik erabilitako Sony IC-Recorder-a 3x10x16 cm-koa da), aldiz, mugikortasuna errazten digu. Nahikoa da mikrofonoa lekukoaren alkandoran jartzea eta grabagailu digitala bere patrikan sartzeko inolako oztoporik gabe grabazioa egiten hasteko. Oso egokia da lekukoak zerbait erakutsi nahi dugunean, bai kortan, bai soloan...

Ordenagailuari dagokionez, grabazioak egiteko software bi erabili ditut: Col Edit Pro<sup>14</sup> eta Audacity<sup>15</sup>, azken hau doanekoa. Grabazioak parametro hauetan egin ditut: 44100 Hz, 16 bits eta Monon.

Azterketa fonetiko-fonologikoak egiteko, aipatutako programa bi hauetaz gain AhoTools<sup>16</sup>, Speech Tools<sup>17</sup> eta Praat<sup>18</sup> erabili ditut. Dena den, hauen artean Praat izan da gehien erabili dudana ematen dituen prestazioengatik.

Audioetan jasotako corpusa modu bitan banatu dut. Batetik, audioen transkripzioekin 176 orrialde eta 66041 hitz dituen *Openoffice writer* dokumentu bat sortu dut. Bestetik, berariaz prestatutako galdetegiekin datu base bat sortu dut, batez ere hitz, aditz, esamolde... solteak gordetzeko eta sailkatzeko.

Inguruko herrien datuak ere kontuan hartu ditut. Horretarako, nik neuk egindako eta *Geure Berbategie* proiektuak utzitako grabazioez baliatzeaz gain beste ikertzaile askoren lanak ere erabili ditut.

Arratiari<sup>19</sup> buruzko datuak ugariak izan arren, liburu eta artikulu askotan daude sakabanaturik. Artikulu eta liburu hauek osatzen dute Arratieraren ahozko corpusaren oinarritzko bibliografia<sup>20</sup>:

- Datu orokorrekin:

Arantzi Zientzia Elkarte (1984-1990), Gaminde, Goikoetxea & Sarriugarte (2002) eta Gaminde (2007b)

- Monografiak:

Etxebarria (1991), Salazar (2001) eta Agirregoikoa (Argitaragabea)

- Fonologiaz:

Gaminde (1993b eta 2002a)

- Azentuaz eta intonazioaz:

Gaminde (1993a, 1995a, 1995b, 1997, 1998b eta 2003a), Gaminde, Hernáez & Etxebarria (1995), Gaminde & Hualde (1995), Hualde (1992 eta 1997) eta Iglesias (2008)

- Izen Morfologiaz:

Etxebarria (1990), Etchezarraga (1982), Gaminde (1987b, 1990c eta 1990d)

- Aditzaz:

Aurrekoetxea (2003b), Gaminde (1983, 1984, 1987a, 1988b, 1989, 1990a eta 2004) eta Yrizar (1992)

<sup>14</sup> <http://www.adobe.com/special/products/audition/syntrillium.html>

<sup>15</sup> <http://audacity.sourceforge.net>

<sup>16</sup> <http://bips.bi.ehu.es/ahot>

<sup>17</sup> <http://www.sil.org/computing/speechtools>

<sup>18</sup> <http://www.fon.hum.uva.nl/praat>

<sup>19</sup> Bibliografia honetan Zeberio, Ugao eta Orozko ere sartu ditut, nahiz eta sailkapen askotan Arrigorriagako eta Orozkoko barietateetan egon. Horrela esaten du Etxebarriak (1991: 25) Zeberioko hizkeraren gainean: “elbarreneko auzuneren bat edo izan ezik, Arratiakoarekin baterago dator beste inguruetako beste edozeinekin baino, L.L. Bonapartek eta geroago P. de Yrizarrek, Mendebaldeko azpieuskalkion barruko aldakian sartzen badute ere”. Ugaoko euskarari buruz Salazarrek (2001: 132) aipamen hau egiten du: “*Egun nabaria da Zeberioko hizkeraren eragina, hain da argia ezen orokorrean oso antzekoak direla esan baitezakegu salbuespenak salbu*”.

<sup>20</sup> Bibliografia hautaketa honetan 1950etik honako corpusak baino ez ditut kontuan hartu.

- Sintaxiaz:  
Gaminde (1986, 1992a, 1992b eta 1992c)
- Lexikoaz  
Gaminde (1988a, 1990b, 1998a, 2006 eta 2007a), Manterola (1980) eta Totorika (1958)
- Etnotestuak:  
Arejita (1983), Barandiaran (1972), Etxebarria, J.M. (1991, 1995, 1997), Etxebarria, N. (2004), Euskaltzaindia (1999b), Ibarra, G. (1991), Ibarra, J. (1985), Iza & Gaminde, J. (2006), Kaltzakorta (1998), Labayru (1981) eta [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)
- Toponimiaz:  
Aurrekoetxea (2004a)

Datu hauetaz guztiez baliatu naiz inguruko herrien hizkerekin konparazioak egiteko. Lan honetan agertuko diren adibide guztiak, besterik aipatu ezean, nik batutakoak dira.

#### 1.5.4. Lanaren atalak

Laburpen moduan, hurrengo puntuetan ikerketaren berri emango dut atalez atal; kapitulu bakoitzean zer egin dudan eta zer oinarri bibliografiko izan dudan. Dena den, aurrerapen gisa esango dut, inbentarioa ordenatzeko eta sailkatzeko, Makazagak (2009: 22) egin zuen antzera, Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Lehen Urratsak* hartu dudala egituratzat, sarreraren hasieran aipatu dudanez, lan honen helburua Igorreko hizkeraren gramatika aztertzea baita eta horretarako orain arte egin den gramatikarik osoena EGLU delako. Ildo honetatik de Rijken aipamena ekarriko dut gogora:

“Aspaldiko idazti haiek gogoan nituela oraingo honetan ere halako txosten bi mami litzekeela bururatu zitzaidan: «Zer dut EGLU-ren alde?» bata, eta «Zer dut EGLU-ren kontra?» bestea. Aldekoa, orde, ez dut egin. Idazteko astirik ere izango ez nukeen liburu lodi-lodia izango litzatekeelako...” (de Rijk, 2002: 53)

#### 2. Atala: fonologia

Igorreko hizkeraren sistema fonologikoaren ezaugarriak zehaztu ditut lehenik. Alde batetik, Igorreko hizkeraren fonemen inbentarioa burutu da, eta ondoren hizkera honetan gertatzen diren arau fonologikoen deskribapena; eta bestetik, hizkera honetako azentuaren deskribapena egin eta hau gobernatzen duten arauak zehaztu dira. Azterketa fonologiko honetan ez dugu intonazioa aztertu. Amaitzeko, hierarkia prosodikoaren arabera aztertu dugu arauak gauzatzeko eremua zein den.

Lan hau egiteko ondoko ikerketa-lanak izan ditut eredu: fonemen inbentarioa eta gertatzen diren arau fonologikoen deskribapena egiteko Mitxelena (1977), Salaburu (1984a eta 1984b), Hualde, Elordieta & Elordieta (1995), Ormaetxea (2006), Makazaga (2009) eta Legarra (2010). Silabaren gaineko azterketan ezinbestekoa izan zaigu Jauregi (2007). Azentua aztertzeko Hualde (1992 eta 1997) eta Gaminde (1995b eta 1998b). Terminologiari dagokionez, Oñederra (2004) jarraitu da.

### 3. Atala: izen-sintagma

Igorreko hizkeraren izen-sintagma aztertu da kapitulu honetan: izena, adjektiboa (honen barruan izenondoak eta izenlagunak), deklinabidea, deklinabidearen kasu-markak ezartzeko arau morfologikoak, izenordainak, determinatzaileak, hitz eratorriak eta eratorpen-morfemak, eta azkenik, hitz elkartuak.

Arestian esan bezala, gaia taiutzeko *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I* erabili da, eta bere egitura jarraitu da. Egitura hori kontuan izanik, euskal dialektologiaz idatzi diren azken tesietan (Ormaetxearen (2006) eta Makazagaren (2009) tesietan hain zuzen ere) agertu den informazioa oso gogoan izan da kapitulu hau lantzean. Halaber, datuen bilketarako kontuan hartu ditut ondoko herriei buruzko lanak: Etxebarria (1991) eta Agirregoikoa (argitaragabea).

Kapituluaren amaieran, izen-sintagman gauzatzen diren arau guztien gauzatzeko eremua aztertu dugu hierarkia prosodikoaren arabera.

### 4. Atala: aditz-sintagma

Aditz-sintagman Igorreko hizkeran erabiltzen diren aditza eta adberbioa landu dira. Aditzaren atalean aditz jokatu gabeen eta aditz jokatuaren ezaugarriak, eta erabilera aztertzeaz gain, aditz laguntzaileen eta aditz trinkoen inbentarioa ere eman dugu. Adberbioaren atalean adizlagunak eta aditzondoak aztertu ditugu.

Aditzaren azterketa lantzean bereziki Ormaetxea (2006) eta Makazaga (2009) hartu ditut kontuan. Bertako datuen informazioaz jabetzeko Gaminde (1984, 1988b eta 1990a), Yrizar (1992), Etxebarria (1991) eta Agirregoikoa et al. erabili dira.

Adberbioaren sailkapena egiteko, batez ere, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I* lanean agertzen den egitura erabili da; eta azterketa egiteko Ormaetxea (2006) eta Makazaga (2009) erabili ditut.

Atal honetan ere, hierarkia prosodikoa kontuan hartu dugu jakiteko arau hauen gauzatzeko eremua zein den.

### 5. Atala: sintaxia

Esaldien egitura finkatzen dituzten arauak eman ditut. Alde batetik perpausak aztertu ditut, eta bestetik lokailuak. Perpausen artean bakunak zein elkartuak; eta juntagailuen artean emendiozkoak, hautakariak, aurkaritzakoak eta ondoriozkoak.

Sailkapena egiteko *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak III, IV, V* eta *VI* erabili ditut. Dialektologiaren aldetik, batez ere, Ormaetxeak (2006), Makazagak (2009), Etxebarriak (1991) eta Agirregoikoak erabilitako irizpideak jarraitu dira.

Amaitzeko, sintaxian aztertuko arauak, hierarkia prosodikoaren arabera, zein eremutan gauzatzen den aztertu dugu.

### 6. Atala: elkarketa eta eratorpena

Morfologia lexikoaz jardun dugu. Hizkera honetan hitzak nola sortzen diren ikusi dugu, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena aztertuz.

Aztertu ditugu hitz-elkarketa sortzeko dauden bideak Azkarate (1987) eta Euskaltzaindiaren (1987b) sailkapena kontuan hartuz

Hitz-eratorpenean egiteko dauden hiru bideetatik, (aurrizkiak, artizkiak eta atzizkiak) zeintzuk erabiltzen diren ikertu dugu. Atzizkiak sortzen duten hitzen arabera sailkatu ditugu Makazagak (2009) egin zuen antzera. Horretaz gain, hizkeran duten emankortasuna adierazi dugu.

## 7. Atala: emaitzak eta ondorioak

Azken atala zati bitan banatu dugu: emaitzak eta ondorioak. Emaitzetan, alde batetik, Igorreko hizkeraren gramatikan gauzatzen diren arauak eman ditugu; eta bestetik, dialektologia tradizionalen emandako ezaugarriak aurkeztu ditugu.

Lehenik eta behin, fonologian, izen-sintagman, aditz-sintagman, syntaxian eta lexikoan gauzatzen diren arauak erakutsi ditugu, eta, ostean, hierarkia prosodikoan zein eremutan gauzatzen diren erakutsi dugu.

Gure datuek sailkapen berretsi beharko lukete dialektologia tradizionalen emandako sailkapenak. Horretarako, erkatu ditugu gure datuak eta hainbat sailkapen: Zuazorena (2008 eta 2014), Gaminderenak (2007b), azenturako Hualde (1997) eta Gaminderenak (1998), eta, azkenik, hitanorako Aurrekoetxearena (1994).

Ondorioetan hizkera honen kokapen linguistikoaz ari gara. Honetaz gain, hierarkia prosodikoaren metodologiak zer ekarpen eta zer hutsune izan duen gure azterketan aztertu dugu. Amaitzeko erakutsi dugu gure aurreikuspenak bete diren, eta hemendik aurrera hizkera honetan zer gehiago azter daitekeen adierazi dugu.

## 1. Eranskina: corpusaren lexikoa

Corpusean transkripzio guztietan agertzen den lexikoa zerrendatu dut. Zerrenda hau zutabe bitan aurkezten da: lehenengoan Igorren batutako ahozko formaren transkripzioa, Aurrekoetxeak (1997) eman zituen transkripzio-arauei jarraituz, agertuko da. Bigarrenean aldiz, forma estandarra izango dugu. Zerrenda hau egiteko Simple Concordance Program 4.09 erabili dut.

## 2. Eranskina: testuak

Igorreko ahozko hizkeraren lagin batzuk eman ditut eranskin honetan. Lan hau gauzatzeko guztira 176 orri transkribatu ditugu, 66041 berba. Atal honetan aurkeztutakoa, batutako corpusaren lagin zabala da; auzo ezberdinetako testuak, gizon zein emakumeenak, tratamendu guztiak: neutroa, hitanoa... Testuak idazteko Aurrekoetxeak (1997) proposatzen dituen transkripzio-arauek erabili ditut.

## 1.6. Aurreikuspena, hipotesia

Azterketa honetan erabiliko ditugun baldintzak nahiko estuak eta zehatzak dira. Geografikoki aztertuko dugun eremua, Igorre herria, oso txikia da; 17,52 km<sup>2</sup>ko azalera baino ez. Igorrek 4000 biztanle inguru dauka, eta hauetatik ez dira asko gure azterketarako ezarritako baldintzak betetzen dituztenak: andrazkoak zein gizonezkoak, 70 urte ingurutik gorakoak izatea, Igorren jaiok eta bere gurasoak ere Igorrekoak izatea, Igorren bizi izandakoak eta euskaraz alfabetatu bakoak izatea. Honetaz gain, kontuan hartu behar dugu gizarte kohesionatu batean bizi direla, harremanak gehienbat Arratian eratzen dira eta kultura tradizional batetik etortzen dira, denek ezagutu dute baserri giroa, eta gizonezko gehienek baserrietik lantegietarako pausua eman zuten. Hortaz, printzipioz, aldagai bakarra sexua da. Geografikoki 17,52 km<sup>2</sup> hauetan ez dago ez mendirik, ez erreka handirik, hizkuntzan eraginik egon daitekeela uste ahal izateko.

Beraz, baldintza estu eta zehatz hauek kontuan hartuta, uste dugu, dialektologia tradizionalaren ikuspuntutik corpus homogeen bat batu dugula, hau da, hizkuntza homogeen bat, eta ondorioz, arau homogeenak izango dira hizkera hau gobernatzen dutenak. Hortaz, barne bariazio gutxi, edo bat ere ez, eta arauak oso zehaztuta dituen hizkera mota. Hizkera honetan mendebaldeko euskararen ezaugarriak agertu beharko dira, eta dialektologian egin diren sailkapenetarako eman diren ezaugarriak agertu beharko lirateke; bai Zuazoren (2008 eta 2014) sailkapenak, bai Gaminderenak (1998b, 2007b), bai Hualderena (1997) eta baita Aurrekotxearena (1994) ere.

Zuazok (2008: 61-89) mendebaldeko euskararako 56 ezaugarri eman zituen hurrengo atal hauetan banatuta: fonologian 7 arau, morfologian 22, morfosintaxian 8, garatu gabeko arauetan 13, lexikoan 3, eta aldaeretan 3.

Gamindek (2007b) Bizkaiko herrietan gauzatzen diren hainbat ezaugarri aztertu zituen eta hauekin hainbat mapa sortu zituen atal hauetan banatuta: soinuak, izen morfologia, aditz morfologia, esaldi ereduak, lexikoa eta datuen azterketa kuantitatiboa.

Hualdek (1997) eta Gamindek (1998) sailkapen bera eman zuten euskal azenturako. Hau lau taldetan banatu zuten eta Arratiako azentuaren ezaugarriak azaldu zituzten.

Aurrekoetxeak (1994) bederatzi ezaugarri eman zituen Euskal Herri osoan hitanoa sailkatzeko.

Arratiako mendebaldeko muga jakiteko non den autoreak ez datoz bat. Bonapartek (1869) bere azken sailkapenean Zeberio Arrigorriagako barietatean kokatzen du, Gamindek (2007b) bere azterketa kuantitatiboan Arratian sartzen du eta Zuazok (2014) ere, Arratiaren barruan kokatzen du hizkera hau. Egia esan, Bonapartek eta Zuazok ez dute ezaugarriak aipatzen barietate hauetarako, sailkapena baino ez daukagu. Gamindek item askotako azterketa egiten du eta Etxebarriak (1991) Zeberioko azterketa etno-linguistikoan ere nonbaiten kokatzekotan Arratian kokatuko lukeela esaten du. Gure hipotesia ere bide honetatik doa; gure ustez, Bonaparteren sailkapenak huts egiten du barietate hauetako mugak zehaztean.

# FONOLOGIA

## 2. Fonologia

Atal honetan hizkera honetako fonema eta alofono guztien inbentarioa egingo dugu, bai kontsonanteena, bai bokalena. Ikusiko dugu euren distribuzioa zein den eta zein arau, fonologikoak zein morfologikoak, gauzatzen diren. Atalaren amaieran azentuaren ezaugarriak aztertuko ditugu eta hau ezartzeko gauzatzen diren arauen berri emango dugu. Halaber, aitortu behar da azterketa fonologiko hau ez dagoela osorik intonazioa ez baitugu jorratuko lan honetan. Alde batetik bokalen inbentarioa eta distribuzioa aztertuko ditugu eta beste alde batetik kontsonanteenak. Ikusiko dugu fonema eta alofono guztiak zeintzuk diren eta non kokatzen diren.

Atal honen sumarioan egingo dugu hizkera honetan agertzen diren arau guztien zerrenda, eta aztertuko dugu arau hauen gauzatzeko eremua zein den hierarkia prosodikoaren arabera.

### 2.1. Fonemak

Fonemak multzo bitan aztertuko ditugu: bokalak eta kontsonanteak. Bietan fonema eta alofonoen inbentarioa eta distribuzioaren berri emango dugu.

#### 2.1.1. Bokalak

Bokalen azterketarako, lehenengo eta behin, bokal guztien inbentarioa emango dugu eta ostean aztertuko dugu fonema eta alofono horien guztien distribuzioa zein den hizkera honetan.

##### 2.1.1.1. Bokalen inbentarioa

Igorreko euskaran bost fonema bokaliko ditugu: /a, e, i, o, u/. [a] irekia, [e] eta [o] erdikoak eta [i] eta [u] itxiak.

Bokalen alofonoei dagokienez, esan behar da hizkera honetan ia ez dagoela bokal luzerik. Hauek bakarrik topa ditzakegu enfasia emateko: *buenooo* [bueno:], *eneee* [ene:], *eees* [e:ś], *baaai* [ba:j]... edo hitz egiterakoan denbora hartzeko: *baaa* [ba:], *eee* [e:]...

Distribuzioa:


Aipatutako bost bokal hauek berbaren edozein lekutan ager daitezke; hasieran, zein amaieran, zein berba barruan.

Adibideak:

	Hasieran	Barruan	Amaieran
a	<i>artu</i>	<i>ama</i>	<i>gastea</i>
e	<i>erdie</i>	<i>abade</i>	<i>lekue</i>
i	<i>itxi</i>	<i>gitxi</i>	<i>igitie</i>
o	<i>ordue</i>	<i>ogorloko</i>	<i>beroa</i>
u	<i>ure</i>	<i>apurtu</i>	<i>ikusi</i>



1. espektrograman ikus ditzakegu bokal guztien espektrogramak segida batean.



## 2.1.2. Kontsonanteak

Kontsonanteen azterketa honetarako lehenengo eta behin, kontsonante guztien inbentarioa emango dugu eta ostean, aztertuko dugu fonema eta alofono guztien distribuzioa zein den hizkera honetan.

### 2.1.2.1. Kontsonanteen inbentarioa

Inbentario honetan kontsonante guztien fonema eta alofnoen berri emateaz gain gure testuak transliteratzeko erabiliko ditugun irizpideak aipatuko ditugu.

Lehenengo, fonemak eta alofonoak taula bitan emango ditugu, taula fonologikoan eta taula fonetikoan. Ostean, fonema eta alofono guztiak zelan transkribatuko ditugun adieraziko dugu eta amaitzeko, guztien deskribapen zehatza egingo dugu.

Kontsonanteen inbentarioa egiteko IPA<sup>21</sup> alfabetoa erabiliko dugu.

<sup>21</sup> <http://www.langsci.ucl.ac.uk/ipa/>

## 2.1.2.1.1. Taula fonetikoa

		Ahoskatze gunea																	
		Ezpainetakoa		Ezpain-hortzetakoa		Hortzetakoa		Laminarea		Bizkar-albeolarea		Apiko-albeolarea		Sabaiaurrekoa		Sabaikoa		Belokoa	
A h o s k a t z e  m o d u a	Herskaria	p	b			t	d										j	k	g
	Sudurkaria		m		ɱ		ɲ		ɳ				n		n <sup>j</sup>		ɲ		ŋ
	Dardarkari bakuna												r						
	Dardarkari anizkuna												r						
	Frikaria			f		θ						ɬ	ʒ	ʃ				x	
	Afrikaria										ts̺				tʃ̺				
	Albokaria						ɭ		ɮ				ɮ		ɮ <sup>j</sup>		ɮ		
	Hurbilkaria		β				ð						ɹ				j		ɣ
(-) ahoskabea (+) ahoskabea	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	

## 2.1.2.1.2. Taula fonologikoa

		Ahoskatze gunea																	
		Ezpainetakoa		Ezpain-hortzetakoa		Hortzetakoa		Laminarea		Bizkar-albeolarea		Apiko-albeolarea		Sabaiaurrekoa		Sabaikoa		Belokoa	
A h o s k a t z e  m o d u a	Herskaria	p	b			t	d										j	k	g
	Sudurkaria		m									n					ɲ		
	Dardarkari bakuna											r							
	Dardarkari anizkuna											r							
	Frikaria			f		θ						ɬ		ʃ				x	
	Afrikaria										ts			tʃ					
	Albokaria											l					ʎ		
	Hurbilkaria																		
(-) ahoskabea (+) ahoskabea		-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+

### 2.1.2.1.3. Transliterazio taula

Testuak transkribatzeko alfabeto ortografikoa erabiliko dugu. Transkripzio hauek joera ezberdinak egon dira baina gu Aurrekoetxeak (1997) emandako arauetan oinarrituko gara.

Horrela, hizkera honetarako transliterazio taula hau proposatzen dugu:

Alfabeto fonetikoan (IPA)	Alfabeto ortografikoan
[m]	→ m
[n], [m̥], [n̥], [n̥̊], [n̥̊̊], [ŋ]	→ n
[ɲ]	→ ñ
[p]	→ p
[t]	→ t
[k]	→ k
[b], [β]	→ b
[d], [ð]	→ d
[g], [ɣ]	→ g
[f]	→ f
[θ]	→ z
[s], [z]	→ s
[ʃ]	→ x
[x]	→ j
[ts]	→ tz
[tʃ]	→ tx
[tʃ], [j]	→ y
[r]	→ rr
[r̥], [ɾ]	→ r
[l], [l̥], [l̥̊], [l̥̊̊]	→ l
[ʎ]	→ ll

### 2.1.2.1.4. Herskariak

Zazpi fonema herskari daude, hiru ahostun eta hiru ahoskabe:

- Ezpainetako ahoskabea /p/
- Hortzetako ahoskabea /t/
- Belare ahoskabea /k/
- Ezpainetako ahostuna /b/
- Hortzetako ahostuna /d/
- Belare ahostuna /g/
- Sabaiko ahostuna /j/

## Alofonoak:

Herskarien artean fonema ahostunek baino ez dituzte alofonoak, eta hauek bokalen artean gauzatzen dira.

/b/ ezpainetako ahostunaren alofonoak:

- Herskari ezpainetako ahostuna [b] (ikus 3. espektrograma)

- Hurbilkari ezpainetako ahostuna [β] (ikus 5. eta 3. espektrogramak)

Alofono bi hauen desberdintasun akustikorako ikus 3. espektrograma.

/d/ hortzetako ahostunaren alofona

- Herskari hortzetako ahostuna [d] (ikus 4. espektrograma)

- Hurbilkari hortzetako ahostuna [ð] (ikus 5. espektrograma)

/g/ belare ahostunaren alofona:

- Herskari belare ahostuna [g] (ikus 6. espektrograma)

- Hurbilkari belare ahostuna [ɣ] (ikus 7. espektrograma)

/j/ sabaiko ahostunaren alofona:

- Herskari sabaiko ahostuna [j] (ikus 8. espektrograma)

- Frikari sabaiko ahostuna [j̥] (ikus 9. espektrograma)


## Distribuzioa:

Herskari ahoskabeak hitz hasieran zein hitz barruan ager daitezke. Hitz amaieran, aldiz, herskari ezpainbikaria [p] onomatopeietan baino ez da agertzen


Herskari ahostunak hitz hasieran baino ez dira agertzen; hitz barruan euren alofonoak diren herskari frikari ahostunak diren [β], [ð], [ɣ] eta [j̥] ahoskatzen dira eta hitz amaieran ez dago herskari ahostunik ez euren alofonorik.

Fonema	Hitz hasieran	Hitz barruan	Hitz amaieran
/p/	[p]agoa	ar[p]eia	eu[p]
/t/	[t]rokea	a[t]ea	do[t]
/k/	[k]anpoan	ma[k]erea	do[k]
/b/	[b]asoa	ba[β]ea	
/d/	[d]eurie	aba[ð]ea	
/g/	[g]orrie	o[ɣ]ie	
/j/	[j]oan	ana[j̥]a	


Hona hemen herskarien eta euren alofonoen espektrogramak:




2. espektrograma: (*pekatur*), [p], [k] eta [t]. Praateko 'tier'-etan [k] eta [t]aren leherketa barra markatu dugu.



3. espektrograma: (*babea*), [b] herskaria. Ondoan bere alofona [β] hurbilkaria.




4. espektrograma: (*dosak*), [d] herskaria.




5. espektrograma: (*abadea*), [β] eta [ð] hurbilkariak.






6. espektrograma: (*gonea*), [g] herskaria.




7. espektrograma: (*alabeagas*), [ɣ] hurbilkaria.





8. espektrograma: (*yoan*) [j] herskaria.



9. espektrograma: (*layak*), [j] hurbilkaria.

### 2.1.2.1.5. Sudurkariak

Sudurkarietan hiru fonema daude:

- Ezpainbikari ahostuna /m/
- Albeolare ahostuna /n/
- Palatala ahostuna /ɲ/

/ɲ/ fonemaren estatusa eztabaidagarria da, zeren eta maileguak ez diren hitzetan /n/aren alofonoa baita;  $j + n > \tilde{n}$  testuinguruan beti gauzatzen da (*oñes...*) eta  $i + n > \tilde{n}$  testuinguruan aukeran da (adb: *ifñi vs ifini*). Kontrako norabidean ere  $n + j > \tilde{n}$  gauzatzen da beti (*ñaok, ñatok, ñoan...*)

Bustidura duten adibide bi hauetan, *mine / miñe* eta *agine / agiñe*, behinik behin, balio bereizgarria du.

- mine* → dolor, douleur
- miñe* → lengua, langue
- agine* → diente, dent
- agiñe* → (Bot.) *Taxus baccata*

Dena den, erdal maileguetan fonema hau gorde da: *arañea, kodeñea, bañoa, bañerea...* eta *banoa / bañoa* edota *ones / oñes* hitz pareek argi erakusten dutenez, fonematzat hartu behar dugu hizkera honetan.

Alofonoak:

Sudurkarien artean /n/-aren sei alofono daude:

- Sudurkari apiko-albeolarea [n] (ikus 11. espektrograma)
- Ezpainetako ahostuna [m], /p/ eta /b/ ezpainetako herskariaren aurrean gauzatzen da.
- Ezpain-hortzetako ahostuna [ɱ], /f/ ezpain-hortzetako frikariaren aurrean gauzatzen da. (ikus 12. espektrograma)
- Hortzetako ahostuna [ɲ], /t/ eta /d/ hortzetako herskariaren aurrean gauzatzen da. (ikus 14. espektrograma).
- Laminare ahostuna [ɲ], /ts/ bizkar-hobietako afrikariaren aurrean gauzatzen da. (ikus 15. espektrograma).
- Sabaiaurreko ahostuna [n<sup>j</sup>], /tʃ/ sabaiaurreko afrikariaren aurrean gauzatzen da. (ikus 16. espektrograma)
- Belare ahostuna [ŋ], /k/ eta /g/ beloko herskariaren aurrean gauzatzen da. (ikus 13. espektrograma)

Sudurkarietan /m/-aren alofono bakarra dago: [m] (ikus 10. espektrograma).

/ɲ/-arean alofono bakarra dago: [ɲ] (ikus 17. espektrograma).

## Distribuzioa:

Hiru fonema hauek, /m/, /n/ eta /ɲ/, hitz hasieran zein hitz barruan ager daitezke.


Hitz amaieran, ordea, sudurkarien neutralizazioa daukagu. [n] da aukera bakarra [j] + [n] > [ɲ] testuinguruan izan ezik.

[n] (a, e, i, o, u) \_\_\_\_# Adibideak: *gixon, esan, diren, urrin, euskaldun...*


[ɲ] j\_\_\_\_# Adibideak: *oiñ...*

Fonema	Hitz hasieran	Hitz barruan	Hitz amaieran
/m/	[m]andoa	a[m]ama	
/n/	[n]eskea	a[n]aya i[ɲ]fernue i[ɲ]guru orre[m]beste kan[ɲ]teu a[ɲ]tza eme[nʲ]txe	gixo[n]
/ɲ/	[ɲ]aok	ba[ɲ]erea	oi[ɲ]


Hona hemen sudurkarien espektrogramak:




10. espektrograma: (amama), [m] sudurkaria.



11. espektrograma: (nora), [n] sudurkaria.




12. espektrograma: (*infernue*) [ɲ] ezpain-hortzetako sudurkaria.




13. espektrograma: (*ankea*), [ɲ] beloko sudurkaria.







14. espektrograma: (*kanteu*), [ŋ] ezpain-hortzetako sudurkaria.



15. espektrograma: (*basauntz*), [ŋ] laminarea.



16. espektrograma: (*ementxe*), [ɲ] palatala.



17. espektrograma: (*miñe*), [ɲ] sabaiko sudurkaria.

**2.1.2.1.6. Dardarkariak**

Fonema dardarkari bi daude:

- Dardarkari bakuna, albeolare ahostuna /r/
- Dardarkari anitza, albeolare ahostuna /r/

Alofonoak:

Dardarkari bakunak alofono bakarra dauka:

- Albeolare ahostuna [r] (ikus 18. espektrograma).

Dardarkari bakunak alofono bi dauzka:

- Albeolarea ahostuna [r] (ikus 19. espektrograma).
- Hurbilkari apiko-albeolarea [ɹ] (ikus 20. espektrograma).


Distribuzioa:

Dardarkari bakuna hitz barruan eta amaieran ager daiteke. Dardarkari anitza, aldiz, hitz barruan zein hitz amaieran eta mailegu oso berrietan hitz hasieran ere agertzen da.


Fonema	Hitz hasieran	Hitz barruan	Hitz amaieran
/r/		mada[r]ie eu[ɹ]ek	plate[r]
/r/	[r]estauran	sa[r]atu	ama[r]

Hona hemen dardarkarien espektrogramak:






18. espektrograma: (*arra*), [r] dardarkari anitza.



19. espektrograma: (*barea*), [r] dardarkari bakuna.



20. espektrograma: (*nora*), [ɪ] hurbilkaria.

### 2.1.2.1.7. Frikariak

Bost fonema frikari daude:

- Ezpain-hortzetako ahoskabea /f/
- Hortzetako ahoskabea /θ/
- Apiko-albeolare ahoskabea /s/
- Sabaiurreko ahoskabea /ʃ/
- Belare ahoskabea /x/

/f/ ezpain-hortzetakoaren produktibitatea ez da oso handia. Maiz, maileguetan agertzen zaigun arren jatorrizko zenbait euskal hitzetan ere agertzen da: *ifñi*, *afarie*...

Horzkaria, /θ/, izen propioetan baino ez da agertzen, eta ez beti. Erdal maileguetan eta erdararen eraginez hainbat euskal hitzetan ere agertzen da. Horren adibide garbia abizenak eta toponimoak dira:

Adb:


*Zabala* vs *Sabala*

*Iturrioz* vs *Iturrios* edo *Iturriotz*


*Azenor* vs *Asenor* (lantegia)

*Urkizu* vs *Urkusu*

21 eta 22. espektrogrametan ikusten den legez, hizkera honetan [s] > [ʃ] gauzatu da: asi (bat. hasi) / asi (bat. hazi)



21. espektrograma: *asi* (bat. hasi)



22. espektrograma: *asi* (bat. hazi)

Sabaiaurrekoa /ʃ/, (i, j) + ʃ > [ʃ] testuinguruan gauzatzen den apiko-albeolarearen alofona bada ere, batzuetan fonema legez agertzen da: *koxóa, amaxéa, Xabiér, txúxoá*<sup>22</sup>...

/x/ belarearen produktibitatea ere, ez da oso handia. Gaztelaniatik hartutako maileguetan agertzen zaigu: *biejea, bandéjea, jardínéoa, karréjue*... Gure corpusean fonema hau aurkezten duen euskal berba bakarra “jaun” da: *jaune, jaungoikóa*...

#### Alofonoak:

/s/ apiko-albeolare ahoskabeak alofono bi ditu:

- Apiko-albeolare ahoskabea [s̺] (ikus 25. espektrograma).
- Frikari apiko-albeolare ahostuna [z̺], sudurkariaren aurrean gauzatzen da (ikus 26. espektrograma).

Beste frikari guztiek alofono bakarra daukate:

- Ezpain-hortzetako ahoskabea [f] (ikus 23. espektrograma).
- Hortzetako ahoskabea [θ] (ikus 24. espektrograma)
- Sabaiaurreko ahoskabea [ʃ] (ikus 27. espektrograma)
- Belare ahoskabea [x] (ikus 28. espektrograma)

#### Distribuzioa:

/f/ fonema hau hitz hasieran zein hitz barruan agertzen da. Onomatopeietan hitz amaieran ere agertzen da.

/θ/ gutxitan bada ere, hitz hasieran, erdian zein amaieran agertzen zaizkigu.

/s̺/ apiko-albeolarea hitz amaieran zein hitz barruan, zein hitz amaieran agertzen da.

/ʃ/ hitz barruan agertzen da, eta izen propioetan hitz hasieran ere agertzen da.


/x/ hitz hasieran zein hitz barruan ager daiteke eta onomatopeietan hitz amaieran ere agertzen da.

Fonema	Hitz hasieran	Hitz barruan	Hitz amaieran
/f/	[f]rakak	a[f]arie	u[f]!
/θ/	[θ]abala	Urki[θ]u	Iturrio[θ]
/s̺/	[s̺]ano	a[s̺]une e[z̺]nea	dato[s̺]
/ʃ/	[ʃ]abier	ko[ʃ]oa	
/x/	[x]aune	bie[x]ea	a[x]!


Hona hemen frikariaren espektrogramak:

<sup>22</sup> Zalantzakoa da, baina hiztegi guztietan 'txuzo' agertzen denez, ez du ematen bustidura dagoenik.







23. espektrograma: (*afarie*), [f] ezpain-hortzetakoa.




24. espektrograma: (*Urkizu*), [θ] hortzetakoa.




25. espektrograma: (*basoa*), [s] apiko-albeolare ahoskabea.



26. espektrograma: (*esnea*), [z] apiko-albeolare ahostuna.



27. espektrograma: (*gaxak*), [ʃ] sabaiaurreko frikaria.



28. espektrograma: (*jaune*), [x] belare ahoskabea.

**2.1.2.1.8. Afrikariak**

Fonema afrikatu bi daude:

- Bizkar-albeolare ahoskabea  $\widehat{/ts/}$

- Sabaiaurreko ahoskabea  $\widehat{/tʃ/}$

Hipokoristikoetan askotan erabiltzen da sabaiaurreko ahoskabea: *txantxe*, *txa-txan*, *txatxa*, *txakun*, *txamuletxa*, *txankirrin*, *txantxan*, *txapiskola*, *txetxe*, *aupatxi*, *apatxin*, *arretxikoz*, *neskatxi*, *pitxin*, *txilin*, *txitxilin*, *pitxi*, *pitxitxi*, *txin*, *txirin*, *txintxirri*, *txipotin*, *txiripilota*, *txitxi*, *txitxirri*, *pitxirrin*, *txutxu*...

Ez daukate alofonorik.

Distribuzioa:



Bizkar albeolarea,  $\widehat{/ts/}$ , hitz barruan zein amaieran agertzen da, baina ez hitz hasieran (ikus 29. espektrograma).


Sabaiaurrekoa,  $\widehat{/tʃ/}$ , hitz hasieran, barruan zein amaieran agertzen da (ikus 30. eta 31. espektrogramak).

Fonema	Hitz hasieran	Hitz barruan	Hitz amaieran
$\widehat{/ts/}$		goran $\widehat{[ts]}$ a	lupe $\widehat{[ts]}$
$\widehat{/tʃ/}$	$\widehat{[tʃ]}$ ikerra	ama $\widehat{[tʃ]}$ u	a $\widehat{[tʃ]}$

Hona hemen afrikarien espektrogramak:



29. espektrograma: (*batzuk*), [ts] bizkar-albeolarea.30. espektrograma: (*txorisoa*), [tʃ] sabaiaurrekoa. Hitz hasieran hersketa barik.



31. espektrograma: (*gatxa*), [tʃ] sabaiaurrekoa. Honetan hersketa ikus daiteke.

### 2.1.2.1.9. Albokariak

Fonema albokari bi daude:

- Albeolare ahostuna /l/
- Palatal ahostuna /ʎ/

Palatal ahostuna, /ʎ/, gehienetan, maileguetan agertzen da (*kallea, bokadilloa, kuadrillea...*) eta  $j + [l] > [ʎ]$  bustiduraren eraginez sortutakoetan (*ollarra, seselle, mallugie...*).

Alofonoak:

/l/ albeolare ahostunak lau alofono ditu, hirurak albokariak:

- Albeolare ahostuna [l] (ikus 30. espektrograma).
- Hortzetako ahostuna [ɫ], /t/ eta /d/ hortzetako herskariaren aurrean gauzatzen da (ikus 33. espektrograma).
- Laminare ahostuna [ʎ], /ts/ bizkar-hobietako afrikariaren aurrean gauzatzen da (ikus 34. espektrograma).
- Sabaiaurreko ahostuna [ɭ], /tʃ/ sabaiaurreko afrikariaren aurrean gauzatzen da (ikus 35. espektrograma).


Palatal ahostunak alofono bakarra dauka: [ʎ] (ikus 36. espektrograma)

Distribuzioa:

Albeolarea hitz hasieran, barruan zein amaieran ager daiteke. Palatala, aldiz, hitz hasieran eta barruan baino ez da agertzen.


Fonema	Hitz hasieran	Hitz barruan	Hitz amaieran
/l/	[l]upue	se[l]an a[l]tue ba[l]tza a[lʲ]txeu	muti[l]
/ʎ/	[ʎ]obea	ka[ʎ]ea	

Hona hemen albokarien espektrogramak:




32. espektrograma: (taloa), [l] apiko-albeolarea.







33. espektrograma: (*altue*), [l] hortzetakoa.




34. espektrograma: (*saltzean*), [l̪] laminarea.



35. espektrograma: (*eltxo*), [p] sabaiaurrekoa.



36. espektrograma: (*kallea*), [k] sabaikoa.



37. espektrograma: yeismoaren adibidea (*yobea*).

Yeismoa aspalditik aztertua izan da gaztelaniaz (Corominas, 1953; Navarro Tomás, 1964; Lipski, 1989; Martos, 1997...) eta baita penintsulako beste hizkeretan ere (Frago 1978; Veny, 1993, Dubert, 2013...). Euskaraz ordea, fenomeno nahiko berria denez, gutxi idatzi da honen gainean, azaleko aipamen batzuk baino ez ditugu (Ormazabal & Alkorta, 1998; Salaberri, Kamino & Zubiri, 2004; Ormaetxea, 2008; Aurrekoetxea, 2008...) eta Kintana euskaltzainak (2007) idatzitako prentsa artikulua bat non, bere ustez, euskal yeismoak erdal jatorri garbia duen. Igorren daborduko entzun daiteke belanaldi honen hiztun batzuegan, ohikoa ez izan arren.

## 2.2. Silaba: diptongoak

Puntu bitan banatuko dugu diptongoen azterketa. Lehenik, diptongoen inbentarioa emango dugu eta ostean, diptongoen distribuzioaz arituko gara.

### 2.2.1. Diptongoen inbentarioa

Hizkera honetan diptongo mota bi daude, goranzkoak eta beheranzkoak, ohikoenak beheranzkoak direlarik, nahiz eta goranzkoak ere antzeman daitezkeen, batez ere mailegatutako berbetan:

Beheranzko diptongoak [aj], [aw], [ej], [ew] eta [oj] dira.

Goranzko diptongoak [ja], [je], [jo], [wa], [we], eta [wi] dira.

## 2.2.2. Diptongoen distribuzioa

Diptongoen distribuzioa puntu bitan aztertuko dugu. Lehenik, beheranzko diptongoen distribuzioa erakutsiko da; eta bigarrenik, goranzko diptongoena.

### 2.2.2.1. Beheranzko diptongoak

Aipatutako diptongoak berbaren edozein lekutan ager daitezke; hasieran, zein amaieran, zein berba barruan.

Adibideak:

	Hasieran	Barruan	Amaieran
[aj]	<i>aite</i>	<i>naiko</i>	<i>mai</i>
[aw]	<i>aurton</i>	<i>yausi</i>	<i>lau</i>
[ej]	<i>ein</i>	<i>geitu</i>	<i>ogei</i>
[ew]	<i>euli</i>	<i>amateute</i>	<i>olgeu</i>
[oj]	<i>oiñ</i>	<i>koitedue</i>	<i>goi</i>

Adibide gehiago:

[aj]

Hitz hasieran: *áite, áinbet, áitite, ainbéste...*

Hitz erdian: *naíko, amáika, , eráin, máisue, orrégaiti, gaixóa, baskáiten...*

Hitz amaieran: *kanpái, báí, selái, , mai, gastái, ibái, násai, elái...*

[aw]

Hitz hasieran: *áú, áurten...*

Hitz erdian: *jáun, táukie, yáusi...*

Hitz amaieran: *láú, ardáu, garáu...*

[ej]

Hitz hasieran: *ei, ein...*

Hitz erdian: *geitu, sein, eréin, néike, óneik, béin...*

Hitz amaieran: *sei, odéi, ogéi, béi...*

[ew]

Hitz hasieran: *eulíe, éuskerea, euríe, éurek...*

Hitz erdian: *seuek, deutzo, neurie, neure, geure, leuke...*

Hitz amaieran: *neu, geu, seu, deu, ámateu...*

[oj]

Hitz erdian: *goixéti, koitédue, itxóisu...*

Hitz erdian: *koitédue, koipéa...*

Hitz amaieran: *goi, Gáarakoi, morrói, sasói*

### 2.2.2.2. Goranzko diptongoak

Oso apurrak dira goranzko diptongoen adibideak; ikertzaile askoren arabera ez dira jatorrizkoak euskaran. Hizkera honetan ere gehienak erdal mailegutan edota toponimo eta izen-abizenetan agertzen dira nahiz eta euskal jatorrizko batzuk ere dauden, hala nola, *suin, eguerdie, eguena, eguestena, artuisu...*

Goranzko diptongoak ekiditeko oso emankorrak ez diren bide bi daude:

- 1) Monoptongazioa  
*armosue* 'almuerzo' gazt.  
*errúdea* 'rueda' gazt.
- 2) Azentua aldaketa  
 Toponimo askok erdal azentuazioan goranzko diptongoa daukate baina euskal azentuazioan aldiz diptongoa barik silaba bi daude.  
 Ze.bé.rio (erdal azentuaren eraginez) vs Se.be.rí.o (euskal azentuari eutsiz)

Goranzko diptongoen adibideak:

[ja]: *Uriárte* (onom.), *óstia*, *istória*, *Bédia* (top.), *marianístek*, *Arándia* (onom.), *Arratiáno* (top.), *milisiánoa*, *especiála*, *estudiánte*, *ofisiála*, *persiána*...

[je]: *Arriéta* (onom.), *pasiéntzie*, *Bidibiéta* (top.), *gobiérno*, *injeniero*, *intiérroa*, *fiéstea*, *baliéntea*, *disiénbre*, *pariéntea*, *setiénbre*, *teniéntea*...

[jo]: *Urkióla* (top.), *nasionála*, *Lekéitio* (top.), *kánbioa*, *matrimónio*, *júlio*, *júnio*, *Don Ilário* (onom.), *nérbio*, *kalendarío*, *Apário* (top.)...

[wa]: *Iruarrizaga*, *guárdia*, *San Juán* (top.), *iguál*, *kuádroa*, *kuártoa*, *guárdasola*, *kuártela*...

[we]: *eguérdie*, *pañuéloa*, *fuértea*, *juérgea*, *buéltea*, *buéno*, *suéldoa*, *éguen*, *eguésten*...

[wi]: *suín*, *kígui*, *ui*, *deskuídoa*, *artuísu*, *sartuísu*, *Sagárdui* (onom.), *Luis* (onom.)...

[wi] diptongoari buruz autore guztiak ez datoz bat eta batzuek beheranzko diptongotzat hartzen dute. Etxebarriak (1991) beheranzkoen artean sailkatzen baditu ere, honela esaten du:

“Adibideok beheranzko erara transkribitu ditut baina goranzko erara ere aurkitzea bidezkoa da grupo fonikoaren arabera.” (Etxebarriak, 1991: 84)

Salazarrek (2001: 27) ere beheranzkoen artean sailkatzen ditu. Etxebarria eta Salazarren aipuak garrantzitsuak dira Igorreko hizkeratik oso hurbil dauden hizkerak direlako; Igorreko hizkeran aldiz, goranzkoen artean sailkatu dugu lehenengo osagaia bokalerdia delako eta bigarrena indartsuena, bokala, bokal bakarra.

Baina hauek ez dira beheranzkoen artean sailkatzen duten bakarrak; Erdoziak (2001: 86) ere beheranzkoen artean sailkatzen du eta beste ikertzaile batzuek ere zalantzak aurkezten dituzte. Honela aipatzen dute Hualde, Elordieta eta Elordieta-k (1995):

“The diphthongs [wi] and [uj] are not easily distinguishable. A reason to consider that in *suiñ* the nonsyllabic element is the second vocoid is that it is absorbed in the following palatal consonant when a vowel follows.” (Elordieta eta Elordieta, 1995: 22)

Dena den, autore gehienek, Mitxelenarengandik (1977: 87) hasita, goranzkoen artean sailkatzen dute [wi] diptongoa: Txillardegi (1980: 60), Ormaetxea (2006: 125), Mugarza (2006: 53)...

“Por otra parte, su realización más común parece ser [wi]: por lo tanto, como diptongo ascendente se aparta de todos los que acabamos de citar.” Mitxelena (1977: 87)



## 2.3. Hitz fonologikoa

Puntu honetan bokal eta kontsonante eremuetan gauzatzen diren arauak aztertuko ditugu. Azterketa honetan arau fonologikoak eta morfofonologikoak bereiziko ditugu.

### 2.3.1. Bokal eremuko arauak

Bokaletan gauzatzen diren arauak multzo bitan banatuko ditugu aztertzeko. Alde batetik arau fonologikoak aztertuko dira, eta bestetik, arau morfofonologikoak.

#### 2.3.1.1. Arau fonologikoak

Lau dira gauzatzen diren arauak:

- Asimilazioak
- Bokal protetikoaren ezarpena
- Diptongoen bilakaerak
- Aldaketa ez sistematikoak

##### 2.3.1.1.1. Asimilazioak

a > e / i,u (C)\_\_\_\_\_ asimilazioa

Asimilazio mota hau oso ezaguna da Hego Euskal Herriko hizkeretan. Hizkera honetan oso emankorra da posible den kasu guztietan gauzatzen baita.

Morfema barruan:

*indérra, txikérra, ikétza, busténa, begíre, estukúre, bier, séinbet, ospitéla, nóbie, igérrri, titérea, geuséa, ítíllek, ixérra, ixéra, morsille, Dimé, ugéri, usédioa, mákinetu, ustértu...*

##### 2.3.1.1.2. Bokal protetikoa

Hizkera honetan dardarkaria ezin da ahoskatu hitz hasieran. Hortaz, bokal protetiko bat aurkitzen dugu r-z hasten diren maileguetan. Hauetan *e-* da bokal protetiko aukera ia bakarra, *a-* oso adibide gutxitan topatzen dugu: *arrároa, arrátoya, arrásoie, arrántxue*<sup>23</sup>, *arrópea*<sup>24</sup>.

*e-*: *errúdea, érrepaseu, érnegeu, errómea, errámue, errúbioa, errosáριοa, errebuéltea, erreléboa, errópea, errekámbioa, érretireu, erromeríe, errebánue, erregéa, erremédioa, errepartídu, errénteá, errekádue, errogatíbea, érreseu, erredóndoa, érrepareu, erréie, érregaleú, errékea, errotéa, errásea, errábie...*

Mailegu berrienetan ordea, dardarkaria ahoskatzeko joera dago: *radar, restauran, radioa...*

-l-ren aurrean *a-* da bokal protetikoa daukagun adibide bakar honetan: *állegeu*.

<sup>23</sup> rancho' gazt.

<sup>24</sup> *errópea* ere bai.

### 2.3.1.1.3. Diptongoak

Diptongoetan hiru arau dauzkagu:

- a) Monoptongazioak
- b) [aw] eta [ew]ren arteko alternantzia.
- c) Maileguen egokitzea: -on > -oi

Arau hauen gauzatzea askotan hiztunaren hizketaren erregistroaren menpe dago, monoptongazioak eta [aw]/[ew] diptongoaren hautaketa erregistroaren arabera egingo baitu. Horrela erregistro formal baten monoptongazio gutxiago eta [aw] diptongo gehiago sortuko ditu hiztunak; erregistro informal batean aldiz, monoptongazio gehiago eta [ew] diptongo gehiago.

a) Monoptongazioak

[aj] diptongoan

<i>usine</i>	'usaina'
<i>igitie</i>	'igitaia'
<i>gánea</i>	'gaina'
<i>sana</i>	'zaina'

Palatalizazioaren eraginez sortutakoak:

<i>gatxa</i>	'gaitza'
<i>atxa</i>	'haitza'
<i>atxurre</i>	'aitzurra'
<i>lañoa</i>	'lainoa'
<i>mallugie</i>	'mailugia'

[ej] diptongoan

<i>in</i>	<i>ein</i> 'egin'
-----------	-------------------

Palatalizazioaren eraginez sortutakoak:

<i>elexea</i>	'eleiza'
<i>aretxa</i>	'hareitz'

[aw] diptongoan

<i>arpéi</i>	'aurpegi'
<i>larogei</i>	'laurogei'

Eduki adizkietan:

<i>dekot</i>	'daukat'
<i>deko</i>	'dauka'

Nor-Nork saileko adizki batzuetan:

<i>nosu</i>	'nauzu'
<i>nosue</i>	'nauzue'

[ew] diptongoan

Eutsi aditz laguntzailean gauzatzen dira monoptongazioak:

<i>dotzut</i>	'deutsut'
---------------	-----------

<i>doste</i>	'deust'
<i>dosku</i>	'deusku'

## [oj] diptongoan

<i>nos</i>	'noiz'
------------	--------

Palatalizazioaren eraginez sortutakoak:

<i>bakotxa</i>	'bakoitza'
<i>oñés</i>	'oinez'

## b) [aw] / [ew] alternantzia

## b1) Izenordain indartuak

Izenordain indartuetan [ew] zein [aw] diptongoak dauzkagu aukeran.

<i>néu</i>	zein	<i>náu</i>
<i>séu</i>	zein	<i>sáu</i>

## b2) “au” diptongoa [ew] eta [aw] ahoskatzen da.

Bilakaera hau oso garrantzitsua da Arratian bertoko hizkerak bereizteko. Igorren [ew] ahoskatzeko joera da nagusi, baina, hala eta guztiz ere, hiztun batzuek [aw] ahoskatzen dute. [aw] ahoskatzen duten hiztunak mota bikoak izan daitezke: Beti [aw] ahoskatzen dutenak, eta [ew] ahoskatzen dutenak, baina noizean behin [aw] ere ahoskatzen dutenak. Azken hauek arrazoi askorengatik egiten dute: prestigioagatik, elizako hizkeragatik, estandarren eraginagatik (ezer gutxi alfabetatuta egon arren idazki guztietan “au” agertuko da) eta batez ere inguruko pertsonengatik; Igorrera Arratiako beste herrietako jende asko joan delako bizitzera azken urteotan eta familia asko jatorri ezberdinetako jendez osatuta dagoelako.

Corpusean batutako datuek ez digute ematen inolako distribuzio geografikorik Igorre barruan, auzo berean diptongo biak entzun daitezke eta auzoaren kokapenak ere ez du eraginik.

Dena den, esan bezala, argi utzi nahi dut [ew] dela diptongorik ohikoena hizkera honetan; gure corpusean, aditz-partizipioetako diptongoen erabilerako honako ehunekoak aurkitu ditugu:

[ew]	%85,71
[aw]	%14,28

## Adibideak:


<i>géur</i>	'gaur'
<i>éurre</i>	'aurre'
<i>éutze</i>	'hautsa'
<i>euspóa</i>	'hauspoa'
<i>éuntze</i>	'ahuntza'
<i>baséuntz</i>	'basahuntz '
<i>eupétz</i>	'ahopats'

EDUN aditz laguntzailean:

*deu* 'dau'  
*deure* 'daure'

Aditz-partizipioetan:

*páseu* 'pasau'  
*tókeu* 'tokau'  
*páreu* 'parau'  
*ámateu* 'amatau'  
*kánbieu* 'kanbiau'



8. mapa: Aditz-partizipioetako *au* eta *eu* diptongoen banaketa Arratian eta inguruneetan.

## c) Maileguen egokitzeak

Erdaraz '-on'ez amaitutako hitzak hizkera honetan '-oi' diptongoz amaitzen dira:

<i>pabellói</i>	'pabellón'
<i>kamiói</i>	'camión'
<i>tablói</i>	'tablón'
<i>melokotói</i>	'melocotón'
<i>arratói</i>	'ratón'

## 2.3.1.1.4. Aldaketa ez sistematikoak

Puntu honetan aipatuko dira sistematikoki gauzatzen diren aldaketak, araua ez direnak: sinkopak, metatesiak, hurbileko asimilazioak, disimilazioak eta bokalak lexikoan.

## a) Sinkopak

Oso sinkopa gutxi aurkitzen dugu Igorreko hizkeran.

<i>bedrátzi</i>	'bederatzi'
<i>librue</i>	'liburua'
<i>érnegeu</i>	'renegar' gazt.

## b) Metatesiak

Metatesiak ere oso urriak dira hizkera honetan.

<i>beinke</i>	'bien que' gazt.
<i>bieja</i>	'viaje' gazt.

## c) Hurbileko asimilazioak

Hurbileko asimilazioa gertatzen da fonema baten ahoskera inguruko fonemek edo hotsek eraginda aldatzen denean. Bokal guztietan gauzatzen bada ere, ez da oso emankorra.

*arrabéa, asarrátu, atára, kantárea*<sup>25</sup>, *akárra, labadúrea, arátxa*<sup>26</sup>, *karratérue, arkal ténesak, beségue*<sup>27</sup>  
*gítxi, itxí, ikísi, ixín, Bidibieta* (top.), *iríkin*  
*okoléa, ogorlóko, ostóndu, geldórrosteu*  
*gusúrre, ukútu, Durúngu* (top.), *Urkúsu*<sup>28</sup> (top.), *urrúngue, urúne, kuntzurúne*

<sup>25</sup> 'harrobia', 'cantera' gazt.

<sup>26</sup> 'haritz'

<sup>27</sup> 'besugo' gazt.

<sup>28</sup> 'Urkizu' Igorreko auzoa.

## d) Disimilazioak

Disimilazioak egiteko ez da zalea Igorreko hizkera.

*úrrin*            'urrun'  
*biórra*            'behorra'

## f) Bokalak lexikoan

u- / i-

Mendebaldeko hizkeretan gertatzen den bezala hizkera honetan ere berba hasieran *u-* bokala daukagu hainbat hitzetan: *uger, úrten, uléa, urúne...*

-e / -a

Mendebaldean ere ohikoa denez, hainbat berbaren amaieran *-e* barik *-a* aurkitzen dugu hainbat hitzetan: *bela, laba, andra, lora, landara...*

*Bela* berbaren kasuan salbuespena daukagu 'ori bele óri' esamoldean.

e > a / [r] \_\_\_\_

Hainbat hitzetan, mendebaldeko hizkeretan gertatzen den legez, e > a [r] \_\_\_\_: *txarríe, garríe, eskarrik ásko, barríe, bárres, bastárra, Agarre* (top.)...

Bestalde, mendebalde guztian bezala *baltz* eta *asur* aldaerak ditugu.

## 2.3.1.2. Arau morfonologikoak

## 2.3.1.2.1. a + a &gt; ea

*-a* berezkoari *a* mugatzailea eranstea disimilatu egiten da emaitza *-ea* delarik.

alaba + a > *alabéa*  
 neska + a > *neskéa*  
 sarata + a > *saratéa*  
 arkela + a > *arkeléa*  
 korta + a > *kórtea...*

Disimilazio hau singularreko deklinabide-kasu guztietan gauzatzen da baina ez, ordea, pluraletan:

alaba + ak > *álabak*  
 arraba + ak > *árrabak*  
 korta + ak > *kórtak*  
 neska + ak > *néskak*

## 2.3.1.2.2. e + a &gt; ea

Sakoneko egituran eta azaleko egituran errepresentazio zuzena da: *abadéa, kótxeak, etzéak, béstea, jénteá...*

**2.3.1.2.3. i + a > ie**

*i*-ren ostean *a* bokala daukagunean asimilazioa gertatzen da, tartean kontsonante bat egonda ere: *a > e / i* (C)\_\_\_\_\_

Testuinguru hauetan gauzatzen da:

## 1) Hitz oina -i + mugatzailea

*txarrié, barríe, ogíe, basérríe, ardíe, erríe, irusíe, gorrié, mendíe, neskatxie, idíe, biék, gustíe, igítíe, egúskie, itárgie, baskárie, afárie, euríe, bellegíe...*

## 2) -iC + mugatzailea

*ikesgíne, perníle, mamíne, políte, mutíle, mine 'mina', miñe 'mihia', agíne 'hortza', agíñe (Taxus baccata), mílle, morokíle, moropíle...*

**2.3.1.2.4. o +a > oa**

Sakoneko egituran eta azaleko egituran errepresentazio bera da, ez dago arau fonologikorik gauzatu barik: *astóak, afisiñoa, táloa, sosóa, sulóa...*

**2.3.1.2.5. u + a > ue**

*u*-ren ostean *a* bokala daukagunean asimilazioa gertatzen da, tartean kontsonante bat egonda ere: *a > e / u* (C)\_\_\_\_\_

Testuinguru hauetan gauzatzen da:

## 1) Hitz oina -u + mugatzailea

*negúe, porriúe, barríe, sapátue, sarrátue, lékue, kafétxue, andíe, buríe, diríe, armósue, astótxue, súde, áltue...*

## 2) -uC + mugatzailea

*atxúrre, euskaldúne, gorpútze, asúrre, lagúne, egúrre, gusúrre, mustúrre, urúne, erdaldúne, bixerdúne, astúne, asúle...*

**2.3.1.3. Morfema mugen gaineko arauak****2.3.1.3..1. i + a > ie**

a. Partizipioa + IZANeko aditz laguntzailea klitikoa denean

*etorrí de, etorrí nes, ibilí sen, bisí de, il de, il sen, yagí sen, yáusi de...*

Baina ez partizipioekin bakarrik:

*ni nes, Etxébarri de, Olabárrí de, orí de, Basáuri de, Seáni sen...*

IZANeko aditz laguntzaileak silaba bikoak edo luzeagoak direnean, hau da, talde foniko bera osatzen ez dutenean ez da betetzen:

*ibilí sara, bisí sarie, etorrí gara...*

*ibilí salako, etorrí dala, ní nasela, il dala, etorrí sanerako...*

## b. Izenkia + BAT(ZUK)

*txarri bet, neskaxi bet, iturri bet, mutil betzuk, arri betzuk, errí bet...*

c. Silaba bakarreko atzizkiak<sup>29</sup>

*arrike, gitxike...*

## d. Deklinabide morfemak

*erríre, níges, birríten, tranbíre, sárriten, Garakoire, urríen, basérrien, Seánire...*

Silaba biko edo luzeagoak diren deklinabide atzizkiak, *-gana, -gandik, -ganantza, -ganaño*, ere ez dira asimilatzen ez dutelako talde foniko bera osatzen.

## e. Partizipioa + -ta

*eskegíte, síte, ikusíte, ílte, ikisíte, kápeute, itxíte, éinde, erosíte, bisíte, asíte, etorríte, ipiníte, imiñíte, ifíníte, eukínde...*

## f. ETA juntagailua

*etorri te esaten dotze...*

*garie ebagi te in bear ixitesan, ba, metak ein bear sirean...*

*botaten deure mai ganera ta antxe eutzin de il...*

**2.3.1.3.2. u + a > ue**

## a. Partizipioa + IZANeko aditz laguntzailea klitikoa denean

*sabaldú de, ákabeu sen, otzitú nes, ámateu de, apurtú sen, anditú de...*

Baina ez partizipioekin bakarrik:

*áu de, Urkúsu sen, Arantzásu de, áu sen...*

IZANeko aditz laguntzaileak silaba bikoak edo luzeagoak direnean, hau da, talde foniko bera osatzen ez dutenean ez da betetzen:

*otzitu sara, anditu gara, postu sarie...*

*akabeu dala, amateu danerako, apurtu danean...*

## b. Izenkia + BAT(ZUK)

*léku bet, txarritxu betzuk, konéju betzuk, egún beten, bei betzuk, apúr bet, burú bet...*

## c. Silaba bakarreko atzizkiak

*apúrke-apúrke, indúske, burrúke, atxúrke...*

## d. Deklinabide morfemak

*pásture, géuges, irúten, Urkúsure, bárruen, Arantzásure, abustúen, abendúen...*

Silaba biko edo luzeagoak diren deklinabide atzizkiak, *-gana, -gandik, -ganantza, -ganaño*, ere ez dira asimilatzen ez dutelako talde foniko bera osatzen.

<sup>29</sup>IZANeko aditz laguntzaileekin gertatzen den legez arau hau bakarrik betetzen da silaba bakarreko atzizkiekin. Atzizkiak silaba bikoak edo luzeagoak badira ez da betetzen: *alaitasún, sapigarren...*

-tar atzizkiak silaba bakarrekoa bada ere ez du arau hau betetzen: *basérritar, basáuritar...*



## e. Partizipioa + -ta

*kendúte, kortaratute, sorrostúte, artúte, eskondúte, sarrátute, ustúte, ostúte, leidúte, kápeute, saldúte, estúte, sartúte, gelditúte, ixetúte, ámateute, defendidúte, sertúte, bildurtúte, galdúte, biurtúte...*

## f. Aditz laguntzailea + -(e)la

*ikusí dule, amaitú yakule, esán dosule, yáusi yatzule, estule bóta, estosule éin...*

## g. ETA juntagailua

*au te au dire parejea...*

*da kuadrillan pareu te, ba, meriendeu te denporea paseu te txiste batzuk konteu te an eon ginean...*

*Dimetik ona oñes etorten sirean au te anaya...*

**2.3.1.3.3. Bokalen arteko shandiak**

Igorreko euskararen bokal bi elkarren ondoan agertzen direnean, biak gordetzen dira. Bokal horiek aldiz berdinak badira, batu egingo dira eta bokal bakarria ahoskatuko da.

## a) -a

1) -a + a- = -a-  
*alabandíe* 'alaba handia'

2) -a + e- = -ae-  
*alabaerdaldúne* 'alaba erdalduna'

3) -a + i- = -ai-  
*alabaindértzue* 'alaba indartsua'

4) -a + o- = -ao-  
*alabaóna* 'alaba ona'

5) -a + u- = -au-  
*alabausíne* 'alaba usaina'

## b) -e

1) -e + a- = -ea-  
*umeandíe* 'ume handia'

2) -e + e- = -e-  
*umerdaldúne* 'ume erdalduna'

3) -e + i- = -ei-  
*umeindértzue* 'ume indartsua'

4) -e + o- = -eo-  
*umeóna* 'ume ona'

5) -e + u- = -eu-  
*umeusíne* 'ume usaina'

## c) -i

1) -i + a- = -ia-  
*txarriandíe* 'txerri handia'

2) -i + e- = -ie-  
*txarrieméa* 'txerri emea'

3) -i + i- = -i-  
*txarritzéla* 'txerri itzela'

4) -i + o- = -io-  
*arrastión* 'arrasti on'

5) -i + u- = -iu-  
*txarriusíne* 'txerri usaina'

d) -o

1) -o + a- = -oa-  
*astoandíe* 'asto handia'

2) -o + e- = -oe-  
*astoeméa* 'asto emea'

3) -o + i- = -oi-  
*astoitzéla* 'asto itzela'

4) -o + o- = -o-  
*astóna* 'asto ona'

5) -o + u- = -ou-  
*astousíne* 'asto usaina'

e) -u

1) -u + a- = -ua-  
*katuandíe* 'katu handia'

2) -u + e- = -ue-  
*katueméa* 'katu emea'

3) -u + i- = -ui-  
*katuitzéla* 'katu itzela'

4) -u + o- = -uo-  
*katuóna* 'katu ona'

5) -u + u- = -u-  
*katusíne* 'katu usaina'

## 2.3.2. Kontsonante eremuko arauak

Kontsonanteetan gauzatzen diren arauak multzo bitan banatuko ditugu aztertzeko. Alde batetik arau fonologikoak aztertuko dira, eta bestetik, arau morfofonologikoak.

### 2.3.2.1. Arau fonologikoak

Palatalizazioa da gauzatzen den arau fonologiko bakarra.

#### 2.3.2.1.1. Palatalizazioa

Hizkera honetan bustidura edo palatalizazioa nahiko ahula dela esan ohi bada ere, eta neurri batean egia bada ere, kontuan hartu behar da hizkera honetan beste hizkera askotan ohikoa ez den palatalizazio mota bat dagoela. Palatalizazio hau hitanozko zenbait adizkitan topatzen dugu eta hau kontrako norabidean gauzatzen da: *ñaoak, ñatok, llatak...*

Asimilazio bustidura gertatzen da “i” bokala eta [j] bokalardiaren osteko kontsonantea asimilatzen denean, bustiz. Igorreko hizkeran fonema hauek dira busti daitezkeenak: [n], [l], [s] eta [ts].

## a) /n/

j + n &gt; [ɲ]

[n] aurrean [j] bokalardia dagoenean beti bustitzen da:

<i>noraino</i>	→	<i>noráño</i>
<i>lainoa</i>	→	<i>lañóa</i>
<i>oinez</i>	→	<i>óñes</i>
<i>ereintza</i>	→	<i>ereñótza</i>
<i>baino</i>	→	<i>baño</i>
<i>zeinek</i>	→	<i>señek</i>
<i>orain</i>	→	<i>óiñ</i>

i + n &gt; [n] zein [ɲ]

[n] aurrean [i] bokala dagoenean bustidura aukeran da. Hitzun berak [n] zein [ɲ] ahozka dezake hitz berean.

<i>inos</i>	zein	<i>iños</i>
<i>inon</i>	zein	<i>iñon</i>
<i>ipini</i>	zein	<i>ipiñi</i>
<i>ifini</i>	zein	<i>ifiñi</i>
<i>imini</i>	zein	<i>imiñi</i>
<i>léngusine</i>	zein	<i>léngusiñe</i>
<i>arináo</i>	zein	<i>ariñáo</i>
<i>ginen</i>	zein	<i>giñen</i>
<i>ginean</i>	zein	<i>giñean</i>
<i>ginun</i>	zein	<i>giñun</i>
<i>inóntza</i>	zein	<i>iñóntza</i>
<i>bardíne</i>	zein	<i>bardiñe</i>
<i>mákinak</i>	zein	<i>mákiñak</i>
<i>ikesgíne</i>	zein	<i>ikesgiñe</i>

Gure corpusean honako ehunekoetan gauzatzen da bustidura hau:

i + n &gt; [n]      % 56,41

i + n &gt; [ɲ]      % 43,59

Beste alde batetik, aipatu behar da erdaraz “-ion”-ez amaitzen diren hitzak hizkera honetan *-iño* bilakatu direla.

-ion	>	iño
televisión	→	<i>telebisíñoa</i>
subvención	→	<i>subensíñoa</i>
solución	→	<i>solusíñoa</i>
explosión	→	<i>esplosíñoa</i>
evacuación	→	<i>ebakuasíñoa</i>
vacaciones	→	<i>bakasíñoak</i>

## b) /l/

j + l &gt; [ʎ]

[l] aurrean [j] bokalerdia dagoenean beti bustitzen da:

beilegia	→	<i>bellegie</i>
mailugia	→	<i>mallugie</i>
oilarra	→	<i>ollarra</i>
oiloa	→	<i>ollóa</i>
zezeila	→	<i>seséle</i>
(k)ezkailu	→	<i>kaskállue</i>
itailak	→	<i>ítillek</i>

i + l &gt; [l] eta oso gutxitan [ʎ]

[l] aurrean [i] bokala dagoenean normalean bustidura ez da gauzatzen:

*mutile, pernile, ibili, inutile, ilune, perejile, mokile, txábilea, burtzile / bursile / burpile, okile, sokile, oskilasoa, gosakile, fasile, moronpile...*

Bustidura oso kasu gutxitan, eta gehienetan hautazkoetan, gauzatzen da, gainera, lekuko berak modu bietara ahoska dezake:

*ilebete* zein *illebete**aprilea* zein *aprillea**ukubile* zein *ukubille / ikubille*bila → *bille*mila → *mille*orkatila → *orkatilléa*

Erdarazko maileguak ez dira palatalizatzen ezta despalatizatzen ere, jatorriari eusten diote:

[l]: *ájile, Mila, militar, kiloa, estíloa, Txíle, filolojía...*

[ʎ]: *sebollétea, apellídue, kalléa, trilladóra, rastríloa, karretíllea, tortíllea, pástíllak...*

## c) /s/

j + s &gt; [ʃ]

[s] aurrean [j] bokalerdia dagoenean beti bustitzen da:

haizea	→	<i>axéa</i>
goizea	→	<i>goxéan</i>
el(e)iza	→	<i>elexéa</i>
l(e)izarra	→	<i>lexárra</i>
Urizar	→	<i>Úxar</i> (Dimako dorretxe bat)
ger(e)izea	→	<i>geríxea</i>

i + s &gt; [ʃ] zein [s]

Pertsona berak [s] aurrean [i] bokala dagoenean aukera bi dauzka hitzen arabera:

1) Hitz batzuekin ez du inoiz bustiko

Bustitzen ez diren berba batzuk: *bisi, ikisi, dakisu, dabisenean, inisítue ...*

Erderazko maileguak ez dira bustitzen: *pisúe, llsue, txorísoa, telebisíñoa, ábisau, analisie, disiénbre, karnisérue, ofisio...*

2) Beste hitz batzuekin hautazkoa izango du, batzuetan bustiko ditu eta beste batzuetan ez.

Bustidura hautazkoa diren berba batzuk:

*gisóna* zein *gixóna*

*iséna* zein *ixéna*

*isín* zein *ixín* 'izan'

*isílik* zein *ixílik*

*isérrak* zein *ixérrak*

*bisérra* zein *bixérra*

*isérea* zein *ixérea*

d) /ts/

$j + tz > [\widehat{t}]$

$[\widehat{ts}]$  aurrean [j] bokalerdia dagoenean beti bustitzen da:

aitzur	→	<i>atxúr</i>
bakoitza	→	<i>bakótza</i>
bikoitza	→	<i>bikótza</i>
gaitza	→	<i>gátza</i>
haitza	→	<i>átza</i>
har(e)itz	→	<i>arátx</i>

$i + tz > [\widehat{t}]$  zein  $[\widehat{ts}]$

$[\widehat{ts}]$  aurrean [i] bokala dagoenean hiru aukera dira:

1) Hitz batzuetan ez da inoiz bustiko: *itzúe, bisítza, sítze, itzéla, itzérra*.

2) Beste hitz batzuetan beti bustiko dute: *utzi* → *itxi*, *etzan* → *itxún*.

3) Beste batzuekin hautazkoa izango da, batzuetan bustiko dute eta beste batzuetan ez: *itzosóa* zein *itxosóa*.

### 2.3.2.2. Arau morfofonologikoak

Kontsonanteetan bi dira gauzatzen diren arau morfofonologikoak: kontsonanteen arteko shandiak eta sinkopak.

#### 2.3.2.2.1. Kontsonanteen arteko shandiak

Kontsonanteen artean ondoko arau hauek gauzatzen dira:

- Leherkari ahostunen ahoskabetzea
- Kontsonante inplosiboaren galera
- Afrikatuen frikatzea
- 'Ez' partikulak eragiten dituen aldaketak
- [ʝ] herskariaren afrikatzea

## - -st kontsonante multzoaren bilakabidea

## 1) Leherkari ahostunen ahoskabetzea

[b], [d] eta [g] leherkari ahostunak, aurretik kontsonante ahoskabe bat dutenean, ahoskabetu egiten dira.

(b, d, g) > (p, t, k) / (C [- voice])\_\_\_

-t + b- = -p-

1) bat bakarrik

*bapakarrik*

2) bat bai

*bapai*

-t + d- = -t-

1) zenbat dagoz?

*senbetaos?*

2) ez daukat dana

*estekotana*

-t + g- = -k-

1) ez dot gura

*estokure*

2) zenbat gura dozu?

*senbekure dosu?*

-k + b- = -p-

1) nik bai

*nipai*

2) zer gura dok ba?

*se gure dopa?*

-k + d- = -t-

1) batek daki

*batetaki*

2) gazteak dira

*gasteatires*

-k + g- = -k-

1) onenak gara

*onenakara*

2) hark gorra dauka

*akorra deko*

## 2) Kontsonante inplosiboaren galera

Hainbat kasutan, kontsonante bik elkar jotzen dutenean lehenengo kontsonantea galtzen da. Hona hemen kasuen zerrenda:

-t + f- = -f-

1) zenbat falta da?

*senbefalta da?*

-t + k- = -k-

1) zenbat kotxe dago?

*seinbekotxe dao?*

-t + l- = -l-

1) ez dot lorik egin

*estolorik in*

-t + m- = -m-

1) zenbat moja bizi dira?

*seinbemoja bisi dire?*

-t + n- = -n-

1) ez dot nahastu

*estonasteu*

-t + p- = -p-

1) ez dot pentsatzen

*estopentzetan*

-t + s- = -s-

1) ez dot zapaldu

*estosapaldu*

-t + t- = -t-

1) ez daukat tomaterik

*estekotomaterik*

-t + tx- = -tx-

1) ez daukat txakurrik

*estekotxakurrik*

-k + f- = -f-

1) gauzarik fazilena

*geusarifasilena*

-k + k- = -k-

1) danak kantatzen dagoz

*danakantetan daos*

-k + l- = -l-

1) horiek lagunak

*orrelagunek*

-k + m- = -m-

1) horiek mojak

*orremojak*

-k + n- = -n-

1) nik neuk

*nineuk*

-k + ñ- = -ñ-

1) diru barik niagok

*diru bariñaok*

-k + p- = -p-

k- + s- = -s-

-k + t- = -t-

1) ez dok pasatu  
*estopaseu*

1) pozik zabilz  
*posisabis*

1) ez daukak tomaterik?  
*estekotamaterik?*

-k + tx- = -tx-  
1) horiek txoriak  
*orretxoriek*

-l + l- = -l-  
1) mutil laguna  
*mutilagune*

### 3) Afrikatuen frikatzea

Afrikatuak, beste kontsonante batekin elkar jotzen dutenean, frikari apiko-albeolar bihurtzen dira.

(-tz, -tx) > s / \_\_\_ C

-tx + b- = -sb-  
1) aretx bat  
*arasbat*

-tx + d- = -sd-  
1) gatx dago  
*gasdao*

-tx + f- = -sf-  
1) apatx forma  
*apasformea*

-tx + g- = -sg-  
1) atx gogorra  
*asgogorra*

-tx + l- = -sl-  
1) aretx luzea  
*arashusea*

-tz + b- = -sb  
1) gatz bakoa  
*gasbakoa*

-tz + d- = -sd-  
1) hotz da  
*osda*

-tz + f- = -sf-  
1) berakatz fuertea  
*berakasfuertea*

-tz + g- = -sg-  
1) hotz gara  
*osgara*

-tz + n- = -sn-  
1) hotz naiz  
*osnas*

-tz + p- = -sp-  
1) matz parra  
*masparra*

-tz + s- = -s-  
1) hotz zen  
*osan*

### 4) 'Ez' partikulak eragiten dituen aldaketak

a) Leherkari ahostunak, aurretik 'ez' partikula dutenean, ahoskabetu egiten dira.

(b, d, g) > (p,t,k) / ez \_\_\_

ez + b- = -ezp-  
1) ez badakizu  
*espadakisu*  
2) ez bada  
*espada*

ez + d- = ezt-  
1) ez dator  
*estator*  
2) ez daukat  
*estekot*

ez + g- = ezk-  
1) ez gara  
*eskara*  
2) ez goaz  
*eskoas*

b) Frikari palatala [j] eta 'ez' partikula elkar jotzen dutenean afrikaria [tʃ] sortzen da.

[j] > [tʃ] / ez\_\_\_\_\_

ez + y- = etx-

1) ez jat gustatzen

*etxata gustaten*

2) ez jakik

*etxakik*

3) ez jatok

*etxatok*

c) 'Ez' partikulak beste kontsonanteekin elkar jotzen duenean bere kontsonante frikaria galtzen du.

(l, n) > Ø / ez\_\_\_\_\_

ez + l- = el-

1) ez leuke

*eleuke*

2) ez leuskio

*eleuskio*

ez + ñ- = eñ-

1) ez niagok

*eñaok*

1) ez niabilk

*eñabik*

ez + n- = en-

1) ez nago

*enao*

2) ez noa

*enao*

ez + s- = es-

1) ez zan joan

*esan yoan*

2) ez sagurik

*esagurik*

5) [j] herskariaren afrikatzea

[j] herskaria, aurrean leherkari ahoskabe bat duenean, afrikatu egiten da.

[j] > [tʃ] / (-t, -k)\_\_\_\_\_

-t + y- = -tx-

1) ez dot jan

*estotxan*

2) ez dot jagon

*estotxagon*

-k + y- = -tx-

1) gizonak jan dau

*gisonatxan deu*

2) ez dok joan

*estotxoan*



## 6) -st kontsonante multzoaren bilakabidea

Hasteko esan behar da -st kontsonante multzoa 'bost' hitzean baino ez daukagula. Kontsonante multzo hau beste kontsonante batekin batzen denean bakandu egiten da -t galduz.

-st > -s / C\_\_\_

-st + b- = -sb-

1) bost baso

*bosbaso*

2) bost bider

*bosbider*

3) bost behi

*bosbei*

-st + d- = -sd-

1) bost dagoz

*bosdaos*

2) bost doas

*bosdoas*

3) bost dozena

*bosdosena*

-st + f- = -sf-

1) bost falta

*bosfalta*

2) bost fraka

*bosfraka*

3) bost fabrika

*bosfabrike*

-st + g- = -sg-

1) bost goaz

*bosgoaz*

2) bost gara

*bosgara*

3) bost gagoz

*bosgaos*

## 2.3.2.2.2. Sinkopak

Hitzetan adibide bakarra topatu dugu: *partikerea* 'faltriquera' gazt. Baina aditzaren inguruan hiru dira gauzatzen diren sinkopak.

a) Etorkizuneko (-ko/-go) aditz-partizipioa *do-z* hasten diren aditz laguntzaileekin batzen denean aditz laguntzaileen *do-* galtzen da. Hau gertatzen da *izan*, *edun* eta baita *eutsi* aditz laguntzaileekin ere, zeren eta hizkera honetan *do-z* hasten baitira: *doste* "deust", *dosku* "deusku", *dotzut* "deutsut", *dotze* "deutso"...

do- > Ø / (-ko, -go)\_\_\_

Adibideak:

<i>ikúsikot</i>	"ikusiko dot"
<i>eróangotzut</i>	"eroango deutsut"
<i>errékosu</i>	"erreko dozu"
<i>apúrtukok</i>	"apurtuko dok"
<i>emóngotzet</i>	"emongo deutsot"
<i>ixíngozak</i>	"izango dozak"

b) -n-z amaitutako aditz-partizipioak bokalez hasten diren aditz laguntzaileekin batzen direnean -n-a galtzen da.

-n > Ø / \_\_\_V-

Adibideak:

<i>eróateoskun</i>	“eroaten euskun”
<i>ikústeuen</i>	“ikusten euen”
<i>emóteotzen</i>	“emoten eutson”
<i>esáeuen</i>	“esan euen”
<i>emósten</i>	“emon eustan”

c) Behar aditzak dituen ahoskerak

Adibideak:

<i>beot, biot</i>	“ <i>behar dot</i> ”
<i>beosu, bisu</i>	“ <i>behar dozu</i> ”
<i>beajuk</i>	“ <i>behar joguk</i> ”
<i>beu, biu</i>	“ <i>behar dogu</i> ”
<i>beotzut, biotzut</i>	“ <i>behar deutsut</i> ”

## 2.4. Azentua

Atal honen helburua Arratiako Igorreko hizkeraren azentuaren deskribapena eta arau fonologikoak ematea da. Honetaz gain, euskarak dauzkan azentu moten artean sailkatu egin dugu eta sailkapen hauetan erreferentziatzen hartzen den Zeberioko hizkerarekin antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertu dira.

Lan honetarako hiztun helduen grabazioaz osatutako corpusa erabili da, bat-bateko berbetak zein inkestak erabiliz. Azterketa akustikorako *Praat* deritzon programa informatikoa erabili da.

### 2.4.1. Aurrekariak

Orain arte Igorreko azentuaren gainean aipamen batzuk bakarrik idatzi dira: Gaminde (1995a eta b eta 1998) eta Gaminde/Hualde (1995). Ikuspegi zabalago batekin Arratiako azentuari buruz lan hauetan ez eze Etxebarria (1991), Gaminde (1993a) eta Hualde (1989, 1990, 1992, 1994 eta 1997)an ere aurki dezakegu informazioa. Lan hauek ikusita, beharrezkoa iruditu zaigu Igorreko azentuaren deskribapen sakonago bat egitea.

#### 2.4.1.1. Azentuaren ezaugarriak: aurrekariak

Gure azterketan azentua sailkatzerako orduan Hualde (1997) hartu dugu oinarri gisa. Honetan euskal azentua lau talde nagusitan banatu zuen: Ekialdekoa, Erdialdekoa, Mendebaldeko zenbait sistema berezi eta Bizkaiko kostaldeko doinu sistemak. Mendebaldeko zenbait sistema bereziren artean ‘Zeberio eta Arratia’ deituriko azpial bat aipatzen du Hualdek (167 or.).

Sailkapen hau ikusita, eta azterketa egin aurretik, logikaz suposatu behar dugu Igorreko azentua Mendebaldeko sistema berezi horien barruan, Zeberio eta Arratian, kokatu beharko litzatekeela. Horrela egiten du espresuki Gamindek (1998) Igorre herria aipatuz.

Sistema honetaz Hualdek (1994) esaten du batetik ez dela tonala eta bestetik hitz mugatu (flexiodun) guztiak azentudunak direla, flexiozko morfemek azentuaren muga markatzen dutela eta azentua ez dela inoiz mugatzaitetik eskuinera pasatzen.

Gamindek eta Hualdek (1995) jadanik Etxebarriak (1991) eta Hualdek (1992) Zeberiorako adierazi zutena baieztatzen dute: azentua bereizgarria dela.

Hualdek (1997) eta Gamindek (1998b), aurretik Etxebarriak (1991) eta Hualdek (1992) adierazi zuten legez, sostengatzen dute sistema berezi honen azentuera arrunta azaltzeko, bereizi behar direla silaba bakarreko eta biko hitzerroak hiru silaba edo gehiago dituzten hitzerroez. Azken hauetan singular eta mugagabeen azentua erroaren azken silaban txertatzen den bitartean, silaba bat eta bikoetan artikulua edo bokal epentetikoan txertatzen da. Pluralean silaba bat ezkerrerago txertatzen da.

#### 2.4.2. Talde prosodikoaren azken silabaren estrametrikalitatea

Igorren talde prosodikoaren azken silaba estrametrikoa da. Hitz ez markatueta, hala nola *gixona* edo *astoa*, hitzaren azentua azkenurreko silaban kokatzen da hitza talde prosodikoaren bukaeran dagoenean, baina azken silaban bestela:

<i>gixóna</i>	<i>astóa</i>
<i>gixoná da</i>	<i>astoá da</i>
<i>gixoná dator</i>	<i>astoá dator</i>
<i>gixoná doa</i>	<i>astoá doa</i>

*Gixónak* edo *astóak* pluralean, azentu paroxitonoa da ingurune guztietan:

<i>gixónak</i>	<i>astóak</i>
<i>gixónatires</i>	<i>astóatires</i>
<i>gixónatatos</i>	<i>astóatatos</i>
<i>gixónatoas</i>	<i>astóatoas</i>

*Gixónak* bezalako adibideek azentua azkenurreko silaban duten bitartean, *gixona* bezalakoak hitz oxitonoak dira funtsean, nahiz eta talde prosodiko baten bukaeran azentua silaba bat atzeratuta agertu. Arau batez, azentua azken silabatik azkenurrekora mugitzen da talde prosodikoaren bukaeran. Fenomeno hau talde prosodikoaren azken silabaren estrametrikalitatea bezala interpreta dezakegu.

Azken silabak daraman azentua beti atzeratzen da hitza unitate prosodikoaren amaieran dagoenean.

<i>etzerá noa</i>
<i>etzéra</i>
<i>astoá da</i>
<i>astóa</i>

### 2.4.3. Azentuaren deskribapena izen eta adjektiboetan

#### 2.4.3.1. Oinarri markatugabeen azentuera

Hurrengo paradigmek silababakarreko, silaba biko, hiru silabako eta lau silabako oinarri markatugabeen azentuera erakusten dute<sup>30</sup>:

lur

sg.	pl.	mgg.
<i>lurré</i>	<i>lúrrek</i>	<i>lúr</i>
<i>lurrék</i>	<i>lúrrek</i>	<i>lurrék</i>
<i>lurréri</i>	<i>lúrreri</i>	<i>lurréri</i>
<i>lurréna</i>	<i>lúrrena</i>	<i>lurréna</i>
<i>lurrénari</i>	<i>lúrrenari</i>	<i>lurrénari</i>

asto

sg.	pl.	mgg.
<i>astoá</i>	<i>astóak</i>	<i>astó</i>
<i>astoák</i>	<i>astóak</i>	<i>astók</i>
<i>astoári</i>	<i>astóari</i>	<i>astóri</i>
<i>astoána</i>	<i>astóana</i>	<i>astóna</i>
<i>astoágas</i>	<i>astóakas</i>	<i>astógas</i>
<i>astoágana</i>	<i>astóakana</i>	<i>astógana</i>

gixon



sg.	pl.	mgg.
<i>gixoná</i>	<i>gixónak</i>	<i>gixón</i>
<i>gixonák</i>	<i>gixónak</i>	<i>gixonák</i>
<i>gixonári</i>	<i>gixónari</i>	<i>gixonári</i>
<i>gixonána</i>	<i>gixónana</i>	<i>gixonána</i>
<i>gixonágas</i>	<i>gixónakas</i>	<i>gixonágas</i>
<i>gixonágana</i>	<i>gixónakana</i>	<i>gixonágana</i>
<i>gixonáganaño</i>	<i>gixónakanaño</i>	<i>gixonáganaño</i>

abade

sg.	pl.	mgg.
<i>abadéa</i>	<i>abádeak</i>	<i>abadé</i>
<i>abadéak</i>	<i>abádeak</i>	<i>abadék</i>
<i>abadéari</i>	<i>abádeari</i>	<i>abadéri</i>
<i>abadéagas</i>	<i>abádeakas</i>	<i>abadégas</i>
<i>abadéagana</i>	<i>abádeakana</i>	<i>abadégana</i>
<i>abadéaganaño</i>	<i>abádeakanaño</i>	<i>abadéganaño</i>

<sup>30</sup> Adibide hauek guztiak talde prosodikoaren amaieran ez daudenean jasoak dira. ikus 2.4.2 puntua.

*Praat* programarekin egindako 1. pitch draw-ean erakusten da *abadéa* (sg.) eta *abádeak* (pl.) hitzen oinarritzko maiztasuna edo F0.



1. pitch draw: *abadéa* (sg.) vs *abádeak* (pl.).

### alargun

sg.	pl.	mgg.
<i>alargúne</i>	<i>alárgunek</i>	<i>alargún</i>
<i>alargúnek</i>	<i>alárgunek</i>	<i>alargúnek</i>
<i>alargúneri</i>	<i>alárguneri</i>	<i>alargúneri</i>
<i>alargúnena</i>	<i>alárgunena</i>	<i>alargúnena</i>
<i>alargúnegas</i>	<i>alárgunekas</i>	<i>alargúnegas</i>
<i>alargúnegana</i>	<i>alárgunekana</i>	<i>alargúnegana</i>
<i>alargúneganaño</i>	<i>alárgunekanaño</i>	<i>alargúneganaño</i>

### bersolari

sg.	pl.	mgg.
<i>bersolaríe</i>	<i>bersoláriek</i>	<i>bersolarí</i>
<i>bersolaríek</i>	<i>bersoláriek</i>	<i>bersolarík</i>
<i>bersolaríeri</i>	<i>bersolárieri</i>	<i>bersolaríri</i>
<i>bersolaríena</i>	<i>bersoláriena</i>	<i>bersolarína</i>
<i>bersolaríegas</i>	<i>bersoláriekas</i>	<i>bersolaríges</i>
<i>bersolaríegana</i>	<i>bersoláriekana</i>	<i>bersolaríegana</i>
<i>bersolaríeganaño</i>	<i>bersoláriekanaño</i>	<i>bersolaríeganaño</i>

Erro markatugabe hauek ikusita, berehala konturatzen gara hiru silabako erro singular eta mugagabeetan azentua hitzerroaren azken silaban ezartzen dela: (1]) eta pluralean silaba bat ezkerterago.

Silaba bat eta biko erro markatugabe singular eta mugagabeetan, ordea, azentua silaba bat eskumarago ezartzen da, hau da, azentu-unitatearen barruan daude artikulua edota bokal epentetikoa. Singularrean artikulua gainean eta mugagabeetan bokal epentetikoaren gainean. Talde prosodikoaren amaieran:

silababakarrekua	hirusilabadun sg.
<i>lúrre</i>	<i>au de abadéa</i>
<i>lurré da</i>	<i>au abadéa da</i>

silaba bikoia	hiru silabako pl.
<i>au de gixoná</i>	<i>ónetires abádeak</i>
<i>au gixoná da</i>	<i>ónek abádeatires</i>

hiru silabako mugagabea  
*iru abáde*  
*iru abadé dires*

Beraz, silaba bikoak baino luzeagoak diren oinarri markatugabeen sing. eta pluralean azentua ez da azken silaban kokatzen, hau da, artikuluan, talde prosodikoaren azken silaba estrametrikala delako.

#### 2.4.3.2. Azentu arauak

Sarreran aipatu dugunez, Igorreko azentua ez da finkoa; hau erregela orokor batzuen bidez asignatzen da.

##### 2.4.3.2.1. Oinarri markatugabeen singularra eta plurala

Oinarri markatugabeen singularrean eta mugagabeen azentua azken silaban txertatzen da: 1], gutxienezko silaba kopurua duenean:

a) Oinarri silaba bikoia baino luzeagoa denean azentu-unitatea hitz erroa da:

sg.	mgg.
<i>alabéa</i>	<i>iru alabá dires</i>
<i>abadéa</i>	<i>abadé bi</i>
<i>bersolaríe</i>	<i>lau bersolarí dires</i>
<i>alabéari</i>	
<i>abadéagana</i>	
<i>bersolaríegas</i>	

b) Oinarri silababakarra edo silaba bikoia bada azentu-unitatearen barnean sartzen dira singularraren artikulua eta mugagabearen bokal epentetikoa:

sg.	mgg.
<i>gixonári</i>	<i>bost gixonári</i>
<i>lagunéna</i>	<i>iru lagunéna</i>
<i>lurré da</i>	<i>edosein lurrék</i>
<i>neskéa da</i>	
<i>astoári</i>	

##### 2.4.3.2.2. Oinarri markatugabeen plurala

Oinarri markatugabeen pluralean azentua singularrean baino silaba bat ezkerrerago txertatzen da pluralaren morfema aurreazentuatzailea delako.

sg. o ó... <i>lurréri</i> <i>lurré da</i> <i>lurréna</i>	→	pl. ó o... <i>lúrreri</i> <i>lúrretires</i> <i>lúrrena</i>
o o ó... <i>gixonári</i> <i>gixoná da</i> <i>gixonágas</i>	→	o ó o... <i>gixónari</i> <i>gixónatires</i> <i>gixónakas</i>
o o ó... <i>alargúne</i> <i>alargúneri</i> <i>alargúnegas</i>	→	o ó o... <i>alárgunek</i> <i>alárguneri</i> <i>alárgunekas</i>
o o o ó... <i>bersolaríe</i> <i>bersolaríek</i> <i>bersolaríeri</i>	→	o o ó o... <i>bersoláriek</i> <i>bersoláriek</i> <i>bersolárieri</i>

#### 2.4.3.2.3. ‘-a’-z amaitutako berbak

‘-a’z amaitzen diren hitzen pluralean ez da arau orokorra betetzen. Hitz hauen pluralean azentua ezkerretara silaba bat mugitu barik silaba bi mugitzen da<sup>31</sup>.

sg. o o ó... <i>abadéa</i> <i>abadéak</i>	→	pl. o ó o... <i>abádeak</i> <i>abádeak</i>	sg. o o ó... <i>alabéa</i> <i>alabéak</i>	→	pl. ó o o... <i>álabak</i> <i>álabak</i>
----------------------------------------------------	---	-----------------------------------------------------	----------------------------------------------------	---	---------------------------------------------------

Adibidez:

errotá

sg. <i>errotéa</i> <i>errotéak</i> <i>errotéari</i> <i>errotéagas</i>	pl. <i>érrotak</i> <i>érrotak</i> <i>érroteari</i> <i>érrotakas</i>	mgg. <i>errotá</i> <i>erroták</i> <i>errotári</i> <i>errotágas</i>
-----------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------

alaba

sg. <i>alabéa</i> <i>alabéak</i> <i>alabéari</i> <i>alabéagas</i>	pl. <i>álabak</i> <i>álabak</i> <i>álabari</i> <i>álabakas</i>	mgg. <i>alabá</i> <i>alabák</i> <i>alabári</i> <i>alabágas</i>
-------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------



<sup>31</sup>Adibide guztiak talde prosodikoaren amaieran ez doazenean hartuta daude.

*alabéagana*  
*alabéaganaño*

*álabakana*  
*álabakanaño*

*alabágana*  
*alabáganaño*

2. pitch draw-ean erakusten da *alabéa* (sg.) eta *álabak* (pl.) hitzen oinarrizko maiztasuna edo F0.



2. pitch draw: *alabéa* (sg.) vs *álabak* (pl.).

makera<sup>32</sup>

sg.  
*makeréa*  
*makeréak*  
*makeréari*  
*makeréagas*

pl.  
*mákerak*  
*mákerak*  
*mákerari*  
*mákerakas*

mgg.  
*makerá*  
*makerák*  
*makerári*  
*makerágas*

partikera

sg.  
*partikeréa*  
*partikeréak*  
*partikeréari*  
*partikeréagas*

pl.  
*partíkerak*  
*partíkerak*  
*partíkereari*  
*partíkerakas*

mgg.  
*partikerá*  
*partikerák*  
*partikerári*  
*partikerágas*

Adibide gehiago: *árrabak*, *lándarak*, *érrekak*, *txírrinkek*, *txábolak*, *ótzarak*, *íxerak*, *ítíllek*, *burdikadak* (sg. *burdikadéa*)...

Maileguetan: *tóstadak*, *gálletak*, *pátatak*, *ténesak* (gazt. 'tenazas'), *béntanak*, *mórsillek*, *érrudak*, *kártolak*, *kútxillek*...

Erdal maileguez singularrean mantentzen dute erdal azentuazioa: *tostádea*, *gallétea*, *patátea*, *errúdea*... Beraz, markatuak dira bai pluralean bai singularrean.

*mórsillek*, *kútxillek*, *txírrinkek*, *ítíllek*... hitzek erakusten dute azentu araua lehenago gauzatzen dela 'a > e /i,u \_\_\_' araua baino, bestela \**morsillek*, \**kutxíllek*... izango genituzke.

<sup>32</sup> Makera = txerrama, urdama.



Azentu txertaketa ezohiko honetan datza: pluralean ‘-a’z amaitutako berbetan  $a + a > -ea$  disimilazioa barik  $a + a > -a$  dago. Hau da, ‘-a’z amaitzen diren berbek pluralean ohi den baino silaba bat gutxiago daukate.

a.	mgg. <i>alaba</i> <i>erreka</i> <i>bentana</i> <i>arraba</i>	sg. $alaba + a > alabea$ $erreka + a > errekea$ $bentana + a > bentanea$ $arraba + a > arrabea$
b.	mgg. <i>alaba</i> <i>erreka</i> <i>bentana</i> <i>arraba</i>	pl. $alaba + ak > alabak$ *alabeak $erreka + ak > errekek$ *errekeak $bentana + ak > bentanak$ *bentaneak $arraba + ak > arrabak$ *arrabeak

Beraz, azentu arau orokorra betetzen da, hau da, azentua pluralean silaba bat ezkererago txertatzea, baina ‘ $a + ak > ak$ ’ arau morfonologikoa lehenago gauzatzen denez, silaba kopurua murriztuz, silaba bat barik bi ezkererago txertatzen da. Arauen hurrenkerengatik gertatzen da.

#### 2.4.3.2.4. Beste deklinabide-kasuak

Arestian aipatu dugunez, azentua silababakarra edo silaba biko oinarri markatugabeen singularrean artikulua gainean txertatzen da orokorrean. Hurrengo kasuek, ostera, ez dute erakusten singularreko markarik. Zelan jokatzen du orduan azentuak, non txertatzen da?

Adlatiboa:

Adlatiboak mugatzaile singularraren moduan jokatzen du azentua txertatzerako orduan.

sg.	pl.	mgg.
<i>lurrerá (doa)</i>	<i>lúrretara</i>	<i>lurrétara</i>
<i>aterá (doa)</i>	<i>atéatara</i>	<i>atétara</i>
<i>etzerá (doa)</i>	<i>etzéatara</i>	<i>etzétara</i>
<i>erriré (doa)</i>	<i>erríetara</i>	<i>errítara</i>
<i>itzesóra</i>	<i>itzésoatara</i>	<i>itzesótara</i>
<i>sagarréra</i>	<i>sagárretara</i>	<i>sagarrétara</i>

Adibideetan ikusten denez, mugatu pluralean azentuak eutsi egiten dio ohiko kokapenari, eta gauza bera esan dezakegu hiru silabako edo luzeagoko oinarri markatugabeen kasuan, azentua ez delako txertatzen artikulua gainean.

Ezberdintasun hau galdu egiten da talde prosodikoaren amaieran:

<i>lurrerá doa</i>	→	<i>lurréra</i>
<i>aterá doa</i>	→	<i>atéra</i>

Adlatiboaren gainean eraten diren beste kasuek, hurbiltze adlatiboa *norantza-k*, muga adlatiboa *noraño-k* eta adlatibo destinatiboa *norako-k*, berdin jokatzen dute.

Ablatiboa:

Ablatiboa, adlatiboa ez bezala, markatua da, aurreazentuatzailea da, azentua silaba bat ezkererago txertatzen da.

sg.	pl.	mgg.
<i>lurréti(k)(dator)</i>	<i>lúrretati(k)</i>	<i>lurretáti(k)</i>
<i>atéti(k)(dator)</i>	<i>atéatati(k)</i>	<i>atéti(k)</i>
<i>etzéti(k)</i>	<i>etzéatati(k)</i>	<i>etzetáti(k)</i>
<i>erríti(k)</i>	<i>errietati(k)</i>	<i>erritéti(k)</i>
<i>itzesóti(k)</i>	<i>itzésoatati(k)</i>	<i>itzesótati(k)</i>
<i>sagarréti(k)</i>	<i>sagárretati(k)</i>	<i>sagarrétati(k)</i>

Inesiboa:

Inesibo kasuan, singularrari dagokionez, azentuak ez du beti jokabide bera betetzen.

Batzuetan gainerako kasuetako mugatu singularraren moduan jokatzen du azentua txertatzerako orduan: *etzeán da*.

Duda barik hau ez da gehien agertzen zaigun azentu moldea. Igorren, gehienetan, azentua atzizkiaren aurreko silaban txertatzen da, hau da, inesibo kasua ablatiboa bezala markatua da gehienetan.

Mugagabeen ere honelako bikoiztasuna agertzen zaigu: *ainbet etzetán* eta *ainbet etzétan*, bigarrena izanik gehien erabiltzen den azentu moldea.

sg.	pl.	mgg.
<i>lurréan (dao)</i>	<i>lúrretan</i>	<i>lurretán</i>
<i>etzéan (dao)</i>	<i>etzéatan</i>	<i>etzetán</i>
<i>erríen</i>	<i>errietan</i>	<i>erríten</i>
<i>itzesóan</i>	<i>itzésoatan</i>	<i>itzesótan</i>
<i>sagarréan</i>	<i>sagárretan</i>	<i>sagarrétan</i>

-a-z amaitutako berbetan singularrean azentua eskuinaldean kokatzen da, pluralean ezkerrean eta mugagabeen hitzerroaren azkeneko silaban.

sg.	pl.	mgg.
<i>errotán</i>	<i>érrotatan</i>	<i>errotátan</i>
<i>tabernán</i>	<i>tábernatán</i>	<i>tabernátan</i>
<i>plásán</i>	<i>plásatan</i>	<i>plásátan</i>
<i>ormán</i>	<i>órmatan</i>	<i>ormátan</i>
<i>serrán</i>	<i>sérratan</i>	<i>serrátan</i>

-a-z amaitutako berba markatuek era bitara jokatzen dute: batzuek absolutiboan aurkezten duten azentuari eusten diote inesiboko kasu guztietan eta beste batzuk lehenengo silaban azentuatzen dira mugatu singularrean zein pluralean eta mugagabeen silaba bat eskuinalderago (ikus 2.4.3.2.3.).

a.	Absolutibo sg. <i>déndeá</i> <i>dénporéá</i>	Inesibo sg. <i>déndan</i> <i>dénporan</i>	Inesibo pl. <i>déndatan</i> <i>dénporatan</i>	Inesibo mg <i>déndatan</i> <i>dénporatan</i>
b.	Absolutibo sg. <i>bentáneá</i> <i>domékeá</i>	Inesibo sg. <i>béntanan</i> <i>dómekan</i>	Inesibo pl. <i>béntanatan</i> <i>dómekatan</i>	Inesibo mg <i>bentánatan</i> <i>domékatan</i>

Hala eta guztiz ere, markatuak izan daitezkeen berba batzuek, *eskólea* adibidez, era guztietako jokabideak aurkezten dituzte hiztunaren arabera. Batzuetan analogiaz ez-markatuen antzera jokatzen du: *eskolán*. Eta beste batzuetan berba markatuek izan ditzaketen azentuatzeko modu biak erakuts ditzakete:

- a) Absolutiboan daukan azentua mantenduz: *eskólan*.
- b) Azentua lehenengo silaban ezarriz: *éskolan*.

Leku-genitiboa:

Leku-genitibo atzizkiak inesibo atzizkiaren moduan jokatzen du, hau da, gehienetan, atzizki aurreazentuatzailearen moduan, baina batzuetan bereganatu egiten du azentua.

Erabilera arrunta: *plasákoa, erríkoa, Dimékoa, etzékoa, itzesókoa, burúkoa, uríkoa, emékoa...*

Erabilera ezohikoa:

*pentzu emoten yako edo kalabaseá solokóa*  
*Or euki gindun, txaboleá eon san, labéa albokóak eta bien artean*  
*Da gero urteuresan errueda bikóak, errueda bikóak oin be emen daos adornu te diferente*  
*gure ama da orkóa*

sg.	pl.	mgg.
<i>lurréko</i>	<i>lúrretako</i>	<i>lurretáko</i>
<i>etzéko</i>	<i>etzéatako</i>	<i>etzetáko</i>
<i>erríko</i>	<i>erríetako</i>	<i>erritéko</i>
<i>itzesóko</i>	<i>itzésóatako</i>	<i>itzesótako</i>
<i>sagarréko</i>	<i>sagárretako</i>	<i>sagarrétako</i>

#### 2.4.3.2.5. Atzizki eta oinarri markatuak

Nahiz eta Igorreko azentua bereizgarria izan, badira azentuera berezi bat erakusten duten oinarri eta atzizkiak. Hitz batzuek azentua oinarriaren silaba berean daramate paradigmaz zehar, singularrean, pluralean eta mugagabeen.

Adibidez: *afárie*, *áitite*<sup>33</sup>, *akillue*<sup>34</sup>, *aldérdie*, *ámama*<sup>35</sup>, *armósue*, *arrákala*, *arrástie*, *aspírea*<sup>36</sup>, *átzea*, *baskárie*<sup>37</sup>, *basérri*, *básue*, *bedrátzi*<sup>38</sup>, *belárrie*, *béstea*, *égie*, *egúskie*, *érderea*, *eskútillea*<sup>39</sup>, *éurre*, *éuskerea*, *gánea*, *galdárea*, *girigíllea*<sup>40</sup>, *gónea*, *górue*, *igítie*, *intxúrre*, *iñúrrie*, *ipískie*<sup>41</sup>, *itárgie*<sup>42</sup>, *ixíkoa*, *kánpo*, *karábie*<sup>43</sup>, *kollárea*, *kórtea*, *landárea*, *lapíkoa léku*, *léngusue*, *léngusiñe*, *libúrue*, *madárie*, *maskillue*<sup>44</sup>, *mallúbie*<sup>45</sup>, *mállue*, *óllarra*, *olláskoia*, *págoa*, *sútea*, *táloa*, *titérea*, *txábilea*<sup>46</sup>, *txubelásoa*<sup>47</sup>, *txúxoa*<sup>48</sup>, *urkúllue*, *usédio*...

sg.	pl.	mgg.
<i>lékue</i>	<i>lékuek</i>	<i>léku</i>
<i>lékuek</i>	<i>lékuek</i>	<i>lékuk</i>
<i>lékueri</i>	<i>lékueri</i>	<i>lékuri</i>
<i>lékure</i>	<i>lékuetara</i>	<i>lékutara</i>
<i>básue</i>	<i>básuek</i>	<i>básu</i>
<i>básuek</i>	<i>básuek</i>	<i>básuk</i>
<i>básueri</i>	<i>básueri</i>	<i>básuri</i>
<i>básure</i>	<i>básuetara</i>	<i>básutara</i>
<i>olláskoia</i>	<i>olláskoak</i>	<i>ollásko</i>
<i>olláskoak</i>	<i>olláskoak</i>	<i>olláskok</i>
<i>olláskoari</i>	<i>olláskoar</i>	<i>olláskori</i>
<i>belárrie</i>	<i>belárriek</i>	<i>belárri</i>
<i>belárriek</i>	<i>belárriek</i>	<i>belárrik</i>
<i>belárrieri</i>	<i>belárrieri</i>	<i>belárriri</i>
<i>belárrire</i>	<i>belárrietara</i>	<i>belárritara</i>

<sup>33</sup> *aitite* ere bai.

<sup>34</sup> bat. akuilu.

<sup>35</sup> *amáma* ere bai.

<sup>36</sup> *aspira* = azpira, oramahi

<sup>37</sup> *báskarie* ere bai.

<sup>38</sup> *bederátzi* ere bai.

<sup>39</sup> bat. eskutaila.

<sup>40</sup> *girigíllea* = golde mota bat.

<sup>41</sup> bat. ipizki, ipitz, mandar.

<sup>42</sup> *idérgie* ere bai.

<sup>43</sup> bat. karobi.

<sup>44</sup> *maskillu* = maskelu, pertz, lapiko.


<sup>45</sup> bat. mailuki.

<sup>46</sup> *txabile* = txirrika. Haria bihurritu eta biltzeko erabiltzen den tresna.

<sup>47</sup> *txubelaso* = ugaraiño, igel.

<sup>48</sup> *txuxo* = txuzo, txorimalo.

3. pitch draw-ean erakusten da *gónea* (sg.) eta *gónak* (pl.) hitzen oinarrizko maiztasuna edo F0.



3. pitch draw: *gónea* (sg.) vs *gónak* (pl.).

Erdal mailegu berriek, oro har, jatorrizko erdal azentua mantentzen dute: *ártea*, *kótxea*, *békea*, *telebisiñóa*, *istitútoa*, *unibersidádea*, *grabasiñóa*, *entrebístea*, *kaséta*, *mikrófonoa*, *teléfonoa*, *ordenadóra*, *gránjea*...

Atzizki batzuk, hala nola *-garren*, *-tar*, *-en* (superlatiboa), *-txu*, *-xe*, *-txe*, *-ago* eta *-egi* ere markatuak dira eta azentua aurreko silaban ezartzen dute paradigmako forma guztietan, hots, atzizki aurreazentuatzailak dira.

Adibidez:

*-garren*: *bígarrena*, *irúgarrena*, *saspígarrena*, *sortzígarrrena*...

*-tar*: *dimóstarra*, *errítarra*, *bilbótarra*, ...

*-en*: *ónena*, *txárrena*, *báltzena*, *gorriena*, *sárrena*...

*-txu*: *umétxue*, *mutíltxue*, *astótxue*, *txarrítxue*, *txikítxu*...

*-xe*: *onéxek*, *onéxeri*, *orráxe*, *onáxe*, *aráxe*...

*-txe*: *eméntxe*, *órtxe*...

*-ago*: *andíagoa*, *txikiagoa*, *suriagoa*, *garbiagoa*...

*-egi*: *andíegi*, *txikíegi*, *gorríegi*, *suríegi*...

*-dun* atzizkia ere markatua da, baina honek, aurrekoek ez bezala, azentua bereganatu egiten du: *bixerdúne*, *euskaldúne*, *erdaldúne*...

Beraz, oinarri markatuak ez eze atzizki markatuak ere badaude, baina non txertatzen da azentua oinarri eta atzizki markatua berba berean ditugunean?

Azentua oinarri markatuak duen berbera izango da. Kasu honetan, atzizkiek ez dute azentua ezartzen.

*bedrátzigarren*

*basérritar*

*kánpostar*

*iórrestar*

*tálotxu*

*básutxu*

*bástuagoa*  
*fuérteagoa*  
*bástuegie*

#### 2.4.3.2.6. Oinarri silaba biko berbak oinarri silaba biko baino luzeagoko berben azentu moldearekin

Nahiz eta gutxi izan, oinarri silaba biko berba batzuek oinarri silaba biko baino luzeagoko berbek erakusten duten azentu moldea darabilte; hau da, azentua artikularen gainean ezarri barik oinarriaren azken bokalaren gainean txertatzen da:

sg.	pl.	mgg.
<i>seméa</i>	<i>sémeak</i>	<i>semé</i>
<i>seméak</i>	<i>sémeak</i>	<i>semék</i>
<i>seméari</i>	<i>sémeari</i>	<i>seméri</i>
<i>seméan</i>	<i>sémean</i>	<i>semén</i>
<i>seméagas</i>	<i>sémeakas</i>	<i>semégas</i>
<i>seméagaiti(k)</i>	<i>sémeakaiti(k)</i>	<i>semégaiti(k)</i>
<i>seméantzat/-tzako</i>	<i>sémeentzat/-tzako</i>	<i>seméntzat/-tzako</i>
<i>seméagas</i>	<i>sémeakas</i>	<i>semégas</i>
<i>seméagandi(k)</i>	<i>sémeakandi(k)</i>	<i>semégandi(k)</i>
<i>seméagana</i>	<i>sémeakana</i>	<i>semégana</i>

#### 2.4.3.3. Hitz azentudunak eta azentugabeak

Igorren hitz guztiek ez dute azentua hartzen. Hitz markatugabeek osatutako talde prosodikoaren azken hitzak baino ez du azentua jasotzen. Azentua ezartzeko araua talde prosodikoaren mailan gauzatzen da hitz markatugabeetan.

*gixon andié da*  
*mutil gasteári*  
*gure etzeá da*  
*alaba lodíe da*

Hitz markatuekin osatutako talde prosodikoek ez dute berdin jokatzeko, hauetan hitz markatuak beti jasotzen duelako azentua. Beraz, hitz hauek azentu lexikoa dute, hitz mailan ezartzen da azentua.

*belárrí andíe*  
*léngusu gastéa*  
*léku ederrá da*  
*góna bellegíe*

## 2.4.4. Azentuaren deskribapena aditzean

### 2.4.4.1. Aditz-partizipioak

Igorreko partizipioen azentu patroiak ditugu<sup>49</sup>:

#### a. Bokalez amaitutako aditz-partizipioak

<i>yó</i>	<i>yóten</i>	<i>yóko</i>
<i>erré</i>	<i>errétan</i>	<i>erréko</i>

#### b. -n-z amaitutako aditz-partizipioak

<i>yán</i>	<i>yáten</i>	<i>yángo</i>
<i>yagón</i>	<i>yagóten</i>	<i>yagóngo</i>
<i>emón</i>	<i>emóten</i>	<i>emóngo</i>
<i>entzún</i>	<i>entzúten</i>	<i>entzúngo</i>

#### c. -i-z amaitutako aditz-partizipioak

<i>así</i>	<i>ástén</i>	<i>asíko</i>
<i>yosí</i>	<i>yóstén</i>	<i>yosíko</i>
<i>ikusí</i>	<i>ikústén</i>	<i>ikusíko</i>
<i>ibilí</i>	<i>ibíltén</i>	<i>ibilíko</i>
<i>ipiní</i>	<i>ipíntén</i>	<i>ipíníko</i>

#### d. -tu-z amaitutako aditz-partizipioak

<i>artú</i>	<i>artzéan</i>	<i>artúko</i>
<i>kendú</i>	<i>kentzéan</i>	<i>kendúko</i>
<i>sartú</i>	<i>sartzéan</i>	<i>sartúko</i>
<i>apurtú</i>	<i>apúrtan</i> <sup>50</sup>	<i>apúrtuko</i>
<i>garbitú</i>	<i>garbítan</i> <sup>51</sup>	<i>garbítuko</i>
<i>begitú</i>	<i>begítuten</i> <sup>52</sup>	<i>begítuko</i>

#### e. Aditz-partizipio markatuak

<i>bóta</i>	<i>bótaten</i>	<i>bótako</i>
<i>yáusi</i>	<i>yáusten</i>	<i>yáusiko</i>

#### f. -ra- artizkidun aditz-partizipioak

<i>eróan</i> <sup>53</sup>	<i>eróaten</i>	<i>eróango</i>
<i>erácutzi</i>	<i>erákusten</i>	<i>erákutziko</i>
<i>erábili</i>	<i>erábilten</i>	<i>erábilíko</i>

<sup>49</sup> Partizipio hauek guztiak talde prosodikoaren amaieran ez doazenean jasota daude. Adb: *ikusí deu*, *ikústén deu*, *ikusíko deu*.

<sup>50</sup> *apúrtuten* ere bai.

<sup>51</sup> *garbítuten* ere bai.

<sup>52</sup> *begítan* ere bai.

<sup>53</sup> *erún* eta *erán* ere bai.

## g. Mailegatutako aditz-partizipioak

<i>ákordeu</i>	<i>ákordetan</i>	<i>ákordeuko</i>
<i>prégunteu</i>	<i>préguntetan</i>	<i>prégunteuko</i>
<i>éskapeu</i>	<i>éskapetan</i>	<i>éskapeuko</i>

## 2.4.4.2. Oinarri eta atzizki markatuak

Partizipio burutu gehienak markatugabeak dira; hala eta guztiz ere, partizipio markatuak ere badira (e. eta f. puntuetan), hala nola, *bóta*, *yáusi*, *báskaldu*, *erábili* edo *eróan*.

Aspektu burutugabea *-tzean* atzizkia (d. puntuan) markatua da, bereganatzen du azentua (*-dun*-en antzera (ikus 2.4.3.2.5.)).

*-tzean* atzizkia hartzen dutenak *-tu* edo *-du-z* amaitzen diren silaba biko aditz-partizipioak dira, nahiz eta inoiz analogiaren bidez *-ten* atzizkia ere hartzen duten.

a.	artzéan	b.	artúten
	sartzéan		sartúten
	kentzéan		kendúten

*Aginik estotzie kendúten*

*Bustena lenao es san kendúten emen*

*Asto emeak iten badeu biorragas sartúten, murriñoa*

*Esan euen bera alan sartúten estoala ainbeste lagunegas kuartuen*

*Danak or sartúten gintzesan*

*Eureri be maña artúten yakie*

Dena den, *-tzean*-en aldeko partizipio analogikoak ere topa daitezke noizean behin, esate baterako, aitzéan, pentzéan...

*Estot pentzéan. Dimen, se festa eingo deurie ba?*

*bai, pentzéan dot semean bat an dekola*

Beraz, analogiak partizipio mota guztietan agertzen dira.

Aditz-partizipioetan aurki dezakegun *-ra-* artizkia (f. puntuan) ere markatua da, artizki honek ere, *-tzean* atzizkiaren moduan, bereganatzen du azentua: *erábili* / *erábilten* / *erábiliko*, *irákatzi* / *irákasten* / *irákatziko*, *erákutzi* / *erákusten* / *erákutziko*...

Bestalde, aspektu burutugabeak *-ten* eta *-ko* atzizki aurreazentuatzaileak dira, aurreko silaban ezartzen dute azentua, b. puntuko adibideetan agertzen den moduan.

Partizipio burutugabeetan, *-tu -ten* eta *-tu -ko* konbinaketak ditugunean, *-tu*-k ere atzizki aurreazentuatzaile gisa jokatzeko du aditz-erroa silaba biko denean: *apúrtuten*, *begítuten*, *apúrtuko*, *konpónduko*...

Aditz-erroa silababakarrekoea denean, azentua, gehienetan, *-tu* atzizkiaren gainean ezartzen da, d. kasuan ikus daitekeenez.



a.	<i>apúrtuten</i>	<i>apúrtuko</i>	b.	<i>artúten</i> <sup>54</sup>	<i>artúko</i>
	<i>garbituten</i>	<i>garbituko</i>		<i>sartúten</i> <sup>55</sup>	<i>sartúko</i>
	<i>konpónduten</i>	<i>konpónduko</i>		<i>aitúten</i>	<i>aitúko</i>

Baina batzuetan aurreazentuatzailea ere izaten da, eta honako bikote hauek topa ditzakegu: *áituten / aitúten, kénduko / kendúko*...

Gauza bera esan dezakegu *-i* atzizkia daukagunean. *-i -ko* konbinaketa daukagunean, *-i-k* ere atzizki aurreazentuatzaile moduan jokatzeko du<sup>56</sup>.

*ibíliko*  
*ikúsiko*  
*ipíniko*

Lehen aipatu dugun legez, arau honek salbuespenak dauzka aditz-erroa silababakarrekoa denean; kasu hauetan azentua *-i* atzizkiaren gainean ere ezar daiteke.

*bisíko*  
*itxíko*

Mailegu berriei buruz, esan dezakegu azentua lehenengo silabaraino atzeratzeko joera dagoela (g. puntua), baina azentua mailegatu berri diren aditz-partizipioetan edonon ager daiteke, hau da, *ákordeu, akórdeu* zein *akordéu* hiru aditz-partizipio motak erabiltzen dira. Berdin *ákordetan, akórdetan, akordétan*, eta abar. Baina esan bezala ohikoena da azentua lehen silaban ezartzea.

## 2.4.5. Azentu bereizgarria sintaxian

### 2.4.5.1. *ba-* aurrizkia baiezko eta baldintza-perpausetan

Azentua ere bereizgarria suertatzen da *ba-* aurrizkia duten baiezko eta baldintza-perpausak bereizteko.

Baldintza-perpausetan azentua *ba-* atzizkiaren gainean txertatzen da, baiezko perpausetan, berriz, silaba bat aurreratzen da.

a.	<i>Baldintza</i>	b.	<i>Baiezkoa</i>
	<i>Bánoa</i>		<i>Banóa</i>
	<i>Bánator</i>		<i>Banátor</i>
	<i>Bánabil</i>		<i>Banábil</i>
	<i>Bánao</i>		<i>Banáo</i>

<sup>54</sup> *artzéan* da normalagoa.

<sup>55</sup> *sartzéan* da normalagoa.

<sup>56</sup> Dena den, *ikusíko* bezalako formak ere aurki ditzakegu, baina ez dira ohikoak.

### 2.4.5.2. Agintezkoak vs osagarritzkoak

Atzizki berdineko aditz forma hauek ere azentuaz bereizten dira Igorreko euskaran.

a. Agintezko konpletiba

*Dátorrela arin!*

*Ba, dáoela etzea*

b. Konpletiba

*Ointxe datorréla esan doste*

*Soloan daoéla diño*

### 2.4.5.3. Mendekoak vs ez-mendekoak

Aditz laguntzailea ezberdin azentuatzen da mendeko eta ez-mendeko esaldiak ezberdintzeko.

a. Mendekoak

*Kotxea ekarri euen gu yoan gaitesán*

*Pastela ekarri euen gutxan daigún*

b. Ez mendekoak

*Yóan gaitesan sútera*

*Éin daigun entrebistea*

### 2.4.5.4. Iraganeko mendekoak vs ez-mendekoak

Aditz laguntzailea ezberdin azentuatzen da iraganeko mendekoak eta ez mendekoak ezberdintzeko.

a. Mendekoak

*Nik ein neuén modure egin éuen...*

*Erderas eiten eurién les erderas ein bear*

b. Ez mendekoak

*Gusture páseu neuen ume denporea*

*Arek gitxiao kóbraten eurien*

### 2.4.7. Ondorioak

Behin azterketa egin ondoren, hurrengoa baieztatu dezakegu:

- a) Igorreko azentua ez-tonala da.
- b) Hizkera honetan azentua bereizgarria da.
- c) Hitz mugatu guztiak azentudunak dira, flexiozko morfemek azentuaren muga markatzen dute eta azentua ez da inoiz mugatzaitetik eskuinera pasatzen.
- d) Igorreko kasuan azentua ez da finkoa; silaben kokapena eta norabidea kontatzeko kontuan hartzen dituzten erregela orokorren bitartez asignatzen da azentua.
- e) Azentuaren kokagunea azaltzeko bereizi behar dira silaba bat eta biko hitz erroak hiru silaba edo gehiago dituzten hitz erroez. Hiru silabakoetan singular eta mugagabeen azentua hitz erroaren azken silaban txertatzen da: 1]. Silaba bat eta biko hitz erroetan ere 1] da, azentu-unitate barruan sartzen badugu artikulua edo bokal epentetikoa.
- f) Pluralean azentua silaba bat ezkererago txertatzen da.
- g) Baina hizkera honetan, beste hizkera batzuetan ez bezala, ezin dugu formula bakar batekin deskribatu, azentubidea askoz konplexuagoa da, eta arau bat baino gehiago behar da bere osotasunean azaltzeko.

Hauek dira izenetako arauak:

- 1) Azentua singularrean eta mugagabeen 1] da
- 2) Pluralean azentua silaba bat ezkererago txertatzen da

- 3) '-a'z amaitutako berbetan azentua silaba bi ezkererago kokatzen da pluralean
- 4) Ablatibo, inesibo eta leku-genitibo kasuetan deklinabide atzizkiak aurreazentuatzaileak dira
- 5) Badaude zenbait atzizki eta oinarri markatuak: *-garren*, *-(s)tar*, *-en*, *-txu*, *-xe*, *-txe*, *-ago*, *-egi* eta *-dun*

Aditzetako arauak:

- 1) Azentua aditz-partizipioetan 1] da
- 2) Badaude zenbait oinarri, atzizki eta artizki markatuak: *-tzean*, *-ra-*, *-tuten*, *-tuko* eta *-iko*

Beraz, ondorio nagusi gisa hauxe esan behar dugu: Hualdek (1997) egin, eta Gamindek (1998b) onartu zuen sailkapenean Igorreko azentua bat datorrela Mendebaldeko zenbait sistema bereziren artean Arratia eta Zeberio atalean emandako datu eta ezaugarriekin. Halaber, esan behar dugu Igorreko azentua eta sistema berezi honetakoa den Zeberioko azentua, Etxebarriak (1991) eta Hualdek (1992) sakonki aztertua izan dena, ezberdintasun batzuk gorabehera ia berdinak direla.

## 2.5. Sumarioa eta ondorioak

Fonologia atalean, lehenik eta behin, fonema guztien inbentarioa eta distribuzioa aurkeztu ditugu, eta ostean gertatzen diren arauak azaldu ditugu. Horretaz gain, azentua izan dugu aztergai eta azentua ezartzeko arauak erakutsi ditugu.

Sumario honetan atalean agertutako arau guztiak aztertuko ditugu eta azalduko dugu arau hauek guztiak non gauzatzen diren hierarkia prosodikoaren arabera.

Oinarri teorikoan (1.3.) azaldu dugunez, bost dira lan honetan erabiliko ditugun osagaiak: silaba, oina, hitz fonologikoa, talde klitikoa eta sintagma fonologikoa. Fonologia atalean aztertu diren arauak, aldiz, laburbilduz, honako hauek dira:

- Diptongoetan: au > eu
- Bokaletan: a > e / i,u (C)\_\_\_\_\_ asimilazioa
- Bokalkapetetikoa
- Maileguen egokitzeak: -ón > -oi eta -ión > -iño
- Deklinabidean: a + a > ea
- Palatalizazioa
- Sinkopak aditzean
- Azentua ezartzeko arauak

Ikus dezagun arau hauek zein eremutan gauzatzen diren hierarkia prosodikoaren arabera.

### a) Sintagma fonologikoan gauzatzen diren arauak

- Azentuaren arauak sintagma fonologikoaren eremuan gauzatzen dira. Laburbilduz, hauek dira azentua ezartzeko arauak izenetan eta aditzetan:

Izenetako arauak:

- 1) Azentua singularrean eta mugagabeen 1] da
- 2) Pluralean azentua silaba bat ezkererago txertatzen da

- 3) '-a'z amaitutako berbetan azentua silaba bi ezkererago kokatzen da pluralean
- 4) Ablatibo, inesibo eta leku-genitibo kasuetan deklinabide atzizkiak aurreazentuatzailerak dira
- 5) Badaude zenbait atzizki eta oinarri markatuak: *-garren, -(s)tar, -en, -txu, -xe, -txe, -ago, -egi* eta *-dun*

Aditzetako arauak:

- 1) Azentua aditz-partizipioetan [l] da
- 2) Badaude zenbait oinarri, atzizki eta artizki markatuak: *-tzean, -ra-, -tuten, -tuko* eta *-iko*

- Palatalizazioaren arauak sintagma fonologikoaren eremuan gauzatzen dira. Hizkera honetan [n], [l], [ʃ] eta [tʃ] fonemak busti daitezke [i] bokala eta [j] bokalerdiaren ostean. Hauek dira gauzatzen diren arauak:

$j + n > [ɲ]$

$i + n > [n]$  zein  $[ɲ]$

$j + l > [ʎ]$

$i + l > [l]$  eta oso gutxitan  $[ʎ]$

$j + s > [ʃ]$

$i + s > [ʃ]$  zein  $[s]$

$j + tz > [tʃ]$

$i + tz > [tʃ]$  zein  $[ts]$

Bustidura, hitanozko hainbat aditzetan, kontrako norabidean ere gauzatzen da [n] eta [l] kontsonanteetan: *ñauk, llatak, ñoan...*

- Aditzea gertatzen diren sinkopak sintagma fonologikoaren eremuan gauzatzen dira. Hiru dira gauzatzen diren sinkopak:

1) Etorkizuneko (-ko/-go) aditz-partizipioa *do-z* hasten diren aditz laguntzaileekin batzen denean aditz laguntzaileen *do-* galtzen da.

$do- > \emptyset / (-ko, -go) \_\_\_$

Adibideak: *ikusikot, emongotzut, galdukok...*

2) -n-z amaitutako aditz-partizipioak bokalez hasten diren aditz laguntzaileekin batzen direnean -n-a galtzen da.

$-n > \emptyset / \_\_\_ V-$

Adibideak: *eroateuen, esaoskun, emosten...*

3) Behar aditzak dituen ahoskerak

Adibidea: *beosu/bisu, biot/beot, beotzut/biotzut...*

#### b) Talde klitikoan gauzatzen diren arauak

-  $a > e / i, u (C) \_\_\_$  asimilazioa talde klitikoaren eremuan gauzatzen da, hitz fonologikotik kanpo ere gertatzen delako. Frogatzeko adibide bat:

*yoan da vs etorri de*

Adibide bi hauetan aditz nagusiak eta laguntzaileak talde klitiko bera osatzen dute, eta arauak agintzen duenez bigarren adibidean  $a > e$  bihurtzen da.

*etorri de vs etorri dala*

Bigarren honetan, *etorri dala*, aldiz, aditz nagusiak eta laguntzaileak ez dute talde klitiko bera osatzen, horregatik ez da araua bete. Esan daiteke *-la* menderagailua hartzerakoan desklitizatu egin dela.

- Kontsonanteen arteko shandietan gertatzen diren arauak talde klitikoan gauzatzen dira. Guztira sei dira gauzatzen diren arauak:

- 1) Leherkari ahostunen ahoskabetzea  
(b, d, g) > (p, t, k) / (C [- voice])\_\_\_
- 2) Kontsonante inplosiboaren galera
- 3) Afrikatuen frikatzea  
(-tz, -tx) > s / \_\_\_C
- 4) 'Ez' partikulak eragiten dituen aldaketak  
(b, d, g) > (p,t,k) / ez\_\_\_  
[j] > [tʃ] / ez\_\_\_  
(l, n) > Ø / ez\_\_\_
- 5) [j] frikariaren afrikatzea  
[j] > [tʃ] / (-t, -k)\_\_\_
- 6) -st kontsonante multzoaren bilakabidea  
-st > -s / C\_\_\_

#### c) Hitz fonologikoan gauzatzen diren arauak

- Bokal protetikoaren ezarpena, *-e* eta kasu gutxiagotan *-a*, hitz fonologikoaren eremuan gauzatzen da. Hizkera honetan, eta euskararen ohikoa den bezala, ezin da ahoskatu dardarkaria hitz hasieran ez bada mailegu oso-oso berrietan; dardarkariaren ahoskatze hori saihesteko bokal protetiko bat ezartzen da. Adibidez, *rubio* (gazt.) > *errubio*.

- Bi dira maileguen egokitzapenak hitz amaieran:

Erdaraz	Euskaraz	
-ón >	-oi	camión > <i>kamioi</i> , melocotón > <i>melokotoi</i> ...
-ión >	-iño	televisión > <i>telebisiño</i> , explosión > <i>esplosiño</i> ...

Arau hauek hitz fonologikoaren eremuan gauzatzen dira.

- Euskaraz ia ez da eztabaidatu hierarkia prosodikoan hitz fonologikoa bakarrik erroa den, edo erroa gehi artikulua den. Zalantza barik, aztertzeke dagoen gaia da eta guk gaian sakondu barik proposatzen dugu hierarkia prosodikoan hitz fonologikoa erroa gehi artikulua dela. Hortaz, '-a'z amaitutako berbei mugatzailea eransterakoan singularrean gertatzen den araua, *a + a > ea* (*alaba + a > alabea*, *neska + a > neskea*...), hitz fonologikoaren eremuan gauzatzen da.

#### d) Oinean gauzatzen diren arauak

Fonologiaren atalean ez dago oinean gauzatzen den araurik.

#### e) Silaban gauzatzen diren arauak

- Diptongoetan gertatzen den *au > eu* araua silabaren eremuan gauzatzen da. Sinkronikoki gauzatzen ari den araua da lekuko gehienek *eu* ahoskatzen dutelako, batzuek *au*

eta beste batzuek biak, *au* zein *eu*. Diptongoetan ere, aldaketa ez-sistematikoak, monoptongazioak batez ere, aurkitzen ditugu hizkera honetan, baina ezin ditugu arautzat hartu.

# **IZEN-SINTAGMA**

### 3. Izen-sintagma

Atal honetan izen-sintagmaren ingurukoak aztertu dira. Lehenik eta behin, izena aztertu dugu. Bigarren puntuan adjektiboa aztertu dut eta azpiatal honetan izenondoak, izenlagunak eta aposizioa. Hirugarren puntuan deklinabidea aztertu dut, bai izen arruntena eta baita izen bereziena ere. Laugarren puntuan deklinabide-kasuak ezartzeko gauzatzen diren arau fonologikoak azaltzen ditugu. Hurrengo puntuan izenordainak aztertzen ditugu eta hauen artean pertsona izenordainak, izenordain zehaztugabeak eta bihurkariak eta elkarkariak. Seigarren puntuan determinatzaileei ekingo diegu. Hauetan mugatzaileak, zenbatzaileak (zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak) eta determinatzaile zehaztugabeak ikusiko ditugu. Zazpigarren puntuan hitz eratorriak eta eratorpen-morfemak aztertuko ditugu, eta ikusiko ditugu hizkera honetan erabiltzen diren aurrizkiak, artizkiak eta atzizkiak. Amaitzeko, azkenengo puntuan aztertuko dugu zein hitz-elkarketa mota gauzatzen den hizkera honetan.

Azterketa honetarako *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I* izan dugu oinarritzat eta hango terminologia erabili dugu.


Sumarioan egingo dugu hizkera honetan agertzen diren arau guztien zerrenda, eta aztertuko dugu arau hauen gauzatzeko eremua zein den hierarkia prosodikoaren arabera.

#### 3.1. Izena

Azpiatal honetan ikusiko dugu izena non agertzen den, izen moten arabera egingo dugun sailkapena eta labur-labur generoari buruzko azalpena.

##### 3.1.1. Izena, izen-sintagmaren ardatza

Izen-sintagma elementu ezberdinez osatuta dago, elementu nagusia izena izanik. Hiru sailtako elementuak agertzen dira: ardatz elementuak, elementu atributiboak eta determinatzaileak (ikus 8. eskema).




8. eskema. Euskaltzaindia, 1985: 24



### 3.1.2. Izenen sailkapena

Izena mota bitan sailka daiteke: izen arruntak eta izen bereziak. Halaber, izen arruntak beste bitan sailkatzen dira: zenbakarrietan eta zenbakaitzetan. Era berean, zenbakarriak bizidunetan eta bizigabeetan sailkatzen dira eta, beste aldetik, zenbakaitzak neurgarrietan eta neurgaitzetan. Dena den, askoz hobeto ikusiko dugu sailkapen hau 9. eskeman:



9. eskema. Euskaltzaindia, 1985: 26

Izen arruntak: mugatzailea behar dute (*kotxe, baserri...*)

Izen bereziak: ez dute mugatzailearik behar (*Aitor, Iorre...*)

Zenbakarriak: konta daitezkeen izenak (*andra, piñu...*)

Zenbakaitzak: ezin konta daitezkeen izenak (*gogo, ur...*)

Bizidunak: semantikoki bizirik daudenak (*mutil, neska...* nahiz eta izen batzuk, ‘*arbola*’ legez, bizigabetzat hartu)

Bizigabeak: semantikoki bizirik ez daudenak (*ate, bentana...*)

Neurgarria: neur daitekeena. (*esne, ardau...*)

Neurgaitza: ezin neur daitekeena. (*su, ke...*)

### 3.1.3. Generoa

Hizkera honek ez du generorik bereizten. Lexikoan, mailegu berrietan bikoteak hasi dira agertzen. Bai izenetan: *kamaréoa/kamarérea, frutéoa/frutérea, karniséroa/karnisérea, panadéoa/panadérea...* bai adjektiboetan: *áltue/áltea, tóntoa/tóntea, mongóloa/mongólea, errúbioa/errúbie, papáue/papárea...*

## 3.2. Adjektiboa

Adjektiboen sailean bi mota bereizi behar ditugu: izenondoak eta izenlagunak. Izenondoak dira izenaren eskuinaldean jartzen ditugunak: *gison andie, ume txikie, mutil altue...* Izenlagunak dira *-ko* eta *-en* atzizkien bidez osatzen direnak (ikus deklinabide-kasuak), eta hauek izenaren ezker aldean agertzen dira: *arrisko etzeak, trapusko muñekatxuek, beko kamiñoa, pastuko ganadue...*

### 3.2.1. Izenondoak

Izenondoak izena nolakoa den zehazten du eta izenaren eskuinaldean agertzen da. Izenondoak mailaka daitezke marka fonetiko eta fonologikoen bidez, maila adberbio eta zenbatzaile batzuen bitartez eta konparazioen bidez.

#### 3.2.1.1. Izenondoaren kokagunea

Arestian esan bezala, izenondoak izenaren eskuinaldean jartzen dira:

- *ama da nire anaya txikerra lotu sirean*
- *etxaok emen seregin andirik*
- *euskera polite estu igorrestarrok*
- *baserri andi bet*
- *euskera motrollo erdera tortollo*
- *ogi anditxu bet*
- *erramienta sarrik estekot*

#### 3.2.1.2. Izenondoaren mailakatzea

Izenondo baten maila adierazteko lau bide ditugu:

- Marka fonetikoak
- Marka fonologikoak
- Maila adberbioak eta zenbatzaile batzuk
- Konparaketak

##### 3.2.1.2.1. Marka fonetikoak

Hiztunak silabaren luzapenez baliatu daitezke izenondoa mailakatzeko, horrela, [a:ltue] esanez gero, ‘oso altua’ esan nahiko da.

Normalean lehengo silaba da luzatzen dena.

##### 3.2.1.2.2. Marka morfologikoak

Bi marka morfologiko erabiltzen dira izenondoak mailakatzeko:

- a) Atzizkiak
- b) Adjektiboaren errepikapena

## a) Atzizkiak

Bada atzizki bat izenondoa mailakatzen duena, *-txu* (ikus 6.2.3. puntua): *txikitxu, positxu, gastetxu, astotxu, txarritxu, anditxu, asultxu...*

## b) Adjektiboaren errepikapena

Adjektiboaren errepikapenarekin maila gorena lortzen dugu.

- *barri-barriek einde*
- *eukin diesen egunek an gatzatute da au garbi-garbi einde*
- *ortxe garbi-garbi ta batzuk eta pintetu in situen gorris edo*
- *gorri-gorri ixiten san*
- *gorri-gorri daoenean garbitu*
- *eiten gindun, ba, urune ta ure, epel-epela, ta botaten geuntzen labadurea*
- *onegas makineagas eiten gendusen yo arek andi-andiek eta gero ona bota*
- *txapa ganean iminten dosu, txapea epel-epel badao da antxe bueltaka*

**3.2.1.2.3. Maila adberbioak eta zenbatzaile batzuk**

## a) Goi maila adierazteko

- *Oso*
  - *baserrien bear in deuna eta plasakoa oso diferenteak sirean*
  - *Oso gois yoaten gintzesan*
  - *Yoaten gintzesan oso urrin*
  - *Oin bearra baleuko oso ondo*
  - *nirea oso andie ixin sen, oso andie*
- *Sano*
  - *Bai ,bai, gitxi, esneak esteu eiten, sano gitxi*
  - *Billaron be sano gitxi eiten da*
  - *Patakon sano koxoa*
  - *sano gusture da posik*
  - *meaoa, ogie baño meaoa, sano meaoa*
  - *ni mutikoa nintzela eroan oskun gure eseunek, eseune sano etzekoa, eseune sano san ta, ba, eroan otzen*

Aditzaren ekintza kontaezina denean *asko*-ren ordeztan *sano* erabiltzen da:

  - *Oneri sano gusten yako*
  - *Bai itargieri begiten dotzet, sano begiten dotzet*
  - *ba, lurre erain, erain sano*
- *Ondo*
  - *Artean ondo asko eiten da*
- *Gustis*
  - *Artaun de gustis polite*

- *Ain*
  - *ain nerbiosoa dana les, andreak es euen gure ixiten aurrean eon*
  - *Umeatires, ain umeak, baya andietires*
  - *Añ andie da atetik esin lei sartu*

Kantitatea adierazteko honako hauek erabiltzen dira:

- *nik estot koidu orrenbeste*
  - *normalmente dekonak or ainbeste ektarea*
  - *emen, bueno, esta begituten orrenbeste*
  - *ipiñi berotute da gero onenbeste denporan seragas lebadureagas*
  - *Orrek etzeak ainbeste millioak pagatako gero*
- *Lar*
    - *Bero lar badao, arek segun selan erretan direan apur bet kontrolatan sindun*
    - *lar ondo urteten espok, ganaduegas es desengañeu*
    - *nobera estu daoenean, gause bategaitiño edo bien diru gitxi dekolako edo bearra lar estu*

b) Nahikotasuna adierazteko

- *Naiko*

Graduatzaile gisa

- *naiko oiturea deko, kostunbrea deko*
- *eta deko naiko askar burue*
- *goiko serean, ba, naiko alturen eskegiten txarrie*
- *eta eoten dok pernile naiko goso*

Atributo gisa

- *Naiko ixingo da*

Zenbatzaile gisa

- *Naiko okolarik yan dot*

Aditzondo gisa

- *naiko in dotzo akordatea*
- *Naiko yan dot*

- *Bastante*

Graduatzaile gisa

- *bastante ogi andiek*
- *kontue bastante andie badok igual burus etxoat atarako*
- *Nineu bastante despistadue nas*
- *Gure olgetako denporea bastante arin akabeu sen*
- *pil-pilean oten san bastante lusetxuen*
- *asta bi eukesan ta bastante sabala da*

Zenbatzaile gisa  
 - *nire anayak bastante kibi dekos*

c) Ezeztapenetan

- *Bape*  
 - *esta bape polite*  
 - *estok bape ona*

### 3.2.1.2.4. Konparaketak

- *-a(g)o atzizkia*

Atzizki honen bidez konparazioak egiten ditugu bi elementuren artean. Maila goragokoagoa daraman izenondoari *-ago atzizkia* ezartzen zaio.

- *Gastetxuaoa esan gure dot*
- *finaoak pentzetan dot politeoak topaten dodas*
- *ikastolatan politaoa ikisten dotzie*
- *ori gasteaoa da*
- *maitasun andiao egoan orduen*
- *apurtxu bet latzaoa*

Zenbait esapidetan *-a(g)o*-dun izenondoa erabiltzen da:

- Semet eta*  
 - *semet eta altuao obeto ikusten da*  
 - *semet eta andiao obeto*

- Gero eta*  
 - *mundue olantxe dator gero da txarrao, gero da txarrao ikusten da gausea*  
 - *Gero ta leloau de*  
 - *Gero ta altuau de*

- Asko be*  
 - *Olan asko be fasilao da*  
 - *Ori de asko be gatxaoa*

- *-en atzizkia*

Superlatibo erlatibo deitzen den atzizki honen bidez adjektiboaren goi maila adierazten da bere hartan.

- *Billaro ixingo da seguramente Arratien gitxien eiten dana*
- *A txikerrena, nebea*
- *torpena auxe*
- *auxe bastuena*
- *altuena seu sara?*
- *Politena neurea da*
- *Ni nes gastena*

Izenari *-rik* erantsita:

- *llobarik sarrena a da*
- *a san bearrik eta serena*

Multzotik aukera

- *Ume gustietaik altuena da*
- *Umetatik altuena da*

- *-egi atzizkia*

Atzizki hau eransten denean gehiegizko maila lortzen da.

- *itano sarriegi igual*
- *Oin gastetxuegi ilten dires txarriek*

- On eta txar-en graduatzaileak

Hauek dira on eta txar-en graduatzaileak:

<i>on(a)</i>	<i>obe(a)</i>	<i>onen(a)</i>
<i>txarr(a)</i>	<i>txarrao(a)</i>	<i>txarren(a)</i>

Adibideak:

- *artxona euki gindun*
- *lelangotan orrelako, ba, tremesa be ona*
- *Segun denporea obea edo txarraoa edo ser dan*
- *Len artasi obeak eoten soan [sic]*
- *Neu baño obetxuaio ixin ditesela umeak*
- *Idientzako andie obea da*
- *irúretati ónena*
- *beti etorten yatas gause txarrak*
- *Oingo gasteak danetitaos, onak eta txarrak*
- *areakas bearra be txarra*
- *Firestonen egonda saos su be? Leku txarrean*
- *Lenaoko bisimodue gatza san bisiteko, baya gure aite ta ama txarrao da nire aitite ta amama txarrao*
- *au txarraora yoango da*
- *Oin txarrena, ser paseu beadeu?*
- *Igorre da txarrena o Billaro, bayetz ba, esan gureot erderas*

- Ondo eta txarto-ren graduatzaileak

Hauek dira ondo eta txarto-ren graduatzaileak:

<i>ondo</i>	<i>obeto</i>	<i>ondoan</i>
<i>txarto</i>	<i>txarrao</i>	<i>txarren</i>

- Adibideak:
  - *Emen ondo urteten botzu, ondo*
  - *Amagas ondo daos*
  - *Bai, ondo aiten dot. Da umeakas be eskolan da ondo*
  - *Esan ondo, ama*
  - *Pernilek estires ondo kuretan*
  - *Kotxea eukin eskero, ba, ondo da*
  - *Gerra denporan eon giñean aikas be serean, Andalusien da aitu bai, aituten ondo bai*
  - *aipaño obeto iñor estona bisiten*
  - *Aman ondoan obeto eongo dires*
  - *orren umeak obeto eongo dires*
  - *Suk nipaño obeto yakingo dosu erderas*
  - *kartolak barik, ba, obeto, geyao koyuten deu te*
  - *illadea obeto eroateko*
  - *Oso ondo gaosenean ta iñon baño obeto: bestala gaos emen*
  - *okoleak txarto urteten deu*
  - *Ausoko barik txarto*
  - *txarto urteten botzu, ba, eskean*
  - *atzera begiten badok, txarto ibiliko as beti aurrera*
  - *baten bat txarto igual etorten dok*
  - *ori txarrau dau*
  - *ori de txarren daoena*
  - *Llorente ondoen jokatuten dauena da*

### 3.2.1.3. Izenondoa predikatu osagarri denean

Horrela dakar EGLU I-k (167 or.) zer den predikatu osagarri bat:

“Predikatu osagarria deitzen diogu loturazko aditz baten bidez perpausaren subjektuari (edo beste izen sintagma bati, objektuari, adibidez) lotua ageri den adjektibo sintagmari nahiz izen sintagmari. Hots: adjektibo sintagma batek edo izen sintagma batek predikatua osatzen duenean loturazko aditz batekin, osagarri predikatiboa dela esaten dugu.”

Ondoren, ikusiko ditugu izenondoen adibideak *izan* eta *egon* lotura aditzak direnean eta izena atributua denean.

#### 3.2.1.3.1. *Izan* aditzarekin

*Izan* aditzarekin predikatu osagarria mugatuan agertzen da.

- *Biturie andie san*
- *gurea txarra da*
- *bellegie esta*

### 3.2.1.3.2. Egon aditzarekin

Egon aditzarekin predikatu osagarria mugagabeen agertzen da.

- *siku badao*
- *argi dao*
- *sue fuerte daoela*

### 3.2.1.3.3. Izena atributua denean

Izena atributua denean mugagabeen agertzen da. Kokaguneari buruz, esan behar da hizketa librean batu diren adibideetan aditzaren eskuinaldean agertzen direla adibide guztiak. Honek, zalantza barik, azterketa sakonagoa behar du, baina nahiko deigarria da.

- *Gure aite ixin sen kantero*
- *bearrean yoaten sintzen su jornaleru*
- *Patxi eon san enkargau*
- *gero ibili sen serrero*
- *tranbien eon nintzena les kondutore*

## 3.2.2. Izenlagunak

Izenlagunak dira *-en* edo *-ko* kasu-markak dituzten adjektiboak. Kasu-marka guztiak deklinabidearen atalean (3.3.) ikusiko ditugunez, ez dugu hemen ezer aztertuko izenlagunen gainean.

## 3.2.3. Aposizioa

Ahozko jardueran oso gutxitan erabiltzen dira aposizioak. Gure corpusean ez dugu bat bera ere jaso hizketa librean; horregatik, ezin izan dugu sakonago aztertu. Galdetegien bidez honako hau jaso dugu:

- *Luis, nire lengusu Iorrekoa, etorri de*

## 3.3. Deklinabidea

Azpiatal honetan deklinabide-kasuak ikusiko ditugu, bai izen arruntetan, bai izen berezietan, eta hauetan guztietan aztertuko dugu deklinabide kasu-marka bakoitza zein den. Honako kasu hauek aztertuko dira:

Absolutiboa	Leku-genitiboa
Ergatiboa	Ablatiboa
Datiboa	Adlatiboa
Partitiboa	Hurbiltze adlatiboa
Jabego genitiboa	Muga adlatiboa
Soziatiboa	Destinatibo adlatiboa
Motibatiboa	Inesiboa bizidunekin
Destinatiboa	Ablatiboa bizidunekin
Instrumentala	Adlatiboa bizidunekin
Prolatiboa	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin
Inesiboa	Muga adlatiboa bizidunekin



### 3.3.1. Izen arrunten deklinabidea

Ondorengo puntuetan izen arrunten deklinabidearen berri emango dugu. Lehenengo eta behin, bokalez amaitutako izen arrunten adibideak emango ditugu; ostean, kontsonantez amaitutako izen arruntenak eta, amaitzeko, plural hurbilaren adibideak. Adibide hauek guztiak datu hutsak izango dira, erabileraren azalpenak 3.3.3. ‘Deklinabide-kasuak’ puntuan emango ditugu.

#### 3.3.1.1. Bokalez amaitutako izen arruntak

Hurrengo tauletan bokalez amaitutako izen arrunten adibideak emango ditugu. Deklinabide-kasu guztien adibideak agertuko dira bai mugagabeen, bai mugatu singularrean eta baita mugatu pluralean ere. Informazio ahalik eta zehatzena emateko hitzek azentua eramango dute; hau, azentuaren atalean azaldu dugunez, talde fonikoaren amaieran ez dagoela emango dugu.

##### 3.3.1.1.1. “a”z amaitutakoak

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
Alaba-Plaza	Absolutiboa	alabá	alabéa	álabak
Alaba-Plaza	Ergatiboa	alabák	alabéak	álabak
Alaba-Plaza	Datiboa	alabári	alabéari	álabari
Alaba-Plaza	Partitiboa	alabárik	-----	-----
Alaba-Plaza	Jabego genitiboa	alabán	alabéan	álaban
Alaba-Plaza	Soziatiboa	alabágas	alabéagas	álabakas
Alaba-Plaza	Motibatiboa	alabágaiti(k)	alabéagaiti(k)	álabakaiti(k)
Alaba-Plaza	Destinatiboa	alabántzat/-tzako	alabéantzat/-tzako	álabantzat/-tzako
Alaba-Plaza	Instrumentala	-----	-----	-----
Alaba-Plaza	Prolatiboa	alabátzat	-----	-----
Alaba-Plaza	Inesiboa	plásatan	plásán/pláséan	plásatan
Alaba-Plaza	Leku-genitiboa	plásatako	plásáko	plásatako
Alaba-Plaza	Ablatiboa	plásatati(k)	plásáti(k)	plásatati(k)
Alaba-Plaza	Adlatiboa	plásatara	plasará	plásatara
Alaba-Plaza	Hurbiltze adlatiboa	plásatarantza	plasarántza	plásatarantza
Alaba-Plaza	Muga adlatiboa	plásataraño	plasaráño	plásataraño
Alaba-Plaza	Destinatibo adlatiboa	plásatarako	plasaráko	plásatarako
Alaba-Plaza	Inesiboa bizidunekin	-----	-----	-----
Alaba-Plaza	Ablatiboa bizidunekin	alabágandi(k)	alabéagandi(k)	álabakandi(k)
Alaba-Plaza	Adlatiboa bizidunekin	alabágana	alabéagana	álabakana
Alaba-Plaza	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	alabáganantza	alabéaganantza	álabakanantza
Alaba-Plaza	Muga adlatiboa bizidunekin	alabáganaño	alabéaganaño	álabakanaño

## 3.3.1.1.2. “e”z amaitutakoak

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
Seme-Etxe	Absolutiboa	semé	seméa	sémeak
Seme-Etxe	Ergatiboa	semék	seméak	sémeak
Seme-Etxe	Datiboa	seméri	seméri	sémeari
Seme-Etxe	Partitiboa	semérik	-----	-----
Seme-Etxe	Jabego genitiboa	semén	seméan	sémean
Seme-Etxe	Soziatiboa	semégas	seméagas	sémeakas
Seme-Etxe	Motibatiboa	semégaiti(k)	seméagaiti(k)	sémeakaiti(k)
Seme-Etxe	Destinatiboa	seméntzat/-tzako	seméantzat/-tzako	sémeantzat/-tzako
Seme-Etxe	Instrumentala	-----	-----	-----
Seme-Etxe	Prolatiboa	semétzat	-----	-----
Seme-Etxe	Inesiboa	etzétan	etzéan	etzéatan
Seme-Etxe	Leku-genitiboa	etzetáko	etzéko	etzéatako
Seme-Etxe	Ablatiboa	etzetáti(k)	etzéti(k)	etzéatati(k)
Seme-Etxe	Adlatiboa	etzetára	etzerá	etzéatara
Seme-Etxe	Hurbiltze adlatiboa	etzetárantza	etzerántza	etzéatarantza
Seme-Etxe	Muga adlatiboa	etzetáraño	etzeráño	etzéataraño
Seme-Etxe	Destinatibo adlatiboa	etzetárako	etzeráko	etzéatarako
Seme-Etxe	Inesiboa bizidunekin	-----	-----	-----
Seme-Etxe	Ablatiboa bizidunekin	semégandi(k)	seméagandi(k)	sémeakandi(k)
Seme-Etxe	Adlatiboa bizidunekin	semégana	seméagana	sémeakana
Seme-Etxe	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	seméganantza	seméaganantza	sémeakanantza
Seme-Etxe	Muga adlatiboa bizidunekin	seméganaño	seméaganaño	sémeakanaño

## 3.3.1.1.3. “i”z amaitutakoak

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
Idi-Herri	Absolutiboa	idí	idié	idíek
Idi-Herri	Ergatiboa	idík	idiék	idíek
Idi-Herri	Datiboa	idíri	idiéri	idíeri
Idi-Herri	Partitiboa	idírik	-----	-----
Idi-Herri	Jabego genitiboa	idín	idién	idíen
Idi-Herri	Soziatiboa	idíges	idiégas	idíekas
Idi-Herri	Motibatiboa	idígeiti(k)	idiégaiti(k)	idíekaiti(k)
Idi-Herri	Destinatiboa	idíntzat/-tzako	idiéntzat/-tzako	idíentzat/-tzako
Idi-Herri	Instrumentala	-----	-----	-----
Idi-Herri	Prolatiboa	idítzet	-----	-----
Idi-Herri	Inesiboa	erríten	erríen	erriétan
Idi-Herri	Leku-genitiboa	erritéko	erríko	erriétako
Idi-Herri	Ablatiboa	erritéti(k)	erríti(k)	erriétati(k)
Idi-Herri	Adlatiboa	erritéra	erriré	erriétara
Idi-Herri	Hurbiltze adlatiboa	erritérantza	errirántza/erriréntza	erriétarantza
Idi-Herri	Muga adlatiboa	erritéraño	erriréño	erriéteraño
Idi-Herri	Destinatibo adlatiboa	erritérako	erriréko	erriéterako
Idi-Herri	Inesiboa bizidunekin	-----	-----	-----
Idi-Herri	Ablatiboa bizidunekin	idigándi(k)	idiégandi(k)	idíekandi(k)
Idi-Herri	Adlatiboa bizidunekin	idigána	idiégana	idíekana
Idi-Herri	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	idigánantza	idiéganantza	idíekanantza
Idi-Herri	Muga adlatiboa bizidunekin	idigánaño	idiéganaño	idíekanaño

## 3.3.1.1.4. “o”z amaitutakoak

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
Asto-Itsaso	Absolutiboa	astó	astoá	astóak
Asto-Itsaso	Ergatiboa	astók	astoák	astóak
Asto-Itsaso	Datiboa	astóri	astoári	astóari
Asto-Itsaso	Partitiboa	astorík	-----	-----
Asto-Itsaso	Jabego genitiboa	astón	astoán	astóan
Asto-Itsaso	Soziatiboa	astógas	astoágas	astóakas
Asto-Itsaso	Motibatiboa	astógaiti(k)	astoágaiti(k)	astóakaiti(k)
Asto-Itsaso	Destinatiboa	astóntzat/-tzako	astoántzat/-tzako	astóantzat/-tzako
Asto-Itsaso	Instrumentala	-----	-----	-----
Asto-Itsaso	Prolatiboa	astótzat	-----	-----
Asto-Itsaso	Inesiboa	itzesótan	itzesóan	itzésoatan
Asto-Itsaso	Leku-genitiboa	itzesótako	itzesóko	itzésoatako
Asto-Itsaso	Ablatiboa	itzesótati(k)	itzesóti(k)	itzésoatati(k)
Asto-Itsaso	Adlatiboa	itzesótara	itzesóra	itzésoatara
Asto-Itsaso	Hurbiltze adlatiboa	itzesótarantza	itzesórantza	itzésoatarantza
Asto-Itsaso	Muga adlatiboa	itzesótaraño	itzesóraño	itzésoataraño
Asto-Itsaso	Destinatibo adlatibo	itzesótarako	itzesoráko	itzésoatarako
Asto-Itsaso	Inesiboa bizidunekin	-----	-----	-----
Asto-Itsaso	Ablatiboa bizidunekin	astogándi(k)	astoágandi(k)	astóakandi(k)
Asto-Itsaso	Adlatiboa bizidunekin	astogána	astoágana	astóakana
Asto-Itsaso	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	astogánantza	astoáganantza	astóakanantza
Asto-Itsaso	Muga adlatiboa bizidunekin	astogánaño	astoáganaño	astóakanaño

## 3.3.1.1.5. “u”z amaitutakoak

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
Katu-Buru	Absolutiboa	katú	katué	katúek
Katu-Buru	Ergatiboa	katúk	katuék	katúek
Katu-Buru	Datiboa	katúri	katuéri	katúeri
Katu-Buru	Partitiboa	katúrik	-----	-----
Katu-Buru	Jabego genitiboa	katún	katúén	katúen
Katu-Buru	Soziatiboa	katúges	katuégas	katúekas
Katu-Buru	Motibatiboa	katúgeiti(k)	katúágaiti(k)	katúakaiti(k)
Katu-Buru	Destinatiboa	katúntzat/-tzako	katuéntzat/-tzako	katúentzat/-tzako
Katu-Buru	Instrumentala	-----	-----	-----
Katu-Buru	Prolatiboa	katutzét	-----	-----
Katu-Buru	Inesiboa	burúten	burúen	burúetan
Katu-Buru	Leku-genitiboa	burúteko	burúko	burúetako
Katu-Buru	Ablatiboa	burutéti(k)	burúti(k)	burúetati(k)
Katu-Buru	Adlatiboa	burutéra	bururé	burúetara
Katu-Buru	Hurbiltze adlatiboa	burutérantza	bururántza	burúetarantza
Katu-Buru	Muga adlatiboa	burutéraño	bururéño	burúetaraño
Katu-Buru	Destinatibo adlatiboa	burutéraño	bururéko	burúetarako
Katu-Buru	Inesiboa bizidunekin	-----	-----	-----
Katu-Buru	Ablatiboa bizidunekin	katugándi(k)	katuégandi(k)	katúekandi(k)
Katu-Buru	Adlatiboa bizidunekin	katugána	katuégana	katúekana
Katu-Buru	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	katugánantza	katuéganantza	katúekanantza
Katu-Buru	Muga adlatiboa bizidunekin	katugánaño	katuéganaño	katúekanaño

**3.3.1.2. Kontsonantez amaitutako izen arruntak**

Hurrengo tauletan kontsonantez amaitutako izen arruntan adibideak emango ditugu. Deklinabide-kasu guztien adibideak agertuko dira bai mugagabeen, bai mugatu singularrean eta baita mugatu pluralean ere. Informazio ahalik eta zehatzena emateko hitzek azentua eramango dute; hauek, azentuaren atalean azaldu dugunez, ez daude talde fonikoaren amaieran.

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
Gizon-Sagar	Absolutiboa	gixon	gixoná	gixonak
Gizon-Sagar	Ergatiboa	gixonák/gixonék	gixonák	gixonak
Gizon-Sagar	Datiboa	gixonári/gixonéri	gixonári	gixonari
Gizon-Sagar	Partitiboa	gixoník	-----	-----
Gizon-Sagar	Jabego genitiboa	gixonán/gixonén	gixonán	gixonan
Gizon-Sagar	Soziatiboa	gixonágas/gixonégas	gixonágas	gixonakas
Gizon-Sagar	Motibatiboa	gixonágaiti(k) /gixonégaiti(k)	gixonágaiti(k)	gixonakaiti(k)
Gizon-Sagar	Destinatiboa	gixonántzat/-tzako /gixonéntzat/-tzako	gixonántzat/-tzako	gixonantzat/-tzako
Gizon-Sagar	Instrumentala	-----	-----	-----
Gizon-Sagar	Prolatiboa	gixontzát	-----	-----
Gizon-Sagar	Inesiboa	sagarrétan	sagarréan	sagárretan
Gizon-Sagar	Leku-genitiboa	sagarrétako	sagarréko	sagárretako
Gizon-Sagar	Ablatiboa	sagarrétati(k)	sagarréti(k)	sagárretati(k)
Gizon-Sagar	Adlatiboa	sagarrétara	sagarréra	sagárretara
Gizon-Sagar	Hurbiltze adlatiboa	sagarréantarza	sagarréantarza	sagárretantarza
Gizon-Sagar	Muga adlatiboa	sagarrétaraño	sagarréraño	sagárretaraño
Gizon-Sagar	Destinatibo adlatiboa	sagarrétarako	sagarreráko	sagárretarako
Gizon-Sagar	Inesiboa bizidunekin	-----	-----	-----
Gizon-Sagar	Ablatiboa bizidunekin	gixonágandi(k) /gixonégandi(k)	gixonágandi(k)	gixonakandi(k)
Gizon-Sagar	Adlatiboa bizidunekin	gixonágana /gixonégana	gixonágana	gixonakana
Gizon-Sagar	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	gixonáganantza /gixonéganantza	gixonáganantza	gixonakanantza
Gizon-Sagar	Muga adlatiboa bizidunekin	gixonáganaño /gixonéganaño	gixonáganaño	gixonakanaño

**3.3.1.3. Plural hurbila**

Hurrengo taulan plural hurbilez egindako izen arrunten adibideak erakutsiko ditugu; bai bokalez amaitutakoak, bai kontsonantez amaitutakoak.

DEKLINABIDE-KASUA	MUTIKO-AUZO	GIZON-TREN
Absolutiboa	mutíkook	gixónok
Ergatiboa	mutíkook	gixónok
Datiboa	mutíkooi	gixónoi
Jabego genitiboa	mutíkoon	gixónon
Soziatiboa	mutíkookas	gixónokas
Motibatiboa	mutíkokaiti(k)	gixónokaiti(k)
Destinatiboa	mutíkontzat/-tzako	gixónontzat/-tzako
Instrumentala	-----	-----
Inesiboa	eusóotan	trénotan
Leku-genitiboa	eusóotako	trénotako
Ablatiboa	eusóotati(k)	trénotati(k)
Adlatiboa	eusóotara	trénotara
Hurbiltze adlatiboa	eusóotarantza	trénotarantza
Muga adlatiboa	eusóotaraño	trénotaraño
Destinatibo adlatiboa	eusóotarako	trénotarako
Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Ablatiboa bizidunekin	mutíkoonkandi(k)	gixónokandi(k)
Adlatiboa bizidunekin	mutíkookana	gixónokana
Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	mutíkookanantza	gixónokanantza
Muga adlatiboa bizidunekin	mutíkookanaño	gixónokanaño

### 3.3.2. Izen bereziak

Hurrengo tauletan izen berezien adibideak emango ditugu; bai bokalez amaitutakoak, bai kontsonantez amaitutakoak.

#### 3.3.2.1. Bokalez amaitutako izen bereziak

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZEN PROPIOA
Koldo-Igorre	Absolutiboa	Kóldo
Koldo-Igorre	Ergatiboa	Kóldok
Koldo-Igorre	Datiboa	Kóldori
Koldo-Igorre	Partitiboa	Kóldorik
Koldo-Igorre	Jabego genitiboa	Kóldon
Koldo-Igorre	Soziatiboa	Kóldogas
Koldo-Igorre	Motibatiboa	Kóldogaiti(k)
Koldo-Igorre	Destinatiboa	Kóldontzat/-tzako
Koldo-Igorre	Instrumentala	-----
Koldo-Igorre	Prolatiboa	Kóldotzat
Koldo-Igorre	Inesiboa	Iórren
Koldo-Igorre	Leku-genitiboa	Iórreko
Koldo-Igorre	Ablatiboa	Iórreti
Koldo-Igorre	Adlatiboa	Iórrera
Koldo-Igorre	Hurbiltze adlatiboa	Iórrerantza
Koldo-Igorre	Muga adlatiboa	Iórreraño
Koldo-Igorre	Destinatibo adlatiboa	Iórrerako
Koldo-Igorre	Inesiboa bizidunekin	-----
Koldo-Igorre	Ablatiboa bizidunekin	Kóldogandi(k)
Koldo-Igorre	Adlatiboa bizidunekin	Kóldogana
Koldo-Igorre	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	Kóldoganantza
Koldo-Igorre	Muga adlatiboa bizidunekin	Kóldoganaño



**3.3.2.2. Kontsonantez amaitutako izen bereziak**

<b>BERBAK</b>	<b>DEKLINABIDE-KASUA</b>	<b>IZEN PROPIOA</b>
Aitor-Basauntz	Absolutiboa	Aitór
Aitor-Basauntz	Ergatiboa	Aitorrék
Aitor-Basauntz	Datiboa	Aitorréri
Aitor-Basauntz	Partitiboa	Aitorrík
Aitor-Basauntz	Jabego genitiboa	Aitorrén
Aitor-Basauntz	Soziatiboa	Aitorrégas
Aitor-Basauntz	Motibatiboa	Aitorrégaiti(k)
Aitor-Basauntz	Destinatiboa	Aitorréntzat/-tzako
Aitor-Basauntz	Instrumentala	-----
Aitor-Basauntz	Prolatiboa	Aitórtzat
Aitor-Basauntz	Inesiboa	Báseuntzen
Aitor-Basauntz	Leku-genitiboa	Báseuntzeko
Aitor-Basauntz	Ablatiboa	Báseuntzeti(k)
Aitor-Basauntz	Adlatiboa	Báseuntzera
Aitor-Basauntz	Hurbiltze adlatiboa	Báseuntzerantza
Aitor-Basauntz	Muga adlatiboa	Báseuntzeraño
Aitor-Basauntz	Destinatibo adlatiboa	Báseuntzerako
Aitor-Basauntz	Inesiboa bizidunekin	-----
Aitor-Basauntz	Ablatiboa bizidunekin	Aitorrégandi(k)
Aitor-Basauntz	Adlatiboa bizidunekin	Aitorrégana
Aitor-Basauntz	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	Aitorréganantza
Aitor-Basauntz	Muga adlatiboa bizidunekin	Aitorréganaño

### 3.3.3. Deklinabide-kasuak

Deklinabide-kasuak honako hauek dira:

a) Kasu gramatikalak: aditzarekin komunztadura gordetzen dutenak dira

Absolutiboa

Ergatiboa

Datiboa

b) Leku-denborazko kasuak

Inesiboa

Leku-genitiboa

Adlatiboa

Hurbiltze adlatiboa

Muga adlatiboa

Ablatiboa

c) Gainerako kasuak

Partitiboa

Genitiboa

Soziatiboa

Instrumentala

Motibatiboa

Destinatiboa

#### Deklinabidearen egitura:

Atal honetan deklinabidearen egitura azalduko dugu azaleko egituraz baliatuz. Deklinabidean osagai hauek bereizten dira: deklinagaia eta hondarkia. Hondarkiaren barnean beste osagai batzuk ere bereizten dira: mugatzaile singularra eta plurala, mugagabea, lotura-hizkia eta kasu-marka.

Behin, kasu guztiak aztertuta, azaleko egituran ohiko forma mugatuak azaltzen ez dituztenak honako hauek dira:

- Bizigabeen leku-denborazko kasuak
- Plural ezberdinak

Bizigabeen leku-denborazko kasuek beste kasuen aldean jokabide ezberdina daukate, deklinabidearen egitura azaltzeko arazoak ematen dizkigutenak.

Inesiboa eredutzat hartuta, (eredutzat hartu dut beste leku-denborazko kasuak horren gainean gauzatzen baitira —ikus EGLU I, Salaburu (1984), Trask (1985 eta 1997)—) alde batetik, singularrean *-an* daukagu, pluralean *-atan* eta mugagabean *-tan*.

Ondorioz, kasu-marka bakarra proposatuz, *-n* hain zuzen, singularreko marka *-a-* litzateke, pluralekoa *-ata-* eta mugagabekoa *-ta-*. Honek suposatzen du bizigabeen leku-denborazko mugagabeak beste deklinabide-kasuek ez daukaten marka bat izatea: *-ta-*

Izendapenerako *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I* jarraitu da.

Inesiboaren egitura azaldu badugu ere, konpontzeke geratzen dira bizigabeen beste leku-denborazko kasuak: leku-genitiboa, ablatiboa, adlatiboa, hurbiltze adlatiboa eta muga adlatiboa.

Hauetan, inesiboan ez bezala, *-a-* mugatzailea ez baita agertzen: *basoan* vs *basoko*

*basotik*

*basora*

*basorantza*

*basoraño*

Lehen aipatu den moduan, deklinabide-kasu hauek inesiboaren gainean eratzen dira eta, ondorioz, barne egituran *basoan + ko* daukagu, azaleko egituran *basoko* gauzatzen dena.

Pluralaren gainean esan behar da hiru plural ezberdin daudela:

- 1) Azentua
- 2) *-ak*
- 3) *-ata-*

Singularreko marka *-a* da beti eta mugagabearena  $\emptyset$ , bizigabeen leku-denborazko kasuetan izan ezik; hauetan *-ta-* da.

Deklinabide-kasuak pluralaren erabilerari dagokionez, modu honetan bana daitezke:

- a) Azentua bakarrik erabiltzen dutenak plural gisa
  - Ergatiboa
  - Datiboa
  - Jabego genitiboa
  - Destinatiboa
- b) Azentua eta *-ak* erabiltzen dituztenak
  - Absolutiboa
  - Soziatiboa
  - Motibatiboa
  - Bizidunen leku-denborazkoak
- c) Azentua eta *-ata-* erabiltzen dituztenak
  - Bizigabeen leku-denborazkoak

Ondorengo puntuetan deklinabideak nola eratzen diren aztertuko dugu, eta puntu honetan onartu behar dut azaleko eta barruko egitura nahastu egin ditudala. Ondorioz, ez ditut aipatuko oinarritzko hainbat arau fonologiko: txistukarien neutralizazioa ( $z > s$ ), leherkari ahostunen ahoskabetzea ( $-k + -g- > -k-$ ) eta abar.

**3.3.3.1. Absolutiboa**

Absolutiboaren kasu-marka  $\emptyset$  da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	*	*	$\emptyset$
sg.	baso	*	*	á	$\emptyset$
pl.	basó	*	*	ak	$\emptyset$
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixón	*	*	*	$\emptyset$
sg.	gixon	*	*	á	$\emptyset$
pl.	gixón	*	*	ak	$\emptyset$

**3.3.3.2. Ergatiboa**

Ergatiboaren kasu-marka *-k* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	*	*	k
sg.	baso	*	*	á	k
pl.	basó	*	*	a	k
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	k
sg.	gixon	*	*	á	k
pl.	gixón	*	*	a	k

**3.3.3.3. Datiboa**

Datiboaren kasu-marka *-ri* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	*	*	ri
sg.	baso	*	*	á	ri
pl.	basó	*	*	a	ri
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	ri
sg.	gixon	*	*	á	ri
pl.	gixón	*	*	a	ri

**3.3.3.4. Partitiboa**

Partitiboaren marka *-ik* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	baso	r	*	*	ík
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	*	*	*	ík

**3.3.3.5. Genitiboa**

Genitiboaren kasu-marka *-n* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	*	*	n
sg.	baso	*	*	á	n
pl.	basó	*	*	a	n
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	n
sg.	gixon	*	*	á	n
pl.	gixón	*	*	a	n

Goenagak (2003) aipatzen duen moduan, *-ren* eta *-ko* atzizkiei arreta handia jarri izan zaie euskalaritzan.

“-KO eta –EN-en arteko zalantzei arreta handia eskaini zaie euskalaritzan: Azkue (1905), Lhande (1926), Lafitte (1954), Lafon (1965), Mitxelena (1972a, 1986), Goenaga (1980, 1981), Trask (1981, 1985), Euskaltzaindia (1985), De Rijk (1988, 1993), Eguzkitza (1993, 1997a, 2001), Azkarate eta Altuna (1992),... Eta egungo egunetik hurbilago: Zabala (1999) eta Alberdi & Sarasola (2001).” (Goenaga, 2003: 279)

Mitxelenak (1986), Trask (1985) edota de Rijk (1988) zalantzan jarri zuten *-ko* eta *-ren* deklinabide atzizkiak diren.

“Azken predikua egin behar banu, hauze esango nuke. Bai –ren eta bai –ko erator-atzizkiak dira areago deklinabidekoak baino.” (Mitxelena, 1986: 541)

Hala ere, Azkarate & Altunak (1992: 95-96) elementu hauek eratorpen atzizkitzat hartzearen kontrako argudioak ematen dituzte. Goenagak (2003) ederto laburtzen du auzi hau:

“Mitxelenaren ustez, -KO eta –EN biak deklinabide atzizki baino areago eratorpen elementuak dira. Gauza bera diote beste askok (Trask 1985, De Rijk 1988, etab.). Azkarate & Altunak (1992), hala ere, elementu hauek eratorpen atzizkitzat hartzearen kontrako argudioak ematen dituzte (ik. 95-96), nahiko bidezkoak, bestalde. –KO eratorpen atzizki garbia da zenbaitetan (gerriko, ipurdiko, Katalango (ik. EGLU I. (Eranskina), 49-60), baina gehienetan zail da erator-atzizki normalizat hartzea. Argudio nagusia da Azkaratek eta Altunak (1992, 95) ematen dutena: hitz eraketa erregeletan kategoria lexikalek hartzen dute parte, ez hortik gorakoek (sintaxi kategoriek: izen sintagmak, postposizio sintagmak, etab.)”. (Goenaga, 2003: 294)

### 3.3.3.6. Soziatiboa

Soziatiboaren kasu-marka *-s* da

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	*	*	gas
sg.	baso	*	*	á	gas
pl.	basó	*	*	ak	gas
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	gas
sg.	gixon	*	*	á	gas
pl.	gixón	*	*	ak	gas

Dialektologiaren ikuspuntutik soziatiboak garrantzi handia du mendebaleko ezaugarria delako (Zuazo, 2014: 170) *-gaz* / *-kaz* morfemak izatea. Gainera, denbora alorrean duen erabilpena ere azpimarratu behar da. Gamindek (1990d) zehazten duen legez, erabilpen hau mendebaldeko bizkaieran baino ez da gauzatzen. Gaminderen ustez, denbora markatzeko

erabiltzen denean lehenaldi hurbila adierazteko baino ezin da erabili; hori dela eta, plural hurbilaren marka agertzen da.

Igorreko adibideak:

- *egunokas esta etorri*

Erabilera honek bizkaiera goitik behera banatzen duen isoglosa bat sortzen du.



9. mapa. Sozietiboa denbora alorrean. (Gaminde, 1990d :32)

### 3.3.3.7. Motibatiboa

Motibatiboaren kasu-markak *-iti* zein *-itik* dira.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg	Mugatzailea	Kasu-marka
<b>Bokalez amaitutakoa</b>					
mgg.	basó	*	*	*	gaiti(k)
sg.	baso	*	*	á	gaiti(k)
pl.	basó	*	*	ak	gaiti(k)
<b>Kontsonantez amaitutakoa</b>					
mgg.	gixon	á	*	*	gaiti(k)
sg.	gixon	*	*	á	gaiti(k)
pl.	gixón	*	*	ak	gaiti(k)

**3.3.3.8. Destinatiboa**

Destinatiboaren kasu-markak *-ntzat* zein *-ntzako* dira

	Deklinagaia	Hondarkia			Kasu-marka
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzaila	
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	semé	*	*	*	ntzat/ntzako
sg.	seme	*	*	á	ntzat/ntzako
pl.	séme	*	*	a	ntzat/ntzako
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	ntzat/ntzako
sg.	gixon	*	*	á	ntzat/ntzako
pl.	gixón	*	*	a	ntzat/ntzako

**3.3.3.9. Instrumentala**

Kasu hau fosilizatuta dago eta ondorioz, zenbait kasutan baino ez da erabiltzen, adibidez:

- *gero ortik oñes yoanda Durunguraño oñes*
- *emetik Urkiolara oñes*
- *Gu gasteak gineanean errietatik yoate san errogatibea udebarrien oñes Urkiolara*
- *eulis beteritao*
- *Baten Urkusutik burdies etorrite tranbibidean txirrinkea sartu da atara ixinde atzetik, ba, sera, tranbie*
- *Da bitisu dana medikus beterik eta esebes*
- *Da kamiñoak ebaten be eskus, kamiñoak ebaten be eskus, len eskabadorik es siren eoten*
- *Guk itxi geuntzen gari yoteari, ba, ser barik, eskus yota bakarrik*
- *Eskus yota bakarrik? Makinea barik?*
- *Ba, garie eskus yoten gindun, es? Da gero eotesan, ba, galeutze esaten yako*
- *Eskoyatara, gora edo bera, goratxuao edo beratxuao edo artes*
- *benga goratxuao goratxuao, artes, erreiti*
- *da erreiri begire eroateko ganadue artes*
- *ba, apartau eskero, estao bisimodu artes eroaterik*
- *estakit selan esaten dan euskeras*
- *maisue erdeldune ixin sen, baye guk erderas gitxi, gitxi; euskeras*

Kasu-marka honen bidez oso erabilia den *-sko* ere egiten da:

- *da gero kollarea egurreskoas iru ordu laurden*
- *Gure aite ixin sen kantero, argine, arrisko etzeak eiten ditusena*
- *neskatxien artean olgetan gindunean eiten gindusen trapusko muñekatxu betzuk*
- *Da neskari bebai, i itea erderas igual bai “oye tu”, baya i es, neskari enbraskoari egundo es, ni baño gasteaori egundo es*



- *Muñekak trapuekas bai, laneas burue ipiñite laneak einde da begiek ipini koloreskoak, bakisu. Yantzie telaskoa, tela sarrakas, mangak sartu*
- *Karabiek... eoten sirean arrisko, ba, serak einde*
- *Es, unikamente egon sirean lelango olango erruedak da gero serak... sereskoak, gomaskoak*
- *Burruñesko katxarro bat lanea eiteko*
- *kuartea egurresko katxarro bateri esaten dotzu, kuartea*
- *olan ortzak burruñeskoak eukiteusen ak*
- *txilindroyak eukiten yoasen... ixitesoan olan kuadrau bet, olesko, olesko kaja bat ta barruen eroaten yoasen olan rodillo batzuk serakas, pua batzukas eukiten yoasen ta areik eiten yeurien lurre orrik mokilek, orrek mokilek apurtu ta lurre bardindu*
- *gero eiten yosak, ba, latan sartu, latan edo bote orrek kristalesko boteatan*
- *Da burtzile eitesan egurreskoa gure denporan en jeneral, gero agertu sen burruñeskoa, baya gu gasteak gintzesan orduen esan... gitxi eotesan burruñeskoa*
- *Ta errudea ixiten san egurreskoa ta burruñekas, olan aro bat burruñeskoa, es, erruedak gomaskoak, eta olan gero urteuren gomaskoak, gero olango karro txikientzako, astoantzako*
- *txabetea geituten yakon busturriko, busturriko kajea iminten yakonari. A narrusko seragas einde*

Gaur egun erabiltzen diren adibideetan oinarrituz instrumentalaren kasu-marka -s da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailerik	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	eskú		*	*	s
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	oñ	é	*	*	s

### 3.3.3.10. Prolatiboa

Prolatiboaren marka -tzat da.

Prolatiboan ez dago lekuri mugagabearen eta mugatu singular nahiz pluralaren arteko desberdintasunetarako: atzizkia besterik gabe eransten zaio sintagmari. Sintagma horrek, gainera, ez du onartzen, ez mugatzailerik, ez zenbatzailerik. Gainerako kasuetan ez bezala, prolatiboan ez daukagu lotura-hizkirik.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailerik	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	tónto	*	*	*	tzat
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	lagún	*	*	*	tzat

### 3.3.3.11. Inesiboa

Inesiboaren kasu-marka *-n* da.

Inesiboan artikularen itxurako *-a-* bat agertzen da. Hau bitxia da kontsonantez amaitutako hitzetan *-e-* lotura-hizkia txertatzen delako: *okerrean* eta ez *\*okerran*. Autore batzuk, hala nola, Jacobsen (1977), Rotaetxe (1978), De Rijk (1981) edota Trask (1997), auzi honen azalpena ematen ahalegindu dira. Normalean *-e-* lotura-hizkia kontsonanteen artean agertzen denez, iradokitzen du hurrengo elementua kontsonante bat izan beharko litzatekeela, nahiz eta agerian *-a-* bat daukagun. Horrela, De Rijk-ek proposatzen du *-a-* hori artikulua barik, leku izenetan agertzen den *-ga* elementua daukagula, ez duena zertan aniztasuna adierazi behar. Adibidez: *Arespakotxaga* (<*aretx bakotx -aga*). Horrela, aurreko adibidera bueltatuz, honako hau izango genuke: *oker + ga + n > okerr-e-gan > okerrean*.

Berrikiago, Manterolak (2006) beste hipotesi bat zabaldu du. Autore honek egon beharko litzatekeen kontsonante hori leku izenetako *-ga* barik, “*han*” adberbioaren aspirazioa dela proposatzen du: *okerrean < oker e han < oker han*.

Auzi hau guztiz argitu arte, guk lotura-hizkitzat jarri dugu hurrengo taulan.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	ta	*	n
sg.	basó	a	*	*	n
pl.	basó	*	*	ata	n
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	oker	é	ta	*	n
sg.	oker	é	*	a	n
pl.	okér	e	*	(a)ta	n

**3.3.3.12. Leku-genitiboa**

Leku-genitiboaren kasu-marka *-ko* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	baso	*	ta	*	ko
sg.	baso	*	*	* <sup>57</sup>	ko
pl.	baso	*	*	ata	ko
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	oker	é	ta	*	ko
sg.	oker	é	*	(a)	ko
pl.	okér	e	*	(a)ta	ko

3.3.3.5. puntuan aipatu dugun moduan, deklinabide kasu-marka hau auzitan egon da autore batzuen artean (Mitxelena, 1986; Trask, 1985; de Rijk, 1988...)

“Euskarán, horregatik, *-ko* forma duen kasu atzizkirik ez dago!” (Trask, 1985: 173)

Azkarate & Altunarentzat (1992) aldiz, ez, kasu-marka da. Eta egituraren aldetik, Goenagak (2003) aipatzen duen moduan, azpian beste postposizio sintagma bat izaten du gehienetan.

“*-KO*-k azpian beste postposizio sintagma bat izaten du gehienetan (mendiko < mendian + *-ko*).” (Goenaga, 2003: 300)

**3.3.3.13. Ablatiboa**

Ablatiboaren kasu-markak *-ti* zein *-tik* dira, nahiz eta oraindik zenbait esamoldetan *-rik* ablatibo zaharra agertu.

Gamindek (1991) Plentziarako eta mendebaldeko bizkaierarako *-rik* kasu-marka denbora alorrean eta *-ti* leku alorrean erabiltzen direla esan bazuen ere, guk jasotako adibideek erakusten dute *-rik* ez dela bakarrik denbora alorretarako erabiltzen.

“Mendebaldeko bizkaieraren barietate guztietan jazotzen dena legez, Plentziako barietatean ere *-rik* eta *-ti* atzizkiak distribuzio konplementarioan dagoz; lehena denbora adierazteko erabiltzen da, benetako kasu autonomoa balitz legez, eta bigarrena, ostera, leku alorrean” (Gaminde, 1991: 547)

Igorreko adibideak:

Leku alorrean:

- *Aite, ixena ser eukiteuen? Ixena. Orixe ejeak ser ixen eukiteuen andik alderik doana?*

<sup>57</sup> Mugatzailea ez da agerian agertzen.

- *Euskeras alderik alde diferensie andie*
  - *etzerik ara*
  - *Gero emen atzean eroaten seuen olango freno bat erruedarik erruedara ixitesan olango tronko bat da ak eiten seuen freno moduen*
- Denbora alorrean:
- *Da ordurik ona, ba, bueno emen*
  - *Gure bisimodue gogorra ixin de, ain ixin de gogorra, lelangoterik askenera ointxe artiño setenta urte, da dana gogorra*
  - *apurtxu bet arregleu ta gero etorri ginean ona bisiten, da ordurik ona bisi gara emen*
  - *da gero bajatu nintzen bisiten ona Garakoire, da ordurik ona ementxe*
  - *ni erriko eskolan ibili nes betik, mutikorik ona*
  - *nosik ona?*
  - *Orduen etzean asite, txikiterik*
  - *esan gure dotzut etzean yayota txala, asi txikiterik etzean norbera les, personea les entenietan deurie*

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	ta	*	ti(k)
sg.	basó	*	*	*	ti(k)
pl.	basó	*	*	ata	ti(k)
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	oker	é	ta	*	ti(k)
sg.	oker	é	*	(a)	ti(k)
pl.	okér	e	*	(a)ta	ti(k)

### 3.3.3.14. Adlatiboa

Adlatiboaren kasu-marka *-ra* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	ta	*	ra
sg.	baso	*	*	*	rá
pl.	basó	*	*	ata	ra
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	oker	é	ta	*	ra
sg.	oker	é	*	(a)	ra
pl.	okér	e	*	(a)ta	ra

**3.3.3.15. Hurbiltze adlatiboa**

Hurbiltze adlatiboaren kasu-marka *-rantza* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	ta	*	rantza
sg.	baso	*	*	*	rántza
pl.	basó	*	*	ata	rantza
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	oker	é	ta	*	rantza
sg.	oker	é	*	(a)	rantza
pl.	okér	e	*	(a)ta	rantza

Azkuek (1923) hurbiltze adlatiborako hiru aldaera eman zituen:

- (r)antz*: AN, B.
- (r)untz*: B.
- (r)ontz*: G.

Azkuarentzat beste aldaera batzuk bigarren mailakoak dira, bai kontsonante multzoaren murrizketagatik (B *-(r)atz*, R *-(r)az* edo B *-(r)utz*), bai gehiketengatik (B *-(r)antza*).

Zuazok (2014: 184) ere mendebalerako azpieuskalkiak bereizteko ezaugarritzat hartzen du esanez sortaldean *-rutz* erabiltzen dela.

**3.3.3.16. Muga adlatiboa**

Muga adlatiboaren kasu-marka *-raño* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	ta	*	raño
sg.	baso	*	*	*	ráño
pl.	basó	*	*	ata	raño
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	oker	é	ta	*	raño
sg.	oker	é	*	(a)	raño
pl.	okér	e	*	(a)ta	raño

**3.3.3.17. Destinatibo adlatiboa**

Destinatibo adlatiboaren kasu-marka *-rako* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	basó	*	ta	*	rako
sg.	baso	*	*	*	ráko
pl.	basó	*	*	ata	rako
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	oker	é	ta	*	rako
sg.	oker	é	*	(a)	rako
pl.	okér	e	*	(a)ta	rako

**3.3.3.18. Inesiboa bizidunekin**

Inesiboa bizidunekin egiteko sozietiboa erabiltzen da:  
- *alkateagas dekot konfiansea*

**3.3.3.19. Ablatiboa bizidunekin**

Bizidunekin ablatiboarenaren kasu-markak *-gandi* zein *-gandik* dira.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	semé	*	*	*	gandi(k)
sg.	semé	*	*	a	gandi(k)
pl.	séme	*	*	ak	gandi(k)
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	gandi(k)
sg.	gixon	*	*	á	gandi(k)
pl.	gixón	*	*	ak	gandi(k)

**3.3.3.20. Adlatiboa bizidunekin**

Bizidunekin adlatiboaren kasu-marka *-gana* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	semé	*	*	*	gana
sg.	semé	*	*	a	gana
pl.	séme	*	*	ak	gana
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	gana
sg.	gixon	*	*	á	gana
pl.	gixón	*	*	ak	gana

**3.3.3.21. Hurbiltze adlatiboa bizidunekin**

Bizidunekin hurbiltze adlatiboaren kasu-marka *-ganantza* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	semé	*	*	*	ganantza
sg.	semé	*	*	a	ganantza
pl.	séme	*	*	ak	ganantza
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	ganantza
sg.	gixon	*	*	á	ganantza
pl.	gixón	*	*	ak	ganantza

## 3.3.3.22. Muga adlatiboa bizidunekin

Bizidunekin muga adlatiboaren kasu-marka *-ganaño* da.

	Deklinagaia	Hondarkia			
		Lotura-hizkia	Mgg.	Mugatzailea	Kasu-marka
Bokalez amaitutakoa					
mgg.	semé	*	*	*	ganaño
sg.	semé	*	*	a	ganaño
pl.	séme	*	*	ak	ganaño
Kontsonantez amaitutakoa					
mgg.	gixon	á	*	*	ganaño
sg.	gixon	*	*	á	ganaño
pl.	gixón	*	*	ak	ganaño

## 3.3.4. Ondorioak

Behin deklinabide-kasu guztiak banan-banan aztertuta, hona hemen deklinagai guztietarako deklinabide-kasu taula:

Izen arruntetarako:

DEKLINABIDE-KASUA	MUGAGABEA	SINGULARRA	PLURALA
Absolutiboa	-Ø	-a	-ak
Ergatiboa	-(a)k	-ak	-ak
Datiboa	-(a)ri	-ari	-ari
Partitiboa	-[r]ik	----	----
Jabego genitiboa	-(a)n	-an	-an
Soziatiboa	-(a)gas	-agas	-akas
Motibatiboa	-(a)gaiti(k)	-agaiti(k)	-akaiti(k)
Destinatiboa	-(a)ntzat/-(a)ntzako	-antzat/-antzako	-antzat/-antzako
Instrumentala	-s	-----	-----
Prolatiboa	-tztat	----	----
Inesiboa	-(a)tan	-an	-atan
Leku-genitiboa	-(a)tako	-(a)ko	-atako
Ablatiboa	-(a)tati(k)	-(a)ti(k) /-rik	-atati(k)
Adlatiboa	-(a)tara	-(a)ra	-atara
Hurbiltze adlatiboa	-(a)tarantza	-(a)rantza	-atarantza
Muga adlatiboa	-(a)taraño	-(a)raño	-ataraño
Destinatibo adlatibo	-(a)tarako	-(a)rako	-atarako
Inesiboa bizidunekin	-(a)gas	-agas	-akas
Ablatiboa bizidunekin	-(a)gandi(k)	-agandi(k)	-akandi(k)
Adlatiboa bizidunekin	-(a)gana	-agana	-akana
Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	-(a)ganantza	-aganantza	-akanantza
Muga adlatiboa bizidunekin	-(a)ganaño	-aganaño	-akanaño



Izen propioetarako:

DEKLINABIDE-KASUA	IZEN PROPIOA
Absolutiboa	-Ø
Ergatiboa	-(e)k
Datiboa	-(e)ri
Partitiboa	-[r]ik
Jabego genitiboa	-(e)n
Soziatiboa	-(e)gas
Motibatiboa	-(e)gaiti(k)
Destinatiboa	-(e)ntzat/-(e)ntzako
Instrumentala	-----
Prolatiboa	-tzat
Inesiboa	-(e)tan
Leku-genitiboa	-(e)tako
Ablatiboa	-(e)tati(k)
Adlatiboa	-(e)tara
Hurbiltze adlatiboa	-(e)tarantza
Muga adlatiboa	-(e)taraño
Destinatibo adlatibo	-(e)tarako
Inesiboa bizidunekin	-(e)gas
Ablatiboa bizidunekin	-(e)gandi(k)
Adlatiboa bizidunekin	-(e)gana
Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	-(e)ganantza
Muga adlatiboa bizidunekin	-(e)ganaño

### 3.4. Arau morfologikoak

Aurreko atalean deklinabide-kasuak ikusi ditugu, eta honetan aztertuko ditugu hauek ezartzeko gauzatzen diren arau morfologikoak eta euren hurrenkera.

#### 3.4.1. Lotura-hizkia

Euskaraz ohikoa denez, hitz erroa kontsonantez amaitzen denean, ‘gizon’ edota ‘sagar’ berbak legez, deklinabide atzizkia ezartzearekin batera loturazko bokal bat ere eransten da agertuko zatekeen kontsonante multzo hori apurtzeko.

Tauletan ikus dezakegunez, bokal hori bai mugagabeen bai mugatu singularrean zein pluralean *-a-* nahiz *-e-* da. Izen propioetan *-e-* da beti agertzen zaiguna: ‘*Aitorréri*’, ‘*Aitorrégas*’, ‘*Aitorrégana*’... Euskara sakonki aztertuta dagoen ondoko herrietan *-e-* bokala agertzen zaigu:

Zeberion ‘*okerréri*’. (Etxebarria 1991)

Basaurin ‘*gixonegas*’. (Arretxe 1994)

Bilbon ‘*gixonegas*’. (Gaminde 1990)

Otxandion ‘*gixonegas*’. (Burgete&Gaminde 1991)

Zeanurin, aldiz, aukera biak aurki ditzakegu, ‘*gixonári*’ nahiz ‘*gixonéri*’.  
(Agirregoikoa Argitaragabea)

Bestaldetik, partitiboan loturazko bokal barik loturazko kontsonantea agertzen zaigu:

*-r-*.

### 3.4.2. Mugagabea vs mugatua

Mugatuak mugagabetik bereizteko erabiltzen duen marka *-a* bokala da.

a.	Mugagabea	Mugatu singularrean	Mugatu pluralean
	<i>astoØ</i>	<i>asto<u>a</u></i>	<i>asto<u>a</u>k</i>
	<i>astoØk</i>	<i>asto<u>a</u>k</i>	<i>asto<u>a</u>k</i>
	<i>astoØri</i>	<i>asto<u>a</u>ri</i>	<i>asto<u>a</u>ri</i>
	<i>astoØgas</i>	<i>asto<u>a</u>gas</i>	<i>asto<u>a</u>kas</i>

Bokal hau ez dugu nahastu behar arestian aipatutako loturazko *-a-* bokalarekin:

b.	<i>gixon<u>a</u>k</i>	<i>gixon<u>a</u>k</i>	<i>gixon<u>a</u>k</i>
	<i>gixon<u>a</u>ri</i>	<i>gixon<u>a</u>ri</i>	<i>gixon<u>a</u>ri</i>
	<i>gixon<u>a</u>gas</i>	<i>gixon<u>a</u>gas</i>	<i>gixon<u>a</u>kas</i>

Mugagabea agertzen zaigun *-a-* hori loturazkoa da; bestea, berriz, mugatuaren marka da. Baieztatzeko ikus dezagun absolutibo kasua:

c.	<i>gixonØ</i>	<i>gixon<u>a</u></i>	<i>gixon<u>a</u>k</i>
----	---------------	----------------------	-----------------------

Arau morfologikoen hurrenkeraren aldetik esan behar dugu mugatuaren marka lehenago ezartzen dela loturazko bokala baino.

Hitz bat deklinatzerako orduan honako urratsak beharko dira:

- 1) Hitza.
- 2) Mugatu singularra bada mugatu singularraren marka.
- 3) Kontsonantez amaitzen bada loturazko bokala.
- 4) Deklinabide atzikia

Adibide gisa mugatu singularra den *gixonari* izen-sintagma hartuko dugu:

- 1) *gixon*
- 2) *gixon + a* (artikulua) > *gixona*
- 3) Ez da kontsonantez amaitzen: *gixona*
- 4) *gixona + ri* > *gixonari*

Beste adibide bat gisa mugagabea den *gixonari* izen-sintagma hartuko dugu:

- 1) *gixon*
- 2) Ez da mugatua: *gixon*
- 3) *gixon + a* (lotura-hizkia) > *gixona*
- 4) *gixona + ri* > *gixonari*

Zergatik ezartzen da lehenago mugatuaren marka loturazko bokala baino eta ez aldrebes? Ikus dezagun zer gertatuko litzatekeen beste hurrenkera horretan ezarriko balitz. Adibidea: mugatu singularra den *gixonari* hitza.

- 1) Hitza: *gixon*
- 2) Loturazko bokala: *gixon + a* > *gixona*

- 3) Mugatuaren marka: *gixona + a > \*gixonaa > \*gixonea*
- 4) Deklinabide atzizkia: *\*gixonea + ri > \*gixoneari*

Beraz, argi dago lehenengo hurrenkera dela gauzatzen dena eta ez azken hau.

### 3.4.3. Bizigabeen deklinabideari buruz

Leku-denborazko kasuetan badira bizigabeek soilik daramatzaten deklinabide atzizkiak:

Inesiboa	<i>itzesotan</i>	<i>itzesoan</i>	<i>itzesoatan</i>
Leku-genitiboa	<i>itzesotako</i>	<i>itzesoko</i>	<i>itzesoatako</i>
Ablatiboa	<i>itzesotati(k)</i>	<i>itzesoti(k)</i>	<i>itzesoatati(k)</i>
Adlatiboa	<i>itzesotara</i>	<i>itzesora</i>	<i>itzesoatara</i>
Hurbiltze adlatiboa	<i>itzesotarantza</i>	<i>itzesorantza</i>	<i>itzesoatarantza</i>
Muga adlatiboa	<i>itzesotaraño</i>	<i>itzesoraño</i>	<i>itzesoataraño</i>

Ikus dezakegun legez, mugatuaren marka den *-a* bokala ez zaigu agertzen singularreko kasuetan inesiboan izan ezik (*itzesoan*). Hau horrela da beste deklinabide-kasu guztiak inesiboaren gainean garatu direlako.

Argi dago hurbiltze adlatiboak eta muga adlatiboak adlatiboan daukatela jatorria:

Adlatiboa	<i>nora</i>
Hurbiltze adlatiboa	<i>nora + ntza &gt; norantza</i>
Muga adlatiboa	<i>nora + ino &gt; noraño</i>

Halaber, nahiko argi dago ablatiboak eta leku-genitiboak inesiboan daukatela jatorria:

Inesiboa	<i>non</i>
Ablatiboa	<i>non + tik &gt; nondik</i>
Leku-genitiboa	<i>non + ko &gt; nongo</i>

Beraz, agertzen ez zaigun loturazko bokalari buruz esan dezakegu egon badagoela, baina deklinabide-kasuen batuketa dela medio, estalita geratzen zaigu. Orduan, hitzak deklinatzerako garaian beharko lukeen bigarren urratsean honako hau gehitu beharko genuke:

- 1) Hitza.
- 2) Mugatu singularra bada, mugatu singularraren marka.
- 2a) Leku-genitibo, ablatibo, adlatibo, hurbiltze adlatibo, muga adlatibo eta destinatibo adlatibo deklinabide-kasu singularrean ez da azalean agertzen.
- 3) Kontsonantez amaitzen bada, loturazko bokala.
- 4) Deklinabide atzizkia.

Oraindik adlatiboari buruz ez dugu ezer aipatu eta suposatutzat eman dugu inesiboaren gainean gauzatzen dela. Gauzatze hau bi arrazoirengatik proposatu dugu. Lehena zentzu semantikoagatik da; leku-genitibo eta ablatibo kasuak inesiboaren gainean gauzatzen badira, zergatik ez adlatiboa? Bigarrena honen froga litzateke; loturazko bokala, *-a-*, ez da agertzen inesiboaren gainean gauzatu delako, bestela, beste deklinabide-kasuetan legez, agertu beharko litzateke; hots, loturazko bokala inesiboaren gainean gauzatzen diren deklinabide-kasuetan baino ez da agertzen.

Beharbada hau argiago ikus daiteke bizidunen deklinabide-kasuan. Hauen inesiboa *nogan* da; gaur egun Igorren galduta dagoen arren, ondoko herrietan oraindik entzun dezakegu (Etxebarria 1991: 117); eta adlatiboa *nogana*. Adibidez, *alkateagan* inesiboan vs *alkateagana* adlatiboan. Eta honela bada bizidunekin, zergatik izan beharko litzateke ezberdin bizigabeen deklinabide-kasuetan?

Beraz, leku-denborazko deklinabide-kasu guztiak inesiboaren gainean gauzatzen dira bai bizigabeak bai bizidunak; eta *itzesoan* bezalako hitzetan honako hau genuke:

*itzeso-* (hitza) + *-a* (mugatu singularraren marka) + *-n* (inesiboaren marka)

### 3.4.4. Singularra vs plurala

Azentua eta bizigabeen kasu deklinabidea aparte utzirik berehala konturatzen gara deklinabide atzizki mota bi dauzkagula:

- a) Singularrean eta pluralean morfologikoki berdinak direnak.
- b) Morfologikoki ezberdinak direnak.

a) multzoan honako kasu hauek izango genituzke:

Ergatiboa	<i>-ak</i>
Datiboa	<i>-ari</i>
Jabego genitiboa	<i>-an</i>
Destinatiboa	<i>-antzat / -antzako</i>

Deklinabide-kasu hauek morfologikoki berdinak diren arren aurrerago ikusiko dugunez, azentuaren bidez bereiziko dira.

b) multzoan kasu hauek izango genituzke:

	singularrean	pluralean
Absolutiboa	<i>-a</i>	<i>-ak</i>
Soziatiboa	<i>-agas</i>	<i>-akas</i>
Motibatiboa	<i>-agaiti(k)</i>	<i>-akaiti(k)</i>
Ablatiboa bizidunekin	<i>-agandi(k)</i>	<i>-akandi(k)</i>
Adlatiboa bizidunekin	<i>-agana</i>	<i>-akana</i>
Hurbiltze adlatiboa biz.	<i>-aganantza</i>	<i>-akanantza</i>
Muga adlatiboa biz.	<i>-aganaño</i>	<i>-akanaño</i>

Argi ikusten denez, *-k* eta azentua dira pluralak identifikatzeko dauden markak.

Bizigabeen leku-denborazko deklinabide-kasuetan ezberdin jokatzen da pluralean eta mugagabeen *-ta-* agertzen zaigulako:

*atean* sg. vs *atetan* mgg. *ateatan* pl.  
*atera* sg. vs *atetara* mgg. *ateatara* pl.  
*atetik* sg. vs *atetatik* mgg. *ateatetik* pl.

Beraz, kasu hauetan plurala *-ata* da, eta mugagabeen ere marka bat agertuko zaigu: *-ta-*.

Orduan, plurala ezartze urrats hau ere kontuan hartu beharko dugu deklinabide arauetan.

- 1) Hitza.
- 2) Mugatu singularra bada, mugatu singularraren marka.
  - 2a) Leku-genitibo, ablatibo, adlatibo, norabide zuzenezko adlatibo eta muga adlatibo deklinabide-kasu singularrean ez da azalean agertzen.
- 3) Kontsonantez amaitzen bada, loturazko bokala.
  - 3a) Partitiboa bada eta bokalez amaitzen bada *-r-* kontsonantea da lotura.
- 4) Plurala bada pluralaren marka aukeraketa
  - 4a) Ergatiboa, datibo, jabego genitibo eta destinatiboa singularrean legez deklinatuko dira; euren plural marka azentua baita
  - 4b) Absolutiboaren, sozietiboaren, motibatiboaren eta bizidunen leku-denborazko kasuen plurala *-ak* da.
  - 4c) Bizigabeen leku-denborazko kasuen plurala *-ata*.
- 5) Mugatua bada, mugatuaren marka (bizigabeen leku-denborazko kasuek baino ez daramate, eta *-ta-* da)
- 6) Deklinabide atzizkia(k).

Har ditzagun berba pare bat urrats hauek baieztatzeko:

a) Mugatu plurala *ateatan*

Urratsak:

- 1) Hitza: *ate*
- 2) Ez da sg.: *ate*
- 3) Ez da kontsonantez amaitzen: *ate*
- 4) Pluralaren marka *ate + ata > ateata*
- 5) Ez da mugagabea
- 6) Deklinabide atzizkia *ateata + n > ateatan*

b) Mugagabea *gixonagana*

Urratsak:

- 1) Hitza: *gixon*
- 2) Ez da sg.: *gixon*
- 3) Loturazko bokala *gixon + -a- > gixona*
- 4) Ez da pl.: *gixona*
- 5) Mugagabea bada ere ez da bizigabeen leku-denborazkoa
- 6) Deklinabide atzizkia *gixonaga + -na > gixonagana*

### 3.4.5. Deklinabide-kasuak

Hitzak deklinatzeko urratsak aztertu ondoren beharrezkoa zaigu laburtzea eta aztertzea banan-banan urrats bakoitzeko morfemak. Horrela, honako morfema hauek dauzkagu:

- a) *-a-*: Mugatu singularraren marka.
- b) Loturazko bokalak eta kontsonantea.
  - b1) *-a-*: Loturazko bokala izen eta adjektiboetan.
  - b2) *-e-*: Loturazko bokala izen propioetan.
  - b3) *-r-*: Loturazko kontsonantea bokalez amaitzen diren partitiboetan.
- c) *-ak-*: Absolutiboak, sozietiboak, motibatiboak eta leku-denborazko bizidunek pluralean daukaten marka.

- d) *-ata-*: Leku-denborazko bizigabeek pluralean daukaten marka.
- e) *-ta-*: Leku-denborazko bizigabeek mugagabeen daukaten marka.
- f) Deklinabide atzizkiak.

Deklinabide atzizkiak benetan zeintzuk diren jakiteko, aurreko deklinabide-kasu taula nagusira jo beharko dugu, eta arestian aipatu ditugun morfemak kenduz, geratu beharko litzaizkiguke deklinabide-kasu bakoitzaren atzizkia, bai mugagabeen bai mugatu singularrean eta baita mugatu pluralean ere<sup>58</sup>.

DEKLINABIDE-KASUA	ATZIZKI MORFEMA
Absolutiboa	-Ø
Ergatiboa	-k
Datiboa	-ri
Partitiboa	-ik
Jabego genitiboa	-n
Soziatiboa	-gas
Motibatiboa	-gaiti(k)
Destinatiboa	-ntzat / -ntzako
Instrumentala	-s
Prolatiboa	-tzat
Inesiboa	-n
Leku-genitiboa	-ko
Ablatiboa	-ti(k) / -rik
Adlatiboa	-ra
Hurbiltze adlatiboa	-rantza
Muga adlatiboa	-raño
Destinatibo adlatiboa	-rako
Inesiboa bizidunekin	-gas
Ablatiboa bizidunekin	-gandi(k)
Adlatiboa bizidunekin	-gana
Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	-ganantza
Muga adlatiboa bizidunekin	-ganaño

### 3.4.6. Azentu ezarketa

Behin deklinabidea ezarriz gero, azentu ezarketa gauzatzen da. Igorreko euskaran azentua ez da tonala, hitz mugatu (flexiodun) guztiak azentudunak direla, hau da, silaba bat besteak baino altuagoa dela unitate azentugarrian (Iglesias 2008); eta honez gain, esan behar dugu azentua bereizgarria ere badela; hots, plurala eta singularra kasuak azentuaren bidez bereizten direla.

Hualdek bere 1997ko lanean euskal azentua banatu zuen lau taldetarik Igorrekoa Mendebaldeko zenbait sistema bereziren artean kokatu beharko genuke. Hualdek sistema berezia aipatzen duenean, gure ustez esan nahi duena da erregela asko eta salbuespen asko dagoela sistema hau azaltzerako orduan.

<sup>58</sup> Kontuan hartu behar dugu leku-denborazko kasuek inesiboa daukatela oinarri eta, ondorioz, kasu bat baino gehiago batzen dela.

Hau da erregela nagusien laburpena<sup>59</sup> azentua ezartzeko Igorreko euskaran:

a. Oinarri markatugabeen mugagabea:

Azentua hitz erroaren azken silaban txertatzen da<sup>60</sup>:

*iru neská dires, lau gixón dires, iru alabá dires, lau bersolarí dires...*

b. Oinarri markatugabeen singularra:

Kasu honetan arestian aipatu dugun bezala bi sail ezberdin bereiztu behar ditugu.

1) oinarri silababakarra edo bisilabaduna bada, azentua mugatzailearen gainean txertatzen da:

*lurré da, neskeá da, gixonári, astoári, neskeána...*

2) oinarri bisilabaduna baino luzeagoa denean, azentua oinarriaren azken silaban txertatzen da:

*alabéa, abadéa, bersolaríe, alabéari, abadéagana, bersolaríegas...*

c. Oinarri markatugabeen plurala:

Azentua singularrean baino silaba bat ezkeralderago txertatzen da:

*gixónari, abádeagana, bersoláriek, gixónakas...*

d. Salbuespenak<sup>61</sup>:

1) Atzizki eta oinarri markatuak.

Hitz zein atzizki batzuek azentua oinarriaren silaba berean daramate paradigmazehar, singularrean, pluralean eta mugagabeen.

2) Inesibo, ablatibo eta leku-genitibo kasuak.

Kasu hauek markatuak dira, azentu aurreratzailerik atzizkiak dira.

3) '-a'z amaitutako berbak.

'-a'z amaitzen diren berbetan, pluralean azentua silaba bat ezkererago mugitu barik silaba bi mugitzen da.

### 3.4.7. Arau fonologikoak

Hizkera honetan bi dira gauzatzen diren arau fonologikoak:

a) Bustidura

b) a > e / i, u, (C)\_\_\_

Beraz, hitzak deklinatzerako orduan azken bi urrats hauek ere, hau da, azentua eta arau fonologikoak, kontuan hartu beharko ditugu:

<sup>59</sup> Sakonago aztertzeke ikusi azentuaren atala.

<sup>60</sup> Kontsonantez amaitzen bada loturazko bokalean ezarriko da: *sein gixonák éin deu?*

<sup>61</sup> Sakontzeke eta adibideak ikusteko ikusi azentuaren atala.

- 1) Hitz.
- 2) Mugatu singularra bada, mugatu singularraren marka.
- 2a) Leku-genitibo, ablatibo, adlatibo, norabide zuzenezko adlatibo eta muga adlatibo deklinabide-kasu singularrean ez da azalean agertzen.
- 3) Kontsonantez amaitzen bada, loturazko bokala.
- 3a) Partitiboa bada eta bokalez amaitzen bada, *-r-* kontsonantea da lotura.
- 4) Plurala bada pluralaren marka aukeraketa.
- 4a) Ergatiboa, datiboa, jabego genitiboa eta destinatiboa singularrean legez deklinatuko dira; euren plural marka azentua baita
- 4b) Absolutiboaren, soziatiboaren, motibatiboaren eta bizidunen leku-denborazko kasuen plurala *-ak* da
- 4c) Bizigabeen leku-denborazko kasuen plurala, *-ata*
- 5) Mugatua bada, mugatuaren marka (bizigabeen leku-denborazko kasuek baino ez daramate, eta *-ta-* da).
- 6) Deklinabide atzizkia(k).
- 7) Azentu ezarketa.
- 8) Arau fonologikoak.

### 3.4.8. Azentu ezarketaren eta arau fonologikoaren hurrenkeraz

Aurreko bi ataletan deklinatze bi urrats gehiago aipatu ditugu; hots, azentu ezarketa eta arau fonologikoak. Eta hurrenkera jakin batean eman ditugu azalpenak edo frogak eman barik. Egia esan, hurrenkeraren aldetik oso zaila da esatea zein gauzatu den lehenago.

Hala ere, ‘*a > e / i,u, (C)\_\_\_*’ arauak eta azentu ezarketan ‘*-a*’ z amaitzen diren hitzek dauzkaten arauak pista garrantzitsu bat eman diezagukete. Ikus dezagun *mórsillek* eta *kútxillek* hitzetan zer gertatzen den:

Hitz hauek ‘*-a*’ z amaitzen dira, beraz pluralean silaba bi ezkererago txertatu behar da azentua, hau da, *alabéa* ---> *álabak*.

Erdal maileguez, oro har, jatorrizko azentua gorde dute bai singularrean bai pluralean: *teléfonoa* ---> *teléfonoak*. Baina salbuespenean argitzen den legez erdal maileguetan ere, ‘*-a*’ z amaitzen badira, mugitzen da azentua: *kutxille* ---> *kútxillek*, *morsille* ---> *mórsillek*.

Orduan, adibide hauek erakusten digute azentua lehenago gauzatzen dela arau fonologikoa baino:

- |                         |                                                                |
|-------------------------|----------------------------------------------------------------|
| 6) Deklinabide atzizkia | <i>kutxilla + k &gt; kutxillak</i>                             |
| 7) Azentu ezarketa      | <i>kútxillak</i> (mugitzen da ‘ <i>-a</i> ’ z amaitzen delako) |
| 8) Arau fonologikoak    | <i>kútxillek</i> ( <i>a &gt; e / i,u, (C)___</i> )             |

Aldrebes gauzatuko balitz:

- |                               |                                                    |
|-------------------------------|----------------------------------------------------|
| 6) Deklinabide atzizkia       | <i>kutxilla + k &gt; kutxillak</i>                 |
| 7) Arau fonetiko fonologikoak | <i>kútxillek</i> ( <i>a &gt; e / i,u, (C)___</i> ) |



- 8) Azentu ezarketa \**kutxillek* (erdal azentua mantenduz, ez delako ‘-a’z amaitzen)

Beraz, kasu honetan azentu ezarketa lehenago gauzatzen bada besteak baino, pentsatzekoa da beste arau fonologikoak ere azentuaren ostean gauzatzen direla, baina zoritzarrez ez daukagu frogatzerik.

### 3.5. Izenordainak

Izenordainak izen berezizat jotzen dira ez dutelako mugatzailerik onartzen eta horrenbestez berek bakarrik osa dezaketelako izen-sintagma.

Hurrengo puntuetan pertsona izenordainak, izenordain zehaztugabeak eta bihurkariak eta elkarkariak aztertuko ditugu.

#### 3.5.1. Pertsona izenordainak

Pertsona izenordainak modu honetan banatzen dira:

	Singularra	Plurala
1. pertsona	Ni	Gu
2. pertsona	Hi Zu Berori	Zuek Berorrek
3. pertsona	Bera	Eurek

**Oharra:** hurrengo tauletan izenordain indartuetan -eu- diptongoa agertzen den arren, hau da, *néu, séu, géu...*, aipatu behar da -au- diptongoa ere, *náu, sáuek, gáu...*, entzun dezakegula hizkera honetan.

Ikus ditzagun ondorengo tauletan pertsona izenordainen adibideak.

3.5.1.1. *Ni*

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZENORDAINA	INDARTUA
Ni	Absolutiboa	ni	néu
Ni	Ergatiboa	nik	néuk
Ni	Datiboa	nirí	neurí
Ni	Jabego genitiboa	niré	neuré
Ni	Soziatiboa	níges	néuges
Ni	Motibatiboa	nigéiti(k)	neugéiti(k)
Ni	Destinatiboa	nítzat/-tzáko	néutzat/-tzáko
Ni	Instrumentala	-----	-----
Ni	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Ni	Ablatiboa bizidunekin	nigándi(k)	neugándi(k)
Ni	Adlatiboa bizidunekin	nigána	neugána
Ni	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	nigánantza	neugánantza
Ni	Muga adlatiboa bizidunekin	nigánaño	neugánaño

3.5.1.2. *I*

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZENORDAINA	INDARTUA
Hi	Absolutiboa	i	éu
Hi	Ergatiboa	ik	éuk
Hi	Datiboa	irí	eurí
Hi	Jabego genitiboa	iré	euré
Hi	Soziatiboa	íges	éuges
Hi	Motibatiboa	igéiti(k)	eugéiti(k)
Hi	Destinatiboa	ítzat	éutzat
Hi	Instrumentala	-----	-----
Hi	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Hi	Ablatiboa bizidunekin	igándi(k)	eugándi(k)
Hi	Adlatiboa bizidunekin	igána	eugána
Hi	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	igánantza	eugánantza
Hi	Muga adlatiboa bizidunekin	igánaño	eugánaño

3.5.1.3. *Su*

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZENORDAINA	INDARTUA
Zu	Absolutiboa	su	séu
Zu	Ergatiboa	suk	séuk
Zu	Datiboa	surí	seurí
Zu	Jabego genitiboa	suré	seuré
Zu	Soziatiboa	súges	séuges
Zu	Motibatiboa	sugéiti(k)	seugéiti(k)
Zu	Destinatiboa	sútzat/-tzáko	séutzat/-tzáko
Zu	Instrumentala	-----	-----
Zu	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Zu	Ablatiboa bizidunekin	sugándi(k)	seugándi(k)
Zu	Adlatiboa bizidunekin	sugána	seugána

Zu	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	sugánantza	seugánantza
Zu	Muga adlatiboa bizidunekin	sugánaño	seugánaño

### 3.5.1.4. Berori

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	SINGULARRA	PLURALA
Berori	Absolutiboa	beróri	berórrek
Berori	Ergatiboa	berórrek	berórrek
Berori	Datiboa	berórreri	berórreri
Berori	Jabego genitiboa	berórren	berórren
Berori	Soziatiboa	berórregas	berórrekas
Berori	Motibatiboa	berórregaiti(k)	berórrekaiti(k)
Berori	Destinatiboa	berórrentzat/-tzako	berórrentzat/-tzako
Berori	Instrumentala	-----	-----
Berori	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Berori	Ablatiboa bizidunekin	berórregandi(k)	berórrekandi(k)
Berori	Adlatiboa bizidunekin	berórregana	berórrekana
Berori	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	berórreganantza	berórrekanantza
Berori	Muga adlatiboa bizidunekin	berórreganaño	berórrekanaño

### 3.5.1.5. Bera

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZEORDAINA	INDARTUA
Bera	Absolutiboa	berá	beráu
Bera	Ergatiboa	berák	berónek
Bera	Datiboa	berári	beróneri
Bera	Jabego genitiboa	beré(n)	berónen
Bera	Soziatiboa	berágas	berónegas
Bera	Motibatiboa	berágaiti(k)	berónegaiti(k)
Bera	Destinatiboa	berétzat/-tzako	berónentzat/-tzako
Bera	Instrumentala	-----	-----
Bera	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Bera	Ablatiboa bizidunekin	berágandi(k)	berónengandi(k)
Bera	Adlatiboa bizidunekin	berágana	berónengana
Bera	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	beréganantza	berónenganantza
Bera	Muga adlatiboa bizidunekin	beráganaño	berónenganaño

### 3.5.1.6. Gu

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZENORDAINA	INDARTUA
Gu	Absolutiboa	gu	géu
Gu	Ergatiboa	guk	géuk
Gu	Datiboa	gurí	geurí
Gu	Jabego genitiboa	guré	geuré
Gu	Soziatiboa	gúges	géuges
Gu	Motibatiboa	gugéiti(k)	geugéiti(k)
Gu	Destinatiboa	gútzat/-tzáko	géutzat/-tzáko
Gu	Instrumentala	-----	-----

Gu	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Gu	Ablatiboa bizidunekin	gugándi(k)	geugándi(k)
Gu	Adlatiboa bizidunekin	gugána	geugána
Gu	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	gugánantza	geugánantza
Gu	Muga adlatiboa bizidunekin	gugánaño	geugánaño

### 3.5.1.7. *Suek*

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZENORDAINA	INDARTUA
Zuek	Absolutiboa	súek	séuek
Zuek	Ergatiboa	súek	séuek
Zuek	Datiboa	suéri	séueri
Zuek	Jabego genitiboa	suén	seuén
Zuek	Soziatiboa	súekas	séuekas
Zuek	Motibatiboa	suékaiti(k)	seuékaiti(k)
Zuek	Destinatiboa	suéntzat/-tzako	seuéntzat/-tzako
Zuek	Instrumentala	-----	-----
Zuek	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Zuek	Ablatiboa bizidunekin	suékandi(k)	seuékandi(k)
Zuek	Adlatiboa bizidunekin	suékana	seuékana
Zuek	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	suékanantza	seuékanantza
Zuek	Muga adlatiboa bizidunekin	suékanaño	seuékanaño

### 3.5.1.8. *Suok* (Plural hurbila)

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZENORDAINA	INDARTUA
Zuek	Absolutiboa	súok	séuok
Zuek	Ergatiboa	súok	séuok
Zuek	Datiboa	súori	séuori
Zuek	Jabego genitiboa	suón	seuón
Zuek	Soziatiboa	súokas	séuokas
Zuek	Motibatiboa	suókaiti(k)	seuókaiti(k)
Zuek	Destinatiboa	suóntzat/-tzako	seuóntzat/-tzako
Zuek	Instrumentala	-----	-----
Zuek	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Zuek	Ablatiboa bizidunekin	suókandi(k)	seuókandi(k)
Zuek	Adlatiboa bizidunekin	suókana	seuókana
Zuek	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	suókanantza	seuókanantza
Zuek	Muga adlatiboa bizidunekin	suókanaño	seuókanaño

### 3.5.1.9. *Eurek*

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZEORDAINA	INDARTUA
Eurek	Absolutiboa	éurek	berónek
Eurek	Ergatiboa	éurek	berónek
Eurek	Datiboa	éureri	beróneri
Eurek	Jabego genitiboa	éuren	berónen
Eurek	Soziatiboa	éurekas	berónekas

Eurek	Motibatiboa	éurekaiti(k)	berónekait(k)
Eurek	Destinatiboa	éurentzat /-tzako	berónentzat /-tzako
Eurek	Instrumentala	-----	-----
Eurek	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Eurek	Ablatiboa bizidunekin	éurekandi(k)	berónekandi(k)
Eurek	Adlatiboa bizidunekin	éurekana	berónekana
Eurek	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	éurekanantza	berónekantza
Eurek	Muga adlatiboa bizidunekin	éurekanaño	berónekanaño

### 3.5.1.10. Eurok (Plural hurbila)

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZEORDAINA
Eurok	Absolutiboa	éurok
Eurok	Ergatiboa	éurok
Eurok	Datiboa	éurori
Eurok	Jabego genitiboa	éuron
Eurok	Soziatiboa	éurokas
Eurok	Motibatiboa	éurokaiti(k)
Eurok	Destinatiboa	éurontzat/-tzako
Eurok	Instrumentala	-----
Eurok	Inesiboa bizidunekin	-----
Eurok	Ablatiboa bizidunekin	éurokandi(k)
Eurok	Adlatiboa bizidunekin	éurokana
Eurok	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	éurokanantza
Eurok	Muga adlatiboa bizidunekin	éurokanaño

### 3.5.1.11. Izenordain indartuen erabilera

Forma indartuak kasu hauetan erabiltzen dira:

- a) Galdegai direnean kontrakotasuna markatzeko
  - *Neuk esan dotena*
  - *neuk esan dotzet*
  - *Gero Lutxanan be geu eon gintzesan*
- b) Galdegai ez denean kasu bi hauetan
  - b1) ‘Be’, ‘behintzat’ eta antzekoekin
    - *Bai, neupe atzo bateri esan neuntzen*
    - *Neupe ein dot, bai*
    - *Garratxa ta mingotza. Limoiari biek esan leion, neuretzako beintzet*
    - *onangoa ortxe deku geupe*
  - b2) ‘Ni neu’, ‘zu zeu’ eta antzekoetan
    - *Nineupardin diñotzut*
    - *baserriko bisimodue gogorra nineuk dekot ikusite*
    - *Nineuk estot ein egundo bes*

Forma soilak erabiliko dira gainerako kasuetan:

- a) Ezezkoetan  
 - *nik estot asko aituten*  
 - *suk estosu entenidu esan dotzune*
- b) Zati-galderetan  
 - *Lastana, ba, su nongoa sara?*  
 - *Guk ser ingu?*  
 - *Estosu pentzetan suk?*
- c) Bokatioetan  
 - *Su! geupe apurke-apurke urten in du, bai?*  
 - *Su, selan da ori gaubean sartzean san da?*

### 3.5.2. Izenordain zehaztugabeak

Izenordain zehaztugabeen artean galdetzaileak, galdetzaileetatik erakarritakoak eta bestelako izenordainak dauzkagu.

#### 3.5.2.1. Galdetzaileak

Hiru galdetzaile mota dauzkagu: nor, zer, zein eta bakoitzaren pluralak. Hurrengo puntuetan ikusiko dugu zelan deklinatzen diren eta euren erabilpena zein den.

##### 3.5.2.1.1. Nor / Nortzuk

Izenordain galdetzaile honek pertsoez galdetzeko baino ez du balio.

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	SINGULARRA	PLURALA
Nor-Nortzuk	Absolutiboa	nor	nórtzuk
Nor-Nortzuk	Ergatiboa	nok	nórtzuk
Nor-Nortzuk	Datiboa	norí	nórtzuri
Nor-Nortzuk	Jabego genitiboa	nóin/noná	nórtzun
Nor-Nortzuk	Soziatiboa	nógas	nórtzukas
Nor-Nortzuk	Motibatiboa	nogáiti(k)	nortzúgaiti(k)
Nor-Nortzuk	Destinatiboa	nóintzat	nortzúntzat
Nor-Nortzuk	Instrumentala	-----	-----
Nor-Nortzuk	Prolatiboa	nórtzat	nórtzuntzat
Nor-Nortzuk	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Nor-Nortzuk	Ablatiboa bizidunekin	nóingandi(k)	nórtzukandi(k)
Nor-Nortzuk	Adlatiboa bizidunekin	nogána	nortzúkana
Nor-Nortzuk	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	nogánantza	nortzúkanantza
Nor-Nortzuk	Muga adlatiboa bizidunekin	nogánaño	nortzúkanaño

**3.5.2.1.2. Ser / Sertzuk**

Izenordain honek pertsona ez direnez galdetzeko erabiltzen da.

<b>BERBAK</b>	<b>DEKLINABIDE-KASUA</b>	<b>SINGULARRA</b>	<b>PLURALA</b>
Zer-Zertzuk	Absolutiboa	ser	sértzuk
Zer-Zertzuk	Ergatiboa	sek	sértzuk
Zer-Zertzuk	Datiboa	serí	sértzuri
Zer-Zertzuk	Partitiboa	sérik	-----
Zer-Zertzuk	Jabego genitiboa	sen	sértzun
Zer-Zertzuk	Soziatiboa	ségas	sértzukas
Zer-Zertzuk	Motibatiboa	segáiti(k)	sértzúkaiti(k)
Zer-Zertzuk	Destinatiboa	séntzat	sértzuntzat
Zer-Zertzuk	Instrumentala	-----	-----
Zer-Zertzuk	Prolatiboa	sértzat	sértzutzat
Zer-Zertzuk	Inesiboa	sétan	sértzután
Zer-Zertzuk	Leku-genitiboa	seréko	-----
Zer-Zertzuk	Ablatiboa	setáti(k)	sértzutati(k)
Zer-Zertzuk	Adlatiboa	setára	sértzutara
Zer-Zertzuk	Hurbiltze adlatiboa	serérantza	sértzútarantza
Zer-Zertzuk	Muga adlatiboa	seréraño	sértzútaraño

**3.5.2.1.3. Sein / Seintzuk**

Izenordain honek pertsona ez direnez galdetzeko erabiltzen da.

<b>BERBAK</b>	<b>DEKLINABIDE-KASUA</b>	<b>SINGULARRA</b>	<b>PLURALA</b>
Zein-Zeintzuk	Absolutiboa	sein	séintzuk
Zein-Zeintzuk	Ergatiboa	señek	séintzuk
Zein-Zeintzuk	Datiboa	señeri	séintzuri
Zein-Zeintzuk	Partitiboa	señik	-----
Zein-Zeintzuk	Jabego genitiboa	señén	séintzun
Zein-Zeintzuk	Soziatiboa	señégas	séintzukas
Zein-Zeintzuk	Motibatiboa	señégaiti(k)	seintzúkaiti(k)
Zein-Zeintzuk	Destinatiboa	señéntzat	séintzuntzat
Zein-Zeintzuk	Instrumentala	-----	-----
Zein-Zeintzuk	Inesiboa	señétan	séintzután
Zein-Zeintzuk	Leku-genitiboa	señétako	seintzútako
Zein-Zeintzuk	Ablatiboa	señétati(k)	seintzútati(k)
Zein-Zeintzuk	Adlatiboa	señétara	seintzútara
Zein-Zeintzuk	Hurbiltze adlatiboa	señétarantza	seintzútarantza
Zein-Zeintzuk	Muga adlatiboa	señétaraño	seintzútaraño
Zein-Zeintzuk	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Zein-Zeintzuk	Ablatiboa bizidunekin	señégandi(k)	seintzúkandi(k)
Zein-Zeintzuk	Adlatiboa bizidunekin	señégana	seintzúkana
Zein-Zeintzuk	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	señéganantza	seintzúkanantza
Zein-Zeintzuk	Muga adlatiboa bizidunekin	señéganaño	seintzúkanaño

### 3.5.2.2. Galdetzaileetatik erakarritako izenordain zehaztugabeak

Hasteko, aipatu behar da zenbait izenordainen galera, hala nola, ‘nor bait’, ‘norgura’ eta ‘zein edo zein’. Era berean, eta guztiz galduta ez badaude ere, *serbait*, *sergure* eta *seingure* izenordainak hitzun askok ez ditu ezagutzen edo ezagutzen dituztenek gutxitan, eta askotan era nahasian, erabiltzen dituzte. Adibide moduan aipatuko dut *serbait* izenordainaren adibide bakarra topatu dudala.

Erabileraren aldetik esan behar da banaketa argia dagoela: izenordain batzuk pertsona direnentzat dira eta beste batzuk pertsona ez direnentzat.

#### 3.5.2.2.1. *Serbait*

Adibide bakarra batu arren, esan dezakegu *serbait* izenordain mugagabea dela erreferentzia zehatzik ez duelako eta pertsona ez direnekin erabiltzen dela.

- *Serbait*  
- *Seanin, sinenbargo, beste serbait yaok*

#### 3.5.2.2.2. *Seoser / Nonor / Batonbat*

*Seoser*, *nonor* eta *batonbat* ere izenordain mugagabeak dira erreferentzi zehatzik ez dutelako.

*Seoser* pertsona erreferentzia ez denean erabiltzen da.

*Nonor* eta *batonbat*, pertsona erreferentzia denean erabiltzen dira.

- *Seoser*  
- *da yan taloagas bakon, txorisoa edo seoser*  
- *Seanin edo olan kanbieu lei seoser*  
- *Badeukosu seoser?*  
- *onek katea edo olango seoser eroango deurie*  
- *Bada seoser?*  
- *Bursile edo olako seoser?*
- *Nonor*  
- *nonor etorri de?*  
- *nonor eon da geur*
- *Batonbat*  
- *Baton bat etorri de*  
- *baton bat etorri de ala?*

#### 3.5.2.2.3. *Edoser / Edosein / Edonor*

*Edoser*, *edosein* eta *edonor* izenordainak askoren artean aukera uzten denean erabiltzen dira.

*Edoser* pertsona ez direnekin erabiltzen da.

*Edosein* pertsona ez direnekin zein pertsona direnekin erabiltzen da.

*Edonor* pertsona direnekin erabiltzen da.



- *Edoser*
  - *edoser eingo neuke*
  - *orregas edoser in lei*
- *Edosein*
  - *edoseñek eseuen yakin*
  - *edoseñek es euen yakiten a manajetan gero*
  - *Orretan be fuerte beada edosein*
  - *Klaro, ta komuniñoa segidun emoten deurie, edoseñek komuniñoa emoten deu*
  - *Ori esteu eiten edoseñek gero*
- *Edonor*
  - *edonok ein leike*
  - *edonor ixin lei*

#### 3.5.2.2.4. *Sergure / Seingure*

Lehen aipatu dugunez, izenordain hauek gutxitan, eta, gehienetan, era nahasian, erabiltzen dira. Hala ere, esan dezakegu *sergure* eta *seingure* izenordainak askoren artean aukera uzten denean ere erabiltzen direla.

*Sergure* pertsona ez direnekin erabiltzen da.

*Seingure* pertsona ez direnekin zein pertsona direnekin erabiltzen da.

- *Sergure*
  - *sergure artu*
- *Seingure*
  - *seingure artu seinke*

Askotan era nahasian erabiltzen da:

- *Gero seuk elejidu, seinguresun sartu*
- *Seinguresune artu seinke*

#### 3.5.2.2.5. *Eser / Iñor*

*Eser* eta *iñor* izenordain mugagabeak dira baina hauek erabiltzen dira perpausean ezeztapen elementuren bat agertzen denean.

*Eser* pertsona ez direnekin erabiltzen da.

*Iñor* pertsona direnekin erabiltzen da.

- *Eser*
  - *Oin fabrike dana da, Igorren be esan eon eser serrea baño*
  - *Ortik atara, bai, eser?*
  - *eser emon barik*
  - *eneuen topau eser*
  - *es euen esaten esebes*
  - *onik es eukien erruedarik eta es eukien esebes*

- *Iñor*
  - *Estotzie iñori emoten*
  - *iñor bisi esik etzea yausi iten da*
  - *oin oñes estabil iñor*
  - *aipaña obeto iñor estona bisiten*
  - *ilunetan esan ikusten e iñor bes*
  - *ik iñor estok bear txarrilteko*
  - *Aren be esta eskondu iñor?*

### 3.5.2.2.6. *Nobera*

*Noberak* ‘bakoitzaren’ esanahi berdintsua dauka eta pertsona direnekin erabiltzen da.

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZENORDAINA
Norbera	Absolutiboa	nobéra
Norbera	Ergatiboa	nobérak
Norbera	Datiboa	nobérari
Norbera	Jabego genitiboa	nobére
Norbera	Soziatiboa	nobéragas
Norbera	Motibatiboa	nobéragaiti(k)
Norbera	Destinatiboa	nobérentzat/-tzáko
Norbera	Instrumentala	-----
Norbera	Inesiboa bizidunekin	-----
Norbera	Ablatiboa bizidunekin	nobéragandi(k)
Norbera	Adlatiboa bizidunekin	nobéragana
Norbera	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	nobéraganantza
Norbera	Muga adlatiboa bizidunekin	nobéraganaño

Adibideak:

- *Su, kasu beten, nobera... por ejemplo, kamiño bat pasaten da solo bateti, ba, a soloa, kamiñoa pasaten dana, ereiten badosu, a erruedena markeute klabau eongo da*
- *Es aite, beres noberak maneju geyao... nineuk ikisi be eneuen ein sekule*
- *noberak eukitea beste gause bata*
- *noberak gure badeu, igual erregeu iten da kapritxon bat badeko ereiteko seoser*
- *Ori de noberen mobimientue, noberen organisasiñoa da ori*
- *ba, emetik eurrerantz, iturren, eta nobera oneri agarreu*
- *Odola noberak balde batera, erein eiten gindun, olantxik*
- *ta emetik goatu noberak apurtxu bet sertzeko, manejetako, asko ibili gara onegas*
- *emen eukiteuen malletako katxarro bat, eukiko deu, da orreri emoten yakon noberak gure deuen gradue*
- *da a gantxoa txarriepeti atzerantz eiten deuena les noberak eurrera, onantza ein eskero, noberan alderdirantza*
- *Eureri esan berbas, noberak personari eiten dotzen moduen*
- *au eitesan atzetik gieu noberak*

## 3.5.2.2.7. Erabilera

	Galderetan	Baiezkoetan	Ezezkoetan
<i>Serbait</i> <sup>62</sup>	?	+	?
<i>Seoser</i>	+	+	-
<i>Nonor</i>	+	+	-
<i>Batonbat</i>	+	+	-
<i>Edoser</i>	-	+	+
<i>Edosein</i>	-	+	+
<i>Edonor</i>	-	+	+
<i>Sergure</i>	-	+	-
<i>Seingure</i>	-	+	-
<i>Eser</i>	+	+	+
<i>Iñor</i>	+	+	+
<i>Nobera</i>	+	+	+

## 3.5.2.3. Bestelako izenordain zehaztugabeak

Hurrengo puntuetan ‘arean’ eta ‘beste’ izenordain zehaztugabeen erabilera aztertuko dugu.

## 3.5.2.3.1. Arean

Duda barik, *arean* izenordaina izan da arazo gehien eman duena sailkatzerako orduan oso gramatika gutxitan agertzen baita. Erabilera eremuaren aldetik badirudi, sakonki aztertzeke baitago, *arean* Bizkaiko mendebaldean baino ez dela erabiltzen. Esanahiaren aldetik honela dio Azkuek (1969a) 4. sarreran:

“4° (B-a), algo, quelque chose. AREAN IKUSI (B-a-ts), ver algo, voir quelque chose = se usa también negativamente como sinonimo de IÑOR y EZER. S’ emploie aussi négativement, comme synonyme de IÑOR et EZER. AREANEK EZTAU EGIN, nadie lo ha hecho, personne ne l’a fait.”

Egia esan, gaur egun ‘*areanek eztau egin*’ moduko esaldiak ez dira erabiltzen, Igorreko gaurko hiztunek ez dute pertsonentzat onartzen; hau da, Azkuek aipatzen duen ‘inor’-en sinonimo lez. Ez esanahi hori, ezta jarraian Azkuek proposatzen duen moldea:

“...AREAN EZTAGO, no hay nada, il n’y a rien.”

Gaur egun esaldi hori modu honetara esaten da Igorren: ‘*estao árean bes*’ Igorreko hiztunek, ordea, duda barik onartzen dituzte jarraian Azkuek ematen dituen adibideak (Azkuek adibide hauetan, besteetan ez bezala, iturria aipatzen du. Adibide bat Diman batutakoa da, eta bestea Añibarrorena, Arratiako Areatzan jaioa):

“GURE KATUAK GAUR BOST LIBRA OKELA JAN DITU, NAUK BARRIZ AREAN BERE EZ (B-a-dima): nuestro gato ha comido hoy cinco libras de carne, pero yo absolutamente nada: notre chat a mangé aujourd’hui cinq livres de viande, et moi rien du tout. EZ AMARI EZ SEMEARI EZTEUTSE GIZONAK ERRUKIRIK AREAN ARTUTEN: ni á la Madre ni

<sup>62</sup> Adibide bakarra batu dudanez, ezin dut zehaztu erabilera.

al Hijo no le tienen pizca de compasión los hombres: les hombres n'ont pitié ni de la Mère, ni du filis. (Añ.195-12)”

Beraz, *arean*-ek gaur egun daukan esanahia ‘zer edo zer’, ‘apur bat’, ‘zertxobait’ eta ezezko perpausetan ‘ezer ere ez’-ek daukaten parekoa litzateke.

Eta erabileraren aldetik multzo bitan sailkatuko dut:

- a) Izenordain zehaztugabea legez
- b) Zenbatzaile zehaztugabea legez (ikus 3.6.2.2.11.)

Izenordain zehaztugabea legez ‘arean’ galderetan eta baiezko zein ezezko esaldietan erabiltzen da. Hori bai, ezezko esaldietan *arean*-ek ‘*be ez*’ baino ez du onartzen:

- *árean bes*
- \* “*árean es*”

Adibideak:

- *Badao kokakolarik? Arean-arean badao.*
- *Badekosu madaririk? Arean bai.*
- *badekosu sagarrik? Arean bes.*
- *arean badekosu?*
- *esta bear arean*
- *urtean arean koyu de*
- *Au, baño au ixingo da asko be lenaoko sera, se nik estot egundo ikusi te. Arean onepe badeko onen tipoa be badeko*
- *Altxetan dosus gora onepiek, parean ifiñi, ifiñi parean ta parean yoten bosus, bean arean lotzean yatzus, da gero erain eskuakas berantza inderra einde, da gero kdarakas alboratu orduen*<sup>63</sup>

### 3.5.2.3.2. Beste

Nahiz eta ‘beste’ gehienetan determinatzaile modura erabili, izenordain gisa ere erabiltzen da.

‘Beste’ galderetan eta baiezko zein ezezko esaldietan erabiltzen da:

- *Baten ankea apurtute eon nintzen, eseuela eukin besterik; antxe lotu bet, antxe lotu bet geu beten lo iten*
- *besterik esan barik*
- *txarto parau sen da eneuen eskatu besterik, sikan bere urtegune eldu ditela*
- *Ta esteko besterik?*
- *besteak ein deu*

### 3.5.3. Bihurkariak eta elkarkariak

Hiru dira hizkera honetako bihurkariak eta elkarkariak: ‘X-en burua’, ‘arkal’ eta ‘bata beste’.

<sup>63</sup> Laiei buruz hitz egiten ari da.

**3.5.3.1. X-en burua**

Perpauk baten barruan bi izen-sintagma erreferentziakideak direnean, bigarren izen-sintagmak izenordain bihurtzeko forma hartzen du: pertsona izenordain indartu + burua.

- *bere burue bota euen*
- *bere burue il euen*

**3.5.3.2. Arkal**

*Arkal* izenordain elkarkari edo erreziprokoa dugu. Berak bakarrik osatzen du izen-sintagma; beraz, ez du mugatzailerik onartzen eta deklinabideko kasu-markak hartzen ditu.

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	IZENORDAINA
Elkar	Absolutiboa	arkál
Elkar	Datiboa	arkáleri
Elkar	Soziatiboa	arkálegas
Elkar	Destinatiboa	arkálentzat/-tzáko
Elkar	Instrumentala	-----
Elkar	Inesiboa bizidunekin	-----
Elkar	Ablatiboa bizidunekin	arkálegandi(k)
Elkar	Adlatiboa bizidunekin	arkálegana
Elkar	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	arkáleganantza
Elkar	Muga adlatiboa bizidunekin	arkáleganaño

Adibideak:

- *Layetan eiten gindun, ba, ortue, por ejemplo, ortue patata ereiteko eta da arkal lagundute, arkal lagundute igual lau enbra ta gixon*
- *lenao jenteak ausoak arkal lagunta eukien*

Dena den, sarri askotan ikusten dira ‘ikusiko gara’ren moduko ‘elkar’en ordezkotzat edota forma bien arteko nahasketa.

- *danak ara batu sirean da, klaro, jente gustie an ikusten san, arkal ikusten gindun*
- *abisetan gara emen arkal danok*

**3.5.3.3. Bata beste**


‘Elkar’ren modukoa den ‘bata beste’ forma ere erabiltzen da.

Adibideak:

- *Abarketa suriek eta fraka suriek batapesteari lagunartean kendu bebai*
- *Guk umeak eiten gendun, ba, pañuelutxu beten ifiñi asa gorri beten morsillek, batapesteari entregeu, da gero igual emoten oskuen ikopasak edo pesetatxu bet edo ogorlokotxu bet, ene!*

### 3.6. Determinatzaileak

Determinatzaileak hiru multzotan banatuko ditugu: mugatzaileak, zenbatzaileak eta determinatzaile zehaztugabeak. Mugatzaileen artean artikulua eta erakusleak ikusiko ditugu. Zenbatzaileen multzoan zenbatzaile zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak ikusiko ditugu.



10.eskema. Determinatzaileen banaketa

#### 3.6.1. Mugatzaileak

Mugatzaileen artean artikulua eta erakusleak aurkitzen ditugu. Determinatzaile mugatzaile hauek singularra edo plurala adierazten dute.

##### 3.6.1.1. Artikulua

Artikulu bi daude: *-a* eta *-o*. *-a*, mugatzaile neutroa, ez markatua, nolabait esatearren, eta mugatzaile hurbila, *-o*, lehen edo bigarren pertsonari dagokiona eta izen-sintagma plurala denean baino ez dena erabiltzen. izen-sintagma singularra denean *-a* da aukera bakarra. Hala eta guztiz ere, '*ementxe bertan*' moduko singularreko formak oraindik ere bizirik daude.

Artikulua hitzaren ostean kokatzen da beti: hitza + artikulua.

##### 3.6.1.2. Erakusleak

Hitzak esaten duen moduan erakusleak zerbait erakusteko, seinalatzeko, erabiltzen dira. Hurrengo puntuetan azalduko dugu erakusleen erroak eta formak zeintzuk diren, erakusle indartuak zelan eratzen diren eta erakusleen funtzioa eta lekua zein den.

##### 3.6.1.2.1. Erakusleen erro eta formak

Erakusleen formari dagokionez, eta deklinabide tauletan ikus daitekeenez, erakusle bakoitzak, singularrean, bi erro itxuraz desberdin ditu:

<i>au</i>	<i>ori</i>	<i>a</i>
<i>on-</i>	<i>or-</i>	<i>ar- / a-</i>

1. gradua: au

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	SINGULARRA	PLURALA
Hau	Absolutiboa	áú	ónek/ón(e)ik
Hau	Ergatiboa	onék	ónek/ón(e)ik
Hau	Datiboa	onéri	óneri/ón(e)iri
Hau	Jabego genitiboa	onén	ónen/ón(e)in
Hau	Soziatiboa	onégas	ónekas/ón(e)ikas
Hau	Motibatiboa	onégaiti(k)	ónekaiti(k)/ón(e)ikaiti(k)
Hau	Destinatiboa	onéntzat/-tzako	ónentzat/ón(e)intzat/-tzako
Hau	Instrumentala	-----	-----
Hau	Inesiboa	onétan	ónetan/ón(e)itan
Hau	Leku-genitiboa	onétako	ónetako/ón(e)itako
Hau	Ablatiboa	onétati	ónetati/ón(e)itati
Hau	Adlatiboa	onétara	ónetara/ón(e)itara
Hau	Hurbiltze adlatiboa	onétarantza	ónetarantza/ón(e)itarantza
Hau	Muga adlatiboa	onétaraño	ónetaraño/ón(e)itaraño
Hau	Destinatibo adlatiboa	onétarako	ónetarako
Hau	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Hau	Ablatiboa bizidunekin	onégandi(k)	ónekandi(k) /ón(e)ikandi(k)
Hau	Adlatiboa bizidunekin	onégana	ónekana/ón(e)ikana
Hau	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	onéganantza	ónekanantza/ón(e)ikanantza
Hau	Muga adlatiboa bizidunekin	onéganaño	ónekanaño/ón(e)ikanaño

2. gradua: ori

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	SINGULARRA	PLURALA
Hori	Absolutiboa	orí	órrek/órr(e)ik
Hori	Ergatiboa	orrék	órrek/órr(e)ik
Hori	Datiboa	orréri	órreri/órr(e)iri
Hori	Jabego genitiboa	orrén	órren/órr(e)in
Hori	Soziatiboa	orrégas	órrekas/órr(e)ikas
Hori	Motibatiboa	orrégaiti(k)	órrekaiti(k) /órr(e)ikaiti(k)
Hori	Destinatiboa	orréntzat/-tzako	órrentzat/órr(e)intzat/-tzako
Hori	Instrumentala	-----	-----
Hori	Inesiboa	orrétan	órretan/órr(e)itan
Hori	Leku-genitiboa	orrétako	órretako/órr(e)itako
Hori	Ablatiboa	orrétati(k)	órretati(k) /órr(e)itati(k)
Hori	Adlatiboa	orrétara	órretara/órr(e)itara
Hori	Hurbiltze adlatiboa	orrétarantza	órretarantza/órr(e)itarantza
Hori	Muga adlatiboa	orrétaraño	órretaraño/órr(e)itaraño
Hori	Destinatibo adlatiboa	orrétarako	órretarako/órr(e)itarako
Hori	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Hori	Ablatiboa bizidunekin	orrégandi(k)	órrekandi(k) /órr(e)ikandik
Hori	Adlatiboa bizidunekin	orrégana	órrekana/órr(e)ikana
Hori	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	orréganantza	órrekanantza/órr(e)ikanantza
Hori	Muga adlatiboa bizidunekin	orréganaño	órrekanaño/órr(e)ikanaño

## 3. gradua: a

BERBAK	DEKLINABIDE-KASUA	SINGULARRA	PLURALA
Hura	Absolutiboa	a	áik/árek
Hura	Ergatiboa	ak/arék	áik/árek
Hura	Datiboa	aréri	áiri/áleri
Hura	Jabego genitiboa	arén	áin/áren
Hura	Soziatiboa	arégas	áikas/áre(i)kas
Hura	Motibatiboa	arégaiti(k)	áiketi(k)
Hura	Destinatiboa	aréntzat/-tzako	áintzat/-tzako /árentzat/-tzako
Hura	Instrumentala	-----	-----
Hura	Inesiboa	átan	áitan/áretan
Hura	Leku-genitiboa	atáko	áitako/áre(i)tako
Hura	Ablatiboa	atáti(k)	áitati(k)
Hura	Adlatiboa	atára	áitara
Hura	Hurbiltze adlatiboa	atárantza	áitarantza
Hura	Muga adlatiboa	atáraño	áitaraño
Hura	Destinatibo adlatiboa	atáramento	áitaramento
Hura	Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Hura	Ablatiboa bizidunekin	arégandi(k)	áikandi(k)
Hura	Adlatiboa bizidunekin	arégana	áikana/árekana
Hura	Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	aréganantza	áikanantza/árekanantza
Hura	Muga adlatiboa bizidunekin	aréganaño	áikanaño/árekanaño

3.6.1.2.2. Erakusle indartuak: *-xe / ber-*

Erakusle indartuak egiteko bi modu daude hizkera honetan: *-xe* atzizkia ezarriz eta *ber-* aurrizkia ezarriz.

- *-xe*  
*Au, ori* eta *a* formei indar handiagoa emateko, *-xe* atzizkia eransten zaie.

1. gradua indartua

DEKLINABIDE-KASUA	SINGULARRA	PLURALA
Absolutiboa	áuxe	ónexek/ón(e)ixek
Ergatiboa	onéxek	ónexek/ón(e)ixek
Datiboa	onéxeri	ónexeri/ón(e)ixereri
Jabego genitiboa	onéxen	ónexen/ón(e)ixen
Soziatiboa	onéxegas	ónexekas/ón(e)ixekas
Motibatiboa	onéxegaiti(k)	ónexekaiti(k)/ón(e)ixekaiti(k)
Destinatiboa	onéxentzat/-tzako	ónexentzat/ón(e)ixentzat/-tzako
Instrumentala	-----	-----
Inesiboa	onéxetan	ónexetan/ón(e)ixetan
Leku-genitiboa	onéxetako	ónexetako/ón(e)ixetako
Ablatiboa	onéxetati	ónexetati/ón(e)ixetati
Adlatiboa	onéxetara	ónexetara/ón(e)ixetara
Hurbiltze adlatiboa	onéxetarantza	ónexetarantza/ón(e)ixetarantza



Muga adlatiboa	onéxetaraño	ónexetaraño/ón(e)ixetaraño
Destinatibo adlatiboa	onéxetarako	ónexetarako
Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Ablatiboa bizidunekin	onéxegandi(k)	ónexekandi(k) /ón(e)ixekandi(k)
Adlatiboa bizidunekin	onéxegana	ónexekana/ón(e)ixekana

2.gradua indartua

DEKLINABIDE-KASUA	SINGULARRA	PLURALA
Absolutiboa	oríxe	órrexek/órr(e)ixek
Ergatiboa	orréxek	órrexek/órr(e)ixek
Datiboa	orréxeri	órrexeri/órr(e)ixeri
Jabego genitiboa	orréxen	órrexen/órr(e)ixen
Soziatiboa	orréxegas	órrexekas/órr(e)ixekas
Motibatiboa	orréxegaiti(k)	órrexekaiti(k) /órr(e)ixekaiti(k)
Destinatiboa	orréxentzat/-tzako	órrexentzat//órr(e)ixentzat-tzako
Instrumentala	-----	-----
Inesiboa	orréxetan	órrexetan/órr(e)ixetan
Leku-genitiboa	orréxetako	órrexetako/órr(e)ixetako
Ablatiboa	orréxetati(k)	órrexetati(k) /órr(e)ixetati(k)
Adlatiboa	orréxetara	órrexetara/órr(e)ixetara
Hurbiltze adlatiboa	orréxetarantza	órrexetarantza/órr(e)ixetarantza
Muga adlatiboa	orréxetaraño	órrexetaraño/órr(e)ixetaraño
Destinatibo adlatiboa	orréxetarako	órrexetarako/órr(e)ixetarako
Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Ablatiboa bizidunekin	orréxegandi(k)	órrexekandi(k) /órr(e)ixekandik
Adlatiboa bizidunekin	orréxegana	órrexekana/órr(e)ixekana
Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	orréxeganantza	órrexekanantza/órr(e)ixekanantza
Muga adlatiboa bizidunekin	orréxeganaño	órrexekanaño/órr(e)ixekanaño

3.gradua indartua

DEKLINABIDE-KASUA	SINGULARRA	PLURALA
Absolutiboa	áxe	áixek/árexek
Ergatiboa	áxek/aréxek	áixek/árexek
Datiboa	aréxeri	áixeri/árexeri
Jabego genitiboa	aréxen	áixen/árexen
Soziatiboa	aréxegas	áixekas/áre(i)xekas
Motibatiboa	aréxegaiti(k)	áixeketi(k)
Destinatiboa	aréxentzat/-tzako	áixentzat/-tzako /árexentzat/-tzako
Instrumentala	-----	-----
Inesiboa	áxetan	áixetan/árexetan
Leku-genitiboa	axetáko	áixetako/áre(i)xetako
Ablatiboa	axetáti(k)	áixetati(k)
Adlatiboa	axetára	áixetara
Hurbiltze adlatiboa	axetárantza	áixetarantza
Muga adlatiboa	axetáraño	áixetaraño
Destinatibo adlatiboa	axetárako	áixetarako

Inesiboa bizidunekin	-----	-----
Ablatiboa bizidunekin	aréxegandi(k)	áixekandi(k)
Adlatiboa bizidunekin	aréxegana	áixekana/árexekana
Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	aréxeganantza	áixekanantza/árexekanantza
Muga adlatiboa bizidunekin	aréxeganaño	áixekanaño/árexekanaño

- *Ber-*

‘Ber-‘ aurrizkia erakusleei eransten zaie zerbait berriro azaldu nahi denean. Bakarrik eta aurrean erakuslea duela erabil daiteke.

Adibideak:

- *Baya beronek ixin deu, se onek iru operasiño dekos*
- *Au kamiñoa berau ibili sen*
- *Onek, beronek balio euen estudietako*
- *Yoan gintzesan, or beko etzean, orra nik yoan bear ixiten neuen odola artzean, se beronek ilten seuen*
- *Ori ixiten san karretean tipoko bat, baya egurregas einde, beronek eiten situsen*
- *Bai, bai, beronek euko deu*
- *onek beronek euko deu makinea*
- *onek makina onek, buelta emoteko jiratorioa beronek deko ortxe sapaldute*
- *orrek berorrek estaki*

‘Bera’ eta ‘berdin’ era nahasian erabiltzen dira. Objektu bakarra aipatzen bada ‘bera’ zein ‘bardin’ erabiltzen dira. Objektu gehiago aipatzen badira ‘bardin’ da aukera bakarra.

Adibideak:

Objektu bakarra:

- *Es, bueno, egun berean urten, bai, da gaube gustie oñes etorri*
- *Xexinea, txala, ilten gendun, se etze berean lagunek eoten gintzesan, bost nebarra gintzesan, ama ta aite*
- *Familia sarie? Es, esebes, da apellidu bardiñe*

Objektu bat baino gehiago:

- *ordu en garoa edo inontza dao, bai biek bardiñek*

### 3.6.1.2.3. Erakusleen funtzioa

Erakusleak, izenak berak dioen bezala, erakutsi, seinlatu egiten duten elementuak dira.

Seinalatze horretan hiru gradu bereizten dira:

- a) Hizketan ari denarengandik gertu
- b) Ez hain gertu
- c) Urrun

Hurbiltasun-urruntasun hau espazioan zein denboran ere gertatzen da.

- *estakit momentu onetan, momentu onetan enas akordetan selan esaten yakon estakit*

Balio nozionala ere badauka.

- *emen eukiteuen malletako katxarro bat, eukiko deu, da orreri emoten yakon noberak gure deuen gradue*

Lehen graduko erakuslea kontaktetan ondoren datorrena aipatzeko ere erbiltzen da.

- *da auxe esan otzen:es etorri e...*

#### 3.6.1.2.4. Erakusleen lekua

Erakusleak lau modutan agertzen dira perpausean:

- a) Bakarrik
  - *au de Gesala*
  - *au txarraora yoango da*
  - *Ori tristea da*
  - *Asike ori tokeu yako danari*
  - *A es san koxoa*
  - *A eiten sindunean yoan bear sindun labea ixetuten*
- b) Erakuslea + Izena
  - *esaiok a kafetera barrie itxiteko, se baltzitu eingo yeuriek eta*
  - *Bueno, ni eskondu nintzenean ya onek gixonak eiten situsen emen eusoan danak*
  - *orrek laratxue padaki berbas*
  - *orrexen mutilen aitena*
- c) Erakuslea + Izena + Erakuslea
  - *onek eiten deu onek mendi onek*
  - *ta orduen onegas pala onegas bota euen lurre alde batera, ta eiten san gero atxurregas bardindu*
  - *onek burdi onek emen daroas, emen daroas, onan, onan, selan esango dot, olan burrin bi eroaten ditus, da gero andik taketak sartzean yakos*
  - *onek burruin onek lelengo ebai iten deu*
- d) Izena + Erakuslea
  - *estakit momentu onetan, momentu onetan enas akordetan selan esaten yakon estakit*
  - *da urten gindun il orren goxean seiretan edo, da Sabalburutik*
  - *Bueno, esa(n)oskun tabenera yoan gintzesan, taberna bat eon san an. Taberna orretara yoan gintzesan...*
  - *Da olantxi baserriko bisimodue gogorra nineuk dekot ikusite, da oingo gasteak esteuries gure kontu onek*
  - *da gero eiten yosak, ba, latan sartu, latan edo bote orrek, kristalesko boteetan*
  - *Orretire basoti te alde orretati te ekarteko*

### 3.6.2. Zenbatzaileak

Zenbatzaile deituko diogu izena mugatuz zenbatasuna definitzen duen orori. Horrela, hiru zenbatzaile mota dauzkagu Igorreko hizkeran:

- a) Zenbatzaile zehaztuak
- b) Zenbatzaile zehaztugabeak
- c) Zenbatzaile orokorrak

#### 3.6.2.1. Zenbatzaile zehaztuak

Zenbatzaile zehaztuak zenbakiei deitzen diegu. Hauek osatzen dituzten sintagmak mugagabeak zein mugatuak izan daitezke:

- *iru neska*
- *iru neskek*

##### 3.6.2.1.1. Zenbatzaile zehaztuen zerrenda

1	<i>bat</i>	21	<i>ogetabát</i>
2	<i>bi</i>	22	<i>ogetabí</i>
3	<i>irú</i>	23	<i>ogetairu</i>
4	<i>láu</i>	24	<i>ogetaláu</i>
5	<i>bost</i>	25	<i>ogetabóst</i>
6	<i>séi</i>	26	<i>ogetaséi</i>
7	<i>saspi</i>	27	<i>ogetasáspi</i>
8	<i>sortzi</i>	28	<i>ogetasórtzi</i>
9	<i>bedrátzi / bederátzi</i>	29	<i>ogetabed(e)rátzi</i>
10	<i>amár</i>	30	<i>ogetamár</i>
11	<i>amáika</i>	40	<i>berrogéi</i>
12	<i>amábi</i>	50	<i>berrogetamár</i>
13	<i>amáiru</i>	60	<i>irurogéi</i>
14	<i>amálau</i>	70	<i>irurogetamár</i>
15	<i>amábost</i>	80	<i>larogéi</i>
16	<i>amásei</i>	90	<i>larogetamár</i>
17	<i>amasáspi</i>	100	<i>eún</i>
18	<i>amasórtzi</i>	1000	<i>millé</i>
19	<i>emerétzi</i>		
20	<i>ogéi</i>		

##### 3.6.2.1.2. Zenbatzaile zehaztuen lekua

Zenbatzaileak izen-sintagmaren ezker aldean aurkituko ditugu, *bat* eta *bi* zenbatzaileak izan ezik; azken hauek eskuinaldean kokatzen dira.

*alabá bat*  
*alabá bi*

*iru alába*  
*lau alába*  
*bost alába*  
*sei alába*  
*saspi alába*  
*sortzi alába*  
*bedrátzi alába*  
*amar alába...*

### 3.6.2.1.3. Bat

Hona hemen ‘bat’ zenbatzailearen deklinabidea:

DEKLINABIDE-KASUA	BAT
Absolutiboa	bat
Ergatiboa	baték
Datiboa	batéri
Jabego genitiboa	batén
Soziatiboa	batégas
Motibatiboa	batégaiti(k)
Destinatiboa	baténtzat/-tzako
Instrumentala	-----
Inesiboa	-----
Leku-genitiboa	batéko
Ablatiboa	batéti(k)
Adlatiboa	batéra
Hurbiltze adlatiboa	batérantza
Muga adlatiboa	batéraño
Inesiboa bizidunekin	-----
Ablatiboa bizidunekin	batégandi(k)
Adlatiboa bizidunekin	batégana
Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	batéganantza
Muga adlatiboa bizidunekin	batéganaño

### Lekua

‘Bat’ zenbatzailea izen-sintagmaren eskuinaldean aurkituko dugu.

Adibideak:

- *Dimen dekosu serra bat*
- *Mutiko bat euki eurien, mutiko finue euki euren*
- *Len buelta bat eiten eurien diario, oin bebai*
- *Baseuntzeko bat il sen*
- *an plasean etze bat erosi eurien*
- *An iturri bet eoten san*
- *boligrafo edo lapis bet artu, bai, ta asten dosak kontuek ataraten ta etxakiek*
- *Dimeko neskatxi bet*

'Bat'-en erabilpenak

- a) Neurria adierazteko  
 - *justu urte beten eon ni eskolan*  
 - *olloak dosena bat edo*
- b) Bat bere (ez)  
 - *Estot aituten bape*  
 - *eskilletak seripes, jornalik emon bes, bapes*  
 - *gitxi ixin sen, erri andie bape*  
 - *lenaoko etzerik estao bape*  
 - *klaro, kotxeak len bapes esan eon*  
 - *Igorren bape, etxaok pastorerik*  
 - *Polite bapes emeko euskerea*  
 - *biek ereiten sirean, artoa ta babea biek da koyu igual bapes*
- c) Zenbait esaeratan  
 Beste bat:  
 - *beste batek yagon bear dotzos derrigor*  
 - *Kortea or goyen bat, beste bat an, iru kortetan eukiten yasat iru kortetan?*  
 - *ostantzean lorrebason beste batao*  
 - *Au lenaoko kontue da, bai, baya au baño beste bat egoan sarraoa*  
 - *Emeti ubel bat ta emeti beste bat, amarreu da onan sartzeurien arrie*
- d) Aldien adieraztasuna: *Baten / Bein*  
 - *astean baten ara eroaten deurie*  
 - *Baten eon nas San Mielen*  
 - *Baten ikusikosten*  
 - *Baten ankea apurtute eon nintzen*  
 - *akordetan nas baten ikusi neuela*  
 - *egunean baten emoten dotzie*  
 - *Baten Urkusutik burdies etorrite tranbibidean txirrinkea sartu da atara ixinde atzetik, ba, sera, tranbie*  
 - *esin sartu gantxo, da bein eriduten bosu txarrie gero gatza de*  
 - *Klaro, eske bein eskondu eskero, bakisu*
- e) Gutxi gorabeheranzko zenbatasuna adierazteko: *-en bat / inguru*  
 Baten bat:  
 - *Baten batek bolsa beteko deu*  
 - *bakasiñoan dana baten bateri itxi bitzesu*  
 - *baten bat txarto igual etorten dok*  
 - *neu yoan nintzen onegas edo baten bategas*  
 - *Nori ixin sen baten, baten bateri akordetan nas eskapeu otzen*
- Izenkia + -en bat:  
 - *Ser, txikitxuen bat artu dosue?*  
 - *igual eingo deurie olango gausen bat*

- *antxe pentzetan dot daoela maisuen bat*
- *pentzean dot semean bat an dekola*
- *Danataos kolokaute lekuren baten*

Adibide hauetan guztietan ikus daitekeenez, -en atzizkia ezarri behar zaio bat zenbatzaileari aurrenean dagoen izenkiari. Antzekoa gertatzen zaigu, izenkiaren ordeaz beste zenbatzaile bat agertzen baldin bada:

- *Etxakan pastore asko e, Dimen bes, ementxe seinbet, ba, seyen bat*
- *bosten bat eongo dire*

Hala eta guztiz ere, kasu hauetan ez da premiazkoa -en atzizki hori jartzea. Horrenbestez, goiko adibideak adiera bera du beste forma hau hartzen baldin badu ere:

- *Itillek eukiten seuen lau ortza..., senbet ortza eukiten seuen? Lau? Iru bet, iru bet*
- *merkeao urteten dotzu granjara yoan da erosi eun bet kiloko txarri bet*
- *Guk eiten dune da andi ekarri eun bet kilokoa edo eundeogei edo dana dalakoa*
- *kendu inbiok pisue dekonean amar-dosena bat*

### Inguru

Kopuru ez-zehatzak adierazteko *inguru* ere erabiltzen da:

- *Kanposantuti kilometro baten inguruna*
- *tardetan san orduterdi inguru Bilbora yoaten*
- *an eon ginean gaubean ordu batak inguru arte*
- *artzean yosak amalau bat arroa inguru bakotxak, da il*

#### **3.6.2.1.4. Balio enfatikoa**

*Amaika-k 'asko', 'pilo bat', 'makina bat'... esanahia dauka.*  
- *amaika persona etorri dire*

#### **3.6.2.1.5. Orduak**

Adibide hauetan ordua emateko formarik usuenak eskainiko ditugu.

<i>ordu batak</i>	<i>ordu bätetan</i>
<i>ordu biäk</i>	<i>ordu biätan</i>
<i>irürek</i>	<i>irüretan</i>
<i>láurek</i>	<i>láuretan</i>
<i>bóstak</i>	<i>bóstetan</i>
<i>séirek</i>	<i>séiretan</i>
<i>saspírek</i>	<i>saspíretan</i>
<i>sortzírek</i>	<i>sortzíretan</i>
<i>bedrátziek</i>	<i>bedrátzietan</i>

<i>amárrak</i>	<i>amárretan</i>
<i>amáikak</i>	<i>amáiketan</i>
<i>amábiek</i>	<i>amábietan</i>

Erdiak

<i>ordu bátaterdiek</i>	<i>ordu bátaterdietan</i>
<i>ordu bíterdiek</i>	<i>ordu bíterdietan</i>
<i>irúterdiek</i>	<i>irúterdietan</i>
<i>láuterdiek</i>	<i>láuterdietan</i>
<i>bósterdiek</i>	<i>bósterdietan</i>
<i>séiterdiek...</i>	<i>séiterdietan...</i>

Laurdenak

<i>irúrek eta láuren</i>	<i>irúrek eta láurenentan</i>
<i>bóstak eta láuren...</i>	<i>bóstak eta láurenentan...</i>

<i>irúrek láuren gitxiao</i>	<i>irúrek láuren gitxiáotan</i>
<i>bóstak láuren gitxiao</i>	<i>bóstak láuren gitxiáotan</i>

Minutuak

<i>saspírek eta bóst</i>	<i>saspírek eta bóstetan</i>
<i>irúrek amar gitxi</i>	<i>irúrek amar gitxíten</i>

**3.6.2.1.6. Urteak eta data**

Orokorrean data adierazteko, batez ere data osoa bada, hau da, urtea hilabetea eta eguna, hiztunek erdarara jotzen dute:

- *Bai, nebeas yoan gintzesan mesara, diecinueve de abril san*
- *An, Saibiganean, catorce de abril etxatak aistuten a egune*
- *Ordúen nik? Gérra dénboran? Treintaiséan, báii? Sénbatean gaos? Dos mil, año dos mil, aite*

Hilabeteak izendatzeko erdarazko izenak erabiltzen dira aldaketa foniko txiki batekin (*enéro, febréro, martxóa, apríle, mayétza, júnio, júlio, abustúe, setiénbre, otúbre, nobiénbre* eta *disiénbre*), nahiz eta euskal formak ere ezagunak diren:

*Urtélle, seséle, martxóa, apríle, mayétza, bagíle, garagárrile, urríe, urri bígarrena, seméndie, abendúe*

Data osorik jartzen dugunean, urtea adierazten duen zifrari *-ko* eransten zaio, *-en* hilabetei eta *-an* egunari. Adibidez: *Mille bedratzieun ta larogetamasaspiko mayetzan bostean*. Baina esan dugunez, euskal molde hau ia ez da erabiltzen eguneroko hizkuntzan.



**3.6.2.1.7. Frakzioak**

Frakzioak adierazteko *erdi* eta *lauren* hitzak baino ez dira erabiltzen.

- a) Erdia adierazteko: ‘erdi’
- *an eon gintzesan gu urte t’erdi*
  - *Goxean bosterdietan altxau bear*
  - *Bai, emekoa bai, nik surea estot aitu erdiripes*
  - *An in neusen iru urteterdi*
  - *Edosein frutuk, asko badeko, erdie kentzean bosu, ak iten deu doblea*
  - *a erdi garbitu einde daola, erdi eiñean daola, sue, eiten sindusen ogiek*
  - *neuk artuko dotzuet erdie*
  - *laugas eiñeskero, illadea polite eroaten san. Laugas igual metro t’erdi*
- b) Herena adierazteko: ‘lauetik iru’
- ‘Heren’ berba ez da erabiltzen, honen ordez honen modukoak erabiltzen dira:
- *Lauetik iru parte*
- c) Laurdena adierazteko: ‘lauren’
- *eon beosu iru ordu lauren*
  - *barillea olango sera bategas erein, da gero kollarea egurreskoas iru ordu lauren*
  - *ordu laurena eukiten gindusen yagiten*
  - *Laueti bat*
  - *lodiak ordu lauren edo ogei miñutu*

**3.6.2.1.8. Deklinabidea**

“Bi” zenbakitik aurrera plurala ere har dezakete zenbatzaileek:

- *Ango bat etorri sen*
- *Biek etorri sirean*
- *Irurek yoan sirean*
- *Laurek ein eurien*

Zenbatzaileek deklinabideko edozein morfema har dezakete:

- *Biek ein deurie*
- *Bateri emon notzen*
- *Bietan eonda nao*
- *Biekas ein beosu*

**3.6.2.1.9. Nola izendatu zenbatzaileak**

Zenbatzaileak izendatzeko modu bi daude. Bat artikulua eranstea da:

<i>bat</i>	<i>báta</i>
<i>bi</i>	<i>bíe</i>
<i>íru</i>	<i>irúe</i>
<i>láu</i>	<i>láue</i>
<i>bost</i>	<i>bósta</i>

<i>séi</i>	<i>séye</i>
<i>sáspi</i>	<i>saspie</i>
<i>sórtzi</i>	<i>sortzie</i>
<i>bedrátzi</i>	<i>bedrátzie</i>
<i>ámar</i>	<i>amárra...</i>

eta bestea: zenbakia + ko + a.

*batékoa*  
*bikoa*  
*irúkoa*  
*láukoa*  
*bostékoa*  
*séikoa*  
*saspikoa*  
*sortzikoa*  
*bedrátzikoa*  
*amarrékoa...*

Kartetan ari garelarik ikus daiteke molde hau, besteak beste: *bateko kopa*, *saspiko espata...*

### 3.6.2.1.10. Komunztadura aditzarekin

Jakina denez, aditzaren morfologiak perpausean agertzen diren nor, nori eta nork kasuetako sintagmen zenbatasuna islatzen du:

- <i>Txarrie il deu</i>	(nor sg.)
- <i>Txarriek il ditus</i>	(nor pl.)
- <i>Alabeak ein deu</i>	(nork sing.)
- <i>Alabak ein deure</i>	(nork pl.)
- <i>Alabeari emon dotzet</i>	(nori sg.)
- <i>Alabari emon dotziet</i>	(nori pl.)

Sintagma horiek zenbatzaile batek osaturik agertzen badira aditz laguntzailea honela paratzen da:

- a) Zenbatzailea “bat” baldin bada, aditz morfologian singularra ageriko da beti:
- |                                   |        |
|-----------------------------------|--------|
| - <i>mutil bet ikusi neuen</i>    | (nor)  |
| - <i>moja batek emoten deu</i>    | (nork) |
| - <i>mutil bateri emon notzen</i> | (nori) |
- b) Zenbatzailea ez baldi bada “bat”, besteren bat baino, aditz morfologian plurala ageriko da:
- |                                   |        |
|-----------------------------------|--------|
| - <i>Amaika seme-alaba dires</i>  | (nor)  |
| - <i>Lloba biek esan ostien</i>   | (nork) |
| - <i>Iru mutileri esan otzien</i> | (nori) |

**3.6.2.1.11. Ordinalak**

Hona hemen zenbaki ordinalen zerrenda:

1. *lélengo / lélango*
2. *bígarren*
3. *irúgarren*
4. *láugarren*
5. *bósgarren*
6. *séigarren*
7. *saspígarren*
8. *sortzígarrren*
9. *bed(e)rátzígarrren*
10. *amárgarren...*

**3.6.2.1.12. Multzotik aukera egitean: -etatik / -rik**

Multzotik aukera egiteko modu bi daude: *-rik* eta *-etatik*.

*-rik*

- *Egun biripator*

- *Egun biripat*

*-etatik*

- *bietatik bat eoten san serean...*

- *iruretati onena nor dan?*

**3.6.2.1.13. Adjektibo biderkatzaileak: *bakotxa*, *bikotxa***

Adjektibo biderkatzaileen egitura honako hau da: zenbakia + kotx(a)

- *maire eroaten da, persona bakotxak anka bateti goatu ta bota maire*

- *bakotxak ikusten deu bere kapritxue sein den*

- *basoan oten san baskarie, da erriek emoten euen, ba, edo limonada botille bat edo kuartillo ardoa bakotxari errien konture*

- *Bakotxak berena eroan beadeu or estao beste bueltarik*

- *bakotxak bere bisimoduari segidu bear dotzie*

- *Ipinten yuk an maye, da gero lau-bost bat lagun edo olan bajatan yuk txarrie mayen ondora lauen artean artu anka bakotxati*

- *bakotxak anka bakotxeti artu ta mai ganera bota*

- *aite baño txikiaoa ixingo san beste bikotxa, osabea, aiten bikotxa askos bajuaoa*

- *ori baserrie dok bikotxa, ori, bata Periko esan dokena ik, Regil bisi ok esku batean ta ni bestean*

- *Sure aiten bikotxa ta Marselon arrabea eskondute daos*

**3.6.2.1.14. Banatzaileak: -na / -ko**

Banatzaileak lortzen dira zenbatzaile zehaztuei -na atzizkia eta izenei -ko atzizkia erantsiz.

- *guri emon oskuen pisu bana errentan*
- *gero kutxilloagas banan-banan esteari paseu ta bai, bai ,olantxi eiten gendun*
- *ataraten basindun kopatxu bana, ona emon bear*
- *onek au barik kartola barik yoaten gintzesanean, taketak ipinten geuntzesan onek ta onek, lau, ta atean beste bana andiaoa ekarteko lastoak eta bedarra eta*
- *berak eiteuen, ba, ordu bete eiten baeuen, orrenbeste orduko pagaten yakon*

**3.6.2.1.15. Aldien adieraztasuna: bider / -tan**

Aldien zenbatasuna ere zenbakien bidez adierazten dugu. Baina zenbakien bidez ez eze, beste era askotara ere adieraz daiteke:

Bider:

- *makiña bider esan otzen lagunek ikisteko*
- *iru bider emoten dotze*
- *seinbepider bajatuko deu? piesa bat berrogetamar bider*
- *beste batzuk iru bider, ori bakotxak ikusten deu*
- *Da sagar denporan, ogiek atara ta senbapider igual botaten gindun boltza luse bet[sic] sagar ara erretan*
- *Ta arto igerra be senbapider, sestokadak ara bota*
- *Jesus! senbepider olango burdi bet sartu te sapatze erre kara bota estorbo gustiek*
- *Iru bider, iru bider etorri sara*
- *Da atzean doanari senbepider esaten geuntzen*

-tan:

## a) Zenbakia + -tan

- *Normalean guk eukiten dun kostunbrea birriten emoteko*
- *Beste batzuk baten bapakarrik emoten dotzie, beste batzuk birriten*
- *Iruten etorri sara? Iruten yoan sara*
- *astean baten ara eroaten deurie*
- *Baten eon nas San Mielen*

b) Sarri(tan)

- *nik oneri sarriten esaten dotziet*
- *sarriten Mikelegas aserretu eiten nintzen*
- *ori ibiltan dot nik, kakoa ibiltan dot ba, pues, sarri*
- *sarri askotan neu lotuten nas jentean aurrean, ba, konpletamente, ba, sertute, kasi nerbioas*
- *nire semeari sarri esaten dotzet*
- *Bueno, entzun bai, entzun sarriten; oin, geuk esan, es*
- *ni sarriten eoten nintzen begire artzan ibiltan sanean*

- c) Batzuetan
- *Oin txarrie ilten da batzutan lenao urdeye be*
  - *Txarrie urtean erosi iten da, batzutan erosten da txikitxu bet*
  - *Batzutan eiten gindun goxean, beste batzutan arrastis*
  - *Beste batzutan etorri sara*
- d) Askotan
- *askotan bestea fasilao aituten dot*
  - *Neupe kalendario begituten bestea erderas ikusi biot sarri askotan*
  - *Erri askotan ibili giñean, esta? frentean*
- e) Gutxitan
- *gitxitan ikusi dot*
  - *Normalmente beyekas, idiek leku gitxiten*
  - *Gitxiten satos*
  - *Apurtu igual bai, baya gitxiten, gitxiten*

### 3.6.2.1.16. Esapideak: eta *biok/irurok...*, *gaur sortzi*

Talde bat osatzen denean zerrendatzean, hiztuna barne egonez gero, bere burua azken tokian aipatzen da. Baina bere izena aipatu beharrean, plural hurbilean deklinatutako zenbatzaile bat erabiltzen da, taldea osatzen den kopurua adieraziz.

- *estudioan daos da etzetik kanpora, etzetik kanpora, ta gu biok emen*
- *koñetea, nebeagas eta irurok yoan gintzesan*

Dataren gainean gabiltzalarik, gaur astelehena bada eta hurrengo edo aurreko astelehenaz zer edo zer esan nahi bada *geur sortzi* esaera erabiltzen da.

- *geur sortzi yoango gara*
- *geur sortzi isin soan*

### 3.6.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak

Zenbatzaile zehaztugabeek ez dute inoiz zenbaki zehatzik adierazten, handia nahiz txikia izan daitekeen multzoa baino. Hauek sintagma mugagabea behar dute eta bakarrik nahiz izen edo izenki baten ezker edo eskuinean ager daitezke.

**3.6.2.2.1. Batzuk**

*Batzuk* izen-sintagmaren eskuineko aldean zein bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura pluralez egiten du.

DEKLINABIDE-KASUA	BATZUK
Absolutiboa	bátzuk
Ergatiboa	bátzuk
Datiboa	batzúri
Jabego genitiboa	batzún
Soziatiboa	batzúkes
Motibatiboa	batzúkaiti(k)
Destinatiboa	batzúntzat/-tzako
Instrumentala	-----
Inesiboa	batzútan
Leku-genitiboa	batzúetako
Ablatiboa	batzútati(k)/batzúetati(k)
Adlatiboa	batzútara/batzúetara
Hurbiltze adlatiboa	batzútarantza
Muga adlatiboa	batzúetaraño
Inesiboa bizidunekin	-----
Ablatiboa bizidunekin	batzúkandi(k)
Adlatiboa bizidunekin	batzúkana
Hurbiltze adlatiboa bizidunekin	batzúkanantza
Muga adlatiboa bizidunekin	batzúkanaño

Izen-sintagma eskuinaldean duela:

- *abarketa sar batzuk*
- *nik Txilen dekodas neba batzuk*
- *Da gero eukiten dus oin txarritxu betzuk, koneju betzuk*
- *On sirean leku betzuk ondo ostontako*
- *alboko onek ditus bei betzuk Gorbeyen*
- *Gutekus sera batzuk biorratekus*
- *berba batzuk aituten yosat*
- *orduen sartzean yakos taket batzuk aparajuari*

Bakarrik:

- *batzutan ondo urteten otzen gure andreari bebai, baya beste batzutan es*
- *Batzuk mayen sabalten deurie okolea, da gatza bota da errebolbidu ondo*
- *batzuk adelanteu gure deurie ta eiten deurie arinao igual, baya esta komeni*
- *batzuk kinpullea botaten dotzie, beste batzuk es*
- *batzuk nasteu otzien urune, apur bet, gari urune bebai*
- *gero atara oskuen orti errietara o sea ke batzuk yoaten sirean Gernikera, beste batzuk, ba, Lekeitiora, beste batzuk Bermeora, beste batzuk Mundakara, Pedernalesera, niri tokeu yatan Pedernalesera yoatea*

**3.6.2.2.2. Asko**

*Asko* zenbatzailea normalean bakarrik zein izen-sintagmaren eskuinean agertzen den arren, izen-sintagmaren ezker aldean ere ager daiteke nahiz eta ohikoa ez izan. Honen moduko adibideak Bizkaiko, eta baita Euskal Herriko (ikus EGLU I 222or.) testu zaharretan ere ikus ditzakegu, adibidez:

“*Asco nequezaleri* esan baceuntsa, etzenduban urtengo emendi beste barberu, edo zauri-osaguillaren baten premiña bage.” (Mogel, *Peru Abarca*)

Aditzarekiko komunztadura singularra zein plurala izan daiteke, testuinguru guztietan hautazkoa izanda.

Bakarrik:

- *onango ortzak, asko eukiesan ak, areak*
- *asko yan dot*
- *Burdien asko ekartesan*
- *askoteukies emen eusoan be, baya ostean es lenao es egoan kaballorik emen*
- *Bakisu askok ser eiten deuren?*
- *nik askon euskerea eiten deurena estot aituten*

Izen-sintagmaren eskuinaldean:

- *Bidibietatik eta Galdakati etorten ixin dires jente asko*
- *Guk kalamidade asko pasau du*
- *jente asko dao intierroko egunean*
- *eseun asko eiten deu an*
- *Dimek barrio asko dekos*
- *or on dires landara batzuk eta istokie asko*
- *orduen gause asko pasaten san*
- *Igorren tranbiario asko eon san*

Izen-sintagmaren ezker aldean:

- *interbentoreak pikau eskero, adios, da askok interbentorek kasuripes*
- *Es andie es, etze batzuk. Asko lekuten bisi bes*

**3.6.2.2.3. Gitxi**

*Gitxi* izen-sintagmaren eskuineko aldean zein bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez egiten du.

Bakarrik:

- *igitie nabil baño oin igitie gitxi ibilten da*
- *orduen gitxiao pagetan yok, ba, diru ori*
- *kodeñea oin ikusten da gitxi*
- *Guk orduen erderas es, gitxi, erderas*
- *maisue erdeldune ixin sen, baye guk erderas gitxi, gitxi*
- *Gitxi, gitxi, bai ikusten dot Euskal Telebista, baya etxata gustaten telebisiñoa*
- *Billaron be sano gitxi eiten da. Billaro ixingo da seguramente Arratien gitxi eiten dana*
- *Oin gitxi lenaoko aldean*

Izen-sintagmaren eskuineko aldean:

- *itano gitxiten da*
- *jente gitxi eta gero, ba, jentea be gitxi eon*
- *Euskera gitxi eiten da Naparran, es?*
- *Orrek esne gitxi dekie*
- *etze gitxi eon san emen*
- *guk txarto bisite ta txarto yanda da protesta gitxi*
- *Madari gitxi deku*
- *idi gitxi ibiltesan emen*

#### 3.6.2.2.4. Ugeri

*Ugeri* bakarrik zein izen-sintagmaren eskuineko aldean agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez zein pluralez egiten du.

Bakarrik:

- *Aurrekoetxeatarrak ugeriek ixin dires Dimen*
- *arean da, ba, gausea eskas koyutea da, arean, ta ugeri de asko*
- *Bai ugeri etorri de*
- *ugeritaos*

Izen-sintagmaren eskuineko aldean:

- *Ugeri, jente ugeri etorri de*
- *mallugi ugeri dekot*
- *Bai, jente ugeri dao, bai*
- *emen jente ugeri dao*
- *sagarra ugeri dao*

#### 3.6.2.2.5. Urri

*Urri* bakarrik zein izen-sintagmaren eskuineko aldean agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez egiten du.

Bakarrik:

- *urri, urri, sano gitxi, sano gitxi*

Izen-sintagmaren eskuineko aldean:

- *Sagar urri dekot, bai*
- *kosetxa urrie artu deu*

#### 3.6.2.2.6. Onenbeste, orrenbeste, ainbeste

*Onenbeste*, *orrenbeste* eta *ainbeste* izen-sintagmaren ezkerreko aldean zein bakarrik agertzen dira, eta aditzarekiko komunztadura singularrez zein pluralez egiten dute.



Bakarrik:

- *Ba, orduen, ba, senbet pisetu deu? Onenbeste. Gusurre. Gusurrek botaten sirean. Onenbeste*
- *Dimen orrenbeste etxaok*
- *Lemoa es, Lemoa orrenbeste es, baya Sorrontzan bai*
- *emen berton esta begituten orrenbeste*
- *niri estoste meresidu, se nik estot koidu orrenbeste*

Izen-sintagmaren ezkerreko aldean:

- *onenbeste kilo dekoso*
- *ipiñi berotute da gero onenbeste denporan seragas, lebadureagas*
- *Ogie iten gindun, ba, gari urune onenbeste inguru aspiren*
- *Artzean ipintesan onenbeste kilo*
- *onenbeste pausu*
- *Batzuk segidun ilten deure granjakoa ekarrite, baya estekosu garantiarik igual okolea estala orrenbesteko ona*
- *eseuen orrenbesteko ardure*
- *Garie garbituteko guk kamaran deku estiloko bat, baya esta orrenbesteko konplikadue*
- *Senbet pisetu deu? Orrenbeste erralde*
- *Orrek etzeak ainbeste millioak pagatako gero, eukin ein beadire gero*
- *ainbeste denpora kobrau barik*
- *da mojak esan euen bera alan sartuten estoala ainbeste lagunegas kuartuen*
- *normalmente dekonak or ainbeste ektarea edo lurre edo eiteko ekarten deurie*
- *Esan gendun: ogi bet edo bi eiteko ainbeste denpora..., itxi ein geuntzen gero*
- *arek enbrak ainbeste ume etzean, oin komodidade gustiekas, labadorea fastidiaten bayaku bagaos*

### 3.6.2.2.7. Naiko

*Naiko* izen-sintagmaren ezkerreko aldean zein bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez egiten du.

Bakarrik:

- *Naiko yan dot*
- *Da esan nontzan: 'naiko in dotzo akordatea'*
- *Naiko ixingo da*
- *Bueno, geldi eoteko naikoa*
- *yan da lo iteko naikoa*
- *Nik euskera neurea emekotxe bertakoa, erderas apur bet naiko.*
- *Umeri, irureri karrera emon, da naikoa*

Izen-sintagmaren ezkerreko aldean:

- *Naiko okolarik yan dot*
- *naiko ardaurik edan dot*
- *naiko ardau edan dot*
- *eta deko naiko askar burue, esangotzut, erantzuteko moduen da*

- *gantxo bategas goyen goiko serean, ba, naiko alturen eskegiten txarrie*
- *eta eoten dok pernile naiko goso*
- *Eske orrek danari eiten dotzie itano, naiko oiturea deko, kostunbrea deko*

### 3.6.2.2.8. *Ainbet*

*Ainbet* izen-sintagmaren ezkerreko aldean zein bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez zein pluralez egiten du.

Bakarrik:

- *kutxilloagas txigertu, sati txikerrak, porrue, ainbat, asko*
- *Ainbet eiten san orduko denporan*

Izen-sintagmaren ezkerreko aldean:

- *yoan ginean ara ainbet jente*
- *Da in gindusen ainbet eskursiño*
- *nik estot esetu ta ainbet urte dekus ya, estot olangorik entzun*
- *da bueno txikitatik gero bebai, ainbat bear eiten soloan*
- *gu beyekas len ibilten gintzesan ainbat denpora emen*

### 3.6.2.2.9. *Makina (bat)*

*Makina (bat)* izen-sintagmaren ezkerreko aldean zein bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura, edozein testuingurutan, singularrez zein pluralez egiten du.

Bakarrik:

- *erdaldunek, makiñe bat daos lagunek*
- *Lenao makina bat eoten sirean emen*

Izen-sintagmaren ezkerreko aldean:

- *makiña urte daroas orretan bearrean*
- *makiña bat neska ikusi yoat*
- *Makiña bat ixerdi, makiña bat ixerdi, goxeko lauetan emen altxeu goxeko erreleboan*
- *makiña bider esan otzen lagunek ikisteko*
- *Makina bat bider layetan*
- *Ogie bakarrik es, makiña bat artxo erreak or*
- *Makina bat persona etorri de*

### 3.6.2.2.10. *Apur bet*

*Apur bet* izen-sintagmaren eskuineko aldean zein bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez egiten du.

Bakarrik:

- *kanelea bota apurtxu bet*
- *labadurea botaten yakon apur bet*
- *emen dekot ereinde, ba, emen apur bet*
- *Ure irikiten daoela bota urune apurtxu bet, eta benga bueltak emon*

- *Ure ipinten dosu eta botaten dosu gatza apurtxu bet, da irikiten asten danean bota urune*

Izen-sintagmaren ezkerreko aldean:

- *ortu apurtxu bet ibilten du*
- *gure umeak guru estudio apur bet eukitea*
- *bota urun apurtxu bet*
- *Porru apurtxu bet bebai pentzetan dot piketan sirela*

### 3.6.2.2.11. *Arean*

*Arean*<sup>64</sup> izen-sintagmaren ezkerreko aldean zein bakarrik agertzeaz gain izen-sintagma partitibo baten eskuinaldean ere ager daiteke.

- *Obeto esta? Es, arean obeto, baya or be kanbieute yak apur bet*
- *Lemoa igual Igorre baño txikerraoa san Lemoa len, da eon da aldikada baten arean andiaoa, da oin atzera au de andiaoa*
- *Sorrontzan da Lemoan gure antzera, bueno Sorrontzan es, Sorrontzan diferente eiten da arean, e.*
- *Antzera? Bai baya arean, arean diferente?*

Partitiboa + *arean*:

- *orratz andi betegas pintxeu ia odolik arean urteten badeu barrure atzera, ya urten arte suri-suri, axe geldorrostetea*

### 3.6.2.2.12. *Eskandalu*

*Eskandalu* izen-sintagmaren ezkerreko aldean agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez egiten du.

- *eoten da eskandalu jentea*
- *Dimeti maistra badao eskandalu jentea*

### 3.6.2.2.13. *Bastante*

*Bastante* izen-sintagmaren ezkerreko aldean agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura pluralez egiten du.

- *nire anayak bastante kibi dekos*
- *bastante malluki dekodas*

### 3.6.2.2.14. *Senbekure, semekure*

*Senbekure* izen-sintagmaren ezkerreko aldean zein bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez egiten du.

Bakarrik:

- *Senbekure dekot, senbekure, senbekure*
- *Ollagorrak emen senbekure len*
- *Basollarak istokietan senbekure*

<sup>64</sup> Aurrerago ere ikusi da (ikus 3.5.2.3.1.)

Izen-sintagmaren ezkerreko aldean:

- *Aurten semekure mallugi dao*

### 3.6.2.2.15. *Gurañe*

*Gurañe* izen-sintagmaren ezkerreko aldean zein bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez zein pluralez egiten du.

Bakarrik:

- *gurañe dekosu*

Izen-sintagmaren ezkerreko aldean:

- *gurañe malluki dekosus*

### 3.6.2.2.16. *Gure dana*

*Gure dana* bakarrik agertzen da, eta aditzarekiko komunztadura singularrez egiten du.

- *Esan dotzut, gure dana deku, gure dana*

- *aurten sagarrak gure dana deku*

### Laburbilduz:

ZENBATZAILEA	ADITZAREKIKO KONMUZTADURA	LEKUA		
		BAKARRIK	ISren EZKERRALDEAN	ISren ESKUMALDEAN
<i>Batzuk</i>	pl.	+	-	+
<i>Asko</i>	sg. eta pl.	+	+	+
<i>Gutxi</i>	sg.	+	-	+
<i>Ugeri</i>	sg. eta pl.	+	-	+
<i>Urri</i>	sg.	+	-	+
<i>Onenbeste...</i>	sg. eta pl.	+	+	-
<i>Naiko</i>	sg.	+	+	-
<i>Ainbet</i>	sg. eta pl.	+	+	-
<i>Makina bat</i>	sg. eta pl.	+	+	-
<i>Apur bat</i>	sg.	+	-	+
<i>Arean</i>	sg.	+	+	+
<i>Eskandalu</i>	sg.	-	+	-
<i>Bastante</i>	pl.	-	+	-
<i>Senbekure</i>	sg.	+	+	-
<i>Gurañe</i>	sg. eta pl.	+	+	-
<i>Gure dana</i>	sg.	+	-	-

**3.6.2.2.17. Edo**

Hiztunak kopuru zehatza ez dakienean edo zenbaki biren artean zalantzan dagoenean, askotan, zenbaki biak esaten ditu. Hau adierazteko modu bi daude:

- 1) *edo* juntagailuaz baliatuz
  - *emen lau edo bost besino*
  - *ogi beterako edo bi igual iru lagunek eiten gindun batera*
  - *Esan gendun ogibet edo bi*
  - *Ereiten san markadoragas sesenta edo setenta*
  - *iru edo lau abade bisi dires an estankoan plasean*
  - *iru edo lau eoten dires*
  - *lau ogi asterako da gero beste txiki bet edo bi*
  
- 2) *edo* juntagailua barik
  - *Lenao eoten san baserri gustitan bei bi-iru eoten sirean*
  - *normalean baserri geyenetan bi-iru*
  - *Bai mai ganean artu txarrie lau-bost gixonak*
  - *arrosa egosten gendun lau-bost kilo morsilleakas eiteko*
  - *garbitu iru-lau bider*
  - *emen urtean ilten yusek, ba, igual sei-sortzi bet txarri edo olan*
  - *Iru-lau lagun igual juntetan giñean*
  - *layetan igual bost-sei lagun, enbra ta gixon*

**3.6.2.1. Zenbatzaile orokorrak**

Zenbatzaile hauek orokortasuna edota osotasuna adierazten dute. Hauek singularrean zein pluralean agertzen dira eta bakarrik nahiz izenaren eskuineko aldean kokatzen dira.

**3.6.2.1.1. Dana**

- a) Singularrean DANA:
  - *dana kendu eta beste dana pikau eiten da*
  - *Dana da polite*
  - *Dana da maistrea*
  - *gero perejil apur bet ta ser batzuk bota, odola ta dana bota*
  
- b) Izena singularrean + DANA:
  - *barrue dana garbitu ostien*
  - *pastuko ganadue dana erretireu bida*
  - *nik kanpokoari danari, esta?*
  - *ori dana kendu geuntzen*
  - *odola dana baldera yausi arte esta batu*
  
- c) Pluralean DANAK:
  - *danak Igorren yayoak*
  - *estait danak maistrak diren*
  - *Eskondute deus danak?*

- *Morrilladea, esaten geuntzen, ba, danak junteu*
- *txarrilten saneko danok junteu*
- *Danak etorri sirean*

## d) Izena pluralean + DANAK:

- *Igorreko kintoak danak esetan doas*
- *olango gausek danak aspirean*
- *industrialdera eta ona datosenak danak Arantzasuti buelta emon bear deurie*
- *asiek danak nik koiten doas*
- *orrek kostunbre onak danak gustaten yakies*
- *Tostadak danak yaten deures gusture*
- *Arek danak ondo-ondo egosi balde andi beten*

**3.6.2.1.2. Gusti**

## a) Singularrean GUSTIE:

- *Etzeatan ostu, olloak eta, ollaskoak, koiteuen gustie*
- *ekarri seuen gustie*

## b) Izena mugagabea + GUSTIE:

- *gero eiten san urte gustien eukin etzean*
- *Bisitza gustie or ein deu*
- *tranbiero gustie etorten san*
- *ori etzalde gustie Urkusu de*
- *baso gustie trintxeratute eon san*
- *txarrien morsillek, ba, parte itea euso gustieri*
- *neure denbora gustie idiekas*
- *eurek layekas buelta, dana, solo gustie*
- *egun gustie kodeñean einde*

## c) Pluralean GUSTIEK:

- *ta eroan eusen gustiek*

## d) Izena mugagabea + GUSTIEK:

- *Lenao eoten san baserri gustitan*
- *Bituriera egun gustietan, bai?*
- *Igorreko sagu gustiek*
- *olan iten da bitxo gustiek trageu*
- *Kontu gustiek konteu*
- *txatarra gustiek altxeu*
- *asto bear gustiek*
- *Urte gustietan eiten yosak pernil bi*

### 3.6.3. Determinatzaile zehaztugabeak

Sail honetako determinatzaileek izen diferenteak hartu izan dituzte: ‘determinante’, ‘predeterminante’, ‘prepositibo’, ‘nolakotzaileak’... Determinatzaile hauek izenaren ezkerrean agertzen dira beti, eta ez dute mugatzailerik onartzen ‘*beste*’ eta ‘*arean*’-en kasuan izan ezik.

#### 3.6.3.1. *Ser / Sein*

*Ser* eta *sein* determinatzaileak izenaren ezkerrean kokatzen dira. Izena mugagabean agertzen da beti.

- *Sein Kosme?*
- *nik ser dakipa sein etze, berrogetamar etze daos*
- *Onek esango dotzu se etze dan, ermitea urrunguko etzea*
- *Baya ikastolan, se lekutan?*
- *Ta Artean, se lekuten dao au?*
- *se lekuten dao kolokaute?*

#### 3.6.3.2. *Edoser / Edosein*

*Edoser* eta *edosein* determinatzaileak izenaren ezkerrean kokatzen dira. Izena mugagabean agertzen da beti.

- *edoser geuse iteko kapas nas*
- *Ausoko batek edo edosein familiarrek, fasil emoten yako*
- *Edosein frutuk, asko badeko, erdie kentzean bosu, ak iten deu doblea*
- *or sartu ta gero edosein egunetan lagunekas edo etzean edo, ba, piperrak yan bidirenean, edo txorisoakas edo... edo arrutzakas edosein gausegas, ba, yan*
- *An burdien eroatesan satza, idea ekarri... edosein gause, edosein gause beadana*
- *Edosein egurrek es euen balio ixiten*

#### 3.6.3.3. *Sergure / Seingure*

*Sergure* eta *seingure* determinatzaileak oso gutxitan erabiltzen dira, adibideak inkesten bitartez baino ez ditut batu eta, batean ikusten den legez, *beste* determinatzailearekin batera agertzen zaigu. Izenaren ezkerrean kokatzen dira eta izena mugagabean agertzen da.

- *seingure beste patata erosi neinke*
- *sergure patata dao soloan*

#### 3.6.3.4. *Beste*

*Beste* determinatzailea izenaren ezkerrean agertzen da, eta mugatzailea onartzen du.

- *An goyen be iñor bes, beste etze baten neska sar bapakarrik*
- *Kaballoak edo olan igual eoten dire, baya beste ganadue ixin lei itxi*
- *Asturiasen ein giñusen beste ille bi*
- *etxon eiten san da gero arten san beste tranbie Bilbora*

### 3.7. Sumarioa eta ondorioak

Izen-sintagmaren atalean izena, adjektiboa, deklinabidea, izenordainak eta determinatzaileak sortzeko eta erabiltzeko arauak aztertu ditugu. Hauen artean, bereziki, deklinabide-kasuak ezartzeko gauzatzen diren arau morfologikoak.

Ondorioetan azalduko dugu agertutako arau guztiak non gauzatzen diren hierarkia prosodikoaren arabera. Oinarri teorikoan (1.3.) azaldu dugunez, bost dira lan honetan erabiliko ditugun osagaiak: silaba, oina, hitz fonologikoa, talde klitikoa eta sintagma fonologikoa. Arauak, aldiz, deklinabide-kasuak sortzekoak baino ez dira (ikus 3.4.7. puntua).

a) Sintagma fonologikoan gauzatzen diren arauak

- Deklinabide-kasuak ezartzeko arauak sintagma fonologikoaren eremuan gauzatzen dira. Laburbilduz, honako hauek dira deklinabide-kasuak ezartzeko arauak.

- 1) Hitza.
- 2) Mugatu singularra bada, mugatu singularraren marka.
- 2a) Leku-genitibo, ablatibo, adlatibo, norabide zuzenezko adlatibo eta muga adlatibo deklinabide-kasu singularrean ez da azalean agertzen.
- 3) Kontsonantez amaitzen bada, loturazko bokala.
- 3a) Partitiboa bada eta bokalez amaitzen bada, *-r-* kontsonantea da lotura.
- 4) Plurala bada pluralaren marka aukeraketa.
- 4a) Ergatiboa, datiboa, jabego genitiboa eta destinatiboa singularrean legez deklinatuko dira; euren plural marka azentua baita
- 4b) Absolutiboaren, soziatiboaren, motibatiboaren eta bizidunen leku-denborazko kasuen plurala *-ak* da
- 4c) Bizigabeen leku-denborazko kasuen plurala, *-ata*
- 5) Mugatua bada, mugatuaren marka (bizigabeen leku-denborazko kasuek baino ez daramate, eta *-ta-* da).
- 6) Deklinabide atzizkia(k).


Izen-sintagmaren atalean ez da beste araurik gauzatzen hierarkia prosodikoaren beste osagaietan, hau da, silaban, oinean eta hitz fonologikoan.



# **ADITZ-SINTAGMA**

## 4. Aditz-sintagma

Atal honetan aditz-sintagma aztertuko dugu. Perpausak atal nagusi bi dauzka: izen-sintagma eta aditz-sintagma; eta aditz-sintagman elementu bi daude: aditza eta adberbioak. Era berean, adberbio mota bi daude: adizlagunak eta aditzondoak.



11. eskema. Aditz sintagma

### 4.1. Aditza

Hizkera honetan, zalantza barik aditzaren arloa izan da aztertuen. Bonaparteren lanetan nabarmena izan zen bere garrantzia euskalkiak sailkatzerako orduan eta gaur egun, Igorreko hizkeraren gaineko informaziorik handiena aditzari buruz daukagu, batez ere, Gaminde (1984) eta Yrizarren (1992) lanetan.

Aditzaren azterketa hau egituratzeko Hualde & Ortiz de Urbina (2003) izan dugu gehienbat oinarri. Hauek aditz laguntzaileen sail bakoitzean indikatiboa, baldintza, ahalera, subjuntiboa eta agintera aztertzen dituzte. Dialektologian bizkaierari buruz egindako hainbat lanetan ere honelako egituraketa aurkeztu izan da: Makazaga (2009), Etxebarria (1991), Gaminde (2000, 2001, 2003b...), Ormaetxea (2006)...

Aditzaren azterketa honetan azpiatal bi ikertuko ditugu: jokatugabeko aditzak eta jokaturako aditzak. Jokatugabeko aditzetan aditz-partizipioak eta aditz-izenak aztertuko ditugu. Jokatutako aditzetan ikusiko dugu egun zein tratamendu mota erabiltzen diren Igorren, aditz-paradigma zelan erabiltzen den, zeintzuk diren erro eta morfemak usuenak, aditz trinkoen erabilera eta zelan burutzen diren aditz faktitiboak. Atalaren amaieran aditzaren inbentarioa emango dugu bai aditz laguntzailearena, bai aditz trinkoena.

#### 4.1.1. Jokatugabeko aditzak

Puntu honetan aztertuko dugu aditz-partizipioen amaierak zeintzuk diren eta ikusiko dugu aditz-izenak egiteko kontuan hartu behar dela aditz-partizipioen amaierak eta batzuetan honetaz gain silaba kopurua ere kontuan hartu behar dela aditz-izena zelan gauzatu behar den jakiteko. Dialektologiaren ikuspuntutik Barrutia (2001) aipatu behar da, berak aztertu baitzituen aditz-izenen eta partizipioen formak bizkaieraz.

#### 4.1.1.1. Aditz-partizipioak

Igorreko hizkeran aditzek amaiera hauetatik bat hartzen dute:

*-tu/du*

*-atu*

*-i*

*-n*

bestelakoak

*-eu*

*-idu*

##### 1) Euskal jatorrizkoak

- *-TU/-DU* amaiera duten aditzak  
*-tu/-du* amaiera duten aditzek euskal oinarria daukate, jatorrizko euskal hitzen gainean eraikia da: *galdu, geitu, artu, batu, sortu, sartu, afaldu, begitu, berotu, esetu, eskondu, ihundu, sabaldu, agindu, otzitu, baltzitu, utzitu...*
- *-ATU* amaiera duten aditzak  
*-atu* amaiera duten aditzek ere euskal jatorria dute edo antzina mailegatu ziren: *yorratu, parkatu...*
- *-I* amaiera duten aditzak  
*-i* amaiera duten aditzek euskal erroa dute: *ebagi, euki, ipini, etorri, erosi, ikusi, ekarri, ibili, yosi...*
- *-N* amaiera duten aditzak  
*-n* amaiera duten aditzek ere euskal erroa dute: *egon, yagon, emon, isin, esin, eroan, erain, erein, edan, yoan, itzun, esan, entzun, itxon, igon...*  
 Oso ohikoa ez izan arren, aditz batzuek analogiaz *-n* amaiera har dezakete: *eukin, eutzin...*
- Bestelakoak  
 Beste amaiera ezberdinak duten aditzek ere, euskal erroa dute.  
*-a* amaiera duten aditzak: *atara, bota...*  
*-e* amaiera dutenak: *erre, bete...*  
*-o* amaiera dutenak: *yaso, ito, yo...*  
*-l* amaiera dutenak: *il...*

##### 2) Maileguak

- *-EU* amaiera duten aditzak  
*-eu* amaiera duten aditzak erromantzetik mailegatutako 1. konjugazioko *-ado* partizipioa duten aditzetatik datoz: *akabeu, arroseu, useu, pregunteu, pageu, akordeu, pentzeu, kanbieu...*

- *-IDU* amaiera duten aditzak  
*-idu* amaiera duten aditzak erromantzetik mailegatutako 2. eta 3. konjugazioko -ido partizipioa duten aditzetatik datoz: *eskribidu, leidu, esistidu, jodidu, entenidu, eridu...*

#### 4.1.1.2. Aditz-izenak

Aditz-izenak aditz-partizipioen gainean eratzen dira eta hortaz, hauen amaiera kontuan hartu behar da jakiteko aditz-izen bakoitza zelan gauzaten den. Honetaz gain, amaiera batzuetan silaba kopurua ere kontuan hartu beharko dugu. Dena den, arau orokor bat egon arren, maiz analogiaz sortutako aditz-izenak topatuko ditugu.

Aditz-izenen formari dagokionez, aldaera hauek dauzkagu: *-ten, -tzean, -tuten/-duten* eta *-tan* dira.

- *-TU/-DU* amaiera duten aditz-partizipioak

Silaba biko aditz-izenek *-tzean* amaiera hartzen dute: *sartzean, artzean, kentzean, sortzean, geitzean, batzean, aitzean, lotzean, sertzean, galtzean...* Dialektologiaren ikuspuntutik oso interesgarria da *-tzean* aditz-izena, izan ere hizkera jakin batzuetan baino ez da jaso. Zavalak (1848) *-tzean* alomorfoarean aipamena ematen digu zehaztasun handirik eman gabe.

“En los verbos galdu, kendu, artu, sartu, y quizás en algún otro, suelen de ordinario formar dicho participio de presente con tzen, tzean, tzoan, choan y tzaiten, según las diferentes costumbres de los pueblos, de este modo.” (Zavala, 1848: 13)

Mitxelenak (1977: 111) *Zeanurin* jaso zuen, eta Barrutiak (2001) *-tzean* Bedian, Zeberion eta *Zeanurin*, *-tzian* Lezaman, *-txian* Mungian eta *-tzien* Bermeon jasotzen ditu.

Hiru silabako aditz-izenek *-tan* amaiera hartzen dute: *apurtan, agintan, esetan, sabaltan...*

Hiru silaba baino luzeagoko aditz-izenek *-tuten* amaiera hartzen dute: *konturetuten, bildurtuten, alboratuten...*

Analogiaz *-tuten/-duten* amaiera ere har dezakete lau silaba baino gutxiagokoek: *beratuten, artuten, sartuten, lotuten, neurtuten, geratuten, sertuten...*

Beste aldetik, *-itu* eta *-stu* amaiera duten aditz-partizipioek *-tuten* amaiera hartzen dute aditz-izenak sortzeko: *ostuten, aistuten, begituten, garbituten, otzituden, baltzituden, txikituten...* Hauek ere, analogiaz *-tan* amaiera har dezakete: *begitan, garbitan...*

- *-ATU* amaiera duten aditz-partizipioak

Aditz-izen hauek *-tuten* amaiera hartzen dute: *yokatuten, yorratuten, parkatuten, sarratuten, eskatuten...*

- *-EU / -AU* amaiera duten aditz-partizipioak

Aditz-izen hauek *-tan* amaiera hartzen dute: *akabetan, eskapetan, akordetan, preguntetan, pentzetan...*

Analogiaz *-tzean* amaiera duten aditz-izenak ere topa ditzakegu: *pentzean...*

- *-IDU* amaiera duten aditz-partizipioak

Aditz-izen hauek hiru silabakoak edo laburragoak badira *-duten* amaiera hartzen dute: *eriduten, leidunt, jodidunt, mugidunt...* Eta lau silabakoek eta luzeagoek *-ten*: *eskribiten, esistiten, enteniten, pertenesiten...* Hauetan ere, analogiaz amaiera ezberdinetako aditz-izenak agertzen dira: *koiten, entenidunt, mantenidunt, segiten...*

- *-I* amaiera duten aditz-partizipioak

Aditz-izen hauek *-ten* amaiera hartzen dute: *ibilten, ifinten, asten, yosten, ikusten, erosten, ekarten, yausten, ikisten, igurditen, yagiten...*

- *-N* amaiera duten aditz-partizipioak

Aditz-izen hauek ere, *-ten* amaiera hartzen dute: *egoten, yagoten, emoten, yaten, entzuten, irikiten, ereiten, yakiten...*

- Bestelakoak

*-a* amaiera duten aditz-partizipioak:

Aditz-izen hauek *-ten* amaiera hartzen dute: *ataraten, botaten...*

*-e* amaiera duten aditz-partizipioak:

Aditz-izen hauek *-tan* amaiera hartzen dute: *erretan, betetan...*

*-o* amaiera duten aditz-partizipioak :

Aditz-izen hauek *-ten* amaiera hartzen dute: *yasoten, itoten, yoten...*

*-l* amaiera duten aditz-partizipioak:

Aditz-izen hauek *-ten* amaiera hartzen dute: *ilten...*

Laburbilduz, hauek dira sortzen diren aditz-izenak, baina kontuan hartu behar dugu analogiaz, amaiera hauek ez eze, beste amaiera askotako aditz-izenak ere sor daitezkeela:

Aditz-partizipioa	Aditz-izena
<i>-tu/-du</i>	<i>-tzean, -tan</i> eta <i>-tuten/-duten</i>
<i>-atu</i>	<i>-ten</i>
<i>-eu / -au</i>	<i>-(e)tan</i>
<i>-idu</i>	<i>-duten</i> eta <i>-ten</i>
<i>-i</i>	<i>-ten</i>
<i>-n</i>	<i>-ten</i>
<i>-a</i>	<i>-ten</i>

<i>-e</i>	<i>-tan</i>
<i>-o</i>	<i>-ten</i>
<i>-l</i>	<i>-ten</i>

## 4.1.2. Aditz jokatuak

Atal honetan tratamenduak eta aditzaren erabilera aztertu ditugu eta azterketa hau definitzeko berbarik aproposena galera da. Bai tratamenduetan, bai erabileran galera ikusiko dugu edo beste modu batean esan nahi bada sinplifikazioa. Edozelan ere, erraz ikus daiteke Gaminde (1984) eta Yirizarren (1992) lanetan agertzen diren datuak askoz aberatsagoak direla gure ikerketan batu ahal izan ditugunak baino. Lan horietatik gurera galera nabarmenak aipatzearren, andrazkoen alokutiboa eta Nor-Nork aditz sailarena direla esango genituzke.

### 4.1.2.1. Tratamenduak

Alberdik (1994) tratamenduen gaia jorratu zuen bere doktoretza-tesian. Bere datuak berretsiz, esan dezakegu gaur egun bizirik dauden tratamenduak bi direla: neutroa eta alokutiboa. Hirugarren bat ere ezagutzen bada ere, berorika, guztiz indargalduta dagoela esan behar da.

#### Neutroa

Erregistroen erabilera pertsona bakoitzarengan ezberdina da, baina oro har, guztiek dauzkate antzeko ohiturak. Erregistro neutroa bere izenak esaten duen moduan edonorengana zuzentzeko erabiltzen da, beraz, erregistroen erabilera zehazteko, hobeto egingo dugu alokutiboa norekin erabiltzen den azalduz.

#### Alokutiboa (hitanoa)

Dakigunez, alokutiboa ez da errespetuzko erregistroa, baina ezin dugu esan beti lagunarteko erregistroa denik. Alokutiboa, batez ere, gizonen erabiltzen dute eta hiztunen arabera modu bitan erabiltzen da: batzuek lagunaren artean baino ez dute erabiltzen eta beste batzuek, gizon eta mutil guztiengana zuzentzeko erabiltzen dute<sup>65</sup>. Aurrean dagoen gizona helduagoa bada eta ez bada laguna, jakina, erregistro neutroa erabiliko dute. Semeei ere hitanoz ez egiteko joera da nagusi hiztunen artean.

Hona hemen gizonen hainbat iritzi:

- *Nik "i" eiten yotxiat berba.... txakurrari beti, persona edadekoari egundo bes.*
- (Hitanoz) *Abadeari igual bai, segun.*
- *persona edadekoari estok itxurea "i" eitea.*
- *neskari, enbraskoari egundo bes,*
- *ni baño gasteoari egundo bes.*

<sup>65</sup> Adibide moduan esango dut niri, ezagutu barik eta kanpotarra izanda, gutxi gorabehera gizonen %40k hitanoz egin didala hasiera-hasieratik

- *Nik neure edadekoari itano eiten dotziet, ba, etzean gasteataos, estotziet itano eiten, da gause motza gasteari “i” eta eiten, eiten yakie e, nik kanpokoari danari, esta? Baya etzean estotziet eiten.*
- *Ba, itano esatea motza, itanoa, ba, bakisu, ba, berba bastue da ori isites, baño jentea edadean badaos koadrillen orixe berbea dana itanoa bai orixe kostunbrea da ta, baya gasteari estotziet eiterik, gurean llobeak iru mutil dekos da danari “su”. Llobeari berari bai, baya llobean gixonari areri eiten dotzet.*
- *Sarri askotan neu lotuten nas jentean aurrean, ba, konpletamente, ba, sertute, kasi nerbioas, se ondo dao gaste batek ogei uertekoari, baya nik esetu dodas irurogetamar urteko gixonari igual: I au! Ori de ya... pentzetan dot ori... rutinea daoela or edukasiñoa edo or seoser falta da neuretzako.*  
 Ink: *Nik suri i eitea errespetu falta edo, esta?*  
*I esatea bai, suk niri esatea esetu barik. Ala, nik esaten botzut “i” da bestea, ta ametitan botzut neuk...; esateko sure partetik persona bateri esatea “i” ni neuretzako ori de falta de respeto total.*  
 Ink: *Ta suk semeari eiten dotzesu i?*  
*Es normalmente “su”, ori de kostunbre bat artu dodana.*  
 Ink: *Andrari bes?*  
*Andrari bes, andrari bes, ori de neuretzako falta de respeto da.*  
*Nineuk esaten dotzut “i”, “i”, persona bateri esetu barik ogei urteko mutil batek ori irurogetamarrari edo sarrago edo berrogetamar bardin de, es? Ogei urteko mutil... berrogetamar bateri, “i”? Estot topetan.*
- Ink: *Itanos eiten dosu?*  
*Bai konfidansa asko seragas itanos.*  
 Ink: *Baya andrari es.*  
*Es, es pentzeu bes.*  
 Ink: *Andrak aren artean eiten deurie?*  
*Es, estot pentzetan. Konfiansa andie dekienak... lenaokoak, lenaokoapai eiten deurie: “i estakine ala?” Ser esango dot? Gixonak “estakik” esaten geuntzen “estakik ala?” Da andreak “estakiñe?”*  
 Ink: *Semeari?*  
*Es oin es, su.*  
 Ink: *Estakie itanos eiten?*  
*Estakien itanos eiten? Es, etzean es sikanan, kanpoan lagun konfidansa askoas igual bai. Pentzetan dot baietz, bai, yakin badakie.*

Esan dugun moduan erregistro hau ia gizonek baino ez dute erabiltzen, oso andre gutxi<sup>66</sup> erabiltzen baitute. Gizonek, ohiturak ohitura, ez dira inoiz emakumeengana hitanoz zuzentzen, ez dakite eta.

Ink: *Eta andraskoari iten dotzesu itanos?*

Lek: *Es, etxakiat eta!*

Ink: *Estakisu?*

Lek: *Es, andraskoari eiten es, se andraskoak bakik, ba, “etorri aiñe ona!” ta etxakiat ser, etxakiat. Egundo etxoat aitua. etxoat erabili andraskoan... egundo. Ba, andraskoan itanoa-eta es, es. Andrari es.*

<sup>66</sup> Oso deigarria da mundu guztiak jakitea nortzuk diren hitanoz egiten duten andreak.

Ink: Ta estosu entzun? Eurek eiten daurie?

Lek: *Eurek eiten... ba, batzuk... emen Igorren asko es. Igorren jente askok etxok eiten itano, andraskoakaitik diñot. Batan batek ein lleikek, ba, nire arrabeape eiten yok itano baya noseapeñean, estakik? Ba, esaldi bet itano ta gero bestea normal.*

Emakumeekin hitanoa erabiltzen duten gizon apurrek gizonaen hitanozko formak erabiltzen dituzte, baina esan bezala, ez da batere arrunta gizon batek andre bati hitanoz egitea; ezta aldrebes ere, emakumeek orokorrean ez dutelako hitanoz egiten. Igorreko andre gehienek esaten dute ez dakitela hitanoz egiten baina eurekin konfiantza apur bat hartzen denean lortzen da esaldiren bat edo beste ateratzea. Hitanoak nolabaiteko ospe txarra du, nahiko estigmatizatuta dago; emakumezko hitunen ahoan: “berba motza da”.

Hona hemen emakumezko batzuen iritziak:

- Ink: *Andrape eiten deure?*

Gizonaekoa: *Balitikik andrape.*

Emakumezkoa: *Andrak es*

- Ink: Itanos bakisu eiten?

Emakumezkoa: *Itanos? Yoai... olango txorakeriek, gustau es.*

Ink: Estosu erabilten?

*Es, iños es.*

Ink: Nori egiten yako?

*Gurean nebea or dao ta koñatue etorten yako, da gurean beste nebea etorten da eta nondik ibili as? Non eoas? Nos ator? Olantxi, gausek aistu te, ba, olantxi segidu ostean itano emen esta asko iten, itano gitxiten da. Gixonartean geyao, askosas bai. Enbran artiño baño gixonartiño bai. Ta “etxoai apur bet” ta olangorik, ori ya paraten da bastu, bastu.*

- Ink: Nos eiten da itanoa?

*Nos eiten dan itano? Ba, nire gixonapeti, nik gitxiao eiten dot.*

Ink: Suk gixonagas itanos iten dosu?

*Es berak nigas bai. Baya nik erantzuten dotzet beti euskeras normal. Itano gitxi.*

Ink: Esaten daudie eskondu eskero, estala itanos eiten...

*Eske orrek danari eiten dotzie itano, naiko oiturea deko kostunbrea deko.*

Ink: Suk seure buruagas eiten dosunean itanos eiten dosu?

*Es, euskeras nik itano gitxi eiten dot. Badakit eiten baya estot eiten.*

- *Da bitisu gure aiteri etxakon gustetan itanos eitea, etxakon gustetan.*

- *Asko galdu de, asko galdu de nik pentzot es sala eiten gero pentzetan yeurien atxiñekoa bastue dana esaten yeurien bastuaue dana esaten yeurien es? Edukasiñorik estekonak iten deu olan berba be esaten eurien, beitu selango errespetu gitxiges eiten dotzen berba edo eiten dosuen ta yoan da aolan apurke-apurke galtzean. Nik pentzetan dot orixe isin dala.*



Hona hemen jasotako adibide batzuk<sup>67</sup>:

Ink: Eta beragas ikusi, junteu eta ser esaten dotzesue?

A: “*Ola, selan abil? Ondo sabisie suepe? Bai, bañabine, bearrera be (...) ta bañoana bearrean be, bañoana, bañoana se berandu ein beayatana, bearrean yoan beayoanat oin gaueko amarrak arte, tire une ba.*”

R: Selan esan dosu? Tire une?

A: *Tire une.*

*Ona da bear lekue eukitea olan. Bear lekue eukitea ona ona ori. Len bapetxoanan...*

*“Eta ortxe ñabine ta bañoana tertzio dona-ta. Ba, yoi!”*

*Egundo estona entzun beiñipein?*

A: *Es. Ta serape, asko ite euen itano.*

B: *Konbersasiñoan ta onan es, baya: “Oin be or abil i? Barriketan pareute, mogidu adi!” Onango batzupai.*

Alberdik (1994) noketaren galeraren berri ematen zuen alderdi honetan.

“Gure sarearen gainerako herrietan (Laukiz, Zeanuri, Orozko, Zeberio eta Eskoriatza) noketa atzeraka dabil eta artean. Oro har, oso gutxi erabiltzen da kanpo, batez ere sexukidetasunik egon herriotan arrebari berari esanik ez, gizonezkoek ez jarduteko.” (Alberdi, 1994: 627)

Morfologiari dagokionez, adibideek argi erakusten dute Aurrekoetxeak (1994: 999) azaldu zuena, mendebaldeko bizkaieran *-na* morfema daukagula, alegia.

Andrazkoen alokutiboarekin amaitzeko, esan behar da Yrizarrek (1992: 15-21) bere lanean makina bat adizki ematen dituela ikerketa honetan batzea ezinezkoa egin zaiguna.

Bizirik dagoen hitanoari, gizonezkoari, dagokionez, esan behar da ez duela beti betetzen Euskaltzaindiak aipatzen dituen hiru debeku edo baldintza gramatikalak.

Lehenengo debekua partzialki betetzen da, hautazkoa da hiztunen artean. Honetan, Euskaltzaindiak (1987a: 391) esaten du aditzaren forma alokutiboak perpaus nagusietako adizkietan erabiltzen direla, eta ez menderatuak dauden adizkietan. Hizkera honetan joera nagusia araua betetzea bada ere, alokutiboazko adizkiak batzuetan mendeko perpausetan ere erabiltzen dira.

Araua betetzen dituzten adibideak:

- *Kodeñea nik uste yoat ixitesala orixe ebaiteuena*
- *baya kodeñea ixin dok aurreko ebagiten deuen burruñe, bai ori*
- *an goyen daoen etze surie aren ondoan yekuk an basoan txabola bat*
- *lelango ankeati artu orduko txarrilten deuenak gantxoagas txarrieri sereti goatzean yotxek emetik ago aspitik.*
- *ondo eutzinde daoenean sartzean yotxek kutxilloa ta odola atara*

<sup>67</sup> Adibide hauek jasotzeko euskal filologian lizentziatua den Raket Iruarizagaren laguntza izan dut (Igorreztarra bera -ni kanpotarra bainaiz- eta hitanoz egiten duten andre batzuen auzokoa eta baten iloba). Ahalegindu gara andre horiekin emakumezkoen hitanoa batzen, baina konturako gara ez dutela gizonen antzera egiten. Ez dute elkarrizketa oso bat hitanoz egiten, askotan esaldi solteak dira, “cliché” modukoak, eta batez ere aginteran.

Araua betetzen ez dituzten adibideak:

- *ori sentidue emoten yotxat da ik esan dokenean bebai*
- *abarkak bakik ser dosaken?*

Bigarren debekua (Euskaltzaindia, 1987a: 392), galderetan adizki alokutiboak ez erabiltzearena, ez da inoiz betetzen. Hizkera honetan galderetan ere erabiltzen dira adizki alokutiboak.

Adibideak:

- *Klaro, pena emoten yok, joder ardi bet, baya ser ingo yupa?*
- *Gero labrantzean nok ibili biyopa?*
- *Besteak selan esan yusepa?*

Hirugarren debekuari dagokionez (Euskaltzaindia, 1987a: 392), gauza bera esan dezakegu. Honetan, Euskaltzaindiak harridurazko esaldietan ez direla adizki alokutiboak erabiltzen esan arren, hizkeran honetan beti erabiltzen dira.

Adibideak:

- *Hau be badok!*

## Berorika

Arestian aipatu dugun legez, berorika tratamendua guztiz indargalduta dago. Hiztun guztiek ezagutu arren, ez dute bere bizitza osoan erabili, gurasoei edota aitaita eta amamari entzundako tratamendua da, baina lan honetako hiztunek ez dute sekulan erabili, ez bada txantxak egiteko. Alberdi (1994) ere iritzi berekoa da eta honela aipatzen du:

“Bizkaierari gagozkiola, esan beharra dago erabili, gaur egun inor gutxi erabiltzen duela beroriketa. Gehienbat zahar-zaharrak -eta ez denak, jakina- izaten dira berorika aritzeko ohiturari eusten diotenak.” (Alberdi, 1994: 534)

“Harrigarriena, beharbada, beroriketaren galera azkarra izan daiteke, oraindik denbora asko ez dela bizirik baitzegoen errespetuzko tratamendua apaizarekin hitz egiteko. Aulestian eta Zeberion 30-35 urte inguruko jende gazteak umetan erabili du tratamendu hau; Elorrión, Abadinon, Zeanurin, Larrabetzun, Orozkon, Otxandion eta Eskoriatzan 50-60 urte ingurukoek ondo gogoratzen dute txikitik apaizarekin eta, berorika aritu izana. Gazteek, ordea, omenez -gurasoei entzunda- baizik ez dakite lehenagoko berorikako ohituraren berri.” (Alberdi, 1994: 534)

Hiztunek emandako informazioan berorika errespetuzko tratamendua zen eta batez ere abade, guraso, aitaita-amama edo adineko pertsonengana zuzentzeko erabiltzen zen.

Adibidea:

Ink: Ta berori ein dotzesu iñori?

Lek: *Ba, lenao, bai. Abadeari-te, abadeari te etxakiat nik, enok gogoratzen lar baya medikueri igual... etxoat pentzetan; abadeari. Ta persona onan edadekoari-te, es. Eiten soan eh! Eiten soan, jentea onan... aiteri bai, iños entzun yoat nik berori esaten, semeak aiteri berori ya edade bategas.*

Ink: Eta gaur egun egiten dotzesu iñori? Abadeari?

Lek: *Es, gaur iñori bes. Berori? Me kaguen la letxe!*

Ink: Iñopestatu eiten?

Lek: *Es, etxoat entzun, ori, berori, ointxe... ogetamar urteokas etxoat entzun berori.*

Ink: Abadeari be esin yakien ein itanos es? Berorika.

B: *Berori, berori eiten yakon. Bai, baia oin Yosuri<sup>68</sup> berape esaten deu eee niri aolan es.*

Ink: Suek eiten dotzesue berorika baten bateri?

A: *Es, iñori bes, Yosupe gure be esteu eiten.*

B: *Niri olan es ein berbarik.*

#### 4.1.2.2. Erabilera

##### 4.1.2.2.1. Aditz-paradigmaren erabilera

Lehenik, Hualde & Urbinak (2003) egin zuten moduan, moduen arabera aztertuko dugu erabilera, eta ostean, sailaren arabera.

#### Aditz-moduak

- Indikatiboa

Indikatiboan bi denbora dauzkagu: orainaldia eta lehenaldia. Biek dauzkate bere adizkiak baina, inoiz, oso gutxitan, lehenaldiko adizkiak sortzeko orainaldiko adizkiei *-n* gehitzen zaie edo Hualdek (2001) azaltzen duen moduan, ergatibo leku aldaketaren galera. Esan dudan moduan, hau ez da batere ohikoa, baina honelako kasuak, egon, badaude.

Adibideak:

*Gindun* edo *ginun* esateko *dun* da formarik erabiliena:

- *Da eskolara ibili gintzesan debaldekorra, San Kristobalera, estun euki dirurik eta.*
- *Ortxe bean eon san karabie da andik goitik bajatan euriesan arriek da bota deuriesan.*
- *Eske emen orrentzako radiorik estan egon. Es, unikamente egon sirean lelango olango erruedak.*

- Baldintza

Baldintza mota bi dauzkagu: erreala eta alegiazkoa. Baldintza erreala egiteko indikatiboko adizkiak erabiltzen dira. Alegiazko baldintza egiteko aldiz, ugaritasun handia dago hizkera honetan. Hasteko, denboraren aldetik, ez dira bereizten orainaldia eta lehenaldia, testuingurutik ulertu behar da. Baldintza egiteko adizkiak era askotakoak izan daitezke, baina laburbilduz, alegiazko baldintza eratzeko lau modu daude:

- BA + Aditz laguntzailearen erroa
- BA + Lehenaldia
- BA + Ondorioa
- BA + Ahalera

<sup>68</sup> Igorreko abadea.

*Izan* aditzaren singularreko 1. pertsonarekin, adibidez, hauek izan daitezke aukerak:

- a) banintz
- b) banintzen
- c) banintzake
- d) baninkite

Ondorioa ere hiru modukoa izan daiteke: b), c) eta d) aukeren parekoa:

- b) nintzen
- c) nintzake
- d) ninkite

Brown (2000) ahalegindu zen azaltzen botatiboaren bitartez baldintza eta ahalerarekin gertatzen den nahasketa mendebaldeko hizkeretan.

Hauek dira hizketa librean batutako adibide batzuk (aurrean dagoen letra egindako sailkapenari dagokio):

- b) - ak euki baseuen bere karrera oin beste sera bat ixingo san*
- d) - Ointxe bost minutu, amar minutu lenao etorriko basenkite ...*
- d) - señal ondo bisi nasena, txarto bisiko baninkite a bentanea sabalik*
- a) - Oin bearra baleuko oso ondo*
- c) - nik onango au ointxe ikusiko baneunke*
- a) - arek lenaokoak atzera etorriko balire arek lenaokoak*
- a) - ezpallegok ure edango geinkek*
- d) - Nik esan bear bañekek ori...*

- Ahalera

Ahalerako oso adizki gutxi erabiltzen da. Erabiltzen direnak orainaldikoak dira, eta ez beti; Nor eta Nor-Nork kasukoak baino ez, eta azken hauetan bakarrik Nor hirugarren pertsona denean. Beste kasu eta denbora guztiak egiteko, salbuespenak salbuespen, 'ahal' eta 'ezin' erabiltzen dira eta dagokien aditz laguntzailea.

Adibidez:

- Nor kasuan: *yoan lekitek* eta *yoan al yok*.
- Nor-Nori kasuan: *yausi al yatak* baino ez.
- Nor-Nork kasuan: *ein lleikek* eta *ein al yok*.
- Nor-Nori-Nork kasuan: *emon al yotxek* baino ez.

Askotan, hiztunek beste baliabide batzuk erabiltzen dituzte ahalera ordezkatzeko. honako hauek jaso dira galdetegietan.

- Yo puedo ir: *Ni banoa*.
- ¿Me puedes dejar el carnet?: *Karnea itxikostesu?*
- Yo te puedo dejar el carnet: *Nauk itxikotzut karnea*

- Subjuntiboa

Subjuntiboan, ahaleran bezala, Nor eta Nor-Nork saileko (Nor hirugarren pertsona denean) orainaldiko adizkiak baino ez dira erabiltzen, eta gainera, oso gutxitan erabiltzen

dira. Beste kasu eta denbora guztiak egiteko *-teko* erabiltzen da. Hizkera honetan subjuntiboa egiteko aditz-partizipioa erabiltzen da, eta ez aditz-erroa.

Hizketa librean batutako adibide guztiak orainaldikoak eta hirugarren pertsonakoak dira:

- *Pernilek edo orrek gatzao artun, eukin diesen egunek an gatzatute*
- *botika suri bet eoten san preparaute, andik asurretik urten estien... ondo kureu diten asurre*
- *eneuen eskatu besterik, sikan bere urtegune eldu ditela*
- *Landareape gure deu sutu ditela*
- *punte bat berantza da kodeñea ipinten da aren ganean burrin bet ixin ditela*
- *Baye normalmente itxoten da, ba, euri bet ein diela*

Galdetegietan ahalera + n ere jaso da:

- *ni yoan nekiten*
- *su yoan sekitesen*

- Agintera

Aginteran bigarren pertsonarekin baino ez da erabiltzen; lehenengo eta hirugarren pertsonetarako subjuntiboa + *(e)la* edo *-t(z)eko* erabiltzen da. Dena den, ohikoena agintera egiteko aditz-partizipioa erabiltzea da.

- *Yoan saite!*
- *Yoan saitie!*
- *Esplikaisu, esaisu*
- *ori es eisu esan se entzuten botzu Lusiferrek beragas darotzu*
- *sikan bere urtegune eldu ditela*
- *etorteko ona, bai*

### Aditz sailak

- Nor

Bi dira Nor kasurako dauden aditz laguntzaileak: *izan* eta *edin*. Indikatiboan *izan* erabiltzen da; baldintzan *izan* eta *edin*; eta ahaleran, subjuntiboan eta aginteran *edin*.

- Nor-Nori

*Izan* da erabiltzen den aditz laguntzaile bakarra, bai indikatiboan, bai baldintzan. Beste denboretan ez da erabiltzen. Subjuntiboa egiteko inoiz iraganeko adizkiak erabiltzen dituzte:

- *trapu garbi bet edo bi ure yausten yakona txupau yakon*

Nor-Nori saileko adizkiak Nor hirugarren pertsona denean baino ez dira erabiltzen, nekez aurkituko dugu Nor hirugarren pertsona ez den adibiderik.

- Nor-Nork

Bi dira Nor-Nork sailean erabiltzen diren aditz laguntzaileak: edun eta egin. Orainaldian eta baldintzan edun; ahaleran edun eta egin; eta subjuntiboan eta aginteran edun.

Nor-Nork sailaren galera:

Elorduik (1996) aldaketa honen berri eman zuen hegomendebaldeko bizkaierarako.

“Orobat balentzia eredu ergatiboaren hausketa gertatu da, hiztun guztien erabileretan eredu honen ordeztu hiru bidetako (3-way) balentzia eredu zabaldu delarik. Komuntzadura ereduaren sistemaren murrizketari dagokionez, argumentu bakar batekiko komuntzadura duten formak, alegia, NOR (naz, zara, da, ...), NORI (jat, jatzu, jako...) eta NORK adizkiak (dot dozu, dogu ...), hoberen mantentzen direnak dira. Komuntzadura eredu konplexuagoen artean, NOR NORI eta NOR NORK komuntzadura ereduak ia erabateko galtzea dago eta NORI NORK ereduak da indarrean mantentzen den bakarra.” (Elordui, 1996: 728-729)

Nor-Nork saileko adizkiak Nor hirugarren pertsona denean baino ez dira erabiltzen, Nor beste pertsona bat denean Nor-Nori-Nork saileko adizkiek erabiltzen dira. Inkesten bidez Nor-Nork-eko adizki batzuk batu baditugu ere, hizketa librean eutsi aditz laguntzailea baino ez da agertu.

Adibideak hizketa librean:

- *Da gero eroan oskun, ba, asko ara Andalusira bearrera*
- *neuk eróan bitzut Iñaki*
- *barríro eróan oskun ordúen da Búrgosera*
- *artu oskun kotxean, eroan oskun ara*
- *ille bi edo olan kuarztelean ta gero atara oskuen orti*

Galdetegietan:

Ink: Selan esaten dosu te he visto?

*Ikusi dotzut*

Ink: Ta ikusi saitut edo?

*Es, es, es, badakit ikusi satut esan bear dana baya ikusi dotzut.*

Ink: Eta sekulan estosu erabilten ori?

*Es, iños bes. Orrek euskera sera estot... gurea. Txarto baya bueno; txarto ala ondo baya gurea da.*

Ink: Selan esaten dosu “te he visto”?

*Ikusi oat. Ikusi dotzut, ikusi doat gixonari, andreari<sup>69</sup> ikusi dotzut, da lagunek-eta danean ikusi doat.*

Ink: Ikusi saitut?

*Es, suri ikusi dotzut.*

Ink: Saitut?

*Es, suri ikusi in dotzut.*

Nor-Nork saileko adizki batzuk dakizkien hiztunaren elkarrizketa<sup>70</sup>:

Ink: Te he visto.

<sup>69</sup>Andrazkoari ez zaio hitanoz egiten.

*Ikusi dotzut.*

Ink: Ikusi saitut es?

*Ikusi saitut? Nik ikusi dotzut esango neuke olan derrepente baten, ikusi dotzut.*

Ink: Baya saitut entzun dosu iños?

*Bai, bai.*

Dimako hiztuna<sup>71</sup>: *Ikusi dotzut txarto, ser ikusi dotzesu? Ori ikusi dot, ikusi saitut.*

Ink: El nos ha visto?

*Ikusi doste, ikusi doste, ori be bardin de kasureko, ikusi doste, ser ikusi doste? Ni ikusi neu, berak ikusi neu, ikusi neu be esan lei.*

Ink: Eta aik bada?

*Aik ikusi dostie.*

Ink: Baya beste modu orretan?

*Ikusi neure, neure.*

Ink: Aik gu?

*Ikusi doskue.*

Ink: Beste modu orretan?

*Ikusi doskue, ikusi... dosku?*

Dimeko hiztuna: *Gaitus.*

*Ikusi gaitu, edo. Aik gu ikusi gaitu? Aik gu ikusi gaitu be esango neuke.*

Ink: Selan?

*Ikusi gaitu, aik gu ikusi dosku edo ikusi gaitu.*

Lan honetan jasotako datuek balio izan dute beste hizkuntzalari batzuek (Fernández & Rezac, 2010 eta Mounole, 2008) Nor-Nork galera honek sortzen dituen datibo osagarri bitxiak deskribatzeko eta azaltzeko, datiboaren lekualdatzearekin konparatzeko edota gaztelaniaren leismoarekin alderatzeko.

- Nor-Nori-Nork

Bi dira Nor-Nori-Nork sailean erabiltzen diren aditzak: eutsi eta egin. Indikatiboan eta baldintzan eutsi erabiltzen da, eta aginteran egin. Ahalera eta subjuntiboan ez da erabiltzen. Lehen aipatu dugunez, Nor-Nork saileko adizkiak ordezkaten ditu Nor hirugarren pertsona ez denean.

Laburbilduz, hauek dira erabiltzen diren aditz laguntzaileak:

	Nor	Nor-Nori	Nor-Nork	Nor-Nori-Nork
Indikatiboa	Izan	Izan	*Edun eta Eutsi	Eutsi
Baldintza	Izan eta Edin	Izan	*Edun eta Eutsi	Eutsi
Ahalera	Edin	-----	Egin	-----
Subjuntiboa	Edin	-----	Egin	-----
Agintera	Edin	-----	Egin	Egin

<sup>70</sup>Ikusten denez, nik eta bere senarrak proposatuta onartu zituen, bestela, lehenengo erantzunean beti eutsi-ren adizkiak.

<sup>71</sup>Bere senarra da.

#### 4.1.2.2.2. Aditzen erroak eta morfemak

Puntu honetan bereizgarriak diren ezaugarriak ikusiko ditugu: pluralgileak, *izan* eta *\*edun* aditzen erroak, adizki batzuen ahoskera eta iraganeko hirugarren pertsonaren marka.

- Pluralgileak

-s eta -tu- dira hizkera honetako pluralgileak. -tu- oso gutxitan erabiltzen da bera bakarrik, gehienetan, forma pleonastikoetan agertzen da, eta bakarrik agertzekotan hirugarren pertsonan izango da.

Forma pleonastikoak:

- *idiek eta eukiten situsan karreteruek eta orrik*
- *olan burrin bi eroaten ditus, da gero andik taketak sartzean yakos*
- *Gure aite ixin sen kantero, argine, arrisko etzeak eiten ditusena*
- *Da milisianoak allegeu da aren mantak nok batu ditusen*
- *emen eukiten situsen takotxu betzuk, eta aitara amarreu sokeagas*
- *Orkoxekoak ekarten situsan idiek*
- *bei bapakarrik eukiten situsenari emoten otzien idie bear eiteko*
- *prestatuten otzien palu bet ta aregas yoten ditues*

-tu- pluralgilea baino ez duten formak:

- *Soloak eta garbi manteniduten ditu, es?*
- *mutiko sarran semeak lau urtetxu euko ditu*
- *Atekosan benak, se odolak benak eukiten ditu ta aik kendu in bear yakos morsillak eta eiteko*

- Komuntadura eza: pluralgilea falta duten formak

Ez da ohikoa pluralgilea falta duten formak aurkitzea ahozko jardunean baina adibideak egon badaude:

- *baya etxata akordetan isenak*
- *ta orrek etzebarriek, txaletak, ein deure*
- *arriatxak artzean eurien*
- *oin be badekot nik layek*
- *Oin be badekot lai betzuk nik or*
- *ta gero eiten geuntzen ogiek eta famitxek*

- *Izan*

*Izan* aditzaren erroa -a- da hirugarren pertsonan: *da* eta *san*. Hauek ez dute erroa aldatzen atzizki bat eransten zaienean: *salako, dala, sanean, dan...* Halaber, *da* adizkitik sortzen den zenbatzaile orokorrak ere, erro bera mantentzen du: *dana*.

- *\*Edun*

Nor-Nork saileko adizkietan -o- erroa daukagu orainaldian: *dot, dok, dosu, dosue...*

Nor-Nork saileko adizkietan -eu- erroa agertzen zaigu lehen eta hirugarren pertsonetan, indikatiboan eta baldintza-ondorioko aditz-formetan: *deu, deurie, leuke, neuen, euen, euren, neunke...*



- Nor-Nori saileko lehenaldia egiteko ‘oraina + -n’  
Hizkera honetan, eta bizkaieraz ohikoa denez, lehenaldia egiteko ‘oraina + -n’ egiten da (beste euskalki batzuetan *zit-...-n*).  
Orainaldia      Lehenaldian  
*yata*            *yatan*  
*yako*            *yakon*  
*yatuz*           *yatzun...*
- Adizki batzuen hasierako [j] ahoskera  
Nor-Nori sailean hasierako kontsonantea [j] da: *yata, yatak, yako, yaku, yatzu, yakie...*  
Adizki alokutiboetan ere ahoskera bera daukagu: *yoat, yotxiat, yostek, yakuk, yakosak, yegoan...*
- Iraganeko hirugarren pertsonari dagokien marka: Ø- / S-  
Iraganeko hirugarren pertsonari dagokien marka beti da Ø-, eta bakarrik \*edun-eko adizkietan ager daitezke S- hasiera duten adizkiak.

\*Edun-en hautazkoa Ø- zein S-:

<i>euen</i>	<i>seuen</i>
<i>euren</i>	<i>seuren</i>
<i>eurien</i>	<i>seurien</i>

Beste guztietan: Ø-

*ebilen*  
*ebisen*  
*egoan*  
*egoasan*  
*ekarren...*

- Bigarren eta hirugarren pertsonaren plurala  
Bigarren pertsonaren plurala -e da, eta hirugarren pertsonarena: -e eta -r(i)e dira.

<i>dosu</i>	<i>dosue</i>
<i>yatzu</i>	<i>yatzue</i>
<i>dotzu</i>	<i>dotzue</i>

<i>deu</i>	<i>deure / deurie</i>
<i>yok</i>	<i>yerek / yeuriek</i>
<i>yako</i>	<i>yakie</i>
<i>dotze</i>	<i>dotzie</i>

#### 4.1.2.2.3. Aditz trinkoen erabilera

Igorren aditz trinko hauek erabiltzen dira: *izan, ibili, joan, etorri, ekarri, eroan, jakin, eragon, iruditu, iritzi*.

Aditz guztiek ez daukate emankortasun bera. *Eragon*, adibidez, *eurie daragoyo* esaldian baino ez da erabiltzen. *Iruditu* hirugarren pertsonan baino ez da erabiltzen: *Gero ganera bearra fjoa estaoela dirudi*.

Beste aditz trinko guztiak, salbuespenak salbuespen, orainaldian erabiltzen dira, gutxiagotan lehenaldian eta are gutxiagotan baldintza-ondorioko perpausetan. Azken bi hauetan gehien erabiltzen diren pertsonak hirugarrena eta singularreko lehenengoa dira, besteak, nekez aurkituko ditugu. Trinkoen ordez, aditz perifrastikoak erabiltzen dira.

#### 4.1.2.2.4. Aditz faktitiboak

Gamindek (1989) aditz faktitiboak, eragileak eta erazleak ere deituak, bizkaieraz zelan gauzatzen diren aztertu zuen. Bere artikuluan hainbat herritako informazioa ematen du. Arratiako bariataterako Larrabetzu, Bedia, Dima eta Zeanuriko datuak ematen ditu, Igorrekorik ez. Hizkera honetan aditz faktitiboak *araso*-ren bidez osatzen dira:

- *Geldorrosteu, ‘escaldar’, ‘escaldar’ estakisu ser dan? Uretan irikin aldi bet emonaraso serari mosillari,*

#### 4.1.3. Aditz-inbentarioa

Asko izan dira aditzari buruz egindako lanak, euskal dialektologian betidanik egon da nolabaiteko obsesio bat aditza batzeko Bonaparteren (1869) garaitik. Ia monografia guztietan aditz-inbentario osoa batu izan da (Etxebarria 1991, Gaminde 2000, 2001a, 2003..., Arretxe 1994, Makazaga 2009, Ormaetxea 2006...) eta askotan beren-beregiko lan zehatzak aditzak batzeko (Zelaieta 1990, Makazaga 2006, Agirrebeña 2005, Elexpuru 2006...). Euskararen aditza bere osotasunean aztertu dutenak Yrizar (1992) eta Gaminde (1984) dira.

Ondoko puntuetan aditzaren inbentarioa aurkeztuko dugu, inbentario hutsa, erabileraren azalpena 4.1.2.2. puntuan jaso delako. Inbentario honetan agertzen diren adizkiak modu bitan jaso ditugu; alde batetik, transkripzioetan agertu diren adizki guztiak batu ditugu, eta bestetik, galdetegien bidez batutakoak. Galdetegien metodologiari buruz, esan behar da hitzunei gatzelaniaz galdetu zitzaizela itzulpena eman zezaten. Guztiz bat nator Ormaetxearekin (2006):

“Normalean honelako lanetako aditz-taulek sistema osatu eta koherente bat itxuratzen badute ere, errealitatean kontuak ez dira hain osatu eta ez hain koherente. Hasteko, esango nuke hitzunek adizki kopuru txikia erabiltzen dutela eguneroko jardunean. Hori bera ikusi dugu gorago egin dugun ahozko testuaren azterketan. Oro har, esan daiteke batez ere indikatiboko formak erabiltzen direla, eta gainerakoek oso erabilera urria dutela. Hori dela eta, lekukoek adizkiak ematean zalantza ugari erakusten dute, batez ere ahaleran eta subjuntiboan.” (Ormaetxea, 2006: 317-318)

Horregatik, galdetegian ez da beren-beregi aditzik proposatu nahi izan. Jakin badakigu, hitzun batzuek joera handia daukatela edozein proposamen onartzeko eta arrisku hori ekidin nahi izan dugu. Hala eta guztiz ere, argi utzi nahi dugu euskarazko aditzean posible diren adizki guztiak galdetu izan direla, nahiz eta asko ez diren jaso arrazoi birengatik: ez dutelako erantzunik izan, edo, gehienetan gertatu dena, galdetzen zen adizkia ordezkatzeko duen beste modu batean jaso direlako.

Adb: Tu me puedes dar: *suk emon al dostesu / seuk emongostesu*

Beraz, gure lanean ere, ez da aditz-aula sistema perfektu bat erakutsiko, hiztunek egunero jardunean adizki kopuru txikia erabiltzen baitute, batez ere indikatibo formekin. Puntu honetan, informazio osagarria legez ez ditugu ahaztu behar Gamindek (1984) eta Yrizarrek (1992) egindako lan oparoak.

Dagokion erantzunik jaso ez denean taulako gelaxka hutsik egongo da, eta horren azalpena 4.1.2.2. puntuan, erabileran, izango da.

Taula guztiak azaleko egituraren gainean egin dira. Adizki bat baino gehiago jaso denean, lehenengoak dira maiztasun handiz agertu direnak corpusean.

Tratamendu bi jaso ditugu: neutroa eta gizonezkoen alokutiboa<sup>72</sup>. Alokutiboen adizkiak letra etzanean agertzen dira.

Inbentarioaren sailkapena bitan banatu dugu. Lehenik, aditz laguntzailearen inbentarioa erakutsiko dugu, eta bigarrenik aditz trinkoena.

#### **4.1.3.1. Aditz laguntzailea**

Aditz laguntzailea sailen arabera aztertuko dugu: NOR, NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK. Halaber, aditz sail bakoitzean moduak ikusiko ditugu: indikatiboa, baldintza hipotetikoa, ahalera, subjuntiboa eta agintera.

---

<sup>72</sup> Andrazkoen adizki alokutiboak Yrizarrek (1992: 15-38) jaso zituen

## 4.1.3.1.1. Nor

- Indikatiboa

	Oraina	Iragana
Ni	nas <sup>73</sup> <i>nok</i>	nintzen <i>nintzoan</i>
Hi	<i>as</i>	<i>intzen</i>
Hura	da <sup>74</sup> <i>dok</i>	san <sup>75</sup> <i>soan</i>
Gu	gara/garies <i>gosak</i>	ginen/giñen/giñean/gintzesan/geintzen <i>gintzoan/gintzoasen/gintzesoan</i>
Zu	<i>sara</i>	sintzen
Zuek	<i>sarie</i>	sintzien
Haiek	dire/dires <i>dosak</i>	siren/sirean <i>soasen/soasan</i>

- Baldintza hipotetikoa

	Baldintza	Ondorioa
Ni	banikite/baninkite/banekite <i>banikitok</i>	nekite/nikite <i>nikitok</i>
Hi	<i>bainkite</i>	<i>inkite</i>
Hura	balitz /balikite/balekite <i>balikitok</i>	lekite/likite <i>likitok</i>
Gu	bagenkite/baginkite/baginteke <i>baginkitesak</i>	genkite/ginkite <i>ginkitesak/ginkitosak</i>
Zu	basinkite/basekites	sinkite/sekites
Zuek	basinkitie/basenkites	sinkitie/sekities
Haiek	balekites/balire <i>balikitosak</i>	leitikes <i>likitosak</i>

<sup>73</sup> ‘a > e / i,u, (C)\_\_\_’ arau fonologikoaren eraginez, *nes* adizkia jaso da.

<sup>74</sup> ‘a > e / i,u, (C)\_\_\_’ arau fonologikoaren eraginez, *de* adizkia jaso da.

<sup>75</sup> ‘a > e / i,u, (C)\_\_\_’ arau fonologikoaren eraginez, *sen* adizkia jaso da.

- Ahalera

Hirugarren pertsonetan izan ezik, ez da ohikoa entzutea ahalera. Adizki hauek galdetegiaren bidez baino ez ditut jaso, eta askotan, iraganerako ere berdin balio dute. Normalean *al* aditzarekin eratzen dira.

	Oraina	Iragana <sup>76</sup>
Ni	nekite/nikite/nenkite	
Hi	<sup>77</sup>	
Hura	lekite/likite/lei/liteke/leike/leikide <i>leik/litikik</i>	
Gu	genkites	
Zu	sekites/sikites/senkite	
Zuek	sekities/senkites	
Haiek	lekites/leitikes	

- Subjuntiboa

Hirugarren pertsonak baino ez dira erabiltzen. Beste kasuetan *-teko* da ohikoena. Jaso diren forma hauek iraganerako ere onartzen dira.

	Oraina	Iragana
Ni	<sup>78</sup>	
Hi		
Hura	diten <i>ditoan</i>	
Gu		
Zu	<sup>79</sup>	
Zuek		
Haiek	ditesen/ditesan <i>ditoasen</i>	

- Agintera

	Agintera
Hi	<i>ai/adi</i>
Zu	saite/saites
Zuek	saitie

<sup>76</sup> Askotan orainaldiko adizkiak jaso dira.

<sup>77</sup> *yoan al dok* jaso da

<sup>78</sup> Ahalera + n ere jaso da: *nekiten*.

<sup>79</sup> Ahalera + n ere jaso da: *sekitesen*.

## 4.1.3.1.2. Nor-Nori

- Indikatiboa/Oraina

Nor hirugarren pertsona denean baino ez da erabiltzen. Beste pertsonak nekez jaso dira.

	Ni	Hi	Hura	Gu	Zu	Zuek	Haiek
Niri			yata/yat yatak				yatas yatasak
Hiri			yata				yatasa
Hari	ñako ñakok		yako/dako yakok				yakos yakosak
Guri			yaku yakuk				yakus yakusek
Zuri	ñatzu		yatzu				yatzus
Zuei	ñatzue		yatzue				yatzues
Haiei	ñakie		yakie yakiek/yakek				yakies yakiesak

- Indikatiboa/Iragana

Nor hirugarren pertsona denean baino ez da erabiltzen.

	Ni	Hi	Hura	Gu	Zu	Zuek	Haiek
Niri			yatan yatan/yatoan				yatasan yatasan
Hiri			yatan				yatasan
Hari			yakon yakoan				yakosan yakoasan
Guri			yakun yakuan				yakusen yakuasan
Zuri			yatzun				yatzusen
Zuei			yatzuen				yatzuesan
Haiei			yakien yakian				yakiesan yakiesan

- Baldintza hipotetikoak

Baldintza hipotetikoan ere Nor hirugarren pertsona denean baino ez da jaso. Askotan, yeismoa dela eta, zalantzak izan ditut jakiteko lekukoen erantzunak benetako baldintza hipotetikoak ziren ala baldintza errealak. Beraz, transkripzio hauetan *ll-* barik *y-* agertzea ere guztiz zilegi da, baina orduan dileman baten aurrean egongo ginateke. Baldintza hipotetikoak da ala errealak? Nolanahi ere, hiztun batzuek argi eta garbi ahoskatu zuten *ll-*<sup>80</sup>.

	Baldintza	Baldintza (pl.)	Ondorioa	Ondorio (pl.)
Niri	ballata <i>ballatak</i>	ballatas <i>ballatasak</i>	llata <i>llatak</i>	llatas <i>llatasak</i>
Hiri	<i>ballata</i>	<i>ballatasa</i>	<i>llata</i>	<i>llatasa</i>
Hari	ballako <i>ballakok</i>	ballakos <i>ballakosak</i>	llako <i>llakok</i>	llakos <i>llakosak</i>
Guri	ballaku <i>ballakuk</i>	ballakus <i>ballakusek</i>	llaku <i>llakuk</i>	llakus <i>llakusek</i>
Zuri	ballatzu	ballatzus	llatzu	llatzus
Zuei	ballatzue	ballatzues	llatzue	llatzues
Haiei	ballakie <i>ballakiek</i>	ballakies <i>ballakiesak</i>	llakie <i>llakiek</i>	llakies <i>llakiesak</i>

- Ahalera

Ez da adizkirik jaso, erantzun gehienak *al* aditzarekin egin dira. (Ikus 4.1.2.2. erabilera).

- Subjuntiboa

Ez da adizkirik jaso, erantzunetan *-teko* batu da, eta inoiz indikatiboa + n:  
 - *da aiteiteteko trapu garbi bet edo bi ure yausten yakona txupau yakon*  
 - *makiña bider esan otzen lagunek ikisteko*

- Agintera

Ez da adizkirik jaso.

<sup>80</sup> Ikus 2.1.2.1.9. Albokariak.

## 4.1.3.1.3. Nor-Nork

- Indikatiboa/Oraina

Nor hirugarren pertsona ez diren adizkiak nekez jaso dira.

	Nik	Hik	Hark	Guk	Zuk	Zuek	Haiek
Ni			neu				neure/neurie
Hi							
Hura	dot <i>yoat</i>	<i>dok</i>	deu <i>yok</i>	du <i>yuk</i>	dosu	dosue	deure/deurie <i>yeurek/yeuriek/yeriek</i>
Gu			gatu				gatus
Zu	satut		satu				
Zuek							
Haiek	dodas/dotes/dotas <i>yosat/yasat</i>	<i>dosak</i>	deus/ditu/ditus <i>yosak</i>	dus <i>yusek</i>	dosus	dosues	deures/deuries/ditue <i>yeuresak/yeuriesak/</i> <i>yusek/yeriesak</i>

- Indikatiboa/Iragana

Nor hirugarren pertsona ez diren adizkiak ia ez dira erabiltzen.

	Nik	Hik	Hark	Guk	Zuk	Zuek	Haiek
Ni							neurien
Hi							
Hura	neuen <i>ñoan</i>	<i>indun</i>	euen/seuen <i>yoan</i>	gindun/gendun ginun/giñun/dun <i>giñoan</i>	sindun/sendun	sinduen	euren/eurien/ seuren/seurien <i>yeuren/yeurien/</i> <i>yerien/yerian</i>
Gu							
Zu							
Zuek							
Haiek	neusen <i>ñoasen/</i> <i>ñoasan</i>	<i>indusen</i>	eusen/euesan/ situsen <i>yoasan/yoasen</i> <i>yosan</i>	gindusen/giñusen gendusen <i>giñoasan</i>	sindusen	sinduesan	euriesan/euesan/ situsan/situesan/ eusan/ deuriesan <i>yeuresan/</i> <i>yeuriesan/yeresan</i>

- Baldintza hipotetikoa

	Baldintza (objektu singularra)	Baldintza (objektu plurala)	Ondorioa (objektu singularra)	Ondorioa (objektu plurala)
Nik	baneunke <i>bañekek</i>	baneunkes <i>bañekesak</i>	neunke <i>ñekek</i>	neunkes <i>ñekesak</i>



Hik	<i>baeunke</i>	<i>baeunkes</i>	<i>eunke</i>	<i>eunkes</i>
Hark	<i>baleuke</i> <i>ballekek</i>	<i>baleukes</i> <i>ballekesak</i>	<i>leuke</i> <i>llekek</i>	<i>leuke</i> <i>llekesak</i>
Guk	<i>bageunke</i> <i>bageunkek</i>	<i>bageunkes</i> <i>bageunkesak</i>	<i>geunke</i> <i>geunkek</i>	<i>geunkes</i> <i>geunkesak</i>
Zuk	<i>baseunke</i>	<i>baseunkes</i>	<i>seunke</i>	<i>seunkes</i>
Zuek	<i>baseunkie</i>	<i>baseunkies</i>	<i>seunkie</i>	<i>seunkies</i>
Haiek	<i>baleukie</i> <i>ballekiek</i>	<i>baleukies</i> <i>ballekiesak</i>	<i>leukie</i> <i>lleuek</i>	<i>leukies</i> <i>lleukiesak</i>

- Ahalera

Orainaldiko adizkiak gutxitan erabiltzen dira, gehienetan *al* aditzarekin ordezkatzeko dira eta nor hirugarren pertsona denean baino ez dira jaso. Iraganean ere *al* aditza erabiltzen da edo orainaldiko adizkiak.

	Oraina (sg.)	Oraina (pl.)	Iragana (sg.)	Iragana (pl.)
Nik	<i>neike/neinke</i> <i>ñeiek</i>	<i>neikes</i> <i>ñeikesak/neikesak</i>	<i>ñeikian</i> <sup>81</sup>	<i>ñeikiasan</i> <sup>82</sup>
Hik	<i>einke</i>	<i>einkes</i>		
Hark	<i>lei/leike</i> <i>lleiek</i>	<i>leis/leikes</i> <i>lleikesak</i>		
Guk	<i>geinke/ginke</i> <i>geinkek</i>	<i>geinkes</i> <i>geinkesak</i>		
Zuk	<i>seinke/sinke</i>	<i>seinkes</i>		
Zuek	<i>seinkie</i>	<i>seinkies</i>		
Haiek	<i>leye/leikie</i> <i>lleiek</i>	<i>leikies</i> <i>lleikiesak</i>		

<sup>81</sup> Lekukoak kostata eta zalantza handiekin erantzun zuen.

<sup>82</sup> Lekukoak kostata eta zalantza handiekin erantzun zuen..

- Subjuntiboa

Subjuntiboan ere denbora bakarra dugu orainaldirako eta iraganerako balio duena. Nor hirugarren pertsona ez denean nekez jaso dira adizkiak *-teko* baita ordezkatzeko ohikoena.

	Objektu singularra	Objektu plurala
Nik	nien <sup>83</sup>	
Hik		
Hark	dien/din/deyen <i>dayan</i>	diesan
Guk	digun	
Zuk	disun	
Zuek	disuen	
Haiek	dien	diesen

- Agintera

	Objektu singularra	Objektu plurala
Hik	<i>eik/ik</i>	<i>eisek/isek</i>
Zuk	eisu/isu	eisus/isus
Zuek	eisue/isue	eisues/isues

<sup>83</sup> Lekukoak zalantza handiz erantzun zuen.

## 4.1.3.1.4. Nor-Nori-Nork

- Indikatiboa/Oraina (Objektu singularra)

	Nik	Hik	Hark	Guk	Zuk	Zuek	Haiek
Niri		<i>dostek</i>	<i>doste</i> <i>yostek</i>		<i>dostesu</i>	<i>dostesue</i>	<i>dostie</i> <i>yostiek</i>
Hiri	<i>doat</i>		<i>doa</i>	* <sup>84</sup>			<i>doarie</i>
Hari	<i>dotzet</i> <i>yotxat/yotxiat</i>	<i>dotzek</i>	<i>dotze/dotzo/dotza</i> <i>yotxek</i>	<i>dotzu</i> <i>yotxuk</i>	<i>dotzesu</i>	<i>dotzesue</i>	<i>dotzie</i> <i>yotxiek</i>
Guri		<i>doskuk</i>	<i>dosku</i> <i>yoskuk</i>		<i>doskusu</i>	<i>doskusue</i>	<i>doskue</i> <i>yoskuk</i>
Zuri	<i>dotzut</i>		<i>dotzu</i>	<i>dotzu</i>			<i>dotzue</i>
Zuei	<i>dotzuet</i>		<i>dotzue</i>	<i>dotzue</i>			<i>doztue</i>
Haiei	<i>dotziet</i> <i>yotxiet/yotxiat</i>	<i>dotziek</i>	<i>dotzie</i> <i>yotxiek</i>	<i>dotzieu</i> <i>yotxuk</i>	<i>dotziesu</i>	<i>dotziesue</i>	<i>dotzie</i> <i>yotxiek</i>

- Indikatiboa/Oraina (Objektu plurala)

	Nik	Hik	Hark	Guk	Zuk	Zuek	Haiek
Niri		<i>dostesak</i>	<i>dostes</i> <i>yostesak</i>		<i>dostesus</i>	<i>dostesues</i>	<i>dosties</i> <i>yostiesak</i>
Hiri	<i>doasat</i>		<i>doas</i>	* <sup>85</sup>			<i>doaries</i>
Hari	<i>dotzedas</i> <i>yotxasat/</i> <i>yotxiasat</i>	<i>dotzesak</i>	<i>dotzes/dotzos</i> <i>yotxesak</i>	<i>dotzus</i> <i>yotxusek</i>	<i>dotzesus</i>	<i>dotzesues</i>	<i>dotzies</i> <i>yotxiesak</i>
Guri		<i>doskusek</i>	<i>doskus</i> <i>yoskusek</i>		<i>doskusus</i>	<i>doskusues</i>	<i>doskues</i> <i>yoskusek</i>
Zuri	<i>dotzudas</i>		<i>dotzus</i>	<i>dotzus</i>			<i>dotzues</i>
Zuei	<i>dotzuedas</i>		<i>dotzues</i>	<i>dotzues</i>			<i>dotzues</i>
Haiei	<i>dotziedas</i> <i>yotxiesat</i>	<i>dotziesak</i>	<i>dotzies</i> <i>yotxiesak</i>	<i>dotziesus</i> <i>yotxusek</i>	<i>dotziesus</i>	<i>dotziesues</i>	<i>dotzies</i> <i>yotxiesak</i>

<sup>84</sup> Emon yata moduko erantzunak jaso dira.

<sup>85</sup> Emon yatas moduko erantzunak jaso dira.

- Indikatiboa/Iragana (Objektu singularra)

	Nik	Hik	Hark	Guk	Zuk	Zuek	Haiek
Niri		<i>ostean</i>	osten <i>yostean</i>		ostesun	ostesuen	ostien <i>yostien</i>
Hiri	<i>noan</i>		<i>oan</i>	* <sup>86</sup>			<i>oarian</i>
Hari	notzen/nontzen/ nontzan <i>ñontxian/nontxian</i> <i>/nintxian</i>	<i>otzen</i>	otzen/otzon/ otzan <i>yotxian</i>	geuntzen/geuntzon gonten <sup>87</sup> /geuntzen <i>geuntxian</i>	seuntzen	seuntzien	otzien <i>yotxian</i>
Guri		<i>oskun</i>	oskun <i>yoskuan/</i> <i>yoskun</i>		*	* <sup>88</sup>	oskuen <i>yoskuan</i>
Zuri	notzun/nontzun		otzun	geuntzun <sup>89</sup>			otzuen
Zuei			otzuen	geuntzuen			otzuen
Haiei	nontzien/notzien <i>ñontxian</i>	<i>ontzien/</i> <i>eutzien/otzien</i>	otzien <i>yotxian/</i> <i>yotxien</i>	geuntzen <i>geuntxian</i>	seuntzien	seuntzien	otzien <i>yotxian</i>

- Indikatiboa/Iragana (Objektu plurala)

	Nik	Hik	Hark	Guk	Zuk	Zuek	Haiek
Niri		<i>osteasan</i>	ostesan <i>yosteasan</i>		ostesusen	ostesuesan	ostiesan <i>yostiesan</i>
Hiri	<i>noasan</i>		<i>oasan</i>	* <sup>90</sup>			<i>oariasan</i>
Hari	notzesan <i>ñontxiasan</i>	<i>otzeasan</i>	otzesan <i>yotxiasan</i>	geuntzesan <i>geuntxiasan</i>	seuntzesan	seuntziesan	otziesan <i>yotxiasan</i>
Guri		<i>oskusen</i>	oskusen <i>yoskuasan</i>		* <sup>91</sup>	*	oskuesan <i>yoskuasan</i>
Zuri	notzusen		otzusen	geuntzusen <sup>92</sup>			otzuesan
Zuei	notzuesan		otzuesan	geuntzuesan			otzuesan
Haiei	notziesan <i>ñontxiasan</i>	<i>otziesan</i>	otziesan <i>yotxiasan</i>	geuntzesan <i>geuntxiasan</i>	seuntziesan	seuntziesan	otziesan <i>yotxiasan</i>

<sup>86</sup> *Emon yatan* moduko erantzunak jaso dira.

<sup>87</sup> *gonten* eta *geuntzen* hizketa librean jaso dira lekuko bakar bati.

<sup>88</sup> *Suek emon sinduen geuri* eta *suk emon sindun* moduko erantzunak jaso dira.

<sup>89</sup> Askotan *guk zuri* eta *guk zuei* esateko *gindun* erabiltzen da.

<sup>90</sup> *Emon yatasan* moduko erantzunak jaso dira.

<sup>91</sup> *Zuk guri sindusen* eta *zuek guri sinduesan* erabiltzen dira.

<sup>92</sup> Askotan *guk zuri* eta *guk zuei* esateko *gindusen* erabiltzen da.

- Baldintza Hipotetikoa eta ondorioa

Iragana da baldintza hipotetikoa eta ondorioa ordezkatu ohi dituen. Hizketa librean adibide bakarra jaso da, eta galdetegi bidez lortutakoak, gehienetan, zalantzazko erantzunak izan dira. Hortaz, denbora honetarako ez dugu taularik aurkeztuko.

Hizketa librean jaso:

- baseuntze Hura-Hari-Zuk

Galdetegi bidez:

- *niskiok* Hura-Hari-Nik (alokutiboa)

Zalantzazko erantzunak:

- *yostesak* Haiek-Niri-Hark (alokutiboa)

- *niskiosak* Haiek-Hari-Nik (alokutiboa)

- *eustosak* Haiek-Niri-Hik (alokutiboa)

- *llestiesak* Haiek-Haiei-Haiek (alokutiboa)

- Ahalera

Ahaleran ere forma bakar bat jaso da: 'nekitzu' / 'neuskitzu' (Hura-Zuri-Nik). Beste erantzun guztiak gehienetan *al* aditzarekin jaso dira. (ikus 4.1.2.2. erabilera).

- Subjuntiboa

Subjuntiboan ere forma bakarra jaso da: 'leion' Hura-Hari-Hark. Beste forma guztiak *-teko* edo orainaldia + n modukoak dira.

- Agintera

Askotan zaila da bereiztea aditz laguntzailea partizipiotik talde foniko bakar batean agertzen direlako.

Objektu singularra

	Hik	Zuk	Zuek
Niri	<i>istek</i>	istesu	istesue
Hari	<i>iok/iotzek</i>	iosu/iotzesu	iosue/iotzesue
Guri	<i>skuk</i>	skusu	skusue
Haiei	<i>iek</i>	iesu	iesue

Objektu plurala

	Hik	Zuk	Zuek
Niri	<i>istesak</i>	istesus	istesues
Hari	<i>iotzesak</i>	iosus/iotzesus	iosues/iotzesues
Guri	<i>skusek</i>	skusus	skusues
Haiei	<i>iesak</i>	iesus	iesues

### 4.1.3.2. Aditz trinkoak

Hizkera honetan aditz trinkoek oso erabilera urria daukate, indikatiboko formak baino ez dira erabiltzen, batez ere orainaldikoak, Nor eta Nor-Nork sailekoak. Beste denbora eta sailetako formak normalean aditz perifrastikoekin ordezkatzeko dira.

Hizkera honetan ondoko aditz trinko hauek erabiltzen dira: *egon*, *etorri*, *ibili*, *joan*, *eduki*, *jakin*, *eroan*, *ekarri*, *-iño-*, *iruditu* eta *eragon*.

#### 4.1.3.2.1. Egon

*Egon* aditzaren ahoskeran *-au-* diptongoa da gehien entzuten dena.

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Ni	nau/nao <i>ñauk/ñaok</i>	<i>ñegoan</i>	banengo				
Hi	<i>au/ao</i>						
Hura	dau/dao <i>yauk/yaok/yak</i>	egoan <i>yegoan</i>	balego <i>ballegok</i>				
Gu	gaus/gaos <i>gaxak</i>						
Zu	saus/saos						
Zuek	sausie/saosie						
Haiek	daus/daos <i>yausak/yaosak/yasak</i>	egoasan/egosan <i>yegoasan</i>	balegos				

#### 4.1.3.2.2. Etorri

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Ni	nator <i>ñatok</i>	netorren					
Hi	<i>ator</i>						ator
Hura	dator <i>yatok</i>						
Gu	gatos <i>gatoxak</i>						
Zu	satos						satos
Zuek	satosie						satosie
Haiek	datos <i>yatosak</i>						

Nor-nori sailean adizki gutxi batzuk erabiltzen dira, baina, gehienetan perifrastikoak:

- *burure ontxe yatortak*

- *Iri etorten yata. Iri etxatorta burure*

## 4.1.3.2.3. Ibili

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Ni	nabil <i>ñabik</i>	nabilen <i>ñabian</i>					
Hi	<i>abil</i>	<i>ebilen</i>					
Hura	dabil <i>yabik</i>	ebilen <i>yabian/yebilan</i>					
Gu	gabis <i>gabixek</i>	<i>gabixan</i>					
Zu	sabis						
Zuek	sabisie						
Haiek	dabis <i>yabisek</i>	ebisen <i>yabiasen/yabiasan</i>					

Nor-Nori saileko adizki batzuk erabiltzen dira testuinguru jakin baten:

- *buruen asuntillo bat yabiltak*
- *iri yabilta*
- *areri yabilkok*
- *guri yabilkuk*
- *areri yabilkiek*

## 4.1.3.2.4. Joan

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Ni	noa <i>ñoak</i>						
Hi	<i>oa</i>						oa
Hura	doa <i>yoak</i>	yoyan					
Gu	goas <i>goaxak</i>						
Zu	soas						soas
Zuek	soasie						soasie
Haiek	doas <i>yoasak</i>	yoyasan					

Nor-Nori saileko adizki batzuk erabiltzen dira “gustatu” esanahiarekin:

- *Niri ori bayoatak, gustaten yatak*
- *Iri bayoata*
- *areri bayoakok*
- *bayoakuk ori yana*
- *areri bayoakiek*

## 4.1.3.2.5. Eduki

## Objektu singularra

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera:	Subjuntiboa	Agintera
Nik	dekot/deuket <i>yekoat/yakat</i>	neuken <i>ñeunkan/ñeuken</i>					
Hik	<i>dekok</i>	<i>euken</i>	<i>baeuko</i>				
Hark	deko/dauko <i>yekok</i>	eukan/euken <i>yekoan/yakan/yeukan</i>	baleuko <i>ballekok</i>				
Guk	deku <i>yekuk</i>	geunken <i>geunkan</i>					
Zuk	dekosu/deukosu						
Zuek	dekosue						
Haiek	dekie/deukie <i>yekiek</i>	eukien <i>yekian</i>					

## Objektu plurala

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera:	Subjuntiboa	Agintera
Nik	dekodas/dekotes <i>yekosat/yekoasat</i>						
Hik	<i>dekosak</i>		<i>baeunkos</i>				
Hark	dekos <i>yekosak</i>	eukesan	<i>ballekosak</i>				
Guk	dekus <i>yekusek</i>						
Zuk	dekosus						
Zuek	dekosues						
Haiek	dekies/deukies <i>yekiesak</i>						

Nor-Nori-Nork adizki batzuk ere erabiltzen dira, batez ere Nork lehenengo pertsona denean:

- 'dekotzut', 'dekotzuet', 'dekotzet', 'dekotziet'...



## 4.1.3.2.6. Jakin

Objektu singularra

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera.	Subjuntiboa	Agintera
Nik	dakit <i>yakiat</i>	nekien <i>ñakian</i>					
Hik	<i>dakik</i>	<i>ekian</i>					
Hark	daki <i>yakik</i>	<i>yekian</i>					
Guk	dakiu <i>yakiuk</i>	gekien <i>gekian</i>					
Zuk	dakisu						
Zuek	dakisue						
Haiek	dakie <i>yakiek</i>	ekien <i>yekien</i>					

Objektu plurala

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Nik	dakides/dakites <i>yakiasat</i>						
Hik	<i>dakisek</i>						
Hark	dakis <i>yakisek</i>	<i>yakiasan</i>	balekis				
Guk	dakius <i>yakiusek</i>						
Zuk	dakisus						
Zuek	dakisues						
Haiek	dakies <i>yakiesak</i>	<i>yekiasan</i>					

**4.1.3.2.7. Eroan**

Objektu singularra

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Nik	darot/daroat <i>yaroat</i>						
Hik	<i>daroak</i>						
Hark	daroa <i>yaroak</i>	<i>yaroan</i>					
Guk	darou <i>yaroguk</i>						
Zuk	darosu						
Zuek	darosue						
Haiek	daroardie <i>yaroriek</i>						

Objektu plurala

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Nik	darooas <i>yaroasat</i>						
Hik	<i>daroasak</i>						
Hark	darooas <i>yarosak</i>						
Guk	darous <i>yarusek</i>						
Zuk	darosus						
Zuek	darosues						
Haiek	daroardies <i>yaroriesak</i>						

Nor-Nori-Nork saileko adizki bakar batzuk ere erabiltzen dira, gehienetan Nork lehenengo pertsona dela, baina, gehienetan perifrastikoak erabiltzen dira:

- 'daroat', 'darotzu', 'darotzut', 'darotzet'...

**4.1.3.2.8. Ekarri**

Objektu singularra

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Nik	dakat <i>yakat</i>						
Hik	<i>dakak</i>						
Hark	dakar <i>yakak</i>						
Guk	dakagu <i>yakauk</i>						
Zuk	dakasu						
Zuek	dakasue						
Haiek	dakardie <i>yakardiek</i>						

Objektu plurala

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Nik	dakadas <i>yakasat</i>						
Hik	<i>dakasak</i>						
Hark	dakas <i>yakasak</i>						
Guk	dakagus <i>yakausek</i>						
Zuk	dakasus						
Zuek	dakasues						
Haiek	dakardies <i>yakardiesak</i>						

**4.1.3.2.9. Ibili**

Objektu singularra

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Nik	dabit <i>yabiat</i>						
Hik	<i>dabik</i>						
Hark	dabil <i>yabik</i>						
Guk	dabiu <i>yabiuk</i>						
Zuk	dabisu						
Zuek	dabisue						
Haiek	dabildie <i>yabildiek/yabiriek/yabiuriek</i>						

Objektu plurala

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Nik	dabidas <i>yabisat</i>						
Hik	<i>dabisek</i>						
Hark	dabis/darabis <i>yabisek</i>						
Guk	dabius <i>yabiusek</i>						
Zuk	dabisus						
Zuek	dabisues						
Haiek	dabildies <i>yabiuriesak</i>						

**4.1.3.2.10. -iño-**

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa	Ahalera	Subjuntiboa	Agintera
Nik	diñot						
Hik	<i>diñok</i>						
Hark	diño						
Guk	diñogu						
Zuk	diñosu						
Zuek	diñosue						
Haiek	diñorie						

Nor-Nori-nork saileko adizki batzuk ere erabiltzen dira, baina gehienetan, aditz perifrastikoen bidez eraten dira: *esaten dotzek...*

	Nik	Hik	Hark	Guk	Zuk	Zuek	Haiek
Niri		<i>diñostek</i>	diñoste		diñostesu	diñostesue	diñostie
Hiri	<i>diñoat</i>						
Hari	diñotzet	<i>diñotzek</i>	diñotze				diñotzie
Guri		<i>diñoskuk</i>	diñosku				diñoskue
Zuri	diñotzut		diñotzu				diñotzue
Zuei	diñotzuet		diñotzue				diñotzue
Haiei	diñotziet	<i>diñotziek</i>	diñotzie				diñotzie

#### 4.1.3.2.11. Iruditu

Iruditu aditza hiztun gehienek ez dute erabiltzen ezta ezagutzen ere, baina hizketa librean adibideren bat jaso ahal izan da, denak hirugarren pertsonetan:

- *Gero, ganera, bearra fijoja estaola dirudi, bearra dekonak loteria deko*

#### 4.1.3.2.12. Eragon

*Eragon* aditzaren inguruan honela aipatzen du Euskaltzaindiak (1987) EGLU II-n.

“Hauetarik lehenbizikoa, -tzen + eragon alegia, Bizkaian erabiltzen da eta oso toki mugatuetan, Gernika aldean eta Arratia aldean, eta galtzen ari da egia esan.” (Euskaltzaindia, 1997: 443)

Gamindek (1987a) ordea, honela zehazten du:

“Aditz honen hedadurari dagokionez, eta gure datuen arabera, Orozko, Arrigorriaga, Arratia eta Plentziako barietateko Txorierrin baino ez dela erabiltzen esan ahal dugu; guk Gernika aldean adibide bakar bat ere ez dugu jaso” (Gaminde, 1987a: 37)

Azkuek (1969) bi esanahi ematen ditu *eragon* aditzerako:

- 1) ocuparse, s’ocuper
- 2) murmurar, murmurar

Eta Gamindek erabileraren gainean bost azpimultzo egiten ditu: Galderetan, fenomeno atmosferikoekin, datiboz, inesiboz eta -ten.

Egun, Igorren, fosilizatuta dago eta bakarrik fenomeno atmosferikoekin erabiltzen da:

- *Eurie da, eurie daragoyo, bietara esan lei.*

Dena den, hiztun guztiek ez dute erabiltzen:

- *Bueno, entzun bai, entzun sarriten, oin geuk esan, es. Geuk eurie da baya entzun bai, entzun in du.*

- *Entzun bai, baya neuk estot esaten. Entzun bai, baya es.*

## 4.2. Adberbioa

Perpausak bi ardatz nagusi dauzka: izena eta aditza. Izenari buruzko informazioa emateko eta zehazteko adjektiboa erabiltzen da, eta aditzari buruzko informazioa emateko eta zehazteko adberbioa erabiltzen da.

Horrela adberbioek aditzak adierazten duten ekintza noiz, nola edo non gauzaten den zehazten du.

Adberbioen artean mota bi ezberdin ditzakegu:

- Adizlagunak: Kasu-marka edo postposizioen bidez sortutakoak.

- Aditzondoak: Ez dute kasu-markarik behar.

### 4.2.1. Adizlagunak

Lehen esan dugunez, adizlagunak kasu-marka edo postposizioen bidez sortzen dira. Atal honetan ikusiko dugu zein kasu-markak eta zein postposizioek sortzen dituzten adizlagunak. Halaber, postposizioen kasuan aztertuko dugu bakoitzak zer kasu-marka eskatzen duen.

#### 4.2.1.1. Kasu-marken bidez sortutakoak

Deklinabide-kasuek funtzio gramatikal ezberdinak betetzen dituzte:

- Izen-sintagmak: Nor, Nori eta Nork kasuek sortzen dituzte.

- Izenlagunak: Noren eta Nongo kasuek sortzen dituzte.

- Adizlagunak: Gainerako beste kasuek sortzen dituzte.

Beraz, Nor, Nori, Nork, Noren eta Nongo kasuak izan ezik, beste kasu guztiek sortzen dituzte adizlagunak:

- *etzera noa*

- *kalleti nator*

- *lagunekas lotu nes*

*Etzera, kalleti...* adizlagunak diren neurrian adberbioak dira.

#### 4.2.1.2. Postposizioen bidez sortutakoak

Beste adizlagun asko sortzen dira izen-sintagmari postposizioak gehituz. Normalean postposizioak atzizki baten bidez lotzen zaizkio izen-sintagmari, batzuetan isilpean gera baitaitezke ere. Bestalde, postposizio asko deklinatu egiten dira. Hauen lekua izen-sintagmaren ostean dago.

Ondoren, postposizioak eskatzen duen kasu-marken arabera egindako sailkapena emango dugu.

##### 4.2.1.2.1. ‘Nor’ eskatzen dutenak

- *Barik*  
- *Pastilla barik enas kapas bisiteko*

- *baya danak argi barik*
- *guk erru barik pageu gindun platue*
- *aite barik geratu ixin nintzen*
- *Gane*
  - *Bai mai ganean artu txarrie lau bost gixonak*
  - *an parrille ganean taloa ipini ta taloa, ba, altxeu eiten san, esta?*
  - *taloea igual, ba, masea ein da gero txapa ganean edo... bueno txapa ganean en jeneral labarik estao oin, ta txapa ganean iminten dosu*
- *Barru*
  - *Su barruen da gero astiro-astiro, erretan, astiro-astiro*
  - *por ejemplo, Iorre barruen idiek eongo sirean*
  - *Errueda barrure esara sartu?*
- *Alde*
  - *esaten du Arratialdean*
  - *Arratialdean esaten da*
  - *Gorbeyaldean*
- *Ondo*
  - *Ta gero Siorostan, aiten etze ondoan*
  - *Erreka ondoetan eta iturrietan eoten da*
  - *soloan ondoan yauk*
- *Inguru*
  - *ta gero bestea disienbrean askenean edo gabon inguruen bigarrena ilten gindun*
  - *San Isidro inguruen ixiten san artoa ereiten asteko*
  - *Da gero gabonak inguruen, ba, il eiten yusek*
- *Arte*
  - *bera katue bera egunetan euki eurien berakatz artean*
  - *batapesteari lagun artean kendu bebai*
  - *Diferensie andie deku jente artean berbas*
  - *ankeetati artzean otzien, lau artean edo*
  - *ori beti eoten da lupetz artean*
- *Bitarte*
  - *Lemoa ta Iorre bitartean*
- *Parte*
  - *da gero andik Fransie partera pasau ginean*
  - *da or sur parteko jante asko eon san an*
  - *se, ba, ya emen Biskaya partean edo Gipuskoan kamiño ta inguruan argi asko eon da*
  - *ba, negu partean, por ejemplo, ya askok ipinite dekie*

- *Bille*  
- *beti kandelario bille da oin dosak edosein lekuten*
- *Oste*  
- *etxostean dekosus*  
- *soas etxostera ta artuisus egurrek*
- *Eske*  
- *diru eske dabil*

#### 4.2.1.2.2. Partitiboa eskatzen dutenak

- *Esean*  
- *ardaurik esean ure edango yuk*

#### 4.2.1.2.3. 'Noren' eskatzen dutenak

- *Gane*  
- *morsillek egosite da surtean brasan, parrillen ganean*  
- *astoan ganean*
- *Aspi*  
- *Etzean aspitik doa ure ta antxe daos arriek*  
- *makiñas ein tripean aspian*  
- *parrillean aspian brasea dana*
- *Aurre*  
- *sarri askotan neu lotuten nas jentean aurrean, ba, konpletamente, ba, sertute*  
- *antxe portalen eurrean egoan*
- *Atze*  
- *soloan atzean*
- *Oste*  
- *onen ostean dao, ba, gero onen mendien ostekoa da*  
- *gero eon san sinea, sinea Marianisten ostean, sinea, ta gero lokalak ein deurie medikuen konsulte*  
- *gero onen ostean dao esan dotzutena*
- *Ondo*  
- *kamiñoan ondoan andixik goiko etzeko bat*  
- *Jubilauen etzea, antxe parkea, antxe parkean ondoan*  
- *Aman ondoan obeto eongo dires*  
- *Orixekamiñoa, soloa, kamiñoan... soloan ondo ondo ondoantxe*  
- *aren ondoan yekuk an basoan txabola bat*  
- *tranbieko kalsadoreak ebisen antxe neure suegroan ondoan bearrean*



- *Albo*
  - *gure alboko mutile ixingo san andie ixingo san*
  - *Juantxun urrungu etzean alboan dao etze bat*
  - *emen eoten san etze bat emen gure alboan*
- *Barru*
  - *kotxean barruen itxi dot*
  - *etzean barruen*
- *Inguru*
  - *eske edadea gure neskatoan ingurukoa da*
  - *ementxe, etzean inguruen*
  - *gaubean gure ingurunean sertute San Kristobalera*
  - *beyen inguruen dabilena?*
- *Pare*
  - *ipinten soan olan illadan tronko bat, aren tronkoan parean arrie, arrilosak*
- *Arte*
  - *Da gero, geuk neskaxien artean olgetan gindunean eiten gindusen trapusko muñekatxu betzuk*
  - *euren artean egoan pisu txikitxu bet*
  - *Or euki gindun, txabolea eon san, labea albokoak eta bien artean*
- *Alde*
  - *axean alde paretan noa*
  - *Ama altea da aiten aldera*
  - *Eta mutilen aldekoak ondoko tabernera baskalduten*
  - *Mutilen aldekoak baskaiten yoan sirean tabernara*
  - *berak esangotzu nire aldean gause asko*
  - *or diferenteak isengo siren emekoan aldean*
- *Kontra*
  - *euren kontra, ba, yoan giñen Francon kontra*
  - *Bai, ba, gu euren kontra yoan giñen ta kastigue, an kamiño baten, da bear in*
  - *gero asurren kontra botaten geuntzen botika suri bet*
  - *or arrien kontra olan yo ta garaue separeu*
  - *Lelengo arrien kontra gero onek urten seurien*
- *Kontu*
  - *limonada botille bat edo kuartillo ardoa bakotxari errien konture*
- *Parte*
  - *Aman partetik nabil berbas*
  - *sure partetik persona bateri esatea i, ni... neuretzako ori de falta de respeto*

- *Bitarte*  
- *ereiten du arean bitartes*  
- *layan bitartes*
- *Bille*  
- *uren bille yoan nas*  
- *aman bille yoan nas*
- *Esku*  
- *ori sure eskuetan dao*
- *Leku*  
- *parau sates neure lekuen*
- *Orde*  
- *sure ordes yoan nas*
- *Malla*  
- *erderea sartzean da asko, Arratien. Arratien mallan emen asko-*  
- *esta diferensie andirik Arratien mallan*  
- *Estait danak, askok esteure yakingo Arratien mallan*  
- *ori emekoa esta, guk emen normalmente Arratien mallan eiten du orixe, Seanin edo*  
- *olan kanbieu lei seoser*  
- *Iorre ala Arratien mallan?*
- *Falta*  
- *ardauen faltan ure edangu*
- *Sain*  
- *aren sain ñauk*
- *Truke*  
- *Esnean truke artoa emoten yoskun*
- *Aurka*<sup>93</sup>  
- *aren aurka yauk*

#### 4.2.1.2.4. 'Nori' eskatzen dutenak

- *Esker*  
- *suri esker*  
- *amari esker*
- *Begire*<sup>94</sup>  
- *tranbieri begire dao*

<sup>93</sup> Postposizio hau ez da asko erabiltzen. Lekuko batek horrela azaldu zuen: *guk geyenetan 'kontra' esaten yuk.*

<sup>94</sup> 'Itxaron' esangurarekin.

- *suri begire nao*
- *iri begire ñauk*

#### 4.2.1.2.5. ‘Non’ eskatzen dutenak

- *Gora*
  - *kallean gora*
  - *Mendin gora Dimeko asko dao*
- *Bera*
  - *kallean bera*
- *Barren*
  - *kallean barrenean*
  - *soloan barrenean dekosu*
  - *errekan barrenean*
  - *kaxan barrenean yauk*

#### 4.2.1.2.6. ‘Nondik’ eskatzen dutenak

- *Sear*

Postposizio hau lexikalizatuta dago eta *ortik* aurrean daukala baino ez da erabiltzen

  - *es egoan astirik bakasiñoak artuten oin moduen orti sear yoateko*
  - *Gustetan yakon Piliri orti sear yoatea, an eotea*
  - *Ortik yabik ori. Ya sear esaten badok emoten yotxek olan, nire ustes e, matis bet galdute dauen moduen, ortik sear, yakin barik nondik. Ortik sear yabik ori.*
- *Gora*
  - *Artaun, andi gora yoan bisu*
- *Berarte*
  - *Andik berarte*
- *Kanpo*
  - *Emetik kanpo*

### 4.2.2. Aditzondoak

Lehen esan dugunez, aditzondoek ez dute kasu-marken beharrik aditzari lotzeko. Puntu honetan aditzondoaren sailkapen bi ikusiko ditugu: sailkapen formala eta sailkapen semantikoa.

#### 4.2.2.1. Aditzondoan sailkapen formala

Sailkapen formal batean aditzondoak bakunak, eratorriak edo konposatuak izan daitezke.

**4.2.2.1.1. Aditzondo bakuna**

Aditzondo bakunak osagai bakarrekoak dira, ez daude atzizkiz osaturik.

<i>geur</i>	<i>iges</i>	<i>aspaldi</i>
<i>atzo</i>	<i>oiñ</i>	<i>beti</i>
<i>bier</i>	<i>sarri</i>	<i>sekule</i>
<i>gero</i>	<i>len</i>	<i>antzine</i>
<i>bein...</i>		

**4.2.2.1.2. Aditzondo eratorriak**

Aditzondo eratorriak hitz bati aditzondo-atzizki bat erantziz eratzen dira. Atzizki hauek *-to / -do, -ka, -(r)ik, -ta, -ro* eta *-lan* dira (ikus 6.2.3.4.puntua).

**4.2.2.1.3. Aditzondo konposatuak**

Galdekariei zenbait lexema erantziz, (*edo-, i-, nai- , -gure*), aditzondo konposatuak sortzen dira: *nonos, inos, nainos, nonon, inon, seoselan...*

**4.2.2.1.4. Kategoria aldaketak**

Zenbait kasutan, kategoria aldaketak gertatzen dira, hau da, adberbioak ez diren hitzak, testuinguru jakin batzuetan, adberbio moduan erabiltzen dira.

## a) Adberbio lexikalizatuak

Adizlagun batzuk lexikalizatu egin dira aditzondo bilakatu kasu-marka agerian egon arren.

- *aurten etorri de*
- *oñes yoan gintzesan*
- *emen dekosu*

## b) Izenondoa adberbio gisa

Sarri askotan, izenondoa adberbio legez erabiltzen da, kasu hauetan izenondoa artikulatu barik agertzen zaigu.

- *nasai nao*
- *triste nao*
- *loi dao*
- *arin ibili bear sara*

## c) Partizipioa adberbio gisa

Aditz-partizipioak ere erabiltzen dira adberbio moduan. horrelakoetan *-ta* edo *-rik* atzizkiak eransten zaizkie.

- *neguen kortaratute dekos ya otzagaiti*
- *sarratute dao*

- *utzitute* daos etzeak
- *bisiritao*
- *isilitao*

#### d) Zenbatzaileak adberbio gisa

Zenbatzaileak ere agertzen dira adberbio gisa.  
- orrek *asko daki*, *guk gitxi*

#### 4.2.2.1.5. Esaera adberbialak

Azkenik, esaera adberbialak edo adberbio legez erabiltzen diren hitz multzoak aipatuko ditugu.

- *lantzean bein*
- *alango baten*
- *gitxi gorabera*
- *noseapeñan*

#### 4.2.2.2. Aditzondoek sailkapen semantikoa

Formari dagokionez gain aditzondoek beste sailkapen bat ere egin daiteke eduki semantikoa kontuan harturik. Honela hiru sail bereiziko genituzke:

- a) Zirkunstantzia adierazten dutenak
- b) Nozioa adierazten dutenak
- c) Jarrera adierazten dutenak

Zirkunstantzia adierazten duten aditzondoek noiz edo non gertatzen den ekintza zehazten digute, beraz, denbora-aditzondoak eta leku-aditzondoak daude.

Nozioa adierazten duten aditzondoek ekintzaren modua edo maila zehazten dute, beraz, modu-aditzondoak eta maila-aditzondoak daude.

Jarrera adierazten duten aditzondoak hiztunak ekintzari buruz duen iritzia islatzen dute.

Laburbilduz:

Zirkunstantzia:       - Denbora-aditzondoak  
                              - Leku-aditzondoak

Nozioa:                 - Modu-aditzondoak  
                              - Maila-aditzondoak

Jarrera:                - Iritzi-aditzondoak

#### 4.2.2.2.1. Denbora-aditzondoak

Lehen esan dugun legez, denbora-aditzondoek aditzaren ekintza noiz gertatzen den zehazten dute. Hauek lau multzotan bananduko ditugu:

- Galdekariak
- Galdekariei erantzuten dieten aditzondoak
- Denbora adierazten duten esaera adberbialak
- Aposizioan adizlagun bat daramaten denbora-aditzondoak

#### a) Galdekariak

Denbora-aditzondo galdekaria 'nos' da. Horretatik atzizki-posposizioak erantsiz, honako hauek sortzen dira: 'nosti', 'nos arte' eta 'nosko'.

#### b) Galdekariei erantzuten dieten aditzondoak

- Indefinitu konposatuak

Denbora-aditzondo indefinitu konposatuak *nainos* eta *iños* dira<sup>95</sup>.

##### *Nainos*

*Nainos* oso gutxitan erabiltzen da. Galdetegi bidez baino ez dut jaso eta hiztun askorentzat guztiz ezezaguna da. Lortu ditudan adibide apurretan baiezko eta ezezko perpausetan erabiltzen da, ez galderetan.

- *nainos estosu eingo*
- *Nainos ein al yok eurie.*
- *Nainos ein lleikek eurie*

##### *Iños*

*Iños* galderetan eta baita baiezko eta ezezko perpausetan ere erabiltzen da.

- *nik urten dot bost kiloas, ta iños il dodas eundeberrogetamairu*
- *Raroa da saspitakora etortea, se iños estait ikusi bot*
- *Iños eskapeu bebai*
- *Neu be iños pareu nes erdien*
- *Bai iños ibili dus*
- *Iños Siorostan be etzera sartu dires gaubean*
- *Egin dok iños?*

- Bestelakoak

Zerrenda askozaz luzeagoa bada ere, hona hemen gehien erabiltzen direnak: *antzine, areñun, arin, aspaldi, atoan, atzera, atzo, aurten, barres, barrero, bart, bein, belu, berandu, beti, bier, egundo, etzi, etzilimo, geur, gero, iges, laster, len, oin, ondiño, ondiokarren, orduen, sarri, sekule...*

- Denbora-aditzondo gisa erabiltzen diren adizlagunak

Badira zenbait adizlagun aditzondo gisa erabiltzen direnak, erabat aditzondo bilakatu ez badira ere: *askenean, askotan, txikiten, gastetan, batzutan, geyenetan, derrepentean...*

Hauek adizlagunak diren neurrian kasu-marka gordetzen dute.

<sup>95</sup> 'Edonoiz' ez da erabiltzen.

- Atzizki bidez eratorritako aditzondoak

Bi dira erabiltzen diren atzizkiak: *-ro* eta *-ta* partizipioa.

*-ro*

- *egunero emon beayako*

- *urtero pasaten dire*

*-ta*<sup>96</sup>

- *ori ikusite alde ein gindun*

### c) Denbora adierazten duten esaera adberbialak

- Galdekaria dutenak

*Nostik ona / Nosik ona*

- *nostik ona esara etorri?*

- *nosik ona?*

- *Bein* osagaia dutenak

*Noseanbein / Noseapeñan*

- *Etorten dire noseanbein bisitetan*

- *Noseanbein de vez en cuando esatea moduen, noseanbein*

- *lelengo goye baltzitu da gero, ba, noseapeñan egur betegas arek...*

- *il eskeru, noseapeñan mesa bat edo al dana iten bosu bien*

*Lantzean bein*

- *osea ke selango informasiñoa artzean dan lantzean bein*

- *Eurek etorten yatasanean baskaiten etorten yatas lantzean bein-*

- *an be lantzean bein eon beada*

- *Zenbatzailea + bider*

- *senbepider bajatuko deu?*

- *garbitu iru lau bider, ondo-ondo garbitu bear san*

- *Makina bat bider layetan*

- *Ta arto igerra be senbapider, sestokadak ara bota*

- *Gero eta... -ago* egitura

- *Gero ta beranduau dok*

- *Gero ta goxago*

- *Edo* osagaia dutenak

*Nosonos*

- *Nosonos igual goxean artu dotena gauerako san*

*Edosein orduen*

- *esan lei bata ordu betean ta bestea bestean orduen edosein orduen*

<sup>96</sup> Ez da asko erabiltzen, galdetegien bidez baino ez dut jaso.

*Edosein momentutan*

- *edosein momentuen baskaiten dot*
- *edosein momentutan ein al yok eurie*

- Bestelakoak

*Ordurik ona*

- *ta gero etorri ginean ona bisiten da ordurik ona bisi gara emen*
- *bueno ordurik ona bebai*
- *gero bajatu nintzen bisiten ona Garakoire, da ordurik ona ementxe*

## d) Aposizioan adizlagun bat daramaten denbora-aditzondoak

Maiz denbora-aditzondoek adizlagun bat daramate aposizioan. Adizlagun hauek zehazten dute aditzondoak zabalegi uzten duten denbora-gunea.

- *ointxe bertan*
- *atzo gaubean*

**4.2.2.2.2. Leku-aditzondoak**

## a) Galdekariak

Leku aditzondoan galdekari nagusia *non* da. Galdekari honi kasu-markak erantsiz, *nondik, nora, norantza, norraño* eta *norako* galdekariak lortzen dira.

## b) Galdekariei erantzuten dieten aditzondoak

- Erakusleetatik eratorritakoak

Leku-adberbio arruntak

Erakusleetatik eratorritako leku-adberbioek hiru gradu dauzkate.

<b>HEMEN</b>	<b>HOR</b>	<b>HAN</b>
<i>emen</i>	<i>or</i>	<i>an</i>
<i>emeko</i>	<i>orko</i>	<i>ango</i>
<i>emeti(k)</i>	<i>orti(k)</i>	<i>andi(k)</i>
<i>ona</i>	<i>orra</i>	<i>ara</i>
<i>onantza</i>	<i>orrantza</i>	<i>arantza</i>
<i>onraño</i>	<i>orraño</i>	<i>araño</i>

## Adibideak:

- *Ormazabal da gure ama da orkoa da orretakoak lotu sirean emen*
- *Arantza Lemoa da, da emeti Arantzasure*
- *emen ointxe berreun urtetik onantza asi dire blokeak*
- *gero bajatu nintzen bisiten ona Garakoire*
- *Au de sera Getalota mendie, Getalotakoa, Urrutxu mendie, ta ori de or dao Apario mendie da orti dao*



- *Emen ixin sela gero an, gero... atzo por fin entzun neuen, por fin Billaron, Arratianonean*
- *orduen, ba, bota gindusen umeok ara*
- *araño allegau sireanean ipini euresan kañoyak*
- *banoa orra basora*
- *andik goitik bajatan euriesan arriek*
- *orkoa fasilao aituten yoat*

### Leku-adberbio indartuak

Hizkera honetan hiru modu daude leku-adberbioak eratzeko: *-(t)xe*, *Ber-* eta *A-*

*-(t)xe*

Leku-adberbio indartuak eratzeko gehien erabiltzen den aukera *-(t)xe* atzizkia da, ablatibo kasuan *-xi* aldaera daukana aukera bakarra lez.

HEMENTXE	HORTXE	HANTXE
<i>ementxe</i>	<i>ortxe</i>	<i>antxe</i>
<i>emeko(t)xe</i>	<i>orkoxe</i>	<i>angoxe</i>
<i>emetixi</i>	<i>ortixi</i>	<i>andixi</i>
<i>onaxe</i>	<i>orrxaxe</i>	<i>araxe</i>
<i>onaxeño</i>	<i>orrxaxeño</i>	<i>araxeño</i>

Adibideak:

- *non eongo dires ementxe Iorren?*
- *oñes yoateko emetixi da urre*
- *Aixek mendiek, angoxek mendiek, aixen mendien emeti aldetxuen dao*
- *ementxe ementxe onaxe etorten da bat, onaxe etorten da, ba, estait nor dan fijo*
- *pala bat eoten san kirten luse bategas, da antxe bota urun apurtxu bet, araxe, ta ogiek*
- *gure basoan ein dun beste subterraneo bat, ortxe da orrxaxe*
- *Amatxu eta etorri sen eskonbarri ala? Eskondu te araxe*
- *txarriek emekotxeko moduen aldeanuek eiten deurie*

*Ber-*

Beste modu bat leku-adberbio indartuak eratzeko *ber-* aurrizkia eranstea da, baina aukera hau bakarrik gauzatu daiteke hirugarren graduko formekin.

<i>bertan</i>
<i>bertako</i>
<i>bertati</i>
<i>bertara</i>
<i>bertarantza</i>
<i>bertaraño</i>

Adibideak:

- *Ortxe txabolan bertan, ortxe daos bai*
- *Non dao? Dimen bertan*
- *Bai, Iorren bertan barrio asko daos*
- *buelta artzean dosunean Igorren bertati plasati buelta artzean a kamiñoa dekosu, andik doa, San Kristobal*
- *olango gausen bat Dimen bertan igual eingo deurie*

Hurbiltasuna adierazteko 'berton' aldaera erabiltzen da.

<i>berton</i>
<i>bertoko</i>
<i>bertoti</i>
<i>bertora</i>
<i>bertorantza</i>
<i>bertoraño</i>

Adibideak:

- *es domekarik, es gabonik, onekas berton eon beada*
- *Baya emen berton esta begituten orrenbeste*
- *yoan gintzesan Montekarlora be bertoko lekuek ikusten*
- *Oso gatxa da emeko bertoko bat topatutea*

Indar handiagoa emateko -(t)xe atzizkiaz eta a- aurrizkiaz eratzen dira:

- (t)xe
- *Nik euskera neurea emekotxe bertakoa*
- *Letxeruek ementxe bertan paraten sirean*
- *ortxe bertanon san sesto bat*
- *antxe bertan dekosu*

A-

A- aurrizkia ere erabiltzen da aditzondoa indartzeko.

<i>amen</i>	<i>aor</i>	<i>an</i>
<i>ameko</i>	<i>aorko</i>	<i>ango</i>
<i>ameti</i>	<i>aorti</i>	<i>andi</i>
<i>ana</i>	<i>aorra</i>	<i>ara</i>

Taulan ikusten denez, hirugarren graduan ezin ditugu bereizi aditzondo arruntak indartuetatik. Etxezarragak (1982) Zeanurirako *aan* moduko formak ematen ditu; nik Igorrerako ez dut horrelakorik batu eta oso gaitz egiten da bereiztea aditzondo arruntak eta indartuak.

Adibideak:

- *lelengo ebai iten deu ta au makinea da atzetik, onek ebai, amen au agarrateko estosu ikusten?*
- *Onek errueda bi amen, amen, ortxeri sapaldu, orrexeri sapaldu atzetik*

- *Amen motorra, gariak emeti urteteuen taka-taka, taka-taka*
- *Geldi! amen, estosu ikusten kordelakas, ori gasoleoagas ibiliko da*
- *gixona konduktorea, alboan beste bat, kobradore bat, amen tranbiero asko eon san*
- *Beitu! Amen astoa, otzareagas*
- *amen, San Kristobalen*

- Indefinitu konposatuak

Leku-aditzondo indefinitu konposatuak *iñon/inon* eta *nainon* dira<sup>97</sup>.

*Iñon / Inon*

*Iñon/Inon* galderetan eta ezezko perpausetan erabiltzen da.

- *Sekulan es, iñon bes bearrik*
- *nire antzeko aldeanue egundo ibili barik iñondik*
- *Inon egon as?*

*Nainon*

*Nainon* oso gutxitan erabiltzen da. Galdetegi bidez baino ez dut jaso eta hiztun askorentzat guztiz ezezaguna da. Batu ditudan adibideetan baiezko eta ezezko perpausetan erabiltzen da.

- *Nainon topau al dok au*
- *nainon topau seinke ori*
- *ori nainon estao*

- Bestelakoak

Gutxi badira ere, badira berez leku-aditzondoak diren hitz bakunak: *urrin, ur...*

- Leku-aditzondo gisa erabiltzen diren adizlagunak

Badira zenbait adizlagun aditzondo gisa erabiltzen direnak, erabat aditzondo bilakatu ez badira ere: *eurrera, atzera, kanpoan, gora, bean, goiti, beiti, kanpora, eurrean, atzean...*

c) Lekua adierazten duten esaera adberbialak

- *Edo* osagaia dutenak

*Nonon*

Esaera hau galderetan eta baiezko perpausetan erabiltzen da.

- *buruen badeko nonon*
- *bertakoak direla... ta nonon eongo san ori ekarteko, Arratieko nonon eongo san*
- *Bueno geldi eoteko naikoa, nonon*
- *yan da lo iteko naikoa nonon*

*Edosein* lekuten

Esaera hau baiezko eta ezezko perpausetan erabiltzen da.

- *Kandelario bille, kandelario bille, da oin dosak edosein lekuten*

<sup>97</sup> 'Edonon' ez da erabiltzen.

- *beyekas edosein lekutan, satzak atara, badiñotzut edosertarako*
- *edosein lekuten esan geinkek ori*
- *ori edosein lekutan estosu topauko*

- Inesiboa dutenak

Badira zenbait esaeran inesiboaren laguntzaz eretzen direnak.

- *kallean gora*
- *kallean bera*

- *Gero eta... -ago*

- *Gero ta urrau yauk*
- *Gero ta urrinau yauk*

- Bestelakoak

*Lekuren bat + atzizkia*

Esaera hau galderetan eta baiezko perpausetan erabiltzen da.

- *Danataos kolokaute lekuren baten*

#### d) Aposizioan adizlagun bat daramaten leku-aditzondoak

Maiz leku-aditzondoek adizlagun bat daramate aposizioan. Adizlagun hauek zehazten dute aditzondoak zabalegi uzten duten lekua

- *antxe bertan*
- *or goyen*

#### 4.2.2.2.3. Modu-aditzondoak

##### a) Galdekariak

Modu-aditzondoan galdekaria *selan* da.

##### b) Galdekariei erantzuten dieten aditzondoak

- Erakusleetatik eratorritakoak

##### Modu-adberbio arruntak

Erakusleetatik eratorritako modu-adberbioak *-lan* atzizkiaren bidez eraten dira ‘*selan*’ galderari erantzuteko. Hauei *-go* atzizkia erantsiz sortzen diren formak ‘*selako*’ galderari erantzungo liokete.

<b>selan</b>	<b>selako</b>
<i>onan</i>	<i>onango</i>
<i>olan</i>	<i>olango</i>
<i>alan</i>	<i>alango</i>

Adibideak:

- *Gero esan nontzen Juan: onango neskea da*
- *guk olan estu eiten*
- *esan euen bera alan sartuten estoala*
- *Segun selango tratue dekosun aregas alan eiten dosun berbeas*
- *mineak eon sirean Peñaganeraño, da alango minetako telleria eon san*
- *Baya pasau yakus olangoak beragas asko*

### Modu-adberbio indartuak

Forma indartuak *-(t)xe* atzizkiarekin eratzen dira. ‘*Selan*’ galderari erantzuten dioten modu-adberbio indartuek *-txi(k)* atzizkia ere har dezakete.

<b>selan</b>	<b>selako</b>
<i>onantxe / onantxi(k)</i>	<i>onangoxe</i>
<i>olantxe / olantxi(k)</i>	<i>olangoxe</i>
<i>alantxe / alantxi(k)</i>	<i>alangoxe</i>

Adibideak:

- *Seinbet ogi sati o seinbet ogi, ba, olangoxe satiek*
- *Danatabis, mundu gustie olantxi dabil*
- *Da muñekatarra olan gaste gaste ixin gintzesanean olantxe*
- *Berak que por las buenas emoten bosku gastaya bat, ostean olantxik*

### Onen, orren, ain

Erakusleetatik eratorritako adberbio hauek jatorriz ‘noren’ kasuan deklinatutako erakusleetatik datoz.

<i>onen</i>	<i>onenbeste</i>	<i>*<sup>98</sup></i>
<i>orren</i>	<i>orrenbeste</i>	<i>*</i>
<i>ain</i>	<i>ainbeste</i>	<i>ainbet</i>

Adibideak:

- *onenbeste kilo dekos*
- *Artzean ipintesan onenbeste kilo*
- *Ba, orduen, ba, senbet pisetu deu? Onenbeste*
- *baya estekosu garantiarik igual okolea estala orrenbesteko ona*
- *niri estoste meresidu, se nik estot koidu orrenbeste*
- *Senbet pisetu deu? Orrenbeste erralde*
- *Umeatires, ain umeak, baya andietires*
- *Gure bisimodue gogorra ixin de, ain ixin de gogorra*
- *Da in gindusen ainbet eskursiño*
- *Klaro, usetan da gitxi, dekonak normalmente dekonak or ainbesste ektarea*

<sup>98</sup> *Onenbat* eta *orrenbat* nekez onartzen dute hiztunek, erantzuten dutenean beti *ainbet* erabiltzen dute.

- Indefinitu konposatuak

Modu-adberbioetan daukagun indefinitu konposatuak ezezko esaldietan baino ez dira agertzen eta beti *bes* osagaiarekin: *eselan bes*, *esetati(k) bes*, *iñondi(k) bes*.

- *Eselan bes*, *bapes*, *ixin lei ori*
- *Esetati bes*, *iñondi bes*, *iñondi bes ixin lei*

- Atzizkiren batez eratorritako aditzondoak

Aditzondoak atzizkiren bidez ere eratu daitezke. Atzizki hauek *-to*, *-ro*, *-ka*, *-ik* eta *-ta* dira. (ikus 4.2.2.1.2.)

- Aditzondo gisa erabiliak

Izenondo asko testuinguru jakinetan aditzondo gisa erabiltzen dira: *arin*, *garbi*, *argi*, *nasai*...

Halaber, badira deklinazio atzizki eta guzti aditzondo gisa erabiltzen direnak: *oñes*, *gustora*, *iruntzietara*, *artes*...

- Bestelakoak

Gutxi badira ere, badira berez modu-aditzondoak diren hitz bakunak: *derigor*, *doan*, *larri*...

Onomatopeiak ere badira: *tipi-tapa*, *di-da*...

### c) Moduzko esaera adberbialak

- *Edo* osagaia dutenak

*Selan edo alan*<sup>99</sup>

Esaera hau galderetan, baiezko eta ezezko perpausetan erabiltzen da.

- *taladro bat eiteko ba, selan edo alan edo emetik aldetik edo andik aldetik*
- *Selan edo alan etorri soan, emen yauk*
- *ori ein lekite selan edo alan?*
- *Selan edo alan eik! Aretara edo onetara*
- *es eisu ein selan edo alan*

*Edosein modutera*

Esaera hau galderetan, baiezko eta ezezko perpausetan erabiltzen da.

- *Edosein modutera ingu*
- *baya taloa eiten yakin in beada yakin in bida esta edosein modutera eiten*
- *ori ein lekite edosein modutera?*

<sup>99</sup> 'Zeozelan' modukorik ez dira erabiltzen.

- Hitz errepikatuak

Sarritan hitz errepikatuak erabiltzen dira modu-adberbio gisa: *apurke-apurke, astiro-astiro, txiri-txiri...*

- *Gero eta... -ago*  
- *gero ta obeto eiten du*

#### 4.2.2.2.4. Maila-aditzondoak eta zenbatekoak

Maila-aditzondoek aditzondoaren maila edo intentsitate neurria adierazteko erabiltzen direnak: *oso, sano, gustis, asko, naiko...*

- *oso gusture gaos*
- *gustis aspertute dao*
- *naiko txarto dao*

Hauek guztiak 3.2.1.2.3. atalean azalduta daude.

#### 4.2.2.2.5. Iritzi-aditzondoak

Iritzi-aditzondoek ustea, ziurtasuna, ziurtasun eza, agiantasuna eta egiantzekotasuna adieraz ditzakete.

##### a) Ziurtasuna adierazten dutenak<sup>100</sup>

- *Seguru / Seguramente*  
- *seguru dires sei seme alaba neutakitela*  
- *Euskalerrien seguramente es san eon*  
- *Billaro ixingo da seguramente Arratien gitxien eiten dana*  
- *Arantza estot begiten, seguru*  
- *Aurrekoetxeak il euen seguramente gurean urte batzutan*  
- *ori seguramente barrie ixingo da*
- *Klaro*  
- *Bai amapai, amatxupai, amak, klaro, danak*  
- *orren semea da, ba, klaro*  
- *Dana lana gorrie, klaro, dana lana gorriegas*  
- *Klaro, se bera alaba bakarra da*  
- *Ba, klaro, saltzean sireana*  
- *klaro, layetu eskero, au sertan ein estao*
- *Yakiñe*  
- *Baten batek esaten boa edosein geuse... Yakiñe! Yakin yuk, ba, ori yasoko soana.*  
- *Beti arbolan eon bok eta yausten bok... Yakiñe!*

<sup>100</sup> *Beinke* ere ezaguna da hiztun batzuentzat baina kanpokotzat jotzen dute.

## b) Ziurtasun eza adierazten dutenak

- *Badaespadan*  
- *badaespadan, ba, ipini iten du, es?*

## c) Agiantasuna adierazten dutenak

- *Igual*  
- *Saspi bet? Edo gitxiao igual*  
- *Nik pentzetan dot igual amatxuges eongo sala lo iten*  
- *geuse batzupai baya beste batzuk igual aitu es ondo*  
- *Lemoan igual gitxiao sartuko da*  
- *Dime sabala da ta igual andiagoa*
- *Bearbada*

Hiztun askok ezagutzen dute baina ez dute erabiltzen eta kanpoko formatzat hartzen dute. Gauza bera esan daiteke 'beinke' hitzari buruz, hiztun batzuentzat ezaguna da baina ez dute erabiltzen.

- *bearbada biar etorri likite*

## d) Egiantzekotasuna adierazten dutenak

- *Antza*  
- *nirea baño andiegoa ixin sen, antza*  
- *Ori erderas be txarto esanda yauk, antza*

**4.2.2.3. Aditzaren ondoko bestelako hitzak**

Badira adizlagun gisa azaldu ezin daitezkeen hitzak nahiz eta aditzaren inguruan agertzen diren.

- *Beintzet*

Hitz honek iritzi kutsua agertze badu ere, kontraste jakin bat adierazteko erabiltzen da, aurretik aipaturikoa zehazteko erabiltzen da.

- *Garratxa ta mingotza. Limoiari biek esan leion, neuretzako beintzet*  
- *onek motzatire beintzet*  
- *emen beintzet, onik selayok eiten sirean erdie beyekas*

- *Sikeran*

- *bearra edo seoser eukiskero sikeran, ba, solduegas tirando*  
- *Odola artzean, ni ixiten nintzen, gure etzean sikeran ni*  
- *Es, etzean es sikeran, kanpoan lagun konfidansa askoas igual bai*



- *Be*

Esaldi bi lotzeko erabiltzen den juntagailu hau sarritan zer bait baiezteko edo ukatzeko erabiltzen da.

- *Ori be altue san*
- *Amatxu be deseetan eongo da*
- *neu be enas yoaten*

- *Ei*

Partikula hau aditzaren aurrean agertzen da, perifrastikoa bada aditz laguntzailearen aurrean.

- *Artean ei dao*
- *etorri ei de Lurditas*

- Bai / Es

*Bai* eta *es* partikulak ez dira modu berean erabiltzen. *Bai* perpaus ordaina da, bakarrik zein beste esaldi batekin justaposizioan agertzen dena. *Es*, ostera, perpaus ordaina eta aditz aurreko partikula izan daiteke.

<i>Bai</i>	<i>Es</i>
<i>Etorri de, bai</i>	<i>Esta etorri, es</i>

Aditzaren baiezkotasuna markatzeko ez da *bai* erabiltzen. Aditz sintetikoekin *ba* erabiltzen da, eta perifrastikoekin  $\emptyset$ . Ezezkotasuna markatzeko aldiz *es* erabiltzen da.

<i>Badator</i>	<i>Estator</i>
<i>Bier etorriko da</i>	<i>Esta bier etorriko</i>

### 4.3. Sumarioa eta ondorioak

Aditz-sintagmaren atalean aditza eta adberbioak sortzeko eta erabiltzeko arauak aztertu ditugu. Aditzean jokatu gabeko aditzak eta jokatuak bereizi ditugu. Joaktu gabekoetan aditz-partizipio motak eta aditz-izenen erlazioak erakutsi ditugu hurrengo taulan laburtzen dugun moduan:

Aditz-partizipioa	Aditz-izena
<i>-tu/-du</i>	<i>-tzean, -tan</i> eta <i>-tuten/-duten</i>
<i>-atu</i>	<i>-ten</i>
<i>-eu / -au</i>	<i>-(e)tan</i>
<i>-idu</i>	<i>-duten</i> eta <i>-ten</i>
<i>-i</i>	<i>-ten</i>
<i>-n</i>	<i>-ten</i>

-a	-ten
-e	-tan
-o	-ten
-l	-ten

Aditz jokatueta, erabilera aztertu dugu. Aditz-paradigmarena, honako taula honetan laburtzen dena,

	Nor	Nor-Nori	Nor-Nork	Nor-Nori-Nork
Indikatiboa	Izan	Izan	*Edun eta Eutsi	Eutsi
Baldintza	Izan eta Edin	Izan	*Edun eta Eutsi	Eutsi
Ahalera	Edin	-----	Egin	-----
Subjuntiboa	Edin	-----	Egin	-----
Agintera	Edin	-----	Egin	Egin

aditzen erroen eta morfemen erabilera, aditz trinkoena eta, azkenik, aditz faktitiboen erabilera ere aztertu ditugu. Honetaz gain, aditz inbentarioa ere eman dugu.

Adverbioei dagokionez, adizlaguna eta aditzondoak sortzeko eta erabiltzeko gauzatzen diren arauak aztertu ditugu. Adizlagunei buruz esan dugu kasu-marken bidez eta postposizioen bidez sor daitezkeela. Aditzondoei buruz sailkapen bi eman ditugu, bata formala eta beste semantikoa.

Hierarkia prosodikoaren teorian, aditzaren inguruan gauzatzen diren arauak fonologiaren atalean azaldu ditugu. Hala eta guztiz ere, pertinentea deritzogu aditzaren atalean berriro azaltzea. Honako hauek dira aditzean gertatzen diren arauak (ikus 2.5. puntua):

- Diptongoetan: au > eu
- Bokaletan: a > e / i,u (C)\_\_\_\_\_ asimilazioa
- Palatalizazioa
- Shandiak
- Sinkopak

Ikus dezagun arau hauek zein eremutan gauzatzen diren hierarkia prosodikoaren arabera.

a) Sintagma fonologikoan gauzatzen diren arauak

- Palatalizazioaren arauak sintagma fonologikoaren eremuan gauzatzen dira. Hizkera honetan, bustidura, hitanozko hainbat aditzetan gauzatzen da, kontrako norabidean [n] eta [l] kontsonanteetan: *ñauk, llatak, ñoan, ñekek...*

## b) Talde klitikoan gauzatzen diren arauak

- a > e / i,u (C)\_\_\_ asimilazioa talde klitikoaren eremuan gauzatzen da, hitz fonologikotik kanpo ere gertatzen delako. Izan aditzean da eta naz adizkien bokala asimilatzen da talde klitiko berean daudenean: *etorri de, etorri nez, galdu de, galdu nez...*

Desklitizatzen denean (-la edo -na menderagailuak sartzen direnean adibidez) ordea, ez da arau hau gauzatzen: *etorri dala, galdu nazela...*

- Kontsonanteen arteko shandietan gertatzen diren arauak talde klitikoan gauzatzen dira. Guztira sei arau aipatu bagenituen ere 2.5. puntuan, aditzari dagokionez, bereziki erreparatu behar diegu 'ez' partikulak eragiten dituen aldaketei.

a) (b, d, g) > (p,t,k) / ez\_\_\_ Adibideak: *esposu, estator, eskoas...*

b) [j] > [tʃ] / ez\_\_\_ Adibideak: *etxauk, etxekoat, etxata...*

c) (l, n) > Ø / ez\_\_\_ Adibideak: *enoa, eleuke...*

## e) Silaban gauzatzen diren arauak

- Diptongoetan gertatzen den au > eu araua silabaren eremuan gauzatzen da. Sinkronikoki gauzatzen ari den araua da lekuko gehienek *eu* ahoskatzen dutelako, batzuek *au* eta beste batzuek biak, *au* zein *eu*. Adibideak *dau* zein *deu* / *amatau* zein *amateu*.... Baina esan bezala, gehienek *eu* ahoskatzen dute.

Aditzari dagokionez, hitz fonologikoaren eta oinaren eremuan ez da araurik gauzatzen.



# SINTAXIA

## 5. Sintaxia

Beharbada sintaxia da dialektologian gutxien erabili izan den hizkuntza alorra, eta ez bakarrik euskal dialektologian, hizkuntza guztietan antzera gertatu baita (Hudson 1980; Mitxelena, 1985). Euskal dialektologian Bonaparte (1869) ezaugarri sintaktiko gutxitaz baliatu zen bere sailkapena egiteko. Caminok (1997: 130) ohartarazten digunez, *Euskal Hizkeren Hizkuntza Atlasean* ere lexikoa nabarmen agertzen da sintaxiaren aldean. Zuazoren (2014) lanean ere, mendebalerako ematen dituen ezaugarrien artean, sintaxi mailan gauzatzen direnak gutxiengoa dira. Guztira bederatzi ezaugarri baino ez dira. Fonetikan aldiz, hamabost; izen-morfologian hamabi eta aditz-morfologian hamahiru. Gainera, mendebaleko azpieuskalkiak bereizteko ez du ezaugarri sintaktiko bat ere ematen. Gamindek (2007b) ordea, kontrako joera aurkezten du esaldi ereduak aztertzean, guztira 105 esaldi-eredu ezberdin erabiltzen baititu bere azterketa kuantitatiboan. Euskal dialektologian idatzi diren azken tesietan jokamolde bi ikusten dira. Alde batetik, autore batzuek (Erdozia, 21001; Epelde, 2004, Ormaetxea, 2006, Makazaga, 2009...) deskribapen eta azterketa osoa egiten dute. Beste batzuek aldiz (Montoya 2002, Zelaieta 2008, Apalauza, 2010...), ezaugarri batzuei baino ez diote erreparatzen.

Guk hizkera honetan erabiltzen diren egitura sintaktikoak aztertuko ditugu atal honetan. Horretarako, Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Lehen Urratsak* bilduman egiten den sailkapena oinarritzat hartuko dut. Adibideei dagokienez, esan behar da, atal honetan askotan jo izan behar dela galdetegietara hizketa librean jaso ez diren adibideak batzeko. Sintaxiaren atalean nagusiki puntu bi aztertuko ditugu: perpausa eta lokailuak.

### 5.1. Perpausa

Perpausak modu askotan sailka daitekeenez, lehenengo eta behin, ikusiko dugu zein perpaus mota dauden eta gero sailkatze modu bat aukeratuko dugu geure azterketarako.

#### 5.1.1. Perpaus motak

EGLU I-ek dakarren legez perpausak modu askotan sailka daitezke. Sailkatze modu horien artean hauexek ditugu:

- Perpaus bakunak eta elkartuak
- Perpaus jokatuak eta jokatugabeak
- Adierazpen, galde, aginte eta harridura-perpausak
- Baiezko eta ezezko perpausak

Lan honetan lehenengo aukera hartuko dugu sailkapenerako irizpidetzat, hau da, perpaus bakunak eta elkartuak.

#### 5.1.2. Perpaus bakunak

Bere barruan beste perpausik ez daukan perpausari, aditz-sintagma bakarraz osatutakoari, perpaus bakuna deitzen zaio. Perpaus bakunen artean ondoko hauek ikusiko ditugu: - Jokatuak

- Jokatugabeak

- Adierazpen-perpausak
- Galde-perpausak
- Aginte-perpausak
- Harridura-perpausak
- Baiezko eta ezezko perpausak

#### 5.1.2.1. Jokatuak

Forma jokatuta daraman perpausari ‘perpaus jokatua’ deituko diogu.

Adibideak:

- *afarie ein gindun*
- *telebisiñoa apurtu yaku*

#### 5.1.2.2. Jokatugabeak

Lehen esan dugunez, perpausik gehienek aditza dute eta aditz hori forma jokatuan zein jokatugabea izan daitezke. Forma jokatugabea daraman perpausari ‘perpaus jokatugabea’ deituko diogu.

Adibideak:

- *etorri ona*
- *ekarri ona boligrafori*

#### 5.1.2.3. Adierazpen-perpausak

Adierazpen-perpausak informazio bat zabaltzen dute.

Adibideak:

- *etzean eon da*
- *gonea eroan deu*
- *bellegie da*

#### 5.1.2.4. Galde-perpausak

Galde-perpausak bere barnean galdera bat dute.

Galde-perpaus bakunen artean hiru sail bereiziko ditugu: bai/ez galderak, aukera-galderak eta zati-galderak.

##### 5.1.2.4.1. Bai / Ez erako galderak

Galdera hauek baiezko zein ezezko erantzuna, eta ez besterik, eskatzen dute. Sintaktikoki ez dute galdera-marka morfologikorik.

- *etorri de?*
- *eurie da?*

**5.1.2.4.2. Aukera-galderak**

Aukera-galderetan erantzun bat baino gehiago da posible. Hauek *ala* partikula eraman ohi dute:

- *ser gure dosu, kafea ala kolakaoa?*
- *non bisi de, San Juanen ala San Kristobalen?*

**5.1.2.4.3. Zati-galderak**

Zati-galderetan galdetzaileak erabiltzen dira eskatzen den informazioa zehazteko:

- *nos etorri de?*
- *nok in deu?*

**5.1.2.5. Aginte-perpausak**

Aginte-perpausak lokabeak nahiz mendekoak izan daitezke eta jokatuak zein ez jokatuak. Aginte-perpausetan aditza perpausaren hasieran joan ohi da:

- *Etorri ona!* (Lokabea)
- *Etorteko esan dotzut!* (Mendekoa)
- *Etxon, etxon!* (Ez jokatua)
- *Yoai gorantza!* (Jokatua)

**5.1.2.6. Harridura-perpausak**

Harridura-perpausetan hiztunak adierazpen batek sortzen dion harridura, larritasuna, beldurra, kezka, nazka, mesprezua eta antzeko sentipenak adierazten dira; barne-sentimenduak eta jarrerak adierazten dira.

Harridura-perpausak modu hauetan era daitezke:

**5.1.2.6.1. Erakusleak eta eratorriak**

Erakusleez eta erakusletik eratorritako leku eta modu-aditzondoez baliatuz era daitezke:

- *Au beroa!*
- *Orixe ba!*
- *Ene! Orixe berba ori!*

**5.1.2.6.2. Galdetzaileak**

Galdetzaileez baliatuz eratzten direnak:

- *senbepider olango burdi bet sartu te saputze erre kara bota estorbo gustiek ara!*

**5.1.2.6.3. Baiezkoak**

Baieztapena azpimarratzen dutenak:

- *au bai ixiten san ona!*



**5.1.2.6.4. Ezezkoak**

Ezeztapena azpimarratzen dutenak:

- *pentzeu bes!*
- *yakingo estopa!*
- *etorriko esta ba!*

**5.1.2.6.5. Baietz / Ezetz**

Erronka edo desafioa egiteko:

- *Baies iribesi Atletik*
- *Eses iribesi*

**5.1.2.6.6. Be**

*Be*-z baliatuz eratzten direnak:

- *Au be badok!*
- *Bada ori be!*

**5.1.2.6.7. Gero**

Esapide hau amaieran jartzen da:

- *iteurreko onik es egoan gero!*
- *Durungurantz da orti be diferente dekosu gero!*

**5.1.2.6.8. Baya**

Esapide hau ere amaieran jartzen da:

- *esteku guretzako baya!*

**5.1.2.6.9. Aditzaren ezabaketa**

Aditza ezabatuz eratzten direnak:

- *ederra putadea!*

**5.1.2.6.10. Interjekzioak**

Zenbait interjekzio ere erabiltzen dira harridura-perpausak eratzeko:

- *Ene ba!*
- *Geurkoa negargarrie da, Jesus jaungoikoa!*
- *Koitadue!*
- *Koitedea!*
- *Iorren bertakoapaño ya kanpostar geyao daos, kanpostar geyao asko, ene!*
- *Ara bestea!*
- *Jesus, Maria ta Jose!*
- *Ai ama!*

### 5.1.2.7. Baiezko eta ezezko perpausak

Arestian aipatutako perpaus mota guztiak baiezkoak zein ezezkoak izan daitezke. Baiezko eta ezezko perpausak bereiziko ditugu ezezkoetan *ez* edo *ezin* agertzen direlako.

Baiezko perpausak:

- *ama etorri de*
- *lagunegas dator*

Ezezko perpausak:

Egitura: [ez / ezin + aditz trinkoa] edo [ez / ezin + aditz laguntzailea + aditz nagusia]

- *ama esta etorri*
- *estabil*
- *amak ixin deu etorri*
- *ixin de*

Puntu honetan, ezezko nominalizazioen egitura aztertzea merezi du. Gamindek (1990a) aipatzen duen moduan, bizkaieraz ezezko nominalizazioak kokapenaren arabera egiteko modu bi daude: “ez” aditz-izenaren aurrean agertuz, edo aditz-izena urratuz, aditz-partizipioaren ostean. Erabilera honek bizkaiera goitik behera, Gernikako itsasadarretik hasita, banatzen duen isoglosa bat sortzen du. Horrela ekialdeko joera “ez” aditz-izenaren aurrean agertzea da eta mendebaldekoa aditz-izenaren erdian, gure hizkeran legez.

Igorreko adibideak:

- *ibili esitea da txarra*
- *afaldu esitearren yoan dires*
- *yaten dot berdurea loditu esiteko*

Nahiz eta oro har baiezko perpausak seinale berezirik ez izan, badago *ba-* partikula, baiezko perpausetan baino ez dena erabiltzen aditz trinkoa galdegaia denean:

- *basoas, esta?*
- *badoa etzera*

### 5.1.3. Perpaus elkartuak

Bi perpaus edo gehiagoz osatutako perpausari perpaus elkartua deitzen diogu. Hauek modu bitan gauza daitezke:

- Juntadura: maila bereko perpaus bi edo gehiago elkartzen direnean.
- Menperakuntzan: perpaus bat beste baten barnean txertatzen denengan.

#### 5.1.3.1. Juntadura

Juntaduran maila bereko perpaus bi edo gehiago elkartzen dira. Zenbaitetan alborakuntzaz (juntagailurik gabe) elkartzen dira, baina, gehienetan juntagailuen bidez elkartu ohi dira.

Juntagailuek maila bereko perpausak edo osagaiak elkartzen dituzte. Juntaduran erabiltzen diren juntagailuak hiru motakoak izan daitezke:

- Emendiozkoak
- Hautakariak
- Aurkaritzakoak

### 5.1.3.1.1. Emendiozko juntagailuak

Emendiozko juntagailuek lotu eta elkartzeaz gain berretu egiten dute lotura.

#### a) *Eta* juntagailua

*Eta* juntagailuak maila eta kategoria bereko gura adina juntagai elkar ditzake. Juntagai hauek perpausak, izen-sintagmak eta sintagmaren barruko osagaiak izan daitezke.

Hizkera honetan ‘eta’ juntagailuaren aldaera hauek agertzen zaizkigu: *eta, ta, te, da* eta *de*.

Kokalekuaren gainean esan dezakegu *eta* bigarren juntagaiaren aurrean ezartzen dela. Hala ere, batzuetan juntagai bakarraren ondoren agertzen da; bigarren juntagaia zehaztu nahi ez denean, zalantza dugunean nola jarraitu, edo harridura adierazteko baliatzen ditugu halako egiturak.

Adb: - Da nortzuk? *Ba, Juan eta.*

- *Soloak eta garbi manteniduten ditu, es?*

#### Perpausen elkarketa:

Juntagaiak perpausak direnean, perpausok mota berekoak izan ohi dira:

- *artuisus da eroaisus danak*
- *saiskiek asurrek eta ori dana, dana kendu eta beste dana pikau eiten da*
- *beyek kendu gindusen da lotu ginen bei betegas*
- *puntea sorrostu te ipiñi te yo emen, da noraño yoaten dan ta koyu*
- *eurek abansau ta abansau, etorri sirean da gero entregau giñean*
- *kortan sartu sen ta niri preguntau osten*
- *Juanek konejuetekos yoan ta entrebistaisu*
- *ona bota ta garbitu iten oskusen onek errotarako moduen*

Mota ezberdinekoak direnean debekuak daude: galde-perpaua eta aginte-perpaua ezin ditu elkartu ezta galde-perpaua eta adierazpen-perpaua ere.

#### Izen-sintagmen elkarketa:

Izen-sintagmak elkartzen direnean deklinabide-markak ezatzeko modu bi daude: osagai bietan ezarrita edo bakarrik bigarren osagaietan.

- *koñeteari eta nebeari esebes*
- *oñes etorten sirean au te anaya*

- *San Kristobalen ta leku askotan onango aldatzean idiekas sera ibili in bear. Ibili in bear.*
- *Bilbora yoaten sirean amama ta aite, Bilboraño oñes.*
- *Iorren ta Dimen?*
- *Oroskoti ta orti baltza bebai babea*
- *Basoatan ibilten siren asto ta kaballokas bakisu da pausuk eta o sea ke alrebes, atzerantza.*
- *ori suegro eta suegreari entzunde ba... Sorrontzan saltzean da*

b) *Be* lokailua emendioaren indargarri: *bebai / bes, eta... bebai / eta... bes, baite / esta*

*Be* lokailua, beste lokailu asko legez, juntagailuekin batera ere ager daiteke.

*Be* lokailuaren eginkizun nagusia da ezkerreko osagaiaren erreferentzia egitea.

Aldaeren aldetik aipatu behar da hizkera honetan *be* dela agertzen den aldaera bakarra, 'bere' ren modukorik ez da erabiltzen.

Bi egitura dira nagusiki agertzen direnak hizkera honetan:

b1) *(Eta...) bebai / (Eta)... bes*

Molde hauek eskuineko perpauseko aditza oso-osorik ezabatzen denean erabiltzen dira.

- *Estait sertan baya badekie diferensie, da Seanin bebai*
- *lau ogi asterako da gero beste txiki bet edo bi, da olantxe etzerako, da artoa bebai*
- *Sorrontzan diferente eiten da, arean e, da Seberion bebai*
- *ikusi gindusen palasioak eta estakipa Erromako sera bebai*
- *ein, ein bear alantxi, da beste ori pentzau bes*
- *giputze atoan igerten da, giputze eta nabarro bueno nabarro fasil ta kostaparteko jentea bebai*

b2) *Baite / Esta*

- *Danak yoaten siren Bilbora. - Da Bituriera? Baite, Bituriera, bai.*
- *Txopoa esaten dosu? Baite, txopoa bebai*
- *Ta ibili beragas bebai? Baite, ganean be, ganean be. Beyek eurrean emeti, katea ta, aik tiritu*

c) Baiezko eta ezezko zenbait juntaduraren berezitasunak: banakaritza (*bai... bai... / es... es...*)

Molde hauek erabiltzen dira juntagai bi bakoitza bere aldetik baieztatuz edo ezeztatuz juntatu nahi direnean baieztapen edo ezeztapen-markak (*bai* eta *es*) juntagai bakoitzaren aurrean ezarriz.

- *ointxe es beirik, es ollorik, es txarririk, es esebes estekot*
- *Ointxe be katesismoa... da bai jangoikoari esker da bai dana euskeras, dana iten gindun euskeras*

d) Emendiozko esamoldeak<sup>101</sup>: *bakarrik es*.

Esamolde hauek emendiozkoak dira berrikuntza adierazten dutelako.  
Esamolde hauek juntagailu barik erabiltzen dira.

### Bakarrik... es

*Bakarrik... es* esamoldearen funtzioa perpaus-osagaiak ez ezik, perpaus beregainak ere elkartzea da.

- *Ogie bakarrik es, makiña bat artxo erreak or*
- *Lepoan bakarrik es, trongoak sartu serera ta bueltak emon, bueltak emon serrera sartzeako*

### **5.1.3.1.2. Juntagailu hautakariak**

a) *Edo* juntagailua

*Edo* juntagailuak perpausak zein maila behereagoko osagaiak elkar ditzake. Esanguraren aldetik esan dezakegu egiazko aukera balioa duela, bata edo bestea aukeratu behar dela; eta baita orobatasun esangura ere; hau da, hiztunari berdin dionean osagaien artean egiten den aukera.

*Edo* juntagailuaren lekuari buruz esan dezakegu hiru kokaleku ezberdin izan ditzakeela:

### Bi atalen erdian:

- *da elejidu euen Sorrontza, Bilbo edo Galdakaora*
- *Ixin esik fiestak leku betean edo bestean...*
- *Da euskal filolojia ein dosu suk edo iten saos?*
- *lau ogi asterako da gero beste txiki bet edo bi, da olantxe*
- *Esatebaterako, su eskondute saos da ume bat edo bi badekosus...*
- *Segun denporea ohea edo txarraoa edo ser dan*

<sup>101</sup> Ondoko herri batzuetan, Zeberion, Zeanurin eta Basaurin jaso den 'ez eze' esamoldea ez da ezaguna Igorren. Etxebarria (1991: 234)

“yan esese, edan be sie edango leuke”

“edan esese, yan be estau eiten”

Agirregoikoa

“narajak esese, txuletape erosiadas”

“beyek esese, ardiepe baukes orrek”

Arretxe (1994: 192)

“Negar esese barrein be itten du guk”

“Lo esese yan be itten dau umiek”

- *jamoyak edo pernilek esaten dako*
- *baya gero uden edo udebarrien edo olan botaten dus kanpara*
- *Sorrontzakoa edo Durungukoa estait nongoa ixin sen*
- *len beyekas eiten sirean edo idiekas, baya oin iñolango beirik eta idirik estao*
- *sure edadekoa edo su baño gasteao*
- *ori eurrerao bota edo atzerao ekarri*

#### Atal bakoitzaren aurretik, errepikaturik:

- *Edo usteldu edo esteure balio*
- *iñor be estao or. Iñor bes, danak edo eskolak emoten edo institutoan edo an edo or edo emen, iñor es kolokeu barik*
- *edo amagas edo aitegas eoten dire*
- *Orduen yoan bear ixin gindun edo granja edo olango lekuen batera*
- *Iditen. Edo eroaten edo ekarten, segun ser gure gindun*

#### Atal bakarraren ondotik bigarren atalik ez dagoela “Gutxi gorabehera” adierarekin:

- *Oin iru urte edo; lau edo yoan sirean*
- *Larogei edo*
- *orrek itxi beadire sikiten aste bi edo*
- *Beyek? Baserri geyenetan bi iru edo esnea saltzeako*
- *Murriñoak eon sirean amairu edo*
- *geubeko ordu bata arte edo eon ginean an*
- *Etzun eiten eurien mai ganean anketati artzean otzien, lau artean edo, gantxo sartu samati olan*

*Edota moduko juntagailu hautakaririk ez dago hizkera honetan.*

#### b) *Ala* juntagailua

*Ala* juntagailuak ere maila guztietako atalak elkartzen ditu. Galde-perpauzetan zein zehargalderetan erabiltzen da, eta bi leku ezberdinetan ager daiteke:

#### Bi atalen erdian

Bi atalen erdian ‘orobatasuna’ adierazten du; hau da, hiztunari berdin zaiola juntagaien artean aukeratuko dena.

- *Egie ala gusurre?*
- *Da nora pertenesiten dok Igorrera ala Dimera?*
- *Da bisimoduegaitik diñosu ala segaitik?*
- *estotxakin, Arbe ala Orbe*
- *txarto ala ondo baya gurea da*
- *estakit Urkiri ala Urkidi dan*
- *Asike estakit dan d-agas ala r-agas*
- *egur iketza eiteko ala karea iteko?*

Galde-perpausetan, galde-perpausaren ondotik

Galde-perpausaren ondotik ez du orobatasuna adierazten, zalantza baino.

- *Amatxu etorri sen eskonbarri, ala?*
- *Ona egundo esara etorri, ala?*
- *Lau dire, ala?*
- *I, estakine, ala?*
- *Estosu onangorik ikusi emen, ala?*
- *Bai, orixe dok, mosolloa, besterik etxaok. Geutxoririk bayaok, ala?*

c) *Nai* eta *sein* juntagailuak

*Nai* eta *sein* juntagailuek elkartzen dituzten osagaiak perpausa baino kategoria txikiagokoak dira.

Esanguraren aldetik juntagailu bi hauek *ala*-k bezala orobatasuna adierazten dute.

*Nai* eta *sein* juntagailuak modu bitan ager daitezke:

Bi atalen erdian

- *Ke ba, euskeras sein latin ein guri iñok es oskun sertzean*
- *ori usetan da emen batera sein bestera*
- *artzeagas ori eitesan garbitu, babea sein garie sein edosein gause, danateukie eutz asko*
- *ba, burdie saltak eroateko nai egurrek edo lo ke sea eroateko*
- *Au makinea, beyekas nai idiekas, bai se oneik andiaoak ta txikerraok eoten sirean*
- *gurean beti eroaten deu alderdi beten nai bestean*
- *beti yoaten gintzesan; eurie ixin nai aterri eon*
- *Eurie ein nai eguskie ein gu bagoaxak*

Atal bakoitzaren aurrean

*Nai... nai...* juntagailuak:

- *nai leye ixin nai eurie ixi nai aterri ixin goxeko bosterditarako ya kortan*
- *Yoango gara nai euriein nai txirgorea ein*
- *gorrie nai baltza nai sera dao*

*Sein* juntagailua ez da atal bakoitzaren aurrean agertzen, baina biak, *nai* eta *sein*, era nahasian erabiliz bai:

- *Bai, sein leye ixin nai edurre ixin*
- *nai arra sein emea ixin txala geitzean yako*

**5.1.3.1.3. Aurkaritzako juntagailuak**

Aurkaritzako juntadura gauzatzeko modu bi daude: alborakuntza eta juntagailuen bidez.

**-Alborakuntza hutsa**

- *ori yakin dot, bestea es*
- *orrek asko dire, gu es, gitxi gara*

**-Juntagailuen bidez**

Juntagailuen gainean esan dezakegu mota bikoak izan daitezkeela:

- Elkartzen diren bi juntagaiak, bat ezeztatuz eta bestea baieztatuz
- Elkartzen diren bi juntagaiak ezeztatu edota baieztatu barik iradokiz, hau da, bigarren juntagaiak lehenaren kontrakoa iradokiz.

Hurrengoak hauek dira aurkaritzako juntagailuak:

**a) *Baya***

*Baya* juntagailuak kontajarriak diren bi juntagaiak elkartzen ditu iradokiz. Bigarren juntagaiak iradokitzen du lehenaren kontrakoa.

Formaren aldetik esan dezakegu *baya* dela hizkera honetan erabiltzen den forma bakarria nahiz eta inoiz *baye* aldaera ere inoiz entzun daitekeen.

Juntagailu honek predikatua daramaten juntagailuak bakarrik elkar ditzake eta bere kokalekua juntagaien artean dago.

Adibideak:

- *Ai beitu , aite(k)tx(y)akin dot, baya estot yakin amatxuk ekonik*
- *Apurke-apurke eurrera noa baya gorputze ilde*
- *Gaubean onek kortara sartzean yosat baya bildotzak eiten yasak eta gau gustien yagon in bear yosat*
- *nik itano gitxi iten dot. Badakit eiten baya estot eiten*
- *ba, bisi enas emen baye nire bisimodue emen iten dot*
- *Nik emen sartzean doas orduak baye gusture, sano gusture da posik*

**b) *Baño***

*Baño* juntagailuak kontrajarriak diren bi juntagaien arteko kontrastea adierazten du lehenengoa ezeztatuz eta bigarrena baieztatuz. Batzuetan, juntagai bat eliptikoa izan daiteke.

*Baño*-k elkartzen dituen juntagaiak kontrastagarriak izan behar dira, eta lehen juntagaia ezezkoa izan behar du. Bere kokalekua bigarren juntagaiaren ondoan dago.

Adibideak:

- *Gu, emekoak, eskaras ibili iru nebarraba baño*
- *mutilentzako es san ixin tristea, se akordau baño es euen ein arintxuao*
- *Lenao eiten san asko, ogie baño taloa eiten san asko, taloa*
- *es neure etzean, suegroan etzean baño*
- *batzuk yo baño es euren eiten, yo ganadue, es?*

**c) *Barik***



*Barik* juntagailuak kontrajarriak diren bi juntagaien arteko kontrastea adierazten du lehenengoa ezeztatuz eta bigarrena baieztatuz.

*Barik*-ek elkartzen dituen juntagaiak kontrastagarriak izan behar dira eta bere kokalekua lehenengo juntagaiaren ondoan dago.

Adibideak:

- *da kanbieu ein gure seuen beti leku beten eon barik*
- *kokoteti kentzean dotze, buruti barik atzeti kentzean dotze*
- *klaro, ak gure ixin euen Tolosa barik Igorre*
- *Tarabusi pasaten dosu, ori ermitea, ta an sartu barik urrungo..., onantza satesela urrungo bajadea*
- *da emen, sera, lisu barik, ba, sera trokea, buelta gustien trokea*
- *Gesalati onantza, baya kamiño sarreti, barriti barik, kamiño jeneraleti barik beste kamiñoti etorrite*

#### d) *Bearrean*

*Bearrean* juntagailuak kontrajarriak diren bi juntagaien arteko kontrastea adierazten du lehenengoa ezeztatuz eta bigarrena baieztatuz.

*Bearrean*-ek elkartzen dituen juntagaiak kontrastagarriak izan behar dira. Bere kokalekua lehenengo juntagaiaren ondoan dago.

Juntagailu hau galdetegi bidez baino ez dut jaso; corpuseko hizketa librean ez da inoiz ageri:

- *Autobusean yoan bearrean trenean yoan gintzoasan*

### 5.1.3.2. Menderakuntza

Menderakuntza perpaus bat (mendekoa) beste baten barnean (nagusia) osagai gisa txertatzen duen elkarketa mota da. Menderakuntzan hamar perpaus mota bereiziko eta aztertuko ditugu: perpaus osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak, helburuzkoak, kausazkoak, baldintzazkoak, denborazkoak, kontzesiozkoak eta moduzkoak.

#### 5.1.3.2.1. Perpaus osagarriak

Perpaus osagarriek, konpletiboak ere deitu izan direnek, perpaus multzo garrantzitsu eta zabal bat osatzen dute. Mendeko perpausa perpaus nagusiko elementu batekin konplementazio-erlazioan dago.

Perpaus osagarrietan hiru osagai daude: perpaus osagarria, menderagailua eta elementu gobernatzailea.

Perpaus osagarriak modu askotan sailka badaitezke ere guk aditzaren arabera sailkatuko ditugu; hau da, +subjuntiboak eta –subjuntiboak bereiziko ditugu.

Perpaus osagarri motak:

#### a) Perpaus osagarri [-subjuntiboak] + menderagailua

- [-subjuntiboa] + -(e)la<sup>102</sup>  
-(e)la menderagailua daukaten perpauk osagarriak aditz nagusiaren aurrean zein atzean kokatzen dira eta ezin dira edozein predikaturekin erabili, perpauk hauek hurrengo predikatu hauek bakarrik onartzen dituzte:

#### Komunikaziozko aditzekin

- *esa(n) euen larogetabost urte dekosala ta bakarrik bisi dala ta esteula iñor be etzean*
- *preguntau osten ganaduas, kortan dekodasala ta kanpoan estekodasala*
- *nik sarri esan dotziet etzean be bearra dekonak loteria dekola*
- *or esaten estait seinbet milloi parau daosela da orrepe bear in bear deurie*
- *yoan gintzesan ara ta an estaoela esa(n) oskun*
- *nik estiñot txarto dagoela*

#### Iritzizko aditzekin

- *ta txarraoa padaosela pentzeta, posik*
- *Ori dao probinzia de Madrid, uste dot dala*
- *bigarren domekea pentzetan dot dala*
- *Ori de, pentzetan dot ori... rutinea daoela*
- *orti doa pentzetan dot nik, urdindu, errebañau in dela*

#### Balizkoekin

- *Bearra, fijo, estaoela dirudi*
- *asko daosela dirudi*

#### Ezagerazkoekin

- *kasi pentzetako moduen derrigor ikusi bidotela*
- *Beste batzuk badakit, Patxin moduen, iru bider emoten dotzela*
- *gero konturatu nes, ba, bueno orrela sala*
- *Yakin neuen llobea sala baya nor es*
- *suk ondo dakisu nik otoitz eitea dekotzietela erakutzite llobari*
- *akordetan nas baten ikusi neuela*

- [-subjuntiboa] + -(e)nik  
-(e)nik menderagailua erabiltzen da predikatuak ezezkoak direnean edo sakonean ezezko esanahia duten galdera erretorikoetan.

#### Perpauk nagusia ezezkoa denean

- *Ai beitu, aite txakin dot, baya estot yakin amatxuk ekonik*
- *esta nik saltzerako dekotenik*

<sup>102</sup> Ez nago ziur sakoneko egituran -(e)la ala -(a)la dagoen. Azaleko egitura biak daude: *dodala, dodasala...* eta baita: *nazela, garela, dosuela, goasela, sariela...*

- *Onik bentanak Seanin estot pentzetan geitzean dotzienik*
- *Su konturetu es gu emeti bisi garanik*

### Perpau nagusia galderazko denean

- *Nok esan deu maisue estanik?*

- [-subjuntiboa] + -(e)na<sup>103</sup>

Gamindek (1986) -ena konpletiboaren erabilera zein den azaldu zuen. Abiapuntutzat Altube, Azkue eta Arejita gramatikarien lanak hartu zituen ahoz zein idatziz jasotako datuekin alderatzeko eta erabilera zein den zehazteko. Horrela, Gamindek esaten du -ena konpletiboaren erabilerak bi baldintza bete behar dituela:

- 1) “-ena”dun perpaua galdegaia ez izatea
- 2) Ziurtasuna adieraztea edo esaldi errepikatua izatea

Igorreko hizkeran, oro har arau hauek betetzen badira ere, adibideek argi erakusten dute era nahasian erabiltzen dela -(e)na menderagailua. Hona hemen adibide adierazgarri bat:

- *Yakin neuen llobea sala, baya nor es, llobea sana bai*

Bestelako adibideak:

- *Seinbet denbora da ttoa il dana?*
- *Amatxu seinbet urte da eskondu dana?*
- *Esan gure dot iru familia deurena*
- *Urte asko da ya elektrokuteu sana*
- *Señal ondo bisi nasena*
- *Kolokeu seragas eitesan kateagas. Kateagas, estosu ikusten kateagas kolokeute dekona?*
- *estait senbet urte etorri garana ona*
- *Jente barrie etorri dana gure barriora oso ona da*

Gainera, ‘eskerrak +(e)na’ moduko esapideetan ere erabiltzen da.

- *Eskerrak etorri giñeana San Juanera*

- [-subjuntiboa] + -(e)n

-(e)n menderagailua hurrengo kasuetan erabiltzen da:

### Zehar-galderak

Zehar-galderak azpian galde-perpaua duten perpau osagarriak dira. Galderak modu bitan egin daitezke: zuzenean edo zeharka. Galdera zuzenean hiztunak bere solaskideari zuzenean egiten dio galdera informazio baten bila. Zeharkakoetan berriz, bada galdera bat baina beste perpau baten mendean.

<sup>103</sup> Hemen ere, ez nago ziur sakoneko egituran -(e)na ala -(a)na dagoen; azaleko egituran biak agertzen dira-eta.

- ardi-errebañuek ser emon bear deuen, etxoat bear es kalkuladorarik es eser
- Badakipe etzea non daoen
- da aik estait ser esaten yakon be
- preguntau geuntzen ser topau biun
- Ba, begitusu ser dan
- Edo eroaten edo ekarten, segun ser gure dosun
- Uskerra bakisu ser dan?
- eskindun yakin non gaosen bes
- Ia, ba, allegaten dan seosertarako
- Estakit alderdie non dekon
- Estait se ixen dekon orrek
- Ejeari selan? selan esaten yakon ejeari
- estakit nik selan ibiliko diren
- Ekarri diela farola ixetute gutxakiteko nortzuk direan

### Selan... -(e)n

Selan galde hitzarekin eratutako perpaus osagarriak ez dira zehargalderazkoak adierazpenezkoak baino.

- aber konejuek selan yagoten dosun [sic]
- baya emea es, seloan daonean, estakit selan esaten dan euskeras, ixin dosu il
- Erakutzi, ba, selan garbiten diren esteak
- eleisara enas yoan begire selan dekoten
- emen ikusten dostesu selan nabilen kinpulle gorrieri alimentetan
- segun arek selan artzen deurien

### Ba- aurrizkia zehar-galderetan

Mendebaldeko bizkaieraz ohikoa denez, bai / ez erako zehargalderetan -(e)n barik ba-aurrizkia da menderagailua.

Bizkaieraren barruko zenbait hizkeratan -(e)n eta ba- era nahasian agertzen badira ere, estaitt etorri **badan** (Bermeoko adibidea), Igorren ba- da aukera bakarra, -(e)n barik:

- Bai emen estait Fidelak eiten badau<sup>104</sup>
- Estakit etorri bada
- onek yoan sirean, ba, polbora batzuk edo seoser topetan badeurie
- Lemoan estait eiten basan
- aber akordetan bagara
- etxakiat andik badator apellidue
- estakit bota badeurie
- Oin estait badao
- Aber ixena padakis
- Urteille etxakiat enero espok
- amalau urtegas, etorten san ebaketa ta: i! amak... e sera aspigarrien yoan banenkite
- Aber nire aiteri akordetan bayako

<sup>104</sup> Ez da usuegi dau aditz forma hau entzuten (dau barik deu da aurkitzen duguna Igorreko euskaran).

-(e)lakoan

- *Maisue dalakoan nao*

-(e)netz

Aukera-galderetan zenbait hizkeratan erabiltzen den -(e)netz, edo antzeko aldaerak, gaur egun Igorren ez dira erabiltzen. Badakigu mendebaldeko zenbait hizkeretan erabiltzen dela, *Geixorik dabil estakitt ibiliko dan. Ser? Estakittela ibiliko danentz* (Bermeoko adibidea<sup>105</sup>).

## b) Perpaus osagarri [+subjuntiboak] + menderagailua

Subjuntiboko perpaus osagarriak nahia, eskaria edo agindua adierazten duten predikatuak behar dituzte.

Hauetan aditz nagusiak eta subjuntibokoak ezin dute subjektu bera izan.

Agindua edo nahia adierazten dutenean lehenengo pertsonak -(e)n eramango du eta besteek -(e)la.

- *yan daigun*

- *yoan ditela*

- [+subjuntiboa] + -(e)n

- *Pernilek edo orrek gatzao artun, eukin diesen egunek an gatzartute*

- *beste batzuk iru ilebete okolea(k) koyu din[sic] apur bet etzeko baserriko estait beste...*

- *botika suri bet eoten san preparaute, andik asurretik urten estien... ondo kureu diton asurre*

- *Bildur nes ni edurre in dien*

Batzuetan, subjuntiboa ordezkatzeko duten adizkiekin ere agertzen dira:

- *trapu garbi bet edo bi ure yausten yakona txupau yakon*

- [+subjuntiboa] + -(e)la

- *Neu baño obetxuaio ixin ditesela umeak*

- *eneuen eskatu besterik, sikan bere urtegune eldu ditela*

- *Landareape gure deu sutu ditela*

- *inportante andie deko soloa ibilten puntuen, lurre, lurre ibili ditela*

- *punte bat berantza da kodeñea ipinten da aren ganean burrin bet ixin ditela*

- *normalmente burriñea ixin ditela, ba, gogorra, estitela, ba, tenple txarrekoa, tenple gogorrekoa ixin dela puntea dao*

- *Baye normalmente itxoten da, ba, euri bet ein diela*

- *Ekarri diela farola ixetute gutxakiteko nortzuk direan*

- *Trapue ixin ditela beroa*

<sup>105</sup> Nik batutako adibidea da.

### 5.1.3.2.2. Perpaus erlatiboak

Perpaus erlatiboak funtzio adjektibala duten perpaus menderatuak dira, perpaus nagusiko aditzaren menpe egon barik izen-sintagma baten menpe daudelako.

Hiru motako perpaus erlatiboak dauzkagu: perpaus erlatibo arruntak, korrelazioz moldaturiko perpaus erlatiboak eta aurrekaririk gabeko galde-izenordaina duten erlatiboak.

#### a) Perpaus erlatibo arruntak

Perpaus erlatibo arruntak jokatuak eta jokatugabeak izan daitezke.

- Jokatuak

Mota bi dauzkagu: izenlagunekin egitura lotuan eta izen sintagmekin egitura banatuan (aposizioan).

#### Izenlagunekin egitura lotuan

Hauetan *-(e)n* menderagailua + izen deklinatua agertzen zaigu.

- *yayoten dan lekuen eingo ditus erremedioak*
- *euskerea beti eiten san lekuen be Billaron erderea an sartute*
- *Seanin bisi den ixikoa*
- *lelongo orregas ta gero ikusi dun bestea*
- *eskegi balkoyan eguskiek yoten deuen lekuen*
- *norberak gure deuen klasea*
- *onek ebagi ta au doa onek ebagiten deuen lekutik artesean ta orrek eiten deu atzetik doan palea bueltea emon*
- *koiten dosu da eroaten dosu sukure dosun lekure; atzerao, aurrerao*
- *Sapoak or umedadea daoan lekuen eoten dire*

#### Izen sintagmekin egitura banatuan (aposizioan)

- *Sagarra bera badao urdine deuen ixena*
  - *Ori makinea len esan dune*
  - *a txala sartu yakune an*
  - *ortxe da garajea oin ein dune*
  - *kapitana ango konpañikoa lagune san*
  - *Esan geao, seoser etorten yatzune burure*
  - *Onek esan gure deu ori egurre doana alde batetik bestera selan dekon...*
  - *burruñean muellea dekonak eiten dotze ra! bueltea*
  - *surtidora pasau da sentro Iorrekoa pasau da aratxuao*
  - *An burdien eroatesan satza, idea ekarri... edosein gause, edosein gause beadana*
- Jokatugabeak
- ko* da erabiltzen den atzizki bakarra.

-ko

- ko atzizkia erabiltzen da ekintza burutauak adierazteko.
- *Bai emen, oin, barriek, etorriko jentea olan estu sertzean*
- *komuñiotik gero eiñikoa dao bat*
- *Arto igerras eiñeko taloa esaten gindun*
- *eskutea dok gariegas eiñeko sera gariegas eiñeko sera moltzo bat*
- *Murriñoa da asto emeak eiñekoa, muloa.*
- *Ori de urune arturunes eiñekoa*

## b) Korrelazioz moldaturiko perpaus erlatiboak

Egitura honetan perpaus erlatiboa eta nagusia korrelazioan daude. Perpaus erlatiboa korrelatiboa, horrela deitzen diogu mendeko perpausari, egituraren ezker aldean dago.

Lehenago forma konposatuak erabiltzen baziren be, *Zelan bainabil janzirik, alan otza daukat nik*, Añibarro (1802: 478), gaur egun forma jokatu gabekoak eta eliptikoak baino ez dira erabiltzen.

- *ser ikusi a ikisi*
- *ser batu a yan*

## c) Aurrekaririk gabeko galde-izenordaina duten erlatiboak

[Galde-izena + aditz subjuntiboa] gisako perpaus erlatiboa inoiz literatura zaharrean ageri bada, gaur egun adizki jokatu gaberekin eraten dira.

- *estait ser ein*
- *estekot nok ein*
- *estekot nok eroan*

**5.1.3.2.3. Konparazio-perpausak**

Hizkuntza guztietan zenbait kontzeptu, zenbait kualitate mailakatu, neur daitezke eta halaber, konparatu. Horretarako konparazio-perpausak erabiltzen dira.

Konparazio-perpausak izen-sintagmaren, adjektibo-sintagmaren nahiz adberbio-sintagmaren osagaiak dira, hau da, sintagma hauen barnean txertaturik agertuko zaizkigu konparazio-perpausak. Konparazio-perpausak konparazioa bideratzen dute. Konparazio batean berdintasuna edo ezberdintasuna har dezakegu kontuan. Eta berdintasuneko edo ezberdintasuneko konparazio hau mailaren, zenbatusunaren edo moduaren gainekoa izan daiteke. Euskal dialektologiari dagokionez, Gamindek (1992c) aztertu ditu bizkaieraz erabiltzen diren konparazio perpaus motak, moduzkoak zein kantitatezkoak eta bakoitza zein bariatatetan jaso daitekeen.

Perpaus hauetan eredu nagusi bi dauzkagu: eredu arrunta eta eredu erromanikoa.

## a) Eredu arrunta

Konparazio-eredu arruntean berdintasuna edo ezberdintasuna hartzen dugu kontuan eta bestetik maila, zenbatasuna eta modua.

Funtsezko egitura hau izango litzateke:

{ perpausa + konparazio-morfema } + { adjektiboa / izen-sintagma / adizlaguna }

KONPARAZIOA					
berdintasuna			ezberdintasuna		
maila	zenbatasuna	modua	maila	zenbatasuna	modua
<i>besteko</i> <i>-lango / -lako</i> <i>les</i> <i>antzeko</i> <i>moduko</i>	<i>beste</i>	<i>les</i> <i>antzera/ antzean</i> <i>modure / moduen</i> <i>erara / eran</i>	<i>baño... ao(a)</i>	<i>baño... geyao</i> <i>baño... gitxiao</i>	<i>moduen</i>

- Berdintasuna

### Maila

- *Besteko*  
- *Ni su besteko altue nas*
- *-lango / -lako*  
[ izena + -LANGO / -LAKO ]  
- *gixonak igual astolakoak, kiloak, kiloatxateko moduen, otzolako gixonak*  
- *mutil bet sulango altue*  
- *mutil beta sulangoa*
- *Les*  
[ izena + -ren + LES ]  
- *Da olan parau sen lelo bate les, bera*  
- *Len persona bateles, animaliek serserea deko*  
  
[ izena + LES ]  
- *aren sain ñauk enfermera les*
- *Antzeko*  
[ izena + -ren + ANTZEKO ]  
- *nire antzeko aldeanue egundo ibili barik iñondik 'de frac' yoan san*  
- *pamitxea da, ba, taloan antzekoa*  
- *A ser da Marilurdesen edadean antzekoa?*  
- *erruedak orren antzekoak eukiteusen*  
  
[ izena + ANTZEKO ]  
- *Onangotxue, surie ixiten da, gris, asule antzekoa; erreka txorie*
- *Moduko*



[ aditza + -en + MODUKO ]

- *Kodeñea, ta bestea agarratako a palue bai, ortxe daoen modukoa olangoxea*

[ izena + -ren + MODU(KO) ]

- *Sure moduek asite?*

- *onen modukoak etxosak sarri euki*

- *Ordun nire moduko asko*

- *Aspirea da artesa esaten dotziena, da kaxa baten modukoa*

- *onangoxen modukoa, ixin onexen modukoa, onexen modukoa ixiten san*

- *Pamitxea olan baño meaoa, ogien modukoa*

- *Eta beyek garbitako axe olango orrasien modukoa selan da?*

- *Sapoan modukoak, txubelasoak*

- *olan kaja baten modukoa, se isen eukiteuen ak?*

- *makatza da madarien modukoa*

[ izena + MODUKO ]

- *satatxurre onan, onan iru mangu, olango iru urkulu, olango are ortzak modukoakas*

- *an ipiñi deurie olango lenaoko baserrie moduko bat ta olango gausetaos*

### Zenbatasuna

#### ➤ *Beste*

[ aditza + -en + BESTE ]

- *seukure sun piperrak, seukure sun beste*

- *Neukure doten beste*

[ izena + erg. + BESTE ]

- *orrepeste urte nipe badekot*

[ inesiboa + BESTE ]

- *Ak Gerniken beste urteak[sic] yaroak emen*

### Modua

#### ➤ *Les*

[ izena + -ren + LES ]

- *Trongo bateles, ser eiten dosu or?*

- *oin kotxeakas da estao lengo moduen les ibiltan serean*

- *ser eiten dosu or tauki bateles?*

- *Layek bai, onek layetires, ori onan sartzean dosu mokile makinean les*

[ izena + LES ]

- *kafea les einde*

- *norbera les, personea les entenietan deurie*

[ aditza + -na + LES ]

- *Ein dot suk esan deustusune les*

➤ *Antzera / Antzean*

[ aditza + -en + ANTZERA / ANTZEAN ]

- *ein dot suk ein dosun antzera*

[ izena + -ren + ANTZERA / ANTZEAN ]

- *atzean, garajea, tallertxun bet mekanikon antzera*- *Sure antzera ein dot*- *sure antzera eingo neuke*- *orixe gogoia dekot, ori eiteko sure antzera*- *Arbolatire? Arbolatire. ARBUSTUEK. Arbustuek, orren antzean*- *da olan nire antzean ibili sen txikiterik, umetarik*- *Ire antzera ein yoat*

[ izena + -ko + ANTZERA / ANTZEAN ]

- *Gerniken es, emeko antzean eiten dok Gerniken be*➤ *Modure / Moduen*

[ aditza + -en + MODUEN / MODURE ]

- *Au be badok! ni selan geldituko nas emen ankea dekoten moduen geu gustie?*- *Da esaten dan moduen gixona in beada*- *ba, flana edo arroz kon letxe eiten dosun moduen*- *ikusten doken moduen piperrak erretan*- *Eureri esan berbas, norberak personari eiten dotzen moduen*- *Onetekosan moduen baya diferenteak*- *burruñesko onetara apoyeu diton da gero ba.... onek au dekon moduen*- *Emetik ona olan sartzean dotzen moduen, bakarrik bueltea emon*- *Bai palu bategas, urkulue dan moduen*

[ izena + -ren + MODUEN / MODURE ]

- *Ba, por el estilo eiten da berba, es? Pastoreak euki dus emen Dimostarrak da or Artaungoak, etabar, etabar, gure moduen*- *Beste batzuk badaki(t) Patxin moduen iru bider emoten dotzela*- *gastea esta kuidetan gure moduen*- *Eskolan eingo deurie liburu eta euskera batua erabiles baya ostantzean es etzean geure modure*- *Es? Ba, ogien moduen, igual, igual*- *Seure modure ein dot neupe*- *onek aginetire, onek engranean moduen ori eurrerao bota edo atzerao ekarri-*- *makinea girigillean moduen*- *Txorisoan moduen, masea einde odolas*- *Argiñanon moduen ieuen*

[ izena + -ko + MODUEN / MODURE ]

- *Lenao oingo moduen*- *Orduen es san eon oingo moduen txuletea ta a ta ori ta bestea*- *Balladolisen estakit e an erri beten eon nintzen lekuen, ba, txarriek emekotzeko moduen aldeanuek eiten deurie*

- *suk orduko denporatan oingo moduen baloya euki bear sendun aite*
- *gero ona bota ta garbitu eiten oskusen onek errotarako moduen*
- *urtean askenengo egunean lelango moduen eoten dok, bardin*

➤ *Erara*

[ aditza + -en + ERARA ]

- *Suk ein dosun erara*
- *Sure erara ein dot*
- *bai, ein dot suk ein dosun erara*

[ izena + -ren + ERARA ]

- *Ire erara errasetan yoat*

Hiztun askok ez dute ezagutzen forma hau eta adibide hauek guztiak galdetegi bidez atera ditut. Hiztun bakar batek forma hau ezagutzen duen arren, beste esanahi bat ematen dio, eta *'sure erara ein dot'* esaldiak gaztelaniaz *'lo he hecho a tu lado'* edo *'lo he hecho a la par tuya'* esan nahi duela adierazi zuen. Hiztegietan ez dut topatu honen moduko esanahirik baina Urdulizerako antzeko adibide hauek dakartza Gilisastik (2003: 310).

- *Era erako dot ointxe. Ahora sí que me viene a mano.*
- *Erara dekoten gañ ariñ diñotzeas pare bat egi. En cuanto le pille le voy a cantar las cuarenta.*
- *Erara paraten datzunen oratu. Cuando lo tengas al alcance le echas mano.*

- Ezberdintasuna

### Maila

➤ [ (aditza + -en) + BAÑO + adjektiboa + -AO(A) ]

- *osabea, aiten bikotxa askos bajuagoa, eskasoa san*
- *Arek ni baño urte bi sarraoak*
- *Juan su baño altuagoa da*
- *aite baño altuao ixingo san aitite*
- *Mikelegas ixin sen bere lagun andie, niges baño andiagoa*
- *nirea baño andiagoa ixin sen antza*
- *finagoak pentzetan dot politegoak topaten dodas emekoa baño, torpena auxa*
- *Au baño politaao ixin sen gurea, guk euki gindune*
- *Piperrak onik baño txikerraoak*
- *Au lenaoko kontue da, bai, baya au baño beste bat egoan sarraoa*
- *espatea txarraoa da mandeulie baño*
- *Beyek adarrapai, badekie adarrapai, baya idiepadekie andiaoa beyepaño*

➤ [ (aditza + -en) + BAÑO + adberbioa + -AO(A) ]

- *or San Juan ermitea baño goratxuaoa*
- *lababoa dao ortxe baño beratxuaoa Igorre bestea dana Lemoa*
- *Ubitxan, San Juan baño onatxuaoa*
- *Ni baño lenaokoa ixingo da*
- *Onen amak kasi esekien erderas, euskeras iñopañobeto*

### Zenbatasuna

- [ (aditza + -en) + BAÑO + izena + GEYAO / GITXIAO ]
  - *Igorren bertakoapaño ya kanpostar geyao daos*
  - *Pastoreak kapitalekoapaño edukasiño geyao yuk*
  - *amatxu be yoan da geyao suipaño*
  - *Orrek anaya bapaño geyao dire*
  - *Es eiten deu nipaño euskera gitxiao*
  - *goyen oin dosu emen baño etze geitxuao*
  - *Onango gausetan aitek geyao daki nipaño*
  - *Gure gixonak olango gausek geyao daki andrapaño*

### Modua

- *Modure /Moduen*
  - [ -ko + MODUEN ]
    - *oin kotxeakas da estao lengo moduen les ibilten serean*
    - *ademas esneak leneko moduen presiorik esteu eukingo*
  - [ inesiboa + MODURE ]
    - *emen estao olan espesialik beste leku batzuetan modure*

### b) Eredua erromanikoa

Perpau konparatiboak eredu erromanikoari jarraituz osa daitezke, hau da, jatorriz galde hitzak diren elementuez baliatuz.

Perpau hauek maila, zenbatasuna nahiz modua konparatzeko balio dute.

Egiturari dagokionez, kuantifikatzailea esaldi nagusian ezartzen da, eta mendeko perpausean berriz, konparazioaren eredu.

- *Segun, senbet geyao obeto*
- *seinbet eta artasi andiao eskuen, eskuen inderra eukin eskero, obeao fasilao ebaiten yakek*
- *goiko puntara es ik igon, se seinbet eta gorao igoten dok ostiandiago artuko dok eta*

#### **5.1.3.2.4. Ondorio-perpauak**

Ondorio-perpauak, edo perpau kontsekutiboak, kausa baten ondorioa ematen dute aditzera.

Euskaraz ondorio-perpauak menderatuak eta alboratuak izan daitezke, baina hizkera honetan alboratuak baino ez dira erabiltzen.

Alborakuntzan ondorio gisa interpretatzen den adizkiak ez du inongo menderakuntza markarik eramango.

Ondorio-perpau alboratuak euskaraz lokailudunak eta lokailugabeak izan daitezke baina hizkera honetan lokailugabeak baino ez dira erabiltzen, beste zenbait hizkeretan erabiltzen diren *non* eta *ezen* lokailuak hemen ez dira erabiltzen.

- *Añ andie da, atetik esin lei sartu*

- *Eske ain sarie asko Bidebietati, asko sarie an Bidebietati, gu es, gu bi iru baño eskaries*
- *Ain gaos asko eskara sartu be iten*
- *Ainbeste gara se esin gara kabidu be*

### 5.1.3.2.5. Helburuzko perpausak

Helburuzko perpausak, izenak berak adierazten duen legez, helburu, asmo edota xedea adierazten dute.

Autore batzuek, hala nola Villasantek (1976b), perpaus hauek pertsonaletan eta inpersonaletan banatzen dituzte. Beste batzuek, Arejitak (1978) bezala, ordea, jokatuak eta ez jokatuak bereizten dituzte. Guk ere, bigarren sailkapen hau erabiliko dugu: jokatuak eta jokatuabeak.

#### a) Jokatuak

Subjuntiboa da aukera bakarra, eta gutxi erabilia, helburuzko perpaus jokatuak eratzeko:

- *da gero ipini bear ixiten sindun trapu betegas tapaute berotu ditela*
- *da antxe otzaran ipinten san, aspitik trapu betegas da ganetik atzera trapue ta manteagas otzitu estitesan*
- *Lelengo nik eiten dotzet bolak ein estitesan, grumoak esaten yakona, barillea olango sera betegas erein*
- *beste batzuk iru ilebete okolea(k) koyu din apur bet etzeko baserriko estait beste...*
- *O! lotu ditin, ta Tira! yoan ditin*

#### b) Jokatuabeak

- *-ten*

Mendebaldean ohikoa denez, helburua adierazteko *-tera* barik *-ten* da erabiltzen den egitura. Egitura honek *zertan?* galderari erantzuten dio.

- *Txarribodea, ba, lenao eutziten yoaten gintzesan*
- *onek etorten sirean egun gustietan ona bedarra ebagiten, beyeri emoten da eiten geusek*
- *Eurek etorten yatasanean baskaiten etorten yatas*
- *ogetamasei egunean edo olan eoten san gatzartuten*
- *Jente asko yoaten da baskaiten*
- *Yoan gintzesan ikusten abade bat*
- *Baya yoan gintzesan ikusten Seberrioko mutillek*

- *-teko / -tako*

Egitura honek *zertarako?* galderari erantzuten dio. Hizkera honetan *-teko* eta *-tako* aldaerak dauzkagu.

- *On sirean leku betzuk ondo ostontako edo ixenak ipiñite*
- *Feriera, feriera eta gero ferietik, gaubean, ba, bidera urteten otzien sera koitako*
- *Nik berrogeitamar txofer dekodas. Dosenako prest eroateko neu*
- *Fuerte ibilteko au be fuerte beada gero*
- *Karneta atarateko pentzau beada gero*
- *Guk estu euki oportunitaderik ikisteko euskerea*
- *au ogetamabost berrogei pesetan mostuteko, eskilletako seripes jornalik emon bes*
- *Esteko beste mundukorik ori sorrostako*
- *Puntutxueteko gogortako ta kodeñeape deko berea*
- *Ekin, ekin bear dotzesu, barrue ondo, aspie ondo erretako*
- *gariereiten gendun apur bet ogie koitako etzerako baya gitxi*
- *aspigarrie ekarteko serak ipinten sirean taketak*

- *-tekotan / -teko (intensiñoa)*

Egitura hauek aurreko ataleko *-teko* egituratik datoz. *-teko* izenlagun erabiliz, ondoren *intensiñoa*, *asmoa* edota *gogoa* hitza gehituz edo gehitu barik. Beste aukera bat da *-tan* kasu-marka zuzen-zuzenean ezartzea *-tekotan* eratuz.

- *Ogetamar asteko intensiñoa badekok ta ogei asten bosak atzera be (...) errebañue akabatute dekok*
- *Bai, asmoa euki dot yoateko*
- *Euki dot gogoa yoateko*
- *Egon nintzen yoateko*
- *ointxe ixin nes yoateko*
- *yoateko ixin nes*
- *Ointxe yoatekotan eon nas*

- *-tearren*

Egitura honek maiz kausa edo zergatia adierazten badu, helburua ere adieraz dezake.

- *lagunek ikustearren yoan nintzen*
- *da karniseruas bearrean, ta enbrak aguantau es ixitearren ipiñi ñian errebañu, e ganadue, ta ein yatan damutu*

- *-teagaiti(k)*

Egitura honek maiz kausa edo zergatia adierazten badu, helburua ere adieraz dezake.

- *suges egoteagaiti etorri nes*

#### 5.1.3.2.6. Kausazko perpausak

Kausazko perpausek, izenak berak adierazten duen legez, kausa edo zergatia adierazten dute. Egiturari dagokionez, mendeko perpausa perpaus nagusiaren aurrean zein atzean egon daiteke. Villasantek (1986) sakon aztertu zituen kausa perpausak. Dialektologiaren esparruan aldiz, Gamindek (1992b) Bizkaian erabiltzen diren esaldi kausal motak, koordinatu zein menpekoak, ikertu zituen.

Atal honetan, aurrekoan bezala, jokatuak eta jokatuabeak bereiziko ditugu.

#### a) Jokatuak

Perpaus jokatuak ondoko menderagailuekin eratzen dira: *-(e)lako, eta, -(e)la eta, se (...eta), -nes kero, -(e)na les eta -n moduen*.

- *-lako*

Egitura hau erabiltzen da esaldiaren helburua zergatia adieraztea denean.

- *Eneuelako ixin gure koronelan asistentea*
- *lo iteko lekuri es eurielako eukin ta ori guk sobran euki gindusen*
- *baya ikusi neuen etorri salako*
- *sapaldu dalako, sano gitxiao etorko da. Inder gitxiaoas*
- *Es, es, kotxes ixin lei urten ementxe daoelako korta bat*
- *Patakon sano koxoa, Patakon koxoa dalako ipinite eukien ixena*

- *Eta*

Egitura hau erabiltzen da esaldiaren helburua ondorena adieraztea denean.

- *Oin dana erdere, ixin de ta*
- *eskolara ibili gintzesan debaldekora, San Kristobalera, estun euki dirurik eta*
- *lengotan Dinamitan ein giñun, Galdakon, amaika illabete eskeintzen eon fijo ta*
- *Ni an bisi nintzanean bera or ibili sen da*
- *ori iñok esteu gure ta*
- *Oroskokoa? Bai sarratue da ta*
- *eroan euen estanpa bat topetako, euren kongregasiñoko estanpa, ba, topetako, an Erroman eiten dire leku beten eta*
- *orduen fumigadorea ixitea be raroa san, esan fumigetan gausandirik eta*
- *ona da, adelantue da ta*
- *Santi erdu, konejue deku te*
- *Santi, erdu, gurean afarie deku te*

- *-(e)la eta*

Egitura hau ere erabiltzen da esaldiaren helburua ondorena adieraztea denean.

- *bakarrik bisi dala ta esteula iñor be etzean, ondo arreglaten dala eta*

- *artu gindun taxis bet, da seņakas, da seņek ondo es ala itxi oskun an paraje baten, an dala ta*

- *se (...eta)*

Hau ere erabiltzen da esaldiaren helburua ondorena adieraztea denean.

- *ogie espadao atzera, se esaten yakon lelengo yagie*
- *Lelengo pamitxeak, pamitxea da, ba, taloan antzekoa. Ta lelengo sartzean gindusen orrek, se orrek erakusten eurien labea ondo badao espadao*
- *okolea eiten da pikau eta gero txorisoak eiteko, se estire ondo kuretan emen serak pernilek*
- *nik estiņot txarto dagoela, se neuri be apurtxu bet kontajiau in dostie*
- *Atekosan benak, se odolak benak eukiten ditu ta aik kendu in bear yakos morsillak eta eiteko*
- *Da atxurregas kaskeu, se orrek itxiteuen batzutan bitarte andiekas, kaskeu in bear ixitesan*
- *goiko punta es ik igon, se seinbet eta gorao igoten dok ostiandiago artuko dok eta*
- *esan otzen bueno ekarri abadea se nik il in biot eta*
- *Guk bei bi, bai esne beyek, bai se esnea bear ixitesan da*
- *Au baņo, au ixingo da asko be lenaoko sera, se nik estot egundo ikusi te*
- *artuisu guardasola, se iguel eurie ingo deu te*

- *-nes kero*

Egitura hau ere erabiltzen da esaldiaren helburua ondorena adieraztea denean.

- *Iorrera soaseneskero, erosi ogie*

- *-(e)na les*

Egitura hau normalean modua adierazteko erabiltzen bada ere, zergatia ere adieraz dezake.

- *otza dana les etzera yoango nas*
- *neguen os daoena les sue iten du, bekosue iten du*

- *-n moduen*

Egitura hau ere normalean modua adierazteko erabiltzen bada ere, zergatia ere adieraz dezake.

- *ba, umeak gure deuen moduen, ba, ein bear*



## b) Jokatugabeak

Esaldi jokatugabe guztiek erabiltzen dira esaldiaren helburua zergatia adieraztea denean.

Perpaua jokatugabeak eratzeko molde hauek erabiltzen dira: *-teagaiti(k) / -teagaitiño, -tearren eta -tearrik*

- *-teagaiti(k) / -teagaitiño*

- *Erderas berbaiteagaitik beitu se ein dostien*
- *ni kastigeu neure euskeras berbaiteagaitik*
- *Kastigeu eiten ostien mesan berbaiteagaitiño*
- *Sigortu in yostiek kristala apurteagaitik*
- *kastigeu in dostie kristala apurtuteagaitiño*

- *-tearren*

- *kastigeu dostie euskeras berbaitearren*
- *Kastigeu ein neure berbaitearren*
- *yausi nok abarka-kordelak lotu es itearren*
- *yausi nok abarkak lotu es itearren*
- *Lenao, esasu egie, euskeras eitearren yo iten san len?*
- *Lenao gerra denporan euskeras berbaitearren yo eiten oskuen eskolatan da*

- *-tearrik*

Atzizki hau pertsona batek<sup>106</sup> baino ez du erabili elkarrizketa libre, natural batean. Jeneralean hiltunek ez dute ezagutzen eta ezagutzen duten horiek esaten dute ez dela herriko forma, kanpoko delat, kanpoan entzun dutela.

Arratiari buruz daukagun informazioak ez dakar inon atzizki honen berri baina badakigu forma hau Nerbioi arroan eta Txorierrin erabiltzen dela.

Zeberio

- *sauri emotearrik nau bapebarik* (Etxebarria, 1991: 249),

Ugao:

- *... a esan an eon beye yagotearrik, eh!* (Salazar, 2001: 101),

Basauri:

- *suges egotarrrik kastigau in ddostie* (Arretxe, 1994: 213),

Bilbo:

- *kafie artutearrik estau lorik eiñ* (Gaminde, 1990: 134).

Lezama<sup>107</sup>:

- *ori koyuren orra eskolatarako eta biar itearrik emotzien barriari ure, da barriak ieuen biar gustie, mano de obra esateotzieta* (9 or.)

Zamudio:

- *Begi txindorra iten da eperdie ukustearrik eusoko enbra bateri* (Gaminde, 2000)

- *Afaldu estearrik yoan in die* (Gaminde, 2000)

- *Kafea artutearrik esteu lorik in* (Gaminde, 2000)

- *Arin ibiltearrik yeusi da* (Gaminde, 2000)

- *Egin estearrik etzean lotu die* (Gaminde, 2000)

<sup>106</sup> Hiltun hau Garamendin sortua da eta Garakoin bizi izandakoa.

<sup>107</sup> Labayruk on-line daukan corpusean dago, *Lezamako toponimia (etnotestuiak)* deitzen den dokumentuan. Ez da egilerik aipatzen baina Labayruk argitaratutako *Lezamako toponimia* liburuaren aipamena hau da: Bidart, A., & Etxebarria, A., 2003, *Lezamako toponimia*, Labayru, Bilbo.

Leioa:

- *Esteko seikusirik, e, se arrutzek asala eukitearrik, barrun espadau ondo yanta esteko barrun gorririk* (Gaminde, 2001)

- *Bai on san tenporada bat, a, diru atara eitearrik eiten san ori* (Gaminde, 2001)

Berangon zergatik esateko *seittearrik* forma erabiltzen dute:

- *Gautxori orreri imiñi eutzen, imiñi eutzen usena, bakixu seittearrik?* (Gaminde, 2003b)

Bermeon ere badira antzeko formak:

- *Suk leijotik eskapatearreittik nau berton kastigeta.*

- *Agripinak, premijue irabaztearreittik, edoser ingo lekitzu.*

- *Suk, automotorra ez ibiltziarreittik, edoser emongo lekidot.*

Igorreko adibideak:

- Ink: *Kastigau eiten otzuen erderas berbaiteagatik?* *Es, es oskun... erderas eitearrik?*

*Es.*

- *kastigeu ein dostie euskeras berbaitearrik*

### 5.1.3.2.7. Baldintza-perpausak

Baldintzazko perpausetan perpaus nagusiko ekintza bete dadin, ezinbestekoa da mendeko perpausak ezartzen dituen baldintzak betetzea.

Baldintzazko perpausetan ere, jokatuak eta jokatugabeak bereiziko ditugu.

a) Jokatuak

- *Ba-*

Baldintzazko perpausak egiteko aditz laguntzari *ba-* aurrizkia eransten zaio.

Baldintza irrealak:

- *ak euki baseuen bere karrerea oin beste sera bat ixingo san*

- *Ointxe bost minutu, amar minutu lenao etorriko basenkite ...*

- *señal ondo bisi nasena, txarto bisiko baninkite a bentanea sabalik*

- *Neupe amasortzi urte bayekosat e ardiek pentzau bes*

- *Oin bearra baleuko oso ondo*

- *nik onango au ointxe ikusiko baneunke*

- *arek lenaokoak atzera etorriko balire arek lenaokoak*

- *ezpallegok ure edango geinkek*

- *Nik esan bear bañekek ori...*

Baldintza erreala:

- *ogiek selan daosen ikusi, ondo badaos labea garbitu*

- *Bilbora yoateko atara oskun pase bat, da, klaro, paseak espotzun piketan interbentoreak yoaten gintzesan ille gustien*

- *Orduen irusien badao ta ilten bosu orrek txorisoak eta estires sikitan*

- *Etzean bakarrik banao buruari bueltak emon ta negar*

b) Jokatugabeak

Jokatugabeko baldintza-perpausak eratzeko honako molde hauek daude: *-s kero*, *esik*, *esean* eta *-tekotan*.

- *-s kero*

Baldintzazko perpaus hauek instrumentala mugagabea *-s + gero* batuz eratzen dira.

- *aite falteu eskero, etzean, ama bear eiten andiakoa, ama da bear isen andiakoa, amak eiten deu etzean geyao tapeu*
- *andreak oya koyu eskero, ixin leike ein gause asko*
- *nik esaten dot bisien in beayako ondo yagon, baya il eskero, noseapeñan mesa bat edo al dana iten bosu bien ostantzean esteu balio eser*
- *Ogi beterako aste gustie, edo bi, sikitu eskero, igual gures*
- *etze askotara yoan eskero, danetan diferentzie eoten da*
- *Beyekas ixin eskero, apurtxu bet asaltxue yoan bear, ta ostean sakonao*
- *satza edo olan eroan ixin eskero, kartolak beadire*
- *Ortzakas kontus, sangoa apurtuskero, adios*
- *soloa urrin eukin eskero, etze ondora ekarri bear ixitesan*

- *Esik*

Egitura hau *ez + partitiboa* batuz eratzen da, baina hau bakarrik erabiltzen da ezezko perpausetan.

- *a goye ein bear ixiten san suritu da bea erein ondo, se ondo erein esik ogieri aspieri etxakon ondo eiten*
- *da gero, ba, an iñor es, iñor bisi esik etzea yausi iten da*
- *Ixin esik fiestak leku betean edo bestean, ixiten diesan, uden eoten diresan serak apartekoak, Igorre*
- *guk euki yusek, gurean eon dosak lau urtean be emen eskegite egones, egones. Egon esik esin eskegi, oin be esin ñeik*

- *Esean*

Egitura hau *ez + non* kasua batuz eratzen da, eta *esik* bezala bakarrik ezezko perpausetan erabil daiteke.

- *Subensiñoa emon esean ixin lei bisimodurik eroan*
- *eguskie ein esean be bagoaxak*

- *-tekotan*

Egitura hau ezezko zein baiezko perpausetan erabil daiteke.

- *da manilla eukitekotan bestekaldean eukiko deu*
- *Oin esta olan baya len posa eoten san eu(r)en familia etortekotan baya oin estao txarriliteripes*

### 5.1.3.2.8. Denborazko perpausak

Denborazko perpausak, izenak berak adierazten duen legez, perpaus nagusiak zer gertatzen den azaltzen digu eta mendeko perpausak ekintza hori noiz gertatzen den esaten digu.

Denborazko perpausak erreferentzia puntu bat zehazten dute denboran, hortaz, guk hemen aurkeztuko dugun sailkapena horren arabera egingo dugu.

<b>Esaldi nagusia denborazko perpausaren...</b>	<b>Jokatuak</b>	<b>Jokatugabeak</b>
<b>Lehenagokoak</b>	<i>-nerako</i>	<i>orduko baño len aurreti(k)</i>
<b>Aldi berekoak</b>	<i>-nean -(e)n orduen -(e)la -(g)as batera -(e)n artean -(e)n bitartean -(e)n gustietan -(e)n orduko -(e)n bakotxean</i>	<i>-keran</i>
<b>Beherealakoak</b>		<i>eta laster eta atoan eta segiduen barri ala</i>
<b>Ondorengoak</b>	<i>-nean</i>	<i>eta gero ostean orduen bein (...) eskero eskero</i>
<b>Abiapuntuak</b>	<i>-(e)neti(k) -nik... ona</i>	
<b>Amaierakoak</b>	<i>-(e)n arte(an) / -(e)n arteiño</i>	<i>arte / arteiño arik eta... arte</i>
<b>Noizkoak</b>	<i>-(e)neko</i>	<i>-ko</i>

#### a) Lehenagokoak

Arestian esan dugunez, denborazko perpausak erreferentzi puntu bat zehazten dute denboran. Atal honetan perpaus nagusiko ekintza erreferentzi puntu horren aurretik kokatzen diren egiturak aztertuko ditugu.

Badira jokatuak eta jokatugabeak.

#### Jokatuak

Forma jokatu bat baino ez da erabiltzen hizkera honetan.

- *-nerako*
  - *da gero soldadu, andik etorri sanerako ama bakarrik*
  - *ta yoan gintzesanerako neska bat: 'semea il de'*
  - *Morrilladea, esaten geuntzen, ba, danak junteu, txarrilten saneko danok junteu*
  - *bai, etorten san ta da etorten sanerako pamitxek eiten gindusen*

### Jokatugabeak

Ondoko forma hauek erabiltzen dira: *orduko*, *baño len*, eta *aurreti(k)*.

- *Orduko*
  - *Baserrien bear asko. Ganaduegas, beyek, ni eskondu orduko be orixe, baserriko bearra*
  - *Batzean esnea, batzean asten gosakenean gaubeko amabiek amabiterdiek ardiek batu orduko*
  - *gastayak ein orduko ordu bi, ordubiterdiek*
  - *Eiten gindusen morsillek, txorisoak ta goxean txarrie iltorduko, txarrie iltorduko alguasille etorten san*
  - *Bai, alegre, alegre, a ixiten san orduko sera axe ixiten san, ta gero iltorduko galletakas eta famitxeagas, axe*
  - *ni gastea nintzenean an bisi gintzesan au etzea ein orduko*
  - *txarriek kortatik urten orduko eiten otzien emeti gantxo bat sartu*
  - *lango ankeati artu orduko txarrilten deuenak gantxoagas txarrieri sereti goatzean yotxek*
  - *en bazio ori kontue etorri orduko orrek eiten soasen koipeartean sartu*
  - *Da ostantzean onik agertu orduko galbayagas garbitan san*
  - *Au kamiñoa eitorduko lupetz artean eoten gintzesan*
- *Baño len*
  - *beste era igual urte akabu baño lenao apur bet garrastu eiten soasen*
  - *Baskaldu baño len eskuek garbitu*
- *Aurreti(k)*
  - *Baskaldu eurreti bebai*

### b) Aldi berekoak

Perpau hauetan perpau nagusiko ekintza erreferentzi puntu horren aldi berean kokatzen diren egiturak aztertuko ditugu.

Badira jokatuak eta jokatugabeak.

### Jokatuak

Aldi bereko perpaus jokatuetan ondoko formak ezagutzen dira: *-nean*, *-(e)n orduen*, *-(e)la*, *-(g)as batera*, *-(e)n artean*, *-(e) bitartean*, *-(e)n gustietan*, *-(e)n orduko* eta *-(e)n bakotxean*.

- *-nean*<sup>108</sup>

- *Ni eskondu nintzenean be gixona bearrean fabrikera*
- *Emeti etorri sirenean frentea o sea lutxetan ya tiroak entzuten gindusen*
- *araño allegeu sirenean ipini euresan kañoyak*
- *Zierbanan egun betzuk egin da koyu oskuen nasionalak sartzean sirenean*
- *Lengo egunean emen berbas gabisenean Segobiako bat eon san*
- *ure irikiten danean morsillek itxiten sirean egosten an*
- *ni eon nintzen or, kasualea, ori saldu senean*
- *Da ondo daoenean erein, gero yorratu da olan*
- *ni gastea nintzenean an bisi gintzesan*
- *Emen edurtzea danean esin lekite urten.*
- *Emen edurreiten deuean ixin lekite urten.*

- *-(e)n orduen*

- *au kamiñoa ein orduen be ibili sen kamiñoa eiten*
- *Pamitxea da erroteak eragiten dan orduan, ba, urune an urteten deu apur bet baltzaoa sati bet leku betetik*
- *surren ibilten sana axe, bestea akabaten san orduen bi*
- *atzera bota, atzera artu ta axea, axea daoen orduen garbitu*
- *gero agertu sen burruñeskoa baya gu gasteak gintzesan orduen esan... gitxi eotesan burruñeskoa*

- *-(e)la*

- *Batek, koadrillan gaosela ,'aldi beten'... da moja bat, Igorreko moja bat eon san koadrillan, 'ene orixe berba ori ' atensiñoa geitu otzen*
- *autobusean datosela, kokolori, karpeta kendu otzien*
- *Aintxe gaosela, ba, kotxetxu bet etorri sen da parau gure autobusen ondoan*
- *Goasela Igorrera, Lemoara, eskerrera da aratxuao dao beste etze bat eskerretara*
- *Bakisu kotxeak eskuetara da ori, goasela kotxeak garbitako orixe da Saldarri, eskerretakoa*
- *ta an sartu barik urrungo..., onantza satoesela urrungo bajadea*
- *orra Dimerantza goasela aldastxuen egon beada*
- *ni txikerra nintzela kendu eusen da gero, ba, beyekas*
- *Surtidorreti soasela Ormazabalen serera allegeu baño arintxuao, or goyen, goasela eskerretara goyen dao Kunlletala*

<sup>108</sup> *-(e)netan* modukoak ez dira erabiltzen.

- *-(g)as batera*
  - *gupadakigu, ikusiegas batera badakigu selan eitesan bear da ser, orrek berorrek estaki*
  - *Urtenas batera eurie asi de*
  - *Urtenas batera eurie asi yaku*
  - *Etorries batera yausi ein sen*
  - *Ikusies batera esetu ein dot*
- *-(e)n artean*
  - *a bastarra eiten dabilen artean iru edo pareu da bueltea onango tamañuko lur sati bet koyu da apur bet lokatu*
  - *emeti txarrikerie doan artean emeti besteti, ba, berantza garaue*
  - *Goasen paseoan berbas daosen artean*
  - *Aurek telebisiñoa ikusten deuren artean gu kosinetan goas*
  - *Amaituten dosuen artean ori gu tabernara goas*
- *-(e)n bitartean*
  - *igon gindun bitartean pasau sen dana*
  - *kostunbrek, oiturek aldatuten doasen bitartean iskuntza bebai, se oin trukerik etxauk*
- *-(e)n gustietan*
  - *datorren gustietan golpe bat artzean deu*
- *-(e)n orduko*
  - *datorren orduko asarrea dekot*
- *-(e)n bakotxean / bakotxeko*
  - *datorren bakotxean golpe bat artzean deu*
  - *datorren bakotxeko golpe bat artzean deu*
  - *datorren bakotxeko beti ekarten doste seoser*
  - *datorren bakotxean gastai bet ekarten dosku*

### Jokatugabeak

Forma bat baino ez da erabiltzen perpaus jokatugabeetan: *-keran*.

- *-keran*
  - *Ba, bueno euskaldun barriek eta, ori berbaikeran edo, ori selan esaten dosu?*
  - *Urkiolara allegakeran atzera monagilloak ipinten kurutzea da abadea asten san letaniak erresetan*
  - *Urkiolara bajakeran abarketa sarrak botaten gindusen da barriek ipini da yoaten gintzesan elisara*

- gero platerara atarakeran iñok esteu gure ixiten
- eskutillea, au de norbera yausi estiten, batzutan igual beyek arrankakeran ein de, ba, esku bet bota bear da orraxe
- Bai antxe bajakeran, antxe Fielato eoten san lekuen
- Siorostan sartukeran daos... oin dao etze bat bakarrik

### c) Berehalakoak

Perpauk hauetan ekintza erreferentzia puntuaren ondorengo etorkizun hurbilean kokatzen da.

Guztiak jokatuabeak dira.

#### Jokatuabeak

Ondoko forma hauek erabiltzen dira: *eta laster*, *eta atoan*, *eta segiduen*, *barri* eta *ala*.

- *Eta laster*
  - *Urten eta lasterrenera eurie asi yaku*
- *Eta atoan*
  - *parbuloak badaos beste errietan baya kuartotik asi te atoan ona etorri bear deure danak*
- *Eta segiduen*
  - *etorri te segiduen yausi sen*
- *Barri*
  - *Amatxu etorri sen eskonbarri?*
  - *etorri barrie da*
- *Ala*
  - *emen amarreute ipini beada palu betegas lanea, da onegas txabileagas eiñala eiñala emon arie, ta ori, txabilea esaten yakon axeri karreteari*

### d) Ondorengoak

Perpauk hauetan ekintza erreferentzia puntuaren ondoren kokatzen da. Badira jokatuak eta jokatuabeak.

#### Jokatuak

Forma bi baino ez dira erabiltzen: *-nean* eta *bein (...)* *ba-*.



- *-nean*
  - *Amaituten dosunean joan ingo gara*
  - *Erosten dosunean ikusiko du*
- *Bein (...) ba-*
  - *esin sartu gantxoa da bein eriduten bosu txarrie gero gatxa da*

### Jokatugabeak

Ondoko forma hauek ezagutzen dira: *eta gero, ostean, orduen, bein (...) eskero eta eskero.*

- *Eta gero*
  - *orrikas, por ejemplo, paseu te makineu te gero yoteko da, apurtako*
  - *onegas paseu te gero onegas apurtu*
  - *erre ta gero eiten yakok atzera mai ganera altxeu ta tripak atara*
  - *makinea paseu te gero atxurtu iten gindun*
  - *Ori ikusi te gero yoan soan*
- *Ostean*
  - *lelango makiñatu soloa da makiñatu ostean lurre apur bet bardin ipinteko*
- *Orduen*
  - *Da orixe, il orduen erre, kanpora atara ta galtzue eukiten gindun...*
  - *au etzea ein orduen eskondu nintzoan Galdakako, Galdakako edo Askarreko neska bategas*
  - *Da sikitako be ebagi in beosu lelango, sikitu orduen batu sasoyan*
- *Bein (...) eskero*
  - *klaro, eske bein eskondu eskero, bakisu*
- *Eskero*
  - *il eskero, noseapeñan mesa bat edo al dana iten bosu, bien, ostantzean esteu balio eser*
  - *Da gero igurdi eskero, antxe bigun-bigun ein da gero ogiek satitxu bet areri kendu da ogie in*

e) Abiapuntukoak

Hauetan mendeko perpausak erreferentzia puntu bat ezartzen da abiapuntu, zenbat denbora pasatu den adierazteko.

Perpaus hauek guztiak jokatuak dira.

### Jokatuak

Forma bi baino ez dira erabiltzen: *-(e)neti(k)* eta *-nik ona*.

- *-(e)neti(k)*
  - *Yoan sanetik geao estu ikusi*
- *-nik ona*
  - *mutikotan bai, mutiko danapaya andik etorri nasenik ona, ba, bitixu*
  - *Etorri sarenik ona euririk esta pareu*
  - *Yoan sanik ona geao estu ikusi*
  - *etorri danik ona estot ikusi*

### f) Amaierakoak

Hauetan mendeko perpausak amaiera zehazten du, erreferentzia puntua amaiera da.

Ez dut *-(e)n arte* moduko perpaus jokaturik batu hizketa librean, galdetegien bidez lortu izan baditut ere, oso modu bortxatuan esan dituzte hiztunek. Horregatik, erabaki dut atal honetatik baztertzea.

### Jokatugabeak

Forma bi ezagutzen dira: *arte / art(e)iño* eta *arik eta... arte*.

- *Arte / Art(e)iño*
  - *da gero gerra akabau arte bearrean serean Andalusian*
  - *Eskondu arte itano eiten badeurie gero be igual segidu leie*
  - *Erretireu arte yoaten gintzesan ara*
  - *Ba, akabeu arte, gerrea akabeu arte*
  - *Onena, Napoleonena ataraten basindun be botilla akabeu arte, altxeu bes*
  - *Sikitu arte bai*
  - *ori paseu yaku guri beti. Kendu artiño etzera*
  - *errikoa euki arteiño patiñe be euki du or aurrean*
- *Arik eta... arte*
  - *arik eta odola dana baldera yausi arte esta batu*
  - *bestea eiten san atzeratu, arik eta illadara etorri arte*

## g) Noizkoak

Hauetan mendeko perpausen ekintza noizkoa den adierazten da. Badira jokatuak eta jokatugabeak.

Jokatuak

Forma bakarra erabiltzen da: -(e)neko.

- *-(e)neko*  
- *Morrilladea, esaten geuntzen, ba, danak junteu, txarrilten saneko danok junteu*

Jokatugabeak

Forma bakarra erabiltzen da: -ko.

- *-ko*  
- *Amasaspi eineko egunean a peti esaten euen: 'nik nire urteak estodas koiduko'*

**5.1.3.2.9. Kontzesio-perpausak**

Kontzesio-perpausetan mendeko perpausak eragozpen edo oztopoa adierazten du. Beste ataletan bezala, hauek ere, jokatu eta jokatugabeetan banatuko ditugu.

## a) Jokatuak

Forma bi hauek baino ez dira erabiltzen: *Ba... be* eta *-(e)la be*.

- *Ba... be*  
- *baya ataraten basindun kopatxu bana, ona emon bear dotziet, sera, botilla akabeu arte. Onena, Napoleonena, ataraten basindun be botilla akabeu arte, altxeu bes*  
- *Eguskie ezpayok eiten be bagoaxak*
- *-(e)la be*  
- *Ori ein seinke gure estala bebai*

## b) Jokatugabeak

Ondoko forma hauek erabiltzen dira: *nai te*, *arren*, *-ta... be*, *-s kero... be* eta *aunke*.

- *Nai te*<sup>109</sup>

<sup>109</sup> Forma jokatueta ez da erabiltzen.

- *Es esan Atleti txarra ixin, nai de galdu*
- *Nai te yo esteu negarrik iten*
- *Fiestatan nai te eser eon es ondo pasaten dosu*
- *Nai te edurre in banoa*
- *Nai te ardauedan sidrea be edan dun*
- *Nai te amaitu es, bagoas.*
- *Nai te eguskiein es, bagoas*
- *Nai te eguskirik ein es, bagoas*
- *naite edurre isin yoan in gintzesan*
  
- *Arren*<sup>110</sup>
  - *alargune ixin arren, ba, setan eon esta olan, da onenaoko[sic] andrak emen pañuelo baltza estu da luse luse yantzi*
  - *Igual galdu iten dok baya ogetamabost berrogei, gero amar peseta bajatu arren bardin dok*
  - *gixona oyan badao andreak eiten deu gixonan bearra da etzekoa, ba, gu oyan eon arren, kortan ganaduek eoten sirean emen be, ni kortakoa ta goikoa ta dana eiten*
  - *oin piñue sartzeako, basoa olan aldarretan esin arren makinetaos*
  - *Eguskie in es arren yoango gara*
  
- *-ta... be*
  - *se gaur estudieta be estao gause andirik*
  - *oin urdeyeri estotze iñok emoten inportantzia, urdeyerrekara botata be...*
  - *ostean leidute be periodikue leidu bai gause batzupai baya beste batzuk igual aitu es ondo*
  - *Guk len gure ixinde be ein ixin*
  
- *-s kero... be*
  - *au yo eskero be... esteu negarrik iten*
  
- *Aunke*
  - *ta beren umeak estodas esetan, aunke beitu en kanbio baten batena bai, se a da el terror de...*

#### 5.1.3.2.10. Moduzko perpausak

<sup>110</sup> Forma jokatueta ez da erabiltzen.

Moduzko perpausek modua edo era adierazten dute, hau da, perpaus nagusiak adierazten duen ekintza nola edo zein modutan burutzen den.

Hauek ere, jokatu eta jokatu gabeetan banatuko ditugu.

#### a) Jokatuak

Egitura hauek erabiltzen dira: *-(e)n moduen*, *-(e)n les*, *-na les*, *-nes* eta *-(e)la*.

- *-(e)n moduen*
  - *len beyekas da busturrien da asko, eta gero traktorak eta etorri sirean moduen bear gitxiao*
  - *orduen a eskutea eiten soan punten garie (e)ukiteuen moduen or arrien kontra olan yo ta garaue separeu beste eskuteti*
  - *oin etorri dan moduen ori bazioko ori metodo moderno ori, ba, oin eiten yuk ori en bazio sartu*
  - *Ein dot suk esan dostesun moduen.*
  - *Obeto dao esanda olan suk esan dosun moduen baya bestetara esaten da*
- *-(e)n les*
  - *aik erderas eiten deurien les, ba, erderas ein bear dotziesu*
  - *Tranbiarioak, aiten lagunek, se aitek bear eiten euen les, bear antxe*
  - *edosein momentuen baskaiten dot ta afaiten dot, esteku les ordurik*
- *-na les*

Kontuan hartzen baditugu euskal dialektologian idatzitako lan monografikoak, berehala konturatuko gara egitura hau, *-na les*, ia Arratian baino ez dela agertzen. Nerbioi arroan (Zeberio eta Ugao-Miraballes barne) egin diren monografiatan ez da agertzen egitura hau; ez Etxebarriak (1991), ez Salazarrek (2001), ez Arretzek (1994) ezta Gamindek (1990e) ere, ez dakarte egitura honen berri euren lanetan, baina Etxebarriak (1995) Zeberio hainbat adibide ematen ditu etno-ipuinetan. Txorierriko hainbat adibide ere topa daitezke monografiatan.

#### Zeberio:

- *erri gustie yoate san elixara baya a etzana lez yoan orregaiti parau i sen kondenaute* (Etxebarria, 1995: 171)
- *Da yentile lo parau sen orduen orduan tuertoa sana les besteti, kokoteti sartu otzela Oroskoarrak (burruntzia)* (Etxebarria, 1995: 178)
- *Da urten auen altaraurrera, da, ostaire beitate, esauena les topau sakristaurik i mesea erasoteko, atzera yoan, da mudau t'eskapauen* (Etxebarria, 1995: 187)
- *luze eretxite egoana lez, inisitue bera baño soliago yoan i sen bera be berenberegi arriten Ois mendire* (Etxebarria, 1995: 246)

Orozko:

- *Eta au liburu au dana leges misala eta dagoana les bedeinkitute, orduin estautze onek itxitixin sartute barrure* (Etxebarria, 1995: 255)

Ubide:

- *orrek aberatza dana les gastetan dau* (Gaminde, Goikoetxea & Sarriugarte, 2002)

Zeanuri:

- *domeka salea edo ba elexara ta yoaten sana les bera ba, esaoan* (Etxebarria, 1995: 262)

- *gaur astelena dana letxe bearren yoan gara* (Gamindek, 1992b: 8)

- *itzue dana letxe esin dau ikusi* (Agirregoikoa et al.)

- *gurea sana letxe esegoan problemarik* (Agirregoikoa et al.)

Dima

- *ori kanpokoana dana les estaki euskera* (Gamindek, 1992b: 8)

Galdakao:

- *geur astelena dana les yoan gara bearren* (Gamindek, 1992b: 8)

Larrabetzu:

- *ori kanpokoana dana les estaki euskera berba eiten* (Gamindek, 1992b: 8)

Lezama<sup>111</sup>:

- *Da terreno ori doneue danales esinlei seguru kanbieu da orregaiti da Lesama*

Beraz, adibideek<sup>112</sup> erakusten digutenez, Arratia ondoko hainbat herritan (Zeberion, Orozkon, Ubidean, Galdakaon, Larrabetzun eta Lezaman) ere, honen moduko adibideak batu izan dira.

Hona hemen Igorreko adibideak:

- *gero, gixona Firestonen ibili sana les, yoan gintzesan, ba, Bidibietara*
- *Ostean, or beko kamiñoa es sana les eon, goyen oin dosu emen baño etze geitxuao*
- *Igorreko kintoak danak esetan doas baya ori, ba, Dimekoa dana les...*
- *esperimentuek eiten asi sana les fama andie artu seuen*
- *baya ain nerbiosoa dana les andreak es euen gure ixiten aurrean eon*
- *da a gantxoa txarriepeti atzerantz eiten deuena les norberak eurrera, onantza ein eskero, norberan alderdirantza, ba, ak esin deu yoan atzerantza geao*
- *perniklek igerrea dekona les seatu ta txorisoak eiteko*
- *bestekaldetik, ba, engantxea eukiteuriena les oneri engantxetako, ba, arantza ein bitzesun*
- *da eroan andixik, ba, andik tranbien eon nintzena les kondutor*
- *Arantza ixikoa dana les, e?*
- *balio euen estudietako baya es egoana les...*
- *beyek emetik goatzean otziena les, ba, kateagas urrungu bueltan bestekalderarantza, o sea yoaten san trabes*
- *emen esta eon kaballo asko oin dao geyao, landako ganadurik estaoena les*
- *Oin kaballo asko dao emen, se soloak ganadurik estaoena les kaballoa dao kostantemente yaten*
- *Onek orixe deko, muellea dekona les emen kaman au eiteran ya eiten dosu bueltea*
- *errietan diferensie andie eotesan, oin esta igertan, se estudioak daosena les*
- *Aistu eiten yatzus, se orrek ainbeste urte direana les*

<sup>111</sup> Labayruk on-line daukan corpusean dago, *Lezamako toponimia (etnotestuak)* deitzen den dokumentuan.

<sup>112</sup> Iñaki Gamindek (1989) antzeko adibide batzuk, *-na lao*, ematen ditu *Leioako euskararen gramatikaz* liburuan:

- *yake bat ekar dot aitek dekona lao*
- *nik ekarri in dot suk dekosune lao*

- *-nes*
  - *Au gero or ibili sen da gero amalargune euki ginuenes, ba, bear in bear ixiten euen gaste gasterik*
  - *Baya bertako jenteari, esaten dotzutenes, edadeko jenteari beti su*
- *-(e)la*
  - *seguru dires sei seme-alaba neutakitela*
  - *makinea, narra, girigillea, itillek da areak, neutakitela geao estao*
  - *Ikusten basan ogie apurtxu bet yagite daoela atzera apur bet altxau te ya labea garbitu eiten san*
  - *Ure irikiten daoela bota urune apurtxu bet eta bengua bueltak emon*
  - *gurean bakarrik ibilten sirean bat atzean dala*

## b) Jokatuabeak

Ondoko forma hauek erabiltzen dira: *-(e)s*, *-ta*, *-(r)ik*, *barik*, *-teko moduen / moduko(a)*, *-tea moduen eta -tea les*.

- *-(e)s*
  - *Eskolan eingo deurie liburu eta euskera batue erabiles baya ostantzean es etzean geure modure*
  - *Subelandarak eta artus, olango geusak asko yan euriesan, subeapebai yan euriesan, asko*
  - *Ni nes F. A., yayotzes nas Garamendin*
  - *Da berba kontus ein*
- *-ta*
  - *boligrafoa artu ta atarata deko kontue*
  - *Bueno ni emen yeyo eta asite nao*
  - *yatekoa be estosu topaten ganaduentzako ta emon dotzie erosite kortan askatan yateko*
  - *Politikuek or dabis aitu esinde*
  - *Baten Urkusutik burdies etorrite tranbibidean txirrinkea sartu da atara ixinde atzetik, ba, sera, tranbie*
  - *Bostetan urteten gindun Igorreko elis portalean txokolate ta ogie artute*
  - *emeko bidea kasi galdute dao*
  - *buelta emoteko jiratorioa beronek deko ortxe sapaldute*
  - *Buruen otzarea artute yoan da*
  - *okolea gosoa deko, naupe yanda nao*
- *-(r)ik*
  - *Estu ikisite, ikisirik esiñik*

- *ba, batuas es san orrela esaten, eta beti pentzeurik, ba, ori Arratieko estakit ser*
  - *Posik eongo da*
  - *Ixilik! ekarri ona boligrafori, nik atarako yoat*
  - *Oin bost bisirik da lau eskondute*
  - *elisea eon san topetaraño beterik*
  - *osaba bi dekodas bat bisirik dekot da bestea Ameriketan il sen frailea*
  - *ta emen dekot ereinde, ba, emen apur bet, beste apur bet se pareu ixiniñik nabil betik*
- *Barik*
    - *eta gu gatzatue yan barik an iturrien uredan da berantza*
    - *Bost urte ein barik ondiño*
    - *Es, konjeleu es, konjeleu barik konserbatan dosak lateatan ondo*
    - *Pareu in barik ille baten*
    - *Kotxean yoan barik trenean yoan gintzesan*
- *-teko moduen / moduko(a)*
    - *onen tamañoko txarriek, luseak, da ikusi ta estukurea emoteko modukoa*
    - *eta deko naiko askar burue, esangotzut, erantzuteko moduen da*
    - *kasi pentzetako moduen derrigor ikusi bidotela*
    - *ori ortxe eiteko moduen dao onekas*
- *-tea moduen*
    - *Karretilla bat eroatea moduen baya lurre bueltetako*
    - *galdorrastu[sic] dok urartean, ba, egostea moduen*
- *-tea les*
    - *Urdindu da tximildu esatea les*
    - *arean bai gitxi gitxi, poco, poco esatea les, es?*
    - *galdu in deu bere inderra ta pareu de errebaiteute esatea les*

## 5.2. Lokailuak

### 5.2.1. Lokailuak: definizioa

Lokailuak solas mailako lotura dira, esaldi mailakoak, perpausaz gainekoak; beraz, juntadura eta menderakuntzaz gain perpausen artean ere badago beste lotura bat solas mailakoa dena. Lokailuak testu mailako lotura bideratzeko tresnak dira. Lokailuek nolabaiteko ñabardura ezartzen diote perpaus batek bestearekin duen erlazioari baina ez dituzte lotzen.



Kokapenari buruz esan dezakegu lokailuak bigarren perpausean doazela eta honen barnean, jeneralean, nahiko askeak direla, perpausaren hasieran, erdian zein amaieran topa baititzakegu.

## 5.2.2. Lokailu motak

Lokailu hauek adierazten duten harreman motaren arabera sailkatuko ditugu: emendiozkoak, hautakariak, aurkaritzakoak eta ondoriozkoak. Kausazko lokailurik ez da erabiltzen Igorren.

### 5.2.2.1. Emendiozkoak

Emendiozko lokailuek nolabaiteko gehitze zentzua daukate, aurreko perpausari zer edo zer gaineratzen diote.

Hizkera honetan ondoko lokailu hauek erabiltzen dira: *be*, *ganera*, *beintzet* eta *sikeran*.

#### 5.2.2.1.1. *Be*

Hizkera honetan *be* da agertzen zaigu aldaera bakarra, *bere* aldaera ez da erabiltzen.

Lokailu hau beti ezkerreko aldean duen osagaiari lotuta doa; beraz ezin du inolaz ere perpausaren hasieran egon, bai ordea, amaieran.

Kategoriari buruz, EGLU III-k dakarren moduan (35 or.), esango dugu aditzondoa dela.

- *Durungurantza da orti be diferensie dekosu*
- *gixonan anayan seme sarrena bisi de be Gerniken*
- *amatxu be yoan da geyao suipaño*
- *etzero be etorten ixin dire batzuk*
- *orrepe erregalaute*
- *gero Lutxanan be geu eon gintzesan*
- *ori be pasetan da baya askotan bestea fasilao aituten dot*
- *neu be enas yoaten*
- *eskondu arte itano eiten badeurie gero be igual segidu leie*
- *badakipe etzea non daoen*
- *estakit seinbet milloi parau daosela da orrepe bear in bear deurie*
- *gerra denporan eon giñean aikas be serean... Andalusian*
- *pato bat be badao*
- *da kamiñoak ebaten be eskus, len eskabadorik es siren eoten*
- *Artaundik Siorostara be diferensie dao berbas*
- *terrenoak Igorren pertenesiten yeurek, elisas be Igorre*

#### 5.2.2.1.2. *Ganera*

Lokailu hau erabiltzen da aurreko perpausari informazioa gaineratu nahi diogunean. Halaber, esan daiteke informazio honek balio argumentatiboa duela.

Gehienetan, perpausa hasieran badoa ere perpausaren amaiera edota erdian ere topa dezakegu.

- *Diru gitxi, gero ganera neguen bear andie ta yatekoa be estosu topaten ganaduentzako*
- *Onekas etxakat festarik, orduripes Dimera yoateko, orduripes ipiñi lagunekas egundoko es as allegauko ordurako, beti berandu ganera*

*Ganera*-ren ordez oso arrunta da erdal *ademas* lokailua erabiltzea.

- *dirue atara gure deuenak esteu denporarik, ademas daos ipinite plakak, elektrikuek, da guk e... plasa barrien ikusi neusen*
- *Karue, da gusture yan es ademas*
- *ademas esneak leneko moduen presiorik esteu eukingo*

### 5.2.2.1.3. *Beintzet*

Lokailu honek aurreko perpausean esandako zerbaiti nolabaiteko muga ezartzen dio.

- *Elesea beintzet, ta tabernea iminite arregleu deurie*
- *nik ori ondiño estot ikusi, estot esetuten beintzet*
- *Entereu sen beintzat*
- *Ba, erruedak, ba, erruedak, onek motzatire beintzet*
- *baya en jeneralmente, emen beintzet, onik selayok eiten sirean erdie beyekas*
- *Geuri? Es, neuri akordeu es beintzet*

### 5.2.2.1.4. *Sikeran*

Hasteko, esan behar da EGLU III-n ez dela ‘*sikeran*’ agertzen lokailuen artean. ‘*Sikeran*’-en gainean esan dezakegu ‘*beintzet*’-ek duen zentzu eta erabilera bera dituela.

- *bearra edo seoser eukiskero sikeran, ba, solduegas tirando*
- *dana kendu eta beste dana pikau eiten da edo geyena sikeran asala kendute dana pikau txiki-txiki-txiki*
- *txarto parau sen da eneuen eskatu besterik, sikeran bere urtegune eldu ditela*
- *bere bearra eukiten seuen gero. Sikeran iru bet ordu, ogie iñeskero, antxe eon beosu*
- *Odola artzean, ni ixiten nintzen, gure etzean sikeran ni*
- *Es, etzean es sikeran, kanpoan lagun konfidansa askoas igual bai*
- *jeneralmente emen guk usetan ixin du sikeran eusoari lagundutea andrak morsillek eiten eta*

### 5.2.2.2. *Hautakariak*

Lokailu hautakariak aurreko perpausaren kontra aukera bat aurkezten dute. Ondoko lokailu hauek erabiltzen dira: *bestala, ostantzean, espabe* eta *ostean*.

**5.2.2.2.1. Bestala**

Formaz aditzondoa den lokailu hau ia esamolde honetan baino ez da erabiltzen:

- *bestala gaos*
- *bestala gaus bero-berotan*

Erabilera honen berri ere Etxebarriak (1991: 251) ematen digu Zeberiorako.

- *bearren asi danik bestala dabil*

Esamolde honetaz gain, hiztun gehienek ez dute ezagutzen baina gure corpusean adibide hau jaso ahal izan dugu, adibide bakarra:

- *Indabea eta babea igualatires. Lo ke pasa eske emen babea esaten du. En kanbio ortik Gernike edo ortik indabea edo olan, ta bestala ixin de babea.*

**5.2.2.2.2. Ostantzean**

Lokailu honen oinarrian ‘oste’ izena du gehi *-rantz* eta *-(e)an* kasu-markez birdeklinatuta.

Kokalekuaren gainean esan dezakegu bigarren perpausaren hasieran agertu ohi dela.

- *Euskeras bai, aitu eskero, ostantzean es, erderas ein bear*
- *aite yoan san amabost eiteko edo amalau eiteko ostantzean danak yoan dires irurogetakas*
- *ixin dosu il, se ostentzean okoleak txarto urteten deu*
- *baya il eskero, noseapeñan mesa bat edo al dana iten bosu bien, ostantzean esteu balio eser*
- *orreteukie oin etzaldea artute arregletan dabis ostentzean or jente asko esta bisi, utzitude daos etzeak*

Batzuetan ‘baya’ juntagailuarekin agertzen da.

- *Trilladorak agertu sirean baya ostantzean lenao ementxe yoten gindusen*
- *eskolan eingo deurie liburu eta euskera batua erabiles baya ostantzean es, etzean gure modure*

**5.2.2.2.3. Espabe**

Bizkaierazko lokailu honek baldintza moduko hautaketa adierazteko balio du: “*lehenengo perpausa betetzen ez bada...*”

- *ta gero gu ixilik, se besteak espabe protestaka ibili sirean*
- *ospa beste oira espabe neu noa ara*
- *barrure yoaten sana barrure espabe kanpora bota bear*
- *Orrek batu eiten dus da erre edo kendu, se espabe soloari estorbo eiten dotzo*
- *Galgeari emiosu arin espabe txarto doa ta*

**5.2.2.2.4. Ostein**

Esan behar da EGLU III-k ez dakarrela ‘ostean’ lokailuen artean baina ondoko adibideak ikusita argi dago hizkera honetan lokailu hautakaria dela.

- *oin ipiñi dotzie isena Baseuntz, ba, ostein lenao Gesala esaten geuntzen*
- *Eskillerak esin dodas pasau te. Bueno ostein etzean banabil*
- *bakarrik or estao... antxe be a dao txarritxu bet ilten ostein ortik bisirik estao-*
- *Bueno aitu... ser esan gure deuen igual esteu ingo patxadas baya ser esan gure deuen bai, ostein leidute be periodikue leidu bai gause batzupai baya beste batzuk igual aitu es ondo*
- *non eoas?, nos ator? olantxi gausek aistu te, ba, olantxi segidu ostein itano emen esta asko iten, itano gitxiten da*
- *ta ‘etxoai apur bet’ ta olangorik, ori ya paraten da bastu bastu, ostein be bastue gara eta beste era bastuaoa*
- *Matraiesurre, madibuleti maire eroateko ostein eskapeu iten da*
- *Dimekoak estotzue ardure ixin, ostein gure Pedrori pregunteu baseuntze arepe istoria kontauko otzun*
- *grasiek oin gobierno baskok subensiñoak emoten deusela esan dotena e ostein ganadurik estao emen*
- *Saldarrin primoak, aiten primoak ape idiek eukiteusen, ba, ostein idi gitxi ibiltasan emen*
- *garue oten basan eguskiek artute arin soltetan san baya ostein es, ostein kosteu iten san soltetan*
- *Ta ori geuk etzean bakarrik ostein kanpoan estaki iñok*
- *neguen otz eiten dau ostein ondo eoten da*

**5.2.2.3. Aurkaritzakoak**

Aurkaritzako lokailuek bigarren perpausak aurrekoari buruz duen kontratasuna nabarmentzen dute.

Ondoko lokailu hauek erabiltzen dira: *ostera, ala ta gustis be, barres eta en kanbio*.

**5.2.2.3.1. Ostera**

Mendebaldeko hizkeretan erabiltzen den lokailu honek normalean perpaus barnean du bere kokalekua, mintzagai izan daitekeenaren ondoan.

- *Etzera be etorten ixin dire batzuk, emeko pisuetakoak, baya ostera letxeruek ementxe pareuen*
- *aite Galdakara yoan da Juantxu ostera Bidebietara*

**5.2.2.3.2. *Ala ta gustis be***

Lokailu hau bigarren perpausaren hasieran agertzen zaigu, eta gehienetan, ‘baya’ juntagailuaren ostean.

- *Ni eskondu nintzenean be gixona bearrean fabrikera, baya ala ta gustis be baserrie*
- *Kotxe eukin eskero, ba, ondo da, baya ala ta gustis be estao, sar batzuk ta olantxik, gelditute iru etze edo bakarritaos*
- *ume denporea be beitu selango, esateko moduen, problemak, eta gero ogiripe eskindun eukiten da ogie be garie molinillo baten iyo ta aregas eiñeko taloa, baya ala ta gustis be gustu gustuko sera emon neuen*
- *Bueno baya ala ta gustis be ein lei*

**5.2.2.3.3. *Barres***

Aurkaritzako lokailu hau ia ezezaguna da hiztun guztientzat baina hala ere, oraindik ere bakan batzuek ezagutzen dute.

- *amen tranbiero asko eon san ta Seanin barres... Jesus! Lenao non eongo sirean?*

**5.2.2.3.4. *En kanbio***

Erdarazko forma hau ere oso erabilia da.

- *ogetaka lagunek igual baskaiten danopatera da oin en kanbio estao esebes*
- *Lo ke pasa eske emen babea esaten du. En kanbio ortik Gernike edo ortik indabea edo olan*

**5.2.2.4. *Ondoriozkoak***

Ondoriozko lokailuek adierazten dute bigarren perpausa aurrekoaren ondorioa dela. Hizkera honetan ondoriozko lokailu bakarra ezagutzen da: *orduen*.

**5.2.2.4.1. *Orduen***

Lokailu honen kokalekua, adibideek erakusten duten legez, nahiko askea da, perpausaren hasieran, barnean zein amaieran egon daiteke.

- *Orduen irusien badao ta ilten bosu orrek txorisoak eta estires sikitan*
- *Terek esteu gure beiripes, biorripes, esebes. Orduen se solusiño topau dotze orreri?*
- *Osea altuena seu sara? Orduen amagana emon dosu*
- *Da laneak emeti urtero lanea bardin yakan, orduen gitxiao pagetan yok, ba, diru ori*
- *Eske gu kalkuladoreagas ibiltan gara. Orduen esebes etxuk eiten*
- *Ta nik orduen esan notzen: ama il ein de?*
- *Igorre da apurtxu bet Arratieko sentrue eta orduen jentea etorten da kanpotik*
- *Iorren jente erdaldun asko dao ta orduen, ba, apur bet galdu, danok*
- *Etotzue emoten bekarik? Orduen aite ta ama fuerte dekosus*

### 5.3. Sumarioa eta ondorioak

Sintaxiaren atalean bi aztergai nagusi izan ditugu: perpausa eta lokailuak. Perpausean, perpaus bakunak eta elkartuak aztertu ditugu. Perpaus elkartuen artean juntadura eta bereziki menderakuntza zelan gauzatzen diren erakutsi dugu. Menderakuntzan perpaus osagarriak, erlatiboak, konparazio-perpausak, ondorio-perpausak, helburuzkoak, kausazkoak, baldintza-perpausak, denborazkoak, kontzesio-perpausak eta moduzkoak zelan eratzen diren aztertu dugu. Lokailuen puntuan, emendiozkoen, hautakarien, aurkaritzakoen eta ondoriozkoen erabilera aztertu dugu.

Hierarkia prosodikoari dagokionez oinarri teorikoan aipatu genuenez (ikus 1.4 puntua) bost osagai baino ez genituen aztertuko: silaba, oina, hitz fonologikoa, talde klitikoa eta sintagma fonologikoa. Sintaxian aztertutakoa ez da maila hauetakoa. Lokailuak, adibidez, testu mailakoak dira eta hauek testu fonologikoarekin, *utterance*-arekin, lotu beharko lirateke. Perpaus bakun batean berdin, gutxienez intonazio sintagma bi egongo baitira. Beraz, atal honetan ez dago guk aztertzea erabaki dugun hierarkia prosodikoaren eremuari dagokion araurik.

**ELKARKETA  
ETA  
ERATORPENA**

## 6. Elkarketa eta eratorpena

Morfologiaren gaineko lanetan hitzen barneko egitura ikertzeko hiru bide bereizten dira: elkarketa (konposizioa ere deitua), eratorpena (deribazioa ere deitua), eta jokadura (flexioa ere deitua). Atal honetan elkarketa eta eratorpenari buruz arituko gara; hau da morfologia lexikoari buruz. Morfologia lexikoak hitz berriak nola sortzen diren aztertzen du, eta flexio-morfologiak, aldiz, hitz baten aldaera desberdinak. Esan bezala, morfologia lexikoak hitzak nola sortzen diren aztertzen du, hitz eratorriak (morfema beregain bati erator-hizki bat erantsirik sortzen ditugunak) eta hitz elkartuak (bi morfema beregain elkartuaz sortzen direnak) ditu aztergai (Azkarate<sup>113</sup>). Horregatik, erator-hizkiak eta flexio-hizkiak bereizi behar ditugu, azken hauek azterketa honetatik kanpo utziz. Gure azterketa gauzatzeko lehenengo eranskinean dagoen lexikoia erabili dugu corpustzat.

### 6.1. Elkarketa

Elkarketari buruz egindako lanetan bereziki aipatzekoak dira Azkue (1923), Villasante (1974), Azkarate (1987 eta 1990), Azkarate eta Altuna (2001), Euskaltzaindia (1987b, 1987c, 1991, 1992 eta 1993b) eta Martínez (2003), besteak beste. Dialektologiari dagokionez, esan behar da atal hau oso gutxitan izan dela jorratua, Ormaetxea (2006) da bakarrenetarikoa, lan batzuetan gainera aztertua (Makazaga, 2009, Erdozia, 2001...) eta beste batzuetan aipatu ere egin barik (Apalauza, 2010; Epelde, 2004...)

Gure azterketarako Euskaltzaindiak (1987b) ematen duen sailkapena erabili dugu, Igorreko hizkeran zein izen elkartu, izenondo elkartu, aditz elkartu eta adberbio elkartu eratzen diren sailkatuz.

Hitz elkartuak bi morfema askez osatuak daude: bi morfema horiek lotzen direnean, beste izen bat, beste izenondo bat edo aditz elkartu bat sortzen da.

#### 6.1.1. Izen elkartuak

Izen elkartuak multzo bitan sailkatuko ditugu: izen elkartu arruntak eta izen elkartu bereziak.

##### 6.1.1.1. Izen elkartu arruntak

Izen elkartu arruntak lau motatakoak izan daitezke EGLU-Ien (394 or.) arabera. Hizkera honetan aldiz, hiru mota baino ez daude, aditzoinaz edota izenkiak osaturiko izen elkarturik ez dago.

- a) Bi izen bakunez osaturiko izen elkartuak: *ardi-errebañue*, *esne-beye*, *abarka-kordelak*, *gari-urune*, *nebarrebak*, *artotxorie*, *basotxarrie*, *basobeye*...
- b) Izena + izenondoaz osaturiko izen elkartuak: *aitebitxi*, *amabitxi*, *udebarrie*, *gabonak*, *fraka-suriek*<sup>114</sup>, *lur-arine*<sup>115</sup>, *mutilsarra*, *neskasarra*

<sup>113</sup>Miren Azkarate, "Flexioa eta hitz eraketa", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, [www.ehu.es/seg](http://www.ehu.es/seg)

<sup>114</sup> Billaroztarrei esateko erabiltzen den izena.

<sup>115</sup> Igorreztarrei esateko erabiltzen den izena.



c) Izenondo + izenondo osaturiko izen elkartuak: *luse-sabal*.<sup>116</sup>

### 6.1.1.2. Izen elkartu bereziak

Izen elkartu bereziak lau motatakoak izan daitezke:

- a) Izen berezi + izen arrunt: *Jose-arraño, Tomas-busterri, Juan-txistu...*
- b) Izen berezi + izenondo<sup>117</sup>: *Juan-makurre, Juan-moskor, Juan-potolo, Juan-txikerra...*
- c) Izen arrunt + izen berezi: *osaba Lusiano, ixiko Mari, amama Isabel, aitite Jesus...*
- d) Izen berezi + izen berezi: *Urkusu-Garakoi, Gesala-Baseuntz...*

### 6.1.2. Izenondo elkartuak

Izenondo elkartuak mota bikoak<sup>118</sup> izan daitezke hizkera honetan:

- a) Izen + izenondo: *buruandie, belarrimotza, ankabiorra, begilusea...*
- b) Izenondo + izenondo: *suri-gorriek, suri-baltza...*

### 6.1.3. Aditz elkartuak

Honela dakar EGLU I-k 403. orrialdean:

“Bi motatakoak ditugu hauek. Alde batetik *etsi* edo *eritzi* (gaur egungo euskararen iharturik geratu dira, neurri handi batean) hartzen dutenak osagaitzat eta, bestetik, izen+aditz-ez osaturikoak:

- a) alferretsi, alfer eritzi, onetsi, oneritzi, gaitzetsi, gaitzeritzi, goretsi, gutietsi, miretsi ...
- b) odolustu, itxuraldatu, antzaldatu, esku-etendu, bihotz aldatu, gurutziltzatu, indar behartu, eraberritu, gainbegiratu (ez dira asko euskaraz)...”

Igorreko hizkeran ez dugu antzeko adibiderik topatu. Beraz, esan dezakegu ez dagoela aditz elkarturik.

## 6.2. Eratorpena

Euskarako eratorbideaz egin diren lanen artean bereziki aipatzekoak dira Ühlenbeck (1909), Azkue (1923), Villasante (1974), Lafitte (1944), de Rijk (1991), Mitxelena (1986) eta Eguzkitza (1997), besteak beste. Lan hauetaz gain, hainbat autorek atzizki batzuei buruzko artikulua ere idatzi dituzte. Adibidez, Artiagoitiak (1995 eta 2002) -garri eta -(t)ar atzizkiei buruz, Makazagak (1999) -kiko-ri buruz, Fernández et al.-k (2010) -le/-tzaile-ri buruz, Azkarate & Altunak (1992) -ko eta -dun-ari buruz, Oyharçabalek (2003) -kor-ri buruz, Saizarrek (2004) -ari-ri buruz ...

Dialektologian eratorpena elkarketa baino gehiago landu da. Egile askok atzizkien zerrendak eta sailkapenak ematen dituzte (Erdozia, 2001; Montoya, 2002; Epelde, 2004; Makazaga, 2009; Ormaetxea, 2006...), beste batzuek ostera, atzizki bakar batzuei buruzko

<sup>116</sup> Adibide hau baino ez dut batu: *luse-sabala gure bosu yakin*.

<sup>117</sup> Gehienetan, zentzu peioratiboa daukanez, Juan izena ipini dut benetako izenaren ordean.

<sup>118</sup> EGLU I-n beste mota bi agertzen dira 402. orrialdean: aditzoin + izenondo eta aditzoin + garri.

azterketak (Apalauza, 2010), eta liburuotakoaz gain, artikuluren bat edo beste ere aurki dezakegu (Salaberri & Kamino, 2001) hizkeretako hitz eratorpenari buruz.

Euskara eratorpena egiteko aurrizki, artizki eta atzizkiez baliatzen da.

### 6.2.1. Aurrizkiak

Azkuek (1923), Villasantek (1974) eta Amurizak (1974) ohartu zuten moduan, oso gutxi dira hizkera honetan erabiltzen diren euskal jatorrizko aurrizkiak.

“son escasos los de nuestra lengua, y es posible que antiguamente no tuviese ninguno” (Azkue 1923: 42)

Igorreko hizkeran euskal jatorrizko aurrizki bi baino ez dugu topatu *ber-* eta *es-*.

*Ber-* atzizkiak izena du oinarri eta "bigarren aldiz lortzen dena" da adiera orokorra. Zenbakietan baino ez dugu adibiderik topatu: *berreun*, *berrogei*...

*Es-* atzizkiak "ukapena/eza" adierazten du. Topatu den adibide bakarrean izen batekin erabiltzen da: *eseseun*.

Adibideetan ikusten denez, aurrizki hauek, gutxi izateaz gain, ihartuta daude, eta gaur egungo hizkeran ez dira emankorrak.

Erdal aurrizkien gainean esan behar da erdal hitza bere osotasunean mailegatzeko delatzen eta hortaz, hauek ezin ditugu atzizkitzat hartu, lexikalizatutako hitzak dira. Hona hemen jasotako hainbat adibide:

Des-: *desangreu*, *desaparesidu*, *desorienteu*, *despatxeu*, *deskanseu*...

Ante-: *anteoju*, *antioju*...

In- : *inkreible*, *inmortal*...

Pos-: *posgerra*...

Re-: *errebajeu*, *errebolbidu*, *errepaseu*...

Sub-: *subterraneo*...

Des- eta re- aurrizkien gainean, Irigoyenek (1979: 245) esaten du euskarak aurrizki greko-latino hauek hartu dituela bere sistemaren barruan dauden elementuak gehituz, hibridoak sortuz. Gure adibideen artean berriz, ez dugu horrelako adibiderik jaso; re- atzizkiak bere egokitzapen fonetikoa hartu du, erre-, baina besterik ez. Pérez Gaztelurentzat (2009), erdal aurrizkiari eutsita bide bi daude erdal aurrizkiak mailegatzeko: erdal hitza mailegatzeko eta hibrido bat sortzeko: erdal aurrizkia + euskal oinarria. Gure kasuan lehenengo aukera da gertatzen dena.

Adibide hauek guztiak aztertuta, esan dezakegu Igorreko hizkerako hitz-eratorpenean ez dela aurrizkirik erabiltzen. Aurki ditzakegun aurrizkiak ihartuak daude edo erdal hitza mailegatzeko da lexikalizatuta; beraz, ez dira emankorrak.

### 6.2.2. Artizkiak

Hizkera honetako hitz-eratorpenean ez dago artizkirik. Egia da hizkera honetan -ra-artizkia topatzen dugula: *eroan, erakutzi, erabili, irakatzi, erein*<sup>119</sup>, *irebasi...* baina Villasantek (1974) esan zuen moduan, ihartuta dago eta ez da emankorra.

“Por la misma razón de que se trata de un infijo fósil, que ya no es productivo, no parece procedente recurrir a él para formaciones nuevas.” (Villasante, 1974: 56)

### 6.2.3. Atzizkiak

Atzizkien sailkapena egiteko kategoria aldaketari erreparatuko diogu. Kategoria jakin bateko erro bati atzizkia eransteak beste kategoriako hitza sor dezake. Horrela, aurkezten dugun atzizkien sailkapena sortzen duten hitz berriaren arabera da: izenak, izenondoak, aditzak eta aditzondoak. Azkenik, hitzaren kategoria aldatzen ez dituen atzizkiak aurkeztuko ditugu: handigarriak eta txikigarriak. Euskarari buruzko dialektologia lanetan Makazaga (2009) da honelako sailkapena egin duen lehenengoa.

Gure corpusean, batzuetan, eratorpen-morfema batzuen adibide ugari jaso ditugu eta beste batzuetan, aldiz, oso adibide gutxi. Horrek erakusten du eratorpen-morfemen maiztasuna, eta hori islatzen da adibide kopuruan. Honen arabera ere multzokatuko ditugu.

#### 6.2.3.1. Izen-sortzaileak

Atzizki izen-sortzaileak sortzen duten hitzaren arabera sailkatzen dira, eta horrela hainbat hitz berri ditugu:

Izen abstraktuen sortzaileak

Emankorrek

-(k)erie<sup>120</sup>: *astokerie, tontakerie, sorakerie, txarrikerie, lelokerie...*

-(t)asun: *gogortasun, errestasun, argitasun, maitasun, gorritasun, gastetasun, fasilasun...*

Ez emankorrek

-arie: *altuarie, lusarie, lodiarie, sabalerie...*

-dade<sup>121</sup>: *bakardade, abilidade, edade, kalamidade, umedade, komodidade...*

-kun(d)e: *berbaikune, begikune, esakune...*

Egile izenen sortzaileak:

Emankorrek

-(l)ari: *bersolari, errementari, albokari, txistulari, kasari, pelotari, gudari...*

-(tzai)le: *galtzaile, erosle, saltzaile, garbitzaile...*

-dun: *ardaudun, ogidun, esnedun...*

Ez emankorrek

-gin: *argin, ikesgin, beargin...*

<sup>119</sup>Batuaz *eragin*.

<sup>120</sup> Askotan mugagabeaz azkeneko -e galtzen da: *astokeri, lelokeri...*

<sup>121</sup> Gehienetan mailegatuta agertzen zaigu, hitza bere osotasunean mailegatzen da, horregatik jartzen dugu ez emankorren artean.

-gile: *yoskile...*

-ko: *eskeko...*

“Multzoa” adierako izenen sortzaileak

Emankorrek

-kada: *sakukada, burdikada, basukada, eskukada...*

-tza: *bedartza, edurtze, leitze, koipetza, kakatza, uretza...*

Ez emankorrek

-(t)erie: *gasterie, saborrerie...*

-di: *pagadi, pinudi, belardi...*

“Tresna” edo “baliabide” adierako izenen sortzaileak

Ez emankorrek

-garri: *aspigarri...*

“Objektua/produktua/kolpea” adierako izenen sortzaileak

Emankorrek

-(k)ada: *sartada, ostikada, purruskada, adarkada, atxurkada...*

-ko: *musturreko, eperdiko, biotzeko, buruko...*

Ez emankorrek

-kizun: *ospakisun...*

-ki: *txarriki, odolki, olloki, barruki*

-(k)ari: *afarie, baskarie...*

“Lekua” adierako izenen sortzaileak

Ez emankorrek

-tegi: *ollategi, Txitxotegi, Iparrategi, Amant(eg)i...*

-ti / -di / -dui: *lastati, Malladui, Emaldi...*

“Garaia” adierako izenen sortzaileak

Ez emankorrek

-te: *legorte, sikite...*

Aditzoinari erantsiz, “ekintza-ondorioa” adierako izenen sortzaileak

Emankorrek

-(k)era: *ibilkera, yaskera, orraskera, esakera...*

Ez emankorrek

-men: *parkamen...*

-tza: *bisitza, yayotza, eskontza...*

-tura: *oitura...*

-(k)eta: *lapurreta, erosketa...*

### 6.2.3.2. Izenondo-sortzaileak

Mota honetako atzizki bat izen bati erantsiz gero, izenondoak sortzen dira. Normalean oinarria izen konkretua edo aditza izaten da. Gehienak oso emankorrek dira.

“Ugaritasun/maiztasuna” adierakoak

-tzu: *koipetzu, aldapatzu...*

-ti: *lotzati, bildurti, eskerti, txiseti, loti, gusurti...*

“Jatorrizkoak” adierakoak

-(s)tar: *dimostar, iorrestar, seberiostrar, billarostar, basauritar, kanpostar...*

“Joera-zaletasuna” adierakoak

-bera: *ospera...*

-(k)or: *lotsor, biskor...*

“Gaitasuna” adierakoak

-garri: *baragarri, askengarri, negargarri, lotzagarri, mingarri, estugarri, ikusgarri...*

“Jabegoa” adierakoak

-dun: *bixerdun, euskaldun, erdaldun...*

### 6.2.3.3. Aditz-sortzaileak

Mota honetako atzizkia erantsiz, emaitzako hitz eratorria aditz bilakatzen da. Normalean, oinarria izen edo izenondoa izaten da. Aditz berriak sortzeko oso gutxi dira eskura ditugun atzizkiak, -tu eta -ratu, baina oso emankorrak.

-tu: *aberastu, alkartu, gorritu, suritu, soratu, anditu, atxurtu, baltzitu, begitu, berotu, bildurtu...*

-ratu: *oiratu, atzeratu, eurreratu, alboratu...*

### 6.2.3.4. Aditzondo-sortzaileak

Mota honetako atzizki bat erantsiz, emaitzako hitza aditzondo bilakatuko da. Aditz-sortzaileetan bezala, oso atzizki gutxi dira aditzondo-sortzaileak.

Aditzondo eratorriak hitz bati aditzondo-atzizki bat erantziz eraten dira eta gehienak oso emankorrak dira. Atzizki hauek *-to / -do, -ka, -(r)ik, -ta, -ro* eta *-lan* dira.

-to / -do

Atzizki honek oso erabilera mugatua dauka.

*polito, ederto, ondo, txarto, egundo...*

-ka

Atzizki honek normalean ekintza errepikakorrek adierazten du.

*buelbaka, protestaka, barreka, saltoka, sarataka, apurke-apurke, geike, aginke...*

-(r)ik

Atzizki hau normalean adjektibo eta aditzekin erabiltzen da.

*arpelik, osorik, bisirik, posik, gaixorik, beterik, sutonik, bakarrik, ortosik, sabalik, ixilik utzik...*

-ta

Atzizki hau aditzekin erabiltzen da.

*ikusite, kantzeute, esanda, apurtute, egosite, entzunde...*

-ro

Atzizki honek oso erabilera mugatua dauka.

*barrero, astiro...*

-lan

Erakusleetatik eratorritako aditzondoekin erabiltzen da.

*olan, alan...*

### 6.2.3.5. Txikigarriak eta handigarriak

Sail honetako atzizkiek txikitasun edo handitasun adiera eransten diote, hau da, ñabardura semantikoa bakarrik eransten diote hitz berriari, ez diote kategoria aldatzen.

Izenari eta izenondoari eransten zaizkion txikigarriak

-anda: *ollanda...*

-illo: *moskorrillo...*

-nga: *putanga, soranga...*

-ño: *andereño...*

-tila: *neskatilla, eskutilla...*

-txi: *neskatxi, kortatxi, lastatxi...*

-txu: *amatxu, positxu, aitetxu, gastetxu, astotxu, txarritxu, anditxu, apurtxu, neskatxitxu, kafetxu, txapeltxu, gitxitxu, mojatxu, kotxetxu, eskinetxu, asitxu...*

-ska: *suriska, gorriske...*

Izenari eransten zaizkion handigarriak

-kaso: *adarkaso, askorakaso...*

-sar: *katusar, txakursar, beisar, eskusar...*


Hauetatik guztietatik esan daiteke *-txu* dela emankorra den atzizki bakarra.

## 6.3. Sumarioa eta ondorioak

Elkarketa eta eratorpena atalean lexikoa sortzeko bideak aztertu ditugu. Morfologia lexikoari buruz jardun dugu. Honetan hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena izan dugu aztergai. Bide hauek guztiak hierarkia prosodikoaren teorian sintagma-fonologikoan gauzatzen dira. Laburbilduz hauek dira Igorreko hizkerak dauzkan bideak lexikoa sortzeko:

## Elkarketa

Elkarketaren bidez izen elkartuak eta izenondo elkartuak sor daitezke, aditz elkaturik orde, ez. Izen elkartuen artean mota bi bereiz ditzakegu, izen elkartu arruntak eta izen elkartu bereziak. Izenondo elkartuak modu bitan sor daitezke, izen + izenondo, edo izenondo + izenondo.



12. eskema. Elkarketa

## Eratorpena

Eratorpenean hiru erator-hizki bereizi ohi dira: aurrizkiak, artizkiak eta atzizkiak. Villasantek (1974) argi utzi zuen bezala, euskaraz *-ra-* artizkia ihartuta dago eta ez da emankorra, aspaldi utzi zion lexiko berria sortzeari. Aurrizkien gainean antzera gertatzen da hizkera honetan. Bi baino ez ditugu, *des-* eta *es-*, eta biak ez dira batere emankorrak. Gainera, mailegatzen dituenean, erdal hitza oso-osorik mailegatzen du eta ez aurrizkia, ez da hibridorik sortzen. Atzizkiekin berriz, bestelako egoera daukagu. Atzizki ugari daukagu lexiko berria sortzeko. Lan honetan aurkeztu dugun sailkapena sortzen duten hitz berriaren arabera izan da: izenak, izenondoak, aditzak, aditzondoak eta azkenik kategoria aldatzen ez duten atzizkiak: txikigarriak eta handigarriak. Dena den, atzizki guztiek ez dute emankortasun bera. Gure adibideetan erakutsi dugun moduan, atzizki batzuk ia ihartuta daude.

Beraz, hizkera honek lexiko berria sortzeko dauzkan baliabideak, mailegatzeaz gain, elkarketa eta eratorpena dira. Elkarketan izen elkartuak eta izenondo elkartuak sortuz, eta eratorpenean atzizkien bidez lexiko berria sortuz.





**EMAITZAK  
ETA  
ONDORIOAK**

## 7. Emaizak eta ondorioak

Lan honetan Igorreko hizkera ahalik eta zehatzen aztertzen ahalegindu naiz; arloz arlo jardun dugu hizkera honen arauak ikertzen eta azaltzen. Azterketa hau, eta Euskal Herriko beste herri askotakoak, premiazoak dira hizkera hauek galtzear daudelako; belaunaldi berriek, alfabetizazioa eta batua direla medio, bestelako hizkera daukatelako, eta beste azterketa bat beharko luketenak. Dialektologiarako ekarpen berria da, lehenengo aldia delako Arratiako hizkera bat aztertzen dela. Bonaparteren garaitik hona, hainbat sailkapen egin dira non Arratiako euskara, Arratiako barietatea deritzona, agertzen zen, nahiz eta hau ez den inon sakon aztertua izan. Gure lana ez da deskripzio hutsa, aztertu ditugun arlo guztiak gobernatzen dituen arau gramatikalak eman baititugu eta gure helburua, Igorreko gramatika arautua aurkeztea izan baita.

Puntu honetan lan honek lortutako emaitzak eta ondorioak aurkeztuko ditugu. Emaizetan nagusiki atal bi bereziko ditugu. Alde batetik, hizkera honen gramatikan gauzatzen diren arauak hierarkia prosodikoaren arabera sailkatu ditugu, eta, beste alde batetik, dialektologia tradizionalen hizkera honetarako eman diren ezaugarriak gauzatzen diren aztertu dugu, bai Zuazok (2008 eta 2014) emandakoak, bai Gamindek (2007b) emandakoak, bai Hualderenak (1997) azenturako eta baita Aurrekoetxearenak (1994) hitanorako. Ezaugarri hauek aztertzeaz gain, Arratiako barietatearen mendebaldeko muga zehatzen ahaleginduko gara, Bonaparteren (1869) sailkapena eta Gaminderena (2007b) edota Zuazorena (2014) ez baitatoz bat. Ondorioetan gure hipotesia (ikus 1.6. puntua) bete den ala ez frogatuko dugu.

### 7.1. Emaizak

#### 7.1.1. Gramatika honen arauak

Ondoko puntuetan, arloz arloko ezaugarrien eta ekarpen berrien laburpena eman dugu: fonologian, izen-sintagman, aditz-sintagman, syntaxian eta lexikoan.

Ondoren, arlo hauetan aztertu ditugun arauak hierarkia prosodikoaren teoriaren arabera (ikus 1.4. puntua) zein eremutan gauzatzen diren zehaztuko dugu. Azterketa honetarako hierarkia prosodikoak aurkezten dituen zazpi osagaiak barik, bost izan dira aztergai izan ditugunak. Intonazio esaldia eta testu fonologikoa alde batera utzirik, hauek dira gure azterketaren osagaiak:

PPh Phonological Phrase / Sintagma fonologikoa

CG Clitic Group / Talde klitikoa

PW Prosodic Word / Hitz fonologikoa

Ft Foot / Oina

σ Syllable / Silaba

**7.1.1.1. Fonologia**

Ondorio bezala, fonologian hauek dira Igorreko hizkeran gauzatzen diren arauak:

## a) Inbentarioa

Fonemen inbentarioa 2.1. puntuan eman dugu. 2.1.1. puntuan bokalen inbentarioa, eta 2.1.2. kontsonanteena.

## b) Arauak

Ikerketetan erabili diren maila sozialeko jendeak duen inbentario fonologikoa eta fonologia arauak deskribatzen ditugu. Ez da arau gehiagorik.

## b1) Bokaletan

- a > e / i,u (C)\_\_\_ asimilazioa
- a + a > ea disimilazioa
- e- eta a- bokal protetikoak
- Diptongoetan au > eu bilakaera hiztun gehienek gauzatu dute, baina ez denek.

## b2) Kontsonanteetan

- Txistukarien neutralizazioa

Hizkera honetan lau fonema daude: bi frikari (/s/ eta /ʃ/) eta beste afrikari ( $\widehat{ts}/$  eta  $\widehat{tʃ}/$ ).

- Palatalizazioa

[j] bokalerdiarekin [n], [l], [s] eta  $\widehat{ts}$  beti bustitzen dira. [i] bokalarekin, aldiz, hautazkoa da bustidura.

[j] bokalerdiarekin: j + n > [ɲ]; j + l > [ʎ]; j + s > [ʃ] eta j + tz >  $\widehat{tʃ}$

[i] bokalarekin: i + n > [ɲ] zein [ɲ]; i + l > [l] zein [ʎ]; i + s > [ʃ] zein [ʃ] eta i + tz >  $\widehat{tʃ}$  zein  $\widehat{ts}$ .

Hitanozko hainbat adizkitan palatalizazioa kontrako norabidean gauzatzen da: *ñatok, ñoak, llatak...*

- Ohikoak diren kontsonanteen arteko shandiak:

Leherkari ahostunen ahoskabetzea.

Kontsonante inplosiboaren galera.

Afrikatuen frikatzea.

'Ez' partikulak eragiten dituen aldaketak.

[j] herskariaren afrikatzea.

-st kontsonante multzoaren bilakabidea.

- Aditzean gertatzen diren sinkopak:

Etorkizuneko (-ko/-go) aditz-partizipioa *do-z* hasten diren aditz laguntzaileekin.

-n-z amaitutako aditz-partizipioak bokalez hasten diren aditz laguntzaileekin.  
“Behar” aditzak dituen ahoskerak.

### b3) Azentua

Igorreko azentua bereizgarria da. Laburpena eginez, esan daiteke azentua singularrean eta mugagabeen 1] dela eta pluralean azentua silaba bat ezkerrerago txertatzen dela. Deskribapen honetaz gain, badaude hainbat arau kontuan hartu behar direnak.

Ekarpen berrien artean, esan behar da, orain arte herri hizkeretako monografia batean egin den azterketarik sakonena aurkezten dugula. Fonetikan, azterketa akustikoetarako, beste programa batzuen artean, Praat erabili dugu, eta ez dugu pertzepzioan oinarritutako azterketarik egin; gure asmoa, teknologia berriak erabiltzen dituen dialektologia modernoa egitea izan da. Ondorioz, bokal eta kontsonanteen inbentario sakona, handia eta zehatza gauzatu dugu. Halaber, Praat programaz baliatuz, azentua azterketa zehatza egitea lortu dugu.

Baina, arestian esan dugun bezala, gure azterketa ez da deskripzioa hutsean geratzen, atal guztietan ahalegindu baikara hizkera honetan gauzatzen diren arauak azaltzen.

#### 7.1.1.2. Izen-sintagma

Hona hemen, arloz arlo, hizkera honen ezaugarri nagusiak:

##### a) Izena

- Deklinabidea
  - Ergatiboa, datiboa eta jabego genitiboaren singularrak eta pluralak morfema bera daukatenez, azentua bidez baino ez dira bereizten.
  - Sozietiboko atzizki morfemak *-agas* (sg.) eta *-akas* (pl.) dira.
  - Motibatiboan eta ablatiboan atzizki morfemaren -k hautazkoa da: *-ti* zein *-tik* eta *-agaiti* zein *-agaitik*.
  - Ablatiboan *-ti(k)* atzizkiaz gain *-rik* atzizkia ere badago: *etzerik ara, nosik ona?...*
  - Destinatiboko *-tzat* eta *-tzako* morfemen erabileran ez dago bereizketarik; berdin erabiltzen dira. *-tzako* aldaerak izenlagun izaera galdu du.
  - Instrumentala fosilizatuta dago eta kasu zehatz batzuetan baino ez da erabiltzen. Bere ordeztan *-ren ganean* erabiltzen da.
  - Inesiboko, eta inesiboaren gainean eratzen diren beste kasuetako pluraletan *-ata* da plurala egiteko morfema: *etzeatan, etzeatara...*
  - Hurbiltze adlatiboko morfema *-rantza* da.
  - Muga adlatiboko morfema *-raño* da.
  - Bizidunekin, inesibo kasuaren atzizkia ez da erabiltzen. Bere ordeztan sozietiboarena erabiltzen da.

- Izenordainak
  - Beste hizkera askotan erabiltzen ez diren *neu /nau* tankerako izenordain indartuak (ikus Zuazo, 2008: 75).

#### b) Adjektiboa

- *-txu* atzizki txikigarria erabiltzen dira.
- Goi maila adierazteko adberbioak: *oso, sano, ondo, gustis, ain* eta *lar*.
- Nahikotasuna adierazteko: *naiko* eta *bastante*.
- Konparaketak egiteko: *-ago, semet eta, gero eta, asko be, -en* eta *-egi*.

#### c) Determinatzaileak

- Erakusleek sustrai berbera dute singularrean eta pluralean: *onék / ónek*. Batzuetan bokalismoaren bidez bereizten dira: *onék / óneik*.

- Erakusleak izenaren ezker aldean zein eskuinaldean agertzen dira: *onek gixonak, onek mendi onek, momentu onetan...*

- *Bi* zenbatzailea izenaren eskuinaldera: *idi bi, mutil bi...*

- Zenbatzaile zehaztugabeak ondoak dira: *batzuk, asko, gitxi, ugeri, urri, honenbeste, orrenbeste, ainbeste, naiko, ainbet, makina bat, apur bet, arean, eskandalu, bastente, senbekure, gurañe, gure dana* eta *edo*.

- Zenbatzaile orokorrak: *dana* eta *gusti*.

Beste monografiaren aldean, hala nola, Ormaetxea (2006) edota Makazaga (2009), ez da ohiko bidea jarraitu atal honen azterketan. Gure helburua, Igorreko hizkeraren gramatika azaltzea izan denez, egokia iruditu zaigu *Euskal Gramatika Lehen Urratsak*-ek dakarren sailkapenari jarraitzea. Izenaren inguruan, izen morfologia barik, izen-sintagma da aztertzen dena. Horrela, izen-sintagmaren osagaiak diren izena, adjektiboa eta determinatzaileak izan dira aztertuak atal honetan.

Honetan ere, osagai guztien erabilera erakutsi dugu, eta, bereziki azaldu ditugu deklinabidea ezartzeko gauzatzen diren arau morfologikoak.

#### 7.1.1.3. Aditz-sintagma

Aditzaren inguruan ere, aditz morfologiaz barik aditz-sintagmaz aritu gara. Horrela, aditz-sintagmaren osagaiak aztertu ditugu: aditza eta adberbioa. Eta adberbioaren barruan, adizlagunak eta aditzondoak.

#### a) Aditza

Tratamenduei dagokienez, aipatu behar da, berorika ez dela erabiltzen eta andrazkoen hitanoa oso marginala dela. Beraz, esan daiteke, ohiko jardunean tratamendu bi daudela: neutroa eta gizonezkoen hitanoa.

Aditz-partizipioei dagokienez, era askotako aditz-partizipioak daude:

Euskal jatorrizkoak: *-tu/-du*, *-atu*, *-i*, *-n*, *-a*, *-e*, *-o* eta *-l*.

Erdal jatorrizkoak: *-eu* (gazt. *-ado*) eta *-idu* (gazt. *-ido*).

Aditz-izenak partizipioaren arabera eratzen dira:

Aditz-partizipioa	Aditz-izena
<i>-tu/-du</i>	<i>-tzean</i> , <i>-tan</i> eta <i>-tuten/-duten</i>
<i>-atu</i>	<i>-ten</i>
<i>-eu / -au</i>	<i>-(e)tan</i>
<i>-idu</i>	<i>-duten</i> eta <i>-ten</i>
<i>-i</i>	<i>-ten</i>
<i>-n</i>	<i>-ten</i>
<i>-a</i>	<i>-ten</i>
<i>-e</i>	<i>-tan</i>
<i>-o</i>	<i>-ten</i>
<i>-l</i>	<i>-ten</i>

Aditzaren inbentarioan ez dugu aditz-taula perfekturik erakutsi, ahozko jardunean hitzunez adizki kopuru txikia erabiltzen dutelako. Horrela, hitzunez askotan beste modu batez ordezkatzeko dute guk eskatu nahi izan diegun adizkia. Ondorioz, ahalera, gehienetan, aditz perifrastikoen bidez eratzen da, eta subjuntiboa *-teko* nominalizazioaren bidez.

Hauek dira erabiltzen diren aditz laguntzaileak sailez sail:

	Nor	Nor-Nori	Nor-Nork	Nor-Nori-Nork
Indikatiboa	Izan	Izan	*Edun eta Eutsi	Eutsi
Baldintza	Izan eta Edin	Izan	*Edun eta Eutsi	Eutsi
Ahalera	Edin	-----	Egin	-----
Subjuntiboa	Edin	-----	Egin	-----
Agintera	Edin	-----	Egin	Egin

Hona hemen aditz laguntzaileen ezaugarriak bereizgarrienak:

- \**edun*-en hitanoko adizkien hasierako kontsonantea *y*-: *yok* ‘dik’.
- *-o-* eta *-au-* \**edun*-en erroan: *dot* ‘dut’, *nosu* ‘nausu’. Lehenaldian *-eu-*: *neuen* ‘nuen’.
- 3. pertsonetako Nor argumentuari dagokion pluralgile nagusia *-s*: *daus* ‘daude’, *dabis* ‘dabiltza’, *dodas* ‘ditut’...
- Nor-Nori izan laguntzailearen lehen kontsonantea *y*-: *yako* ‘zaio’.

- Nor-Nori saileko iragana egiteko 'oraina + -n': *yakon* 'zitzaion'.

- Aditz sailetan nabarmendu behar da Nor-Nork-en galera Nor hirugarren pertsona ez denean, honen ordez Nor-Nori-Nork saileko formak erabiltzen dira. Hau ere gertatzen da Nor-Nori sailean, Nor hirugarren pertsona ez denean nekez erabiltzen dira forma horiek, gehienetan, ez baitira ezagunak.

- Denbora eta komunztadura sinplifikatzea ere ohikoa da. Askotan, lehenaldiak egiteko, orainaldia + n erabiltzen da; subjuntibo bakarra dago orainaldia eta iraganerako... Gutxiagotan erabiltzen diren pertsonetan ohikoa da komunztadura eza: *suek emon sinduen guri*.

- Lehenaldiko 3. pertsonaren ezaugarria  $\emptyset$ : *euén, egoan, ebilen, euken...*

#### b) Aditzondoa

Egindako azterketaren ondorioz, honako hauek dira aditzondoen ezaugarriak nabarmenak:

- Aditzondo indefinitu konposatuak egiteko *I-* eta *Nai-* aurrizkiak baino ez dira erabiltzen: *iños, iñon, nainos, nainon...*

- Erakusleetatik eratorritako leku-adberbio indartuak egiteko *A-* eta *Ber-* aurrizkiak eta *-(t)xe* atzizkia: *amen, ementxe, bertan...*

#### 7.1.1.4. Sintaxia

Sintaxian perpausa eta lokailuak aztertu ditugu. Berrikuntzarik handiena perpaus bakunen azterketa da, dialektologia arloko lan gehienetan perpaus elkartuen azterketa baino ez delako egiten.

#### a) Perpausa

- Perpaus bakunak  
Zazpi perpaus bakun mota aztertu ditugu: jokatuak, jokatugabeak, adierazpen perpausak, galde-perpausak, aginte-perpausak, harridura perpausak eta baeizko eta ezezko perpausak..

- Perpaus elkartuak

Perpaus elkartuetan, juntaturari dagokionez, hauek dira erabiltzen diren juntagailuak:

Emendiozkoak: *eta, be, bai... bai, es... es* eta *bakarrik es*.

Hautakariak: *edo, ala, nai* eta *sein*.

Aurkaritzakoak: *baya, baño, barik* eta *bearrean*.

Eta menderakuntzari dagokionez, ondoko perpausak dauzkagu:

Perpaus osagarriak: *-(e)la, -(e)nik, -(e)na, -(e)n* eta *-(e)lakoan*.

Perpaus erlatiboak: *-(e)n, -(e)na, -ko* eta *-tako*.

## Konparazio-perpauzak:

berdintasuna			ezberdintasuna		
maila	zenbatasuna	modua	maila	zenbatasuna	modua
<i>besteko</i> <i>-lango / -lako</i> <i>les</i> <i>antzeko</i> <i>moduko</i>	<i>beste</i>	<i>les</i> <i>antzera/ antzean</i> <i>modure / moduen</i> <i>erara / eran</i>	<i>baño... ao(a)</i>	<i>baño... geyao</i> <i>baño... gitxiao</i>	<i>moduen</i>

Ondorio-perpauzak: denak lokailugabeak dira.

Helburuzko perpauzak: subjuntiboa, *-ten*, *-teko*, *-tekotan*, *-teko intensiñoa*, *-tearren* eta *-teagaitik*.

Kausazko perpauzak: *-(e)lako*, *eta*, *-(e)la eta*, *se (...eta)*, *-nes kero*, *-(e)na les*, *-n moduen*, *-teagaiti(k) / -teagaitiño*, *-tearren* eta *-tearrik*.

Baldintza-perpauzak: *Ba-*, *-s kero*, *esik*, *esean* eta *-tekotan*.

Denborazko perpauzak:

Esaldi nagusia denborazko perpauzaren...	Jokatuak	Jokatugabeak
<b>Lehenagokoak</b>	<i>-nerako</i>	<i>orduko</i> <i>baño len</i> <i>aurreti(k)</i>
<b>Aldi berekoak</b>	<i>-nean</i> <i>-(e)n orduen</i> <i>-(e)la</i> <i>-(g)as batera</i> <i>-(e)n artean</i> <i>-(e)n bitartean</i> <i>-(e)n gustietan</i> <i>-(e)n orduko</i> <i>-(e)n bakotxean</i>	<i>-keran</i>
<b>Beherealakoak</b>		<i>eta laster</i> <i>eta atoan</i> <i>eta segiduen</i> <i>barri</i> <i>ala</i>
<b>Ondorengoak</b>	<i>-nean</i>	<i>eta gero</i> <i>ostean</i> <i>orduen</i> <i>bein (...) eskero</i> <i>eskero</i>
<b>Abiapuntuak</b>	<i>-(e)neti(k)</i> <i>-nik... ona</i>	
<b>Amaierakoak</b>	<i>-(e)n arte(an) / -(e)n arteiño</i>	<i>arte / arteiño</i> <i>arrik eta... arte</i>
<b>Noizkoak</b>	<i>-(e)neko</i>	<i>-ko</i>

Kontzesio-perpauzak: *Ba... be*, *-(e)la be*, *nai te*, *arren*, *-ta... be*, *-s kero... be* eta *aunke*.

Moduzko perpauzak: *-(e)n moduen*, *-(e)n les*, *-na les*, *-nes*, *-(e)la*, *-(e)s*, *-ta*, *-(r)ik*, *barik*, *-teko moduen / moduko(a)*, *-tea moduen* eta *-tea les*.



## b) Lokailuak

Honako lokailu hauek erabiltzen dira:

Emendiozkoak: *Be, ganera, beintzet eta sikanan*.

Hautakariak: *bestala, ostantzean, espabe eta ostein*.

Aurkaritzakoak: *ostera, ala ta gustis be, barres eta en kanbio*.

Ondoriozkoak: *orduen*.

## 7.1.1.5. Elkarketa eta eratorpena

Elkarketa eta eratorpenean hizkera honek lexiko berria sortzeko dauzkan bideak aztertu ditugu: elkarketa eta eratorpena.

Elkarketan hiru bide daude: izen, izenondo eta aditz elkartuak eginez.

Ertorpenari dagokionez, esan behar da ia bide bakarra dagoela, atzizkien bidez. Erabiltzen diren aurrizkiak ihartuak daude, ez dira emankorrak. Gauza bera esan daiteke *-ra-* artizkiari buruz. Atzizkiak sortzen duten kategoriaren arabera sailkatu ditugu: izen-sortzaileak, izenondo-sortzaileak, aditz-sortzaileak eta aditzondo-sortzaileak. Sailkapen honetaz gain, atzizki bakoitza emankorra den ala ez den aipatu dugu. Laburbilduz, hauek izango lirarteke atzizki emankorrak sortzen duten kategoriaren arabera:

Izen-sortzaileak:

*-(k)erie*

*-(l)ari*

*-(tzai)le*

*-dun*

*-(t)asun*

*-kada*

*-tza*

*-(k)ada*

*-ko*

*-tegi*

*-ti / -di / -dui*

*-(k)era*

Izenondo-sortzaileak

*-tzu*

*-ti*

*-(s)tar*

*-bera*

*-(k)or*

*-garri*

*-dun*

Aditz-sortzaileak

*-tu*

*-ratu*

Aditzondo-sortzaileak

*-to / -do,*

*-ka,*

*-(r)ik,*

*-ta,*

*-ro*

*-lan*

### 7.1.1.6. Lexikoa

Arlo honetan ere, berrikuntza bat ekarri da 1. eranskinean, lexikoan aurkezten den zerrenda ahozko jardueraren erakusgarri inpartziala delako. Ez dugunez ezer ostendu edo baztertu nahi, erabaki zen transkribatutako corpus osoaren lexikoa erakustea, gaztelaniazko maileguak barne. Mailegu berriak, orain arteko lan guztietan baztertuak izan dira —ikus Ormaetxea (2006) edota Makazaga (2009)—, baina gurean, hauek, hain zuzen ere, dira berrikuntza. Ahozko jardueran barra-barra erabiltzen direnez, ez dugu zilegi ikusten honen moduko lan-monografikoetako hiztegitxoetatik sistematikoki baztertzea. Modu honetan, lortu izan dugu Igorreko hizkeraren lexikoaren ikuspuntu zabalagoa eta osoagoa eskaintzea, errealitateari egokitzen zaiona.

Corpus osoan zehar ez da hapax-ik agertu, hitz guztiak Larrea & Rekalderen (2010) hiztegian euskal ondarezko hitzei buruz, eta DRAE-n, maileguei buruzko jatorrizko adierari dagokionez, jasota daude.

Lan honetan transkribatutako 176 orrialdeetatik ateratako 3102 sarrerak betetzen dute aurkezten den lexikoa.

### 7.1.1.7. Arauak gauzatzeko eremua hierarkia prosodikoan

Igorreko hizkeraren gramatikan gauzatzen diren arau guztiak sailkatu ditugu hierarkia prosodikoaren teoriaren arabera. Azterketa honetan hierarkia prosodikoaren bost osagai baino ez ditugu izan aztergai: silaba, oina, hitz fonologikoa, talde klitikoa eta sintagma fonologikoa (intonazio esaldia eta testu fonologikoa azterketa honetatik kanpo utzi dugu). Beraz, hurrengo lerroetan azalduko dugu arau bakoitza gauzatzeko eremua zein den hierarkia prosodikoan.

a) Sintagma fonologikoan gauzatzen diren arauak

- Deklinabide-kasuak ezartzeko arauak (ikus 3.4. puntua). Honako hauek dira deklinabide-kasuak ezartzeko arauak:

- 1) Hitza.
- 2) Mugatu singularra bada, mugatu singularraren marka.
- 2a) Leku-genitibo, ablatibo, adlatibo, norabide zuzenezko adlatibo eta muga adlatibo deklinabide-kasu singularrean ez da azalean agertzen.
- 3) Kontsonantez amaitzen bada, loturazko bokala.
- 3a) Partitiboa bada eta bokalez amaitzen bada, *-r-* kontsonantea da lotura.
- 4) Plurala bada pluralaren marka aukeraketa.
- 4a) Ergatiboa, datiboa, jabego genitiboa eta destinatiboa singularrean legez deklinatuko dira; euren plural marka azentua baita
- 4b) Absolutiboaren, soziatiboaren, motibatiboaren eta bizidunen leku-denborazko kasuen plurala *-ak* da
- 4c) Bizigabeen leku-denborazko kasuen plurala, *-ata*
- 5) Mugatua bada, mugatuaren marka (bizigabeen leku-denborazko kasuek baino ez daramate, eta *-ta-* da).
- 6) Deklinabide atzizkia(k).



- Kontsonanteen arteko shandietan gertatzen diren arauak talde klitikoan gauzatzen dira. Guztira sei dira gauzatzen diren arauak (ikus 2.3.2.2.1. puntua) :

- 1) Leherkari ahostunen ahoskabetzea  
(b, d, g) > (p, t, k) / (C [- voice])\_\_\_
- 2) Kontsonante inplosiboaren galera
- 3) Afrikatuen frikatzea  
(-tz, -tx) > s / \_\_\_C
- 4) 'Ez' partikulak eragiten dituen aldaketak  
(b, d, g) > (p,t,k) / ez\_\_\_  
[j] > [tʃ] / ez\_\_\_  
(l, n) > Ø / ez\_\_\_
- 5) [j] frikariaren afrikatzea  
[j] > [tʃ] / (-t, -k)\_\_\_
- 6) -st kontsonante multzoaren bilakabidea  
-st > -s / C\_\_\_

#### c) Hitz fonologikoan gauzatzen diren arauak

- Bokal protetikoaren ezarpena, -e eta kasu gutxiagotan -a, hitz fonologikoaren eremuan gauzatzen da. Hizkera honetan, eta euskararen ohikoa den bezala, ezin da ahoskatu dardarkaria hitz hasieran ez bada mailegu oso-oso berrietan; dardarkariaren ahoskatze hori saihesteko bokal protetiko bat ezartzen da (ikus 2.3.1.1.2. puntua).

- Bi dira maileguen egokitzapenak hitz amaieran (ikus 2.3.1.1.3.):

Erdaraz		Euskaraz	
-ón	>	-oi	camión > <i>kamioi</i> , melocotón > <i>melokotoi</i> ...
-ión	>	-iño	televisión > <i>telebisiño</i> , explosión > <i>esplosiño</i> ...

- a + a > ea (ikus 2.3.1.2.1.puntua)

Hierarkia prosodikoan eztabaidatzeke den gaia daukagu honako hau. Erabaki behar da hitz fonologikoa bakarrik erroa den, edo erroa gehi artikulua den. Guk erroa + artikulua dela proposatu dugu.


#### d) Oinean gauzatzen diren arauak

Gure hipotesiaren kontra, eta marko teorikoan (ikus 1.4. puntua) esan bagenuen ere, hierarkia prosodikoaren bost osagai izango genituela aztergai, egin dugun azterketan ez da araurik gauzatu oinaren eremuan.

#### e) Silaban gauzatzen diren arauak

- Diptongoetan gertatzen den *au* > *eu* araua silabaren eremuan gauzatzen da. Arau hau momentu honetan, belaunaldi honetan, gauzatzen ari da. Lekuko gehienek *eu* ahoskatu arren, batzuek *au* ahoskatzen dute eta beste batzuek biak, *eu* zein *au*.

Beraz, hauek dira Igorreko hizkeran gauzatzen diren arauak hierarkia prosodiko batean. Hasieran hierarkia prosodikoaren bost osagai kontuan hartu bagenituen ere gure ikerketarako, azterketaren emaitzek argi utzi dute gure datuetarako bost osagai horietatik lau baino ez ditugula behar oinaren eremuan ez delako araurik gauzatzen. Hortaz, honako hierarkia prosodiko hau daukagu ikerketa honetan:



## 7.1.2. Dialektologia tradizionalen emandako ezaugarriak

Asko dira dialektologian egin diren sailkapenak, batzuk eremu zabalagokoak, Euskal Herri osokoak, eta beste batzuk eremu txikiagokoak, bizkaierakoak, Bizkaikoak, Arratiakoak... Sailkapen batzuetan ezaugarri fonologikoak hartu dira kontuan, beste batzuetan aditz-morfologiakoak eta abarrekoak. Puntu honetan egiaztatu behar dugu sailkapen hauetan Igorrerako ematen diren ezaugarriak betetzen diren. Honetarako, lau sailkapenetan emandako ezaugarriak frogatuko ditugu Igorren batutako datuekin, Zuazok (2008 eta 2014) emandako ezaugarriak mendebalerako, Gamindek (2007b) Bizkaian aztertutakoak, Hualdek (1997) & Gamindek (1998) azenturako eta Aurrekoetxeak (1994) hitanorako.

### 7.1.2.1. Zuazo (2008) eta (2014)

Zuazok (1998) eman zuen bere lehen sailkapena euskalkietarako. 2008ko liburua bere lana fintzearen ondorioa da. Honetan, bost euskalki bereizi zituen: zuberotarra, mendebalekoa, erdialdekoa, nafarra eta nafar-lapurtera. Bere irizpide metodologikoetan (2008: 18) hiztunak gauzak esateko dituen aukerak lau multzotan banatzen ditu: a) arauak, b) garatu gabeko arauak, c) aldaerak eta d) bazterreko gertakariak. Zuazoren sailkapenaren arabera Igorreko hizkera mendebaleko euskararen eremuan kokatzen da, zehazki sartaldeko azpieuskalkian (2008: 63).

Guk batutako datuekin Zuazok (2008: 61-89) mendebaleko euskararako eman zituen 56 ezaugarriak frogatu beharko lirateke; horregatik, hurrengo lerroetan ahaleginduko gara Zuazok emandako ezaugarriak banan-banan berresten Igorreko datuekin. 56 ezaugarriak sei multzotan azaltzen ditu Zuazok: fonologia, morfologia, morfosintaxia, garatu gabeko arauak, lexikoa, eta aldaerak. Hona hemen sailkapena Igorreko adibideekin:

- **Fonologia**

**Bokalak**

(1) *-a* amaiera duten hitzei singularreko artikulua gehitzen zaizkienean *-a* hori *-e* egiten da: *alaba + a > alabea*, *taberna + a > tabernea*, *bentana + a > bentanea*...

(2) *-e* amaiera duten zenbait hitz *-a* amaierakotzat hartzen dira: *andre → andra*, *bele → bela*, *labe → laba*, *lore → lora*, *landare → landara*, *viaje (gazt.) → bieja*...

(3) *-au-* diptongoa *-eu-* egiteko joera.

Esan bezala, Igorren diptongo hau era bietara egiten da lekukoaren arabera, nahiz eta gehienek *-eu-* ahoskatu, 2.3.1.1.3. puntuaz azaldu dugun moduan gure corpusean diptongo hau honako ehunekoetan erabiltzen dira:

*-eu-*    %85,71

*-au-*    %14,28

Adibideak:

Hitzetan: *gause* zein *geuse*, *eusoa* zein *ausoa*

Aditz partizipioetan: *amatau* zein *amateu*, *akabau* zein *akabeu*...

EDUN adizkietan: *dau* zein *deu*, *daurie* zein *deurie*...

EDUKI-ren adizkietan beste urrats bat egin da *-au-* → *-eu-* → *-e-*: *dekot*, *deko*, *dekosu*... baina inoiz oso kasu gutxitan *-eu-* diptongoa ere egiten da: *deukosu*, *deuko*...

**Kontsonanteak**

(1) Txistukari sail bien neutralizazioa:

*z* eta *s* biak egin dira *s*: *esker* 'esker/ezker', *su* 'su/zu', *asi* 'hasi/hazi'...

*tz* eta *ts* biak egin dira *tz*: *aberatza*,

(2) Bustidura: *j* bokalardiaren ondoren *z* → *s* eta *tz* → *tx*:

*z* → *s*: *elaxea*, *axea*, *lexarra*...

*tz* → *tx*: *atxurre*, *gatxa*, *atxa*, *bakotxa*...

(3) Bustidura: *i* bokalak ere *z* → *x* aldatu du.

Puntu honetan zehaztu behar dugu bilakaera hau ez dela beti gauzatzen. 2.3.2.1.1 puntuaz esan bezala, testuinguru honetan lekukoak bide bi dauzka:

a) Hitz batzuekin ez du inoiz bustiko

Maileguekin ez du bustiko: *pisue*, *lisue*, *txorisoa*...

Inoiz bustitzen ez diren Euskal jatorrizko berbak: *dabisenean*, *ikisi*, *dakisue*, *bisi*...

b) Beste hitz batzuekin hautazkoa izango du, batzuetan bustiko ditu eta beste batzuetan ez.

*gisóna* zein *gixóna*

*iséna* zein *ixéna*

*isín* zein *ixín* 'izan'

(4) hitzak batzerakoan *l*, *n* eta *r* ondoren ez da txistukari afrikatua (*tz*) ahoskatzen, frikaria baizik: *il siren* (ez *hiltziren*), *eon san* (ez *egontzan*), *se san* (ez *zertzen*)...

- **Morfologia**

### Izenaren morfologia

(1) Artikulu hurbilek bizirik iraun dute: *berton*, *etxeori*...

(2) Soziatiboan *-gaz* atzikia erabiltzen da eta pluralean *-kaz*: *lagunegas*, *lagunekas*, *besoagas*, *besoakas*..

(3) Hurbiltze adlatiboan *-rantza* atzikia erabiltzen da: *etzerantza*, *solorantza*, *Dimerantza*...

(4) Aditz izena mugimenduzko aditzen osagarri izan eta norabidea edo helburua adierazten duenean, zertan kasua erabiltzen da: *txise iten noa*, *ama ikusten yoan da*...

(5) Ablatibo zaharreko *-rik* atzikia erabiltzen da: *txikiterik*, *atzorik ona*...

(6) Erakusleak itxura berekoak dira singularrean eta pluralean, baina batzuetan *-i-* bokala agertzen da pluralean eta beti bereizten dira azentuagatik:

Sg.	Pl.
<i>onék</i>	<i>ónek, óneik eta ónik</i>
<i>orrék</i>	<i>órrek, órreik eta órrik</i> ...

(7) 'Neu' saileko izenordain ordainak erabiltzen dira: *neu*, *eu*, *geu*, *seu*... Arrotzak dira 'neroni' eta 'nihaur' gisakoak.

(8) 'Edo + izenordain galdetzailea' egiturako izenordain sail osoa dago: *edonor*, *edonogas*, *edonon*, *edoser*...

(9) 'Izenordain galdetzailea + Edo + izenordain galdetzailea' egiturako izenordain sail osoa dago: *nonor*, *nonok*, *nonori*, *nonon*..

(10) Erdal *-(c)ión* amaiera *-(s)iño* egiten da: *erlijíñoa*, *afisiñoa*, *solusiñoa*, *atensiñoa*, *estensiñoa*, *dibersiñoa*, *telebisiñoa*...

(11) Moduzko adberbioetan *-n* gehitzen da: *selan*, *seoselan*, *olan*, *alan*...

### Aditzaren morfologia

(1) \*Edun-en erroan *-o-* eta 3. pertsonetan *-au-* agertzen direla orainaldian dio Zuazok (2008: 77), baina kontuan hartu behar dugu diptongoetan, gehienetan, *-au-* → *-eu-* bilakaera daukagula: *dot*, *deu*, *dosu*, *deure*...

Iraganaldian eta baldintzan *-eu-* dago adizki batzuetan: *neuen*, *euen*, *eurien*, *baleu*, *leukie*, *neuke*...

(2) Nor-Nori-Nork sailean Eutsi da erroa. Hizkera honetan *-eu-* → *-o-* kontrakzioa gauzatu da: *dotzut, dostesu, dotze, dosku...*

(3) \*Ezan aditzaren ordeztu Egin aditza aginteran, ahaleran eta subjuntiboan: *ein ñekek, ikusik, in daigun...*

(4) Arrotza da Ari Izan aditza, horren ordeztu Egon eta Ibili erabiltzen dira: *leiduten dau, setan sabis?*... Jardun aditza ere arrotza da hizkera honetan. Zuazok aipatzen ez duen Eragon aditza 'eurie daragoyo' esaldian baino ez dugu batu.

(5) Nor-Nori saileko adizkietan herskari sabaiko ahoskabea daukagu [j]: *yat, yatzu, yakos...* Corpus osoan baten baino ez dugu batu *d-* herskari hortzetakoa: *dako*.

Bilakaera bera Nor-Nori-Nork saileko hitanoan Nor 3. pertsona denean: *yotzek, yotziat, yotzuk...* Baita trinkoetan ere: *yatok, yabisek, yoak, yasak...* Eta baita \*Edun-en hitanoko adizkietan ere: *yoat, yuk, yosak, yerek...*

Adizki hauek Ez partikularekin batzen direnean txistukari afrikaria *-tx-* ematen dute: *etxauk* 'ez jagok', *etxok* 'ez jok', *etxakok* 'ez jakok'...

(6) \*IO-ren adizkietan *-n-* sartu da: *diñot, diñosu, diñotzut...*

(7) Iraganaldiko 3. pertsonetan Ø da Nor-i dagokin ezaugarria: *euen, osten, egoan, eukien, eurien...*

Salbuespenak Izan-en adizkiak: *san, siren...*

Zuazok (2008: 78) esaten du \*Edun-en objektu pluralekoak ere salbuespenak direla, baina hizkera honetan singularrekoak ere, era bietara ahoska daitezke: *euen* zein *seuen*, *eur(i)en* zein *seur(i)en*.

(8) Aditzen plurala egiteko *-s* erabiltzen da ia beti: *daus, dekos, dotzes, yakos...* \*Edun-en adizkietan *-it-* pluralgilea topa dezakegu, bakarrik zein *-s* atzizkiarekin: *ditu, ditus, ditue, situsen, situsan, situesan...* Dena den, Edun-en adizkietan *-s* pluralgilea da gehien erabiltzen dena.

(9)Gaztelaniako *-ado* partizipioak *-au* egin dira eta *-ido*, berriz, *-idu*: *amateu, paseu, kanbieu, leidu, meresidu, elejidu...* Berrito ere, esan behar dugu hizkera honetan diptongoetan *-eu-* daukagula nagusi eta ez *-au-*.

(10) Zuazok (2008: 79-80) esaten du aditz izenak egiteko aukera zabala dagoela eta erdiguneko euskalkietan baino sarriago erabiltzen dela *-ten* atzizkia. Hizkera batzuetan *-a* eta *-e* amaiera duten aditz partizipioetan, *-etan* atzizkia erabiltzen dela aditz izenak sortzeko ere, esaten du baina ez du gehiago zehazten. Gure azterketan, 4.1.1.2 puntuan zehatz-mehatz ematen dugu atzizki hauen erabileraren berri; laburbilduz, honako hau litzatekeena:

Aditz-partizipioa	Aditz-izena
<i>-tu/-du</i>	<i>-tzean, -tan</i> eta <i>-tuten/-duten</i>
<i>-atu</i>	<i>-ten</i>



<i>-eu / -au</i>	<i>-(e)tan</i>
<i>-idu</i>	<i>-duten eta -ten</i>
<i>-i</i>	<i>-ten</i>
<i>-n</i>	<i>-ten</i>
<i>-a</i>	<i>-ten</i>
<i>-e</i>	<i>-tan</i>
<i>-o</i>	<i>-ten</i>
<i>-l</i>	<i>-ten</i>

(11) Urten eta Igon aditzak iragankorrak dira: *urten dot, igon dot*.

- **Morfosintaxia**

(1) 'bai/ez' tankerako galdera perpausen amaieran *ala* agertzen da sarri, bigarren osagaia isilduta: *egundo es sara etorri ala?*...

(2) Kontzesio perpausetan *arren*: *amar peseta bajatu arren bardin dok*...

(3) Kausa eta helburu perpausetan *-tearren*: *Lenao, esasu egie, euskeras eitearren yo iten san len?*...

(4) Perpaus osagarri jakin batzuetan *-(e)na* atzizkia erabiltzen da: *señal ondo bisi nasena*.

Zuazok (2008: 80) esaten du perpaus osagarrian esaten dena guztiz ziurra denean eta galdegaigunean ez dagoenean erabili ohi dela, baina, hizkera honetan oro har hau betetzen bada ere, 5.1.3.2.1 puntuan erakutsi dugun moduan era nahasian ere erabiltzen da: *Yakin neuen llobea sala, baya nor es, llobea sana bai*.

(5) Denborazko perpausetan *-keran*: *Siorostan sartukeran daos*...

(6) Erakusleak izenaren ezkerrean: *da gu gelditu ginean onegas etzeagas*...

(7) Bi zenbatzailea izenaren eskuinaldean erabiltzen da: *mutil bi, kotxe bi*...

(8) Aditz trinkoak galdegai direnean 'partizizioa + adizki jokatua' egitura erabiltzen da: *ba, etorri dator*...

- **Garatu gabeko arauak**

(1) Hitz jakin batzuek *u-* daukate hasieran; ez *i-* orokorra: *ulea, urten, urune, uger*...

(2) *e* → *a* egiteko joera dardarkari azkarraren aurrean: *bardin, barri, txarri, garriko*...

(3) Hitz amaieran *-ain* → *-an* egin da ondorengo hitzetan: *espan* 'ezpain', *laban* 'labain', *san* 'zain', *gane* 'gain'...

(4) Hitz amaieran *-uin* → *un* egin da: *bigun* 'biguin' eta *mune* 'muin' hitzetan.

(5) Kontsonante herskariaren nahasketen ondorioz hurrengo aldaera berezi hauek gertatu dira: *aista* 'ahizpa', *bako* 'gabeko', *kerexa* 'gerezia', *kinpulle* 'tipula'. Hitz hasieran *b-* daukan *be* 'ere' aldaera. Aldiz, herskari gabe esaten dira: *abi*, 'kabi', *okotz* 'kokotz' eta *usker* 'puzker'.

(6) Erdal mailegu hauetan jatorrizko *p* eta *t* gorde dira: *altara* 'aldara' *denpora* 'denbora' eta *jente* 'jende'.

(7) *l* → *r* egin da hurrengo hitzetan: *armosu* (gazt. almuerzo), *eurki* 'aulki', *orio* 'olio'. *Solo* 'soro' hitzan, berriz, *r* → *l* bihurtu da. Zuazok (2008: 83) proposatzen duen *arkondara* 'alkandora' hizkera honetan *alkondara* ahoskatzen da.

(8) *-r-* zaharra gorde da, gaur egun *-d-* bihurtuta ondorengo hitzetan: *bedar* 'belar', *edur* 'elur', *ider* 'ilar'.

(9) Hitz hasieran *n-* dago *nasai* 'lasai' eta *narru* 'larru' hitzetan.

(10) *-n-* duten aldaerak daude: *iñontz* 'ihintz', *mamin* 'mami', *miñ* 'mihi', *suñe* 'suhia', sentzun 'zentzu', *seiñ* 'sehi'.

(11) Ipar Euskal Herrian bezala, *\*-ani* → *-ain* egin da ondorengo hitzetan: *arrain*, *sain* 'zain' eta *usin* 'usain'.

(12) *-to* atzizkia dago adberbio batzuetan: *ederto*, *polito*, *txarto*...

(13) *-gi* dago partizipio jakin batzuetan: *ebai* 'ebaki', *yagi* 'jaiki'...

#### • Lexikoa

(1) Erdaratik aspaldi hartutako hitzak eta mendebal osoan ondo sustraitutakoak: *abade*, *amateu*, *armosu*, *berba* (eta *berbaikune* 'hizkuntza/hizkera'), *ganora*, *garau*, *gure*, *isera*, *karu*, *kirikiñolatz*, *korta*, *olgeu*, *ortu*, *oste*, *pernil*, *piku*, *fraka*... Eta erdaratik itzuli da *ogigastai* (gazt. *paniquesa*).

(2) Gainerako alderdi gehienetan galdu edi ahuldu eta mendebalean gordetako hitzak: *argal*, *aul*, *bekoki*, *bider*, *eroan*, *a*, *ipini/imiñi/ifiñi*, *okola*, *orri*...

(3) Bertan sortuak diruditen hitzak.

Asteko egunen izenak, astelehena izan ezik: *martitzen*, *eguasten*, *eguen*, *bariku*, *sapatu* eta *domeka*.

Hilabeteen izen batzuk: *seseil* 'otsail', *marrti* 'martxo', *bagil* 'ekain', *garagarril* 'uztail', *semendi* 'azaro'. Irailari buruz, esan behar dugu Igorren *urri* 'irail' esateko erabiltzen dela eta *urri bigarren*, aldiz, 'urri' esateko.

Pluralean *nortzuk*, *sertzuk*, *seintzuk* izenordainak erabiltzen dira, eta *nor*, *ser*, *sein* singularrera mugatu dira.

Euskalki honetako bereizgarri dira orobatasuna adierazten duen *sein*, aurkaritza perpausetako *baño*, konparazio perpausetako *-lako*, eta moduzkoetako *les*.

- **Aldaerak**

(1) Asimilazioen bidez sortutakoa: *ete* 'ote', *gitxi* 'gutxi', *lelengo* 'lehenengo'. Eta disimilazio gertatu da *urrin* 'urrun' hitzan.


(2) Eurek 'berak' (eta *eurei*, *eurena*, *eurekas*...) tankerako izenordainak.

(3) Aldaera berezi gehiago: arda 'ardo', aterri 'ateri', baltz 'beltz', emon 'eman', eperdi 'ipurdi', eskubitor 'eskumutur', itxun 'etzan', gastai 'gazta', gorpu 'gorputz hila', amasortzi 'hemezortzi', amen (eta emen), asur 'hezur', iruntzi 'irentsi', itxi 'utzi', malluki/mallugi 'marrubi', mustur 'mutur', nai (kontzesiboa), postura 'apostu', txise 'pixa'...

- **Bustidura**

Aurreko puntuez gain, Zuazok beste ezaugarri batzuk ere aztertu ditu, hauen artean bustidura. Gure eremuari buruz honela dio:

“Bizkaiko mendebaleko alderdi batean ere ahula da bustitzeko joera: Txorierri, Zeberio, Orozko, Arratia eta Nerbioi ibarreko hegoaldea —Arrankudiaga eta Arakaldo— daude eremu honetan.” (Zuazo 2008: 244-246)



10. mapa: Bustidura. Zuazo, 2008: 245

Zuazok (2014: 182-187) sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkien bereizgarriak ematen ditu. Fonologia arloan lau bereizgarri ematen ditu eta morfologian sei. Lexikoan sartalderako 37 berba eta 14 aldaera ematen ditu. Azter ditzagun banan-banan:



11. mapa. Mendebaldeko hizkerak. Zuazo, 2014: 183

- Fonologia

(1) i eta u bokalek eraginda a > e egitea.

Igorren arau hau goitik behera betetzen da: *idie, errie, lagune, etorri de, ure...*

(2) Sortaldean -i- sartzen da joan eta eroan-en adizkietan.

Igorren ez da -i-rik sartzen: *doa, soas, daroa...*

(3) Hiatoetan arauzkoak dira ondorengo hiru bilkaerok sortaldean: /e + a, e, o/ > i; /o + a, e, o/ > u eta /i + a, e, o/ artean -x- edo -dx- epentesia.

Igorren ez dira arau hauek betetzen: *semea, astoa, errie...*

(4) Hitz hasieran y- dago sartaldeko eremu zabalean.

Igorren zehazki daukagun fonema herskari sabaikari ahostuna da, [j].

- Morfologia

(1) Sartaldeko eremu zabalean –kin dago soziatibo pluralean

Igorren -kas da: *semeakas, lagunekas...*

(2) Sortaldean hurbiltze adlatiboan –rutz morfema

Igorren -rantza da

(3) Bizkaiko mendebalean ohikoa da -rik morfema zaharra denbora balioarekin

Igorren ere horrela erabiltzen da: *atzorik ona...*

(4) Iraganaldiko aditz trinkoak oso galduta daude sartaldean

Aditz paradigmaren ikusi dugunez, horrela gertatzen da hizkera honetan

(5) Sartaldean -to atzizki handitzailea

(6) Jatorria adierazteko –zta atzizkia sartaldean

Horrela da. Herrikoak ere Igorrestarrak dira. Seanistarrak, dimostarrak, seberiostarrak... ere badira.

- Lexikoa

Zuazok (2014: 186) emandako berben artean aipatu behar dugu batzuk ezin izan direla jaso Igorren. Sartaldekotzat hartzen duen *karran/karraderan* hitzaren ordez, Igorren *galapan* edo *galafan* erabiltzen da. *Sokorru* hitzaren esanahia ez da zehatz-mehatz Zuazok proposatzen duen “garrasi”, Igorren esangura bi dauzka: erdarazko “socorro” izan daiteke, edo “sokorru-garrasi” ere izan daiteke, ez edozein garrasi. *Begitandu* eta *begitanzino* hitzak ere ez dira jaso Igorren. Berdin *eguen zuri* hitzarekin. Amaitzeko, esan behar da “ahate” esateko *pato* erabiltzen dela eta ez *paita*.

- Aldaerak

Zuazok ematen dituen aldaera guztiak betetzen dira hizkera honetan.

Gure azterketak (ikus 2.3.2.1.1. puntua) Zuazoren (2008 eta 2014) sailkapenak berresten ditu, baina, esan behar da, bestelako bustidura bat dagoela, kontrako norabidean gauzatzen dena hitanozko hainbat adizkietan. Hortaz, beste norabide honi erreparatzen badiogu, hizkera honen bustidura besteen aldean indartsua da.

### 7.1.2.2. Gaminde (2007b)

Egileak berak aitortzen duen moduan, 2007ko lan hau bere ibilbide oparoaren laburpena da. Behar honetan, mapa askoren laguntzaz, Bizkaiko hainbat eremu geografiko bereizten ditu gramatika arauen arabera. Gu ahaleginduko gara Igorreko datuekin berresten lan honetako bost puntutan (soinuak, izen morfologia, aditz morfologia, esaldi ereduak eta lexikoa) ematen diren eremu geografikoak. Hona hemen erkaketa:

- Soinuak

#### Bokalak

Gamindek (2007b: 20) zazpi arau ematen ditu mugatzaile singularraren egokitzapenatarako. Hauetatik, bi baino ez dira betetzen Igorreko hizkeran:

(1) a > e / \_\_\_ a

Adb: *alabea, babea, alkondarea, bentanea, gonea...*

(5) a > e / i, u (C)\_\_\_

Adb: *idie, burue, aspertute, ikesgine...*

## Diptongoak

Gamindek (2007b: 29) joera bi aurkezten dizkigu: *au* > *eu* egiteko joera, eta *eu* > *au* egitekoa. Igorreko hizkerari buruz, berak esaten du lehenengoa betetzen dela, *au* > *eu*, eta neurri handi batean egia da, baina 2.3.1.1.3. puntuan azaldu dugunez, Igorren diptongo biak aurkitzen ditugu gaur egun, nahiz eta *eu*-ren erabilera handiagoa izan; %85,71an erabiltzen baita.

## Kontsonanteak

Herskariak:

Aditz partizipioen “j”-ren ebakera herskari sabaikari ahostuna da Igorren(33 or.): *yoan, yan yakin...*

Herskarien palatalizazioei buruz ere aritzen da (38-39 orr.), baina azaldu dugunez, hizkera honetan ez dira palatalizatzen.

*es* + *g* bilkura aztertzean ahoskatzeko aukera bi daudela esaten du: *esg* eta *esk*, Igorren gauzatzen dena (47 or.): *eskoas, eskara, eskindun...*

Sudurkariak:

Igorren n-ren palatalizazioa, *n* > *ñ* / *i* \_\_\_\_\_, ez dela betetzen esaten du (49 or.). Gure corpusean aldiz, era bietako adibideak topatu ditugu palatalizatuak zein palatalizatu barik (ikus 2.3.2.1.1. puntua):

*inóntza* zein *iñóntza*  
*bardíne* zein *bardiñe*  
*ikesgíne* zein *ikesgiñe*

Frikariak:

Puntu bi nagusi aztertzen ditu Gamindek. Lehenengoa /dx/ soinuaren hedadura, Igorren gauzatzen ez dena; eta bigarrena, /f/-ren ordez /p/ erabiltzearen joera. Horretarako “afari” berbaren mapa aurkezten du (2007b: 53). Hor Igorrerako /f/ ematen du: *afari*. Gehiago sakonduz, esan dezakegu Igorren /f/ dela nagusi: *frakak, afarie, fiestea, frailea...* baina berba bitan, behintzat, txandakatzea gauzatu da: *arpelik* (bat. alferrik) eta *partikerea* (gazt. faltriquera). Eta beste bitan ere /f/-dun eta /p/-dun adibideak dauzkagu: *famitxea* / *pamitxea* eta *galapan* / *galafan*.

Afrikatuak:

Bizkaiko herri guztietan, Igorre barne, afrikatu bi egiten dira /ts/ eta /tʃ/ (53 or.).

Albokariak:

/l/ren aurrean /i/ bat dagoenean ez dela palatalizatzen azaltzen da (57 or.). Gure corpusak arau hau ez betetzea berresten du, baldin eta /i/ hori ez bada bokal erdia. Gainera, 2.3.2.1.1. puntuan palatalizatzen diren hainbat salbuespen ikusi ditugu.

### Azentua

Arratiarako honela dio Gamindek (2007b: 65)

“Arratia: Azentu bereizgarria, eremua erroa 1] eta talde fonologikoa 2]  
Silaba bateko eta biko erroko berbeekin azentua talde klitikoaren azkenurreko silaban txertatzen da, hots, mugatzailea biltzen duen silaban; hiru silabako berbeekin, berriz, erroaren azken silaban. Berba markatuak azentua lehen edo bigarren silaban daukatenak dira; markatuen kasuan azentu lexikala ez da mugitzen talde fonologikoan. Laburbilduz, azentuera arruntaren ezaugarriak honela eman ditzakegu:

(1) Silaba bat eta bikoetan taldearen azkenurreko silaban: 2]

(2) Hiru silabakoetan erroaren azken silaban: 1]

Txorierrri eta Arratiako ereduon arteko desberdintasun nabarmena da azken silaban azentua onartzea edo ez.”

Igorrerako egin dugun azterketa (ikus 2.4. puntua) bat dator.

- **Izen-morfologia**

### Predikatuaren erabilera

Adjektibo bat, predikatu osagarriaren funtzioan, “egon” aditzarekin batera erabiltzen denean artikulatu barik erabiltzen da hizkera honetan: *errekea loi dau...*

-egi graduatzailea erabiltzeko hiru modu daude:

a) atzizki hutsa erabiltzea: -egi

b) Atzizkia adberbio batekin agertzea: lar... -egi

c) Adberbioa adjektiboarekin erabiltzea: lar

Gamindek (2007b: 91) Igorrerako bigarren aukera ematen du, atzizkia adberbio batekin agertzea: *lar... -egi*. Gure datuetan, aldiz, *lar* bera bakarrik ere topatu dugu: *bearra lar estu*.

### Erakusleak

Erakusle pluralak singularretik bereizteko modu bi daude: morfologikoa eta “onek / onei, onik” edo fonologikoa “onék / ónek”.

Gamindek (2007b: 95) esaten du morfologikoki bereizten direla, baina, esan behar da fonologikoki ere bereizten direla. 3.6.1.2. puntuan ikusi dugunez, pluralean hiru forma agertzen zaizkigu: *ónek*, *óneik* eta *ónik*.

Erakusle indartuak sortzeko morfema "xe" da eta ez "txe" (96 or.): *auxe*, *orrex*, *arexeri...*

Hizkera honetan ez da a-dun erakuslerik erabiltzen (100 or.).

### Aditzondoak

Aditzondo berrindartuetan Gamindek (2007b: 106) esaten du Igorren hurbil/urrun oposaketa ez dela egiten, baina, gure corpuseko adibideek berriz, kontrako adierazten dute, hau da, hurbil/urrun oposaketa egiten dela (ikus 4.2.2.2.2. puntua):

*Bai, Iorren bertan barrio asko daos* (urrun)  
*olango gausen bat Dimen bertan igual eingo deurie* (urrun)  
*baya emen bertan esta begituten orrenbeste* (hurbil)  
*oso gatxa da emeko bertoko bat topatutea* (hurbil)

“a-” gehitzen duten aditzondoak. Gamindek (2007b: 107) Igorre kokatzen du erabiltzen ez dutenen artean, gure azterketan berriz, maiz aurkitu dugu aditzondoak indartzeko modu hau (ikus 4.2.2.2.2. puntua):

*amen, San Kristobalen*  
*Onek errueda bi amen, amen...*

### Deklinabidea

“Nok”, “nori”, “norena” kasuetan singularra eta plurala fonologikoki bereizten dira, hau da, azentuaren bidez:

Sg.	Pl.
<i>lagunék</i>	<i>lagúnek</i>
<i>lagunéri</i>	<i>lagúneri</i>
<i>lagunéna</i>	<i>lagúnena</i>

Soziatiboan morfologikoki eta fonologikoki bereizten dira singularra eta plurala:

*lagunégas*    *lagúnekas*

Destinatiboan Gamindek (2007b: 115) marka bakarra ematen du Igorrerako: *-antzat*; baina gure azterketa marka bi batu ditugu: *-antzat* eta *-antzako* (ikus 3.3.3.8 puntua): *amamantzat, amamantzako...*

Adlatiboa bizidunekin kasuan *-gana* da erabiltzen den marka eta ez *-(g)aina* (116 or.): *amagana, lagunegana...*

Destinatiboan *-tik* zein *-ti* atzizkia erabiltzen dira, eta denbora erlazioetan *-rik* ere erabiltzen da (118-119 orr.): *erritik* zein *erritik*; eta *nosik ona?*.

Hurbiltze adlatiboan *-rantza* da erabiltzen den atzizkia eta ez *-rantz* edo *-runtz* (120 or.): *etzerantza, Dimerantza, Bilborantza...*



Muga adlatiboan *-raño* da erabiltzen den atzizkia (121 or.): *etzerano, eusorano, aterano...*

- **Aditz-morfologia**

### Partizipioen erabilerak

Erlatibo ez jokatueta Gamindek (2007b: 127) lau aukera bereizten ditu: *-tako, -neko, -niko* eta Igorren erabiltzen dena *-ko*.

*-tearrik* Gamindek (2007b: 135) esaten du mendebalderengo herri batzuetan baino ez duela aurkitu: Galdakao, Zeberio, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Begoña, Buja, Etxebarri, Ugao, Zaratamo, Zollo, Derio, Leioa, Sondika eta Zamudio. Ikusten denez, zerrenda honetan ez dago Arratiako herririk. Dena den, guk beren beregi galdetu dugu aditz-izen honi buruz lekuko batek hizketa librean esan zuelako. Lekuko hau Igorren jaiotakoa da eta bizi izandakoa, lehenengo Garamendin, gerora Garakoin eta azkenik kalean, Agirre Lehendakarin, guraso biak igorretarrak ditu eta Igorre aldean lan egin du beti, beraz, guk jarritako baldintzak zorrotz betetzen dituen, baina, hala eta guztiz ere beste inork ez du *-tearrik* erabiltzen, nahiz eta batzuei ezaguna egiten zitzaiela adierazi. Aditz-izen honi buruz hipotesi bi planteatu ditzakegu: a) Eremua galtzen ari den aditz-izena dela, edo, b) gutxi garatu den berrikuntza dela.

Bizkaiko mendebaldean bezala, ezezkoak egiteko ordena “partizipioa + ez + -te” da: *lotu es eitearren esaten yuk guk emen Arratiko euskerean*

### Aspektuak

Diptongoetan azaldu dugun moduan, Igorren ez dugu *eu* bakarrik batu, *au* ere jaso ahal izan dugu. (ikus 2.2. puntua)

Aspektu ez burutua hainbat eta alomorfo eta arau erabiltzen dira. Gamindek (2007b: 141-142) hauen berri eta hedadura ematen digu. Gure azterketak, 4.1.1.1 puntuan, berresten ditu Igorrerako emandako datuak.

### Aditz trinkoak

“Joan” adizkien erroan *-oa-* diptongoa daukagu (147 or.): *noa, oa, soas, doa...*

“Ibili” aditzaren pluralgilea *-s* da (147 or.): *dabis, sabis, gabis...*

Aditz irangaitzen “zuek”-en plurala egiteko morfema *-ie* da (148 or.): *sabisie, soasie, satsosie...*

### Aditz laguntzaileak

#### Nor

Bizkaian “zuek”-en morfemak lau dira, Ø, -ea, -e eta Igorren erabiltzen dena: -ie (154 or.): *sarie*.

### Nor-Nori

Orain aldiko adizkietan agertzen den kontsonantea “y” da (155 or.): *yata, yako, yatzu...* Dena den, eta adibide bakarra bada ere, *dako* forma ere jaso dugu.

“Niri”-ri dagozkion morfemak -t eta -ta dira (156 or.): *yat* eta *yata*.

“Haiei”-ri dagokion morfema -kie da (157 or.): *yakie*. Gure corpusean bi bider baino ez da agertu -ke morfema, *yake*.

### Nork-Nor

“Haiek-hura” egiteko morfemak -re eta -rie dira (159 or.): *deure* eta *deurie*. Aldaera bi hauek honako ehunekoetan agertu dira gure corpusean:

*deure* % 21,62

*deurie* % 78,37

“Nik” subjektua denean iraganean n- morfema daukagi (160 or.): *neuen*.

“Hark” subjektua denean iraganean Gamindek (2007b: 161) esaten du s- dela agertzen den morfema, gure lanean berriz Ø- eta s- agertu zaizkigu honako ehunekoetan:

*euen* %75,32

*seuen* %26,67

“Guk” subjektua denean iraganaldiko adizkietan Gamindek (2007b: 162) -nd- morfema dagoela Igorren. Gure azterketan berriz, -n-, -ñ-, -nd- eta “oraina + -n” morfemak agertzen zaizkigu ehuneko hauetan:

-nd-: *gendun / gindun* %71,37

-n-: *ginun* % 0,40

-ñ-: *giñun* % 2,01

Oraina + -n: *dun* % 6,04

### Nor-Nori-Nork

Iragan aldiko adizkietan “guk-hari” denean g- morfema daukagu (164 or.): *geuntzen*.

Iragan aldiko adizkietan “zuk-hari” denean s- morfema daukagu (164 or.): *seuntzen*.

### Alokutiboak

“Nor” morfemen artean “hi”-ri dagokiona Ø- da (165 or.): *oa, abil, as...*

“Nor-Nork” saileko aditzetan, andrazkoen formetan *-na* da erabiltzen den morfema (166 or.): *dona*. 4.1.2.1. puntuan esan dugun moduan, andrazkoen hitanoa ia desagertuta dago Igorreko hizkeran, hala eta guztiz ere, batu dugun apurrean *-na* atzizkia agertu zaigu.

Barietate batzuetan “j” morfema tartekatzen da adizki batzuetan, Igorren ostera, ez (166 or.).

Lau palatalizazio gauzatzen dira adizki alokutiboetan (166-168 orr.):

- a) “Ni” denean  $n > \tilde{n}$ : *ñatok, ñoak ñabik...*
- b) Hirugarren pertsonetan  $d > y$ : *yoat, yotxek, yabik, yuk...*
- c) “Gu” denean  $s > x$ : *gatoxak, gaxak, goaxak...*
- d) Nor-Nori-Nork saileko adizkietan  $tz > tx$ : *yotxiat, yotxian, yotxek...*

### Aditz erazleak

Aditz erazleak egiteko arazo erabiltzen da (168 or.): *emonaraso*.

- **Esaldi ereduak**

Zehar galderak egiteko ba- menderagailua erabiltzen da hizkera honetan (186 or.): *estakit etorri bada*.

Moduzko perpausetan Gamindek (2007b: 192) Igorrerako “segun... -n” egitura ematen du. Gure corpusean honetaz gain *-nes* ere topa dezakegu: *baya bertako jenteari, esaten dotzutenes, edadeko jenteari beti su eta nirea baño andiegoa ixin sen antza, segun esplikeu seuen berak*.

Denborako esaldietan abiapuntua adierazteko Gamindek (2007b: 194) “-nik hona” egitura ematen du Igorrerako. Gure azterketan, honetaz gain, *-enetik* ere jaso dugu: *yoan sanetik geao estu ikusi eta etorri sarenik ona euririk esta pareu*.

Denborako esaldietan, aldi berekoetan, Gamindek (2007b: 195) *-n orduen* ematen du. Gure corpusean, honetaz gain, *-nean* ere sarri topatu dugu: *gero agertu sen burruñeskoa baya gu gasteak gintzesan orduen esan... gitxi eotesan burruñeskoa eta ure irikiten danean morsillek itxiten sirean egosten an*

- **Lexikoa**

Gamindek (2007b: 207-216) hamalau berbaren aldakiak ematen ditu. Guk Igorren batutako aldaerak emango ditu ondorengo lerroetan.

- 1) Atzamar: *atzamar*
- 2) Aitaita: *aitite*
- 3) Amama: *amama*
- 4) Lehengusu: *lengusu* (%37,5) eta *primo* (%62,5)
- 5) Sukalde: *sute*
- 6) Hari: *ari* eta *firu*. Berba biak erabiltzen dira.
- 7) Trumoi: *odei*

- 8) Tximista: *inisu*
- 9) Madari: *madari* eta *makatz* berbak ezberdinak dira Igorren. *Makatz* txikerragoa da, *San Juan makatza*.
- 10) Indaba: *baba*
- 11) Behi: *bei*
- 12) Idi: *idi*
- 13) Ardi: *ardi*
- 14) Hori: *bellegi*

### 7.1.2.3. Azentuari buruzko sailkapenak: Hualde (1997) eta Gaminde (1998)

Hualdek (1997) eta Gamindek (1998b) sailkapen bera eman zuten euskal azenturako. Egile hauek lau sistema ezberdin zituzten nomenklatura honekin:

Hualde (1997)	Gaminde (1998b)
Ekialdekoa	Ekialdekoa
Erdialdekoa	Erdialdekoa
Mendebaldeko zenbait sistema berezi	Mendebaldeko sistema bereziak
Bizkaiko kostaldeko doinu sistemak	Doinu-azentu sistemak

Mendebaldeko sistema berezi hauen artean hiru azpi-sistema berezi zituzten biek:

Hualde (1997)	Gaminde (1998b)
Antzuola eta Bergara	Antzuola-Bergara
Azkoitia (Urolaldea)	Urola
Zeberio eta Arratia	Zeberio-Arratia

Azterketetan biek emaitza bera eman zuten eta gure datuek (ikus 2.4. puntua) berretsi baino ez dute egiten sailkapen hau Igorrerako.

### 7.1.2.4. Hitanoari buruzko sailkapena: Aurrekoetxea (1994)

Aurrekoetxeak (1994) hainbat sailkapen egin zituen hitanoari buruz Euskararen Herri Hizkeren Atlasan batutako datuekin. Dakigunez, Arratiari dagokionez, EHHAn Lemoa, Dima eta Zeanuri izan dira aztergai, ez ordea Igorre. Hortaz, interesgarria suertatzen da Igorreko datuak alderatzea.

- **Hitanoaren hizkuntz mugak**

(1) Muga sintaktikoari buruz bi dira Aurrekoetxeak aztertzen dituen eremuak (1996 or.):


a) Hitanoa galde perpausetan

Gure corpusean hitanoa aurkitzen dugu galde perpausetan:

*Multiplikatea gustetan yatak?*

*Ser esan yuk?*

*Oiñarte ein dok?*



### b) Hitanoa menpeko perpausetan

Gure corpusean hitanoa aurkitzen dugu mendeko perpausetan:

*bakik selan salbeu gosaken?*

*da ikusten doken moduen piperrak erretan.*

### (2) Muga morfologikoa (997 or.).

Igorreko hizkeran alokutiboa erabiltzen da alegiazko formetan: *balikitok, likitok, bañekek, ñekek...*

- **Alokutibo sistema ezberdinak EHHaren arabera**

(1) Nor-Nork-erako \*edun aditzaren erroa *-u-* da (997 or.): *yoat, yok, yuk, yeurie...*


(2) Pertsona aurrizkirik, ez erro-aldaketarik ez duten orainaldiko adizkeretan *y-* daukagu Igorren (997 or.): *yauk, yabik, yoak, yaekok, yakak...*

(3) Aditz trinkoetako orainaldietan *-a-* da agertzen zaigun bokala (997 or.): *yauk, yatok, yabik...*

(4) Nor-Nork erako pluralgilea *-s* da (997 or.): *yosak, yeuresak, yoasat...*

(5) Adizkera trinkoetan erro eta hitanoaren markaren arteko lotura *-Ø-* da (998 or.): *yabik, yatok, yakak, yoak...*

(6) Andrazkoen alokutiboak bere eremu mendebaldarrean *-n* morfemaren ordean, *-na* morfema agertzen da (999 or.): *dona, ñoana, yatana, yoanat...*



13. mapa. Aurrekoetxea (1994: 1007)

Ondorioz, gure datuek Aurrekoetxeak emandako mugak berresten dituzte.

### 7.1.3. Azterketa dialektologikoa: Arratiako mendebaldeko mugak zehazten

Azterketa honen helburua Arratiako barietateak mendebaldean dituen mugak zehaztea da. Bonaparteren sailkapenak Zeberioko hizkera Arrigorriagako barietatearen barruan kokatzen bazuen ere, beste autore batzuek, Gamindek (2007b) eta Zuazok (2014), Arratian sartu zuten. Lan honek auzi hau argitzea du helburu eta horretarako analisi bi burutuko ditugu: kontrastiboa eta dialektometrikoa (ikus 1.4.2.2. puntua).

Zeberioak guztira 47,87 km<sup>2</sup> dauzka eta Arteatik Ugao-Miraballesera doan haranean kokatzen da, Zeberio ibaiaren arroan. Auzoak errekarren alde bietan eratu ziren, haren ondoan 24 auzo, erdia baino gehiago eta besteak goialdeetan. Zeberiori buruzko lehen erreferentzia idatzia, “Ceberiano”, Ugaoko herri-gutunean agertzen zaigu 1373. urtean. Alzolak (1995: 23-24) aipatzen duenez XVI. gizaldian Zeberioko lur-eremuak entitate bitan zatituta zeuden. Auzotarren heren bi, “vecinos del valle” edota “zaindaria” zeritzenak, Ugao hiribilduaren auzotarrak ziren, eta bertako alkatearen jurisdikziopean zeuden eta euren sutegia hiribildukoekin batera zenbatzen zen, nahiz eta Zeberio haranean bizi. Beste herena, “infantzoiak” zeritzenak, Olabarrietako Santo Tomas elizateko auzotarrak ziren. Elizate hau Arratiako merinaldekoa zen eta foru-legeari lotuta zegoen. Bi entitate hauen arteko mugak ez ziren oso argiak eta ez zetozen bat auzoekin. Egoera honek hainbat auzi sortu zituen 1873ra arte. Urte horretan korregidoreak alde biak desagertzeko agindua eman baitzuen, piel erregidore sindiko bat eta Foru Udal bakarra egon zitezten justiziak izendatzea xedatuz (Alzola, 1995: 100). Baina Zeberion auzotarrak ez eze, zereginak ere alde bitan banatuta zeuden. Alde batetik, Olabarrietan erlijioa zen nagusi (eliza eta kanposantua daude), eta bestetik, Zubialden administrazio jarduera (udaletxea dago).

Zalantza barik, bai egoera geografikoak (Arratia eta Hego-Urube artean egoteak), bai aipatutako egoera soziologikoak eragina izan dute bertoko hizkeran. Herritar batzuk,

geografikoki eta historikoki Arratiatik hurbilago bizi izan dira eta beste batzuk ordea, Ugaotik-Miraballesetik.

Esan bezala, L.L. Bonapartek 1869an bere azken sailkapenean, laugarrenean, Zeberio Arrigorriagako barietatean kokatu zuen eta ez Arratiakoan.

Bonaparteren ostean, Yrizarrek (1992), Arratiari dagokionez, berea egin zuen Bonaparteren sailkapena aldaketa txiki batzuekin.

“El núcleo de la variedad bonapartiana de Arratia lo constituyen lógicamente, en lo esencial, los pueblos del valle de aquel nombre, pero sus límites no coinciden plenamente con los de dicho valle. Bonaparte no incluyó en la variedad arratiana a los pueblos de Ceberio y Ubidea, que consideró pertenecientes a las variedades de Arrigorriaga y de Ochandiano, respectivamente. Por el contrario, incluyó en esta variedad, no sólo a Vedia y Lemona -pueblos que se incorporaron posteriormente a la merindad de Arratia-, sino que extendió los límites de la variedad lingüística hacia el norte, hasta incluir en ella a Larrabezúa. Comprende, por tanto, la variedad de Arratia, tal como la estableció Bonaparte, los siguientes pueblos: Yurre, Aránzazu, Arteaga (Castillo y Elejabeitia), Dima, Ceánuri, Villaro, Vedia, Lemona y Larrabezúa.

Iñaki Gaminde, en su investigación lingüística de la región de Galdácano, ha comprobado que la zona oriental de este municipio se aparta lingüísticamente del resto del municipio y en ella -Gaminde ha explorado especialmente el barrio de Usánsolo- entra el arratiano. Confirma con ello el límite establecido por Bonaparte, quien, en su mapa, incluyó en la variedad de Arratia, la zona del municipio de Galdácano que se extiende desde su límite oriental hasta Urgoiti inclusive.” (Yrizar, 1992-II: 5)

Ikusten dugunez, Yrizarrek ere mantendu zuen Zeberio Arrigorriagako barietatean eta horrela islatu zuen bere mapetan (ikus 1. eta 2. mapak).

Etxebarria (1991) bere tesian lehenengoa da sailkapen hau kolokan jartzen, eta Bonaparte eta Yrizarrek ez bezala, Arratiako barietatearen barruan sartzen du Zeberioko hizkera.

“Hau horrela bada ere eta sailkapen zabalago baten sartu nahi badugu euskera, elbarreneko auzuneren bat edo izan ezik, Arratiakoarekin baterago dator beste inguruetako edozeinekin baino, L.L. Bonapartek eta geroago P. de Yrizarrek, Mendebaldeko azpi euskalkion barruko Arrigorriagako aldakian sartzen badute ere.” (Etxebarria, 1991: 26)

Gamindek (2007b) Bizkaiko herri guztietan datuak hartuta, azterketa kuantitiboa egiten du. Honen arabera, Bizkaiko herriak multzo bitan banatzen dira; batetik Otxandio-Ubidea eta bestetik gainerako guztiak. Gainerako hauek guztiak ere multzo bitan banatzen dira, mendebaldekoa eta ekialdekoa (ikus 6.mapa).

Gamindek (2007b: 254) mendebaldeko multzoa bost taldetan banatzen ditu; Arratia, Txorierrri, Uribe Kosta, Hego Uribe eta Begoña (ikus 7. mapa). Arratiari dagokionez, Galdakao, Bedia, Lemoa, Igorre, Dima, Arteaga, Zeanuri eta Zeberio osatzen dutela aipatzen du. Beraz, Gaminde (2007b) eta Etxebarria (1991) bat datoz euren azterketetan.

Zuazok (2014: 180) bere 2008ko sailkapena zehaztu zuen. Sailkapen berri honetan sartaldeko azpieskalkian hiru hizkera ezberdintzen ditu. Ipar-sartaldekoa, Hego-sartaldekoa eta Nerbioi ibarrekoa.

“Sartaldeko azpieskalkian hizkera multzo nagusi bi ageri dira: ipar-sartaldekoa eta hego-sartaldekoa. Ipar-sartaldekoan hiru hizkera daude: Uribe Kostakoa, Mungialdekoa eta Txorierrikoa. Hego-sartaldekoan batasaun handiagoa dago: Arratia Ibarra, Zeberio, Orozko, Arrankudiaga, Arakaldo eta Galdakao daude bertan. Bi hizkera multzo nagusi horien artean Nerbioi Ibarrekoa dago. Bilbon, Etxebarrin, Zaraton, Basaurin, Arrigorriagan eta Ugaon hitz egin izan da. Oso ahulduta dago. Hiru hizkera horietatik bi dira bereziak: ipar-sartaldekoak eta Nerbioi ibarrekoa.” (Zuazo, 2014: 180)

Zuazok bere lanean Zeberioko hizkera Arratiakoekin batera jartzen duen arren, ez du aipatzen zein ezaugarri banatzen dituzten hizkera bi hauek (ikus 10. mapa).

Ikusi dugunez, Zeberioko hizkeraren kokapena auzitan egon da. Autore batzuek Arrigorriagako barietatean kokatu izan dute eta beste batzuek Arratiakoan. Esan behar dugu Bonaparte, Yrizar, Gaminde eta Zuazoren lanak orokorrak direla, herri asko eta datu kopuru izugarri handiak erabili dituzte euren lanetan, hortaz, gaitzagoa izan zaie auzi honetan fokalizatzea. Etxebarriarena oster, Zeberion fokalizatutako lan-monografikoa da, artean Arratia inguruan egindako bakarra. Arrigorriagako barietatean aldiz, 1990erako bazegoen Bilboko hizkerari buruzko lan-monografikoa eginda, I. Gamindek eginda. Gerora, 1994an, Jon Arretxek Basauriko hizkerari buruzko tesia argitaratu zuen. Arratian berriz, gaur arte ez da inongo lan-monografikorik egin erkaketa sakon bat egin ahal izateko eta auzi hau behin betiko itxita uzteko. Zorionez, gure tesirako batutako datuek eta Agirreigoikoa jasotakoek bidea emango digute azterketa hau egiteko. Beraz, alde batetik, Arrigorriagako barietatekoak diren Bilbo eta Basauriko hizkeren datuak, bestetik, Arratiako barietatekoak diren Igorre eta Zeanuriko hizkeren datuak, eta amaitzeko, Zeberioko datuak alderatuko ditugu lan honetan.

Hauek izan dira hizkerai, beren osotasunei, buruz egin diren sailkapenak. Azentuari buruzko sailkapenak aldiz, bestelakoak dira. Hualde (1997) eta Gaminde (1998b) bat datoz euren sailkapenetan, eta izen ezberdinak ematen badizkiete ere biek onartzen dute Arratiak eta Zeberio molde bera dutela. Autore bi hauek lau azentu sistema ezberdin bereizi zituzten euren lanetan: ekialdekoa, erdialdekoa, mendebaldeko zenbait sistema berezi eta Bizkaiko kostaldeko doinu sistemak. Gerora, Gamindek (2007b: 63) Bizkairako honako azentu moldeok berezi zituen: (1) Getxo-Gernika, (2) Lea-Artibai, (3) Txorierrri, (4) Arratia, (5) Durangaldea eta (6) Hego-Bizkaiera (ikus 5. mapa). Beraz, azentuari dagokionez Zeberio eta Arratia bat datoz.

### **Erabilitako corpusa**

Corpus nagusia bost herrien monografiek osatzen dute: Agirreigoikoa eta lag. (argitaragabea), Etxebarria (1991), Arretxe (1994), Gaminde (1990) eta tesi honetakoa. Baina monografiez gain, beste liburu eta artikuluetan ere hainbat informazio topa dezakegu. Batzuetan lan orokorrak dira, eremu zabalagoetan egindakoak, eta beste batzuetan, beren beregi hizkera hauei buruzkoak. Azken hauek, monografiekin batera, gure corpusaren oinarria dira. Azter ditzagun herriz herri hizkera bakoitzari buruz propio egin diren lanak.



Igorre:

Hizkera honen datuak tesirako sortu dudan datu-basetik hartu ditut.

Gure datu-basean igorreztar adinekoek egiten duten ahozko euskara batu dugu. Guztira 21 lekukoren laguntza izan dugu (ikus 1.5.3. puntua). Datu-basea osatzeko mota biko elkarrizketak egin dira:

- a) Elkarrizketa libreak
- b) Galdetegi bidezkoak

Elkarrizketa libreak corpusaren oinarria dira, hauetatik atera dira ia datu guztiak eta hauetan topatu ez ditugun datuak berariaz prestatutako galdetegi bidez lortu izan dira. Elkarrizketa libreak bat-batekoak izan dira, erregistro informala dutenak eta interaktiboak. Datu-baseaz gain, lan hau gauzatzeko guztira 176 orri transkribatu ditugu, 66041 berba.

Igorreko hizkeraren gainean propio idatzi den artikulu bakarra “Igorreko azentuaz” daukagu, Iglesias (2008).

Zeanuri:

Zeanuriko hizkeraren gainean argitaratu gabeko lan monografiko bat daukagu Agirreagoikoak, Miren Atutxak eta M<sup>a</sup> Carmen Villaverdek, egina. Lan honen izenburua *Zeanuriko euskara* da, 334 orrialde ditu eta lana sei ataletan banatuta dago: fonetika eta fonologia, izen morfologia, sintaxia, aditza, aditz-nominalizazioa eta hiztegia (zehazki *Diccionario Retana de Autoridades del Euskara* hiztegian agertzen diren Zeanuriko hitzen zerrenda ematen dute. Lan honek hizkera bat aztertzeko behar diren datu guztiak eskaintzen ditu, ez ordea azterketa, nahiz eta atal batzuetan egiten den.

Bi dira Zeanuriko hizkeraren intonazioaren gainean idatzitako artikuluak: Gaminde, Hernáez & Etxebarria (1995) eta Gaminde (2003a). Etxezarragaren (1982) artikuluak Zeanuriko euskarari buruzko hainbat zehaztasun ematen ditu, batez ere erakusleei buruz. Errotari buruzko lexikoaz oso lan zehatza daukagu, Manterolarena (1980). Kaltzakortak (2005) aldiz, Azkuek batutako lexikoaren berri ematen digu bere artikuluan. Ibarak (1991) “Ikatzaren prozesua Zeanurin” artikuluan etnotestu oparo eskaintzen digu. Eta azkenik, Arejitak (1983) Zeanurin batutako koplak batzuk ematen ditu.

Zeberio:

Zeberioko hizkeraren gainean Juan Manuel Etxebarriak (1991) egin zuen monografia, bere doktoretza-tesia izan zena eta aztertutako herrien artean argitaratuta dagoen bakarra.

Liburu honetaz gain azentuari buruz Hualdek (1992) “Notas sobre el sistema acentual de Zeberio” artikulua argitaratu zuen. Izen-morfologiaz Etxebarriaren (1990) “Zeberio haraneko galde-hitz, izenorde eta erakusleen deklinabideaz” daukagu. Zeberioko etnotestuak batzen dituzten argitalpen bi daukagu, biak Etxebarriarenak: *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* (1995) liburua, eta “Zeberioko esaera zaharrak etnografia bidetik” (1997) artikulua.

Basauri:

Basauriko hizkeraren gainean bi dira egin diren lanak. Alde batetik, lehen aipatutako *Basauriko euskara*, Jon Arretzek (1994) egina; eta beste alde batetik, Ros eta Cabelloren (1997) *Basauriko toponimia*.

Bilbo:

Gehienbat Iñaki Gaminderen lanek osatzen dute Bilboko corpusa. 1990ean *Bilbo Berbaz Berba*, lan monografikoa egin zuen. 1987c, 1993c, 1998c eta 2002b-ko artikuluek osatzen dute hizkera honen azterketa. Testu eta lexikoari dagokienez, Gamindek 1994 eta 2004b-ko lanak ditu. 1994koan Larraskitu auzoko testuak argitaratzeaz gain, hiztegitxo bat ere ematen du. 2004b-ko liburuan hainbat gairen arabera testuak topa ditzakegu eta erdaraz erabiltzen diren euskal berben zerrenda ere bai.

Bilboko hizkerari buruz Gaminderen lanez gain, Arriagaren (1896) *Lexicón etimológico naturalista y popular del bilbaíno neto* aipatu behar da, eta Irigoyenenak (1977 eta 1993), non ikuspegi historikoa ematen digun.

Hauek dira herri hauei buruz beren-beregi idatzitako lanak, baina, jakina, hauetaz gain, eremu zabalagoetan egin diren azterketetan ere hainbat informazio lor daiteke.

### 7.1.3.1. Azterketa kontrastiboa

Azterketa honetan bost herri hauek banatzen dituzten isoglosak erakusten ahaleginduko gara. Horretarako, bost arlo jorratuko ditugu: fonetika, izen-sintagma, aditz-sintagma, sintaxia eta lexikoa.

- Fonetika

Fonetikan aurkitutako isoglosak hiru taldetan banatuko ditugu. Alde batetik, bokaletan aurkitutakoak, beste alde batetik, kontsonanteetan, eta amaitzeko, azentuaren inguruan daudenak.

- Bokalak

Hauek dira aurkitutako ezberdintasunak:

1) Mugatzailea + erroa

Mugatzaileari erroa eransterakoan hainbat arau gauzatzen dira

1a) Igorren, Zeanurin eta Zeberion, a + a > ea: *alabea, ankea, gonea...*

Basaurin eta Bilbon, a + a > ie: *alabie, ankie, gonie...*

1b) Igorren, Zeanurin eta Zeberion, e + a > ea: *abadea, semea, bidea...*

Basaurin eta Bilbon, e + a > ie: *abadie, semie, bidie...*

1c) Baina Zeanurin a + a > ia / uC, iC\_\_\_\_: *umia, sauria, gauria, letxugia, merindia, frutia, koipia...* Larrea eta Rekaldek (2010: 42) aipatzen dutenez, arau hau gero eta gutxiago entzuten da Zeanurin.

1d) Igorren, Zeanurin eta Zeberion, i + a > ie: *errie, idie, barrie...*

Basaurin eta Bilbon, i + a > idxe: *erridxe, ididxe, barridxe...*

2) Igorren *au* diptongoaren itxiera daukagu: *au > eu*. Beste herri guztietan ez dago itxierarik.

Adibideak:

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>amateu</i>	<i>amatau</i>	<i>amatau</i>	<i>amatau</i>	<i>amatau</i>
<i>akordeu</i>	<i>akordau</i>	<i>akordau</i>	<i>akordau</i>	<i>akordau</i>
<i>deu</i>	<i>dau</i>	<i>dau</i>	<i>dau</i>	<i>dau</i>

3) Zeberion, Basaurin eta Bilbon sarri askotan *eu* diptongoa zabaldu egiten da: *eu > au*

Adibideak:

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>neu</i>	<i>neu</i>	<i>nau</i>	<i>nau</i>	<i>nau</i>
<i>euskerea</i>	<i>euskerea</i>	<i>auskerea</i>	<i>auskerie</i>	<i>auskerie</i>
<i>euki</i>	<i>euki</i>	<i>auki</i>	<i>auki</i>	<i>auki</i>

4) Zeanurin, Zeberion, Basaurin eta Bilbon *ei* diptongoa zabaltzeko joera dago: *ei > ai*

Adibideak:

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>erein</i>	<i>erein</i>	<i>erain</i>	<i>erain</i>	<i>erain</i>
<i>odei</i>	<i>odei</i>	<i>odai</i>	<i>odai</i>	<i>odai</i>
<i>bei</i>	<i>bei</i>	<i>bai</i>	<i>bai</i>	<i>bai</i>

- Kontsonateak

### 5) “j”ren ebakera

“j”ren ebakera ezberdin bi ditugu. Alde batetik, Igorren, Zeanurin eta Zeberion herskari sabaikari ahostuna daukagu, “y” transkribituko duguna. Beste aldetik, Basaurin eta Bilbon afrikatu aurre sabaikari ahostuna daukagu, “dx” transkribituko duguna. Esan behar da afrikatu aurre sabaikari ahostuna “dx” (Gaminde 1990e) zein “y” (Arretxe 1994) transkribatua izan dela lan ezberdinetan.

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
y	y	y	dx	dx

### 6) Palatalizazioa

Arau fonologiko honetan multzo ezberdin bi bereizten dira. Alde batetik Arratiako herriak, Zeberio barne, eta beste alde batetik, Hego-Uribekoak. Arratiakoetan *n*, *l*, *s* eta *tz* busti daitezke eta Hego-Uribekoetan, hauetaz gain, *d* eta *t* ere bustitzen dira.

Palatalizazioa gertatzen da kontsonante hauen aurrean *i* bokala edo bokalerdia dagoenean. Bokalerdia denean beti gauzatzen da bustidura herri guztietan. Bokala denean ostera, Arratian ez da beti gauzatzen. Horrela, *i + n* testuingurua daukagunean, palatalizazioa aukeran izango da, batzuetan gauzatuko eta beste batzuetan ez.

*i + n > n* zein *ñ*  
*inos* zein *iños*  
*ipini* zein *ipiñi*  
*inontza* zein *iñontza*  
*bardine* zein *bardiñe*...

*i + l* testuinguruan normalean ez dago palatalizaziorik: *mutile*, *inutile*, *mokile*, *txabilea*, *burpile*... Hala eta guztiz ere,berba bakan batzuetan palatalizazioa aurki dezakegu, askotan hau ere hautazkoa: *bille*, *mille*, *orkatillea*, *ukubile* zein *ukubille*, *ilebetea* zein *illebetea*... Baina esan bezala, kontsonante hau gehienetan ez da palatalizatzen.

*i + s* testuinguruan jokabide bi dauzkagu Arratiako herrietan. Alde batetik, hitz batzuk ez dira inoiz palatalizatzen: *bisi*, *ikisi*, *dakisu*, *dabisu*... Eta beste alde batetik, berba batzuetan palatalizazioa hautazkoa da:

*gisona* zein *gixona*  
*isena* zein *ixena*  
*isin* zein *ixin*  
*iserrak* zein *ixerrak*  
*biserra* zein *bixerra*

*i + tz* testuinguruan dauzkagun adibide apurrek esaten digute hautazkoa dela baita Hego-Uriben ere.

Hitz batzuetan ez da bustitzen: *itzue, sitze, itzela...* Beste batzuetan ostera, beti bustitzen da: *itxi, itxun...* Eta beste batzuetan, era bietako adibideak ditugu: *itzesoa* (Buja), *itxosoa* (Begoña).

Bilbon eta Basaurin, Arratiakoetan eta Zeberion ez bezala, *i + d* eta *i + t* testuinguruetan palatalizazioa gauza daiteke. Dena den, Gaminderen (1990e: 30, 98) hainbat adibidetan ikus dezakegunez, Larraskitun gehienetan ez da gauzatzen.

Buja	Begoña	Larraskitu
<i>ixerditten</i>	<i>ixerditten</i>	<i>ixerditen</i>
<i>dittu, dittu</i>	<i>dittu, (di)txus</i>	<i>dittus, ditxus</i>

Basauriko adibideak (Arretxe, 1994): *txinddor, gonbittularri, goittar, bilddurtu, Asgoitti, inddaba...*

Bilbokoak (Gaminde, 1990e): *ditxues, garbittu, amaittu, mendittik, sarritten, astinyu, urdinyute, inyaba...* baina baita *eiterik, birriten...*

Laburbilduz:

	Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>i + n</i>	<i>n eta ñ</i>	<i>n eta ñ</i>	<i>n eta ñ</i>	<i>ñ</i>	<i>ñ</i>
<i>i + l</i>	<i>l</i>	<i>l</i>	<i>l</i>	<i>ll</i>	<i>ll</i>
<i>i + s</i>	<i>s eta x</i>	<i>s eta x</i>	<i>s eta x</i>	<i>x</i>	<i>x</i>
<i>i + tz</i>	<i>tz eta tx</i>	<i>tz eta tx</i>	<i>tz eta tx</i>	<i>tz eta tx</i>	<i>tz eta tx</i>
<i>i + t</i>	<i>t</i>	<i>t</i>	<i>t</i>	<i>tt</i>	<i>tt eta t</i>
<i>i + d</i>	<i>d</i>	<i>d</i>	<i>d</i>	<i>dd</i>	<i>y eta d</i>

## 7) Azentua

Euskal Herriko azentua bere osotasunean aztertu eta sailkatu duten bi ikerlariak Hualde (1997) eta Gaminde (1998b) bat datoz euren emaitzetan. Hualdek (1997: vi-viii) eta Gamindek (1998b: 19) lau multzotan sailkatzen dute euskal azentua.

Hualde (1997)

- 1) Ekialdeko azentubidea
- 2) Erdialdeko azentubidea
- 3) Mendebaldeko zenbait sistema berezi
- 4) Bizkaiko kostaldeko doinu-azentu sistemak

Gaminde (1998b)

- 1) Ekialdeko azentubidea
- 2) Erdialdeko azentubidea
- 3) Mendebaldeko sistema bereziak
- 4) Doinu-azentu sistemak

Hualdek (1997: 167) Mendebaldeko zenbait sistema berezien artean sailkatu zituen Zeberio eta Arratia, baina Hego-Uribeko azentua ez du aipatzen bere 1997ko sailkapenean. Gamindek ere (1998b: 30) Mendebaldeko sistema berezien artean sailkatu zuen

Zeberio-Arratia. Hualderen sailkapenaren aldean, berrikuntza Hego Bizkaieraren aipamena da. Gamindek (1998b: 31) Mendebaldeko sistema berezien artean ere sailkatzen du.

Arratia-Zeberio eta Hego Bizkaieraren azentuaren ezberdintasunik handiena bereizlea izatean (edo ez izatean) datza. Horrela laburtzen ditu azentu arauak Gamindek (1998b: 30-32) hitz arruntetarako eta aditz partizipiotarako:

#### Zeberio-Arratia

##### Hitz arruntetarako

- 1) Silaba bat eta bikoetan taldearen azkenurreko silaban: 2].
- 2) Hiru silabakoetan erroaren azken silaban: 1].

Azentu lexikala ez daukaten berbetan pluralaren morfema aurreazentuatzailea denez gero, berau silaba batez atzeratu egiten da.

##### Aditz partizipioetarako

- 1) Aditz laguntzailea afijatu.
- 2) Azken silaba estrametrikala.
- 3) Azentua 2. silaban: 2].

#### Hego Bizkaiera

##### Hitz arruntetarako

- 1) Mugatzailearen afijazioa eta egokitzapena.
- 2) Azken silaba estrametrikala.
- 3) Azentua bigarren silaban txertatu (edo silaba bakarrean): [2.

##### Aditz partizipioetarako

- 1) Aditz laguntzailea afijatu.
- 2) Azken silaba estrametrikala.
- 3) Azentua 2. silaban (edo silaba bakarrean): 2].

Zeberio-Arratia sistemari dagokionez, Etxebarria (1991) izan zen lehena ezberdintasunik aurkitzen Zeberio eta Arratiko hizkeren artean. Ostein, Hualdek (1992 eta 1997) ederto aztertu zuen Zeberioko azentuera, eta Iglesiasek (2008) berretsi zituen Etxebarriak eta Hualdek esandako ezberdintasunik Igorren batutako datuekin. Hauek ere Zeanurikoekin alderatu ahal dira Gaminderen (1995b eta 1998b) lanei esker. Datuak aztertu ondoren, ondorioa litzateke Igorreko, Zeanuriko eta Zeberioko azentuerak kasu guztietan berdina direla, zenbait toponimotan, -‘a’z amaitutako berbetan eta aditz partizipioetan izan ezik, zeinetan Zeberiokoa ezberdina baita:

#### a. Toponimia

Ezberdintasun hau azaltzeko toponimia osoa batu beharko genuke eta konparaketa egin, baina hau ez da lan honen helburua. Edozelan ere, argi dago hainbat toponimotan azentuera ezberdina topatzen dugula.

Igorre	Zeanuri	Zeberio
<i>Sarásola</i>	---	<i>Sarasóla</i>
<i>Árgiñao</i>	<i>Árgiñao</i>	<i>Argiñao</i>

## b. -a-z amaitutako berbak

Igorren eta zeanurin ‘-a’z amaitutako berbetan pluralean azentua silaba bi ezkeralderago txertatzen da; Zeberion, aldiz, beste berbetan legez, silaba bat ezkeralderago txertatzen da.

Igorre	Zeanuri	Zeberio
<i>béntanak</i>	<i>béntanak</i>	<i>bentának</i>
<i>érrekak</i>	<i>érrekak</i>	<i>errékak</i>
<i>álabak</i>	<i>álabak</i>	<i>alábak</i>
<i>pátatak</i>	<i>pátatak</i>	<i>patátak</i>
<i>sápatak</i>	<i>sápatak</i>	<i>sapátak</i>

## c. Aditz partizipioak

Igorre	Zeanuri	Zeberio
<i>apúrtuko</i>	<i>apúrtuko</i>	<i>apurtúko</i>
<i>konpónduko</i>	<i>konpónduko</i>	<i>konpondúko</i>
<i>garbítuko</i>	<i>garbítuko</i>	<i>garbitúko</i>
<i>ikúsiko</i>	<i>ikúsiko</i>	<i>ikusíko</i>
<i>ibíliko</i>	<i>ibíliko</i>	<i>ibilik</i>

/-tu -ko/ morfema konbinaketa dugunean, Igorren eta Zeanurin /- tu/ atzizkia aureazentuatzailea den bitartean (silababakarreko aditz erroekin salbuespenak aurki ditzakegu), Zeberion azentua /-tu/ atzizkiaren gainean txertatzen da.

/-i -ko/ morfema konbinaketa dugunean Igorren eta Zeanurin /-i/ atzizkia aureazentuatzailea da, Zeberion aldiz ez.

## Arau fonetikoaren laburpena:

Arau Fonetikoak					
	Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
1a) a + a	<i>ea</i>	<i>ea</i>	<i>ea</i>	<i>ie</i>	<i>ie</i>
1b) e + a	<i>ea</i>	<i>ea</i>	<i>ea</i>	<i>ie</i>	<i>ie</i>
1c) e + a / uC,	<i>ea</i>	<i>ia</i>	<i>ea</i>	<i>ie</i>	<i>ie</i>

iC__					
1d) i + a	<i>ie</i>	<i>ie</i>	<i>ie</i>	<i>idxe</i>	<i>idxe</i>
2) au > eu	<i>eu</i>	<i>au</i>	<i>au</i>	<i>au</i>	<i>au / eu</i>
3) eu > au	<i>eu</i>	<i>eu</i>	<i>au</i>	<i>au</i>	<i>au</i>
4) ei > ai	<i>ei</i>	<i>ei</i>	<i>ai</i>	<i>ai</i>	<i>ai</i>
5)“j”ren ebakera	<i>y</i>	<i>y</i>	<i>y</i>	<i>dx</i>	<i>dx</i>
6) Palatalizazioa	Ahula	Ahula	Ahula	Indartsua	Indartsua
7) Azentua	Zeberio-Arratia	Zeberio-Arratia	Zeberio-Arratia	Hego Bizkaiera	Hego Bizkaiera

Arau hauek herri multzoetan banatuz gero, honako hauek dauzkagu:

Igorre-Zeanuri-Zeberio vs Basauri-Bilbo: 1a, 1b, 1d, 5, 6 eta 7 arauak.

Igorre-Zeanuri vs Zeberio-Basauri-Bilbo: 3 eta 4.

Zeanuri vs Igorre-Zeberio vs Basauri-Bilbo: 1c

Eremurik gabekoa: 2

- Izen-sintagma

Bost dira izen-sintagman aurkitutako isoglosak.

## 8) Erakusleak

Erakusleak bereizteko modu bi daude mendebaldeko hizkeretan: morfologikoki eta fonologikoki, azentuaren bidez. Igorren, Zeanurin eta Zeberion erakusleak fonologikoki bereizten dira. Morfologikoki Bilbon, Basaurin, Zeanuri eta Zeberion beti bereizten dira eta Igorren batzuetan bereizten dira.

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
+ Fonologikoki (+Morfologikoki)	+ Fonologikoki + Morfologikoki	+ Fonologikoki + Morfologikoki	+ Morfologikoki - Fonologikoki	+ Morfologikoki - Fonologikoki
<i>onék</i> (sg.)	<i>onék</i> (sg.)	<i>onék</i> (sg.)	<i>onek</i> (sg.)	<i>onek</i> (sg.)
<i>ónek / óneik, ónik</i> (pl.)	<i>óneik, ónik</i> (pl.)	<i>ónik</i> (pl.)	<i>oneik</i> (pl.)	<i>oneik</i> (pl.)

## 9) Zuek pertsona izenordaina

Zuek pertsona izenordainak hainbat aldaera azaltzen ditu herri hauetan: *suek, surok, suok eta suik*. Hau da bere banaketa herrien arabera.



Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>suek</i>	<i>suok</i> <i>suek</i>	<i>surok</i> <i>suok</i>	<i>surok</i> <i>suik</i>	<i>suik</i>

## 10) Noraino deklinabide kasua

*Noraino* deklinabide kasuaren morfema ezberdina da herri hauetan. Igorren, Zeanurin eta Zeberion *-raño* morfema daukagu. Basaurin aldiz, *-ragiño* eta *-ragiño*ko daukagu eta Bilbon *-giño* daukagu Bujan eta Larraskitun, Begoñan ostera, *-raño*.

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>basoraño</i>	<i>basoraño</i>	<i>basoraño</i>	<i>basoragiño(ko)</i>	<i>basogiño /</i> <i>basoraño</i>

11) Inesiboa bizidunekin kasua, nogan, ia Zeberion baino ez da erabiltzen. Igorren eta Zeanurin inesiboa bizidunekin kasua gauzatzeko sozietiboa, *nogaz*, erabiltzen da. Igorren ordezkapen hau erabatekoa da eta Zeanurin ia berdin gertatzen dela esan dezakegu. Agirregoikoak honela dio:

“Inesiboa bizidunekin, *arrabágan*, *arrabéagan*, *árrabakan*, formak ere entzun ditzakegu, baina oso gutxitan entzuten dira honelakoak, ia-ia galdurik dauden formak esango nuke, salbuespenak dira.”

Basaurin (Arretxe 1994: 96) bere ordezkari *nogaz* eta *nogaitik* erabiltzen dira. Bilbon ere, ez da *nogan* kasua erabiltzen.

Adibideak:

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>nogas</i>	<i>nogas</i>	<i>nogan</i>	<i>nogas /</i> <i>nogaitti(k)</i>	<i>nogas</i>

12) Inesibo kasuaren gainean eraturako beste kasu guztien bokal osteko pluraletako loturazko bokal bi daude: *-e-* eta *-a-*. Zeanurin biak daukagu dira. Igorren eta Zeberion ostera, *-a-* baino ez. Basaurin *-e-* da, baina Arretxek (1994: 102) ohar baten azaltzen du *-a-* ere izan daitekeela batez ere *-a-z* amaitzen diren berbetan. Bilbon (Gaminde 1990e) aldiz, auzoen arabera banatzen da; Bujan eta Larraskitun *-a-* da, eta Begoñan *-e-*.

Adibideak:

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>-a-</i>	<i>-e- eta -a-</i>	<i>-a-</i>	<i>-e-</i>	<i>-e- eta -a-</i>
<i>etzeatan</i>	<i>etzeetan etzeatan</i>	<i>etzeatan</i>	<i>ausoetan</i>	<i>basoetan / basoatan</i>
<i>etzeatara</i>	<i>etzeetara etzeatara</i>	<i>etzeatara</i>	<i>ausoetara</i>	<i>basoetara / basoatara</i>
<i>etzeatarraño</i>	<i>etzeetarraño etzeatarraño</i>	<i>etzeatarraño</i>	<i>ausoetagiño</i>	<i>basoetagiño / basoatagiño</i>

Laburbilduz:

Izen-sintagma					
	Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
8) Erakusleak fonologikoki bereizi	+	+	+	-	-
9) Zuek	<i>suek</i>	<i>suok suek</i>	<i>surok suok</i>	<i>surok suik</i>	<i>suik</i>
10) <i>-giño</i> atzizkia	-	-	-	+	+
11) nogan	-	-	+	-	-
12) loturazko bokala	<i>a</i>	<i>e/a</i>	<i>a</i>	<i>e</i>	<i>e/a</i>

Arau hauek herri multzoetan banatuz gero, honako hauek dauzkagu:

Igorre-Zeanuri-Zeberio vs Basauri-Bilbo: 8 eta 10

Zeberio vs Beste guztiak: 11

9. eta 12. arauk ez dute multzo zehatzik erakusten.

- Aditz-sintagma

Zortzi dira aditz-sintagman aurkitutako isoglosak.

13) *-tzean* alomorfoa

Igorren, Zeanurin eta Zeberion aspektu ez burutua egiteko beste batzuen artean *-tzean* alomorfoa erabiltzen da, Bilbon eta Basaurin osteraz, ez. Alomorfo hau *-tu/-du-z* amaitutako silaba biko partizipioetan erabiltzen da: *artzean, batzean, sartzean, saltzean...*

## 14) Nor-Nori saileko adizkien erroan agertzen den morfema

Herri hauetan, bi dira dauzkagun aldaerak<sup>122</sup>: “y” eta “dx” eta honela banatzen dira:

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
y	y	y	dx	dx
yako, yatzu...	yako, yatzu...	yako, yatzu...	dxako, dxatzu...	dxako, dxatzu...

## 15) Bigarren pertsonaren morfema Nor saileko alokutiboetan

Herri hauetan Nor saileko alokutiboetan bigarren pertsonaren morfema Ø- da herri guztietan, baina Bilboko Begoñan g- da (Gaminde 1990e: 94).

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
Ø-	Ø-	Ø-	Ø-	Ø eta g-
as	as	as	as	as eta gas

## 16) Aditz trinkoen alokutiboetan -dx- morfema tartekatzea

Bilbon eta Basaurin aditz trinkoen alokutiboetan -dx- morfema tartekatzen da. Igorre, Zeanuri eta Zeberion ostera, ez.

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
ñoak	ñoak	ñoak	nodxoak	naidxoak
ñatok	ñatok	ñatok	natodxek	naidxatok

## 17) Palatalizazioa adizki alokutiboetan

Adizki alokutiboetan lau palatalizazio gauzatu daitezke bizkaieraz (Gaminde, 2007b: 166), baina horietatik bitan baino ez ditugu ezberdintasunak aurkitzen herri hauen artean. Arestian esan dugunez, adizki alokutiboa “ni” denean palatalizatu egiten da Igorren, Zeanurin eta Zeberion; Bilbon eta Basaurin aldiz, ez. Beste aldetik, hirugarren pertsonetan “d” ere palatalizatu egiten da, baina kasu honetan Igorren, Zeanurin eta Zeberion “y” izango dugu; Bilbon eta Basauri berriz, “dx”.

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
ñabik	ñabik	ñabik	nabidxek	naidxabik
yok	yok	yok	dxok	dxok

<sup>122</sup>Igorren behin baino ez dut batu “d” morfema: dako. Gamindek (1990e: 96) *dast* aldaera ere ematen du Bujarako; eta Arretzek (1994: 143) lehenengo pertsonarako *nasta* aldaera ere ematen du.

## 18) Eragon

*Eragon* aditzaren azterketa sakona Gaminderen (1987) artikuluan irakur dezakegu. Aditz hau Basaurin (Arretxe, 1994: 157) eta Bilbon ezezaguna da. Zeberion erabilera gehiago du Igorren eta Zeanurin baino. Igorren eta Zeanurin eguraldi arloko egituretan baino ez da erabiltzen; *eurie daragoio* modukoak. Singularreko hirugarren pertsona baino ez da ezagutzen. Zeberion oster, paradigma osoa batu du Etxebarriak (1991: 205, 230) eta adibideetan erakusten duenez, ez da bakarrik eguraldi arloko egituretan erabiltzen.

Zeberioko adibideak:

- *baragoiosue artoyorran e?*
- *bai, baragoiu ba*
- *artoyorran daragoio*
- *surok eragon gaste sarien artean*
- *badaragoiosue piperrak sartzean / sartzeari*

## 19) Jario

*Jario* aditza Zeberion baino ez da erabiltzen eragon esanahiarekin. Beste herrietan ez da batu modu honetako adibiderik. Etxebarriak (1991: 204, 213, 230) aditz honen paradigma eta adibideak ematen dizkigu.

Adibideak:

- *urliek e... bario ba idebateari!*
- *apakarrik es, naupe bariot*
- *ni(k)p(b)ariot gari eraiten / eraiteari*
- *ak a... bario satz atetan / ateteari*

## 20) Adizki aoristoak

Adizki aoristoak Bilbon baino ez dira erabiltzen eta Gamindek (2002b) aipatzen duen moduan euren erabilera ezberdina da auzoen arabera.

“Bilboko auzotegietan adizki hauen erabilera nahikoa desberdina da; Bujan eta Begoñan erabilera hau nahikoa urria da Larraskitun, oster, sano ugaria. Adizki aoristikoak NORK-NOR (*geixen, geixien*, e. a.) eta NORK-NORI-NOR (*gixon, gixuen*, e.a.) sailetan erabiltzen dira, batez ere.” (Gaminde, 2002b)

Laburlbilduz:

Izen-sintagma					
	Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
13) -tzean	+	+	+	-	-
14) Nor-Nori Hi	Ø-	Ø-	Ø-	Ø-	Ø- eta g-
15) Nor Hari	y-	y-	y-	dx-	dx-

16) -dx-	-Ø-	-Ø-	-Ø-	-dx-	-dx-
17) Palatalizazioa	+	+	+	-	-
18) Eragon	+	+	++	-	-
19) Jario	-	-	+	-	-
20) Aoristoa	-	-	-	-	+

Aditz-sintagman agertzen diren ezberdintasunak herri multzoetan banatuz gero, honako hauek dauzkagu:

Igorre-Zeanuri-Zeberio vs Basauri-Bilbo: 13, 15, 16, 17, 18

Zeberio vs Beste guztiak: 19

Bilbo vs Beste guztiak: 14 eta 20

- Sintaxia

Sei dira aurkitutako ezberdintasunak hiru herri hauen artean.

#### 21) *Es ese... be*

Emendiozko juntagailuen artean *es ese... be* Zeanurin, Zeberion eta Basaurin batu da. Igorren beren beregi galdetu dugu arren, ez dugu jaso.

Adibideak:

Basauri (Arretxe, 1994: 192)

- *negar esese barrein be itten du guk*

- *lo esese yan be itten dau umiek*

- *Fiñagan esese emen be badakigu ori*

Zeberio (Etxebarria, 1991: 234)

- *yan esese, edan be estau eiten*

- *lo esese, itxarri(k)p(b)e oten badaki orrek*

- *emen esese, an be estao posik*

Zeanuri (Agirregoikoa)

- *narajak esese, txuletape erosiodas*

- *beyek esese, ardiepe baukes orrek*

- *artoa esese, babea be guatuot aurtan*

#### 22) *Sein* baldintza-perpausetan

Baldintza-perpausetan *sein* lokarritz Zeberion, Basaurin eta Bilbon jaso da.

Adibideak:

Zeberio (Etxebarria, 1991: 244)

- *gordasola eroaik sein busti*
- *astiro yoai sein mosus aurre yausi*
- *umea yagoine sein galdu*

Basauri (Arretxe, 1994: 207)

- *eseixu txarto berbain seiñ umiek entzun*
- *yoan geldiro sein labandu te yausi*
- *umie ondo yagon sein galdu*

Bilbon “seiñ + subjuntiboa” egitura ere badaukagu (Gaminde, 1998c: 94)

- *atie sarratu dot seiñ etzie otzittu daitten* (Buja)
- *orrek deko billurre sein kendu* (Buja)

### 23) Partizizpioa + *-an be*

Baldintza-perpausetan Partizizpioa + *-an be(re)* moldea Zeberion, Zeanurin eta Basaurin baino ez da jaso.

Adibideak:

Zeberio (Etxebarria, 1991: 244)

- *gordeixu baten batek ikusien be*
- *baten batek gaituen be sur on sates*
- *umean batek entzunean be esaixu maldisiñori(k)p(b)ota*
- *medikue etorrien be iminibus erroga barriek*
- *baten bat yausien be sikitixu origo au*

Zeanuri<sup>123</sup>

- *sartu baten batek ikusien be*
- *es esan baten batek entzunean be*

Basauri (Arretxe, 1994: 207)

- *ereittieri segidu, gosie etorriyen bere aukitteko*
- *baten batek ukusiyen be ori ondo gordeixu*
- *baten batek yausiyen bere ori platano asal ori kendu orti*

### 24) *-tekoztat*

Baldintza-perpausetan *-tekoztat* forma Zeberion baino ez da jaso.

Adibideak:

Zeberio (Etxebarria, 1991: 244)

- *ardieri emotekotzat erosiko naunke galtzue*

<sup>123</sup> Nik neuk batutako adibideak.

25) *-t(z)earrik*

Basaurin, Bilbon eta Zeberion kausazko eta helburuzko perpausetan *-t(z)earrik* erabiltzen da. Igorren lekuko bakar bati baino ez diogu batu, beste guztiek ez dute ezagutzen. Zeanurin ere ez da jaso.

Adibideak:

Zeberio (Etxebarria, 1991: 249)

- *dana deslai itxitearrik oin dana ankasgora*
- *sauri emotearrik nau bapebarik*

Igorre (adibide bakarra)

- *kastigeu ein dostie euskeras eitearrik*

Bilbo (Gaminde 1990e: 134)

- *yausi de ariñ ibiltearrik*
- *kafie artutearrik estau lorik eiñ*

Basauri (Arretxe 1994: 209)

- *suges egotarrik etorri nes*
- *Samudiyora yoan de ixiko ukustarrik*

26) *-na les*

Igorren, Zeanurin eta Zeberion moduzko perpausetan *-na les / letxe* egitura erabiltzen da. Basaurin eta Bilbon forma hau ez da ezagutzen.

Adibideak:

Zeberio (Etxebarria, 1995: 171, 178, 187)

- *erri gustie yoate san elixara baya a etzana lez yoan orregaiti parau i sen kondenaute*
- *Da yentile lo parau sen orduen orduan tuertoa sana les besteti, kokoteti sartu otzela oroskoarrak*
- *Da urten auen altaraurrera, da, ostaire beitate, esauena les topau sakristaurik i mesea erasoteko, atzera yoan, da mudau t'eskapauen*

Zeanuri

- *domeka salea edo ba elexara ta yoaten sana les bera ba, esaoan* (Etxebarria, 1995: 262)
- *gaur astelena dana letxe bearren yoan gara* (Gamindek, 1992b: 8)
- *itzue dana letxe esin dau ikusi* (Agirregoikoa et al.)
- *gurea sana letxe esegoan problemarik* (Agirregoikoa et al.)

Igorre

- *Igorreko kintoak danak esetan doas baya ori, ba, Dimekoa dana les...*
- *esperimentuek eiten asi sana les fama andie artu seuen*
- *baya ain nerbiosoa dana les andreak es euen gure ixiten aurean eon*
- *Aistu eiten yatzus, se orrek ainbeste urte direana les...*

Laburlbilduz:

Izen-sintagma					
	Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
21) es ese... be	-	+	+	+	-
22) sein	-	-	+	+	+
23) -an be	-	+	+	+	-
24) -tekotzat	-	-	+	-	-
25) -tearrrik	-	-	+	+	+
26) -na les	+	+	+	-	-

Sintaxian agertzen diren egitura hauek herri multzoetan banatuz gero, honako hauek dauzkagu:

Igorre-Zeanuri vs Zeberio-Basauri-Bilbo: 22 eta 25

Igorre-Zeanuri-Zeberio vs Basauri-Bilbo: 26

Zeberio vs Beste guztiak: 24

Igorre-Bilbo vs Zeanuri-Zeberio-Basauri: 21 eta 23

- Lexikoa

Zalantza barik gai korapilatsua da hiztegiarena. Hizkera batean zein hitz erabiltzen den eta zein ez jakitea gaitza da, eta hortaz, hizkera biren hiztegia alderatzea arazoa handia da. Herri hizkera hauei buruz zenbait hiztegitxo dauzkagu; horietaz gain, testuetan hainbat informazio lor dezakegu, baina ez daukagu hizkera bakoitzaren hiztegia. Egia da, Larreak eta Rekaldek (2010) euren lanean Arratia inguruko hiztegia batu zutela, Zeberion batutako berbak barne, eta berba bakoitza non jaso den jarri dutela, baina jakina, ezin zehaztu berba bakoitza non ez den esaten.

Corpus nagusienak

Esan bezala, transkribatutako testuak eta esaldiez gain, herri hauek guztiek hiztegitxo bat daukate. Gure tesian transkribatutako testu guztien hitzen zerrenda ematen dugu; guztira 3102 berba. Zeanurirako Agirregoikoak eta lag.-ek hiztegitxo bat ematen dute. Horretan, *Diccionario Retana de Autoridades del Euskaran* agertzen den esanahiarekin erkatzen dute. Honetaz gain, oso baliagarria egin zaigu Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a, horretan Zeanurin eta Zeberion jasotako erantzunak aurkitzen direlako. Zeberiorako aipatutako *EHH*Az gain, hiztegitxo bi dauzkagu. Etxebarriak (1991: 319-355) hitz eta esaldi zerrenda bat ematen du. Ostean, Etxebarriak (1995) etnotestuetan agertzen diren berbeekin hiztegi txiki bat txertatzen du. Basaurirako Arretzek (1994: 237-301) jasotako hiztegitxoa daukagu. Bilboko hizkerari buruz hiru hiztegitxo aipatu behar ditugu: Arriagarena (1896) eta Gamindek (1994: 81-176) jasotako Larraskituko lexikoa eta (2004b: 89-96) Bilbon erdaraz erabiltzen diren euskal berbak. Hauetaz gain, Azkueren *Erizkizundi Irukoitzan* ere



Bilboko Buia, Zeanuri eta Igorreri buruzko datuak ditugu, eta Arantzadi Zientzia Elkartearen (1984-1990) *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa* ere Igorrekoa

Gamindek (2007b: 207) esaten duen legez, barietateen lexikoen arteko konparazioak egiteko lexiko orokorra baino ezin da erkatu. Hortaz, lexiko orokorretik kanpo hainbat berba utzi beharko dira Gaminderen (2007b: 207-209) arabera:

- Berba teknikoak
- Ingurune geografiko kulturalak baldintzatutako berbak
- Kontzeptu bat adierazteko era ezberdinak
- Borroka linguistikoa dauden berbak

Hona hemen aurkitutako ezberdintasunak:

Igorre	Zeanuri	Zeberio	Basauri	Bilbo
<i>asagari</i>	<i>asagari</i>	<i>asagari / luki</i>	<i>luki</i>	<i>luki</i>
<i>aitite</i>	<i>aitite</i>	<i>aitite</i>	<i>aitteitte / aittue</i>	<i>aittue</i>
<i>amama</i>	<i>amama</i>	<i>amama / amandre</i>	<i>amandre</i>	<i>amandre</i>
<i>txirgora</i>	<i>txirgora / abasusi</i>	<i>txirgora / abasuse</i>	<i>abasosi</i>	<i>abasusa</i>
Aldaketa fonetikoak				
<i>yoan</i>	<i>yoan</i>	<i>yoan</i>	<i>dxoan</i>	<i>dxoan / fan</i>
<i>lengusu</i>	<i>lengusu</i>	<i>lengusu</i>	<i>lenkosu</i>	<i>lenkosu / lengusu</i>
<i>sapo</i>	<i>sapo</i>	<i>sapo</i>	<i>sapo</i>	<i>sapo / apo</i>
<i>isen</i>	<i>isen</i>	<i>usen</i>	<i>usen</i>	<i>usen</i>
<i>anaya</i>	<i>anaya</i>	<i>anaje</i>	<i>anaje</i>	<i>anaje / anaidxe</i>
<i>koyu</i>	<i>koyu</i>	<i>koyau</i>	<i>kosi</i>	<i>koxi</i>
<i>txubelaxo</i>	<i>txubelaso</i>	<i>txubelaxu</i>	<i>ugelidxo</i>	<i>ugelexu / ugerixo ugelatxu</i>

Taulan ikusten denez, oso gutxi dira aurkitutako ezberdintasunak eta gainera hauen erdia (taularen beheko laukietan daudenak) aldaketa fonetikoak baino ez dira (*yoan / fan*, *lengusu / lenkosu* edota *sapo / apo*), lexikoari ez dagozkionak. Zehazki lexikoari dagozkion ezberdintasunak lau bikote baino ez dira. *Asagari / luki*, *aitite / aittue*, *amama / amandre* eta *txirgora / abasusa* bikoteek ederto erakusten digute trantsizioa zelan gauzatzen den Arratiatik Hego-Uribera. Igorren berba bakar bat erabiltzen da, tarteko herrietan, Zeanuri, Zeberio edota Basaurin, berba bi ezagutzen dira eta azkenik Bilbon berba bakar bat erabiltzen da, Igorren erabiltzen ez dena. Ikusten denez, lau bikote hauetatik trantsizioa hirutan gauzatzen da Zeberion.

### Isoglosen azterketa

Lexikoa alde batera utzita bere konplexutasunagatik eta oso emankorra ez izateagatik, guztira 29 dira aurkitutako ezberdintasunak. 10 fonetikan, 5 izen-sintagman, 8 aditz-sintagman eta 6 syntaxian. Hizkuntza-ezaugarri hauek guztiak multzokatuz gero, honako eremuak dauzkagu:

- a) Igorre-Zeanuri-Zeberio vs Basauri-Bilbo: 1a, 1b, 1d, 5, 6, 7, 8, 10, 13, 15, 16, 17, 18 eta 26.
- b) Igorre-Zeanuri vs Zeberio-Basauri-Bilbo: 3, 4, 22 eta 25.
- c) Zeberio vs Beste guztiak: 11, 19 eta 24.
- d) Bilbo vs Beste guztiak: 14 eta 20.
- e) Zeanuri vs Igorre-Zeberio vs Basauri-Bilbo: 1c.
- f) Eremu finkorik gabekoak: 2, 21 eta 23.

Ikus dezakegunez, hizkuntza-ezaugarri hauek gure azterketan zehaztu nahi ditugun mugak baino eremu gehiagoren berri ematen digute. Dena den, guk aztergai dugun eremu geografikoari erreparatuko diogu nahiz eta beste hizkuntza-ezaugarri batzuen hedadura oso zabala den, hala nola 2.a, -eu- diptongoarena. Gogora dezagun azterketa dialektologiko honen helburuetako bat Arratiako barietateak mendebaldean dituen mugak zehaztea dela, zehatz-mehatz Zeberioko hizkera Arratiako barietatekoa den, Etxebarriak (1991) eta Gamindek (2007b) adierazten duten bezala, ala Arrigorriagako barietatean kokatu behar dugun Bonaparteren (1869) sailkapenari kasu eginez.

Aurkitutako ezberdintasunei erreparatuz, berehala konturatzen gara Zeberioko hizkera Arratiakoekin askoz hizkuntza-ezaugarri gehiago duela komunean, guztira 14. Bilbo eta Basaurirekin berriz, 4 ezaugarri baino ez ditu komunean. Horretaz gain, Zeberio berezkoak dituen hiru ezaugarri ere aurkezten ditu. Dena den, dialektologia kontrastiboan hizkuntza-ezaugarri guztiak ez dute pisu bera sailkapen bat egiteko (Camino, 2004: 75-80). Ezaugarrien eskusibotasuna, hedaturaren zabaltasuna, berrikuntzak, arkaismoak ala hautuak diren, kronologiaren baldintza, sistematikasuna eta fidegarritasuna ere kontuan hartu behar dira.

Gure azterketara bueltatuz, Zeberio Arrigorriagako barietatearekin lotzen duten ezaugarriak aztertuz, ikusten dugu euren hedadura ez dela oso zabala. Syntaxiak 22. eta 25. ezaugarriak ditu, *sein* eta *-tearrik*, oso gutxitan erabiltzen direnak eta sistematikoak ez direnak, euren ordean beste egitura batzuk erabil daitezkeelako. Fonetikako ezaugarriak dagokienez, 3. eta 4.a (diptongoetan *eu* > *au* eta *ei* > *ai* egitea), esan behar da ezaugarri hauek hedadura nahiko zabalekoak izan arren, ez direla guztiz sistematikoak, ez baitira beti gauzatzen. Beraz, oso ezaugarri gutxi dira Zeberio Basaurirekin eta Bilborekin batzen dutenak. Gure ustez, ez dira nahikoak Zeberioko hizkera Arrigorriagako barietatean sartzeko.

Zeberio Arratiako barietatearekin batzen duten ezaugarriak erreparatuz, ikus dezakegu batzuk eskusiboak direla: *azentua*, *palatalizazioa* eta *-na les* egitura; eta beste batzuk sistematikoak eta hedadura zabalekoak direla: *ea* disimilazioa, “j”-ren ebakera, adizkien erroak... Beraz, herri hauek batzen dituzten hizkuntza-ezaugarriak asko izateaz gain, eskusiboak, sistematikoak eta hedadura zabalekoak era badira.

Arestian aipatu dugun legez, Zeberioko hizkerak berezko hiruzpalau ezaugarri ditu: 11, 19, 24 eta neurri batean 18a ere bai. Hauetan guztietan Zeberio kontserbatzailea dela esan dezakegu. *Nogan* kasua erabiltzen da, beste herrietan ia galduta dagoena; *Eragon* aditzak Igorren eta Zeanurin baino erabilera gehiago dauka; *Jario* aditza zentzu honetan ere erabiltzen da, eta syntaxian baldintza-perpausetan *-tekoztat* forma erabiltzen da.

Ondorioz, hizkuntza-ezaugarri ezberdintasun guztiak aztertuta, esan dezakegu Zeberioko hizkera ez dela Arrigorriagako barietatekoa. Onartu behar dugu Zeberioko hizkerak barietate bien ezaugarriak dituela, baina ez ordea neurri berean, Arratiako barietatearekin dituenak askoz ugariagoak eta garrantzitsuagoak baitira. Dakigunez, euskalki eta azpieuskalkien artean dauden etenak ez dira guztiz garbiak, gure kasuan bezala, baina bai nabarmena Arratiako barietatearekin duen harremana. Beraz, Zeberioko hizkera ere ez da zubi-hizkera bat, hau da, bi hizkeren artean dagoen trantsizio hizkera.

Beste aldetik, berezkoak dituen ezaugarriak ere (guztira hiru baino ez dira), ez dira nahikoak beste barietate bat dela adierazteko.

Gure ustez, Zeberioko hizkerak eta Arratiakoek komunean dituzten hizkuntza-ezaugarriak eta Arrigorriagako barietatekoekin banatzen dituztenak kontuan hartuz, Zeberioko hizkera Arratiako barietatekoa da zalantza barik, eta hortaz, bat gatoz Etxebarria (1991), Gaminde (2007b) eta Zuazorekin (2014). Hori bai, hori esan dezakegu zeintzuk diren banatzen dituzten ezaugarriak: 1a, 1b, 1d, 5, 6, 7, 8, 10, 13, 15, 16, 17, 18 eta 26.

Zeberio Arratiarekin batzen duten isoglosak:

Hizkuntza-ezaugarriak	Arratia + Zeberio	Arrigorriagako barietatea
1a) a + a	<i>ea</i>	<i>ie</i>
1b) e + a	<i>ea</i>	<i>ie</i>
1d) i + a	<i>ie</i>	<i>idxe</i>
5) “j”ren ebakera	<i>y</i>	<i>dx</i>
6) Palatalizazioa	Ahula	Indartsua
7) Azentua	Zeberio-Arratia	Hego-Bizkaiera
8) Erakusleak fonologikoki bereizi	+	-
10) <i>-giño</i> atzizkia	-	+
13) <i>-tzean</i> alomorfoa	+	-
15) Nor adizkietan Hari	<i>y</i>	<i>dx</i>
16) Hitanoan <i>-dx-</i>	<i>-Ø-</i>	<i>-dx-</i>
17) Hitanoan palatalizazioa	+	-
18) Eragon	+	-
26) <i>-na les</i>	+	-

### 7.1.3.2. Azterketa dialektometrikoa

1.4.2.2. puntu esan legez, ohiko dialektologiaz gain, badago beste metodologia bat dialektologian aritzeko: dialektometria.

Euskal Herrian hizkuntzalari batzuek sutsu jo dute metodologia honen kontra.

“Eredu honek darabilen jardunbide matematikoak, ez du konfiantza handirik lortu hizkuntzalarien artean: eredia itemetan oinarritzen da eta datuen azken zenbaketan, item guztiei garrantzi bera aitortzen zaie, 1 ala 0; horrela nekez asma dezake bi hizkeraren arteko berdintasun edo urruntasun estrukturalaren berri ematen.” (Camino, 2004: 87)

Batzuetan inongo oinarririk gabeko arrazoiekin,

“Nolanahi ere, dialektometriaren jardunak zalantza ugari eragiten du hizkuntzalarien artean, emaitzak ez baitira guztiz fidagarriak, eta eredu matematikoa hotz gertatzen baita dialektologiaz aritzeko.” (Apaulaza 2010 :164)

eta beste batzuetan emaitzak gustukoak ez direlako.

“Ados gaude Aurrekoetxearekin Goizueta dela lexikalki (nahiz linguistikoki) gehien aldentzen den Bortzerrien inguruko herri nafarra. Hala ere, hizkuntzalari bizkaitarraren datuek hori adierazten badute ere (1992: 107), Lesakatik Aurizko lexikoa Goizuetakoa baino hurbilago egotea aski sinesgaitza zaigu.” (Zelaieta, 2008: 84)

Mundu mailan ostera, oso diziplina ezaguna, garatua eta erabilia da prestigiodun hizkuntzalarien artean (Seguy, 1973; Goebel, 1982; Bauer, 2002-2003; Nerbonne eta Kretschmar, 2003; Clua, 2004; Sousa, 2006, Szmrecsanyi, 2012...). Gotzon Aurrekoetxeak hizkuntzalariak honela defendatzen du bere erabilera:

“Sailkapenaz jardutean hizkuntzalari zein dialektologoa gainontzeko zientzietan sailkapenarako erabiltzen dituzten prozedura eta metodologia erabiltzera behartuta dago bere lana sinesgarria izan dadin. Prozedura sailkatzaile hauek arruntak dira bai soziologian, bai biologian, bai geografian, antropologian, psikologian zein beste diziplinetan. Beste behin ere esana dudan moduan, gure inguruko zientzietarako baliagarri diren prozedurak ez ote da zilegi hizkuntzalaritzan ere erabiltzea? Zilegitasun osoa dugula uste dugu eta horrela ulertu da hizkuntzalaritza aplikatuan, zein dialektometria izenaz ezagutzen den disziplinan, eta jada nazio eta hizkuntza desberdinetan erabilia izan da (Goebel, 1992: 433-434).” (Aurrekoetxea, 2005: 110-111)

### DiaTech

Azterketa dialektometrikoa gauzatzeko EHUKo Eudia Ikerketa Taldeak garatutako “Diatech” programa informatikoa erabili dugu. Programa hau talde multidisziplinari batek (hizkuntzalariak, ingeniariak, kartografoak, estatistikoak eta informatikariak) sortu du Gotzon Aurrekoetxearen zuzendaritzapean.

“DiaTech”ek dialektoen eta hizkeren arteko desberdintasunak estatistikoki neurtu eta sailkapen automatikoa egiten ditu. Bariazio geolinguistikokoaren analisisa egiteko tresna da. Tresna hau on-line dago <http://eudia.ehu.es/diatech> helbidean, edonork eta edonondik

erabiltzeko moduan datu propioekin analisiak egin ahal izateko. Izena baino ez da eman behar.


Hasteko ‘Diatech’-en datuak igo behar dira. Gure datuak lortzeko Eudia Ikerketa Taldeak bere “Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikorako” (EAS) erabili duen inkestan oinarritu gara (Aurrekoetxea eta Ormaetxea, 2006). Halaber, galdesorta hau *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA)-ren galdetegian (Aurrekoetxea eta Videgain, 1993) oinarrituta dago. Guk EASeko galdetegia moldatu eta egokitu dugu; horrela, 120 ezaugarri linguistiko aztertu ahal izan ditugu.

Behin galdetegiaren datuak lortuta, “Diatech”-era igo eta mapak eraiki ahal dira. Programak ahalbidetzen dituen azterketa estatistiko-kuantitatiboak egin daitezke eta emaitzak mapetan ezartzeko aukera ere ematen du.

Azterketa dialektometrikoak gauzatzeko hainbat programa dago. Ezagunenak *VDM* Salzburgoko Unibertsitatean Hans Goebel-ek gidatutako programa eta *Gabmap* Groningengo Unibertsitatean John Nerbonneren gidaritzapean sortutakoa. Gu geu *VDM* programaz baliatu gara Bourciez-en testuak aztertzeko (Aurrekoetxea, Videgain eta Iglesias, 2004 eta 2005).


“Diatech” aurreko programek dituzten gabeziak gainditzeko eratu da. Alde batetik, erantzun anitzak onartzen ditu, eta beste aldetik, open source tresna denez, on-line erabil daiteke edozein nabigatzailearekin eta kanpoko datuak inportatzea onartzen du. Honetaz gain, datuak estatistikoki aztertzeko dialektometriari oso erabiliak diren baliabideak eskatzen ditu: isoglosa mapak, izpi mapak, mapa sinoptikoak, cluster analisia, korrelazioak, e.a. Mapa sintetiko edo metakorrak egiteaz gain, kontzeptukako mapak egiteko aukera ere eskaintzen du.

Esan bezala, behin datuak sartuta erantzunen mapak sor daitezke. Mapa guztiek mapa-zola bera dute eta poligonalak dira. Poligono bakoitzak herri bat ordezkutzen du, horrela, gure kasuan, bost herri dauzkagunez, bost poligono izango ditugu. Poligono hauei Voronoï edo Thiessen poligonoak deitu izan zaie eta geolinguistikan oso erabiliak izan dira, batez ere, H. Goebel hizkuntzalariari esker. Euskal Herrian era honetako mapekin egindako lanik aipagarrienak *Bourciez bildumako euskal atlas* (Aurrekoetxea et al., 2004 eta 2005) eta *Euskal Hizkeren Hizkuntza Atlas* (Euskaltzaindia 2008a, 2008b, 2010a, 2012 eta 2013) dira.





14. mapa. Poligonoen mapa-zola

Guztira 120 mapa sortu ditugu. Hona hemen adibide batzuk:





15. mapa. Alaba



- ididxe : 2
- idie : 3
- Polygons with no answers : 0

Proiektua: Aitor Etxe, Hiztegiakom/maia.cnu.es/maia/


16. mapa. Idia




- alárgune : 2
- alargúne : 3
- Polygons with no answers : 0

Proiektua: Aitor Etxe, Hiztegiakom/maia.cnu.es/maia/

17. mapa. Azentua: alarguna




Proiektua: Altar-Pto. Diatex <http://ccuak.cehu.es/diatex>




- suek : 2
- suik : 2
- suok : 2
- surok : 2
- Polygons with no answers : 0

18. mapa. Zuek izenordaina




Proiektua: Altar-Pto. Diatex <http://ccuak.cehu.es/diatex>




- daion : 1
- deidxon : 1
- deion : 1
- dixon : 1
- leion : 1
- Polygons with no answers : 0

19. mapa. Aditza: diezaion






Proiektuz Aitor Iglesias Chaves dialektologikoa




- tearren : 5
- tearrik : 3
- Polygons with no answers : 0

20. mapa. -tearren / -tearrik



Proiektuz Aitor Iglesias Chaves dialektologikoa



- asagari : 3
- luki : 3
- Polygons with no answers : 0

21. mapa. Lexikoa: zorro / renard

Datu guztiak sartuta dauzkagunean analisi estatistikoari ekin behar diogu. “Diatech”ek lau analisi mota eskaintzen dizkigu: sinopsi mapak, izpien mapak, isoglosa mapak eta cluster analisiak. Analisia aukeratzeko kontuan hartu behar dugu gure helburua zein den, hau da, jakitea Zeberioko hizkera zeinetatik dagoen hurbilen, Igorre eta Zeanuritik ala Basauri eta Bilbotik. Horretarako analisi aproposena sinopsi mapa da.

### **Sinopsi mapak**

Sinopsi mapen analisi estatistikoa egiteko hainbat parametro ezarri behar dira. Lehenengoa da eragiketa estatistikoa. Gure kasuan similaritate distribuzio-mapa egin beharko dugu. Mapa honetan herri batetik abiatuz gainerako herrietara dagoen hizkuntza desberdintasuna neurtzen eta multzokatzen du. Azterketa honetan multzo kopurua bi izango da, hots, erkatu nahi ditugun barietateak, Arrigorriagakoa eta Arratiakoa.

Aukeratu behar den beste parametro bat estatistika algoritmoa da. Alde batetik, MinMwMax algoritmoa dugu. Algoritmoa honek hizkera bat du abiapuntu eta hizkera horretatik gainerako hizkerekiko hizkuntza harremanak, hots, distantziak neurtzen ditu, datu-baseko ezaugarri guztiak kontuan hartuz (Goebel, 1987: 79). Eta beste alde batetik, Med algoritmoa daukagu, bazterreko ezaugarriak indartzen dituena. Med algoritmoak datuak bortxatu egiten ditu: erdiko baloreak urritu eta muturrekoak indartuz (Goebel, 1987: 81-82). Gure azterketan MinMwMax algoritmoa aukeratu dugu neutroagoa delako.

Amaitzeko, aukeratu behar den azken parametroa analisia egin aurretik distantzia unitatea da. Aurrekoetan bezala, honetan ere geure beharrari dagokion unitatea aukeratu behar dugu. Kasu honetan bi: IRI eta Levenshtein.

IRI edo RIW alemanez, indentitatearen indize erlatiboa da. Indize honek IRI indizeak taxat edo erantzun guztiak berdin tratatzen ditu, eragiketa estatistiko-sailkatzaileak egitean denei pisu edo garrantzi bera emanez (Goebel, 2003: 69 eta Aurrekoetxea, 2004b: 295).

Levenshtein distantziak Vladimir Levenshtein zientzialari errusiarrengandik jasotzen du izena. Levenshtein distantzia karaktere kate batetik beste batera pasatzeko eragiketa kopuru minimoa da. Beraz, indize honetan bi erantzunen artean dagoen desberdintasuna ez da "0" edo "1" izaten, gehiago ala gutxiago izango da, beti ehunekoetan. Honek, arestian aipatutako Caminoren (2004: 87) kritika ekiditen du.

Beraz, guztira bi sinopsi mapa aurkeztuko ditugu hurrengo parametroekin:

1) Sinopsi mapa


Eragiketa estatistikoa: Similaritate distribuzioa

Distantzia unitatea: IRI

Estatistika algoritmoa: MinMwMax

Herria: Zeberio

Talde kopurua: 2



22. mapa. Sinopsi mapa: IRI

## 2) Sinopsi mapa


Eragiketa estatistikoa: Similaritate distribuzioa

Distantzia unitatea: Levenshtein

Estatistika algoritmoa: MinMwMax

Herria: Zeberio

Talde kopurua: 2



23. mapa. sinopsi mapa: Levenshtein

## 22 eta 23. mapen analisisia:

22. mapa IRI distantzia unitatearekin lortutako mapa da. Zeberio abiapuntu izanik gainerako herriak bi multzotan banatzen ditu: Zeanuri eta Igorre batetik; eta Bilbo eta Basauri bestetik. Baina ez hori bakarrik, bi multzo horiek zein desberdintasun linguistiko duten ere agertzen da leiendan: Arratiako herriak hurbilago ditu, 61.17tik 69.25era bitartean kokatzen da hizkuntz hurbiltasuna. Aldiz, Basauri-Bilborekin 49.4tik 61.17ra bitartean. Beraz, datuen %30,75an desberdintzen da Arratiako bi herrietako antzekoenetik. Eta %38,83 Basauri-Bilbotik. Baina IRI distantzia erabili ordez Levenshtein erabiltzen bada (ikus 23. mapa), hizkuntza banaketa bera agertzen da, baina desberdintasun linguistikoa askoz ere txikiagoa da, bi distantzien arteko desberdintasuna agerian geldituz. Ez da hau, bi distantzia unitate hauen arteko berdintasun-desberdintasunez aritzeko lekua, interesatzen zaiguna da bi unitatek hizkuntza banaketa bera eman dutela, bietan Zeberio Arratiako herriekin hurbilago jarritz.

Gure azterketa osatzeko bi sinopsi mapa hauetaz gain, beste bi egingo ditugu Igorreko hizkera besteekin erkatzeko, horrela jakingo dugu linguistikoki zein hizkeretatik dagoen hurbilen. Sinopsi mapa hauek egiteko, aurrekoetan ez bezala, lau multzotan banatuko dugu talde kopurua eta gure abiapuntua Igorre izango da.

3) Sinopsi mapa



Eragiketa estatistikoa: Similaritate distribuzioa

Distantzia unitatea: IRI

Estatistika algoritmoa: MinMwMax

Herria: Igorre

Talde kopurua: 4



- 50.57-56.9 : 2 Herri
- 56.9-63.23 : 0 Herri
- 63.23-71.47 : 1 Herri
- 71.47-79.71 : 1 Herri

24. mapa. sinopsi mapa: IRI

## 4) Sinopsi mapa


Eragiketa estatistikoa: Similaritate distribuzioa

Distantzia unitatea: Levenshtein


Estatistika algoritmoa: MinMwMax

Herria: Igorre

Talde kopurua: 4



Proiektuak Aitor Iglesias Chaves eta Aitor Iglesias Chaves



- 8.12-11.73 : 1 Herri
- 11.73-15.34 : 1 Herri
- 15.34-18.35 : 0 Herri
- 18.35-21.36 : 2 Herri

25. mapa. sinopsi mapa: Levenshtein

## 24 eta 25. mapen analisisia:

24 eta 25. mapetan Igorre gainerako herriekin ezarri da konparagai. Eta bi multzotan ezarri orde, lautan banandu dira desberdintasunak. Oso modu argigarrian Igorrek berdintasun handiena Zeanurirekin agertzen du, gero Zeberiorekin; hirugarren multzoan (berdez), ez da herririk, eta azkenik, laugarren multzoan Basauri eta Bilbo kokatzen dira. Honek esan nahi du azken bi herriok gainerako biak baino askoz urrunago kokatzen direla linguistikoki Igorretik. Eta hori bi hizkuntza distantzia biekin, IRI zein Levenshtein-ekin.

### 7.1.3.3. Analisi bien kritika

Emaitzetan ikusi dugunez, azterketa biek, bai analisi kontrastiboak, bai dialektometrikoak, emaitza bera eman dute Zeberioko hizkera Arratiako barietatearen barruan kokatzen. Beraz, gure emaitzak bat datoz Etxebarria (1991) eta Zuazoren (2014) iritziekin eta baita Gamindek (2007b) Bizkairako egin zuen analisi kuantitatiboarekin; ez ordea, Bonaparteren (1869) azken sailkapenarekin.

Guk analisi bi egin ditugu metodologia ezberdin bi erabiliz. Biak praktikan jarri ostean, gaitza da erabakitzea zein den egokiena, biek alderdi indartsuak eta ahulak baitituzte. Hurrengo lerroetan azalduko dut azterketa honetan metodologia bakoitzak izan ditzakeen kritikak.

1.4.2.2. puntuak aipatu dugun moduan, lau dira nagusiki azterketa kontrastiboari egiten zaizkion kritikak.

Lehenengoa da isoglosek banaketa ezberdina daukatela. Gure azterketan ere, horrela suertatu da. Egia da, Zeberio Arratiarekin batzen duen isoglosa multzoa handia dela, guztira 14, eta Zeberio Arrigorriagako barietatekoekin batzen duena, guztira 4, baina, egia ere bada, badaudela hainbat isoglosa, guztira 9, beste banaketa bat egiten dutenak. Zer gertatzen da bederatzi hauekin? Azterketatik baztertu egiten dira. Ez dute ezer adierazten? Helburuari lotuta dauden ezaugarriak baino ez dira kontuan hartzen.

Bigarren kritika da isoglosa batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak direla. Nahiz eta autore batzuek (Bloomfield, 1964, Camino, 2004...) isoglosen balioa zehaztu duten, azkenean dialektologoaren esku geratzen da ahalmen hori, eta erraz gerta daiteke dialektologo bik garrantzi bera ez ematea ezaugarri bati. Adibidez, gure azterketan *au / eu* diptongoak sortzen duen isoglosak ez du balio barietate bi hauek bereizteko baina maiztasun handiko ezaugarria da eta eremu geografiko konkretu bat banatzen du. Non geratzen dira honen moduko isoglosak? Zilegi da isoglosa honen arabera hizkeren banaketa bat egitea? Gure ustez ez, horrela egin baitugu geure azterketan; baina dialektologo batek proposatuko balu? Katalanaren banaketa bokalen arabera egiten da (Veny, 1982 eta Colomina, 1999).

Hirugarren kritika da isoglosen marrazketa arbitrarioa dela oso item gutxi erabiltzen direlako. Gure azterketan egia da ezberdintasunak markatzen duten itemak gutxi direla, baina item horiek kontuan hartuta, nekez egingo litzateke beste banaketa bat. Dena den, eta bigarren kritikan esan legez, dialektologoak erabakitzen duen heinean, onartu behar da arbitrarioa dela eta posiblea dela dialektologo ezberdinek isoglosen marrazketa ezberdina egitea eta arrazoitzea, nahiz eta lehen aipatu dudana moduan, gure azterketan nekez gerta daitekeen.

Laugarren kritika da isoglosek ezin dutela dialektoen “continuum”a erakutsi. Gure kasuan isoglosak Arratiako muga Zeberion markatzen du, baina analisisian ikusi dugun moduan, Zeberio Basauri eta Bilborekin batzen duten isoglosak ere badaude. Hizkera batetik bestera ez da bat-batean pasatzen trantsizio bat dago, txikia bada ere. Azken kritika bi hauei lotuta uler dezakegu Bonaparteren (1869) sailkapena. Berak garrantzi handiagoa eman zien Zeberio Arrigorriagako barietatearekin lotzen zuten ezaugarriari, eta hortaz, sailkapen ezberdinak.

Kritika hauek gorabehera, metodologia hau erabiliz, uste dut, dialektologo gehienek guk eman ditugun emaitza berdinak emango lituzketela.

1.4.2.2. puntuan aipatutako dialektometriak agertzen dituen arazoak aztertuko ditugu.

Arazo bat da dialektometriak ezin dituela adierazi eremu bat definitzen duten ezaugarriak (Veny, 1992). Ulertu behar da dialektometriaren zeregina datu linguistikoei estatistikak aplikatzea dela, eta programak horixe egiten du, analisi estatistikoak.

Venyk (1992) eta Caminok (1997) egiten duten beste kritika bat da binarismoa, itemei garrantzia bera ematea. Egia da IRI distantzia unitateak erantzun guztiak berdin tratatzen duela, baina horretaz gain, “Diatech” programak beste distantzia batzuk ematen ditu aukeran, euren artean guk erabili dugu Levenshtein distantzia unitatea. Azterketan erabili ditugun distantzia unitate biek emaitza berdinak eman dituzte. Dena den, distantzia unitate bi hauetan, gure ustez, fonetikak garrantzia gehiegi hartzen du eta hori galdetegian ekidin behar da.

Azterketa dialektometrikoan ikusi dugun beste arazo bat galdetegiarena izan da. Caminok (1997: 130) *EHHA* arako ohartu zuen lexikoak pisu handia zuela beste arlo batzuen aldean. Geuk konprobatu ahal izan dugu burutu dugun azterketan galdesortak emaitzak baldintzatu ahal dituela. Galdesorta orekatua egin behar da, non arlo guztiek (fonetikak, izen-morfologiak, aditza-morfologiak, sintaxiak eta lexikoak) pisu bera daukaten. Gure ustez, batez ere hemen datza azterketa dialektometriko baten emaitza ona, galdesortan. Zorionez gu EHUKo Eudia Ikerketa Taldeak sortutako *Euskararen Atlas Sozio-geolinguistikorako* galdetegiaz baliatu ahal izan gara.

Dena den, kritika hauek ez diote analisi dialektometrikoari zilegitasunik kentzen. Gainera, egin zaizkion hainbat kritika “Diatech” programarekin saihestu ahal dira, azterketa ezberdinak egiteko aukera ugari ematen baititu.

Ondorio moduan esango dut ez dela existitzen metodologia perfekturik; azterketa dialektologiko bat egiteko erabili ditugun metodologia biak egokiak dira, beti ere, kontuan hartzen baditugu bakoitzaren alde ahulak zeintzuk diren hauek al baita eta gehien ekiditeko asmoz.

## 7.2. Ondorioak

Lan honetan Igorreko hizkera nolakoa izan den erakutsi nahi izan da. Igorreko hizkera esaten dugunean, hizkera mota zehatz jakin batez ari gara, Igorren jaiotako adineko pertsonak egiten duten euskaraz, hain zuzen ere.

Azterketa honetarako teknologia berriez baliatzen den dialektologia erabili dugu, eta ez pertzepzioan oinarritutako azterketak egiten dituenak. Horretaz gain, ahalegindu gara gramatikaren arlo guztietan (fonologian, izen-sintagman, aditz-sintagman eta sintaxian) ezartzen diren arau guztiak zein eremutan gauzatzen diren hierarkia prosodikoaren teorian azaltzen, horixe izan baita gure oinarri teorikoa.

Igorrekoa izan da Arratiako barietatea deritzonoko sakon aztertu den lehen hizkera.



### 7.2.1. Kokapen linguistikoaz

1.2. puntuan aipatu dugun bezala, Igorreko hizkera Bonaparteren sailkapenetatik gaur egunekoetara arte euskalki berean sailkatu izan da. Bai Bonapartek (1869), bai Yrizarrek (1992), bai Zuazok (1998) eta baita Gamindek (2007b) ere bizkaiera edo mendebala delako euskalkian sailkatu dute. Azpieuskalkiei dagokienez, gehienek hiru azpieuskalki bereizten dituzte eta hauen barruan, askok Arratiako barietatea ezberdintzen dute, eta honetan legoke Igorreko hizkera. Gure azterketa, lan monografikoa den neurrian, ez dator sailkapen hauen mugak berraztertzerara, argi dago Igorreko hizkera bizkaiera dela, mendebaldeko bizkaiera eta Arratiako barietatekoa. Baina gure azterketak balio izan digu azken urteetan egin diren sailkapenen ezaugarriak frogatzeko. Horrela, lau sailkapenen ezaugarriak aztertu ditugu: Zuazorena (2008 eta 2014), Euskal Herri osokoa; Gaminderena (2007b), Bizkaikoa; Hualde (1997) eta Gaminderenak (1998b), azentuari buruzkoak; eta Aurrekoetxearena (1994), hitanoari buruzkoa.

Gure azterketa egin ostean, Zuazok mendebalerako emandako 56 ezaugarriak, adibide batzuk gorabehera (ikus 7.1.2.1.), betetzen dira Igorreko hizkeran. Eztabaidagarriena izan daitekeen puntua bustidurarena da. Zuazok Arratian bustidura ahula dagoela esaten du, eta neurri handi batean egia da, baina norabide batean gauzatzen den bustidura baino ez du aztertzen. Arratiako hizkeretan, hitanozko hainbat adizkitan ezkereranzko bustidura gauzatzen da, beste hizkera askotan gauzatzen ez dena, eta norabide horri erreparatzen badiogu bustidura indartsua dela esan dezakegu.

Gamindek (2007b) Bizkairako emandako sailkapen ugarien gainean antzekoak esan ditzakegu, salbuespen batzuk gorabehera (ikus 7.1.2.2.) guztiak betetzen dira Igorreko hizkeran.

Hualdek (1997) eta Gamindek (1998b) azenturako sailkapen bera eman zuten. Sailkapen honetan “Mendebaldeko sistema berezien” artean kokatzen dute Igorreko hizkera, eta 2008an (Iglesias 2008) aipatu genuen legez, gure azterketak Hualdek eta Gamindek emandako ezaugarri guztiak berresten ditu.

Sailkapenekin amaitzeko, Aurrekoetxearen (1994) lana daukagu. Honetan, hitanoari buruzko hainbat sailkapen ematen ditu Euskararen Herri Hizkeren Atlasen batutako datuak kontuan hartuz. Dakigunez, *EHHAn* Arratiako hiru herritan baino ez zen egin inkesta: Zeanuri, Dima eta Lemoan. Kasu honetan gure lana osagarria izan da; Aurrekoetxeak emandako sailkapenak osatu nahi izan ditugu Igorren batutako datuekin (ikus 7.1.2.4.).

Sailkapen hauek berresteaz gain, dialektologian egon den beste auzi bat argitu dugu, Arratiako barietatearen mendebaldeko muga zein den zehaztea. Bonapartek (1869) eta Yrizarrek (1992) Zeberioko hizkera Arrigorriagako barietatean kokatzen dute; Gamindek (2007b) eta Zuazok (2014) berriz, Arratiakoaren barruan. Dilema hau argitzeko asmoz, azterketa dialektologiko bat egin dugu bost herrien monografiak alderatuz. Arratiako Igorre eta Zeanurikoa (Agirregoikoa et al.); Arrigorriagako barietateko Basauri (Arretxe, 1994) eta Bilbokoa (Gaminde, 1990e), eta jakina, Zeberiokoa (Etxebarria, 1991). Azterketa honetan metodologia bi erabili ditugu. Alde batetik, ohiko dialektologiak eskaintzen digun isoglosetan oinarritutako analisi kontrastiboa egin dugu, eta beste alde batetik, azterketa dialektometriko bat. Azterketa bien emaitza berdina izan da: Zeberioko hizkera Arratiako barietatearen

barruan kokatu behar dugu, edo nahi bada, Zeberrioko hizkera Igorre eta Zeanuritik hurbilago dago Basauri eta Bilbotik baino.

Ondorioz, hipotesian espero genuen moduan, gure azterketan batutako datuek berretsi egiten dituzte dialektologia tradizionalan egindako sailkapen guztiak Igorrerako. Gainera, Bonapartek (1869) egindako azken sailkapena zehaztu ahal izan dugu Arratiako barietatearen eremua zehaztuz. Horrela, gure azterketan frogatu dugunez, Zeberrioko hizkera Arratiako barietatearen barruan kokatu behar da.

### 7.2.2. Metodologiaz: hierarkia prosodikoaz

Oso gutxi dira hierarkia prosodikoa erabili diren lanak euskal dialektologian, hiru baino ez: Gaminde (2007b), Legarra (2011) eta Gaminde, Romero & Legarrak (2012). Gurea beste urrats bat baino ez da metodologia hau aplikatzeko.

Hasteko, azterketa honetan muga bat ezarri genuen. Hierarkia prosodikoak eskaintzen dituen zazpi osagaietatik bost baino ez genituen izango aztergai: silaba, oina, hitz fonologikoa, talde klitikoa eta sintagma fonologikoa. Intonazio esaldia eta testu fonologikoa azterketatik kanpo utziz.

Behin hizkera honetan gauzatzen diren arauak aztertu ostean, sailkatzeari ekin genion hierarkia prosodikoaren arabera, guk aukeratutako bost osagaietan. Emaitzarik nabarmenena izan da oinaren eremuan araurik gauzatu ez izana. Hortaz, guk aukeratutako bost osagaietatik lautan baino ez dira gauzatzen hizkera honen arauak.

Hierarkia prosodikoaren metodologia erabilitako azterketa gehienetan fonologiaren arloan baino ez da aplikatu; gurean aldiz, fonologiaz gain, izen-sintagma eta aditz-sintagma aztertu ditugu. Gure azterketan ere frogatu dugu fonologiarako oso egokia dela metodologia hau, erraz aurkitzen dira arauak fonologian eta erraz sailkatzen dira hierarkia prosodikoaren arabera. Baina gure azterketan frogatu ahal izan dugu ere, izen-sintagma eta aditz-sintagma eremu emankorrek izan direla metodologia honetan.

Ondorioz, uste dugu metodologia honek jorratu gabeko bideak zabaltzen dituela ahozko hizkeren azterketetan. Arauak sailkatzeko tresna egokia ematen digu eta sakondu beharko dugu azterketa gehiago eginez aipatutako Gaminde, Legarra eta Romeroren lanen ildotik.

### 7.2.3. Aurreikuspenaz

Gure hipotesian (ikus 1.6. puntua) nagusiki emaitza bi aurreikusten genituen. Azterketa honetan jarritako baldintzek, azterketa eremuak eta hitzunek, pentsarazi ziguten dialektologia tradizionalaren ikuspuntutik corpus homogeneo bat batuko genuela, eta, hortaz, dialektologian egindako sailkapenak aurkezten dituzten ezaugarriak agertu beharko zirela.

8.2.1. puntuan ikusi dugunez, azken urteetan dialektologian gure eremurako eman diren ezaugarriak aurkitu ahal izan ditugu batutako datuetan. Beraz, gure datuek Zuazo (2008 eta 2014), Gaminde (2007b eta 1998b), Hualde (1997) eta Aurrekoetxearen (1994) sailkapenak berresten dituzte.

Batu dugun corpusa nahiko homogeen izan da aipatu izan nahiko genituzkeen ezaugarri bitan izan ezik: *eu / au* diptongoa eta *n*-aren bustidura.

### *eu / au* diptongoaren alternantzia:

Hizkera honetan, azterketa hau egin arte, azken urteotan egindako lanetan *au > eu* araua gauzatzen zen datu guztien arabera (ikus 26. mapa).

<b>au&gt;eu</b>	Bedia, Galdakao, Igorre, Lemoa, Ajangiz, Arteaga, Bermeo, Busturia, Ea, Ereño, Errigoiti, Forua, Gernika, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Murueta, Muxika, Nabarniz, Izurtza, Zornotza, Begoña, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Derio, Larrabetzu, Lezama, Zamudio	
<b>au=</b>	Artea, Dima, Ubide, Zeanuri, Zeberio, Elantxobe, Mundaka, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Buja, Etxebarri, Orozko, Ugao, Zaratamo, Zollo, Amoroto, Aulesti, Berriatua, Bolibar, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Erandio, Leioa, Loiu, Sondika, Barrika, Berango, Gatika, Getxo, Gortiz, Jatabe, Laukiz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz	
<b>biak</b>	Iurreta, Mungia	

26. mapa: “au” diptongoaren hedadura, Gaminde (2007b: 30)

Hau neurri batean egia da, baina ez da egia osoa. Guk batutako corpusean ehuneko txiki batean ez da gauzatzen *au > eu* araua (ikus 2.3.1.1.3. puntua). Transkribatutako corpusean guztira honako ehuneko hauek aurkitu ditugu:

[ew] %85,71  
[aw] %14,28

Esan dugunez, ehuneko txikia da, baina zer arrazoi egon daiteke geografikoki eremu txiki honetan hau gauzatzeko? Ez dirudi geografia kontua denik. Jakin badakigu Igorre eta Dimaren artean kokatzen dela *eu / au* diptongoen alternantziaren muga, eta pentsa genezake Dima ondoko auzoetan batu izan ditugula adibideok, baina gure kasuan ez da horrela suertatu. Gure ustez, arrazoi bi izan daitezke alternantzia honen sortzaileak. Batetik prestigioa, eta, beste alde batetik, hiztunaren ingurua (lagunak, harremanak...). Uste dugu arrazoirik nagusiena ingurua izan daitekeela. Dakigunez, Igorren Arratiako beste herrietatik etorritako hainbat jende dago, ez da erraza topatzea Igorreko bertoko hiztun bat, nahasketa handia dago. Honek, duda barik, eragina du harremanetan eta jakina hizkuntzan. Beste arrazoi bat prestigioa izan daiteke. Ezaguna denez, hizkuntza estandarrean *au* diptongoa da erabiltzen den aldaera eta hiztunak grabagailu baten aurrean dagoenean prestigiodun aldaeraren alde egin dezake. Dena den, hiztunak alfabetatubakoak izateak arrazoi honi pisua kentzen dio eta horregatik esaten dugu ingurua izan behar dela arrazoirik nagusiena. Edozelan ere, diptongoaren alternantzia honek azterketa sakonago eta zehatzago bat merezi luke, eta,

halaber, oso interesgarria izango litzateke ondoko herrietan, adibidez Diman, azterketa hau egitea ikusteko benetan han ere *au* diptongoa baino ez den esaten ala dikotomia hau ere gauzatzen den.

### ***n*-aren bustidura:**

Corpusaren homogeneousutasuna zalantzan jartzen duen beste ezaugarri bat *n*-aren bustidura da. Aztertu dugunez, [n] aurrean [i] bokala dagoenean bustidura aukeran da. Hiztun berak [n] zein [ɲ] ahozka dezake hitz berean. Gure corpusean honako ehunekoak aurkitu ditugu:

[n] % 56,41

[ɲ] % 43,59

Datu hauen aurrean ere, autokritika egin behar dugu ez baitugu alternantzia hau azaltzeko araurik edo arrazoirik. Zer arau egon daiteke hiztun batek batzuetan *inontza* eta beste batzuetan *iñontza* ahoskatzeko? Printzipioz, berba bera izanda araua hitzetik kanpo aurkitu beharko genuke, testuinguruan, baina honetan ere gure azterketak huts egin du, ez dugu lortu araurik topatzea. Beraz, beste arrazoi batzuek argitu beharko lukete alternantzia hau. Baina, zeintzuek? Esan bezala, azterketa hau burutzeko oso baldintza estuak eta zehatzak jarri ditugu. Alde batetik, eremu geografikoa daukagu, baina, honek ere, ez digu auzi hau argitzen. Beste aldagai bat sexua da, baina, honek ere, huts egiten digu andrazkoek zein gizonezkoek alternantzia erakusten dutelako. Hortaz, frogagarria izan daitekeen arrazoirik ez dugu aurkitzen, eta *eu* / *au* diptongoen kasuan ez bezala, ez dugu uste prestigioa edo ingurua arrazoirik izan daitezkeenik alternantzia hau azaltzeko.

Ondorioz, eta diptongoaren eta bustiduraren auziari erreparatuz, berriro hausnartu beharko genuke gure corpusa hain homogeneousoa den. Egia esan, 17 km<sup>2</sup>-ko eremua ez da oso zabala aldaketa nabarmenak jazotzeko, baina egia da ere diptongoaren alternantzia oso ehuneko txikian gauzatzen dela eta bustiduraren kasuan hiztun guztiek berdin jokatzen dutela. Beraz, gure ustez, jaso dugun corpusa nahiko homogeneousoa da, beharbada, ez hipotesian uste genuen bezain homogeneousoa, baina izatez, homogeneousoa da.

Arratiako mendebaldeko muga zehazteko beste hipotesi bat egin genuen. Horretan bat gentozen Gaminde (2007b) eta Zuazoren (2014) sailkapenekin, eta ez Bonaparterenarekin (1869), Etxebarriaren (1991) iritzia berretsiz. Horretarako analisi dialektologiko bi egin ditugu, kontrastiboa eta dialektometrikoa, eta biek emaitza bera eman digute gure hipotesia betez: Zeberioiko hizkera Arratiako bariatatekoa da.

### **7.2.4. Aurrerantzean**

Aurrerantzean, euskal dialektologiaz ari bagara, esan behar da, honen moduko lanak guztiz premiazkoak direla ahozko hizkera hauek desagertuko direlako. Denbora agortzen ari zaigu eta oraindik ere, hutsune nabarmenak aurkitzen ditugu ahozko hizkeren azterketan, batez ere iparraldean. Gure azterketak Bizkaian, Arratian hain zuzen ere, zegoen hutsune handia bete du baina, oraindik ere, lana egiteke dago, bai Arratian, bai Arratiatik kanpo.

Igorreko hizkeraren gainean lan asko dago egiteke. Hasteko, gure lan honen ildotik, lehenik eta behin, berrazterketa bat egin beharko litzateke zehatzago azaltzeko behar honetan agertutako auziak, *au /eu* diptongoa eta *n*-aren bustidura. Halaber, 1.3. puntuan esan dugunez, intonazioa eta lexikoa aztertu barik utzi dira. Lexikoari buruz, aipatu behar da, Arratia mailan Larrea eta Rekaldek (2010) egindako lanak, behintzat, hutsunea estaltzen duela. Egin barik geratu da Igorreko hizkeraren eta aldameneko hizkeren arteko konparaketa. alde batetik, barietate bera osatzen dutenekin, Arratiakoekin, eta, bestetik, hizkeraz urruntzen diren aldamenekoekin, hala nola Zeberio, Ubidea, Orozko...

Dialektologia klasikotik apur bat aldenduz, belaunaldien arteko hizkuntz barietazioa aztertzea oso lan interesgarria izan daiteke. Arlo honetan, EUDIA EHUKo ikerketa lan-taldea da aitzindaria eta, adibidez, Aurrekoetxeak (2008) Dimaren, Igorreko aldameneko herriaren, azterketa egin du. Barietazio soziolinguistikaz gain, oso interesgarri deritzogu gazteen hizkera aztertzeari. Arratia mailan, antzeko lanak egin daitezke: monografiak, barietazio soziolinguistikoa, gazteen hizkera, *au / eu* diptongoaren azterketa sakona, bustidura... Lan eskerga egiteko.

Amaitzeko, metodologiaz esan ahozko hizkerak aztertzeko lan berriak egin behar direla hierarkia prosodikoa erabiliz. Gure lanaren emaitzei erreparatuz, konprobatu beharko genuke beste hizkera batzuetako araurik gauzatzen den oinaren eremuan, ala geure ahozko hizkeretan oinaren eremua ez den emankorra. Gure lanaren ildotik ere, sintaxiaren arloa beste modu batez txertatu beharko dugu hierarkia prosodikoan emaitzak emankorrek izan daitezen. Halaber, lan honetan aplikatu barik utzi ditugun osagai biak (intonazio esaldia eta testu fonologikoa) ere erabili beharko ditugu hurrengo lanetan. Oro har, ahalegindu behar gara *Hierarkia prosodikoa*, *Optimitatearen teoria*, *Fonologia lexikoa* edota *Fonologia metriko-autosegmentalaren* moduko metodologia berriak ahozko hizkeretan aplikatzen Gaminde (2007b), Legarra (2011) eta Gaminde, Romero & Legarraren (2012) ildotik.



**AIPATUTAKO  
BIBLIOGRAFIA  
ETA  
WEB-GUNEAK**

## 8. Aipatutako bibliografia eta web-guneak

- Agirrebeña, Aintzane, 2005, *Eibarko aditz-taulak*, Badihardugu Euskara Elkartia.
- Agirregoikoa, Rita, *Zeanuriko euskara*, (Argitaragabea).
- Alzola Caviedes, Itziar, 1995, *Zeberio: azterketa historiko-artistikoa*, Bizkaiko Foru Aldundia.
- Alarcos Llorach, Emilio, 1974, *Fonología española*, 4. arg., Gredos, Madrid.
- Alberdi, Javier, 1994, *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Doktoretza-tesia, EHU, Gasteiz.
- Aleza Izquierdo, Milagros & Enguita Utrilla, José María, 2002, *El español de América: aproximación sincrónica*, Tirant lo Blanch, Valencia.
- Altube, Sebero, 1930, *Erderismos*, Gaubeka, Bermeo.
- Alvar, Manuel, 1954, "Dos cortes sincrónicos en el habla de Graus", *AFA* VI, 7-73.
- Amuriza, Xabier, 1974, "Euskal Aurizkiak", *Euskera* 19, Euskaltzaindia, 9-104.
- Añibarro, P. A., 1802, *Escu-librua ta berean eguneango cristiñau-cereguiñac*, Don Francisco la Lama, Tolosa.
- Apalauza Olo, Amaia, 2010, *Nafarroako ipar-mendebaldeko hizkeren egitura geolinguistikoa*, Doktoretza-tesia, EHU, Gasteiz.
- Aranberri, Fernando, 1996, *Ermua eta Eitzako euskara*, Ermuko Udala.
- Arantzadi Zientzia Elkarte, 1984-1990, *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa*, Donostia.
- Arejita, Adolfo, 1978, *Euskal Joskera*, Leopoldo Zugaza, Durango.
- \_\_\_\_\_, 1983, "Zeanuriko kopia zaharrak", *Cuadernos de sección: hizkuntza eta literatura* 2, 225-236.
- Arretxe, Jon, 1994, *Basauriko euskara*, Basauriko Udala.
- Arriaga, Emiliano de, 1896, *Lexicón etimológico naturalista y popular del bilbaíno neto*, Tipografía de Sebastián de Amorrortu, Bilbao.
- Artiagoitia, Xabier, 1995, "'Garri' atzizkiaren izaera bikoitzaz: zergatik den maitagarria bezain mingarria", *ASJU* 29 II-III, 355-406.
- \_\_\_\_\_, 2002, "-(t)ar atzizkidun hitzen jokabide sintaktikoaren inguruan", *FLV* 91, 443-462.
- Askoren artean, 1998, *Arrasateko euskara*, Arrasateko Udala.
- Aurrekoetxea, Gotzon, 1992, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro* 5, 59-109.
- \_\_\_\_\_, 1994, "Hitanoa ahozko hizkuntzan", *Euskera* 39-II, 995-1007.
- \_\_\_\_\_, 1997, "Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak", *Uztaro* 23, 87-94.
- \_\_\_\_\_, 2003, "Arratiako hitanoaren arautzea", *Euskalingua* 3, 4-22.
- \_\_\_\_\_, 2004a, *Dimako etxe eta leku-izenak*, Dimako Udala.
- \_\_\_\_\_, 2004b, "Iparraldeko hizkeren sailkapena (1): lexikoa", *ASJU* XXXVIII-1, 287-331.
- \_\_\_\_\_, 2005, "Nafarroako euskararen sailkapenaz", in P. Etxeberria eta H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun*, *IKER* 17, Euskaltzaindia, Bilbo, 109-124.
- \_\_\_\_\_, 2008, "Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran", *Euskalingua* 12, Mendebalde Kultura Alkartea, 17-26.
- \_\_\_\_\_, 2009, "Euskal dialektotasunaz", *ASJU* XLIII, 119-136.
- Aurrekoetxea, G., Esparza, I., Larrea, A., 2005, *Arratiako idazle aitzindarien antologia*, Gertu, Oñati.
- Aurrekoetxea, Gotzon, & Ormaetxea, Jose Luis, 2006, "Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa" ikerketa-proiektua", *Euskalingua* 9, Mendebalde Kultura Alkartea, 157-163.



- Aurrekoetxea, G. & Videgain, X., 1993, "Euskal Herriko Hizkuntz Atlas: galdesorta", *Euskera* 38, 529-647.
- Aurrekoetxea, G., Videgain, X. & Iglesias, A., 2004, "*Bourciez*" bildumako euskal atlasa (BBEA): I. Lexikoa, ASJU XXXVIII-2.
- \_\_\_\_\_, 2005, "*Bourciez*" bildumako euskal atlasa (BBEA): II. Gramatika, ASJU XXXIX-1.
- Azkarate Villar, Miren, 1987, *Hitz konposatuak euskaraz*, Doktoretza-tesia, UPV-EHU.
- \_\_\_\_\_, 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- Azkarate, M. & Atuna, P., 1992, "-KO/-DUN atzizkiez", in *Luis Villasanteri omenaldia*, IKER 6, Euskaltzaindia, Bilbo, 91-112.
- \_\_\_\_\_, 2001, *Euskal morfologiaren historia*, Elkarlanean, Donostia.
- Azkue, Resurrección M<sup>a</sup>, 1922, *Cancionero popular vasco*, A.Boileau & Bernasconi, Barcelona.
- \_\_\_\_\_, 1923, *Morfologia vasca*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1927, "Lamiak Euskalerrian", *Euskera* 1-2, 91-115.
- \_\_\_\_\_, 1935-1947, *Euskalerraren yakintza* (4 libk.), Espasa-Calpe, Madrid.
- \_\_\_\_\_, 1969, *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- Barandiaran, José Miguel, 1972, *El mundo en la mente popular vasca*, Auñamendi, Donostia.
- Eneko Barrutia, 2001, "Aditz-izenen eta partizipioen formak bizkaieraz", *Litterae vasconicae: euskeraren iker atalak* 8, Labayru, 225-238
- Bauer, Roland, 2002-2003, "Dolomitenladinische Ähnlichkeitsprofile aus dem Gadertal. Ein Werkstattbericht zur dialektometrischen Analyse diciembre ALD – I", *Ladinia* XXVI - XXVII, 209-250.
- Beckman, M. E., Hirschberg, J. & Shattuck-Hufnagel, S., 2005, "The Original ToBI System and the Evolution of the To-BI Framework", in Jun, S. A.(eds.), *Prosodic Typology: The Phonology of Intonation and Phrasing*, Oxford University Press, Oxford, 9-54.
- Bielenstei, August Johann Gottfried, 1892, *Die Grenzen des lettischen Volksstammes und der lettischen Sprache in der Gegenwart und im 13. Jahrhundert*, Eggert & Co. und J. Glasunof, St. Petersburg.
- Black, A. & Hunt, A., 1996, "Generating F0 contours from ToBI labels using linear regression", *Fourth International Conference on*, Volume 3, 3-6, Philadelphia, 1385-1388.
- Bloomfield, Leonard, 1933, *Language*, Henry Holt, New York.
- Bonaparte Ondareko eskuizkribuak, 1993, *Oratio dominica vasconice, parabola del seminatore, canticum trium puerorum*, Bizkaiera 2, 455-456, Euskal Ikaskuntzen Institutua, Eusko Jaurlaritza.
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1863-1869, *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*, Standford's Geographical Establishment, London.
- \_\_\_\_\_, 1991, *Opera omnia vasconice*, [prestakuntza eta maketa, José Antonio Arana Martija], Euskaltzaindia, Bilbao.
- Brown, Sebastian, 2000, "Hipotesi ebentuala, botatiboa eta ahalera mendebaldean", in *Mendebaldeko berbetearen formalizazioa*, Mendebalde Kultura Alkartea, 33-58.
Baserrien bear asko. Ganaduegas, beyek, ni eskondu orduko be orixe, baserriko bearra. Gure aite ixin sen kantero, argine, arrisko etzeak eiten ditusena. Baya, vamos, nire aite...; gure ama berrogetalau urte eukesala yayo nintzen ni, asi ke beti sartxuek. Berrogetalau, amak berrogetalau urte eukesan ni yayo nintzenezan, da aitek berrogetamalau, se amar urte san sarraoa ta. Asi ke nik gurasoak sartxuek esetu doas. Da gero gerrate ta orti ibili gintzesan. Da gero ni eskondu nintzenezan be gixona bearrean fabrikera , baya ala ta gustis be baserrie. Ba, orixe, guk olantxe emon du bisimodue, esnea saltzean ixin de asko. Letxeruek ementxe bertan paraten sirean. Etzera be etorten ixin dire batzuk, emeko pisuetakoak, baya, ostera, letxeruek ementxe pareuen, ba, San Kristobalera eroaten san orduen, Otxandioti, Bilbora ‘Beyena’, “Leche Ona”, “Ona”ra. Da emen paretan ixin doskue, da axe. Da ointxe es beirik, es ollorik, es txarririk, es esebes estekot.

\*\*\*

Gure olgetako denporea bastante arin akabeu sen, baya, bueno, olgetan gindunean, olgetan gindunean, ni ortxe bisi nintzen, eusoan eon gintzesan neska ta mutil. Da igual olgetan gindun txirikelan, txirikela bakisu? Palue sorrostu puntea, puntea sorrostu te ipiñi te yo emen da noraño yoaten dan ta koyu te, o sea, da gero palue eta ipiñi kamiñoan erdien bandera bategas da bando bi, da aik estait ser esaten yakon be. Da olango olgeta. Da gero geuk neskaxien artean olgetan gindunean, eiten gindusen trapusko muñekatu betzuk. Da muñekataran olan gaste-gaste ixin gintzesanean olantxe, trapusko muñekak eukinde. Guk eiñeko trapue, buruen formatxu bet ipiñi ta ipiñi kunetxu beten ta ya esta; kunea, vamos, geuk kunea pentzaten gindune dala.

Taban, bai tabatara, tabak bakisu ser diresan, asurrek, baya tabea barik euskerea... tabea erderas da; selan esaten yako? Sakalapon! Sakalaponetara. “Saca pon tercera y carne”, esaten gindun lau alderdi, da ori; da gero mutilen yokue ixite san be, ta txapetara, ta txapetara orretan be biskorra ixin nintzen, ipiñi an txapea ta ataraten.

Eskindusen oingo yokoak ta oingo geusek ta serak eukiten, baya gustu-gusture paseu neuen ume denporea be. Beitu selango, esateko moduen, problemak, eta gero ogiripe eskindun eukiten, da ogie be garie molinillo baten iyo ta aregas eiñeko taloa, baya ala ta gustis be, gustu-gustuko sera emon neuen, posik ta gaste denporean, puf!

**Urkizu auzoko hitzuna**

Gerrara urten dun, boluntario yoan giñen.

Ink: *Nora?*

Emen Biskayen, euren kontra, ba, yoan giñen Francon kontra. Da urte betegarrenean prisioneru (...).

Ink: *Artxandatik edo?*

Erri askotan ibili giñean, esta? Frentean. Artxandatik eskiñean ibili, bestolardediti ibili giñean geau, Otxandiano alderditi te orti, orti ibiltan giñean; da askeneko serean eon giñean emen Artea baño... emen serean, Indusin, ori dao Billaro ganean; or atxa dao ta antxe eon giñen askenengos, da andik atara oskun da segidun, ba, eurek abansau ta abansau, etorri sirean da gero entregeu giñean, apur beten or parau giñean, len Lemoako Atxean es egoan or serik, eta gero Castrora. Castron entregeu giñen, an prisioneru, da gero gerrea akabau arte bearrean serean, Andalusien, hambre y palo, dos años alli.

Ink: *Kastigu modure edo?*

Bai, ba gu euren kontra yoan giñela ta kastigue. An kamiño baten, da bear in bear san kamiñoak eiten, kamiño baten, ba, atxurras, es egoan ordun adelanturik. Karselan eon giñen, eon giñen karselan, baya ensegida atara oskuen andi ara eroateko bearrean Andalusira.

Ink: *Kartzela non egoan, Kastron berton?*

Ba an, se edifisiue san be, bakisu burue, sartu giñean olango sera baten da an guardiegas barruen eskapau estigun. Eskapetako eskiñean gu. Da gero eroan oskun, ba, asko ara Andalsiara bearrera.

Ink: *Da or urte bi emon sendun?*

Gerrea akabau arte, urte bi, urte bi eskasu olan. Da etzera, aite ta ama emen egoasan ta etzera.

### San Juan auzoko hiztuna

Lelengo eiten yako, gantxoa sartzean yako tiretako txarrieri.

Ink: *Nondik?*

Matraiesurre, madibuleti maire eroateko, ostean eskapeu iten da, iges eiten deu, maire eroaten da, persona bakotxak anka bateti goatu ta bota maire. Gero sangrau, gero iten da erre, lumek eta erretako, asala erre, garbitu, ta esteak eta atara. Esteak garbituten deure, bueno andrak iten deure, morsillak eiteko gero, odolosteak. Garbiten dire esteak, barruko satzak eta atara ta gatzagas ta binegragas eiten deure garbitu ori estea, ta iten da masea iten danean. Masea iten du odolagas, arrosa, porruiek, kinpulle edo olango eiten da bete ori este ori. Estea egositen da, gero ori, orregas barrue beteta daoenean ori de odolostea.

Ink: *Gero odolostea itxi bida leku beten kuratzeko?*

Es, es, siketan apur bet, eskegite bai, baya es. Ori txorisoak bai, odolostea es. Urrungu egunean okolea da sera eiten deuean, otzitude daoenean ori itxiten da sikitan, apur bet sikitu eiten, otzitu. Eiten da txikitu, aparteu ba, bueno, solomoak apartau, ba saiskiek, asurrek eta ori dana, dana kendu eta beste dana pikau eiten da edo geyena sikan asala kendute dana pikau txiki-txiki-txiki, orregas eiten dire, ba, txoriso. Orrepai, orrek itxi beadire sikitan aste bi edo.

### San Kristobal auzoko hiztuna

Bai, emen gabisek, ardiek batera ta bestera bueltaka, etxaok emen seregin andirik. Onekas ordu asko ein bear, es sapatu rik es domekarik es gabonik... onekas berton eon beada. Yaio da eon bear gau ta egun euren ganean. Onekas etxakat festarik, orduripes Dimera yoateko, orduripes ipiñi lagunekas egundoko es as allegauko ordurako, beti berandu ganera.

Ink: *Ta Dimen da Igorreti pastore asko?*

Etxakan pastore asko e, Dimen bes, ementxe seinbet, ba seyen bat, sapsi emendik, Igorren bape etxaok pastorerik, ementxe Dimen bueno... ni Igorren, gurean etzea dok Dime da terrenoak Igorre, ta emen Igorren ibilten nok San Kristobaleti ementxe eiten ñaok.

Da orrek besteak Dimen Artaunen... or ibilten dosak. Baya etxak, etxak ementxe pastorerik.

Ink: *San Kristobal beres Igorrekoa esta?*

Bai, ixites bai, or etzeak yasak iru lau Dimen pertenesiten deurienak. Da pastoreak bes, ba Artaunen pastoreak yasak gure sasoyekoak bi, besteak irurogetamabost laurogei urte...

Ink: *Preguntetan botzut nongoa saren?*

Ni nongoa nasen preguntaeskero, ba, Dimekoa nok esaten doat. Da nora pertenesiten dok, Igorrera ala Dimera? Da askotan esaten yoat Igorrera pertenesitea gureago yoat Dimera baño.

Igorrekoak Dimekoari zamakolistak esaten yotxiek. Dimestar zamakolista.

Ink: *Da Igorrekoari?*

Etxakiat Igorrekoari selan esaten yotxiek, etxakiat. Oin ya beti ayuntamientue Dime ixin dok. Selan kanbieu Igorrera ba? Da esan dotena, gurean terrenoak Igorren pertenesiten yeurek, elisas be Igorre, kanposantue Igorre, etzea bera Dime. Etzea bakarrik Dime. Terrenoak seoser ein da Igorrera yoan bear, etzeko arregluek Dimen permisue eskatu bear da terrenoak edo kontribusiñoa pagetako Igorren.

### **Basarte auzoko hiztuna**

Diferensie andie dao berbas, Dimeti ona estao diferensie, baya Seanure bai.

Goxean eon nas berbas Seanuko bategas, da diferensie deku. Barberira etorri de ta diferensie deku. Sorrontzan da Lemoan gure antzera; bueno Sorrontzan es, Sorrontzan diferente eiten da arean e. Ostantzean... da Seberion bebai.

Ink: *Antzera?*

Bai, baya arean-arean diferente. Sutean lenao esaten geuntzen baldea, da aik tresna esaten dotzie, tresna. Baldea katxarroak eta eukiteko, emen baldea esaten dotze, da Seberion tresna. Badao diferensie, danean dao diferensie arean e, esan dotena Seberiotik, baya... ori be diferensie da ori be, da lenao aspiarri ekarten bear andie, ba, beyek aspue eiteko, ta oin aspigarrie sobran. Yoaten gintzesan oso urrin, Sekutxeraño aspigarrie ekarten (..) beyekas edo idiekas edo.

Diferensie andie deku jente artean berbas, da giputze, giputze onek sarratu, gure koñatue ixin sen sarratue esan dotena; ba berak esaten deu gu garala sarratuek.

Guk esaten dotzu loiteko almoadea, almoadea, da eurek esaten dotzie belarriondokoa, belarriondokoa! Giputzek. Diferensie andie dao. Neupe koñatuas eneuen... enintzen aituten gipuskoanoas, berba batzuk... bastuagoa da niretzako naparroa. Bai berbas... fuertea deukie, ni soldado eonda eon nas eurekas da berbea fuerteagoa.

### **Garamendi auzoko hiztuna**

Ementxe geusek koiten doas onak, koiten doas, koidot kalabasa bat, ba, emen, Euskalerrien seguramente es san eon, telebisiñoak emon seuen, grabeu seuen, periodikuepe ekarri seuen, ona etorri sirean periodistek bai, ta ementxe koyu sen, ortxe ganean. Bai asie etorri sen Lemoati etorri sen a, nirea baño andiegoa ixin sen antza, segun esplikeu seuen berak, nineuk eneuen ikusi berea, baye nirea oso andie ixin sen, oso andie.

Ink: *Senbat kilo ixin siren?*

Eundeberrogei ixin siran pentzetan dot, eundeberrogei bai.

Ink: *Emen ser geyago dekosu?*

Emen dekot, ba kinpullek, berakatzak, da danaritekot, danarik. Nineuk, asiek nik koiten dodas, asiek danak nik koiten doas, emen ikusten dostesu selan nabilen kinpulle gorriari alimentetan.

Ink: *Selan eiten da ereiteko kinpullea?*

Ori erein beada, dao segun ser dan sebolletea babose edo esaten dotza, ori erein beada septienbren atzanean, da au gorrie depende, batzuk adelanteu gure deurie ta eiten deurie arinao igual, baye esta komeni, normalmente au de or febrero martien abrilean or ibilten da au; bestea ereiten da, ba, negu partean por ejemplo, ya askok ipinite dekie e; gero ipinten deurie babose esaten dotziena, ori ensaladarako, baye au de urte gustierako ta emen dekot ereinde, ba, emen apur bet, beste apur bet se pareu ixiniñik nabil betik, ukutu an, beste an ukutu. Baye neure sera da, esta nik saltzearako dekotenik. Au de, ba neure kapritxoa, neukure dotenari emon, ta olantxek, baya esajeraue nas gausek ipinten.

\*\*\*

Guk orduen erderas es, gitxi, erderas... maisue erdeldune ixin sen, baye guk erderas gitxi, gitxi, euskeras ni erriko eskolan ibili nes betik, mutikorik ona, da ni enas yoan nasionalera es bestera, erriko serera sin pago esaten dana, es?, de los pobres.

Ortxe plasan eon san eskolea, sera... gurea... sera, eskolea; an eon san Don Ilarion etzea, a etzea oin mankomunitateateko ortxean. Ni eon nintzen or, kasualea, ori saldu senean, ni eon nintzen presidente de junta ekonomika, da or in gindun tratua ayuntamientuegas, pakto bat, estok aiten? Eurek falta in oskun ta gupe abadetzeari erosteko ta or eon san... eurek eiten eskolea, ba, Don Ilario defuntuen etzea, Don Ilario famosoa da bustue elixa ondoan da, or in gindun tratu bet eta abadeape etzea baseurien, da gero or eon san dana ubikeute.

Ayuntamientuen ondoan or eon san mobidea; gero beko plasan eon san beste eskolea, ba ori Marianistek ta orrek ein beasirean, ba, klaro, apur bet pagau, pagau beasiran orrek ta guk klaro... jentea eon san be an posik, baye an berako dirue be esan; an len Kruz Roja daoen lekuen an eon san, sera, eskolak Marianistenak, danak. Eurek bisi sirean elixean, an eon san serean lokalean da ortxe, bisimodue neure eskolea, ba, ortxe ikisi dot.

## **Basauntz eta San Juan auzoko hiztunak**

Ink: *Yayo San juanen?*

SJ: San Juanen.

B: Ementxe etzean.

SJ: Etzean, oin arregleute dao baya ementxe. Da eskolara ibili gintzesan debaldekorra, San Kristobalera estun euki dirurik eta, San kristobalera, ta gero, ba, Marianistesetan ein gindusen urte bi, urte bi, da bearrera gero, bearrean basoatan ta danean. Da gero, ba, eskondu nintzen. Eskondu da iru(u)meas. Oin umeak estudiaute daos, estudioan daos da etzetik kanpora, etzetik kanpora ta gu biok ementxe, ba, ollo... ortu apurtxu bet ibilten du da beste terrenoa, gustie, pastoreak yagoten deu.

B: Au gero or ibili sen, da gero amalargune euki ginuenes, ba bear in bear isite euen gaste-gasterik, amalau urtegas kodaña lepoan artute. Oingo egunean estao... balio euen estudietako, baya es egoana les...

SJ: Eskondu te serran ibili nintzen bearrean.

Ink: *Sein serratan?*

SJ: Biten, da idebaten ein gindun uskerra. Uskerra bakisu ser dan? Esebes. Baya etzerik ara, etzerik ara, da eskontako ni, amari esanotzen: me caguen diez!, banoa fabrikera se onas sueldoagas eneike eske umea mantenidu. Fabrikera yoan da gero an, ba ortuen ein bear, garie erein bear da a ein bear, ori ein bear da selan ingo yupa? Makiña bat ixerdi, makiña bat ixerdi, goxeko lauretan emen altxeu goxeko erreleboan, lautan altxeu da lauretan etorri.

\*\*\*

*Ink: Gerreak non arrapau otzuen?*

B: Ai gerrako kontuek!

SJ: Ementxe. Eskindun urten iñora be, iñora ixin urten da milisianuek esan oskun: “Bueno, teneis que ir pero ya, enseguida.”

B: Esaiosu frentea non egoan.

SJ: Frentea ementxe, San Kristobalen. San Kristobalen ta ementxe bitartean. Da abade bat egon san, da abadeak esan euen: bueno ba, trankilo, es urten, egon trankilo. Ekarri euen burdiek da beyekas gaubean urtengu arrantxu bet artu eurretik, da emen lau edo bost besino bai, orrepekoak es, emekoa, orkoa, Sasikoa...

ai.

SJ: Gaubean, goxaldean edo gaubean gure ingurunean sertute San Kristobalera.

B: Ta abadeak esan otzien orriri, militarren bateri: “Selan yoango dire? Ekarri diela farola ixetute gutxakiteko nortzuk direan”.

SJ: Ta estait San Kristobalen seinbet denbora ein gindun.

B: Bitiñora yoan seintzen, aite.

SJ: Bitiñora gero, bai.

B: Dimeti partera.

SJ: Baya gu ona etorri te sortzigarren egunean ortik etorten sirean, ba, Lutxanaraño yoan sirean emekoak, Lutxanara, Zierbana, ortik yoan, da yoan ainbatera.

B: Geu bebai, geu Saramillo. Basos yoan, tristea san. Basos baso, burdie kargeu eon sirean geuserik eta interesantenak, eta Saramillora gaubes; tristea san, besterik es san entzuten burdien txirrintean saratea da jentea berbas, bakisu gaubes. Da an be orduen gause asko pasaten san, se ordun be jenteak eite seuena aprobeitxeu, eusoko etzeatan geusek artu da eroan ta gorde, lapurretan, lapur eitea. Da se paseu yatzun beste baten an mantakas? Mantak, akordetan sara ser esan sindun?

SJ: Bai, bai, andrak guk koyu gindusela esan.

B: Bai, o sea andrak eon sirean mantak sertzean, milisianon mantak, da onek yoan sirean, ba, polbora batzuk edo seoser topetan badeurie, edo pistolan bat. Da milisianoak allegeu da aren mantak nok batu ditusen, da arek andrak esan seuren onek ixin direla. Da ai si! Arbolan kontra pareu... ipiñi ta sutonik seguru onek. Andrak gusurre esan otzien, onek direala, gurea estukurea, estukurea selango paseu euen. Baya bai ilten sirean mutilek, akordeu an gure barriogan, Baseuntzen, bat il sen: ba neuk emongotzet sue, suek yoan urrinera, neuk emongotzet ta an amar mille sati (i)l sen bera; klaro, lelango olango asko ilte.

\*\*\*

*Ink: Selan eiten senduen ogie?*

B: Eskondu te gero emen bebai, laban, da etzean bebai. Ogie... o sea urune ipinten dosu, urune, da botaten dosu lebadurea erdire. Lenao eite san asko, ogie baño taloa eite san asko, taloa.

SJ: Ta ogi bet be...

B: Bai aite, baya a baskaiteko eta taloa eite san jeneralmente, taloa, taloa asko eite san. Taloa aspirean eote san, aspirea, bakisu ser dan?

*Ink: Es.*

B: Aspirea da artesa esaten dotziena, da kaxa baten modukoa, kaxa baten modukoa, amen dekos... ate bi eukite eusen da ate bi bean, da goyen kaja bat da tapea. Aspirea etze gustietan. Da aspirean eoten san esnea, ogie olango gausek danak aspirean.

Taloea ein, masea da sertu da ogie be antxe ipinten san, se ogie amasau te gero, esan dotzutena, lebadurea bota erdire ta ure ta... ipini ure ta... ur beroa da gatza da gero amaseu. Gero igurdi ondo. Eskuas igurdi da lelengo olan, gero bueltea emon atzera ta igurdi, denbora askoan igurdi te gero ipini bear ixiten sindun trapu betegas tapaute berotu ditela. Trapue ixin ditela beroa da beroan eon bear seuen arek, beroan. A eiten sindunean yoan bear sindun labea ixetuten, labea ixetu, a inportantea san a be, da labea ixetu ta labeak[sic] ein bear sirean lelengo goye baltzitu da gero, ba noseapeñan egur betegas arek... bean dekos an brasea esaten yakon, areri braseari erein, egurrek atzeratu apur bet, a goye ein bear ixite san suritu da bea erein ondo, se ondo erein esik ogieri aspier etxakon ondo eiten, ondo ein barik eote san. Areri erein ondo-ondo-ondo da egurre, ba, alboratu, da itxi braseagas eiten. Da gero ipiskie esaten geuntzen, ipiskie, ipiskie san palu luse baten puntan trapu bet, trapu bet, ba, estute alanbra bategas edo, da ure artean busti da garbi, garbi eiten da, a erdi garbitu einde daola, erdi eiñean daola, sue, eiten sindusen ogiek. Baya lenao artoa bebai eite san, baya artoa nik estot artorik egundo ein.

SJ: Es? Ba, ogien moduen, igual, igual.

B: Artoak problema geyao eukite eusen, mokolak urteta otzen, nineuk eneuen eiten artoa. Da ogiek ein, formea emon da otzara, otzarea, otzara bat eoten san olan kuadrua bet, da antxe otzaran ipinten san, aspitik trapu betegas da ganetik atzera trapue ta manteagas otzitu estitesan. Da gero eiten sindun (...) labea ya ondo daoela ogiek selan daosen ikusi, ondo badaos labea garbitu, ogie espadao atzera, se esaten yakon lelengo yagie, lelungotan yagie da, ogiek eiten euen au, igon eiten seuen, esta? Da lelengo yagie ori sen. Da gero ogieri formea emon. Bigarren yagien ikusten sindun ogie selan daoen. Ikusten basan ogie apurtxu bet yagite daoela, atzera apur bet altxau te ya labea garbitu eite san, da labea garbitu da gero ogiek eroten sindusen, da palea, pala bat eote san kirtan luse bategas, da antxe bota urun apurtxu bet, araxe, ta ogiek.

Lelengo pamitxek, pamitxea da, ba, taloan antzekoa. Ta lelengo sartzean gindusen orrek, se orrek erakuste eurien labea ondo badao espadao. Bero lar badao, arek arek segun selan erretan direan apur bet kontroletan sindun, da arek atara ta ya ogie sartu.

Da sagar denporan, ogiek atara ta senbapider igual botaten gindun boltza luse bet[sic] sagar ara erretan. An errekoapai gosoak arek. Ta arto denporan arto igerra eiteko...

\*\*\*

SJ: Txarribodea, ba, lenao eutziten yoaten gintzesan, da etze bakotxean, lau etzeti edo bost sikan matarifeatik aparte, ba lau eutziten.

B: Aite, parkatu, baya oin esta... oin gure denporako serean estana akostunbretan. Lenao txarrie il orduko eoten an anise galletakas, es sara akordetan?

SJ: Klaro.

B: Ba, oin selan esaten yako? Piperra edo. Galletakas anise edo seoser eote san, ori iltorduko. Gero gure denporan ya es.

SJ: Moskorriiloagas etzerako asko.

Ink: *Selan eiten san txarrie artu ta...?*

SJ: Maire bota da matarifea ak...

B: Odola artzean, ni ixiten nintzen, gure etzean sikan ni, emen eiten gindun gu, por ejemplo, emeko etzekoak...



SJ: Txarrie... ostikadak San Pedro!

B: Txarriek bildurtuteko modukoak, olango onen tamañoko txarriek, luseak, da ikusi ta estukurea emoteko modukoa.

SJ: Iños eskapeu bebai. Geuri etxakun paseu baya...

### San Juan auzoko hitzuna

Bueno, ni emen yeyo eta asite nao.

Ink: *San Juanen.*

Ementxe etzean.

Ink: *Lengo bisimodue selakoa san?*

Jolin! Lengoa latza. An es egoan ogie oingo moduen, orduen ogie... gariereiten gendun apur bet ogie koitako etzerako, baya gitxi, da artoa.

Ink: *Ogie eiten senduen etzean?*

Bai, ama, ama san labasue eite euena. Ure... ipiñi berotute da gero onenbeste denporan seragas lebadureagas, euki yegiteko berotan da gero garonduten sanean ya, sue einde eote san, ba garbitu ta benga. Igurdi, igurdi ein de ein satitxuek, benga ogiek barrure.

Ink: *Igurditen senbat denpora?*

Uregas masea ein ba, denporea, asko es, ure a fermentauta sanean yegi eiten san, asi, da asiten sanean a igurdi(i)te san. Da gero igurdi eskero, antxe bigun-bigun ein da gero ogiek satitxu bet areri kendu da ogie in. Beste sati bet. Seinbet ogi sati o seinbet ogi, ba, olangoxe satiek. Tremesako eiten gindusen pamitxeak, ba pamitxea lelango yateko, ogie... maseari kendu sati txiki-txikitxu bet eta txikertu taloan moduen, taloan antzeko onango gosoa yateko atoan, me-mea, ba segiduen yateko da tremesa isite san pamitxea, o sea, ke urune, ba, eralgiten sanean ona botateuen, lelangoko ona san baya askenean ya yoaten yakonean ona, ba apurtxu bet latzaoa, ak morenoao urtetan euen, a isite san tremesa. Da lelangotan orrelako ba tremesa be ona da gero ogie. Ogie gitxi eote san, artoa, taloa, morokile.

Ink: *Morokile selan eiten san?*

Morokile oin eiten du. Bueno da goso. Ure irikiten daoela bota urune apurtxu bet eta benga bueltak emon, bueltak emon da gero ekin, plo-plo.

Ink: *Urunegas?*

Urunegas bai.

Ink: *Uruneg bardiñe da ogiena ta morokilena?*

Es, artoana. Oin aye esaten gonten urune, ogien urunegas eiñekoari esaten geunten aye. Ori tostadak eiteko, oin be tostadak onek eiten deus orregas, ori urunegas ein, ba, masea botaten da sabal-sabal olan, da gero tak! eiten deus quadroak eta tostadak, kandelario egunean da, no? Lenaoko kostunbreak, orrek kostunbre onak danak gustaten yakies. Tostadak danak yaten deures gusture.

### Urkizu auzoko hitzuna

Piperrak, ba piperrak erre, gero, gero eroango yosat gora, andreak eingo yosat suritu, suritu au, ganeko dana kendu, ganeko sera au tela au, da suritu, da gero eiten yosat ba latan sartu, latan edo bote orrek, kristalesko boteatan, or sartu ta gero edosein egunetan lagunetas edo etzean edo ba piperrak yan bidirenean edo txorisoakas edo edo arrutzakas edosein gausegas, ba, yan.

Ink: *Konjelau eiten dires?*

Es, konjeleu es, konjeleu barik konserbatan dosak latatan ondo, konjeleu barik, bai.

\*\*\*

Txarrilten yusek urte gustietan ta pillo bat emen.

Ink: *Suk ilten dosu?*

Il nik es baya eutzin bai, il eiten yoan nire kuñatuek ilten yoan. Kutxillue sartzean yoan nire kuñatuek, ba nik eutzin. Da emen urtean ilten yusek, ba, igual sei-sortzi bet txarri edo olan. Ointxe be, emeti emeti estok ikusten, ba axe an goyen daoen etze surie, aren ondoan yekuk an basoan txabola bat ta yaosak lau txarri asten ta yabisek basotik e, solte-solte-solte. Da gero gabonak inguruen, ba il eiten yusek, artzean yosak amalau bat arroa inguru bakotxak, da il.

Txarrilteko selan eiten dan? Bueno, lelango artu bear dok mai bet, maya ixiten dok olan apur bet bajue ta sendoa e, maya sendoa estitela apurtu. Sendoa maye, orduen artzean yuk maye ta yoaten gosak, ba, txarrien ondora. Ipinten yuk an maye da gero lau-bost bat lagun edo olan bajatan yuk txarrie mayen ondora, lauen artean artu anka bakotxati bakotxak, ta bueno lelango ankeati artu orduko txarrilten deuenak gantxoagas txarrieri sereti goatzean yotxek emetik ago aspitik, goatzean yotxek gantxoagas ta orduen goatute dekonean gantxoagas lauen arte[sic] bakotxak anka bakotxeti artu ta mai ganera bota. Da gero mai ganean eutzin ondo, da ondo eutzinde daoenean sartzean yotxek kutxilloa ta odola atara. Ta odola ya baldean odola, ta baldean odola yausten daoela, ba, emon biyakok bueltak eta bueltak eta bueltak odolari, estiten gogortu, ba odola botaten isten deuenen orduen kendu odola ta txarrie eroaten yuk serera, ba apur bet beratxua edo orduen eukiten yuk an aspigarri-eta prepareute ta txarrie erre, txarrierre esaten yakok, ba, ganetik aspigarriegas da suemon ta erre. Ta ori ixiten dok, ba, ganeko lumek, ullea ta dana erretako. Ba, ulleak eta olan ser danak, txarrien ulleak, orrek erretako. Ta erre ta gero eiten yakok atzera mai ganera altxeu ta tripak atara, tripak atara ta gero tripatan dekosan esteak (...), da orrekas eiten dosak morsillak. Ta tripak eta atara orduen eskegiten txarrie goitik, ba polea bategas edo gantxo bategas goyen goiko serean, ba naiko alturen eskegiten txarrie, ta txarrie eoten dok ba otzitu ditzen igual goxean il eskero, gauberarte, da gero gaubean eiten dok atzera bajatu txarrie, txigertu, txigertu esaten yakona ba piesak, danak, saiskiek ta solomo ta pernil ta orretanak kendu ta gero okolea txikitu txorisoak eiteko.

Ink: *Esteak non garbituten dires?*

Esteak errekan, errekan edo garbitu, garbitu ondo. Bai, bai ondiño bebai edo etzean igual, etzean be bardin olan kortan sera euki eskero, ure, ure bastante presiñoan.

## **Elexalde auzoko hitzuna**

Ink: *Se ganadu?*

Guk bei bi, bai, esne beyek, bai se esnea bear ixitesan da. Lelangotan nire sarrak, bueno, nire aititek eta aitepebai gastetan, gero nineure denporan beti bei bi esetu doas, baya aitek eukiteuen emen eote san etze bat emen gure alboan, ori etze nagusie ikusten dosune or, ori, urrunekoa es, urrunguen segiduen daoena, oin esta bisi iñor bes, etze andi beta, or eoten sirean idiek. Orko usabak ekarten situsen idiek da udegoyenean da udebarrien bear iteko, ekarten situsen, argalak, idiek, ta errepartiduten situsen etzeatan, ba bei bapakarrik eukiten situsenari emote otzien idie bearrak eiteko, da gero idie loditute entregetan otzien usabari.

\*\*\*

Ink: *Morsillek selan eiten dires?*

Jo, morsillek-eta. Ekarten da arrosa da egosi iten da arrosa, porruepebai, porrue be, porrue surie, ba piketan dosu ta kinpullea bebai, batzuk kinpullea botaten dotzie beste batzuk es, segun ori norberan serea da au, da, ba, olantxe pikeu te gero ifiñi da gero odola nasteu aixeri, da kuretán deure gatzean enbrak, eurek euren gusture, ta kanela bota botzie bota be geitxuao edo gitxitxuao, nok bere gusture ifiñi, antxe sartzean. Gero egosi, egosi in beadire ba meak... meak morsillek, meak, ba eukiten dire amar miñutu an gitxi gorabera amar miñutu egosten. Da lodiek ordu lauren edo ogei miñutu. Galdorrosteu eitea da ori, galdorrosteu. Ta galdorrosteu ondo eiten esposu, morsille lotzean da odola, ba, serean daoela, ba, odola ondiokarren sertu barik egosi barik, da gero platerara atarakeran iñok esteu gure ixiten.

Ink: *Ser geao eiten san?*

Txorisoak eta pernilek, pernilek batzuk. Guk atzenengo orduan, nik urtean bi ilten ixin dodas, baya neuretzako dana txoriso, bai, dana txoriso, se pernilek, nik ifiñite ondo dekot gatza emotekoa, sementoagas dao ondo einde da barrutik asulejoakas gause garbie, esta?, baya kuretán yakin in beadeu, ba pernilek yakin beada kuretán, da batzutan ondo urteten otzen gure andreari bebai, baya beste batzutan es, ta esan euen ‘enoa geyao pernilik isten’, ‘bueno, sukure dosune ein’. Ta geao pernilik estu isterik, danak igerreak... o sea ke pernilek igerrea dekona les yakin ta txorisoak eiteko, dana txorisoa ein, olantxe.

\*\*\*

Au makinea, beyekas nai idiekas, bai se oneik andiaoak ta txikerraoak eote sirean. Idientzako andie ohea da se geyao koiten deu, terreno geyao koiten deu te. Beyentzako txikerraoak eoten sirean, serokoak, uno bebai, dos bebai, bueno norberak gure deuen klasea.

Ink: *Selan eiten san sartzeako...?*

Emen dao medidea, au, ikusten dosu emen? Onek, onek aginek, onek aginetire, onek engranean moduen ori eurrerao bota edo atzerao ekarri au edo bajatu, au puntea, edo bajatu edo igon. Edo igon eiten da, estosu aiten? Onetire kutxillek, onek, onek ebagiten deure lurre ta gero onek bueltea. Ta gradetako auxe da ta au buelta eiteko, sakatu emen emeti urteten deu orrek engantxeak ta buelta bestera botateko. O sea ke bat arantza ser filo bat, ta gero bestea onantza, estosu aiten? Olantxe. Au lenaoko kontue da, bai, baya au baño beste bat egoan sarraoa, guk sarraoa euki gindun, au erruedea barik emetik emetik asi de eotesan beyekartiño, ba, sera, kama bat, kama bat beyeri engantxetako, da au, au eitesan atzetik gieu noberak, ba, beyek deskuidoan apur bet alboratu eiten botzuen, norberak, es? Illadea obeto eroateko, estosu aiten?, obetu dobleu ditén lurre. Oin, onik besteatire askos be fasilaoak bear iteko, onekas norberak norberak ein bear bear geyao oneikas, bai. Onik, oneik luse deukie onik, au geroatxuao etorri dira, baya lenaotakoak au onik es eukien erruedarik eta es eukien esebes, esebes segiduen orraxe. Onek kanbieu eiteko, eiten seuntzen kanbio, ta bestekaldetik, ba, engantxea eukiteuriena les, oneri engantxetako, ba, arantza ein bitzesun orduen ala bestera engantxea paseu ta ya esta, olantxe.

Layek, layek. Layetan ona ixin nintzen ni, layetan.

Ink: *Senbet jente?*

Segun, en jeneral laugas, laugas eiñeskero, illadea polite eroaten san. Laugas igual metro t’erdi sabaleri eroaten sindun buelta eiten lurreri. Lenao lenaoko usoan makinarik

esegoan, onxeagas bueltaten san, layek, onekas. Au, au sasi atxurre da, au au es, onik estire, emen es egoasan orduen. Onik es, bestepai. Onik botaten dosus, agarreu sen, au te au dire parejea, esta? Layek. Altxetan dosus gora onepiek, parean ifiñi, ifiñi parean ta parean yoten bosus bean arean lotzean yatzus, da gero erain eskuakas berantza inderra einde, da gero kdarakas alboratu orduen, barrurantza ankakas sakatu da gero batera buelta eitean siren, danak koiten gindun martxea, martxea ta en jeneral nik andreagas eiten neuen, eiten neuen eskondu orduko, ba, aitegas edo amagas edo, olantxe.

### Solaguren auzoko hiztunak

B: Onek? Areak, lenaoko areak. Bai, lenaoko areak, gixona! Or... euko dosak emen ainbaten.

A: Ai onetikoak, oin bai, bai areak, bai, bai areak, oin bai, oin bai.

B: Lenaokoak.

A: Bai areak, bai, areak, oin bai, oin bai, ikusten yoat.

Ink: *Baya orrek setako sirean?*

A: Onek? Soloan bedarra batzeako.

B: Da gia eiteko bebai.

A: Gia.

B: Onek, onek eiten yerek... bedarra batu.

A: Onek atrasu dosak.

B: Atrasuek baya lenao eitekoak geu.

A: Bai, lenao etxabiun besterik eta.

Ink: *Baya suk esetu dosu esta?*

A: Nipai. Onbre!!

Ink: *Ta ibili beragas bebai?*

A: Baite, ganean be, ganean be. Beyek eurrean emeti, katea ta, aik tiritu. Beyek.

B: Beyek edo idiek edo.

A: Lo ke sea.

Ink: *Eta gero, su goyen edo selan?*

A: Ni goyen bebai, gu onexen ganean, trabes ganean bebai.

B: Edo arri bet edo iminite.

A: Ganean; norberak ipini te agarreu emendi ankati.

Ink: *Ta au beyekas eiten san.*

B: Se erremedio!

A: Bai beyekas edo idiek edo.

B: Eoten sana.

\*\*\*

A: Gure amak erderarik etxoan yakin, gero ikisi yoan apur bet sarsaroan, asike kontue ataraik. Orrek (...) gure neskatoa, atzo emen eon sana, llobea, atxakisek onango geusek. Ak esango yosan. Arek yakisek euskeras, erderas. Bueno da ademas oin euskerea kanbieute dao[sic] dana ta. Oin eiten deuren euskerea nik asko etxoat aitu be eiten. Aitu bes.

Ink: *Telebisiñoa ta ikusten dosue euskeras es?*

A: Bai.

Ink: *Ta aituteko ondo?*

A: Bai. Aitu danak es ondo, danak es. Danak etxosat aituten. Niri bakik sein gustetan... Goenkale, Goenkale. Aquello me gusta ver.

Ink: *Obeto esta?*

A: Es, arean obeto baya or be kanbieute yak apur bet. Mas aitu, gipuskoarrak baya a ikustea gustetan yatak niri.

\*\*\*

Ink: *Au burdie da; burdien parteak yakin gure dotes.*

B: Kamea, burdien kamea.

A: Kartolak.

B: Kartolak.

A: Au bestea errudea.

B: Da bursile.

Ink: *Bursile sein de?*

B: Erdiko sera, ejea.

Ink: *Ta frenorik baeuken?*

B: Bai.

A: Onek? Onek? Batzupai, baya danak es. Emen bai, emen bai.

B: Frenue atzean eukiten yoan baya onek etxekok.

A: Baya segun lisun esoan eroan bear. Orretire basoti te alde orretati ta ekarteko, emen seraginen es. En llano no se andaba eso.

Ink: *Setako ibiltan san?*

A: Au? Ba, bedarra ta ekarteko, satzak atara ta bota din. Bedarrak ekarri te...

B: dea ta.

A: Idea ta, jo!

Ink: *Beyekas, kaballoakas edo selan?*

B: Beyekas, beyekas.

A: Beyekas, beyekas, emen kaballorik es.

B: Olan busturrien pareu te (...) sartu kamea erdien ta listo.

Ink: *Onek kentzean sirean esta?*

A: Bai, bai onek kendu te ipini eiten dosak. (...)

B: Bedarra ta kentzean yake.

A: Suloak dekos onek sartu diten.

B: Ta kendu bear bok, kendu.

A: Klaro, bear bok, kendu, (...)

B: Idietarako edo lo ke sea.

(...)

A: Layek, layek dosak onek.

Ink: *Ibili dosue?*

A: Bai. Iños ibili dus, sarri es baya.

Ink: *Ta au selan eiten san?*

A: Layek onetara.

B: Onelaxe, sartu te ankakas ein onantza ta ras! Sartu ta gero blas!

Ink: *Filan ,es?*

A: Filan, filan.

B: Ba, klaro, emen bat, emen persona bat, emen besto bat, or besto bat.

A: Sei igual, sei igual.

B: Sei, saspi, bost, lau, iru, bi bat.

Ink: *Au estakit ser dan.*

A: Au, ostias! Garie garbitako makinea dok. Au trilladora, trilladorea edo garie garbitako makinea.

B: Trilladora lenaokoa.

A: Garie yoteko?

B: Garie yoteko trilladora, lenaokoa, del año txopera.

A: Aber, aber.

B: (...) Trilladora lenaokoa. Kastillan eote soasan lenao.

Ink: *Setako da?*

B: Garie yoteko.

A: Garie, pegar trigo. Trigo ya sabes?

Ink: *Bai, bai. Len arriekas esan eiten ori?*

A: Arrien bebai, arrien bebai.

B: Arrien, baya arrien barik gero urten yeurien orrek.

A: Gero, gero urten yeurien orrek, gero obeak. Lelango arriek.

### Gezala auzoko hiztuna

Lemoa sementoak artzean deu dana. Oin estait, baya len esateurien... gure primoan lengusin bet bisi de an Lemoan, da armario erroperuape ipini trajeak eta autzegas, o sea ke... Oin fabrikea dana da, Igorren be esan eon esebes serrea baño, oin dekosu dana; bakisu se fabrike daoen Igorren? Bata dekosu Urkusun, Tarabusi, ementxe Firestone, paradan bajatu saran lekuen dao besto bat da gero errebueltan an be badekosu andi bet, gero bertan... klaro, kotxeak len bapes esan eon, len es. Or atzean errebueltan esaten dotzune, or fabriken eon san serrea. Or serrea orrexen aitena, orrexen mutilen aitena, aite ta anayak, o sea ke sirean lau anai, iru-lau anai, aikurien [aik euki eurien], aitetxuk mutilegas, gero berak imiñi euen ta ondo urten dotzo orreri mutil orreri, bear in deu.

Emeti gero dao... Dimen dekosu serra bat, Siorostan, nire gixonan sera da, serrea dao eskerretara goasela lelango etzea eskerretakoa nire gixonana.

\*\*\*

Bilbora yoateko atara oskun pase bat, da, klaro, paseak espotzun piketan interbentoreak yoaten gintzesan ille gustien, interbentoreak pikau eskero, adios, da askok interbentorek kasuripes ez oskun eiten da beste batzuk apurtxu bet asaldu tak! Pikeu, ya esoskun balio beste ille baterako, da pagau in bear. Len be pagaten san billete erditan pagaten san e.

Ink: *Nos kendu eurien tranbie?*

A ya urte asko da. Ni enas akordetan.

Ink: *Nondi yoaten san?*

Orixe kamiñoa, soloa, kamiñoan... soloan ondo-ondo-ondoantxe. Ortxe senderoa. Kamiñoa emen dao, bueno len kamiñoa onaoa san da ya biek yoan siren ortik.

\*\*\*

Ink: *Selan eiten eurien, txarrie artu eta?*

Mai ganean. Estosu txarrie ilten egundo ikusi? Bai mai ganean artu txarrie lau-bost gixonak edo segun selango txarrie il dosun. Etzun eiteurien mai ganean, anketati artzean otzien, lau artean edo, gantxoia sartu samati olan. Dana sartzean otzien, da sartzean otzien kutxilloa tas! Da ya esta, kutxilloa samati. Odola gero ixikoak buelta-buelta-bueltaka, gogortu eiten da, olan. Gero esteak garbitu bear, errekarra. Esteak garbitu iten san[sic] da gero masea ein.

Ink: *Masea selan eiten san?*

Arrosa, koipea txarriena eta kanelea bota apurtxu bet eta gero koipea berenagas.

Ink: *Ta kinpullea?*

Geuk... etxakun gustau kinpullea baya porruetas bai, da prejile botate otzien baya beste lekutan kinpullea bebai botate otzien segun selango... cada maestrillo tiene su librillo, estakisu?

Ink: *Ta esteak garbitu errekan.*

Gurean, gupai. Emen bai, auso danok errekarra etorten siren. Gero esteak garbituten sirean ondo binagreagas, gatzagas, da garbituten san estea da gero ebaten san tamañuen da enbudoak sartuten yakosan, amarrau kordeagas, galdara andi bet ipiñi suen. Baldea, galdarea, galdarasarra, ba, ipiñi surten da laratzuti eskegite da ure irikiten danean morsillek itxiten sirean egosten an. Eote san pil-pil-piliten sanean igerten yakon, atarate san ta orratza sartzean otzien.

Ink: *Txorisoak eiteko?*

Gero gatza emon da irugarren egunean edo, segun. Gero odolosteak eskegite kordelakas. Ori ikusi dosu ondo kordelakas imiñite. Da gurean fijau sara? Badaos sutean, fijau sara? Ointxe be badaos sutean eskegite.

Ink: *Gatza selan emoten yako?*

Batzuk mayen sabalten deurie okolea, da gatza bota da errebolbidu ondo.

Ink: *Uretan?*

Es, baldean, se urik esteu bear, lastana. Okoleak es, ure kendu iten da, baldea eukiten da olan apurtxu bet okertute da aititetekeo trapu garbi bet edo bi ure yausten yakona txupau yakon, gero txorisoak eroan deuen tantakada gitxiao isteko.

Ink: *Da pernilek?*

Pernilek edo orrek gatza artun, eukin diesen egunek an gatzatute da au garbi-garbi einde, guk lenao errekarra eroaten gindusen gatza kentzean.

\*\*\*

Ink: *Lelengo ser pasetan san ortuen?*

Segun ser dan, makinean bagabis, makinea ibili, gero atxurtu te gero au sera, ixena ser dekon onepa, area da au, areak, areak pasaten gindusen.

Ink: *Baya lelengo ser pasetan san makinea edo suk esan dosune etze ostean dekogune edo area?*

Es area, area, bakisu segaitik? Lurre sertu diten, apurtuten, lelengo atxurtu iten gindun, makinea paseu te gero atxurtu iten gindun, mokilek lotzean dires ta, estakisu? Atxurtu da gero area paseu da gero girigillea edo beste itillea, itillea da andie ta beste espesien bat atzean mangu bi dires.

Ink: *Au be beyekas?*

Dana beyekas.

Ink: *Oneri selan geituten yako, setako san?*

Au agarratako geuk, dominetako edo, ganera pareute bebai agarraten gindun, agarreute gu.

Ink: *Ta besteak, ortzak?*

Ortzak, ortzak, bai. Onek ortzak. Ortzakas kontus, sangoa sapalduskero adios.

Ink: *Sakontasune neurtuteko?*

Bai, bai, beronek euko deu... ara! Onek beronek euko deu makinea... au de lurrebateko; estosu ikusten? Onek burruin onek lelengo ebai iten deu, ta au... makinea deko atzetik, onek ebai, amen au agarrateko, estosu ikusten? Buelta emon oneri, oneri, au sapaldu da emen sertzean geuntzen. Erruda bi bakarritekos onek. Onek erruda bi amen, amen, orrexeri sapaldu, orrexeri sapaldu atzetik, sapaldu beraño ta ordun eingo dotzu bueltea ostantzean buelta emoten yako orregas, onek bueltea emoten deu, onek makina onek, buelta emoteko jiratorioa beronek deko ortxe sapaldute.

Ink: *Beyek bakarrik ibilten sirean?*

Gurean bai, gurean beyepakarrik ibilten sirean bakarrik, bueno, bat atzean dala esaten notzen: Pinta buelta! Taka! Ensegida. Su, gure ama... aite yoanda dao orti errekan bestekalderdien beyekas or barrio batera da aite ixikoagas berbas, erromaletik beye... ta amak esan: Pinta, nora oa mamalea ortik sear? Erdu etzera! Ra! Le hizo da errekatik amagana yoan san. Beyek! Estakisu? Asite eukiten gindun txikiterik, egie da, parre iten dosu?

Ink: *Orduen etzean asite txikiterik ta ya...*

Bueno, es, esan gure dotzut etzean yayota txala, esan gure dot, asi txikiterik etzean norbera les, personea les entenietan deurie gure moduen, ser pentzetan dosu suk? Txakurrek esteure enteniten? Ba, beyepebai.

Ink: *Ser esaten yako beyeri gelditako edo yoateko edo etorteko?*

O!

Ink: *Setako?*

Ba, O! lotu ditén, ta Tira! yoan ditén. O! Pinta! Ta ra!

Ink: *Ta eskerrera edo eskoyara...?*

Ba esan eiten seuntzen, paluegas apurtxu bet yo edo eiten sindun, benga ara yoan eta yoaten sirean, anda! Ikisi in bear, orretako ikisi in bear, barre eiten dosu?

## **Olabarri auzoko hiztuna**

Ink: *Suk itanos nogas eiten dosu?*

Nogas? Geyenetan, len oitute, ba, anai gasteagoakas, sarragoakas normalean es, da etxakiat, ba, buruen ser eukiten doken barruen, baya persona onan edadekoari bes normalean, da ori apur bet galdu dok ori, es? Baya medikue dala, bestea dala, olan apurtxu bet jente entre parentesis kategoriakoa, orreri bes. Lenao beintzet, ta oin gero ta geao, gero ta geao, ya isin al dok obispoa, isin al litzakek... bueno nik osbispoagas etxoat iten barbarik, baya osteantzean edoseñeri itano.

Ink: *Semealabari?*

Es, es.

Ink: *Semeari bai edo alabari es?*

Es, ñori bes. Aber, eske etxakiat selan eiten dotzieten emen ta. Es, es. Igual esaldi sueltuen bat: 'Etorri ai ona!' edo dana dala, baya ostantzean es.

Ink: *Eta suri gurasoak eiten otzuen itanos?*

Enok gogoratzen lar ondo, baye igual bai eh, igual bai, igual bai, etxakiat.

Ink: *Eta andraskoari iten dotzesu itanos?*



Es, etxakiat eta!

Ink: *Estakisu?*

Es, andraskoari eiten es, se andraskoak bakik, ba, “etorri aiñe ona!” ta etxakiat ser, etxakiat. Egundo etxoat aitu.. etxoat erabili andraskoan... egundo. Ba, andraskoan itanoa-eta es, es. Andrari es.

Ink: *Ta estosu entzun? Eurek eiten daurie?*

Eurek eiten... ba batzuk... emen Igorren asko es. Igorren jente askok etxok eiten itano, andraskoakaitik diñot. Batan batek ein lleikek, ba nire arrabeape eiten yok itano baya noseapeñean, estakik? Ba, esaldi bet itano ta gero bestea normal.

Ink: *Ta berori ein dotzesu iñori?*

Ba lenao, bai. Abadeari-te, abadeari te etxakiat nik, enok gogoratzen lar baya medikueri igual... etxoat pentzetan; abadeari. Ta persona onan edadekoari-te, es. Eite soan eh! Eite soan, jentea onan... aiteri bai, iños entzun yoat nik berori esaten, semeak aiteri berori ya edade bategas.

Ink: *Eta gaur egun egiten dotzesu iñori? Abadeari?*

Es, gaur iñori bes. Berori? Me kaguen la letxe!

Ink: *Iñopestau eiten?*

Es, etxoat entzun, ori, berori, ointxe... ogetamar urteokas etxoat entzun berori.

Ink: *Eta andrak gaur egun abadeari?*

Ba ori be estok fasil entzuten. Nos entzuten dok andra bategas e... ori? Baya es, es, es, ke ba!

Ink: *Lengo egunean aistu yatan preguntatea ia animalieri selan eiten dotzesun, itanos, normal?*

Bapes, kar-kar-kar...

Ink: *Txakurreri?*

Itanos normalmente, bai.

Ink: *Bardin arra sein emea isen?*

A bai, bai, bai, begitu bes arra bada edo emea bada, yakin bes.

Ink: *Itanoa, gisioneskoana.*

Bai, gisioneskoana.

Ink: *Ta bei bateri?*

Bai, bai, bai...

